

ORIO

HISTORIAN ZEHAR

Marta Trutxuelo García

Orio, 2003ko iraila

Egilea: Marta Trutxuelo García

Azala: Maddi Trutxuelo García

Lege gordailua: SS – 1045/03

1994 eta 1996 artean egindako ikerlana

Hizkuntz zuzenketa: Miren Etxeberria Guridi

© Orioko Udala

AURKIBIDEA

SARRERA	11
ESKER ONA	13
LABURDURAK	15
I. ATALA. ORIOKO GEOGRAFIA	17
I. Herriaren kokapen geografikoa: koordenatuak eta mugak.....	17
II. Ezaugarri topografikoak.....	17
III. Eguraldiaren bereizgarriak.....	19
IV. Azterketa geologikoa.....	19
1. Lehenengo Aroa: Paleozoikoa	
2. Bigarren Aroa: Mesozoikoa	
3. Hirugarren Aroa: Zenoikoa	
4. Laugarren Aroa: Antropozoikoa	
V. Natur baliabideak.....	21
VI. Orioko geografia historiaren ikuspegitik.....	22
II. ATALA. ORIOKO BILAKAERA HISTORIKOAREN OINARRIAK:	
ANTZINAROTIK HERRIAREN SORRERA ARTE	25
I. Historiaurrea: herria sortu aurrekoak.....	25
1. Historiaurrea eta antzinarioa	
1.1. Altxerri garaiko oinarriak	
1.2. Erromatarren eragina,	
2. Erdi Aroa	
2.1. Normandoen erasoak	
2.2. Monasterioen eragina	
2.3. Merkataritzaren bultzada	
2.4. Donostiaren sorreraren garrantzia	
II. Herriaren fundazioa. Azpiegituren eraketa: Orioko Hiri-Gutuna.....	29
1. Hiribilduen sortze prozesua	
2. Orioren sorrera: Hiri-Gutuna	
2.1. Herri ekimenaren garrantzia	
2.2. Leku pribilegiatu baten eraketa	
2.3. Ekonomia eta merkataritza izaera	
III. ATALA. EKONOMIA: ORIOTARREN JARDUEREN BILAKAERA	33
I. Itsasoarekin lotutako jardueren nagusitasuna (XV. mendetik XVI. mende bukaera arte).....	33
1. Egitura ekonomikoaren aldaketa	
1.1. Merkataritza, eskaera eta eskaintzaren inguruko aldaketak	
1.2. Ipar Europa, Gaztela eta Gipuzkoaren arteko loturak	
1.3. Gipuzkoa eta Bizkaia	
2. Orioko jardueren ekonomikoaren garapena: bultzada	
2.1. Nekazaritzaren eskasia	
2.2. Merkataritza: burdinaren inguruko garapena	
2.3. Arrantzaren inguruko jardueren nagusitasuna	
2.4. Ontzigtzaren igoera	

II. Itsasoaren inguruko jarduera ekonomikoaren krisialditik, nekazaritzan oinarritutako susperraldira (XVI. mende bukaeratik XVIII. mende erdira arte).....	58
1. Itsasoarekin lotutako jardueren krisialdia (1580-1625)	
1.1. Krisialdiaren funtsezko gakoak	
1.2. Merkataritzaren krisialdia	
1.3. Arrantza: alturako eta baxurako arazoak	
1.4. Ontzigintza: produkzioaren jaitsialdia eta portua konpontzeko ahaleginak	
1.5. Nekazaritza: aldaketa ekonomikoaren lehenengo aztarnak	
2. Nekazaritza: krisialdiaren irtenbidea (1625-1726)	
2.1. Nekazaritzaren bilakaera	
2.2. Arrantzaren susperraldia: Galizia eta Asturias	
2.3. Ontzigintzaren garapena: Erret Ontziolaren garrantzia	
2.4. Merkataritza eta gatazka politikoak	
III. Erregimen zaharretik industrializaziora (1760ko hamarkadatik XX. mende hasiera arte).....	79
1. Gertaera garrantzitsuak	
2. Nekazaritzaren gainbehera	
2.1. Nekazaritzaren egoera: lurren sailkapena eta probetxamendua	
2.2. Lanberritze prozesuarekin jarraitzeko azken ahaleginak	
2.3. Lur propioen salmentak	
3. Arrantza: industrializazioaren eragina	
3.1. Bale arrantza: behin behineko jarduera	
3.2. Baxura eta itsasbazterreko arrantzaren bultzada	
4. Ontzigintzaren bultzada	
4.1. Kabotajeko komertzioaren eragina	
4.2. Ontzigintzaren susperraldia	
4.3. Industrializazioaren eragina ontzigintzan	
5. Merkataritza jardueren iraupena	
5.1. Burdinaren inguruko kabotaje komertzioa	
5.2. Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarraren azken bultzadak	
5.3. Merkataritzaren norabide berria: industrializazioaren eragina	
6. Industrializazioa: Orioko ekonomiaren bilakaera	
6.1. Lehenengo lantegiak	
6.2. Ontzigintzaren eta arrantzaren arteko harremanak	
6.3. Industrializazioaren bilakaera	
IV. ATALA. UDAL GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKETA.....	97
I. Hiribilduaren sorrera: Orioko Hiri-Gutuna (1379).....	97
1. Hiribilduen sorrera	
2. Orioren fundazioa	
3. Oriori emandako pribilegioak	
4. Itsasadarraren jurisdizioa: auziak	
4.1. Aiako Unibertsitatearen kontrako auzia	
4.2. Don Antonio de Idiakezen kontrako auzia	
4.3. Orreagako monasterioaren kontrako auzia	
II. Gobernuaren antolaketa arautegia izan aurretik.....	101
1. XVI. mendera arteko antolaketa	
2. XVI. mendetik aurrerako antolaketa	
2.1. Lehen ezberdintasunak: auzotasuna	
2.2. Ordezkaritza politikoaren murrizketa	
3. Ofizialak aukeratzeko hauteskunde sistema	
4. Kontzejuko ofizialak eta haien betebeharrak	
III. Orioko Kontzejuaren arautegia. Udal politikaren egitura: Ordenantzak.....	105
1. Lege juridikoen esparrua: Koroa eta Probintzia,	
2. Orioko Ordenantzak	
2.1. Arautegia egiteko arrazoiak	

2.2. Ordenantzen eskema orokorra	
IV. Kontzejuko ofizialak aukeratzeko hauteskundeak (XVI-XIX mende bitartean).....	107
1. Hauteskundeen oinarria: karguak berritzeko asmoa	
2. Hauteskunde egunak	
3. Hauteskunderi buruzko iturriak	
4. Gipuzkoako udalen hautaketa sistemak	
5. Hauteskundeak egiteko deialdia eta biltzarra	
6. Kontzejuko baldintzak eta kontrolak. Hautagaiak eta hautesleak	
6.1. Baldintzak: kaparetasuna eta jabetzak	
6.2. Batzarrean egoteko obligazioa	
6.3. Baldintza kulturalak	
6.4. Bateriaezintasunak	
7. Orioko hauteskunde sistema (XVI-XIX mendeetan)	
7.1. Hauteskundeen arteko berdintasunak: izendatze zuzena eta zozketa	
7.2. Hauteskunde ereduak	
7.3. Ofizio batean aritu ondoren, berriro hautatua izateko denbora mugak	
7.4. Kargu berrien zin-egitea	
7.5. Ofizialen ausentziak	
7.6. Ofizialen presentzia batzarretan	
7.7. Ofizialen kaudimen betebeharra	
V. Udal gobernuaren aginpideak: Kontzeju Nagusia, Erregimentua eta ofizialak.....	115
1. Kontzeju Nagusia,	
1.1. Batzarretako prokuradoreak	
1.2. Andatzabeako batzarra	
2. Erregimentua	
2.1. Zereginak	
2.2. Kontzeju Nagusiarekiko menpekotasuna	
2.3. Elizarekin eta Kofradiarekiko harremanak	
3. Gobernuko ofizialak	
3.1. Alkateak: gobernu buru	
3.2. Erregidoreak: udal haziendaren arduradunak	
3.3. Sindikoa eta diputatuak	
3.4. Eskribaua: gobernu jardueren legezko indarra	
3.5. Maiordomoa: kontuen arduraduna	
3.6. Prokuradore sindikoa: herriaren pribilegioen babeslea	
3.7. Basozaina: lur eta baso ondasunen babeslea	
3.8. Juradoa edo probestua: herriaren ordena publikoaren zaindaria	
3.9. Gainontzeko karguak	
4. Udal gobernuaren antolaketaren bilakaera XIX. mendean	
VI. Udal haziendaren antolaketa.....	126
1. Udal haziendaren menpetasunak	
2. Orioko Udalaren sarrera ekonomikoak eta biltzeko modua	
2.1. Errentak: ondasun propioak	
2.2. Salmentak: egurra	
2.3. Zergak: arbitrioak eta sisak	
3. Orioko Udalaren gastuak	
3.1. Soldatak	
3.2. Maileguen interesak	
3.3. Elizaren festak eta limosnak	
3.4. Bideak konpontzeko gastuak	
3.5. Zuhaitz landaketak	
3.6. Bestelako gastuak	
3.7. Alkabala eta donatiboak	
4. Orioko Udalaren zorren nondik norakoak	
5. Udal ondasun eta propioen salmentak	

- 5.1. Lur salmentak (1808-1814)
- 5.2. Eraikin salmentak (1808-1814)
- 5.3. Ordainketa modua (1808-1814)
- 5.4. Erosleak (1808-1814)

V. ATALA. ORIO ETA ORIOTARRAK: BIZTANLERIAREN

ANTOLAKETA ETA BILAKAERA DEMOGRAFIKOA.....143

- I. Orioko biztanleriaren antolaketa.....143
 - 1. Orioko Herriaren ezberdintasuna: auzotasuna
 - 1.1. Herritarrak eta biztanleak
 - 1.2. Herriaren ongizatea
 - 2. Elizaren antolaketa: "Parrokiartasuna"
 - 3. Jarduera ekonomikoen inguruko elkartasuna: Kofradia
 - 3.1. Kofradiaren kideak
 - 3.2. Kofradiakideen betebeharrak
 - 3.3. Kofradiaren antolaketa: arautegiak
 - 3.4. Diru arduraduna: maiordomoa
 - 3.5. Kofradiaren jardueren esparrua
 - 3.6. Beste erakunderekiko harremanak: Eliza eta Kontzejua
 - 4. Emakume eta gizonezkoen arteko desberdintasuna
 - 4.1. Emakumeak gobernuan
 - 4.2. Emakumeen garrantzia ekonomian
 - 4.3. Emakumeen eragina elizan
 - 5. Zenbait oriotarren onegintza ekimenak
- II. Populazioaren bilakaera demografikoa.....161
 - 1. Iturriak
 - 2. Aldagai demografikoen ezaugarriak
 - 3. Hazkuntza demografikoa (1379-1580)
 - 3.1. Populazioaren bilakaera
 - 3.2. Heriotza-tasa
 - 3.3. Emigrazioa: Ternuako bidaiak
 - 4. Krisialdi demografikoa (1580-1625)
 - 4.1. Jaiotza-tasaren jaitsiera
 - 4.2. Heriotza-tasaren igoera
 - 4.3. Ezkontza: arrantzaren eragina
 - 4.4. Emigrazioa
 - 5. Susperraldi demografikoa: "Artoaren iraultza" (1625-1760)
 - 5.1. Jaiotza-tasaren igoera
 - 5.2. Heriotza-tasa
 - 5.3. Emigrazioa: joera baten finkapena
 - 5.4. Ezkontza: nekazaritzako eta itsas jardueren eragina
 - 6. Krisialdia: emigrazioaren nagusitasuna (1760-1815)
 - 6.1. Jaiotza
 - 6.2. Heriotza
 - 6.3. Emigrazioa
 - 6.4. Ezkontza
 - 7. Eredua demografiko berria (1815-1900)
 - 7.1. Jaiotza: hazkuntza
 - 7.2. Heriotza: gerrak
 - 7.3. Emigrazioa
 - 7.4. Ezkontza

VI. ATALA. ORIO ETA ERLIJIOA: BIZIMODU BATEN OINARRIA.....187

- I. Biztanleriaren oinarritzko elkartasuna.....187
- II. Orioko San Nicolas de Bari eliza.....187

1. Patroitza eskubidea: Bulda	
2. Eliz-Batzarraren kideak: apaizak	
2.1. Postuak betetzeko baldintzak	
2.2. Patroien aurkezteko eta hautatzeko eskubidea	
2.3. Bikarioa	
2.4. Apaizak: zereginak eta bizimodua	
2.5. Sakristaua edo kaperaua	
2.6. Gainontzekoak: serorak eta maiordomoa	
3. Apaizen diru iturria: hamarrena, primizia eta meza-diruak	
3.1. Zergak: hamarrena eta primizia	
3.2. Meza-diruak	
4. Kontzejuarekiko harremanak	
4.1. Eliz-forua: Elizaren askatasuna	
4.2. Elizaren betebeharrak: irakaskuntza eta agindu zibilen irakurketa	
4.3. Eliza eta Kontzejuaren arteko auziak	
5. Eliz-Batzarren arautegia	
5.1. 1502. urteko Bulda	
5.2. 1604. urteko konstituzioak	
5.3. 1755. urteko Konkordia	
III. Erljioaren inguruko beste erakundeak.....	201
1. Ermitak: San Martin eta San Juan	
2. Ospitala	
3. Trinitarioen Monasterioa	
4. Errosarioen Andra Mariren Kofradia	
5. Gatibuen Askatasuneako Kofradia	
VII. ATALA. ORIOKO HIRIGINTZARI BURUZKO EZAUGARRIAK.....	207
I. Hirigintza hazkundera.....	207
II. Orioko eraikinak eta kaleak.....	209
1. San Nicolas de Bari eliza	
1.1. Eraikuntza lanak	
1.2. Elizaren ezaugarriak: trazadura	
1.3. Eliza barneko dekorazioa	
2. Alde Zaharreko kaleak, etxeak eta ermitak	
3. Baserriak	
III. Bideak.....	224
IV. Portuko azpiegitura.....	225
VIII. ATALA. ORIO ETA ORIOTARREN IZAERA. KULTUR AGERPIDEAK.....	235
I. Osasunbideak.....	235
1. Medikua	
2. Zirujaua eta bizargilea	
3. Herrian osasuna mantentzeko bestelako neurriak	
4. Herria garbi mantentzeko neurriak	
II. Onegintza.....	237
III. Irakaskuntza.....	238
IV. Festak eta ospakizunak.....	239
V. Hizkuntza: euskara.....	240
VI. Arrauna: lanbide izatetik kirol izatera.....	241
VII. Oriotarrak kulturaren.....	243
ONDORIOAK.....	245
ITURRIAK.....	249
BIBLIOGRAFIA.....	261

ERANSKINAK	269
I. Burdin esportazioa Orioko hamarrenaren eroldaren arabera (1294).....	269
II. Orioko Hiri-gutuna (1379).....	271
III. Itsasadar pasaietako pribilegioa (1484).....	273
IV. Alejandro VI.ak Orioko parrokiarrei emandako Bula (1502).....	277
V. Orioko portutik atera edo sartutako gaiei ezarritako sisak: Arantzela (1574).....	281
VI. Orioko herriak burdinarekiko zergak kobratzen zituen ofiziala izendatzeari uko egin eta Probintziaren eskutan utzi zueneko agiria (1601).....	285
VII. Orioko Eliz-Batzarraren Konstituzioak (1604).....	287
VIII. Orioko Udal Ordenantzak (1607).....	293
IX. Felipe III.ak egindako arbitrioen kontzesioa Orioko barra eraikitzeke (1612).....	311
X. Orioko portuko hobekuntza lanetara zuzendutako arbitrio batzuen kopurua: Arantzela (1613).....	313
XI. San Pedro Kofradiaren Konstituzioak (1621).....	315
XII. San Pedro Kofradiaren Konstituzioak (1714).....	319
XIII. Eliz-Batzarra, Kontzejua eta Kofradiaren arteko Konkordia (1755).....	327
XIV. Juan Antonio de Makazaga apaizak portua eraikitzen laguntzeko Orioko Udalari egindako proposamena (1889).....	337
TAULAK	
I. Orioko ontziolako produkzioa (XVI. mendea).....	53
II. Orioko ontziak (XVI. mendea).....	55
III. Arrantza bidaien pleit kopuruak (1575-1625).....	63
IV. Erret ontzian oriotarren partaidetza.....	75
V. Orioko nekazal probetxamendua.....	82
VI. Orion landutako lurren sailkapena.....	82
VII. Bigarren mailako lurren landaketa.....	82
VIII. Hirugarren mailako lurren landatze orokorra.....	83
IX. Hirugarren mailako lurak: lur hareatsuetan.....	83
X. Hirugarren mailako lurak: kalitate ertainekoak.....	84
XI. Hirugarren mailako lurak: kalitate txikiko lurak.....	84
XII. Orioko ontzigintzaren produkzioa: 1760-1876.....	91
XIII. Udal hazienda: sarrera ekonomikoak: ondasun propioen errentak (1798).....	137
XIV. Udal hazienda: gastuak (1798).....	138
XV. Ondasun propioen salmentak (1808-1814).....	139
XVI. Ondasun propioen salmentak: lursailak.....	140
XVII. Ondasun propioen salmentak: eraikinak.....	140
XVIII. Ondasun propioen salmentak: ordainketa modua.....	141
XIX. Eraikin erosleak.....	141
XX. Lursail erosleak.....	142
XXI. Arrantzaleen San Pedro Kofradiako maiordomoak (XVI-XIX. mende bitartekoak).....	150-151
XXII. Orioko biztanleriaren bilakaera orokorra.....	162
XXIII. Jaiotza, heriotza eta ezkontza-tasak (XVI-XVII. mende bitartekoak).....	163
XXIV. Orioko biztanleria (1768).....	176
XXV. Orioko biztanleria (1787).....	177
XXVI. Gizonezko tasa orokorra.....	179
XXVII. Gizonezko tasa (16-50 urte bitartekoak).....	179
XXVIII. Ezkongabeen arteko desoreka (16 urte baino gehiago).....	180
XXIX. Orioko bikarioak (XVI-XIX. mende bitartean).....	190
XXX. Kontzejuak izendatutako serorak.....	193
XXXI. Elizako maiordomoak. Kontzejuak izendatutakoak (laikoak), Elizak izendatutakoak (apaizak) (XVI-XIX mende bitartean).....	194-195
XXXII. Hamarraren zatiketa (XIX. mendean).....	196
XXXIII. Primizia errentak (XVI-XIX. mende bitartean).....	197-198
XXXIV. Kontzejuak izendatutako San Martin ermitako serorak (XVII-XVIII. mendeetan).....	202
XXXV. Kontzejuak izendatutako S. Juan Ermita eta Ospitaleko maiordomoak (XVI. mendean).....	203

XXXVI. Kontzejuak izendatutako Ospital-arduradunak (XVI-XVIII. mende bitartean).....	203
--	-----

GRAFIKOAK

I. Populazioaren bilakaera orokorra (1580-1890).....	162
II. Populazioaren bilakaera (1580-1625).....	166
III. Hilkortasuna hilabetearen arabera (XVII. mendean).....	167
IV. Ezkontzak hilabetearen arabera (XVI-XIX. mendeen artean).....	168
V. Populazioaren bilakaera (1626-1670).....	170
VI. Populazioaren bilakaera (1671-1715).....	170
VII. Populazioaren bilakaera (1716-1760).....	171
VIII. Jaiotzak hilabetearen arabera (XVIII-XIX. mendeen artean).....	172
IX. Hilkortasuna hilabetearen arabera (XVIII. mendean).....	173
X. Populazioaren bilakaera (1761-1815).....	175
XI. Populazioaren bilakaera (1816-1895).....	182
XII. Hilkortasuna hilabetearen arabera (1824-1840).....	183
XIII. Hilkortasuna hilabetearen arabera (1891-1899).....	184
XIV. Hilkortasunaren bilakaera (1800-1895).....	185

ARGAZKIAK

1. Orioko herriaren bista orokorra.....	18
2. Orioko emakumeak, sareak egiten.....	48
3. Orioko erriberak.....	68
4. Orioko portua 1925. urte inguruan.....	95
5. Estazioko aurrea.....	96
6. Orioko itsasadarra.....	100
7. Orioko udaletxe zaharra.....	116
8. Pasaietako pribilegioa oso zaharra zen.....	128
9. Piliku enparantza.....	130
10. Itzainak.....	148
11. Zakilaneko aldapatik.....	208
12. Piedade ondoko bidea.....	213
13. Kale Nagusiko 6. zenbakian, XVI. mendearen bukaerako etxean agertzen den naoa.....	214
14. 1513. urteko etxe baten giltzarria, erliebean txalupa bat eta IHS monograma ageri dira.....	215
15. Oa Kaleko 10. zenbakian dagoen erliebea.....	219
16. Herriko plaza zaharra.....	223
17. Arraunean itsasadarrean.....	242

MAPAK

I. Orioko geografia.....	339
II. Orioko jurisdikzioan eztabaidan zeuden lekuak.....	341
III. Kontzejuaren ondasun propioak.....	343
IV. Orioko eraikinak: baserriak, errotak, ermitak.....	345

SARRERA

Eskuartean duzun lanaren helburua Orioko bilakaera historikoaren oinarritzko ezaugarriak argitzea da. Jarraian lanaren nondik norakoak azalduko ditugu.

Orioko herriaren historia biltzea lan zabala eta orokorra denez, derrigorrezkoa izan da atalak eta mugak jartzea. Beraz, ikerketa egiteko lehenengo pausoa hau izan da: aztertu beharreko gaiak eta muga kronologikoak finkatzea.

Gaiak garrantziaren arabera aztertu ondoren, atalka banatu ditugu. Lehendabizi, herriko geografiari erreparatu diogu, bere ezaugarriak aztertuz, herriaren kokapenak ezinbesteko garrantzia izan baitu bere bilakaeran.

Bigarren pausoa, geografia ikusi ondoren, kokalekuaren garapena aztertzea izan da. Hau da, historiaurretik herri maila lortu bitarteko bilakaeraren arrazoiak aztertzea.

Orioren sorreraren oinarriak edo funtsak ikusi ondoren, herriko jarduera ekonomikoen bilakaera ikertu dugu. Horretarako, oriotarren jarduera garrantzitsuenei erreparatu diegu, Europako eta Gipuzkoako gertakizunak aintzat hartuta.

Garapen ekonomikoa aztertzeaz gain, ezinbestekoa izan da, baita ere, Orioko herriaren antolaketa politikoa ezagutzea. Atal horretan oso interesgarria da jakitea udal gobernuaren agintea nola sortu eta garatu zen, eta zenbaterainoko indarra izan zuen. Horrekin lotura zuzena du biztanlegoaren egiturak. Era berean, biztanlegoaren bilakaera demografikoa ikusiz, oriotarren antolaketa nolakoa izan zen ikusiko dugu.

Bestalde, erlijioak oriotarren bizimoduan izan duen garrantzia ere aipatuko dugu. Horrekin lotuta, kultura inguruko zenbait arlo: gobernutik bultzatutakoak, partikularrek bultzatutakoak...

Bukatzeko, hirigintzari erreparatuko diogu, herriaren bilakaera historikoan oso garrantzitsua izan baita. Atal horren barruan kontuan izan ditugu, batetik, herriko etxeak eta eraikinak; eta, bestetik, gure herrian izugarritzko eragina izan duen moila, kaia.

Aipatutako gaiak modu sakonean ikertzeko, muga kronologikoak jartzea ezinbestekoa iruditu zaigu. Hauexek dira mugak: historiaurrea, alde batetik, hau da, Oriori buruz dauden lehen aztarnak; eta, bestetik, industrializazioarekin batera sortutako garai berria.

Atal eta garai guzti horietan zer gertatu zen jakiteko, artxiboetara eta bibliografian azaltzen direnetara jo behar izan dugu. Gainera, atal edo kapitulu guztiak Gipuzkoako egoera orokorrarekin parekatu ditugu, eta, baita ere, bibliografian azaltzen diren arazo orokorrekin, prozesu bakoitzaren ikuspegia borobildu ahal izateko.

Marta Trutxuelo García

ESKER ONA

Ikerketa lan hau egin ahal izateko, elkarte eta adiskide askoren laguntza izan dut.

Lehenik, Orioko Udalari eta Eusko Ikaskuntzako ordezkariari eskertzen diet lan hau egiteko paregabeko aukera eman izana. Oso lagungarriak izan zaizkit Susana Trutxuelok, Victor Herrerok, Jose Angel Achónek, Josetxo Urrutikoetxeak eta Jose Antonio Rodriguez Ranzek emandako aholku eta argibideak.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiet Arantxa Alonso, M. Sol Cenzano, Amaia Usandizaga, Jabier Zabaleta eta Itziar Olariagari, Orioko Artxihoan eta Udaletxean pasa nuen denboran erakutsi zidaten arreta eta arduragatik. Mila esker, baita ere, Gipuzkoa, Nafarroa eta Estatuko artxiboetako arduradunei, eskaini zidaten arretagatik.

Ezin aipatu gabe utzi Kristina Tolosak, Agurtzane Ormaetxeak, Idoia Azanzak, Roberto Trutxuelok eta Idoia Mendiluzek eskaini didaten paregabeko laguntza, besteak beste.

Eta, azkenik, eskerrak eman behar dizkiet aitari eta Maddiri, ordu luzeak eman baitituzte grafikoak, mapak, argazkiak eta azala prestatzen.

Marta Trutxuelo García

LABURDURAK

OUA- Orioko Udal Artxiboa

GAO- Gipuzkoako Artxibo Orokorra

GPAH- Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa

PUA- Pasaiaiko Udal Artxiboa

EAH- Elizbarrutiko Artxibo Historikoa

EHAA- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria

IAO- Indiaseko Artxibo Orokorra (Archivo General de Indias)

IEAH- Iruñeko Elizbarrutiko Artxibo Historikoa

SAO- Simancaseko Artxibo Orokorra (Archivo General de Simancas)

ZEO- Zigiluaren Erregistro Orokorra (Registro General del Sello)

VEKA- Valladalideko Erret Kantzelaritzaren Artxiboa (Archivo de la Real Chancillería de Valladolid)

AHN- Artxibo Historiko Nazionala (Archivo Histórico Nacional)

HEAA- Historiako Erret Akademiaren Artxiboa (Archivo de la Real Academia de la Historia)

LGEV- La Gran Enciclopedia Vasca

CAP- Caja de Ahorros Provincial

CAM- Caja de Ahorros Municipal

EI-SEV- Eusko Ikaskuntza- Sociedad de Estudios Vascos

BRSVAP- Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País

BEHSS- Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián

EEKK- Errege Katolikoak

Orr. -Orrialdea

F. -Folia

Vto.-rto. Verto,-recto

Ka.- Kristo Aurretik

Ko.- Kristo Ondoren

Mrb.- Marabedi

Err.- Erreal

Tn.- Tonak

I. ATALA.

ORIOKO GEOGRAFIA

Kapitulu honetan Orioko geografiaren ezaugarri nagusiak azaldu nahi ditugu. Gaiari hasiera emateko, alde garrantzitsuenak aztertuko ditugu: Orioren kokapena, datu topografikoak, oinarri geologikoak eta herriak berak dituen baliabideak. Horrezaz gain, zenbait iturri dokumentalen bidez, Orioko geografia historian zehar nolakoa izan den azalduko dugu¹.

I. HERRIAREN KOKAPEN GEOGRAFIKOA: KOORDENATUAK ETA MUGAK

Orio Gipuzkoako kostaldean kokatuta dago, Bizkaiko itsasoaren kostaldeko lautadan.

Bere koordenatuak hauek dira: 43 gradu, 16 minutu, ipar luzeran; eta, 2 gradu, 8 minutu, mendebalde latitudean. Oria ibaiaren bokalean dago eta Bizkaiko itsasoaren ertzean.

Orioren mugak hauek dira: iparraldean, itsasoa; hegoaldean, Aiako herria; ekialdean, Donostia eta Usurbil; eta mendebaldean, Zarautz.

Donostiako muga kostaldeko itsas labarrean hasten da, Gaztainarroka eta Berdain artean. Lusarbe baserritik jarraituz Tontortxiki mendi gainean bukatzen da. Usurbil aldeko muga, berriz, Tontortxikitik hasi eta, Kuskullu eta Tellegindegi baserrien artean dagoen bidetik jarraituz, Sariako olako urtegira iristen da; mugak Sariako ola bitan banatzen du eta errio erdiraino luzatzen da, Salmaristi baserriaren ondoan bukatuz.

Aiako muga ekialdean hasten da, errio edo itsasadarreko erdialdean. Handik Marea Errota baserrirako bidea hartzen du mendebaldeko norabidea hartuz —itsasadarreko ezker bazterretik—. Motondo ingurutik pasatzean, mugak berriz ere itsasadar erdialdetik jarraitzen du. Motondotik zubirako bidean muga ezkererantz pasatzen da; eta, azkenik, tren geltoki ingurutik, itsasadarreko erdialdera pasaz, itsasoraino ailegaten da².

II. EZAUGARRI TOPOGRAFIKOAK

Kostaldean, Donostiako Santa Klara irlatik hasita, Mendiotz, Tximistarri, Lurmendi, Galea Punta, Burugain Punta, Anarri Punta, Talaiko hegia eta Amezti daude; Orio azken bi mendi horien artean dago³.

Orioko herria Kukuarri mendiko hegoaldeko maldan dago, itsasoak eta itsasadarrak mugatuta.

¹ Geografia kapitulu hau egiteko gure lehenengo iturri dokumentala OUAk gordetzen duen 1988. urteko *Udalerriko Hirigintz Planeamenduko Arau Subsidiarioak* izeneko agiria izan da. Ikusi I. Mapa.

² Ikusiko dugunez, Oriok askotan izan ditu auziak muga istiluentatik Aia eta Usurbilekin, eta, gehienak Orioren aldekoak izan dira.


³ SOLLUBE, I.: *Descripción gráfica de la costa vasca*. Zarautz, Itxaropena, 1961, 48. orr.

Orioko topografia hiru mendixkek osatzen dute: iparraldean handiena dago; eta hegoaldean, berriz, txikiena. Horrezaz gain, itsasadar ondoko erriberak ere kontuan hartu beharrekoak dira:

- Aipatu ditugun mendixken artean, garaiena lehenengoa da, iparraldean dagoena; horretan Tontortxiki, Kukuarri eta Talai gainak daude; eta itsasoraino, hondartzaraino, jaisten da. Mendixka honen parean beste bat dago: Longan hasita, Aganduru eta San Juan ermita daude, eta Antillako hondartzan bukatzen da.

- Bigarrena, berriz, Sariako olako urtegian hasten da, Altuna mendia, Lizargarate harrobia —gaur egun desagertua— eta Aldape mendietatik jarraitzen du, eta, Orioko eliza pasa ondoren, itsasadarreraino jaisten da. Orioko alde zaharra mendixka honen bukaera aldean dago.

- Hirugarren mendixka Arizmendin hasten da, Marea Errota, Errezabal eta Anibarko Portuko eremuak pasatan, itsasadarrean barruratzen da; handik aurrera, harkaitzez beteta dagoen tarte batek jarraitzen du.



Orioko herriaren bista orokorra (*Photomuseum artxiboa*).

Mendixka hauen artean, hegoalderantz, bailara batzuk daude, eta bertan daude Orioko baserri gehienak. Kukuarriko ipar aldapan Itxaspe baserria bakarrik dago eta, bertako lurak emankortasun gutxiakoak izateaz gain, malda eta harkaitz ugari ditu:

- Lehenengo mendixkako lautadan, Lusarbe, Lusarbe Erdi, Benta, Munioeta, Munioeta Zaharra eta Longa baserriak daude. Lehenengo bi mendixken artean dagoen bailara da garrantzitsuena, zabalena, eta, emankortasun eta norabideari dagokionez, onena; bertan Kuskullu, Sarobe, Etxaiz, Aizperro, Altuna —gaur egun desagertua—, Txanka Goikoa, Aldape, Etxeberri, Katxiña eta Martin Portu baserriak ditugu, Orion dauden baserri onenetakoak.

- Bigarren bailaran, bigarren eta hirugarren mendixken artean, Txara, Arizmendi, Lertxundi, Errezabal eta Txanka behekoa baserriak daude.

- Ibaiaren erriberako aldeak gehien erabiltzen dituzten baserriak honako hauek dira: Marea Errota, Salmaristi eta Sariako ola; hiru besterik ez.

Deskribapen xume hau egin ondoren, zera ikusi dugu: baserriak kare-harri eta malda gutxiko lurretan kokatu direla, eta, baita sedimentazio eta erosio handiko eremuetan ere; horrezaz gain, baserriak hegoalderantz kokatuta daude eta ipar-ekialdeko haizeetatik babestuta. Oraintxe aipatu ditugun ezaugarriak baserri gehienek dituzte, Itxaspek izan ezik.

Geologiari buruzko ezaugarriak azaltzean, berriz ere kokapenaren garrantziari helduko diogu.

III. EGURALDIAREN BEREIZGARRIAK

Orion eguraldi mota desberdinak daude (*mikroklimak*, alegia). *Mikroklima* horiek kontuan hartzea ezinbestekoa da herriaren eta baserrien kokapena azaltzeko.

Orokorrean, baserrietako zona ipar-ekialdeko haizeetatik babestuta egoteaz gain, eguzkitsua ere bada. Itxaspe baserria nahiz eta ipar maldan egon, babestuta dago eta baserriak *mikroklima* egokia dauka.

Harresiak herriko alde zaharra iparraldeko haizeetatik babesten du eta, eguraldiari dagokionez, zonalde hau litzateke aproposena.

Ezin dugu, ordea, Erribera eta Antillako lurretaz gauza bera esan. Historian zehar hirigunea hara zabalduz joan da, herritik gertu eta hondartza parean dagoelako. Baina, itsas haize indartsuek bertako eguraldia gogorragoa egiten dute. Gainera, itsasadarreko bokaleak duen formaren eraginez, itsas haize horien abiadura gehitu egiten da lur-haizeekin nahastean. Bestalde, barealdietan goiz-lainoak sortzen dira, Orio ordu luzez estalita eta ezkutuan utziz.

IV. AZTERKETA GEOLOGIKOA

Gai honi hasiera emateko, geologiaren aroak kontuan hartu ditugu: Lehenengo aroa edo Paleozoikoa; Bigarrena edo Mesozoikoa; Hirugarrena edo Zenoziokoa; eta, azkenik, Laugarrena edo Antropozoikoa⁴.

1. LEHEN AROA: PALEOZOIKOA

Orio inguruan 1.500 metroko azterketa geologikoak egin izan diren arren, ez dakigu non gelditu daitekeen haitz-amaren kokapena, ezta bere sakontasuna ere. Beraz, ez daukagu Orion Lehenengo aroari edo Paleozoikoari dagokion aztarnarik.

2. BIGARREN AROA: MESOZOIKOA

- Bigarren aroaren lekuko itsas koral multzo bat dugu. Itsaso epeletan bizi dira, hau da, sakonera gutxiko hondoetan. Koral honek kare-harrizko koloniak eratzen ditu,

⁴ Aro guzti hauetan aldi geologikoak eman ziren: Bigarrena edo Mesozoikoa: *Triásico, Jurásico eta Cretácico*; Hirugarrena edo Zenoziokoa: *Eoceno, Oligoceno, Mioceno eta Plioceno*; Laugarrena edo Antropozoikoa: *Pleistoceno* eta gaur egungoa. Era berean, aldi geologiko bakoitzean beste batzuk ere badira (VILA VALENTÍ, J.: *La Península Ibérica*. Ariel Geografía, Barcelona, 1983).

urgoniar izeneko kare harriak. Harri mota honek Euskal Herriko mendikate gehienak sortarazi ditu; esate baterako, Ernio.

- Gerora, *Wealdense* aldian, inguru honetan delta handi bat osatu zen eta Gaztela Leoneko mesetako ibaiak bertara itsasoratu. Ibai horien eraginez, bertan hondakin eta hondarrak pilatu ziren.

- *Senonense* aldian, arestian aipatutako delta itsasoan urperatu zen eta, ondorioz, sedimentazio buztintsuagoak sortu ziren⁵.

- Bigarren aroko ezaugarri xume horiek azaldu ondoren, Mesozoikoko azken aldiari ekingo diogu: *Kretazikoari*. Aldi honen oinarria kare-harrizko eta margako hondakinen txandakako eraketa dugu. Kare-harriaren jatorria organikoa da eta margako hondakinarena lurrekkoa. Bi harri horien txandaketak *Flysch* izeneko formazioa eratu du⁶. *Kretaziko* izeneko aldiaren bukaeran⁷, garrantzi handiko kare-harri sedimentazio prozesua eman zen; eta, arrazoiak hauek izan daitezke: lehorte luze baten eraginez bertan itsasoratzen ziren Mesetako ibaien desbideraketa —beste itsaso batzuetara, alegia— edo, itsasoaren berotzea.

3. HIRUGARREN AROA: ZENOZOIKOA

Hirugarren aroari dagokionez, orain dela 40 milioi urte, gure inguruko ezaugarri nagusiak ez ziren aldatu: zonaldeak itsasoaren azpian 1.000 eta 4.000 metroko sakoneran jarraitzen du. Hori dela eta, fosil gutxi aurkitu izan da.

- Garai honetan, *Eozenoan*, itsas hondar bereziak eratu ziren: harearri eta "lutita" izeneko harriak, besteak beste⁸. Aldi honen lekukorik ikusgarriena *Flysch* izeneko formazioa da⁹. Orioko hegoaldean, Irulærreka eta Artxoda erreken artean, kare harri eta kare harri buztintsuez osatutako geruza, marga eta kolore gorriko marga hondartsua duen beste geruza batekin txandakatzen da. Gerora, formazio horren gainean kuartozoko harearri eta bestelako hondar multzoa ezarri da, arkupe baten modura¹⁰.

Eozeno izeneko aldiaren bukaeran, hondar guzti horiek, azkar eta etengabe, altxatzen joan ziren, gaur egungo Orioko lurra agerian utziz¹¹.

- *Oligozeno eta Miozeno* aldietan, orain dela 20 milioi urte inguru, erosio edo higadura garaia hasi zen: ibai eta kostaldeko higadura garaia; faila baten ondorioz Oria ibaiaren bokalea zabaldu eta lautada berdindu egin zen —gaurko autopista luzatzen den lekuan— eta goiko harearriak desagertzen diren bitartean, beheko kare-harriak agertu ziren.

⁵ *Senonenseko* aztarnarik ez da aurkitu Orion orain arte egindako ikerketetan.

⁶ "El Cretácico es el piso fundamental y mejor representado (...) hay calizas, arenas, areniscas y margas que dan lugar a la formación flysch" (GÓMEZ PIÑEIRO, F.J.: *Geografía de Euskal Herria*. Oikos-Tau, Barcelona, 1985, 19. orr.). *Flysch* izeneko formazioa Hirugarren Aroan azaldu zen, eta Hondarribitik hasi eta Getariaino luzatzen da.

⁷ Datorren azalpena *Daniense* aldiari dagokio.

⁸ Harri hauen jatorria *Eozeno* izeneko aldian dute: "Su origen es un cono de deyección de un cañón marino que producía sedimentos de distinta granulometría y densidad según el sentido e intensidad de las corrientes de arrastre. Es el llamado Flysch de Gipuzkoa, que va desde Fuenterrabia a Getaria" (OUA, *Udalerriko Hirigintz...* Doc. cit., 14. orr.). *Flysch* izeneko osaketaz aurreko garaian hitz egin dugu.

⁹ "En la zona Orio-Zarautz-Getaria-Zumaia, el flysch eozeno de la cadena costera presenta unos pliegues que llaman la atención, ya que la serie está invertida; desde Zumaia hasta Zarautz las capas vienen invertidas en dirección N. 120 grados aproximadamente; en Zarautz se doblan bruscamente con un giro sobre sí mismas de unos 150 grados, hasta enlazar con península de Getaria (Ratón de Getaria); el mar oculta la zona de enlace de las capas de Getaria y las que vienen de Orio. La ría de Orio se abre paso justamente en la línea a partir de la cual se invierte la serie" (*ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAIS VASCO-AUÑAMENDI*. Auñamendi, Donostia, 1986, vol. XXXIV, 424. orr.).

¹⁰ Formazioaz esan da, "demuestra ser un cono de deyección de un cañón submarino. Es la formación Jaizkibel" (OUA, *Udalerriko Hirigintz...* Doc. cit., 14. orr.).

¹¹ Prozesu honen izena "orogenesis alpina" da.

4. LAUGARREN AROA: ANTROPOZOIKOA

Garai honetan, eguraldi aldaketaren ondorioz, ibaiaren higadura handi bat nabaritzen hasi zen. Horrela hasi zen Orioko ibarretako hondar pilaketa¹². Beraz, ibar, erribera eta hondartzaren eraketa nahiko berria da.

V. NATUR BALIABIDEAK¹³

Aurreko atalean ikusi dugunez, konposaketa geologikoak ezinezkoa egiten du lurpean inongo mineral edo meatze errekurtsorik aurkitzea.

Orion harrobi ugari izan zen garai batean eta makina bat gauza egiteko erabili, nahiz eta gaur egun desagertu diren. Esate baterako, Orioko harrobietatik harearizko kargak eraman ziren itsasoz Donostiara, gabarretan, bertako zabalunea (*Ensanchea*) eta Artzain Onaren katedrala eraikitzeo.

Bestalde, Txanka eta Anibarko Portu inguruan kare-harrizko harrobiak zeuden, gaur egun utziak, abandonatuak. Lizargarateko koartzita harrobia, berriz, produktu errefraktarioak egiteko erabiltzen zen.

Kukuarri mendiko magalean iturri ugari dago; mendiaren konposizioa, harearriak eta margak, paregabea baita ur depositua izateko¹⁴. Altuna eta Aldape baserrien inguruan ur gutxiago dago, harearri gutxi baitago. Hala ere, Kukuarritik Mendizorrotzera dauden mendiek, Orioko ur-hornidura ezezik, Zarauzkoa ere osatzen zuten, ez oso aspaldi; ur-bilketa eta biderketa II. Errepublika garaian egin zen.

Bestalde, basoak oso eskasak direla esan beharra dago; batez ere, harearizko mendiak direlako: bere baitan ura gordetzen badute ere, lur-azala berehala lehortzen da. Baso gutxi dagoen mendi horietan, ezin da nekazaritza garatu Orioko beste hainbat tokitan adina¹⁵. Hala ere, historian zehar, Oriok basoak zaintzen eta garatzen ardura handia izan du.

Nekazaritzako baliabideei dagokienez, baserriak kokatuta dauden lurak, batez ere, zelai eta baratzetarako eta artoa landatzeko erabili izan dira. Erribera inguruko lurretan, adibidez, baratzak aurki ditzakegu; Antillakoetan, ordea, ez; lurak oso lehorrak, idorrek, baitira¹⁶.

Orioko herriaren ekonomiari dagokionez, arrantza ezinbesteko baliabidea izan zen eta da, oraindik ere. Arrantza mota asko izan da gurean: baxurakoa eta alturakoa, nasatik egindakoa, etab.¹⁷

¹² AGUIRRE, I.: *Eusko Lurra*. Etor, Donostia, 4. orr.

¹³ Berezko baliabideak ezinbestekoak izaten dira ekonomiaren garapenerako (FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia*. Akal, Madrid, 1975, 39. orr.). Horregatik egin dugu kapitulu honetan Orioko baliabideen deskribapen xume bat. Hurrengo kapituluetan gehiago sakonduko dugu.

¹⁴ "Las fuentes se hallan en la confluencia de estas areniscas, con calizas y arcillas impermeables del estrato inferior" (OUA, *Udalerriko Hirigintza... Doc. cit.* 12. orr.).

¹⁵ Bertan haritz basoak izateak ontzigintzaren garrantzia areagotu du. Bien arteko loturaz arduratuko gara beste kapitulu batean.

¹⁶ Ekintza ekonomiko eta Udal Ondasunen kapituluaz aritzerakoan, gai hauek berreskuratu eta sakonduko dugu.

¹⁷ Arrantza jarduera ekonomiko eta udal ondasunen ataletan arduratuko gara.

VI. ORIOKO GEOGRAFIA HISTORIAREN IKUSPEGITIK

Orio edo *Urio* izenak *ura dagoen lekua* esan nahi du¹⁸. Horrela hasi nahi genuke Orioko bestelako geografia atala; zertaz ohartu ziren historian zehar gure lurraldeetan ibili ziren bidaiariak edo idazleak?

- XVI. mendean pentsatzen zen Gipuzkoako kostaldea zuhaitzez beteta zegoen zelai zabal eta emankorra zela. Horrezaz gain, bertako aberastasunak, iturriak, ibaiak, arrantza eta egurra jende askoren ahotan ibili ziren¹⁹. Nahiz eta Gipuzkoako kostaldea guztiz horrelakoa ez izan, ikuspegi hori Orioko hainbat ezaugarriekin bat zetorren: arrantza, basoak, iturriak...

XVI. mendean, 1582. urtean, Tolosako alkateak Oria ibaia nabigagarria izateko proiektua aurkeztu zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Proiektu horren bidez, Tolosa eta Orioren arteko harremanak, merkataritzako loturak eta bi herrien garapena erabat aldatuko ziren; baina, azkenean, Probintziak ezin izan zion horrenbesteko lanari aurre egin²⁰.

- XVII. mendeko berriak ere baditugu, 1622. urtean Don Pedro de Texeriak gure lurraldetik barrena egin zuen bidaiarena, hain zuzen. Bidaia horri buruzko dokumentu batean, Orioko oinarritzako jarduerak aipatzen ditu: portua eta itsasadarra. Texeriak Orioko portuko ezaugarrietaz hitz egiteaz gain, bertako arazoak eta horiek konpontzeko ahaleginak ere azaltzen ditu:

*"A dos leguas [de San Sebastián], a Poniente está la villa de Orio, que aunque aguas arriba tiene calado para navíos gruesos, como la barra es de poco fondo, el puerto ofrece escaso trato. No obstante se fabrican en Orio navíos de alto bordo, pero es muy difícil sacarlos a la mar. Para salvar tales inconvenientes, tratóse de remediar los años pasados, abriéndola con la fábrica de unos muelles que al parte de levante están dados principio"*²¹.

- XVIII. mendearen bukaera aldean, Oriori buruzko ikuspegi berberak jarraitzen zuen²², baita portuak zituen arazo nagusiak ere:

*"El puerto de Orio era tan malo que la barra sólo tenía en bajamar un pie de calado y de anchura un cumplido de embarcación"*²³.

- Baina, idazle guztiak ez ziren soilik Orioko arazoetaz kezkatu. Adibidez, 1801. urtean Orioko erribera emankorretaz hitz egiten zen; arto eta bestelako landareetaz aritu zirenak ere izan ziren²⁴. Gainera, Orioko herria oso ezaguna zen ibaiagatik eta ibaia pasatzeko garraioagatik.

¹⁸ HEAA, Vargas Ponze Bilduma. Vol 49, 9/4.222. (1802).

¹⁹ MARTÍNEZ DE ZALDIVIA, L.: *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas*. Diputación Provincial. Donostia. 1945. 5. orr.

²⁰ DÍEZ DE SALAZAR, L.M.; AYERBE, M.R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1581-1583)*, T. VIII, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 167. orr.

²¹ CIRIQUIAIN GAIZTARRO, M.: *Los puertos marítimos del País Vasco*. Txertoa, Donostia, 1986, 22. orr.

²² "(...) está situada en cuesta al Poniente y a la orilla de una ría, canal o brazo de mar..." (OUA, C-VI, D-1 [1785]).

²³ "Derrotero clásico de Tofiño, brigadier de la Real Armada" (1789) (CIRIQUIAIN, M.: *Los puertos marítimos...* Op. cit., 26. orr.).

²⁴ HUMBOLDT, W.F. von: *Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801*. Auñamendi, Donostia, 1975, 61-64. orr. XIX. mendeari buruz aurkitu ditugun agirietan "Ynterrogatorio político" eta "Ynterrogatorio sobre las calidades de los pueblos", GOROSABELEk idatzitako liburua..., ez dugu lehen esan dugunaz gain ezer garrantzitsurik aurkitu, Orioko portu, berezko onura eta nekazaritzaz hitz egiten baita.

XX. mendean egindako aipamenen arabera, berriz, Orioko kokapen geografikoa ezin hobeaz zenez, bertan herri bat finkatu eta garatzea posible izan zen²⁵.

²⁵ LABAYEN, F.M.: "Orio", *Vida Vasca*, XXXIV, 1957, 119. orr.

II. ATALA. ORIOKO BILAKAERA HISTORIKOAREN OINARRIAK: ANTZINAROTIK HERRIAREN SORRERA ARTE

I. HISTORIAURREA: HERRIA SORTU AURREKOAK

Gipuzkoako kostaldean, Oria ibaiaren bokalean kokatuta dagoen Orio izeneko lekua ez zen 1379. urtera arte herria izan. Horren aurrekoak azaltzen saiatuko gara.

1. HISTORIAURREA ETA ANTZINAROA

1.1. ALTXERRI GARAIKO OINARRIAK

Esana dagoen bezala, gaur egun Orio kokatzen den tokia Laugarren aro geologikoan agertu zen. Bertan, Oria ibaiaren bokalean, *Wurm* izeneko izoztetik aurrera, jendea bizi zen²⁶. Altxerriko kobazuloa garai haren lekuko dugu²⁷. Gaur egun Aiako Udalean kokatuta dagoen kobazuloan bizi zen jendea; Behe Paleolitikotik aurrera itsasotik bizi ziren, batez ere arrantzatik eta mariskoak biltzetik. Altxerrin agertutako marrazkiek hori pentsarazten dute²⁸. Nahiz eta garai hartan Orion bertan jenderik bizi ez, arrantzan hasiak ziren. Beraz, Orio-Aia inguruko aurreneko aztarnak dira.

1.2. ERROMATARREN ERAGINA

Aurreko garaitik erromatarrek Euskal Herrira eta, zehazki, Gipuzkoako kostaldera iritsi ziren arte, ez dugu daturik²⁹. Bertako jendearen bizibidea, seguruenik, itsasoa izan zen, baina, ESTEBANek dioenez, ez dago erromatarrek portua erabili zutela agertzen duen aztarnarik³⁰.

2. ERDI AROA

2.1. NORMANDOEN ERASOAK

IX-X. mendeetan normandoek Bizkaiko itsasoko kostaldea hondatu zuten. Nahiz eta Euskal Herriko kostaldeari buruzko berririk ez izan, badirudi portuetako jarduera ez zela garrantzitsuegia. Hala ere, FERREIRA PRIEGUEK dioen bezala, ia ezinezkoa da itsasadar eta portu naturalak ez erabiltzea itsas-kabotajerako. Dena dela, XII. eta XIII.

²⁶OUA: Udalerriko Hirigintz... *Doc. cit.*, 15. orr.

²⁷"Cueva de Altxerri, Paleolítico Inferior. Poblamiento en cueva a causa del frío reinante en la última glaciación Wurm"; *Atlas de Euskal Herria*, Erein, Donostia, 1982, 144. orr.

²⁸Bertan bi "platija" daude marraztuta; ESTEBAN DELGADO, M.: *El País Vasco en época romana*. Mundaiz, Donostia, 1990, 103. orr.

²⁹Erromatarrek Euskal Herrian izan ziren garaia K.a. I. mendetik, K.o. V. mende arte luzatzen da;

BARANDIARAN, JI: *Guipúzcoa en la Edad Antigua. Protohistoria y romanización*. CAP, Donostia, 1973.

³⁰ESTEBAN, M.: *Op. cit.* 116. orr.

mende bitartean, inguru hartako jarduera itsas-arrantza besterik ez zela izan aitortzen du³¹.

2.2. MONASTERIOEN ERAGINA

XI. mendean arrantza izan zen jarduera nagusienetakoa, orduan hasi baitziren antolatzen eta garrantzia ematen³².

Gainera, garai hartan lurraldeak ere pixkanaka antolatzen hasi ziren eta monasterioak garapen horren bultzatzaile nagusiak izan ziren. Horren arrazoia, besteak beste, arrantza jarduerak eta itsasoratze sistemak beren menpe edukitzea izan zen. Guzti horri buruzko zenbait agiri aurkitu dira; baina, dokumentu horien artean, Oriako bokalea (Orio), Zarautz eta Getariako ensenadari buruzko datuak agertzen ez direnez, ez da guztiz zehatza datuei ikuspegi orokorra ematea³³.

2.3. MERKATARITZAREN BULTZADA

Aurreko mendeetako aldaketa garaia pasa ondoren, XII. mendean bakealdia hasi zen. Bakealdiaren ondorioz eta, baita agintarien eraginez ere, gure kostaldeko portuen garrantzia indartuz joan zen, eta, bestalde, merkataritzak bultzada handia eman zuen³⁴.

1141etik 1150. urte bitarteko agiri batean Oriori buruzko lehen aipamen idatzia aurkitu dugu³⁵. Bertan, Garcia Ramirezek, Nafarroako erregeak, Donostialdekoak izango ziren lurak (Orio, Igeldo, etab...) Iruñeko Elizari eman zizkion³⁶. Baina, agiri horren egilea ez zen errege hura izan, ondorengoa baizik: Antso Jakituna, alegia. Beraz, BARRENAK azaltzen duen bezala, 1178. urtean Nafarroako erregeak agiri hartan azaltzen ziren baldintzak berridatzi eta zehaztu zituen; horrela, Iruñeko Elizari (jurisdikzio-aginte nagusia) lurralde haiek emanez, bere ondasunak areagotu eta nafarrek lurralde haietan beren kontrola finkatu zuten³⁷. Agiri horretan Igeldo eta Oriako bokale artean kokatutako hainbat toponimo aipatzen dira. Haietako batzuk: "Orio (...), Erretzaval, Saria, Urdavide, Bunieta, Dagandiburu, Lussarbe...", 1379. urtetik aurrera Orioko jurisdikzioan agertuko direnak³⁸.

XII. mendeko agirietan Donostialdeko lurak aipatzen dira, eta, garaiko agintariek lurralde horietan zuten interes aldaketen seinale da. Horregatik, ez da harritzekoa handik bi urtera, 1180. urtean, Antso Jakitunak Donostian herri bat eraikitzea; Donostiak garapen ekonomikorako baldintza ezin hobekak zituen, eta gainera, Nafarroako erregeak bere agintea toki-estrategiko garrantzitsuan finkatu zuen. Donostiari emandako lurren artean, ekialdeko mugan, Orio izeneko tokia zegoen³⁹.

³¹FERREIRA PRIEGUE, E.: "Las rutas marítimas y comerciales del flanco ibérico desde Galicia hasta Flandes", *EL Fuero de San Sebastián y su época. EI-SEV* (1982) 217-234 orr.

³²"...respecto a la imagen que suscitan los salmones pintados en época prehistórica en las cuevas de Ekain (Cestona) o Altxerri (Orio), producto de una actividad espontánea, daría paso en el siglo XI a una incipiente organización de la pesca, que, a falta de todo dato concreto, cabe imaginarla desempeñándose con aparejo fijo, con redes o nasas..."; ARIZAGA, B.; BARRENA, E.: "El litoral vasco peninsular en la época preurbana y el nacimiento de San Sebastián". *Lurralde*, 13, 1990) 291. orr.

³³*IBIDEM*, 286-289 orr.

³⁴FERREIRA PRIEGUE, E.: *Op. cit.* 222 orr.

³⁵LACARRA, J.M.: "Tres documentos del siglo XII referentes a Guipúzcoa", *BRSVAP*, 1949, 424-425. orr.

³⁶Garai horretan Donostiak ez zuen hiri-gutuna edo forua, 1180. urtean jaso zuen eta.

³⁷"...Se trata de un pseudo-original elaborado hacia 1178 con el fin de precisar con todo detalle posible los bienes que se comprenden en dicha fecha en las zonas cedidas por García Ramírez hacia unos treinta años a la iglesia de Pamplona (...) Era oportuno que también la iglesia de Pamplona hiciera recordar los derechos que a ella pertenecían en esa zona del monasterio de San Sebastián con sus iglesias...". BARRENA, E.: *La formación histórica de Guipúzcoa*. Mundaiz, Donostia, 1989, 315-316, 339. orr.

³⁸LACARRA, J.M.: *Op. cit.* 424-425 orr.

³⁹ARIZAGA, B., BARRENA, E.: *Op. cit.* 297 orr.

2.4. DONOSTIAREN SORRERAREN GARRANTZIA

XIII. mendean, Donostiaren sorreraren ondorioz, kostalde osoak garapen ekonomiko handia izan zuen⁴⁰.

Garai hartan, kostaldeko portuek merkataritza-flota bazuten: garrantzitsuenak Debakoa eta Mutrikukoa ziren; baina Orio, Lekeitio, Pasaia eta Donostiako ontziak ere baziren. Ontziek burdina eramaten zuten Europara, eta, bueltan, Ingalaterra eta Frantziatik, ohialak eta garia ekartzen zituzten. Horrezaz gain, Gipuzkoako eta Bizkaiko portuetan, besteak beste, espeziak, Frantziako ardoak, eztainua, gatza, produktu landuak... sartzen ziren⁴¹.

a) Hamarrena izeneko burdin zergaren zerrenda

Garaiko egoera ekonomikoa nolakoa izan zen zehazteko, 1294. urteko Orioko Hamarrenen Errolda izeneko agiria aipatu behar da. Agiri horretan, Oriotik burdina ateratzeagatik ordaindu behar izan zuten hamarrenen edo zergen zerrenda azaltzen da. Agiriak azaltzen duen bezala, Erdi Aroan Orioko portua erabilia izan zen; eta horrezaz gain, Gaztelako erregeak inguru hau bultzatu nahi zuenez, garrantzia areagotu egin zen⁴².

Burdina bi itsas portutik ateratzen zen: Oriotik eta Oiartzundik. Orioren kasuan, Oria eta inguruetan landutako burdina, inguruko herrien eskaerak asetu ondoren, Europara eramaten zen. Burdina ateratzeagatik erregeek zerga bat ezarri zuten: Hamarrena. Zergen biltze-sistema modu honetan antolatua zegoen: itsas-portuetako zerga biltzaile nagusia Per de Nordinch zen; haren menpe Gil de Ubago eta Mateo de Sanchez zeuden, zerga biltzaileak baita ere. Guzti horien izenean hainbat portutan beste batzuk aritzen ziren hamarrenak biltzen. Oriokoa, hain zuzen ere, Martin Dominguez izan zen.

DÍEZ DE SALAZARrek esaten duenez, Oriok atzerriko herrialdeetara esportatzen zuen, eta gaineratzen du, garai hartako balorazio orokorra ez dela oso ona, esportazioen kontuetan galerak azaltzen baitira⁴³.

Orioko itsas-merkataritzaren bultzadaren seinale, 1294ko agirian azaltzen diren ontzi motak eta salerosketak dira. Bestalde, Ipar Europako produktuak Donostia eta Hondarribira ekartzen zituzten eta, bueltan, burdina eramaten zuten. Portuen arteko komunikazioa ia erabat itsasoz egiten zen, lehorrekoa ez baitzen oso ona. Orio eta Donostiaren arteko lotura itsasoz izaten zen. Horren adibide da honako hau: Johan de Aperregui merkataria Orioren burdina erosi zuen Donostiako portura eramateko⁴⁴.

Albalá izeneko agiria —salerosketak egiterakoan zergak ordainduta zeudela egiaztatzen zuena— lortzeko moduak, XIII. mendeko itsas komunikazioen ohikotasuna adierazten du: merkatariek portu batean lortzen zuten agiria, eta beste batean egiten zituzten salerosketak⁴⁵.

⁴⁰XIII. mendean Hondarribia, Zarautz, Getaria eta Mutrikuk Donostiako Forua hartu zuten. Baina herri horien sorreran bultzatzaileak ez ziren Nafarroako erregeak izan, gaztelar erregeak baizik, 1200. urtean Alfonso VIII.ak Gipuzkoa, Araba eta Duranguesadoko lurak eskuratu baitzituen.

⁴¹FERREIRA PRIEGUE, E.: *Op. cit.* 222. orr.

⁴²Dokumentuaren izena, "Relación de la exportación de hierro según el Padrón del diezmo de Orio" da, GARCÍA DE CORTAZAR, J.A.: *Introducción a la Historia Medieval de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*. Txertoa, Donostia, 1979. 95-98. orr.

⁴³DÍEZ DE SALAZAR, L.M.: "El comercio y la fiscalidad en Guipúzcoa a fines del siglo XIII (según cuentas de Sancho IV)" *BRSVAP*, 1981, 85-148. orr. Uztaila eta abuztuko hilabetetan 170 marabedi eskuratu ziren. Eta 4.622 kintal Oriotik irten ziren.

⁴⁴BARRENA, E.: *Gipuzkoako Komunikabideen Historia. Aintzinaroa eta Ertaroa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991, 129. orr.

⁴⁵Hauxe da M. Orduñaren kasua, zeinak Orion '...saco CCIX quintales de fierro que fueron preciados II mil CCXLIX mrs. El quito el diezmo por un Alvala de San Sebastian que era de III mil DCCLXX mrs. et fincal por mayoria MCCCCLXXXI mrs...'. "Datu guzti horiek, harreman komertzialen maiztasuna adierazten dizkigutenak, kostaldeko itsas harremanek, kostaldeko itsas harremanen erregularatasuna. Bestalde, errepide bidez harremanak oso ahulak ziren"; BARRENA, E.: *Gipuzkoako Komunikabideen... Op. cit.* 129. orr.

Oriok zituen ezaugarriak —hau da, itsas portua eta burdinolak inguruan— ezin hobeak ziren bertan erret kontrola finkatzeko, aduanak alegia⁴⁶.

Beraz, ikusi dugun bezala, XIII. mendean merkatal sistema garatzeko oinarriak finkatuak zeuden. Orion aduana ezartzeak portuaren garrantzia adierazten du, eta ez da harrizkoa hurrengo mendean herri bat ezarri izana.

b) Donejakue Bidearen inguruan sortutako garapena

Aldaketa ugari eman zen garai honetan bada aipatzekorik: Donejakue Bidearekin lotuta sortutako garapena. Gogora ekarriko dugu kostaldeko Donejakue Bidea Oriotik pasatzen zela. Donostiatik Mendizorrotz pasa ondoren, erromes zihoan jendea bertara jaisten zen⁴⁷. Ondorioz, pentsa daiteke, bertakoak prest zeudela etorritakoen premiei eta beharrei aurre egiteko. Horrekin esan nahi duguna zera da, Orion, XII-XIII. mendeetan jendea bizi zela, eta herri baten modura antolatuta zegoela. Lehen aipatutako datuak ere baieztatzen du hori, hau da, itsas ekonomiaren bultzadaren ondorioz, normala litzateke gipuzkoarrek bizilekuz aldatzea eta Orioko kasuan, —seguruenerik Aiatik etorritako jendea— bertara erakartzea⁴⁸.

Orion burdingintzaren gaineko zergak kobratzen zirenez, litekeena da lan hori egiten zutenak bertan bizi izatea. Gainera, erromesek erria pasatzeko Orion zeuden ontziak erabiltzen zituzten⁴⁹. Beraz, burdina eta beste motako merkataritza eta ibaia pasatzeko ontziak zeudenez, Orion jendea kokatzen eta antolatzen hasi zela pentsa daiteke.

Biztanlegoaren finkatze prozesuak, agintarien eragina, ekonomiaren garapena, itsas-komunikazio sistemaren antolaketa, portuaren kokapena eta abarrek, "Orio" izeneko tokiari herri bihurtzen lagundu zioten.

Altxerriko garaian hasi zen itsasoarekiko lotura, nahiz orduan txikia izan. Harrezkero, Aia inguruko jendea Oriora jaitsi zen, arrantzan jarraituz. Horrela, piskanaka-piskanaka itsas jardueren inguruan antolatzen hasi ziren. Hala ere, Oriok ez zuen agintarien interesa piztu. Baina, garai hartako lurralde-antolaketa eraginez, agiritan lehenengo aldiz azaldu izana, herriaren bereiztasunaren seinale izan daiteke. Jarduera ekonomikoen bultzadaren ondorioz, Gipuzkoako kostaldeko ekonomia eta merkataritza indartu egin zen. Ondorioz, erregeek kontrol fiskalak ezarri zituzten eta ondorengo garapenaren euskarriak finkatu. Garapen ekonomikoa eta erregeen interesa ikusita, Orio aldean jendea bildu zen eta bertako jarduerak antolatu eta garatu. Biztanlegoaren eguneroko dinamikak berak lortu zuen herri bat finkatzea ia mende bat beranduago. Orduan, Orio ez zen zergak kobratzeko leku estrategikoa izan soilik, 1379. urtean, Orioko egoera eta maila juridikoa aldatu egin zen: bere burua gobernatu eta antolatzeko gaitasuna lortu zuen, ezaugarri bereziak zituen; hitz batean esanda, herri baten pribilegioak lortu zituen.

⁴⁶GAUTIER DALCHÉ, I.: "Les péages et les produits commercialisés dans les Pyrénées Occidentales pendant les XII^e et XIII^e siècles", *El Fuero de San Sebastián y su época. El-SEV*, Donostia, 1982, 252. orr. Gai horretaz MENACA ere aritu da: MENACA, Mme: "Implicaciones comerciales del Camino de Santiago en la zona donostiarra y guipuzcoana", *El Fuero de San Sebastián, Op. cit.*, 193-216. orr.

⁴⁷ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAÍS VASCO. AUÑAMENDI, T. 431 orr.

⁴⁸"...los núcleos guipuzcoanos documentados entre los años 1000 y 1200 ofrecen testimonio adecuado de constituir una etapa en esa historia de descenso generalizado en los emplazamientos humanos en esa tierra...". GARCÍA DE CORTAZAR, J.A.: "La sociedad guipuzcoana antes del Fuero de San Sebastián", *El Fuero de San Sebastián... Op. cit.*, 99. orr.

⁴⁹Itsasadarra zeharkatzen zuten erromesek, pribilegioa zutenek, ez zuten pasaiaren zerga ordaintzen. 1484. urtean EEKK.k Orio herriari emandako pribilegioak hori adierazten du. Nahiz eta aipamen hori garai hartakoa ez izan, aspaldiko usadioa legezatu eta egiaztatu zutela pentsa dezakegu.

II. HERRIAREN FUNDAZIOA. AZPIEGITURAREN ERAKETA: ORIOKO HIRI-GUTUNA

Orioko Hiribilduaren historia 1379. urtean hasi zen, Juan I.ak Hiri-Gutuna eman zionean. Baina ez zen gertakizun bakarra izan, Nafarroa eta Gaztelako erregeak bultzatutako herri sortze prozesuan aztertu behar baita.

1. HIRIBILDUEN SORTZE PROZESUA

Ikusi dugun bezala XIII. mendean, Europa eta Gaztelako Koroarentzat Gipuzkoa erakargarria bihurtzen hasi zen; Donostiaren sorrera ere joera horren adierazgarria da. Gipuzkoako hirien sorrera prozesua 1180. urtetik aurrera eman zen, Gaztelako gainontzeko lurraldeetan baino beranduago. Atzerapenaren arrazoiak, batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian hauek dira: batetik, Gaztelako Koroaren azken mugan kokatuta egotea; eta bestetik, arrazoi geografiko eta geo-politikoengandik, hau da, lurraldearen pobrezia edo emankortasun ezagatik⁵⁰. Baina, bultzada ekonomikoaren eraginez, herrialdeen garapenerako ardatzak aldatu egin ziren; merkataritza, salerosketak, nabigazioa, garraioak... aberastasunaren oinarri bihurtu baitziren. Horregatik, 1200. urte geroztik, Gipuzkoa Gaztelako Koroan sartu zenetik, Gaztelako erregeak Gipuzkoak zuen kokapenaren garrantziaz konturatu ziren. Ordurarte Nafarroa eta Gaztela arteko mugaren kokalekua besterik ez zena, antolatu zezaketen lurralde estrategikoa bihurtu zen. Beraz, hiribilduen sortze prozesuaren ondorioz, Gipuzkoa antolatzen eta indartzen hasi zen, bai ekonomikoki eta baita administratiboki ere⁵¹.

Gipuzkoan eman zen hiri ezarpenari dagokionean⁵², prozesuaren azken aldia da guri interesatzen zaiguna, Orio herriaren sorreraren garaia baita. XIV. mendean herriak ezartzeko arrazoi nagusia herritarren artean elkartzeko nahia izan zen⁵³. Baina, badira, beste garai batzuetan bezala, interes ekonomikoengandik ezartzen ziren herriak, kostaldean batik bat⁵⁴.

Beraz, sarrera egin ondoren, "Villa Real de San Nicolás de Orio" izeneko herriaren sorreraren nondik-norakoak aztertuko ditugu.

2. ORIOREN SORRERA: HIRI-GUTUNA

1379. urtean, Gaztelako erregeak, Juan I.ak, San Nicolas elizaren inguruan bizi ziren eliztarrei Orion kokatzeko eta bertan bizitzeko Hiri-Gutuna eman zien. Pribilegio hori aztertuz, sorreraren arrazoiak, izaera eta ezaugarri nagusien balorazioa egin ahal izango dugu.

⁵⁰Kontutan hartu behar dugu garai horretan aberastasun mailak gariaren emankortasunarekin lotura haundia zuela. (GARCÍA DE CORTÁZAR, J.A.: "El fortalecimiento de la burguesía como grupo social dirigente de la Sociedad Vascongada a lo largo de los siglos XIV-XV", *La Sociedad Vasca rural y urbana en el marco de la crisis de los siglos XIV y XV. II Symposium sobre Historia del Señorío de Vizcaya*, 1974, 286. orr.)

⁵¹BANÚS Y AGUIRRE, J.L.: "El movimiento municipalista de Guipúzcoa", *Las formas de poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*, 1975, 45-76. orr.)

⁵²Gipuzkoako hiri ezarkuntzaren prozesua 1180. urtean hasi da eta 1383an bukatu zen. Aldi bakoitzeko ezaugarriak, arrazoiak eta ezarritako herriak eta foruak ezberdinak dira. B. ARÍZAGA BOLOMBURU-k prozesuaren aldiak zehazten ditu bere lanean. Ikusi: *El nacimiento de las villas guipuzcoanas en los siglos XIII-XIV. Morfología y funciones urbanas*. Doctor Camino, Donostia, 1978; "Las villas guipuzcoanas que reciben el Fuero de San Sebastián", *El Fuero de San Sebastián... op. cit.; Urbanística medieval (Gipuzkoa)*. Kriselu, Univ. Cantabria, 1990.

⁵³Azkoitia eta Zestoaren kasuak ezberdinak dira, inguruko gatazkak pairatzeko bertan ezarriak izan ziren. Ikusi: BILBAO, L.M., FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: "En torno al problema del poblamiento y la población vascongada en la Edad Media", *Las formas de poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media* (1978), 305-337. orr.)

⁵⁴Horregatik, garai honetan hainbat herrien artean, Deba eta Oriori pribilegioak eman zizkieten, herri bana finkatuz.

2.1. HERRI EKIMENAREN GARRANTZIA

Lehenik eta behin, herri ekimenaren garrantzia aipatu behar dugu. Orioko eliz txikiaren inguruan bizi zen jendeak eskatu zion erregeari bertan finkatu ahal izatea⁵⁵. Bestalde, jendearen biltokia parrokia zen, baita herria sortu baino lehen ere; beraz, eliza oso garrantzitsua izan zen⁵⁶. Gainera, aurrerago ikusiko dugun bezala, ezinbestekoa izan zen eliz-antolaketaren garrantzia Orioko historian.

Nahiz eta Orioko eliztarrek herria eratzeko eskaera egin, gainontzeko guztiek ere izan zuten kontzesioa, hau da, bai merkatariek eta baita bertara bizitzera joandakoek ere⁵⁷. Beraz, garbi dago biztanlegoak garapena bultzatzeko zuen nahia.

Hiri-Gutunean emandako pribilegioen artean lurralde batzuetako jurisdikzioa dago⁵⁸. Jurisdikzio kontzesioa herria kokaleku pribilegiatu batean bihurtzen duen funtsezko ezaugarria da.

2.2. LEKU PRIBILEGIATU BATEN ERAKETA

Herria eratzeko baimenarekin batera, erregeek Foru baten kontzesioa egiten zuten Hiri-Gutunaren bidez⁵⁹. Erregeak, Orioko kasuan, Donostiako Forua eman zion, Jaka-Lizarraren Forua, itsasoari moldatutakoa. Donostiako foruaren ezaugarrietako batzuk dira: Franko-Forua zen, hau da, bertako biztanlegoak pribilegio ekonomiko eta juridiko ugari zituzten eta, atzerriko jendearen erakartzen zuten. Horrekin batera, Foruak bere burua gobernatu eta antolatzeko oinarriak finkatzen ditu⁶⁰. Foruaren eta Hiri-Gutunaren kontzesioaren funtzesko garrantzia hau da: leku-pribilegiatu baten eraketa; Oriok bere jarduerak askatasunez garatu ahal izan zituen, baina baldintza juridiko-administratibo zehatzen bidez.

2.3. EKONOMIA ETA MERKATARITZA IZAERA

Hiri-Gutuna ematearen beste arrazoietakoa bat ekonomiak eta merkataritzak zuen garrantzia izan zen. Orion herri bat finkatzeko arrazoen artean merkataritza hurbiltzea izan zen. Dena dela, Orioko portuan merkataritza bazela egiaztatu dezakegu⁶¹. Horrezaz gain, esan dugun bezala, inguruko burdinoletan landutako burdinaren pasalekua zen eta bertan zergak kobratzen ziren. Guzti hori herria izan baino lehen. Beraz, horretan datza Orion herri bat finkatzearen gakoetako bat: lehendik zegoena mantendu eta indartu, hori nahi zuen erregeak. Hau da, merkatariek

⁵⁵... por hacer bien e merced a vos los parroquianos de la iglesia de San Nicolás de Orio, que me lo enviastes pedir por merced..." Ikusi Orioko Hiri-gutuna: II. ERANSKINA (1379)

⁵⁶ACHÓN INSAUSTI, J.A.: 'A voz de concejo'. *Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa. Los Bñez y Mondragón. Siglos XIII-XVI*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1995, 34. orr.

⁵⁷"... porque seades mejor guardados e amparados vos e vuestros vienes e los otros mercaderes, viandantes que van e vienen por la tierra y por la mar (...) sobre el dicho brazo de mar non hay otra villa poblada..." Ikusi Orioko Hiri-gutuna: II. ERANSKINA (1379)

⁵⁸"... e que haya por sus términos e pastos e exidos todos aquellos términos que vos los dichos parroquianos de la dicha iglesia habiades e habedes fasta aquí..." Ikusi Orioko Hiri-gutuna: II. ERANSKINA (1379).

⁵⁹E. CORRAL GARCÍA: Hiri-Gutunei buruz hitz egiterakoan hau esaten du: "... documentos de carácter público emanados del poder real o señorial cuyo objetivo es procurar la repoblación de un lugar que se funda de nuevo o que se trata de favorecer... una vez otorgadas y aceptadas adquieren el carácter de un pacto que obliga a las partes..." *Ordenanzas de los concejos castellanos: formación, contenido y manifestaciones (ss. XIII-XVIII)*. Burgos, 1988, 27. orr.

⁶⁰"... e que hayades el Fuero de la villa de San Sebastián e todas las franquezas, libertades, buenos usos e buenas costumbres que el dicho concejo de la villa de San Sebastián ha (...), e pongades en la dicha villa por cada año alcaldes, prebostes, jurados, escribanos e otros oficiales qualesquier..." Ikusi Orioko Hiri-gutuna: II. ERANSKINA (1379).

⁶¹L.M. BILBAO eta E. FERNÁNDEZ DE PINEDOK dioten bezala: "... el otorgamiento de fueros a una localidad no quiere decir que antes el lugar estuviera despoblado (...). Las actividades pesqueras y mercantiles habrían precedido al otorgamiento de privilegios. Y la pesca y el comercio no se explican sin la existencia de intercambios y de una elemental división del trabajo". "En torno al problema del poblamiento..." *Op. cit.* 305-337 orr. Zentzu honetan, ikusi aurreko kapituluan 1294. urteko dokumentuaren azalpena.

hona etortzea, kargak eta deskargak bertan egitea, errenta sistema mantentzea, eta lur lur komunikazioa garatzea⁶². Beraz, pribilegio guzti horien bidez, Oriok oinarri politiko, administratibo, demografiko eta hirigintzarako finkatu ahal izan zituen. Horrela hasi zen Villa Real de San Nicolás de Orio izeneko kokalekuaren herri ibilera historikoa.

⁶²“ ... e que sea en la dicha villa de Villa Real de San Nicolás de Orio la carga e descarga de los navíos que (..) aportaren; (...) que sea en la dicha villa el peso e rentería del fierro que en las ferrerías de las comarcas se ficiere e labrare; (...) porque sean mejor guardadas e recabdadas (...) todas las rentas e pechos e derechos que a mí pertenecen en las dichas comarcas para mi servicio...” Ikusi Orioko Hiri-gutuna: II. ERANSKINA (1379).

III. ATALA.

EKONOMIA: ORIOTARREN JARDUEREN BILAKAERA

I. ITSASOAREKIN LOTUTAKO JARDUEREN NAGUSITASUNA (XV. MENDETIK XVI. MENDE BUKAERA ARTE)

Garai hartan Oriok duen ezaugarriarik nabarmenena jarduera ekonomiko batzuen bultzada eta horrek sortutako garapen ekonomikoa da. Momentu hartako jarduera ekonomiko garrantzitsuenak hauek ditugu: merkataritza, arrantza eta ontzigintza. Baina, horien azterketari ekin baino lehen, garapenaren kontestu orokorra ikusi behar dugu, hain zuzen ere, Ipar Europa osoak merkataritzaren inguruan lortutako ekonomia bateratuaren prozesua.

1. EGITURA EKONOMIKOAREN ALDAKETA

1.1. MERKATARITZA, ESKAERA ETA ESKAINTZAREN INGURUKO ALDAKETAK

XIII. eta XIV. mendeetan Europako antolaketa ekonomikoak, oraindik ere, Erdi Aroko ezaugarrien aztarnak zituen: tokian tokikoa zen; hau da, produkzio guztia hirian bertan kontsumitzen zen, dirua ez zen asko erabiltzen, eguneroko beharrei aurre egiteko bakarrik... Baina XV. mendetik aurrera bizitza ekonomikoaren oinarriek erabateko aldaketa izan zuten⁶³.

Aro Modernoaren hasierako ezaugarriarik funtsezkoena merkataritzaren antolaketa ekonomiko bateratuaren garapena da. Antolaketa ekonomikoaren ezaugarriak hauek dira: merkataritzaren garapena, eskaeraren aldaketa eta horri aurre egiteko posibilitateak: eskaintza.

Garai honetan, merkataritzaren garapena aberastasun maila neurtzeko irizpide nagusia da. Horrezaz gain, hainbat jarduera ekonomiko kontuan hartu behar dira, diruarekin ordaindu behar ziren salerosketak, herrialdeak aberastasunaren arabera eratuak zeuden, etab.

Aurreko ezaugarriarekin batera, eskaeraren aldaketa kontuan hartu behar dugu. Batetik, eskatutako produktu aipagarrienak burdina eta egurra dira, ontzigintzarekin lotuta daudenak; eta, bestetik, merkatal eta garraio zerbitzuak.

Euskal Herriko eta, batez ere, Gipuzkoako eskaintzak borobildu zuen harremana. Gipuzkoa eskaera guztien gunea izan zen, bere eskaintza zabalarekin eskaerei aurre egiteko gai baitzen.

⁶³VICENS VIVES, J.: *Historia General Moderna (siglos XV-XVIII)*. Vicens-Vives. Barcelona 1981. 7. orr.

1.2. IPAR EUROPA, GAZTELA ETA GIPUZKOAREN ARTEKO LOTURAK

Jarraian, Ipar-Europaren, Gaztelako Koroaren eta Gipuzkoaren arteko harremanen bidez, antolaketa ekonomiko bateratuaren garapena ikusiko dugu.

XVI. mendeaz geroztik Gaztelako Koroak atzerriko herrialdeekin zituen merkatal loturak XV. mendekoak baino lehenagokoak izan zitezken⁶⁴. Gauza bera gerta zitekeen Flandes, Ingalaterra eta Frantziako kasuetan ere. Harremanen oinarria produktu konkretuen eskasia eta beste batzuen erabateko gabezia izan zen. Horregatik, gabeziei edo beharrei aurre egiteko harremanak hasi ziren, guztiz orekatuak ez ziren arren. Gaztelako Koroak Ipar-Europako herrialdeei (Frantzia, Flandes eta Ingalaterrari, batez ere) bere lurretan landutako produktuak eskaintzen zizkien: ardoak, fruitu lehorrak, zitrikoak, artile ugari, Bizkaiko burdina (azken hau Ingalaterrara eramaten zen, batik bat). Gaztelak zuen merkatal harreman garrantzitsuenetakoa Flandeseekin izan zen: artilaren komertzioa⁶⁵.

A. DOMÍNGUEZ ORTIZek dioen bezala, Gaztelak, batez ere, nazioarteko komertzioan izan zuen indarra. Bultzada hori Europa osoan nabarmendu zen, baina batik bat Europa Erdikoan eta Iparrean. Ikertzailearen arabera, bultzadari esker, Kantauriko portuetako jarduerak areagotu egin ziren: ontzigintza, arrantzaren inguruko jarduerak, burdin esportazioak... Horrela baieztatuta daiteke hemengo portuen lotura Gaztela, Ingalaterra, Frantzia eta Flandeseekin⁶⁶.

1.3. GIPUZKOA ETA BIZKAIA

Aurreratu dugun bezala, Europaren eta Gaztelaren arteko lotura ekonomikoak eragina izan zuen gure kostaldean. Jarraian, Gipuzkoak eta Bizkaiak jasandako ondorioak ikusiko ditugu.

Europako ekonomia indarberrituta agertzen da XV. mendetik aurrera: eskaeraren antolaketa eta sektore produktiboetan emandako aldaketa dira horren adierazgarri. Lehenik eta behin, Gipuzkoako baliabide naturalen garrantzia aintzat hartu behar dugu. Gipuzkoako nekazaritza oso pobrea zen: bertako jendearen beharrei aurre egiteko ere gutxiegi. Hala ere, bazituen bestelako baliabideak, hau da, meategiak eta, baso eta ibai ugari. Gainera, kontuan izan behar dugu Gipuzkoak duen kokapena, Gaztelarekiko eta Ipar Atlantikoko herrialdeekiko. Ezaugarri horiek, baliabide naturalak eta kokapen geografikoa, nekazaritzaren pobrezia konpentsatu zuten. Horrezaz gain, Gipuzkoak pribilegio fiskal batzuk zituen, zerga gutxi ordaintzen baitzituen. Baliabide naturalei esker, burdingintzak bultzada eta garapen garrantzitsua izan zuen. Eta kokapen estrategikoari esker, Gipuzkoa, Gaztela eta Europaren arteko harreman komertzialak eta garraio-zerbitzuak sakondu egin ziren. Guzti horrekin batera, eta burdingintzarekin lotuta, ontzigintza piztu zen⁶⁷. Bestalde, Gipuzkoa eta Bizkaiko betiko nekazal galerak Andaluzia eta Frantziako gariarekin bete ziren. Azken finean, Gipuzkoak, Bizkaiak eta Arabak zerga gutxi ordaintzen zituztelako.

⁶⁴Garai honetan, euskaldunek garraioetan indar haundia zuten. "Efectivamente, los vinos gascones eran exportados a Inglaterra en naves vascas. Cosa similar ocurría con los caldos que desde Nantes eran transportados a Inglaterra y Escocia" (URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores socio-económicos que hacen congruente la construcción de un puerto en la ría del Oria*. (Argitaratu Gabe) Donostia, 1984, 37. orr.).

⁶⁵GELABERT, J.E.: "El Siglo de Oro (siglo XVI). Economía y Sociedad". *Historia de España*, T. 5. Planeta, 1988, 242-244. orr.

⁶⁶DOMÍNGUEZ ORTIZ, A.: "El Antiguo Régimen. Los RR.CC. y los Austrias". *Historia de España Alfaguara*. Alianza Editorial, Madrid, 1978, 19 orr.

⁶⁷BILBAO, L.M.; FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: "La producción agrícola en el País Vasco (1537-1850)", *Cuadernos de Sección Historia, El-SEV*, nº 2, 1984, 83-196. orr.

Nazioarteko antolakuntza ekonomiko bateratuak merkatua zabaldu zuen eta, ondorioz, zenbait jardueren aurrerapena bultzatu: burdingintza, merkataritza, garraioak, arrantza, ontzigitza, esportazioak...⁶⁸.

Beraz, baliabide naturalak (orografia, eguraldia, meategiak...) eta kokapen geografikoa, Gipuzkoak eta Bizkaiak dituzten aberastasun potentzialak dira. Eskaeraren arabera, bi potentzial horiek errealitate bihurtu ziren (burdingintza, ontzigitza, garraio-zerbitzuak, arrantza) bi baldintzak bete zirelako: gure lurraldeek ez zuten zergarik eta, Gaztela eta Europaren arteko lotura ekonomikoa⁶⁹.

Hortaz, Gipuzkoako XVI. mendeko garapen ekonomikoaren gakoak izan ziren: alde batetik, Europako eskaerak erakarri eta horiei aurre egitea; eta bestetik, Gaztelako Koroak nazioarteko "sistema" ekonomiko bateratuaren nagusitasuna mantentzen laguntzea. Horrela bada, Gipuzkoa, nazioarteko antolaketa ekonomiko batuaren eraginez, *Europako leiho* bihurtu zen eta, Gaztelako Koroaren eraginez, bertako baliabideak bultzatu ziren, nekazal galerak konpentsatzen ziren bitartean. Bestalde, kontutan izan behar da, Gipuzkoak, Arabak eta Bizkaiak ez zutelako zergarik ordaintzen, eta garapen ekonomikoarentzat gutiz lagungarria izan zela hori.

2. ORIOKO JARDUERA EKONOMIKOEN GARAPENA: BULTZADA

XV-XVI. mendeak, esana dagoen bezala, antolaketa ekonomiko bateratuaren garaia izan zen. Igoera ekonomikoaren eragina nabaria izan zen Orion, nekazal galerak konpentsatzeko bertako ekintza batzuek bultzada handia izan baitzuten. Izan ere, sortu zenetik (XIV. mende bukaeratik aurrera) Orion herri bat finkatzeko interesa zegoen, hain zuzen, jarduera ekonomiko jakin batzuk sortu eta bultzatzeko⁷⁰.

2.1. NEKAZARITZAREN ESKASIA

Edozein herrirentzat funtsezkoa da berez dituen baliabideak lantzea. Beraz, nekazaritza (beste hainbat baliabideren artean, hau da, burdina, egurra, ibaiak, arrantza) derrigorrezkoa da ekonomiaren garapena aztertzeke.

Betidanik, Gipuzkoa eta Bizkaiko nekazaritzaren ezaugarri nagusia aleen eza izan da, bertako lurrak oso gutxi ematen baitzuten⁷¹. Orioko kasua ez da ezberdina: geografari buruzko kapituluaz azaldu genuen bezala, geologia eta topografia ezaugarriek ez zuten garia (produktu nagusia) lantzeko egoera aproposa eskaintzen. Hala ere, nolabaiteko nekazal jarduera bazen, zenbait baserrietan landutako aleak, garagarra, zekalea, gaztainondoak, intxaurreak eta sagarondoak⁷². Hain zuzen ere, XVI. mendeko nekazal produktorik funtsezkoenetakoa sagardoa izan zen, baina bertako beharrei aurre egiteko besterik ez zen izan⁷³.

⁶⁸BILBAO, L.M.: "La general expansión del siglo XVI en Vascongadas", *Historia General del País Vasco*. T. 6 LGEV Haranburu, 109-120. orr.

⁶⁹IDEM: "Transformaciones económicas en el País Vasco durante los siglos XVI y XVII. Diferencias económicas regionales y cambio de modelo económico", *Historia del Pueblo Vasco*, 2. Erein, Donostia, 1979, 113-114. orr.

⁷⁰ARÍZAGA BOLOMBURU, B: *El nacimiento de las villas guipuzcoanas...* Op. cit. 31 orr.; IDEM: *Urbanística medieval...* Op. cit. 144. orr.; ACHÓN INSAUSTI, J.A.: Op. cit. 31 orr.

⁷¹BILBAO, L.M.: "La general expansión del XVI..." Op. cit. 112. orr.

⁷²1508. urteko dokumentu batean Aizpitarte baserrien hondasun barnean zehaztuak hauek zeudela aipatzen da (OUA, *Ezkontza gutuna*, C-IV, D-4/1 [1507-X-17]).

⁷³Garaiko dokumentuetatik ateratako ondorioa da. 1574. urteko Arantzelean sagardoari buruzko aipamena agertzen da eta, agiriaren arabera, bertako edo kanpoko produktuari zerga bat ezarri zioten: "...cada varrica de sidra, aunque sea de la cosecha de la dicha villa e se vendiere y se gastare en ella, ocho maravedís". Beraz, aldi honetan behintzat, Orion sagardoa bazegoen, baino ez beste herritarra kanporatzeko aina. (Ikusi Arantzela: V. ERANSKINA, 1574).

Nekazaritza hain eskasa izanik, garia beti kanpotik ekarri behar izaten zen. Gariaren horniduraz Kontsejua arduratzen zen⁷⁴, eta, garia eta bestelako aleak ehotzeko, errotak eraiki zituzten. 1506. urteko dokumentu batean erroterei buruzko lehenengo aipamena aurkitu dugu. Horiek Kontsejuarenak ziren eta errentan ematen zituen⁷⁵. Urte batzuk geroago, hain zuzen ere 1515. urtean, Kontsejuak beste errota bat eraikitzea erabaki zuen, errekan, besteen ondoan⁷⁶.

Beraz, garai honetan nekazal jarduerak bertako beharrak besterik ez zituen asetzen, nahiz eta Kontsejuak errotak jartzean, nekazaritza indartu eta erraztu. Garrantzitsua iruditu zaigu nekazaritzari buruzko azalpen xume horiek ematea, nekazal produktu gutxi izateak bultzatu baitzuen, besteak beste, oriotarrak beste lanbideetan hastea.

2.2. MERKATARITZA: BURDINAREN INGURUKO GARAPENA

Merkataritzari buruz zehaztaper batzuk egin beharko genituzke: merkataritza ezin da bera bakarrik aztertu, beste zenbait jarduera eta gertakizunekin erabat lotuta baitago. Izan ere, Gaztelako Koroak Europako herrialdeekin izandako harreman politikoak aztertu behar dira; bestalde, merkataritzak beste jardueren garapenarekin lotura handia duela kontuan izan behar da (burdina, arrantza, ontzigintza); eta azkenik, merkataritza pasabide ere oso garrantzitsua da (burdinaren pasabidea eta aduanak)⁷⁷.

a) Merkatal harremanak Europarekin

Ikusi dugunez, Euskal Herriaren eta Europaren arteko lehen merkatal harremanak, Erdi Aroaren bukaeran hasi ziren⁷⁸. Geroztik, XV. mende bukaeratik 1575-1580. urteak arte, Frantzia, Ingalaterra eta Flandesekin harremanak izan zituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkitu dugu⁷⁹. 1477tik 1501. urte bitartean Oriok Flandes eta Ingalaterrarekin izandakoarenak ere bai⁸⁰. Europarekin merkatal harremanak ez ziren oso sendoak oraindik, hortaz, oriotarrek (Gipuzkoako beste herritarrek bezala) beste herrialde batzuekin gatazkak izan zituzten merkataritzaren nagusitasuna ezartzeko. Bestalde, garai horretan Ingalaterrarekin zuten harremanak irauten zuen; handik, besteak beste, oihalak ekartzen zituzten⁸¹. Frantziatik ere inportatzen zen, batez ere La Rochelletik ardoa ekartzen zen⁸².

⁷⁴Adibidez, Domingo de Mirandak eta Juan Martinez de Arratolak, Orioko Kontsejuaren izenean, Juan Perez de Idiakaizi 182 urre dukat (moneta zaharra) ordaindu zioten, 300 anega gari ordaintzeko (OUA, C-V, D-4/10-5 [1521-IV-15]).

⁷⁵1506. urteko aipamena, Martin de Ondarra kapitainaren eta Juango de Berraiarza sokagileen arteko kontratua da. Bertan, Orioko errotetan landutako hirinaren salmenta egiaztatzen da eta gariaren prezioa aipatzen da (GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.214 [1506-VI-9]). 1510. urteko Orioko erroten enkante publikoan, aipatzen da oriotarrek artotxiki eta garia eraman zezaketela (GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.215 [1510-VI-5]).

⁷⁶GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.217 (1515-III-29).

⁷⁷Europarekin izandako harreman komertzialen berri badugu eta, aurrerago aipatuko ditugu. 1785. urteko dokumentu batean, burdin eta itsas-erakuntzako produktuen komertzioa aipatzen da. Bertan, sorreraren garaiaz hitz egiterakoan, Oriok merkataritzan duen kokapenaren garrantzia agertzen da (OUA, C-VI, D-1 [1785]; HEAA, Vargas Ponce Bilduma. Vol. 24, 9/4.197 [1785]).

⁷⁸FERREIRA PRIEGUE, E.: *Op. cit.*

⁷⁹Agiri hauetan, emandako datu gehienak, xumeak eta berandu xamarrekoak izan arren, kanpoko herrialdeekin izandako merkatal mugimenduetaz hitz egiten da. Hainbat artxiboetan lortu ditugun dokumentuak, orokorrean, XVI. mendeko bigarren zatikoak dira. Aurreko aipamenak, berriz, gutxi dira. ⁸⁰1477ko dokumentu batean, Orio, Asteasu eta Mutrikuko hiru mariñel atxilotuak izan zirela aipatzen da. Antza denez, mariñelak Ingalaterrako buke batean ari ziren lanean, eta, gainontzeko tripulazioa hil eta gero, merkantzia lapurtu eta Galizian saltzeko asmoa zuten (GAO, Sec. 3, Neg. 9. Leg. 1 [1477-VIII-9, Medina del Campo]). Bestalde, 1492. urtean Genovako merkataritza batzuk, Flandesera produktuak saltzera zihoaztela, Orio, Getaria, Donostia eta Burgoseko maestre batzuek ontzia erasotu, eta zeramaten guztia lapurtu zuten. Itsas-lapur horien artean Pedro de Otaegi zegoen, ontzi-maestrea, eta denen artean erreskatea eskatu zuten. Gero, genovetarrak auzitan sartu ziren Kantzelaritzan, eta azkenean, erasotzaileek erreskatea behar izan zuten (VEKA, Zarandona y Wals. C.771/11. Leg. 166 [1496-1499]; Reales Ejecutorias. C.141/69 [1499]; Quevedo. C.2.768/1. Leg. 596 [1500-1501]; Reales Ejecutorias. C.164/29 [1501]).

⁸¹1517. urtean, auzi baten eraginez, Ingalaterrako koloretako oihalak ekarri zituztela aipatzen da (VEKA, Zarandona y Wals. C.884/3. Leg. 193 [1517-1518]).

⁸²GAO, JD- AJI (1537).

Esana dagoen bezala, merkataritza ezin da jarduera bakana bezala aztertu, beraz, hurrengo ataletan, hau da, arrantza eta ontzigintzari buruzkoetan, produktu horien merkataritzarekin lotutako harremanetaz arduratuko gara.

b) Burdinaren garapenaren inguruko kontrol fiskalak

Segidan, Oriok burdinaren pasabidean izan zuen garrantziaz arduratuko gara, merkataritzaren inguruan sortutakoa, alegia.

* XIII. mendean, ikusi dugun bezala, 1294. urtetik aurrera, Orio beste portu batzuekin batera burdinaren esportaziorako hamarrenen portua izan zen (bertan hamarrena edo zerga ordaindu behar zen). Gogoan izango dugu, herriaren sorrerarako arrazoietako bat, burdinaren zergak kobratu beharra izan zela. Beraz, burdinarekin lotutako merkatal garapena nabaria izan zen XIII. mendetik XVII. menderarte, gutxi gora-behera.

* Burdinaren inguruko garapena handituz joan zen, hain zuzen ere, Orion kontrol fiskalak ezartzeraino. Alde batetik, XIII. mendetik aurrera portuan bertan zegoena; eta bestetik, berri batzuk ezartzen, hain zuzen ere, erria pasatzeko bidaiarien eskubideak:

- Portuko kontrol fiskalei dagokienez, XVI. mende hasieran gutxienez, Orion lonja zegoen; Oriotik pasatzen zen burdina bertan pisatzen zen, bai kanpora eramateko, eta bai bertako edo barruko beharrei aurre egiteko⁸³. Ditugun datuen arabera, Orioko lonjetan egiten zena zera zen, pisu eta neurri batzuen arabera burdina pisatzen zen. Gero, pisua eta neurriak ezarrita zeudenean, burdina saltzen zen. Horrezaz gain, burdina lonjatik pasatzerakoan zegokion zerga ordaindu behar zen, neurriaren arabera⁸⁴. Lonjak, biltokiak izateaz gain, merkataritza eta errentak ordaintzeko lekuak ziren⁸⁵. Oro har, itsas edo ibaiko portuetan zeuden eta, batez ere, merkatal gune ziren herrietan. Orioko lonjan, DÍEZ DE SALAZARren arabera, 1569. urtean, 200 kintal burdinengandik 680 marabedi ordaindu ziren⁸⁶.

Orioko lonjan burdin salerosketak XVI. mendean zehar egin ziren.

- Salerosketak eta errentak kobratzeko tokiak ezartzeaz gain, Orion beste kontrol bat agertu zen, hain zuzen ere 1507. urtetik aurrera eta, lanbideak honela izena zuen, *fiel y cogedor del Concejo de los derechos de albalás y diezmo viejo del hierro de las ferrerías del Val D'Orio*⁸⁷. Kargu horretaz Orioko herritar bat arduratzen zen. Kontzejuak hautatzen zuen eta urtero aldatzen zen. Zerga-zaintzailearen betebeharrak Orioko portutik sartu edo irtetzen zen burdinaren kintal bakoitzari *albaláren* kantitatea kobratzea zen. Hau da, albalaren kintal bakoitzeko 3 marabedi kobratu behar zuen. Gero, fiel honek erregeari eman behar zion kobratutako diru guztia. Salerosketa eta errentaren ordainketa portuko lonjan egiten zen⁸⁸. 1555. urtean, adibidez, Kontzejuak

⁸³Lonjei buruz topatutako lehenengo aipamenak 1508. urtekoak dira: Martin Perez de Lertxundi zarautzarrak, Don Juan de Etxaberi, Orioko apaiza, 16 burdin kintal ordaindu zizkion: "tales que sean de dar e tomar entre mercaderes, puestos e quintalados e qualquiera lonja de las de Orio e Aya e Oribar, del peso que fuera, quitos de todos derechos". Ikusi GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.214 (1507-VII-12).

⁸⁴Neurriak hauek ziren: "quintal macho de 50 libras" eta Orion agertzen zen. 1555. urtean bajelada —bajela garai hartako ontzi mota da, eta, beraz, bajelada, ontzian sartzen zen kopuruari deitzen zitzaion— bakoitza 200 kintal zen; 1547: bajelada 600 kintal. Normalean 400 kintal ziren. Datuak DÍEZ DE SALAZAR ikertzailearen liburuan daude: *Ferrerías en Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*. Vol. I, Haranburu, Donostia, 1983, 108. orr.

⁸⁵Lonjak edo kintalak —garai batean gauza bera esan nahi zuten— mantentzearen Oriok Aia eta beste itsadarreko tokiekin auziak izango ditu 1473-1622. urte artean. Gai hau, jurisdikzio auziak azaltzerakoan berreskuratuko dugu.

⁸⁶DÍEZ DE SALAZAR, L.M.: *Ferrerías... Op. cit.* 108. orr. Bestalde, 1508. urtetik aurrera Gipuzkoako Protokoloen Artxiboan lonjetan egindako burdin salerosketen aipamen ugari dago.

⁸⁷1507. urtean, Juan de Errialdek, Orioko bizilagunak, kargu hau izan zuen (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.214 [1508]).

⁸⁸Hain zuzen ere, 1500. urtean instituzionalizatu zen. Orion eta Zumaian fiel batzuk erosi eta itsasotik irtetzen zen burdinaren kopuruak idazten zuten. Bere betebeharrak ez zituztelako ondo egiten, EEKk portu bakoitzean bi lagun egoteko agindu zuten, eta "que llevasen libro y buena cuenta de ello" (DÍEZ DE SALAZAR, L.M.: *Ferrerías... Op. cit.*, vol. 2, 310. orr.).

Cristobal de Segura izendatu zuen lan hori egiteko⁸⁹. Kargu horrek luze iraun zuen Orion, 1601. urte arte hain zuen ere.

- Oriok, zerga kobratzeko portua izateaz gain, beste portu-eskubide batzuk zituen: 1484. urtean erria pasatzeko bi ontzi erabiltzeko eskubidea lortu zuen. Ontziak jendea eta abereak pasatzeko erabiltzen ziren⁹⁰. Pasaia edo pasaje eskubidea ontzi gidariek kobratzen zuten ibaia edo itsasadarra pasatzeagatik. Oriotarrek Sudugarayn eta Arratolan jarri zituzten. Pasatzeko Pribilegioaren testuan argi ikusten da Errege Katolikoek Oriori eman zioten lizentzia, hau da, pasaiako eskubidea, aurretik zegoen usadioa zela⁹¹.

Pasaiaren sistema honela izaten zen: ontzi gidariek bidaiariei pasajea erabiltzeagatik dirua kobratzen zieten, "cada vestia cavallar o mular cargada tres maravedís, (...) vestia asnal (...) cargada dos maravedís". Oriotarrek eta erromesek, ordea, ez zuten ezer ordaindu beharrik. Pribilegio horren hartzailea Orioko Kontzejua zen, eta era berean, eskubide hori errentan jar zezakeen, izan ere, historian zehar horrela egin izan zen⁹².

- Eskubide horiezaz gain, XVI. mende erdialdean, Usurbilgo Atxega-Zarautz Ahaide Nagusiek zerga batzuk ezarri nahi izan zituzten. Hain zuzen ere, 1549. urtean Orioko erriora burdinez betetako *bajelero* izeneko ontzi gidariei erreal bat kobratzen zieten ontzi bakoitzeko. Horren ondorioz, Orioko prokuradore batek, Nicolas de Villabeatek, Batzar Nagusietara jo zuen Orioko Kontzejuaren kexa azaltzera⁹³.

Atxega-Zarautz eta Oribartarren ahaleginetan garbi dago Ahaide Nagusiek burdingintzan diru iturria ikusi zutela eta probetxua atera nahi izan ziotela.

- Baina Ahaide Nagusiak ez ziren burdin-errentari probetxua atera nahi izan zioten bakarrak; izan ere, Orioko Kontzejuak, baimenik gabe, errentaren ordainketa kopurua gehitu nahi izan zuen 1554. urtean⁹⁴. Batzar Nagusiek ez zuten onartu, baina, urte batzuk beranduago, 1574an, Oriok Pribilegio Erreal baten bidez, beste Arantzel bat sortu eta *sisa* ezartzea lortu zuen.

- 1574. urteko Arantzelaren *sisarekin*⁹⁵ Oriok burdina eta beste produktuen gaineko eskubideak gehitu ahal izan zituen. Sei urte iraun zuen eta, Orioko Kontzejuak ezin zuen urte bakar batean 200 dukat baino gehiago jaso. Erret pribilegio baten bidez Arantzela lortu zuten eta, Orioko errioko lanetan laguntzeagatik izan zen. Hain zuzen ere, 1574ko urriaren 17an, Orioko Kontzejuak arantzela argitaratu zuen; portuko barratik sartu edo ateratzen zen produktuek diru kopuru bat ordaindu behar zuten. Arantzelean aipatzen ziren produktuak mota askotakoak ziren: arrainak, garia, harriak, ontziak, egurra, ardoa, sagardoa eta, jakina, burdina. Burdinari ezarri zioten ordainketa, batetik, "quintal de vena para labrar fierro, un maravedí" zen; eta bestetik, sartu edo ateratzen zen kintal burdinari 2 marabedi. Horrezaz gain, 1576. urtean Kontzejuak *sisa* hori kobratu eta administratzeko pertsona bat izendatu zuen,

⁸⁹GPAH, Domingo de Hoa 3/1.781 (1555-I-13).

⁹⁰Hain zuzen ere, 1484ko maiatzaren 22an, Valladoliden Errege Katolikoek Oriori itsasadar-pasaiako pribilegioa eman zioten (OJA, C-I, D-2; SAO, ZEO, Fol. 15 [1484]).

⁹¹Usadio hau behar bada, Orioko sortu zen garaikoa edo lehenagokoa da. Aurreko kapituluetan aipatzen genuen bezala, pasaiak hauek erromesak itsadarra zeharkatzeko erabili zuten, beraz, erromeriak sorrera baino lehenagokoak direnez, erabilera egiaztatu dezakegu.

⁹²Arratola eta Sudugarayko pasaietako alokairuaz, Udal Haziendaren atalean arduratuko gara.

⁹³GAO, JD- AJI, 2, 10 (1549-XI-Mutriku). DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías... Op. cit.* Vol. 2, 292. orr. Horrezaz gain, 1547-1548. urteetan Juan Lopez de Yero, Oribarko jaunarena dugu. Batzar Nagusiek Korregidorearen aurrean salatu zuten Oriotik Zarautzaino joaten zen jendeari zergak kobratzen zielako.

⁹⁴Zestoako mandazain batzuek Batzar Nagusietara jo zuten bere kexa azaltzera: Donostiara gari bila joaterakoan, zeramaten burdina Orion deskargatu gabe, pasatzeagatik bakarrik kintal bakoitzeko 3 marabedi eta erdi ordaindu behar izan zituzten.

⁹⁵"La *sisa* era una deducción que hacía el fisco (o el mercenario de la Corona) del precio de venta de un producto (...). En nuestra Provincia se recogió por arancel en los puertos" (DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías... Op. cit.*, Vol. 2, 285. orr.).

Domingo de Aganduru⁹⁶. Baina, Batzar Nagusiek arantzela argitaratu eta hilabetera, Oriok hartu zezakeen sisaren kopurua gutxitu egin zuten eta, dirua kontrolatzeko Domingo de Hoa oriotarra izendatu zuten⁹⁷.

* Burdinaren zergak eta ibaia pasatzeko eskubideen ordainketa sistema ikusi ondoren, jarraian, burdinoletan landutako produktuetaz arduratuko gara, komertzializazioaz, alegia. Esan dugun bezala, Orio, beste portu batzuekin batera, inguruko burdinoletan lantzen zen burdinaren pasabidea zen. Horretaz gain, Tolosaldean burdinez egindako produktuak ere Oriotik ateratzen ziren. Gipuzkoan eta Bizkaian landutako burdinaren lehenengo merkaturia Europa zen. Salmentak aztertzeke, Gaztelako Koroak atzerriko herrialdeekin zuen lotura politikoa kontutan hartu behar dugu:

- Adibidez, Frantziaren kasuan, Gaztelako Koroa eta Frantziaren arteko gerrak salerosketetan eragina izan zuen. Hala ere, DÍEZ DE SALAZARrek dioen bezala, Gipuzkoa eta Bizkaiak Frantziarekin zuten harreman komertziala ez zen eten, beraientzat burdina funtsezkoa baitzen⁹⁸. Ikertzaileak dio gatazka garaietan Koroak kortsarioak ordaintzen zituela etsaien ekonomia hondatzeko; euskal marinel asko dedikatu zen horretara dirua lortzeko⁹⁹. Hain zuzen ere, oriotar batzuek ekin zioten. 1537. urtean Miguel de Hoa kapitain oriotarrak, Frantziako Capbretoneko ontzi bat harrapatu zuen La Rochelle-koa zela pentsatuz. Batzar Nagusiak oriotarrak hartutako merkantzien dirua frantsesei ematea erabaki zuen. Garai hartan, Gaztelako Koroa Frantziarekin gerran zegoen, baina Capbreton-ekin merkatal akordioak finkatuak zituen. Seguruenik, oriotarrak akordio horren berri izan gabe, ez dakigu kortso-patentearekin edo ez, etsaiari lapurtu zion. Hala ere, ez da arraroa kapitain oriotarra konfunditu izana, garai hartan Koroaren akordioak eta aliantzak asko aldatzen baitziren¹⁰⁰.

Oro har, 1559. urterarte Koroak Frantziarekin zituen harremanak ez ziren onak izan. XVI. mende erdialdean Frantziaren kontra burrukatzeke prestatzen baitziren ontziak. Ontzi horien artean Orioko bat agertzen da: Juan de Mirandaren San Nicolas pinaza, tripulazioaren artean Anton de Segura kapitaina, Domingo de Miranda maestrea eta Martin de Iraeta lemaria zeuden, eta bere eginkizuna zera zen, "de armada contra Francia"¹⁰¹. Horrezaz gain, oriotarren lana Frantziaren aurkako gerra tresnen horniduraz arduratzea zen¹⁰².

1559. urtetik aurrera, dirudienez Frantziarako burdin esportazioa berriz hasi egin zen. Oriok Frantziarekin salerosketak egin zituela jakin dugu agirien bidez, adibidez, urte horretan, Joanesto de Chibaok, Donibane Lohizungoak, eta Domingo de Urrestik, Orioko bonbarda-maestreak, —bonbarda arma mota zen— kontratu bat sinatu zuten. Horren arabera oriotarrak 100 kintal aingura txiki egin zizkion, eta frantsesak, kintal bakoitzeko 29 erreale ordaindu zizkion¹⁰³. Bestalde, hainbait oriotar Frantziatik barrena ibili zirenen aipamenak badira. 1567. urtean Juan Martinez de Arranibar eta Domingo de Etxanizen ontzia La Rochelle-ra zihoala, Domingo de Ernialde, ontziko

⁹⁶Arantzelaren arabera ezarri zituzten kopuruak eta produktuak ikusteko: V. ERANSKINA (1574).

⁹⁷Orioko arantzelaren arabera, burdin kintal bakoitzeko 2 marabedi ordaindu behar zen; Batzar Nagusien arabera, aldiz, bajeladagatik 8 erreale ordaindu behar zen. Bajelada 200 kintal zela kontutan hartuta (edo behar bada gehiago), kintal bakoitzeko marabedi bat edo gutxiago ordaindu behar zuten. Etekinak, beraz, gutxitu egin ziren (DÍEZ DE SALAZAR, L. M.; AYERBE IRIBAR, M. R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa*. (1574-1577). T. VI. *Op. cit.* 101. orr.).

⁹⁸DÍEZ DE SALAZAR, L.M.: *Ferrerías... Op. cit.* 318 orr.

⁹⁹Behar bada, Pedro de Otaegik Genovako merkatariei lapurtzen zienean kortso patentea zuen. Ikusi VEKA, Zarandona y Wals, C/771/11 Leg. 166 (1496-1599).

¹⁰⁰GAO, JD-AJI, 1,9 (1537- XI- Zarautz)

¹⁰¹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.781 (1555-IV-25).

¹⁰²GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.781 (1555-VII-3): Donostiako ontzi batek Frantziaren kontra burrukatu zuen, eta behar zituen armak, munizioa eta polbora, Miguel de Hoa oriotarrak eman zizkion.

¹⁰³GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.784 (1559-IV-8). Kontratuaren arabera, Joanes de Aramburuk Urreztiri burdina emango zion, Arrazubiako burdinolatik aterata. Bonbarda-maestrea bonbarda edo 'lonbarda' izeneko arma egiten zuena zen.

langilea, hil egin zen. Oriotarrak Frantzian egoteak nolabaiteko harreman komertzialak zituztela pentsarazten digu, gainera, bibliografiak eta agiriek horrela adierazten digute¹⁰⁴.

- Bestalde, Gaztelako Koroak Ingalaterrarekin izan zituen loturak, 1564. urterarte indartuz joan ziren; euskal ontziek hara eramaten zuten produktu nagusia burdina zen eta, Ingalaterratik oihalak ekartzen zituzten. Baina 1564. urtetik aurrera Ingalaterrarekin zuten harremanak okerrera egin zuen. Zentzu horretan, Gipuzkoako kasuan Batzar Nagusiak honako hau agindu zuen: "que ningunas venas pasen ni lleben fuera d'estos reynos"¹⁰⁵. Beraz, horregatik, harrez gero Gipuzkoa eta Bizkaiko burdin esportazioak, Oriokoak barne, gutxitu zirelakoan gaude.

- Flandesekin izandako merkatal loturei dagokionez, hemendik burdina eta artilea eramane eta handik landutako oihala ekartzen zen. DÍEZ DE SALAZARren arabera, Gipuzkoak Flandesekin zuen harremana Bilbok zuena baino xumeagoa zen¹⁰⁶. Dena den, Orio eta Flandesen arteko burdin esportazioaren aztarna gutxi aurkitu dugu; 1559. urtean Orioko ontzi batek Flandesera egindako bidai baten datua besterik ez dugu aurkitu, eta ez dakigu burdina, artilea edo arraina zeraman edo ez¹⁰⁷.

- Bestalde, euskal esportazioak Cadiz eta Sevillara ere egiten ziren, hiri horien bidez Ameriketako merkataritza lotzen zen¹⁰⁸. Batzuetan, Orioko ontziak Sevillara joaten ziren; adibidez, Anton de Yero bi eta Juanes de Segura maestreek eta San Nicolas galeoiaren jabeak, ontzia alokatu zioten Getariako bati Sevillara joateko¹⁰⁹.

Beraz, burdin-salmenta eta komertzializaziori buruz zera ikusi dugu: batetik, Orio, Frantzia, Ingalaterra eta Flandesek harreman komertzialak zituztela, batzuetan garbiak, bestetan ez hainbeste; eta bestetik, aurkitutako agirien arabera ezinezkoa egiten zaigu harreman horien balorapen zehatza ematea.

* Burdin-merkataritzari bukaera emateko garai honetako gertakizun bat aipatu dugu, hau da, burdina txanpon modura erabiltzearena. Aldi honetan, Gipuzkoako produktu garrantzitsuenetakoa burdina izan zen; gainera, burdinola asko zegoen eta salmenta eta kalitatea oso ona zen. Horregatik, eta balioa galtzen ez zuenez, ordainketak egiteko, txanpon modura erabili izan zen. Dakigunez, XVI. mende hasieran, Orion batzuetan horrela gertatu izan zen. Partikularrek, Kontzejuak, maizterrek... burdinarekin egiten zituzten ordainketak eta beti Orioko lonjetan egiten ziren. Ikus ditzagun XVI. mendean izandako adibide batzuk:

- 1509. urtean, Orioko Kontzejuak Aiako Domingo de Olaberriari 100 kintal burdin eman behar zizkion zorra ordaintzeko¹¹⁰.

- 1510. urtean Orioko Kontzejuak mutrikuar merkatarari bati 100 pipa ardo eta diru truke, 100 kintal burdin eman zizkion¹¹¹.

- Urte horretan, Orioko Kontzejuak errotak errentan eman zituen eta subastan hartu zuenak ez zuen diruarekin ordaindu, burdinarekin baizik. Eta horrez gain, emandako burdinari esker Orioko Kontzejuak zuen zor bat ordaintzeko bailo izan

¹⁰⁴GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.793 (1567-XII-9).

¹⁰⁵DÍEZ DE SALAZAR, L. M.; AYERBE IRIBAR, M.R.: *Juntas y Diputaciones...* Op. cit. 1564. urtea. 427. orr.

¹⁰⁶DÍEZ DE SALAZAR, L.M.: *Ferrerías...* Op. cit. 331 orr. Berak esaten duenez, Gipuzkoa eta Flandesen arteko harremanetaz agiri gutxi dago eta baliteke, akordio ekonomikoak Bilboko portuan egitea zirelako izatea.

¹⁰⁷GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.784 (1559-I-20): dokumentu honetan Domingo de Etxaniz maestra aipatzen da. Hori, Cristobal de Agandururen San Nicolas ontziko maestra izan zen, Flandesera joan zen eta han, erregeak oriotarren ontzia infanteriarako bahitu egin zuen.

¹⁰⁸DÍEZ DE SALAZAR, L.M.: Op. cit. 345. orr.

¹⁰⁹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 (1561-II-12). Flandeseko kasuan esaten genuena hemen errepikatzen da: eramaten zituzten produktuak zeintzuk ziren ez da aipatzen.

¹¹⁰GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215 (1509-XII-6).

¹¹¹GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215 (1510-I-21).

zuen¹¹². Beste ondasun propioen errenta ematean ere (nasetakoa, adibidez) gauza bera gertatu zen.

Udal Haziendari buruzko atalera iritsitakoan, gertakizun horiek berreskuratuko ditugu balorazio zehatzagoa egiteko.

DÍEZ DE SALAZARrek dioen bezala, XVI. mendeko 50 eta 60 hamarkadak arte burdina txanpon modura erabili zen¹¹³.

2.3. ARRANTZAREN INGURUKO JARDUEREN NAGUSITASUNA

Jarraian Orion oso ugaria izan den jarduera batetaz arduratuko gara: arrantza. Arlo hau bi ikuspuntutik aztertu behar da: alde batetik, alturako arrantza, —bakailua eta balea—; eta bestetik, baxurakoa, Orioko itsasadarrean eta nasetan egiten zena.

a) Alturako arrantza: bakailua eta balea¹¹⁴

Gipuzkoa eta Bizkaiko marinelek Erdi Aro bukaeratik aurrera baleak harrapatzen zituzten. Hori ez zen bakarrik gure kostaldean egiten, Galizia eta Asturiasera ere zabaldu baitzen.

* Itsasbazarreko balearen arrantza

Orion, beste hainbat portutan bezala, toponimian aurkitu dugu bale arrantzaren aztarna, "Talaimeñdi" esate baterako. Baleak ikusi ahal izateko talaia gainera igotzen zen eta baleak itsasbazertera inguratzerakoan, talaiariak sua egiten zuen eta kea balea inguratzen ari zenaren abisua zen. Gero, talaiariak "balia, balia!!" garratsi egiten zuen. Batzutan ez zuen deia egiten, aldameneko herrietako arrantzaleak aurreratu ez zitezen; baina, portu bereko arrantzeleen artean adiskidetasun haundia zegoen.

CIRIQUIAIN GAZITARRO-k balea harrapatzeko moduari buruzko argibideak ematen ditu¹¹⁵: talaiariaren deia entzun ondoren, arrantzaleak beren pinazekin aurretik joaten ziren, eta baita arpoilariak ere. Balea arpoiaz iltzatu eta mendean hartu ondoren, txalupetako arrantzaleek txabalin batzuekin odol hustu eta balea hiltzen zuten. Gero, ontzi guztien artean, portura eramaten zuten. Balea lurrean zegoela, traineruko arrantzaleen artean eztabaidatu ondoren, balea larrutu eta zatitu egiten zuten; balea labeetan sartzen zuten koipea lortzeko. Baleak zuen guztia aprobetxatzen zen: koipea balio haundikoa zen, argia egiteko ere erabiltzen baitzen; haragia eta hezurak ere oso preziatuak ziren, gerrontzeak, abanikoak, labanak, arrea egiteko, etab.

* Ternuako jarduera: bakailoa

Euskaldunen bale arrantzarako ospea Ternuara egindako bidaietatik dator. Baina Shelma HUXLEY-k dioenez, euskal marinela ez ziren Kanadako kostaldeetara abiatu bale bila, Ternua eta Labradorrerako lehenengo bidaiak bakailua harrapatzeko egin ziren, agiritan aipatzen den bezala: "a bacallaos"¹¹⁶.

¹¹²Juan de Urdaire izan zen Orioko errotengatik diru gehien eman zuena, beraz, erroten maizterza lortu zuen. Errenta moduan 100 kintal burdin eman behar zizkion Kontzejuari; era berean, Kontzejuak Otxoa Sebastian Birriatua mutrikuarrari dirua zor zion. Azkenean, Juan de Urdairek mutrikuarrari ordaindu zion. Beraz, Urdairek Orioko Kontzejuak zuen zorra berea egin zuen (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215 [1510-VI-5]).

¹¹³DÍEZ DE SALAZAR, L.M.: *Ferrerías... Op. cit.* 380 orr.

¹¹⁴Shelma HUXLEYk alturako arrantzaren inguruko gakoak ikertu ditu. Beraz, bere lana irakurtzea derrigorrezkoa izan zaigu jardueraren funtsezko oinarrietara gerturatzen. Bestalde, ikertzaile honek argitaratu dituen lanen sakontasunak ikerketa honen helburua edo asmoa gainditzen du.

¹¹⁵CIRIQUIAIN GAZITARRO, M.: *Los vascos en la pesca de la ballena*. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, Donostia, 1961, 75-94. orr. Baleak harrapatu eta hiltzeko modu bera da bai euskal kostaldean, bai Ternuan eta bai Galizian.

¹¹⁶HUXLEY, S.: "Los vascos y las pesquerías transatlánticas, 1517-1713", *Itsasoa*, Vol. 3. Etor, Donostia, 1987, 28 orr. "Las excavaciones realizadas en Red Bay, en las que se encontraron incluso cabezas y vértebras de bacalao, demuestran que los vascos se dedicaron a esta modalidad pesquera" (TUCK, J.A.; GRENIER, R.: "Establecimiento ballenero vasco en el siglo XVI en el Labrador", *Investigación y Ciencia*, 64, 1982, 82-91. orr.).

XVI. mende hasieran gipuzkoarrek eta bizkaitarrek ez zuten Ternuara joateko interes haundirik. Baina 1542. urtean Gipuzkoako bost ontzi arrantzan aritu ziren Ternuan, hiru Donostiakoak eta bi Oriokoak¹¹⁷. HUXLEY-ren arabera, Ternuan bakailu arrantza 1530. hamarkadan hasi zen.

- Euskal marinelek bakailu arrantza Belle Isle itsasartean egin zuten. Bakailu arrantza ezin zen ekaina edo abuztua baino lehenago hasi, izotza zegoelako; arrantzak urtarrila arte irauten zuen¹¹⁸.

- Ternuan bale arrantza 1530. hamarkadaren bukaeran hasi zen, bakailuarenarekin batera. 1549. urtean, Juan de Aganduruk, Juanes de Arbek, Juan de Seguiolak, eta Ruiz de Rezabalek San Nicolas ontzia prestatu zuten Ternuara joateko, bakailu eta baleetara¹¹⁹. Beste batzuetan bakailutara bakarrik joan ohi ziren¹²⁰. Irteerak Oriotik eta Gipuzkoako beste portuetatik egiten ziren, besteak beste, Pasaia, Getaria eta Mutrikutik. La Rochellen geldialdia egiten zuten eta bertatik Ternuara jarraitzen zuten¹²¹.

- Bakailuaren komertzializazioa: lehortuta edo pasta bat eginda saltzen zen, bai Gipuzkoan (Donostia, Tolosa, Orio...), eta bai Bizkaian (Lekeitio..).

Bakailuaren prezioari dagokionez, adibide hauek adierazgarri izan daitezke:

. 1560. urtean 6 karga bakailu 24 dukat edo 264 erreal balio zuen. Beraz, karga bakoitzak 44 erreal¹²².

. 1562. urtean 4 karga bakailu: 168 erreal zilar (karga bakoitzak: 42 erreal)¹²³.

. Urte horretan 9 karga bakailuk, 396 erreal balio zuen. Hau da, 44 erreal kargako¹²⁴.

. 1567. urtean, 8 karga bakailu eta arroba bat: 50 urre dukat: 550 erreal¹²⁵.

Beraz, XVI. mende erdialdean bakailu karga bakoitzak 42 eta 44 erreal inguru balio zuen; oso produktu preziatua zenez, bere prezioa ere haunditu egin zela pentsatzen dugu.

Bakailu arrantzaren igoera arrain eskaerarekin erabat lotuta zegoen; FERNÁNDEZ ALBALADEJOK dioen bezala, gero eta jende gehiagok jaten zuen arraina. Kristau-erlijioak dituen baraualdiak (Garizuman) aintzat hartu behar dira. Gainera, kontutan izan behar dugu, bakailu gazituak denbora gehiago irauten duela¹²⁶.

¹¹⁷HUXLEY, S.: *Op. cit.* 28. orr.

¹¹⁸CARO BAROJAK beste datu bat ematen du. Bakailutara joateko garaia martxo-apirilaren artean hasi eta iraila-urria bukatuko zen; *Los Vascos y el Mar*. Txertoa, Donostia, 1981 84, orr.

¹¹⁹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.779 (1549-IV-22).

¹²⁰Agirietan jarduerari buruzko aipamen ugari daude: GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.788 F. 43. (1560-IV-29); Domingo de Hoa, 3/1.785 (1560-V-1)...

¹²¹Juanes de Illunbe maestreak, San Nicolas ontziaren jabeak, ontzia Pasaian zegoela, La Rochellera eta handik Ternuara bakailutara joateko, Domingo de Etxanizi eman zion boterea ontzian agintzeko, ofizialak aldatzeko... (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.788 [1562-III-30]).

¹²²GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 (1560-IV-3): Juan Martínez de Arranibar oriotarrak, Quiteria de Berastegi alargun donostiarrari, Donostiako lonjan pisatutako 6 karga bakailu lehor eman zizkion San Migel egunerako. Karga bakoitza 300 librakoa zen. Arranibar, Getariako San Gregorio galeoioko kapitaina zen.

¹²³GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.788: Juanes de Mendizorrotz tolosarrak, Domingo de Ernialde oriotarrari, martxoaren bukaeran 168 zilar erreal ordaindu zizkion 4 karga bakailugatik, 142 erreal kargako.

¹²⁴GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.788 (1562-III-20): Anton de Yerobi zurgin oriotarrak, Rodrigo de Legarza lekeitiarrari, San Nicolas ontziak Ternuan harrapatu eta lehortutako 9 karga bakailu saldu zizkion. Rodrigok 36 dukat eman zizkion ordainketa modura. Bakailu lehorra ezin bazen ekarri, 40 kintal eta erdi "bacalao verde de la pasta" emango zizkion; kopuru hori lehortuz gero, 9 karga bihurtuko ziren.

¹²⁵GAO, CO-E.EJ, 24 (1567). Martín Cardelek eta Catalina de Barrena bere emazteak, Juanes de Illunbe kapitainari eta Don Domingo de Agirrerri, 8 karga eta arroba bat bakailu 50 urre dukaten truke saldu zieten.

¹²⁶FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen... Op. cit.* 68. orr.

1574. urtean Orioko Kontzejuak, Erret-probisio baten eraginez, Arantzel bat argitaratu zuen eta, bertan esaten zen Oriotik sartu edo ateratzen zen bakailuari sisa bat ezarri behar zitzaioela, hain zuzen ere, "cada quintal de vacallao que entrare o saliere por la dicha barra, seis maravedís, quatro el vendedor, dos el comprador"¹²⁷.

* Ternuako jarduera: bale arrantza

Ternuan, bakailuaz gain, euskal marinela eta, oriotarrak batik bat, bale arrantzara joaten ziren.

Harrapatzen zituzten bale motak hauek ziren: "Eubalaena Glacialis" eta "Balaena Mysticetus". Batez ere, azken hau izan zen preziatuena: mantxoago egiten zuen igeri, eta behin hilda ez zen urperatzen¹²⁸. Baletara joateko garai onena ekainetik urtarrila bitartean izaten zen. HUXLEY-k azaltzen duen bezala, bi garai zeuden baleak harrapatzeko: uda eta negua, tartean balerik ez baitzen. Izan ere, HUXLEYk aurkitu zituen 1564 eta 1579. urteetako agiritan negu parteak aipatzen dira: "retorno de las vallas" eta "venida de las vallas"¹²⁹. Horrez gain, 1581. urtean Donostia eta Orioko arrantzaleen artean auzi bat izan zela jakin dugu eta bertan Ternuako arrantza garaia aipatzen dira: "las dos costeras y matanza de ballenas de verano e invierno"¹³⁰. Antza denez, 1580 eta 1590 urte bitartean baleak harrapatzeko garairik onena negua izan zen.

- Jarraian, Ternuako zein lekutan egiten zen arrantza azalduko dugu. Euskal bale-arrantzaleak Red Bay eta Chateau Bay portuetara joaten ziren; Ternuako hego eta ekialdeko kostaldean dagoen Gran Baya izeneko enbutuan; eta, Ternuako Iparraldearen eta Labradorreko Hegoaldearen artean kokatua dagoen Belle Isle itsasartean¹³¹. Baleek itsasarte hori zeharkatzen zuten inguru egokiago baten bila. HUXLEY-ren ikerketetan Kanada eta Labradorreko hainbat toponimo aipatzen dira; Orioko arrantzaleekin lotutakoak hauek dira: Brest [Labrador] (1561); Los Hornos (1554)¹³²; Sombrero [West St. Modeste] (1564); Gradum [Middle Bay] (1579); Antongonçulo [Carrol Cove eta Red Bay-en arteko ensenada] (1580); Puerto Breton [Carrol Cove] (1584). 1550. urtean gutxi gora-behera, Domingo de Miranda, Orioko zurgina, Ternuan hil zen; antza denez testamentua egin gabe hil zen eta urte batzuk beranduago haren alargunak auzi bat ezarri zuen herentzia lortzeko. Juan de Aganduruk, Ternuan hildakoaren adiskideak, auzian parte hartu zuenetako bat izan zen eta harek esan zuen, Mirandak "Labra de Trespas" izeneko lekuan testamentua idatzi arazi ziola¹³³. Bestalde, 1566. urtean "Buetes" portuan [Red Bay] Orioko ontzi bat galdu izanaren aipamena dugu¹³⁴. Badakigu, baita ere, Ternuan, "Buria" izeneko lekuan, ontzi luteranoek Orioko ontzi batzuk lapurtu zituztela¹³⁵.

- Harrapatu ondorengo lanak. Orio eta beste euskal arrantzeleek modu honetara egiten zuten lana: lehenik, baleetara joaten ziren; bale bakoitzeko, gutxienez, hiru txalupa behar ziren, 5 metro eslorakoak. Txalupa hauetatik arpoia botatzen zen, eta balea hil zorian zegoenean, txabalinez akabatzen zuten. Gero, bost pinazen —pinaza ontzi mota da— artean bultzaka edo erremolkean eramaten zuten. Ternuan bertan, euskal marinela labeak ezarri zituzten baleak urtzeko (koipea ateratzeko). HUXLEY-

¹²⁷Esan genuen bezala, arantzelaren kontzesioa 6 urtekoa zen, eta barra hobetzeko lanetara laguntzeko ezarri egin zen. Ikusi V. ERANSKINA (1574).

¹²⁸HUXLEY, S.: *Los vascos y las pesquerías*.. *Op. cit.* 30 orr.

¹²⁹*IBIDEM*: *Op. cit.* 99 orr. Aipatzen dituen dokumentuak hauek dira: GAO, CO-E.CI, 61 (1564-VIII) eta 446 (auziaren zati baten transkribapena ematen du).

¹³⁰GAO, CO-E.CI, 445 (1581). Shelma Huxleyk dokumentu hau aipatzen du, bertako zati baten transkribapena ematen (*IBIDEM*: 116. orr.).

¹³¹HUXLEY, S.: "Los balleneros vascos en Canadá entre Cartier y Chanplain", *BRSVAP*, XXV-XXXVI, 1979, 7 orr.

¹³²Los Hornos portua "Labeta" izenarekin agertzen da dokumentu batzuetan: GAO, CO-E.CI, 445 (1581).

¹³³GAO, CO-M.CI, 339 (1553-1584). Badirudi "Labra de Trespas" Ternuako toponimo baten aipamena dela.

¹³⁴GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.792 (1566-VI-8).

¹³⁵HUXLEY: *Los vascos y las pesquerías*... *Op. cit.* 149 orr. Eta GAO, CO-M.EJ. 90 (1575).

ren arabera, lehenengo labeak 1530. hamarkadan egin zituzten. Bestalde, arrantzan denbora luzez egoten zirenez etxeak ere eraiki behar izan zituzten, txabolak alegia. Gehienetan, materialak jatorrizko lekuetatik eramaten zituzten Ternuan txabolak egin ahal izateko; txabolak etxebizitza eta lantegi modura erabiltzen zituzten¹³⁶. Bestalde, lanean adiskidetasun haundia zegoen.

Arrantzarako garaia bukatzen zenean, arrantzaleak beren etxeetara bueltatzen ziren eta txalupak Ternuako kostaldean uzten zituzten, hurrengo urterarte. Normalean, txalupen jabetza errespetatzen zen eta, bestela, auziak sortzen ziren. Horrela gertatu zen 1581. urtean Josepo de Etxaniz eta Sebastian de Labastidaren artean. Etxaniz oriotarrak Ternuan bi txalupa utzi zituen eta hurrengo urtean bueltatu ez zenez, Juanes de Galbet-i esan zion bere baimena zuela txalupak hartu, alokatu edo saltzeko. Baina Labastidak, donostiarra, txalupak hartu zituen eta ez zuen Galbet-i eman nahi izan. Txalupa haiekin bale arrantzara joan zen eta ontzi bat galdu egin zuen. Etxanizek txalupen balioa ordaintzea nahi izan zuen, baina donostiakoak esan zion txalupak hartzea ohitura zaharra zela. Azkenean, Labastidak oriotarrari ordaindu behar izan zion¹³⁷.

- Ontzien hornidura. Ternuara joaten ziren ontziek denetatik eraman behar izaten zuten: janaria, edaria, armak, etab. Diru asko behar izaten zen ontzi bat ondo prestatzeko; ontzien alokairuen kontratuetan, hau da, pleit-gutunetan, baldintzak zehazten ziren: armadorearen zeregina ontzia ondo prestatzea zen (aparejoak, armak, janaria, edaria...), eta gastatutako diruaren arabera jasotzen zituzten irabaziak¹³⁸. Adibidez, ikus dezagun 1555. urteko kontratu bat: Cristobal de Aganduru eta Juan Martinez de Agirre oriotarrak San Nicolas galeoiko maestre eta jabeak ziren. Aiako Francisco de Urdayaga eta Orioko Bartolome de Arbe izan ziren hauen galeoia alokatu zutenak. Aganduru eta Agirrek galeoiaren erdia prestatu zuten eta gainontzekoa besteek. 15 egunen barruan, Aganduruk eta Agirrek Orioko barraren kanpoaldean galeoia prest eman zieten. Aganduruk eta Agirrek, kontratuaren arabera, ontziaren armazoi edo egituraren laurdena ordaindu behar zuten. Beste baldintzetako bat jabeek ontziko langileak izendatzea zen eta baita soldatak erdibana ordaintzea ere. Bueltatu zirenean, Arbek eta bere adiskideak, irabazitako guztia erdibana egin zuten jabeekin¹³⁹.

Beste kasu batzuetan, Ternuan erabiltzeko txalupen alokairuaren edo pleitearen prezioa, txalupa bakoitzeko, 14 dukatekoa zen¹⁴⁰.

- Aseguratzaille sistema. HUXLEY-k dioenez, Ternuako bidaiak antolatzeko diru asko behar zenez, kapitain eta arrantzale batzuk Donostiako aseguratzailleen diru-maileguak edo prestamoak onartu behar izaten zituzten. Ontziak aberia edo kaltereren izan ezker, galerak aseguratzailleek ordaintzen zituzten. Zenbait oriotarrek Aiako elizako erretoreari eskatu zioten dirua¹⁴¹, eta baita aseguratzaillei ere¹⁴².

- Orioko ontziek Ternuarako irteerak portu desberdinetatik egiten zuten, esate baterako, Orio, Pasaia eta Getariatik. Lehendabizi La Rochelle-ra abiatzen ziren eta

¹³⁶HUXLEY-k Oriori buruzko aipamen batzuk ematen ditu: 1563. urtean Ternuako txabola bateko teilatua konpontzeko materialak ontzi baten alokairu kontratuan aipatzen da. Beste batean, 1565. urtekoan, Francisco de Jauregiak (Orio eta Zumaiako bizilagunak) Sombregon baleak urtzeko txabola bat zeukala dio (*Los Vascos y las pesquerias... Op. cit.*).

¹³⁷Auzi honen aipamena HUXLEY-rena da. Gero artxiboan auzi osoa ikusi ahal izan dugu: GAO, CO-E, CI, 445 (1581).

¹³⁸GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.779 (1550-1555); Ternuara joateko sinatutako kontratuak badira.

¹³⁹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.781 (1555-III-22). Zehazki, pleit-kontratu hau bakailu arrantzarako zen.

¹⁴⁰Ikusi Sebastian de Labastida eta Josepo de Etxanizen txalupengatik izandako auzia (1581).

¹⁴¹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.779 (1549-V-6).

¹⁴²1555. Miguel de Urreizmendi oriotarrak, Cadiz-era eraman behar zuen merkantzia. Ekaitz batengatik dena galdu zuen, eta Castro Urdiales-era joan behar izan zuen. Aseguratzailleek 29.250 marabedietan baloratu zuten karga guztia (GPAH, Domingo de Hoa 3/1.781 [1555-VII-6]). Agirietan aurkitutako auzi baten bidez, oriotarrek Bilboko aseguratzailleengana jo zutela dakigu (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.781 [1555-IX-15]).

handik Ternuara heltzen ziren¹⁴³. Bueltatzerakoan, berriz, portu hauetara joan ohi ziren: Laredo, Castro Urdiales, Pasaia, Orio, Deba, Donostia...¹⁴⁴.

- Gatazka politikoen eragina bale arrantzan. Ternuan 1530. hamarkadan bale arrantza hasi zenetik, 1550. urte arte nazioarte mailan bakealdi garaia izan zen:

. 1551. urtetik aurrera Gaztela eta Frantziaren arteko gerra hasi zen eta Ternuako portuak ere erasotuak izan ziren. 1552 eta 1554. urteetako aipamenetan Orioko ontziek jasandako erasoaldietaz hitz egiten da¹⁴⁵. Baina Gipuzkoako ontziek ere gerran parte hartu zuten; horren adierazgarri 1555. urtean Orioko Juan del Puertok, Frantziaren kontrako gerra zela-eta, egin zuen aitortpena:

*"Juan del Puerto, piloto mayor, vecino de la villa de Orio, dijo: que había ido a Tierranueva con el capitán Juan de Erauso (...). Que las presas hechas a los franceses traídas a la Provincia, por ser tantas, han abaratado los precios; pero en poder de los franceses valían más de un millón de oro; y los franceses, lamentando el daño, las valúan y estiman en mucho más; los prisioneros pasan de quinze mil hombres, sin contar los muertos; de modo que apenas habrá hombre en la costa de Francia que no haya sido preso una vez, y las naos que al presente tienen se hallan con muy poca artillería, por lo que se les ha tomado en las presas"*¹⁴⁶.

Gaztelako erregeak merkatal edo arrantzarako ontziak enbargatu edo hartu ohi zituen "para ir de armada"¹⁴⁷.

. 1572. urtetik aurrera La Rochelleko ontzi luteranoek Ternuako portuetan zeuden Orio eta inguruko ontziak lapurtu egin zituzten¹⁴⁸.

* Galizia eta Asturiaseko jarduera: balea

Bale eta bakailu arrantzara Ternuara joateaz gain, oriotarrak Galizia eta Asturiaseko kostaldeetara ere joaten ziren; gutxienez 1527. urtetik aurrera hasi ziren. HUXLEY-k emana da orduko lehen aipamena¹⁴⁹.

- Lekuak. XVI. mendean Orioko arrantzale asko Llanes, Lastres, Bares, Malpica, Layon, Burela eta, Asturias eta Galiziako beste portuetara joaten ziren baleetara. 1560. hamarkadarako badaukagu Galizia eta Asturiasen arrantzan ibilitakoaren arrastoa¹⁵⁰.

- Pleiteak. Pleit-gutun baten bitartez Galiziarako bidaietako bat nola izan zen jakin dugu: 1550. urtean, Juan de Agirre, San Nicolas ontziko mestre oriotarrak, ontzia Getarian zuen eta, Zarauzko Bartolome de Lertxundiri eta Jorge de Goyabideri alokatu zien. Agirrek zarauztarrei bale arrantzarako ontzia ondo prestatua eman zien; eta

¹⁴³GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.788 (1562-III-30).

¹⁴⁴GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.791 F. 23 (1565-V-3): deskarga Laredo, Castro edo iristen ziren beste edozein portuetan egin behar izaten zutela aipatzen da.

¹⁴⁵HUXLEY-k eman digu gertaera hauei buruzko agiriak: frantsesen erasoak, enbargoak...; "Los vascos y las pesquerías..." *Op. cit.* 64. orr.

¹⁴⁶ONTZI MUSEOA (Madril). Arca de Noé. 11.010 (1555).

¹⁴⁷Juanes de Etxabe eta emaztearen testamentua da. Bertan, Etxabek Juanes de Illunbe eta Domingo de Etxanizekin batera ontzi bat zeukala dio, Ternuara joan zirenean, erregeak enbargatu egin zuen (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 [1560-IV]); 1567. urtean ere, Juanes de Illunbek zioenez, San Nicolas ontzia erregeak enbargatu zuen Flandesera joateko "de armada". Hilero, soldata modura 7 dukat ordainduko ziola esan zuen (GAO, CO-M.C.I, 230 [1571]).

¹⁴⁸La Rochelleko portutik Ternuara joaten ziren euskal ontziak, eta han, gatza eta bestelako produktuak erosten zituzten. Felipe II.ak Ingalaterra eta Flandesekin gerra hasi zuenean, herrialde hauekin lotura komertzialak moztu egin ziren (aparteko kasuak kenduta) (HUXLEY, S.: "Los vascos..." *Op. cit.* 128-133 orr.)

¹⁴⁹HUXLEY, S.: "Los vascos..." *Op. cit.* 38. orr. 1527. urtean Domingo de Aganduru, beste oriotar batzuekin batera, Bares, Vivero eta San Ciprián-en arrantzan aritu zen.

¹⁵⁰1532. urtean, Martin Perez de Lertxundi Batzar Nagusietara joan zen "en nombre de los matadores y captores de ballenas de la Provincia de Guipúzcoa" (GAO, JD-AJF, 1,4 [1532-XI- Mondragón]). 1541. urtean Miguel de Hoa, arrantzale oriotarra, demandatua izan zen, Galiziatik barrika-baleak ekarri behar zituelako. (VEKA, C/1.980/12, Leg. 212 [1541]). Horretaz gain, garai honetan arrantzale oriotarren aipamen ugari daude Galiziako portuetan.

ordainetan, arrantza bukatu ondoren, Galiziako edozein portutan irabazien seirena eman beharko zioten Agirreri eta, honek era berean, armazoiari edo kaskoari zegokion zatia ordaindu. Agirre A Coruñaeko portuan egon zen otsaila bukaera arte, eta han jaso zuen bere partea. Handik Castro Urdialesera eta gero Getariara joan zen. Zarautzarrak Layon eta Malpicako portuetan arrantzan arituko zirela aipatzen da¹⁵¹.

- Jaitsiera. 1560. hamarkadatik aurrera, Ternuako arrantza erabat finkatua eta antolatua zegoenean eta, Galizia eta Asturiasekoa, berriz, gutxitzen hasi zen. Hori pentsa arazten digu 1571. urteko agiriak: Gijoneko kapitain batzuk, bale arrantzarako, arpoilari eta atalailari bila joan ziren Oriora. Agirian aipatzen denez, han ez zegoen marinelik, gehienak Ternuan baitzeuden, baina azkenean 3 edo 4 lagun eramatea lortu zuten¹⁵².

* Bale arrantzarako ontziak eta langileak

Bale arrantzan erabiltzen ziren ontziak mota askotakoak ziren; agirietan galeoiak, pinazak eta txalupak aipatzen dira gehienbat. Ontziak, arrantzaren arabera, ezberdinak izaten ziren, bai neurritz eta bai kapidaz; balea arrantzatzeko ontziek 200 eta 500 tona arteko kabida zuten; bakailuenak, berriz, 60 eta 300 tona bitartekoa. Ontzietan (arpoilari, mariñelak, grumeteak, pilotoa, kapitaina...) larogei lagun inguru joaten zen¹⁵³.

Itsas-eraikuntzari buruzko kapituluan gai honekin jarraituko dugu, datu eta zehaztasun gehiago emanaz.

* Arrantzaren komertzializazioa

- Arrainak oso preziatuak ziren: bakailu lehorra, balearen koipea, hezurak, bizarrak... dira aipagarrienak. Bai alturan eta bai baxuran harrapatutakoaren % 1a Orioko elizari eman behar zioten arrantzaleek. Gainontzekoa herrian bertan edo kanpora saltzen zen.

- Ontzietako maestreek irabazien % 1a Orioko Elizako *maiordomoari* eman behar zioten. Batzutan ez zuten betetzen eta auziak egoten ziren. Francisco de Elorriaga maestrearen kasua ezagutzen dugu; Ternuara bidai ugari egin ondoren eta diru asko irabazi ondoren, 1564. urtean, Iruñako Probisorearen erabakiaren arabera, Orioko Elizako *maiordomoari*, Domingo de Hoari, bale koipez betetako bost eta erdi barrika ordaindu behar zizkion, hori izan baitzen Elorriagak irabazitako diruaren % 1a, (guztira 2.300 koipe barrika ekarri zituen La Concepción ontzian)¹⁵⁴.

- Harrapatutako arrainarekin egin zezaketen gauzetako bat pertsona partikularrei saltzea zen. Dakigunez, XVI. mende erdialdean, barrika koipe bakoitzak 55 erreal balio zuen; baina oso preziatua zenez, batzutan kopuru hori ia bikoiztu egiten zen (garai hartan 99 erreal ere ordaindu zen)¹⁵⁵.

¹⁵¹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.779 (1550-IX-1).

¹⁵²GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.796 (1571-VIII-19). 1575. urtean gauza bera errepikatzen da: Diego de Hebia, Villaviciosako errejidoreak, Lastres portura, bale arrantzara joateko jendea eskatu zuen. (GPAH, Paulo de Iturriaga. 3/1.801 [1575-X-22]).

¹⁵³"Algunos galeones llevaban a veces tripulaciones de 130 hombres y un mínimo de 600 cada temporada. La media por toda la costa del Labrador llegaría a dos mil vascos cada año. Normalmente llegaban cada verano a Red Bay unos diez galeones, y al conjunto de la zona un máximo de veinte a treinta. El viaje se realizaba de forma individual, pero una vez llegados a su destino, los trabajos se hacen en estrecha colaboración" (HUXLEY, S.: "Los balleneros vascos..." *Op. cit.* 10. orr.).

¹⁵⁴IEAH, Secr. Aguinaga C/3 N° 12 (1564).

¹⁵⁵Simon de Etxaniz oriotarrak Zarauzko Juan Beltran de Seguroolari, Ternuako 3 barrika bale koipe eman zizkion. Barrika bakoitzak 5 dukat balio zuen (GPAH, Paulo de Iturriaga. 3/ 1.790 [1564-VIII-30]). Urte berean, Francisco de Elorriagak Pedro Ortiz de Zarauzi, "señor de la casa y solar de Zarauz", 50 barrika bale koipe saldu zizkion, 9 dukat bakoitzeko. Guztira 450 dukat ziren, hau da, 4.950 erreal (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.790 [1564-I-11]). 1565. urtean, berriz, barrikak 5 dukat balio zuen (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.791 [1565-V-3]).

- 1574. urtean Arantzelen Kontzejuan bale produktuak saltzeagatik ordaindu beharreko sisa edo zerga hau zen:

" (...) cada barrica de carne de vallena o carne de las que se mataren en esta villa, dos reales, (...) cada barrica de grasa de Tierranueva que se bendieren en esta dicha villa, vn real, y a las que llevaren afuera parte a vender a riesgo del dueño e vendedor, medio real"¹⁵⁶.

- Europan ere komertzializatu zen arraina: Frantzia eta Ingalaterran¹⁵⁷, Flandes eta Holandan¹⁵⁸. Europarekin izandako merkatal harremanak gora-beherak izan zituen, Gaztelak atzerriko herrialdeekin zituen harreman politikoaren arabera izan baitziren. 1570. hamarkadatik aurrera, euskal merkataritzak Flandesekin zituen merkatal harremanak gutxitu egin ziren eta Sevilla eta Ameriketako hasi¹⁵⁹.

Hortaz, XVI. mende bukaeran euskaldunen bale arrantza jarduera gutxitzen hasi zen. Gatazka politikoak, gerrak, merkatal-bideen galerak, Ingalaterra eta Holandaren kompetentzia... horiek izan ziren jaitsieraren arrazoi nagusiak.

b) Baxurako arrantza: itsasadarra eta nasa

Alturako arrantza aztertu ondoren, jarraian baxurakoaz arduratuko gara. Orioko arrantzaleak jarduera honetan betidanik aritu izan dira, Oria ibaiak eta itsasadarrek arrantzarako baldintza ezin hobekak baitziren¹⁶⁰.

*** Itsasadarra eta nasak**

Baxurako arrantzarako funtsezkoak ziren itsasadarra eta nasa. Horiek Kontzejuak arautzen zituen, propioak edo udal ondasunak baitziren; beraz, salmentarako prezioak ere Kontzejuak berak jartzen zituen. San Pedro Kofradiak arrantzaren inguruko ekintzetan garrantzi handia izan zuen.

*** Arrain motak**

Orion, bai itsadarrean eta bai itsasbazterrean harrapatutako arrain motak hauek ziren: izokinak, lupinak, lengoraduak, kolakak, korrokoiak, txardietak, doradak, gurbiak; sardinak, bisiguak, txipiroiak, langostak, itsas aingirak, mielgak, borondinak¹⁶¹. Neguan, itsasoan harrapatzen ziren arrainak ziren: legatzak, itsas aingira, bisigua, meroak, mielgak; eta udakoak, sardinak, antxoak, legatzak, arrain txikiak eta alburak. Itsasadarrean arrain mota asko izaten zen, esate baterako, alburak, lupinak, kolakak, izokinak, lengoraduak, lupinak, barbarinak, anguila txikiak eta arrain txikiak¹⁶².

*** Tresnak**

Arrantzarako gehien erabiltzen zituzten tresnak hauek ziren: sareak, amuak, amuzkiak, nasak, saskiak...

¹⁵⁶Ikusi Arantzela: V. ERANSKINA (1574).

¹⁵⁷Joanes de Urdairek Martin de Adurriagari 65 dukat ordaindu zizkion, Urdaire Ternuara joango baitzen arrantzara; eta agirian aipatzen da, bueltan Burdeos eta Londonen deskarga egin zuela (GPAH, Domingo de Hoa 3/1.779 [1550-IV-20]).

¹⁵⁸Ternuarako bidai batean "a la pesquería de ballena e grasa e azeyte (...) retornará al Condado de Flandes y partes de Gelanda [Holanda] haciendo su derecha descarga" (GPAH, Domingo de Hoa 3/1.785 [1560-III-8]).

¹⁵⁹HUXLEY, S.: "Los balleneros vascos..." *Op. cit.* 16. orr.

¹⁶⁰MARTINEZ DE ZALDIVIAK bere lanean Gipuzkoako ibaietako aberastasunaz hitz egiten du (*Suma de las cosas...* *Op. cit.* 6.orr.).

¹⁶¹OUA, C-VI, D-1 (1785) eta HEAA, Vargas Ponzeren Bilduma, vol. 24, 9/4.197 (1785).

¹⁶²Josepo de Etxaniz eta Lazaro de Seguraren hitzak (1599) (IMAZ, JM.: *La industria pesquera en Guipúzcoa a finales del siglo XVI*. Imprenta de la Diputación, Donostia, 1944. 47-51 orr.).

- Sareak: auziak. Gehien erabilitako tresna traiña izenekoa zen¹⁶³; amuzkiak ere erabiltzen ziren. Arrantzale gehienek beste sare bereziak erabili zituzten: lau sare botatzen zituzten, baina bata besteari lotuta, horrela, sardinak inguratuta geratzen ziren, eta arpoiez eta makilkadak emanez sardinak sartu arazten zituzten. Orioko San Pedro Arrantzaleen Kofradiako kide batzuen ustetan, sardinak harrapatzeko modu hura ez zen egokia, eta Korregidoreen aurrean kexa azaldu zuten¹⁶⁴.



Orioko emakumeak, sareak egiten (*Photomuseum Artxiboa*).

Baina arrantzarako kaltegarri ziren usadio haiek ez ziren orduan bukatu, legatza harrapatzeko erabilitako sareari buruz ere auziak izan baitziren. Antzaenez, XVI. mendean getariatarrek erabiltzen zituzten sareek ez zioten arrantzari mesederik egiten, eta berriz ere, Orioko Kofradiak bere kexa azaldu zuen. 1542. urtean, Ondarra kapitain oriotarrak, hondo-sare horien aurkako Erret Probisioa eman zuen; Probisioaren arabera, Zarautz eta Getariako arrantzeleek erabiltzen zituzten sare begiztatuak izan behar zuten arrantzarako kaltegarriak ziren edo ez erabakitzeko¹⁶⁵. Baina ez ziren arrantzaren tresnei buruzko istiluak eta eztabaidak bukatu: Batzar Nagusiko biltzarretan Orioko prokuradoreek getariarren sareen kontrako kexak azaltzen jarraitu baitzuten, hain zuzen ere, 1570. urte arte¹⁶⁶.

- Nasak: jurisdikzio-auziak. Orioko arrantzaleek beste motako arrantza ere egin zuten: nasak. Nasak itsasadarrean kokatzen ziren, zur-hesi moduko baten estruktura zuten

¹⁶³Sare hau oso zabala da, adibidez, sardin banku bat inguratzen zenean arrastaka, itsas bazterrean eramaten zen.

¹⁶⁴Kofradeek esan zuten: "así se espanta la dicha sardina, por donde no se puede tomar nada (...) puede perderse la pesca de la dicha sardina (...) daño e pérdida como lo vemos por esperiencia, y bendría a perderse toda esta tierra y hayuntamientos, vecinos, comarcas que biben de la dicha pesca" (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.788 [1562-IX-29]).

¹⁶⁵GAO, Sec. 2; Neg. 12; leg. 10 (1542).

¹⁶⁶Ikusi Batzar Nagusietako aktak: DIEZ DE SALAZAR, LM.; AYERBE IRIBAR, MR.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa*. Op. cit. T. II (1557. urtea); T. III (1558); T. IV (1566, 1567); T. V (1570).

eta izokinak harrapatzeko balio zuten¹⁶⁷. Arrantzarako sistema honek arazoak sortu zituen, Oria ibaian nabigazioa galerazten baitzuten. Arazo horretaz Gipuzkoako Probintzia arduratu zen eta XV. mendean, 1484. urtean agindu zuen, nasak erabiltzerakoan itsasadar herena libre utzi behar zela; horrela, nabigazioa eta arrantza, eragozpenik gabe egin ahal izango zuten¹⁶⁸. Hala eta guztiz ere, agindua ez zen guztiz bete eta, Oria ibaian jurisdikzioa zuten herrien artean istiluak izan ziren. Eztabaidatzen zena zera zen, 1484. urteko sententziaren kontra, Orioko Kontzejuak, Aginagako Unibertsitateak eta Juan de Atxega Usurbilgo Jaunak zituzten izokin nasek ez zutela itsasadarreko herena nabigaziorako libre uzten. Horregatik, Oriok 6.000 mrb.-ko isuna ordaindu behar izan zuen¹⁶⁹. Urte batzuk beranduago, 1530. hamarkadan, Orioko Kontzejuak itsasadarrean nasa berri bat eraiki zuen. Aiako Doña Maria Ruiz de Arrazubiak esan zuen nasa berria eraiki zen lekua ez zela kontzejuarena eta nasak Arrazubiarako nabigazioa eta garraioa galerazten zuela. Eztabaida Korregidorearengana heldu zen eta erabaki zuen Oriok nasa ondo jarri zuela eta bertan jarrai zezakeela¹⁷⁰.

XV. mendetik aurrera, Oriako itsadarraren jurisdikzioak auziak sortarazi zituen eta bertako arrantza, lonjak, nasak eta bestelako aprobetxamendu ekonomikoetaz eztabaidatu zen. 1473 eta 1500. urteetako auzietan erabaki zen Orio zela itsadarreko jabea, Aiaren kaltetan¹⁷¹. Bestalde, 1510. urtetik gutxienez, Orioko Kontzejuak nasen jurisdikzioagatik istiluak izan zituen Usurbilekin¹⁷². 1518. urte arte jarraitu zuten arazoek eta orduan erabaki zen Oriok egin berri zuen nasaren jurisdikzioa Oriori zegokiola eta ez Orreagako monasterioari¹⁷³.

Beraz, nasen jurisdikzioak sortu zituen auziak joera baten adierazle izan zen: herri bakoitzak eta Ahaide Nagusiek boterea eskuratzeko zuten nahia.

* Arautzeak

Arrantza, Orion, Kontzejuak eta Kofradiak arautzen zuten.

- Kontzejuak arrainen prezioak jarri ohi zuen. Urtean zehar prezioak desberdinak izaten ziren, urte sasoiaren arabera. XVI. mendean, San Miguel egunetik Pazko eguna arte izokin nasak alokatuta zituztenek kontuan hartu behar zutena¹⁷⁴:

- izokin libera: 2 erreal.

- kolaka libera: 24 marabedi.

¹⁶⁷Izokin nasak Orioko Kontzejuenak ziren (udal ondasunen edo propioen barne zeuden) eta Kontzejuak errentan jartzen zituen. Beraz, udal haziendako kapituluan gai hau berriz hartuko dugu.

¹⁶⁸Villafranca-ko Batzar Nagusiak (1484) (GOROSABEL, P. de: Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa. LGEV, Bilbao. 1967. 239 orr.).

¹⁶⁹Auzian Gipuzkoako Probintzia, Juan de Atxega, Orioko Kontzejuak eta Aginagako Unibertsitateak hartu zuten parte. Arrasateko Batzar Nagusietan (1505-XI-19) Usurbil eta Orioren arteko eztabaidak aipatzen dira, Oria ibaiaiko nasak eta arrantza zela eta. Batzarrak esan zuen nasetako jabeek itsasadarraren zati bat libre utzi behar zutela. Baina, bazen Atxega izeneko nasa bat, "alas" izeneko ontzien nabigazioa eta Aginagarren arrantza galerazten zuena. Batzar honetan ere, Orio, Aginaga eta Sariako sare eta nasetaz hitz egiten da. Dirudenez, Orio eta Aginagakoek nabigazioa eta burdin garraioa galerazten zuten, eta izokin eta bestelako arraien mugimendua zaildu egiten zuten (VEKA, Reales Ejecutorias, C-278/39 [1512-IX-7]).

¹⁷⁰Auzia 1535. urtean hasi zen, Orioko Kontzejuak "Oriça" izeneko lekuan nasa berri bat finkatzeko lanak hasi zirenean. Korregidoreen epaia 1536-VI-28 zen. Handik hiru urtera (1539-II-7) Valladoliden Erret Kantzelaritzaren ebatzi bera eman zen (PUA, Sec.B; Neg. 2; Leg. 1; Exp. 2 [1535-1539]).

¹⁷¹OUA, L-4 (1473-1621).

¹⁷²1510. urtean Orioko Kontzejuak Atxega jaunarekin auzi bat izan zuen, nasak zirela eta (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215 [1510]).

¹⁷³1518ko azaroaren 20an auziaren arrazoia azaldu zen: "San Juan de Aldape, Machin de Arguiain y Machin de Aya (...) a causa de ciertas pesquerías e nazas que an fecho a tenientes a nuestros montes de Andaza, sin nuestro consentimiento e voluntad e mucho daño y perjuicio de dicho monesterio [Orreaga]". Baina, azkenen, Andatzako maldak, "asta donde llegan las maiores aguas" Orioko jurisdikzioaren barne egon ziren. Orreagako monasterioa itsasbeheran, itsasadarraren aldean dagoen Andatzako ihitokiaz baliatu zitekeen. Ez prioreak ezta Orioko Kontzejuak ere, ezin zuten itsasoak ureztatzen zuen lekuan ezer landatu; Andatzan ezin izan zen ezer landatu (AHN, Kontseilu Ezabatuak. Gaztelako Patronatoa. 16.066, 2-3 [1748]).

¹⁷⁴GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.801 (1575-III-10).

- lupina libera: 6 marabedi.
- lengoradu libera: erreal erdia edo 17 marabedi.

Eta Pazko egunetik San Miguel bitartera:

- izokin libera: erreal bat.
- kolaka libera: 12 marabedi.

Ikusten denez, udan, arrainaren prezioa merkeagoa zen, seguruenik, udan neguan baino arrain gehiago harrapatzen zutelako.

Nahiz eta salmentarako prezioak araututa egon, batzuetan gehiegikeriak gertatzen ziren. Adibidez, 1571. urtean, Nicolas de Aranburuk, Arrazubiko jaunak, Orioko Kontzejuak atzerritarrei garestiago saltzen ziela salatu zuen Gipuzkoako Batzar Nagusian¹⁷⁵.

Bestalde, Kontzejuak baxurako arrantzarako ere zergak jarri zituen. Hain zuzen ere, 1574. urteko Arantzela:

*"cada millar de sardina fresca o arençada, ocho maravedís, quatro el vendedor, otros quatro el comprador (...) cada millar de anchova, quatro maravedís (...) cada peça de salmón, un real, vendiéndose en el pueblo"*¹⁷⁶.

Esan dugun bezala, itsasadarrean egiten zen arrantza eta horretarako erabilitako beita ere, Kontzejuaren ardurapean zegoen, udalaren errenta izanik¹⁷⁷. Itsadarrean arrantzan egin ahal izateko —nasetan bezala— enkantean jartzen zen eta Kontzejuak errentan ematen zuen. Beraz, oriotarrek subasten bidez lortzen zuten itsasadarrean arrantza egin ahal izateko eskubidea. Horretarako Kontzejuak baldintzak jartzen zituen, esate baterako, errentaren dirua, arrainaren prezioa, saltzeko denbora, etab. Beraz, Kontzejuaren garrantzia arrantzan oso handia izan zen, bere ardurapean baitzegoen.

- Orioko San Pedro izeneko Arrantzaleen Kofradiak¹⁷⁸ ere arrantzaren hainbat alderdi arautzen zituen eta aipagarrienak hauek dira:

. Arrantzaleek arrainaren % 1a Elizari eman behar zioten. 1520. urtean Orioko Kofradia eta Eliza akordio batera iritsi ziren, baina istiluak izan ziren, arrantzaleek Orioko elizari ezezik ermita batzuei ere ematen baitzieten harrapatutako arrainen kopuru bat. Azkenean, elizari bakarrik ematea erabaki zen¹⁷⁹. Esan beharra dago

¹⁷⁵Berak dioen bezala: "el arrendador de las nasas dé a los vecinos de Orio la libra del salmón a dos reales y la libra del colaque a 20 mrv., y a los forasteros, la del salmón a 3 reales y la del colaque a un real". Probintziak Orioko enkanteak ikertzeko agindu zuen (DÍEZ DE SALAZAR, L.M.; AYERBE IRIBAR, M.R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa. Op. cit.* T.V [1571]).

¹⁷⁶Ikusi V. ERANSKINA: Arantzela (1574).

¹⁷⁷Adibidez, 1568. urtean Orioko Errejimendukoek enkante publikoan itsasadarreko "gueldo" izeneko beita eman zuten (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.796 [1568-VIII-16]).

¹⁷⁸San Pedro Arrantzaleen Kofradiaren lehenengo aipamena 1520. urtekoa da (PUA, Sec.B, Neg. 2, leg.1, Exp.2 [1599]). Badirudi, Madrilgo Ontzi Museoan agertzen den aipamen bat dela eta, 1530. urtean Orioko Kofradiak Arrantzarako Ordenantzak zituela (baina aipamen hau ez dakigu zuzena den ala ez, dokumentu orijinala aurkitu ez baitugu). 1599. urtean, Josepo de Etxanizek, Orioko arrantzale eta marinela, San Pedro Kofradiaz hitz egiten du: "de los mareantes y pescadores que sus antepasados la fundaron y para fundalla tuvieron privilegio e título de Sus Majestades". Lazaro de Seguraren arabera, ordea, "se fundó con título que para ello se dio por Su Santidad e por el Obispo d'este distrito". Dena den, bietako inork ez du fundazioaren data aipatzen; baina, XVI. menderako bazela baieztatu dezakegu (IMAZ, J.M.: *La industria pesquera... Op. cit.* 47, 51. orr.).

¹⁷⁹PUA Sec. B, Neg. 2 Leg. 1 Expt. 2 (1599). 1569an Elizak, Kontzejuak eta Kofradiak arrantzaren %1a Elizari zegokiola erabaki zuten. Beraz, Orioren garrantzizko hiru erakundeak ados zeuden gai honetan (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.795 [1569-VII-17]).

arrantzaren % 1a edozein motako arrantzari zegokiola, hau da, bai altura bai baxurako arrantzaleek usadio hori bete behar zuten¹⁸⁰.

. Kofradiak salmentak eta arrainaren kalitatea ere arautzen zuen. 1565. urtean, sardina saltzerakoan, tranpa egiten zela konturatu zenean, Kofradiak erabaki zuen harrapatutako sardinaren kontua eramango zuela eta, horretarako pertsona bat izendatu zuten. Pertsona horren zeregina zen: sardina ondo gazitua zegoen zaintzea; salmentaz arduratzea; txalupek harrapatutako sardinak jasotzea, salmenten arduraduna baitzen; eta, sardinak saldu ondoren, igandero, irabazietatik txalupa bakoitzeko maestreari zegokiona eman behar zion¹⁸¹.

. Kofradiak arrantzale guztiei agindu zien sardinaren arrantzaren irabazietik % 2a eman behar zietela¹⁸².

. Balea edo beste edozein motako arrantzara abiatu behar bazuten, arrantzaleak Kofradiari jakin arazi behar zion¹⁸³.

. Txalupa bakoitzeko maestreak sardinarekin irabazitako zerrenda egin behar zuen, % 2a Kofradiari eman ahal izateko¹⁸⁴.

. Orioko portuan harrapatutako baleen mingainak, betiko ohiturari jarraitzeko, Kofradiari zegokion, nahiz eta bertako biztanleek edo inguruko herritarrekin batera harrapatutakoa izan¹⁸⁵.

. Bailearen banaketa ere Kofradiak antolatzen zuen¹⁸⁶.

. Bailearen harrapaketa erabilitako tresnak hondatu ezker (arpoiak, sokak, txabalinak, ziztailuak, etab) irabazietik ordaintzen zen¹⁸⁷.

. Bailearen arrantzan txalupa bakoitzak eraman behar zituen tresnak hauek ziren: 4 ziztailu edo 5 txabalin, 2 arpoi eta 100 brazako soka. Kofradiako *maiordomoak* txalupak ondo prestatuta egoteaz arduratzeko pertsona bat izendatzen zuen¹⁸⁸. Horretaz gain, Kofradia, sardina eta bestelako arrantzarako, sare egokiak erabiltzeaz arduratzen zen¹⁸⁹.

¹⁸⁰Zentzu honetan gogoan izan behar dugu alturako arrantzari buruz hitz egin dugunean, batzutan arrantzale batzuk, Francisco de Elorriaga, esate baterako, ez zutela beti kopuru hori eman nahi izan.

¹⁸¹GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.791 (1565-VII-15). Kofradeek aipatutako kargua betetzeko, Domingo de Miranda izendatu zuten.

¹⁸²San Pedro Kofradiako Konstituzioetan agertzen dira gertakizun hauek. Konstituzioen testua 1714. urtekoa da, baina, bertan aipatzen direnak aspaldikoak dira eta errepikatu egiten dira "según estilo antiguo". Izan ere, Konstituzio hauek 1589. eta 1621. urteetako Kofradiaren Ordenantzetan oinarritzen dira. Ikusi XII. ERANSKINA: 1714. urteko KOFRADIAREN KONSTITUZIOAK. Bertan, elkarte honek arrantza, itsas eraikuntza eta elizarekiko harremanak arautzen ditu. Bestalde, 1589. eta 1621. urteetako KONSTITUZIOAK (Ikusi XI. ERANSKINA), itsas eraikuntza eta ontzi atoia arautzen du. Beraz, dokumentu hauek, XVI. mendeak ez izan arren, garai honetarako baliogarriak izan daitezke, bertan, jarduera berberak arautzen baitira.

¹⁸³1714. Konstituzioak, 3. Konstituzioa (XII. ERANSKINA).

¹⁸⁴1714. Konstituzioak, 11. Konstituzioa (XII. ERANSKINA).

¹⁸⁵1714. Konstituzioak, 16. Konstituzioa (XII. ERANSKINA).

¹⁸⁶1714. urteko 17. eta 21. konstituzioetan Kofradiako Konstituzio Zaharrak aipatzen dira (Ikusi XII.

ERANSKINA). Horretaz gain, CIRIQUIAINek 1599. urteko gertakizun bat aipatzen du: "En una escritura firmada en Plencia, entre el alcalde y fieles de la villa y unos balleneros de Orio, en 3 de noviembre de 1599, aquéllos impusieron a éstos la obligación de abonar al concejo de la villa "obras pías, iglesia y Cofradía de San Pedro de ella, dos mil maravedís de cada varena o xerene que mataren" (CIRIQUIAIN GAIZTARRO, M.: *Los vascos en pesca de la ballena. Op. cit.* 59. orr.).

¹⁸⁷1714. urteko Konstituzioak, 18. Konstituzioa (XII. ERANSKINA).

¹⁸⁸1714. urteko Konstituzioak, 19. Konstituzioa (XII. ERANSKINA).

¹⁸⁹1558. urtean San Pedro Kofradiako kideen esanetan: "gran perjuicio e notable dapno de nuestro oficio de pescar sardina y de matar pescado con anzuelos y avn d'esta villa y de las otras villas de la costa de la mar d'esta Provincia y de los pescadores d'ella, han hecho e hizieron ciertas redes de pescar marluza en alta mar, con las quales han exercido y exercen de los dichos años a esta parte y de presente y por cabsa d'ello después acá no se a podido ni se ha muerto sardina ni marluza ni otros géneros de pescado al menos como se solía". Juan de Etxaniz, Kofradiaren izenenan, Valladoliden izandako auziaren ardura hartu zuen (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.793 [1558-I-6]).

. Itsasbazterreko bale arrantzan bi txalupa edo gehiagok parte hartu zezaketen, denak batera lan eginez¹⁹⁰.

* Arrain komertzializazioa

Baxurako ontziek harrapatutakoa, batez ere, herrian bertan saltzen zen. Gainontzekoa Nafarroa eta Aragoira eraman ohi zuten emakumeek¹⁹¹.

2.4. ONTZIGINTZAREN IGOERA

Ontzigintzarekin Orioko bultzada ekonomikoaren garaia borobildu egin zen, arrantza eta merkataritza ahaztu gabe. XVI. mendea ere, ontzigintzaren garapenerako, oso garai ona izan zen. Izan ere, XV. mendetik aurrera Pasaia, Orio eta Bilboko itsasadarretan zeuden ontziolak Espainako onenetakoak ziren¹⁹².

a) Ontzigintza bultzatzeko oinarriak: baliabide naturalak

XVI. mende bukaera arte, Gaztelako Koroak nagusitasuna izan zuen garaia arte, Kantauriko Kostaldea izan zen Gaztelarentzat ontzigintza bultzatzeko tokirik garrantzitsuena. Hori posible izan zen baliabide naturalak zeudelako: aritz-egurra, burdina, kokapen geografiko egokia, Erriberako maestre trebeak, dirua...¹⁹³.

Lourdes ODRIOZOLAK Oria ibaiko ontzigintza hedatzeko lagungarri izan ziren zenbait faktore aipatzen ditu:

*"Oria arroaren ezaugarri topografiko bereziek erraza egiten zuten bertan gradak instalatzea. Inguruko mendietan zur ugari zegoen eta oso kalitate onekoa zen ontzigintzarako. Erraza zen materialak ontziak egiten ziren gradetaraino garraiatzea. Langile espezializatu ugari zegoen, efikazak eta kualifikatuak. Oria ibarrean burdinolak zeuden eta han egiten ziren ontzigintzarako erabiltzen ziren metalezko gaietako batzuk"*¹⁹⁴.

b) Ontzigintzaren garapena: Orioko Ontziola

Orioko ontzi gehienak Erriberako Ontziolan egiten ziren. Orioko ontziolari buruz lortu ditugun lehenengo aipamenak XVI. mende hasierakoak dira. Hain zuzen ere, 1511. urteko agiri batek, Orioko ontziolan nao bat egiteko kontratu bat sinatu zela dio¹⁹⁵. Harrezkero, dakigunaren arabera, ontzigintzaren garapenak aurrera egin zuen XVI. mende bukaerarte, produkzioa jaitsi zen arte.

¹⁹⁰1714. urteko Konstituzioak. 20. konstituzioa (XII. ERANSKINA).

¹⁹¹Hauak dira Josepo de Etxaniz eta Lazaro de Seguraren iritziak, 1599. urtekoak (IMAZ, J.M.: *La industria pesquera*. *Op. cit.* 47, 51. orr.).

¹⁹²CARO BAROJA, J.: "La tradición técnica del País Vasco" *Vasconiana*. Estudios Vascos III, Donostia Txertoa, 1974, 124. orr.

¹⁹³Baldintza hauei esker Gipuzkoa eta Bizkaia Espainako ontzigintzaren lekurik importanteenak izan ziren (BARKHAM, M.: "La construcción naval vasca en el siglo XVI. La nao de uso múltiple", *Cuadernos de Sección. Historia, El-SEV*, 3, 1984, 114. orr.). Ikusi ere IDEM: *Pasaia: iraganaren oroigarria, etorkizunari begira*. Ontzi Museoa, Donostia, 1999.

¹⁹⁴ODRIOZOLA OIARBIDE, L.: "Oria ibaiko ontzigintzaren bilakaera historikoa", *Oria Ibaiko Ontziak*. 1994, 25. orr.; IDEM: *La construcción naval en Gipuzkoa: siglo XVIII*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1997; ONTZI MUSEOA: *Euskal Herriko Ontzigintza*. Ontzi Museoa, Donostia, 1998. Baliabide naturalen garrantziaz jabetzeko ikusi: BILBAO, L.M.: "Transformaciones económicas en el País Vasco durante los siglos XVI y XVII..." *Op. cit.* 111-145. orr.

¹⁹⁵Orioko Juan de Urresti errementariak, Aiako Martin Gonzalez de Segurolari, ontziolan nao bat egiteko behar zuen iltze guztiak eman zizkion 10 dukaten truke (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215 [1511-VIII-6]).

I. TAULA. ORIOKO ONTZIOLAKO PRODUKZIOA (XVI. MENDEA)

URTEA	ONTZIGILEA	LANBIDEA	ONTZIA
1508	Domingo de Urdaire	Zurgina	-
1511	Juan de Urreizti	Errementaria	Naoa
1514	Domingo de Miranda	Zurgina	Naoa
1528	Domingo de Miranda	Zurgina	Karraka
1546	Domingo de Arriola	Errementaria	Naoa
1549	Domingo eta Juan de Miranda	Zurginak	Naoa
1550	Domingo de Irigoien	Errementaria	Naoa
1550	Juan de Miranda	Zurgina	Naoa
1560	Anton de Yerobi	Zurgina	Nabioa
1569	Domingo de Arbe	Ontzigilea	-
1572	Juan de Iturrobe	Ontzigilea	Naoa
1593	Francisco de Elorriaga	Ontzigilea	-

*** Ontziak egiteko kontratuak**

Ontzigintzan lagun bat baino gehiago aritzen zen lanean: zurginak, olagizonak, errementariak... beraz, ontzi bat egiteko kontratu desberdinak sinatu behar ziren. Batzuetan, ontzia egin nahi zuenak zurgin eta errementariekin ados jarri behar zuen. Batetik, zurginarekin, zur-hornidurarako¹⁹⁶; eta bestetik, errementariarekin, burdinezko azpiegitura egiteko¹⁹⁷. Beste batzuetan, zurginek eta olagizonek, beraien artean egiten zuten kontratua¹⁹⁸; baita ere, interesatuak, zuzenean, zurgin edo olagizonekin egiten zuten kontratua¹⁹⁹... Ontzi erosleek, hau da, nagusiek, armadorek edo maestreek, eraikuntzan parte hartu zezaketen, ontzia egiten ari zirenean edo ondoren; eta horrela, ontziaren egituraren aldaketak egiten: eskailerak, barandilak,

¹⁹⁶Domingo de Miranda Orioko zurgin maisuak, Aiako Juan Martinez de Ostolazari, nao bat egiteko zura eman zion "de asta mil dozientos çnçnenta codos de madera de nao corba, por cada codo acarreado, dos blancas". (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.216; 1514-VIII-7).

¹⁹⁷Ikusi Juan de Urresti errementariaren kasua.

¹⁹⁸Domingo de Miranda eta Juan de Mirandak, aita-emeak, Orioko zurgin maisuak, Juan de Etxabe eta Francisco de Agandururi nao bat egin zieten. Mirandatarrek naoaren gila egiteko, iltze eta burdin gaiak behar zituztenez, Esteban de Arriolarekin, Usurbilgo olagizonarekin, kontratu bat sinatu zuten (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.779 [1549-VI-21]).

¹⁹⁹Beste batzuetan, interesatuak dira zurgin eta olagizonekin kontratua egiten dutenak. Miguel de Urrezmendi oriotarrak eta Domingo de Irigoien usurbildarrak, Juan de Miranda zurginari, nao bat egiteko esan zioten; 147 dukat eta erdi ordaindu zioten (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.779 [1550-V-18]); egun berean, Domingo de Irigoienek Jorge de Zelaiandiarekin (Usurbilgo olagizona) iltze gaiak emateko kontratua egin zuen.

branka-gaztelua, bergak, sokak, artileria tresnak, bonbardak —arma mota—, burdin-kanoitxoak...²⁰⁰. Beraz, ontziaren jabea izango zenak ardura bazuela garbi dago.

c) Ontzigintzaren emaitza: produkzioa

* Ontzi motak

Orioko ontzioetan egiten ziren ontzi motak hauek ziren²⁰¹:

- batez ere, txalupak eta batelak, bai arraunerako eta bai itsasbaterreko arrantzarako balio zutenak. Normalean nahiko txikiak izaten ziren.

- Pinazak ere arraunerako erabiltzen ziren eta oihal-aizean, alturako arrantzan eta erremolkerako erabil ohi ziren. Erdiko tamainukoak ziren²⁰².

- Zabrak eta patatxeak: tamainuz, pinazak baino zerbait haundiagoak ziren, oihal-aizean eta kabotai nabigazioarako aproposenak ziren.

- Nao edo galeoiak garai honetako haundienak ziren, merkataritza eta gerrarako erabiliak. Nao baten proportzioak BAT-BI-HIRU erregela betezen zuen; hau da, nao baten kilaren neurria bi zabalera bezainbestekoa zen, eta luzera, hiru zabalera bezainbestekoa²⁰³.

* Ontzien kabida

- 1534: Naoa: 120-250 tn²⁰⁴.

- 1554: Naoa: 300 tn²⁰⁵.

- 1557: Naoa: 300 tn²⁰⁶.

- 1560: Naoa: 300 tn²⁰⁷.

- 1564: Naoa: 400 tn²⁰⁸.

- 1567: Naoa: 300-400 tn²⁰⁹.

- 1569: Naoa: 250-400 tn²¹⁰.

- 1569: Zabra: 40 tn.

- 1572: Naoa: 400 tn²¹¹.

Beraz, XVI. mendean, naoaren kabida gero eta handiagoa zen. Horrek, armada eta merkataritzan eragina izan zuen, horrela gauza gehiago garraiatuko zen eta artileria jartzeko lekua zabalagoa zen²¹².

²⁰⁰Juanes de Urdaire maestreak, adibidez, zarauztar bati "obra de cordelería y xarçia" egiteko esan zion (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.779 [1549-V-26]).

²⁰¹LABURU, M.: "Naves vascas (s. XV-XVI)", *Itsasoa*, II, 222. orr.

²⁰²Pinaza baten kilak 16 kodo luzera zuen; 5 kodo zabalera (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.779 [1549-VII-14]).

²⁰³1560. urtean, Anton de Yerobik Orioko ontziolan egin zuen naoaren neurriak hauek ziren: kilan 31 kodo luzera; 16 kodo zabalera; 50 kodo luzera (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 [1560-III-18]). BAT-BI-HIRU proportzioa ikusteko: BARKHAM, *Op. cit.* 105. orr.

²⁰⁴LABAYRU, E.: "Relación de los navíos que hay en la Provincia de Guipúzcoa (1534-IX-13)", *Historia del Señorío de Vizcaya*. LGEV, Bilbao, 1974, 732. orr. Zehazki, naoa kontsideratu dezakegu dokumentuan aipatzen diren honako ontzi motak: 120 tn.ko galeoia; 140 tn.ko bi karabela; 250 tn.ko naoa.

²⁰⁵GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.783 (1557-IX-18).

²⁰⁶GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.783 (1557-IX-18).

²⁰⁷GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 (1560-III-8).

²⁰⁸IEAH, Secr. Aquinaga. C/73 N°12

²⁰⁹GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.793, F.28 (1567-V-21).

²¹⁰AHN, Kontseilu Ezabatuak. Gaztelako Patronatoa. Leg. 15.651. Exp. 1 (1569).

²¹¹SEOANE, M. de: "Relación de algunas naves construidas en los astilleros de Guipúzcoa, desde 1476 a 1810", *Euskal Erria* (1907) LVII, 372-378 orr.

²¹²"La demanda de naves vascas hecha por la *Carrera de Indias* desde 1505 en adelante hizo que, gradualmente aumentara el número de barcos construidos a lo largo del litoral cantábrico, desde Fuenterrabía a Santander, y que el tamaño de los barcos aumentara también conforme fue transcurriendo

Bale arrantzan erabilitako naoak 200-500 tn. artekoak ziren. Bakailu arrantzarakoak, berriz, 60-300 tn. artekoak²¹³.

II. TAULA. ORIKO ONTZIAK (XVI. MENDEA)

URTEA	JABEAK	ONTZI MOTA	TONAK
1534	Cristobal de Aganduru	KARABELA	140
1534	Juan de Agirre	KARABELA	140
1534	Juan de Etxabe	GALEOIA	120
1534	Ezezaguna	NAOA	250
1554	Cristobal de Aganduru / Juan de Agirre	NAOA	300
1564	Francisco de Elorriaga	NAOA	400
1567	Juanes de Illunbe	NAOA	400
1567	Juanes de Illunbe	NAOA	300
1569	Juanes de Illunbe	NAOA	300
1569	Juanes de Illunbe	NAOA	400
1569	Anton de Yerobi	ZABRA	40
1569	Domingo de Etxaniz	NAOA	200
1569	Nicolas de Segura / Cristobal de Iturizaga	NAOA	250

* Naoaren ezaugarriak

XVI. mendean erabilitako ontzien artean garrantzitsuena naoa izan zen. Horregatik, ontziaren ezaugarriak aztertzea interesgarria iruditu zaigu. Kabida ertaina zen, 200 eta 300 tn. bitartekoa. Hiru masta zituen, brankan eta erdialdean forma nahiko beteak zituen eta atzealdea zorrotza zen; horri esker, naoak oso egokiak ziren nabigaziorako. Baina lasta edo pisu haundiko zamak eraman behar zituen uretan ondo joateko (bestela asko mugitzen zen). Ontzi-karga gisa, primerako ontzia zen; eta gerrarako, aldiz, makalegia²¹⁴.

d) Ontzien erabilgarritasuna

Agirietan azaltzen denez, ontzi hauek *naoak* edo *galeoiak* izendatzen ziren, inongo desberditasunik egin gabe. BARKHAMen esanetan, XVI. mendeko naoak gauza askotarako erabili ziren, hain zuzen, bale arrantzara joateko, merkataritzarako eta gerrarako erabili ziren.

la centuria (...) y los subsidios para fabricarlos, que en un principio estimularon la construcción de barcos de mayor tamaño en el País Vasco, se acomodaban a la tendencia general de expansión en la actividad comercial durante el período" (BARKHAM: *Op. cit.* 103-104 orr.).

²¹³HUXLEY, S.: "Los vascos y las pesquerías..." *Op. cit.* 50. orr.

²¹⁴LABURUK Orioko Kale Nagusian, seigarren zenbakian dagoen irudiaren deskribapena egiten du: bertan, XVI. mende hasierako naoa azaltzen da; kaskoan puntel haundia du. Neurriaren arabera bi ontzi atonduko daitezke. Branka-gaztelua motza da; popan estalki zabal bat darama, tximinia du, gerrarako naoek, normalean, atzealdea estalita eramaten dute: "El aparejo impulsor se ha complicado y perfeccionado, aunque en su bauprés no aparece vela cebadera. Los treos o papahigos de trinquete y mayor aparecen con bonetes. Ambos palos aparecen provistos de cofa, mastelero y gavia. En la mesana, con vela latina, se aprecia una pequeña cofa con su gavia" (*Op. cit.* 241. orr.).

* Merkataritzarekin loturak

Esan dugun bezala, naoak, pinazak eta txalupak balea eta bakailuaren arrantzan erabiltzen ziren, bai Ternuan, bai Galizian²¹⁵. Horrezaz gain, Europarekin izandako merkatal harremanak ontzi horiei esker egin ahal izan zen²¹⁶.

* Gerraren eragina: bahiturak

Askotan, gerra eta kortsarioen garaian, naoak zituzten euskaldunei, Ternura konboietan joateko elkartzeko aholkua eman zien erregeak. Baina, Orioko kapitainek, beren kontura, kasurik egin gabe, lanean jarraitu zuten. Nahiz eta ontziak azkarrak ez izan, oso indartsuak ziren, eta tripulazio haundia izaten zuten²¹⁷.

Errege Katolikoek garaitik aurrera, Erret itsas armada (Marina Erreal) ez zegoenez, erregeek ontziak bahitzen edo enbargatzen zituzten beren armadak antolatzeke. Batzuetan, ontziak alokatzen zituzten alde aurretik, jabearekin kontratu bat sinatuz; baina, alokairurik ez zegoenean, erregeek edozein ontzi enbargatzen zuten²¹⁸.

XVI. mende erditik aurrera ontzi oriotarrak gerraontzi modura erabili zirela jakin dugu, bai erregearen zerbitzurako eta baita enbargatu zituztelako ere:

- 1554. urtean Juanes de Illunbe kapitaina Ingalaterraren aurkako gerran, erregearen zerbitzuan aritu zen²¹⁹.

- 1557. urtean Cristobal de Aganduru eta Juan de Agirreren emazteek, beren senarrek Erret itsas armadan parte hartu zutela azaldu zuten²²⁰.

- Bi urte beranduago ontzi bat bahitu zutela jakin dugu: San Nicolas naoa, Cristobal de Agandururena izandakoa, infanteriaren zerbitzurako enbargatu zuen erregeak. Ontziaren kapitaina Domingo de Etxaniz zen²²¹.

- 1560. urtean Juanes de Illumberen naoa Errenteriako marinelek alokatu zuten "para ir de armada contra los franceses". Illunberi irabazien bostena zegokion²²².

- 1561 eta 1563. urteetan oriotar askok Erret itsas armadan parte hartzen jarraitu zuten²²³.

- 1567. urtean Juanes de Illunberen bi naoak, Orioko ontziolan egin berriak, gerrarako bahitu zituen erregeak²²⁴.

- 1569tik 1575era bitarteko aipamenetan Armadarekin zerikusia duten arazoak agertzen dira²²⁵.

²¹⁵GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.801. F. 69 (1575).

²¹⁶Ikusi Europarekin merkatal loturak (burdina, arrantza, etab.).

²¹⁷LABURU, M.: *Op. cit.* 228. orr.

²¹⁸*IBIDEM*, 229. orr.

²¹⁹"Sirvió al Príncipe nuestro señor en la pasada de Inglaterra, hasta llegar al puerto de Persemua y de allí a Dobra [Dover] y a Unquerca [Dunkerke]". Dokumentu honetan, erregeak oraindik ez ziola Illunberi zegokion soldata ordaindu aipatzen da (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.781 [1555-III-4]).

²²⁰Beraien San Nicolas izeneko naoak, 300 tn.koa, Ingalaterra eta Flandeseko gerratan parte hartu zuen.

Agirian soldatak jaso nahi zituztela adierazten da (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.783 [1557-IX-18]).

²²¹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.784 (1559-I-20). Flandeserako bidaian bahitu egin zuten.

²²²GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 (1560-VII-14).

²²³GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 (1561-III-30); 3/1.786 (1563-XII-28).

²²⁴GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1793 (1567-V-21), (1567-IX-10). Lehenengoa 300 tonakoa da, bigarrena, 400 tonakoa.

²²⁵1568. urtean, Juanes de Urdairek erregearentzat egin zuen lana, Frantziaren kontrako armadan, eta itsasoan pinaza frantses bat aurkitu zuen. Berak eta bere adiskideek ontzitik 206 dukat lapurtu zituzten (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.788 [1569-I-20]). Bestalde, 1575. urteko dokumentuan azaltzen denez, Juanes de Illunbe kapitainak, erregearentzat egindako lanarengatik zegokion soldata eskatu zuen (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.801 [1575-I-13]).

e) Ontzien prezioa

Ikusi ditugun agirietan ez da ontzi askoren preziorik azaltzen; horietako batzuetan errementari eta zurginekin egindako kontratuetan bakoitzari zegokion kopurua agertzen da; beste batzuetan, berriz, nao edo ontzien salmenten prezioak azaltzen dira. Beraz, kasu batzuetan ontziolan egindako ontzien prezioa azaltzen da; eta bestetan, jabeek ontziak saldutakoan lortutakoa.

Atal hau argitzeko ikus ditzagun adibide batzuk:

- 1550. urtean nao batek balio zuena horrela banatzen zen: zurginari 147 dukat eta erdi zegokion, eta burdin lana egiten zuenari 17 erreal, kintal bakoitzeko (aingura, kanoiak, iltzeak, etab.)²²⁶.

- 1560. urtean nao batek 250 dukat balio zuen²²⁷.

- 1569. urtean, berriz, 102 dukat²²⁸.

- 1549. urtean Martin de Argiainek, maeseak, pinaza egiteko kontratua sinatu zuen, eta 41 dukat ordaindu zituen. Handik urte batera, Argiainek beste pinaza bat (behar bada ontzi bera izan zen) saldu zuen eta 50 dukat jaso zituen²²⁹.

- Txalupa batek 11 eta 15 dukat inguru balio zuen²³⁰.

e) Atoi edo erremolke lanak: Kofradiaren garrantzia

Ontzigintzaren gaiari bukaera emateko, atoi-lanak ere kontutan hartu behar dira. Orioko ontziola, L. ODRIOZOLAREN esanetan, kaian²³¹ zegoen, beraz, ontziolan egin beharreko lanak (eraikuntza berriak, konponketak) bukatu ondoren, ontzi bakoitzak itsasadarra eta barra zeharkatuz itsasora eraman behar ziren. Baina ontzi bat atoian edo erremolkean eramatea ez zen lan erraza, XVI. mendearen hasieratik aurrera, barran hondar asko pilatzen zen-eta. Hori zen arazoa, barratik pasatzea oso zaila eta arriskutsua baitzen. Hurrengo kapituluetan ikusi ahal izango dugun bezala, 1533. urtetik aurrera oriotarrek oztopo hori gainditzeko hainbat irtenbide eta laguntza bilatu zuten. Horien artean, esate baterako, 1574. urteko Erret Probisioaren kontzesioa dugu. Pribilegio horretan ontzigintzaren gain ezarritako sisa edo zerga zehazten da; lortutako dirua barra hobetzeko izan zen:

*"(...) cada pinaça, chalupa o vaxel de quatro toneles para avaxo que sea nuevo de astillero, que saliere o entrare por la dicha varra, vn real, y a cada ala o galuxa, otro real. Iten cada pinaça, vaxel o navío de qualquier género aunque sea nuevo de astillero que fuere mayor de quatro toneladas para arriba por los cascós, seis maravedís por tonelada"*²³².

Atoi-lanen gora beherak azaldu ondoren, sortutako arazoak eta horiei emandako konponbideak ikusiko ditugu. Kontuan hartu behar dugu San Pedro kofradiak arautzen zituela atoi-lanak.

Oria ibaiko ontzioetan egindako ontziek, derrigorrez, Orioko barratik pasa behar zuten, ontziola eta kofradiaren arteko istiluak sortu zituen. Eztabaidan zegoena zera zen, ontzia egin ondoren atoiaren ardura zeini zegokion, ontziaren jabeari edo

²²⁶GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.779 (1550-V-18).

²²⁷GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 (1560-III-18). Anton de Yerobik egin zuen Orioko ontziolan.

²²⁸GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.794 (1569-I-7). Domingo de Arbe Orioko ontziolan egiten ari da.

²²⁹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.779 (1549-VII-14), (1550-VIII-24).

²³⁰GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.786 (1563-III-21). Agertzen den prezioa 11 dukat da; GAO, CO-E.CI, 445 (1581): 15 dukat.

²³¹L. ODRIOZOLAK Orioko ontziolaren kokapena ematen du (*Op. cit.* 26-27. orr.).

²³²Ikusi V. ERANSKINA: Arantzela (1574).

ontziola kokatzen zen herritarrei. Batzutan, Usurbil edo Aginagako ontzioletan egindako ontzien jabeak, atoian eramateko beste herrietako jendea kontratatzen zuen. Baina 1621. urtean Kofradiak atoi-lanak arautu zituen konstituzioetan; bertan, Oria ibaiko ontzioletan egindako ontzien atoi-lanak oriotarrei bakarrik zegokiela erabaki zen. Gainera, Kofradiak txalupen jabeei soldatak ordaintzen zizkien lanaren truke²³³. Hala ere, eztabaidak ez ziren bukatu, hurrengo arautegian gai bera azaltzen baita²³⁴. XVIII. mendeko ontzigintzaren gaira heltzean, arazo eta eztabaida horietaz arduratuko gara.

Laburbilduz, ontzigintzak XVI. mende hasieran eman zituen lehen urratsak eta, horretarako, Gaztela eta Europako herrialdeen artean izandako merkatal harremanak oso lagungarriak izan ziren. Baliabide naturalen aberastasunak eta ontzigintzak merkatal zerbitzuei eta gerrei aurre egiten lagundu zuen. Bestalde, ontzigintza beste jardueren garapenerako ere mesedegarria izan zen: burdina, arrantza, gerra, merkataritza...

Behar bada Orioko garai ekonomiko honetan gehiegi luzatu gara. Hala eta guztiz ere, jarduera bakoitzean sakontzea komenigarria iruditu zaigu; izan ere, garai honetan ekonomiari dagozkion euskarriak finkatzen baitira, hurrengo mendeetan bilakaera historikoaren poderioz, garatu, aldatu, indartu edo desagertu direnak. Ildo beretik jarraituz, datozen ataletan ez da beharrezkoa izango, iadanik, azaldutako oinarritzako kontzeptu batzuren azalpena ematea.

II. ITSASOAREN INGURUKO JARDUERA EKONOMIKOAREN KRISIALDITIK NEKAZARITZAN OINARRITUTAKO SUSPERRALDIRA (XVI. MENDE BUKAERATIK XVIII. MENDE ERDIRA ARTE)

Ekonomiaren krisialdia eta susperraldia delako garai honetan, XVI. mende bukaeratik XVII. mendeko 20. hamarkada bitartean, Gipuzkoak eta Oriok jasandako larrialdiaren gakoak aztertuko ditugu. Bestalde, esan beharra dago, krisialdia eta susperraldia erabat lotuta dauela, eta 1625 eta 1760 urte bitartean gertatu zela susperraldi garaia.

Beraz, garai luze honen ezaugarriak hauek dira: batetik, aurreko garapena bultzatu zuten funtsezko ekintzen krisialdia; eta bestetik, krisialdiaren eraginez, ekonomiaren susperraldia oinarritzako aldaketa batekin, hau da, nekazaritza bultzatuz.

1. ITSASOAREKIN LOTUTAKO JARDUEREN KRISIALDIA (1580-1625)

1.1. KRISIALDIAREN FUNTSEZKO GAKOAK

Gipuzkoan, XVI. mendeko ekonomiaren ezaugarriak nagusienak baliabide naturalak, kanpoko eskaera eta merkatal loturak izan ziren. Horrezaz gain, Gaztelako Koroak Europako herrialdeekin izandako harreman politikoak oso garrantzitsuak izan ziren eskaera eta komertzializaziorako. Beraz, horren inguruko edozein aldaketak egoera osoa "desoreka" zezakeen, eta horixe gertatu zen. Hori eta bestelako arazoak elkartuz, itsasoarekin lotutako jardueren krisialdia eman zen.

Felipe II.ak, Gaztelako erregeak, izandako finantz-porrotak, Europako gerrak eta merkataritzaren jaitsierak eragin izugarria izan zuten. Gainera, Ingalaterra eta

²³³GAO, CO-L.CI, 2.829 (1752). Agirian 1621. urteko Konstituzioak idatzita daude.

²³⁴1714. urteko Konstituzioak, 23-27 kapituluak.

Holandako konpetentzia gogortu egin zen urtetan euskal arrantzaleek nagusitasuna izan zuten lekuetan²³⁵.

Bestalde, baliabide naturalak: burdina, egurra... hau da, garai oparoan burdingintza eta ontzigintza bultzatzeko balio izan zutenak, XVII. mendean agortzeaz zeuden. Burdin eta ontzigintzaren krisialdia ulertzeko, kontutan hartu behar da: alde batetik, Ingalaterra eta Suediaren burdin konpetentzia; eta bestetik, euskal burdingintzak zuen aurrerapen teknikoen falta.

Beraz, hori guztia kontutan hartuz, Orioko jarduera ekonomikoan izan zuen eragina ikusiko dugu.

Krisialdiaren eraginez oriotarrek urte oso latzak pasa zituztela adierazteko pasarte hau egokia iruditu dugu:

*"Esta villa es de mui poca substancia y vecindad y la mayor parte de la gente que hay en ella son pobres marineros y trabajadores que viven de la pesca que traen de la mar, pasan la vida con mucho trabajo y afán (...) viven con tanta miseria y pobreza que no alcanzan un pan, un día con otro"*²³⁶.

Krisialdi ekonomikoaren nondik norakoak URRUTIKOETXEAK argitu ditu: "La crisis apunta claramente hacia la pérdida progresiva de protagonismo por parte, fundamentalmente, de las áreas que fundamentaron su crecimiento anterior en el desarrollo de las actividades relacionadas con la mar, bien sea el comercio o la pesca"²³⁷.

1.2. MERKATARITZAREN KRISIALDIA

a) Egoera orokorraren eragina Orion

Aurreratu dugun bezala, gertakizun politikoengandik Gaztelako Koroa XVI. mendeko merkataritza bideetatik baztertuta geratu zen. Ingalaterra, Frantzia eta Holandarekin izandako gerren ondorioz, harreman kormetzialak eten egin ziren. Guzti horrengatik Gipuzkoak eta Bizkaiak ondorio zuzenak jasan zituzten: Ipar-Europako merkatuetan hemengo produktuak desagertu ziren eta beste herrialdeen konpetentzia hasi.

1581. urtean Batzar Nagusiek emandako agindua erabat adierazgarria da, bertan esaten zen kanpoko ontziek ezin zutela Gipuzkoako inongo portuetan karga edo deskargarik egin. Miguel González de Seguroiak eta Domingo de Arranibar, alkate oriotarrek, eta Miguel de Urreizmendik eta Joanes de Arranibarrek, errejidoreek, aginduak eragindako ondorioetatik beren kezka azaldu zuten:

"(...) total destrucción d'esta Provincia y aún de los capitanes e maestros de naos, porque hellos se suelen probar de Francia y Flandes e Ynglaterra de belas, xarçia, brea, alcatrañes y artilleria colada para sus naos y bender a los tales mercaderes las ganancias de sus naos, así grasas como fierro e otras mercaderías que se hazen en esta Provincia".

Hori esanda, Korrejidoreen aurrean eztabaidatzeko eskatu zuten²³⁸.

Arrazoi haundia zuten kezkatuta egoteko oriotarrek, ondo baino hobeto baitzekiten non zegoen garapen ekonomikoaren iturria, hau da, merkatal harremanetan. Baina, gerra garaietan hartzen zen lehendabiziko neurria, etsaiekin merkatal loturak moztea

²³⁵GELABERT, J. E. "El Siglo de Oro..." *Op. cit.* 207-246. orr.

²³⁶HEAA, Vargas Ponze Bilduma. Vol. 24, 9/4.197 (1591-XI-20).

²³⁷URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...* *Op. cit.* 18. orr.

²³⁸DÍEZ DE SALAZAR, L.M.; AYERBE IRIBAR, M.R.: *Juntas y Diputaciones. Op. cit.* t. VIII (1581-I-14. Donostia). 16. orr.

izaten zen. 1607. urtean Orioko Kontzejuak egindako Ordenantzetan ere garaiko egoera isladatzen da, atzerriko pertsonekin eta ekartzen zituzten gaiekin erne eta kontu haundia eduki behar zela aipatzen baita²³⁹. Urte batzutara, 1613. urtean, Kontzejuak barratik sartu eta atera ziren produktuen zerrenda argitaratu zuen eta, dokumentu horretan —arantzelean— ez da azaltzen Frantzia edo bestelako herrialdeetako produkturik. Esate baterako, ez dira azaltzen 1574. urteko arantzelean aipatzen ziren Burdeoseko ardoa ezta Frantziako txerriak ere. Beraz, 1613. urteko arantzel zerrenda aztertuz, merkataritzaren jaitsiera baieztatu dezakegu²⁴⁰.

b) Burdingintzaren inguruko arazoak: konpetentzia

Burdingintzak ere krisialdia jasan zuen eta, gatazka egoera eta konpetitibitate eza izan ziren arrazoi nagusiak. Aurreko garaian, lehen aipatu dugun bezala, Orioko oso garrantzitsua izan zen, esportazio gunea baitzen eta bertan zergak kobratzen baitziren. Gerra garaian esportazioa eten egin zen eta, horren lekuko, 1587. urteko agiria dugu. Batzar Nagusiek Frantziara burdina eramatea eragotzi zuen²⁴¹. Bestalde, Ingalaterra eta Suediako burdinak euskal burdingintza pixkanaka baztertu egin zuen, gainera, gure ontzioletan ez zen aurrerapen teknikorik eman²⁴².

Gogoratu behar dugu inguruko burdinoletan landutako burdina Orioko portutik ateratzeagatik kopuru jakin bat ordaindu behar izaten zela. Kobraketa lan horiek egiteko Orioko Kontzejuak *fielaren* kargua izendatzen zuen, baina, 1601. urtera arte iraun zuen, Orioko Kontzejuak burdinaren hamarrena biltzen zuen kargua izendatzeari utzi egin baitzion. Orioko alkateak eskubide horri uko egin zion, eta aurrerantzean, zergak bildu eta Erregeari emateaz Probintzia arduratu zen. Gertaera horri buruz egin dezakegun irakurketa hauxe da: batetik, Kontzejuak ordaindu behar izango ziola soldata zerga biltzaileari, eta garai hartan burdin esportazioa nabarmen jaitsi zenez, gehiegizkoa iruditu zitzaioala soldata ordaintzen jarraitzea; eta bestetik, behar bada, Orioko Kontzejuak kobraketatik dirua hartzen zuen eta Probintzietakoak konturatzean Kontzejuak eskubideari uko egin behar izan zion. Dena den, dokumentuan azaltzen dena zera da:

*"(...) sin que esta dicha villa aya tenido ni tenga (como no tiene) ningún aporobamiento por ello, mas el cuydado de nombrar el dicho fiel cogedor de los dichos derechos"*²⁴³.

Nahiz eta burdin eskubideei uko egin, Orioko Kontzejuak 1613. urteko Arantzelaren arabera, burdin-beta —burdin landugabea— eta burdinari sisa bana ezarri zien, burdin-beta 1574. urteko kopuru bera, eta burdinarena 2 marabedi garestiago.

Horrezaz gain, lonja eta ibaia pasatzeko zerbitzuak, hau da, Kontzejuak zituen beste eskubideak, mantendu egin ziren. Bien erabilera eskubide batzuk ordaintzen ziren eta Kontzejuak zerbitzu horiek errentan jartzen zituen. Izan ere, XVII. mendean, 1621. urtean, Aiako Unibertsitatearekin izandako auzia luzean Orioren alde erabaki zen; beraz, horren arabera, Orioren zergokion itsasadarraren jurisdikzioa, itsasgoran urreztatzen ziren lurren jurisdikzioa²⁴⁴.

Beraz, burdingintzari buruz egin dezakegun balorazioa hauxe da, egoera orokorrak burdin produkzioa eta esportazioak eragotzi zituela, baina, beste eskubide batzuk mantendu ahal izan zirela.

²³⁹1607. urteko Udal Ordenantzen 49-50 atalak (Ikusi VIII. ERANSKINA).

²⁴⁰Ikusi X. ERANSKINA (1613).

²⁴¹DÍEZ DE SALAZAR, L. M.; AYERBE IRIBAR, M. R.: *Op.cit.* T.X (1587-IV-1, Donostia) 44. orr.

²⁴²BILBAO, L. M.: "La industria siderometalúrgica tradicional en el País Vasco (1450-1720)", *Hacienda Pública Española*. Nº 108-109, 1987, 47-63 orr. 1550-1620. urteetan aurreneko zailtasunak azaltzen dira.

²⁴³GAO, Sec. 2; Neg. 13; leg. 11 (1601). Albalaren prezio aldaketa ikertu dugu: XV. mende hasieran, kintal bakoitzeko hiru marabedi ordaintzen ziren, eta aztertzen ari garan garaian marabedi eta erdi gehiago. Beharbada, aldaketaren ondorioz, Kontzejuak eskubideari uko egin behar izan zion.

²⁴⁴Pasaia, lonja eta Aiarekin izandako auzietaz Gobernuari buruzko atalean arduratuko gara.

1.3. ARRANTZA: ALTURAKO ETA BAXURAKO ARAZOAK

a) Alturako arrantza: Ternuan jarduteko trabak eta, Galizia eta Asturiasen lana egiteko aukerak

Alturako arrantzari dagokionez, Ternuako bale arrantza XVI. mende bukaeratik jaisten hasi zen. Kontutan hartu behar da, batetik, Ingalaterra eta Holandako Merkatal Konpainien konpetentzia eta, bestetik, gero eta bale gutxiago zegoela. Beraz, euskal eta oriotar arrantzaleak bale harrapaketatik baztertuta geratu ziren. Dena dela, garai latz haietan oriotarrak noizbehinka Ternuara joaten ziren bale arrantzara²⁴⁵. XVII. mendean jaitsiera nabarmenagoa izan zen.

Hala ere, Ternua ez zen baleak harrapatzen zen leku bakarra, izan ere, eta esana dagoen bezala, XVI. mendetik aurrera oriotarrak Galizia eta Asturiasera hurbildu ziren. Oriotarrentzat leku hobea zen, gatazka politiko eta merkatalik ez zegoelako eta, Ternuara joatea zaila eta garestiagoa zelako. Horrela bada, 1580. hamarkadatik aurrera Asturias eta Galiziako portuetara bidaiak antolatu ziren baleak harrapatzeko. Agirietan bidai horiek izendatzeko, seguruenik Ternuarako bidaien eraginez, deitura bera azaltzen da, "marítima y costera", alegia²⁴⁶.

* Bidaia motak: elkarteak

Beraz, oriotarrak Asturias eta Galiziara joaten ziren baleak harrapatzera, eta portu garrantzitsuenak hauek ziren: Asturiaseko Llanes, Lastres, Cangas (dokumentuetan "Candas"), eta Galiziako Bares, Malpica, Lage (dokumentuetan "Layón edo Cayón"), Burela, "Madalena", "Basma" eta Noya (dokumentuetan "Nois").

Hara joateko, normalean, Orioko portutik ateratzen ziren, baina, Zumaia eta Donostiatik ere antolatzen ziren irteerak. Baleetara joateko oriotarrek, batzuetan elkarrekin egiten zuten bidaia, beste batzuetan, Bizkaia, Gipuzkoa edo Galizia eta Asturiaseko arrantzaleekin. Zenbaitetan, berriz, elkarteak egiten zituzten. Bidaia mota horien berri pleit-gutun batzuren bidez izan dugu:

- 1586. urtean Nicolas de Urdaire eta Domingo de Etxabe oriotarrek, Llanes-era joateko akordioa sinatu zuten. Bertan esaten da, Etxabek Urdairen zabra —ontzi mota — alokatu zuela eta, pleit gisa 18 dukat eta 36 barrika bale koipe ordaindu zituela²⁴⁷.

- Beste batzuetan, Galizia eta Asturiaseko arrantzaleekin sinatzen zituzten kontratuak; esate baterako, 1615. urtean Vicente de Segurak Felipe de Segurari Malpica-ko jendearekin baleak harrapatzeko akordioa egiteko boterea eman zion²⁴⁸.

- Bizkaiko arrantzaleekin batera egindako bidaien aztarna ugari daude; besteak beste, San Julián de Muzquiz, Somorrostro eta Portugaleteko herritarrekin egindako bidaiak buruz. Adibidez, 1590. urtean, Juan de Urdaire lemari oriotarrak, Pedro de Longarri muskiztarrari, Santa Maria de Guadalupe izeneko nabioa alokatu zion. Ontzia Zumaian zegoen, Cayon eta Malpicara joateko prest. Orioko portuan eman behar zion muskiztarrak ontzia eta oriotarrak sagardoa eta barrikak kargatu behar zituen. Pleit-gutunaren arabera, ontziak "Lareuna" edo "Cormes"-en pasa behar zuen negua eta

²⁴⁵Garai honetan Ternuara joandako aipamenak gutxi dira, besteak beste, hauek ditugu: adibidez, 1581. urtean Francisco de Elorriagak bertan lan egiten zuen. (GAO, CO-L.EJ, 39, 1581); urte betera, berriz, Anton de Trekuk Ternuara egindako bidaien truke jaso zituen soldatetaz hitz egiten da. (GAO, CO-L.EJ, 48, 1582); eta 1601. urtean, Pedro de Etxanizen egonaldiaz arduratzen da.(G.O, CO-M.CI. 556 1601). Aipamen gutxi horiekin baiezia dezakegu, oriotarrak lehen bultzatu zuten iturri-ekonomikoa eusten ahalegindu zirela. XVIII. mende hasierarte luzatu ziren noizbehinka egiten zituzten bidaiak, hain zuzen 1714. urterarte, euskaldunek Ternuako nagusitasuna betirako galdu zuten momentura arte. (CIRIQUIAIN GAIZTARRO, M.: *Los vascos en la pesca de la ballena. Op. cit.* 316. orr.)

²⁴⁶GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.826 (1600-IX-24).

²⁴⁷GAO, CO-M.CI. 367 (1586).

²⁴⁸GPAH, Bartolome de Arbe, 3/1.828 (1615-VI-22).

han, Urdairek koipea eman behar zion. Martxoaren 15erako ontziak Oriora bueltatzeko prest egon behar zuen eta zortzi egunetan ontzia deskargatu behar zuen. Urdairek 800 errealeko pleitea ordaindu zuen²⁴⁹.

- Oriotarrek beste gipuzkoarren ontziak ere alokatu ohi zuten, ikusi dezagun soraluzetar baten kasua: Joanes del Puerto oriotarrak eta Andres de Magallon zarautzarrak Nuestra Señora de Aguirre izeneko nabioa alokatu zioten Domingo de Kukullori, Soraluzekoa. 1611. urteko iraila bukaeran ontzia prest zuen jabeak eta koipea La Basmako portuan jaso zuen. Bueltan Bilbo, Getaria edo Donostian deskargatu behar zuten. Pleit gisa 77 dukat jaso zituen soraluzekoak²⁵⁰.

Aztertu ditugun kasu gehienetan, armadoreari harrapatutakoaren laurdena zegokion eta barrika koipekin ordaintzen zitzaion.

- Badirudi Galizia eta Asturiaseko arrantza elkarte modura antolatua zegoela pentsa arazten digun berria ere badugu: 1615. urtean Orioko eta Donostiako arrantzaleek bale arrantza eta ondorengo banaketa elkarrekin egiten zuten. Baina aipatu urtean oriotarrek adierazi zuten usadio horrekin bukatu nahi zutela, donostiarrak ez zirelako sekula balea harrapatzen laguntzera joaten eta, banaketa egiterakoan oriotarrak, batzuetan, kaltetuta ateratzen zirelako²⁵¹.

MARTÍNEZ DE ISASTI bale arrantzari buruz aritu zen, eta agirietan azaltzen denez, behin kontratua sinatuta, bidaiak gehienak udazkenean hasi eta martxoan bukatzen ziren²⁵².

Krisialdi garaian oriotar arrantzale asko joaten zen Galizia eta Asturiasera, 1616. urtean Kontzeju Orokorrak adierazi zuenaren arabera: "ausencia de la mayor parte de la jente, que estava en Galicia en la matança de ballenas"²⁵³.

Badirudi itsasoan ez zirela oso seguru sentitzen, bidaiak antolatzen zituztenean gatazka edo gerra erasoaldietarako prestatzen baitzituzten ontziak²⁵⁴.

Bestalde, kontutan izan behar dugu, ontzigintzan ez zela aurrerapen teknikorik eman eta ontzi motak ez zirela aldatu. Batez ere, naoak, txalupak eta zabrak izaten ziren.

Kofradiak arautzen zuen oraindik ere arrantza eta salmenta, baita zenbat arrantzalek joan behar zuten ontzi bakoitzean eta eraman behar zuten tresneria²⁵⁵.

²⁴⁹GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.811 (1590-XI-2). Muskiztarrekin egindako bidaietaz agiri gehiago dago. Izan ere, oriotarrek bizkaitarren naoak alokatzen zituzten; somorrostrotarrenak (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.826 [1600-IX-24]; [1605-VII-21]); portugaletarrenak (Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 [1612-V-2], etab.).

²⁵⁰GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 (1611-VII-26).

²⁵¹"Miguel de Areizaga y Joseph de Echaniz, alcaldes; Juan Martinez de Arranibar, regidor; Domingo de Echabe, síndico; Paulo de Iturriaga, mayordomo, y los maestros-chalupas, pescadores, capitanes, armadores de alturas y de Galicia en la matanza de las ballenas, que son los dos alcaldes, regidor, síndico y Felipe de Segura, Vicente de Segura y Tomas de Segura, Domingo de Alcega, Antonio de Gaztañaga, Esteban de Miranda, Domingo de Yerobi, Lazaro de Hoa, Joanes de Echabe, Sebastian de Urdaire, con los demás maestros-chalupas, capitanes, armadores, compañeros, que andan en sus chalupas, arponeros, espalderos, y los demás compañeros que andan en qualquier pescada en abril por la chalupa de Juanes de Etxabe y Joan Martinez de Echaniz y Sebastian de Urdaire (...) no fue a ayudarle San Sebastián, como solía hacerlo en la caza de una ballena ni en el reparto (...) Orio decide hesimirse de la compañía (...)" (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 [1615-V-1]). Ildo beretik, ikusi ere Gabriel de Arbe, 3/1.828, F.57 [1615-XI-25]).

²⁵²MARTÍNEZ DE ISASTI, Lope: *Compendio historial de Guipúzcoa (1625)*. L.G.E.V. Bilbao, 1972, 156. orr. Ikusi GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827, F.16 (1618-IX-26). Urrian aterako direla aipatzen da. Beste batzuetan, negu osoa pasako dutela esaten dute. GPAH, Gabriel de Arbe, 3/1.829; (1622-X-9).

²⁵³GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 (1616-XII-14).

²⁵⁴Agiri batzuetan azaltzen da, ontzien jabeek marinel gehiago eramaten zituztela seguruago bidaiatzeko: "más seguros de henemigos y de todo lo demás que subcediese" GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 [1611-VII-26]).

²⁵⁵Kofradiak esaten zuen irabaziak parte hartzaileen artean banatu behar zirela; txalupak baleetara joaterakoan, nahikoa armazoi eta jende eraman behar zutela; eta, ontzi bakoitzak 80 braza soka, bi arpoi eta bi txabalin (haundi bat eta txiki bat). Ikusi GPAH, Bartolome de Arbe, 3/1.828, F. 3 (1616-I-16).

III. TAULA. ARRANTZA BIDAIEN PLEIT KOPURUAK (1575-1625)

URTEA	ARRANTZARAKO LEKUAK		PLEITEAK	
	PORTUA	PROBINTZIA	DIRUA	GAIK
1586	LLANES	Asturias	18 dukat	36 barrika
1590	MALPICA	Galizia	73 dukat	-
1605	BARES	Galizia	65 dukat	irabaziak
1611	BURELA	Galizia	77 dukat	-
1612	LAYÓN	Galizia	80 dukat	-
1618	BARES	Galizia	82 dukat	-
1622	BURELA	Galizia	78 dukat	-

III. Taulak adierazten duen bezala, 1586. urtetik 1622. urte bitartean 840 erreal ordaintzen ziren gutxi gora-behera pleit gisa.

* Bale produktuen prezioak behera egin zuen

1613. urteko Arantzel zerrendaren arabera, baleetatik ateratako gaiengatik ordaindu beharreko sisa edo zerga hauze zen:

" (...) a cada barrica de grasa que entrare o saliere por la dicha barra, vn real. 34 maravedís (...). Por cada quintal de barvas de ballena que entrare por la dicha barra, dos reales e por cada quintal que saliere, dos reales. 68 maravedis".

Bestalde, datuak ikusita beste ondorioa ikusi dugu: ez dela kasik Ternuako gai edo produkturik azaltzen, beraz, Ternuarako bidaiak gutxitu egin zirela. Eta, azaltzen diren datuak Galizia eta Asturiasen harrapatutakoari dagokiola. Horrezaz gain, bakailuaren sisa aipatzen da, beraz, behar bada, Ternuako jardueraren azken aztarna izan daiteke²⁵⁶.

Hortaz, Ternuako bale nagusitasunak behera egin zuenean, oriotarrek Penintsulako mendebal aldera jo zuten, eta horrela urtetan egin zutenari eutsi zioten.

b) Baxurako arrantzaren murrizketa

Baxurako arrantzak krisialdi nabarmena jasan zuen. Horrela esan zuten 1599. urteko agiri batean bi arrantzale oriotarrek: Josepo de Etxaniz eta Lazaro de Segurak. Haien arabera, azken hamar urtetan —aurreko data kontutan hartuta— baxurako arrantzak jaitsiera latza izan zuen, arraina izugarri gutxitu zelako. Esan zuten, baita ere, bertako jendea asetzeko adina bakarrik harrapatzen zutela, nahiz eta sardina gutxi batzuk Nafarroa eta Aragoira eraman²⁵⁷. Gainera, itsasoa hoztu egin zen eta, ondorioz,

²⁵⁶Ikusi X. ERANSKINA: Arantzela (1613-V-8).

²⁵⁷IMAZ, J.M.: *La industria... Op. cit.* 47-53 orr.

arrainen betiko ibilbidea aldatu egin zen; horrela, gure kostaldetako harrapaketak izugarri jaitsi ziren²⁵⁸.

* Tresneriaren eragina

FERNÁNDEZ DE ALBALADEJOk dio baxurako arrantzaren jaitsieraren arrazoietakoa bat tresneria (sareak..) izan zela²⁵⁹; Gainera, gogoan izan behar dugu XVI. mendean oriotarrek beste portuetako arrantzaleek erabilitako sareengatik egindako keak.

* Itsasadarretik eta nasekin harrapaketa

Orioko Kontzejuak izokin nasak eta itsasadarreko arrantza errentan jartzen jarraitu zuen. 1607. urtean, Kontzejuak idatzitako Ordenantzetan aipatzen da oriotarrek gauze egiten zutela arrantza gero kanpora saltzeko, eta horri aurre egiteko Errejimentuari baimena eskatu behar ziotela sareak botatzeko, eta gainera, Kontzejuak ezarritako prezioan saldu behar zutela harrapatutakoa²⁶⁰.

Bestalde, 1621. urtean itsasadarren inguruko auzia Orioren aldekoa izan zenez, Kontzejuak, bertako arrantzarekin, beste diru iturria aprobetxatu nahi izan zuen garai gogor haietan.

* Baxurako arrantzari buruzko arauak: Kofradia

Kofradiak arautzen zuen arrantzaleek harrapatutakoa, baina batez ere sardina. Horretarako Kofradiak bi *maiordomo* (edo diru arduradunak) izendatu zituen, arrainaren salmenta, prezioak, kalitatea... kontrolatzeko²⁶¹. Agiri batzuetan aipatzen denez, XVI. mende bukaeratik aurrera sardina saskitan prestatuta eta gazituta saldu behar zuten. Horregatik, XVII. mendean arrantzaleak saskiaz hornitu ziren sardinak gazitzeko, Nafarroara eramateko, baleen koipea gordetzeko eta legatzentzako²⁶².

* Arrainaren prezioa

Horrezaz gain, 1613 eta 1574. urteko baxurako arrantzaren Arantzel zerrendak konparatuz gero, ez da aldaketarik somatzen arrainen prezioan. Beraz, arrantzak ez zuela aurrerapen handirik izan suposa dezakegu.

Garai honetako baxurako arrantzaren ezagurri nabarmenenak honakoak dira: harrapaketen jaitsiera eta, ontzi eta arrantzarako jende falta²⁶³.

²⁵⁸URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...*, *Op. cit.* 48. orr.

²⁵⁹FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen...* *Op. cit.* 68. orr.

²⁶⁰Hain zuzen ere, Udal Ordenantzetakoa 36. atalak honela dio: "(...) hordenamos y mandamos que ninguna persona sea hossado de azer ningunas sarradas de noche ni de día sin que primero dé noticia d'ello a alguno del dicho alcalde e regidores, so pena de perdimiento de la tal red que así echaren e del pescado que así tomaren e pescaren, y lo que así tomaren e pescaren lo ayan de bender y bendan a los que quisieren comprar, es a sauer, del albur e corrocones a cinco maravedís la libra, y la lubina a ocho maravedís, y çavaros a ocho, y la libra de lengoado a diez y seis maravedís, o al presçio o presçios que el alcalde e regidores pusieren a los dichos pescados, so pena de dozientos maravedís (...) y lo mismo se benda el albur y lubinas que se mataren con treynas y naça e salmonera so la dicha pena, para que se provean los vezinos y moradores de la dicha villa (...) e quando no hubiere quien los compre teniéndolas en tres horas para los bender, los lleven afuera parte e se aprovechen de la dicha pesca". Ikusi VIII. ERANSKINA (1607).

²⁶¹GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 3/1.824 (1581-VII-9): Kofradiak izendatu dituen maiordomoek, astean zehar arrantzan hartutakoaren kontua hartuko dute, eta igandeetan arrantzale bakoitzari bere jardueraren arabera dagokion ordainduko diote.

²⁶²1600 eta 1621. urte arteko Kofradia eta merkatarien arteko aipamenak ditugu. Saskiek zenbat balio zuten ere badakigu; halaber, sardina gazitzeko saskiak 10 marabedi inguru balio zuen; sardina garbitzekoak, berriz, erreal bat; legatzarenak 20 marabedi; bale koipearenak 20 marabedi; eta Nafarroara eramateko saski bakoitzak erreal eta erdi (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.826 [1600-VII-30]; [1606-VII-2]; 3/1.827, [1610-IV-28]; Gabriel de Arbe, 3/1.829 [1621-VI-28], etab...).

²⁶³Garai honetako, demografia aldagaiei dagokionez, jaitsiera nabarmena izan zen.

1.4. ONTZIGINTZA: PRODUKZIOAREN JAITSIALDIA ETA PORTUA KONPONTZEKO AHALEGINAK

Ontzigintzan ere krisialdia nabaritu zen. Batetik, burdingintzaren jaitsiera eta, bestetik, ordurarteko egurraren gehiegizko erabileraren ondorioz basoak desagertzeko zorian zeuden²⁶⁴. Bestalde, kontutan izan behar dugu, 1580. hamarkadatik aurrera, Gaztelako Koroak euskal kostaldeko ontziolerei gerraontziak eraikitzeke eskatzen ziela²⁶⁵. Aipatutako arrazoiengatik "merkataritzaren gainbeherak eta Koroaren etengabeko gerrek, euskal ontzioletan izugarritzko eragina izan zuten, eta are gehiago Oriokoetan. 1595 eta 1659 urte bitartean, ontziolak oso lan gutxi izan zuten, ez baitzuten ontzirik eskatzen ez armadoreek ezta Koroak ere"²⁶⁶.

a) Ontziak egiteko kontratuak gutxitu egin ziren

Beraz, Orion ontziak egiteko kontratuak gutxitu egin ziren. Kontratu baten berri badugu, 1581. urtean, Francisco de Elorriaga oriotarra eta Martin de Aialde usurbildarra ados jarri ziren ontzi bat egiteko, "en el estilero d'esta dicha villa". Ontzian 500 tona sartzen ziren. Elorriagak 68 urre koroa ordaindu zizkion²⁶⁷. Bestalde, 1593. urtean, Elorriagak berak "almiranta" izeneko ontzia eraiki zuen, 700 tonakoa²⁶⁸.

b) Portua konpontzeko ahaleginak eta laguntzak

Garai honetan, Orion ontzigintza ahuldu bazen ere, portuak interes handia zuen Koroarentzat. Baina Orioko barraren pasabidea ez zen oso ona. Nahiz eta portua hobetzeko lanak beste atal batean aztertu, ontzigintzarekin ere lotura zuzena zuenez, aipamen batzuk egingo ditugu.

XVI. mendetik aurrera barra konpontzeko laguntza eskatu zuten oriotarrek, bai Probintziari eta bai Erregeari ere. Eskaera asko egin baziren ere, 1578. urtean egindako batek izan zuen erantzuna; hain zuzen ere, 1609. urtean, Gabriel de Hoak, Felipe III.aren Idazkariak, dirulaguntza ematea lortu zuen. Hauxe da, 1578. urtean Kontzejuak erregeari egindako eskaera:

*"Como es público e notorio esta villa es puerto de mar y en la entrada tiene una barra adonde con dificultad entran las naos y pinaças y zabras, y entrando dentro de la canal pueden estar más de mill navios en la canal adentro y qualquier armada de navíos e fustas que Su Magestad mandóse juntar en la mar de poniente (...) "*²⁶⁹.

Horretaz gain, Kontzejuak barra konpontzeko 14.000 dukat eskatu zituen. Gainera, 1607. urteko Ordenantza batek honako hau zion: "Esta villa es puerto donde se fabrican muchos galeones e navíos para el Rey nuestro señor"²⁷⁰. Bestalde, 1612. urteko arbitrio izeneko zergen kontzesioan erregeak zera azaldu zuen:

"(...) si se reparase la entrada del dicho puerto, que respeto de una barra que tenía hera difícil y muy peligrosa (...) consta de qu'el dicho puerto es muy ynportante para el abrigo de los nabíos que de ordinario nabegan por esa costa, y que reparándole no sólo sería de

²⁶⁴BILBAO, L. M.: "La introducción y expansión del maíz y su incidencia en la economía del País Vasco", *Historia General del País Vasco*. L.G.E.V., Haranburu, T.6, 1981, 45-66 orr.

²⁶⁵"Las ordenanzas reales de 1607, 1613 y 1618 impusieron cambios notables en el diseño naval. Las ordenanzas de 1607 fueron aceptadas lentamente por los carpinteros vascos, y fue solamente con la publicación y sanción de las siguientes ordenanzas, junto con el hecho de que los barcos no construidos según las nuevas líneas tenían prohibido navegar en la *Carrera de las Indias*, cómo las nuevas medidas entraron en vigor en la construcción de barcos vascos" (BARKHAM, *Op. cit.* 113, 115. orr.).

²⁶⁶ODRIOZOLA, L.: "Oria ibaiko ontzigintzaren bilakaera historikoa". *Op. cit.* 31. orr.

²⁶⁷GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 3/1.824. F.16 (1581-III-23). R. ENPARANek aipatzen du dokumentua ("Orioko San Nikolas Errege Hiribildua. Sarrera historikoa", *Oria ibaiko ontziak*, *Op. cit.* 20. orr.).

²⁶⁸ODRIOZOLA, L. *Op. cit.* 31. orr.

²⁶⁹GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.804 (1578-VIII-15). R. ENPARANek dokumentua aipatzen du.

²⁷⁰Ikusi VIII. ERANSKINA (Orioko Udal Ordenantzak, 1607).

*provecho para ésto, pero también por la comodidad d'él se fabricarían muchos más nabíos, de que resultaría muy gran servicio nuestro y vtilidad de nuestros basallos (...)*²⁷¹.

Orioko Kontzejuak 1616. urtean arbitrioen kontzesio horri esker, eta 1613. urteko arantzelari gehituz, Oria ibaian ontzi eraikiberrietan arbitrioak edo zergak ezar zatekeen²⁷².

Orioko ontzigintza eta portuaren hobetze lanak gerrarekin erabat lotuta zegoen. Izan ere, urte batzutan ontzigile oriotarrei honela deitzen zieten: "maestres carpinteros fabricantes de galeones que sirven al rey"²⁷³. Beraz, XVII eta XVIII. mendeetan, krisi garaian, Orioko ontzigintza Erregearen gerraontziaren menpe egon zen²⁷⁴.

1.5. NEKAZARITZA: ALDAKETA EKONOMIKOEN LEHENENGO AZTARNAK

Aurreko garai ekonomikoan esan dugun bezala, euskaldunen itsasorako joerak zerikusi handia zuen nekazaritza ezarekin. Merkataritzak eta arrantzak abantaila fiskalak zituztenez²⁷⁵, nekazaritzaren hutsunea betetzen laguntzen zuten, eta gainera, garia kanpotik ekartzen zen. Baina, merkataritzaren oztopoen ondorioz, nekez ekarri zitekeen garia kanpotik²⁷⁶.

a) Lurren eta basoen babesa: Udal Ordenantzak

Aldi honetako ezaugarri nagusia zera da: itsasoarekin zerikusia zuen jarduerak behera egin zutela eta, oriotarrak irtenbideak bilatzen saiatu zirela. Batetik, arrantza eta ontzigintzari eusten ahalegindu ziren; eta bestetik, nekazaritza bultzatzen saiatu. Kontzejuaren Ordenantzak ikusita, garbi dago, nekazaritza hasi berriari laguntza eta babesa emateko nahia. Hain zuzen ere, sagarrondo, artotxo eta lekaleak landuz. Orioko Kontzejua nekazaritza, abereetatik eta beste kalteetatik babesten saiatu zen²⁷⁷.

Bestalde, Ordenantzetako hainbat kapituluetan basoak zaintzeko nahia somatzen da²⁷⁸, burdinola eta ontziolentzat beharrezkoak baitziren. Gipuzkoako Probintziak ere, basoak zaintzen saiatu ziren²⁷⁹.

²⁷¹"Concesión de arbitrios hecha por el Gobierno para la construcción de un muelle a la entrada de Orio (1612-VI-12)", *Euskalerría*, XXIV, 1891, 279-280. orr.

²⁷²Dokumentu honetan ez da sisa moduan ezarritako kopururik azaltzen (OUA, C-V D.3/4 [1616-X-10]).

²⁷³GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 (1621-VII-6).

²⁷⁴1625. urteko dokumentu batean aipatzen da oriotar bat, maese Domingo de Arrazain Ribadeora, Erret ontziolara joango dela. Hurrengo mendeetan oso normala izan zen (GPAH, Gabriel de Arbe, 3/1.832 [1625-IV-29]).

²⁷⁵Ikusi *Recopilación de Leyes y Ordenanzas de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa (1583)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1983. Título XVIII: De la exención de derechos en la Provincia por mar y por tierra. Título XIX: Del trato, comercio y navegación. 111-124. orr.

²⁷⁶1588. urtean, Debako Batzar Nagusietako bileran, Oriora eta, orokorrean, Gipuzkoara kanpoko garia ekartzen dela baieztatu zen (DÍEZ DE SALAZAR, L. M.; AYERBE IRIBAR, M. R.: *Juntas y Diputaciones. Op. cit.* (1588-XI-14. Deba). T. X. 328 orr.).

²⁷⁷Ikusi honako Ordenantzen kapituluak: 21. Kapituluak: "... cualquiera persona o personas que hubieren de comprar y bender trigo, abena, cevada, mixo y otra cualquiera cevera y sal..."; 22. Kapituluak: "...bender o comprar mançana..."; 25. Kapituluak: "Prohibido agoar la sidra"; 30-34. Kapituluak: "...se guarden los ganados para que no entren en las heredades ajenas.."; 43. Kapituluak: "Prohibición de la trayda de las sidras". Bertako sagardoak eta ardoak lehentasuna zuten. Orioko uzta saldu ondoren, kanpoko sartzeko baimena zegoen. Beraz, bertako produkzioa bultzatu nahia ikusten da; 51. Kapituluak: "Que quando algún vezino hedificare cassa, se le dé tierra de 200 plantíos de mançanos". Ikusi VIII. ERANSINA (1607. urteko Ordenantzak).

²⁷⁸Ikusi Ordenantzen kapitulu hauek: 27. Kapituluak: "... que ninguno pueda barear en los montes del conçejo"; 28. Kapituluak: "... de las yegoas, que ninguna persona pueda traer yegoas en juridición de esta dicha villa (...) ni traigan ninguno de los dichos ganados en el dicho término ni corten ningún roble ni rama por el tronco, ni rama ni castaños ni nuzedos frutíferos y no frutíferos...". Ikusi VIII. ERANSINA (1607. urteko Ordenantzak).

²⁷⁹*Recopilación de Leyes y Ordenanzas de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*. (1583) Título XXXVIII: Del plantar y cortar árboles y montes. Título XXXIX: De los incendios. Título XL: De los pastos y calumnias de los ganados. 167-174. orr.

b) Nekazaritzako produkzioaren aztarnak: artoa

1613. urteko Arantzelean nekazal produktuen sarrera eta irteeren mugimendua agertzen da, besteak beste, garia, lekaleak, artotxoa, aleak eta gatza. —1574. urtekoarekin konporatuz, produkzioa gehitu egin zela ikusi daiteke²⁸⁰—.

L.M. BILBAOk dioen bezala, XVII. mende hasieran Ameriketatik ekarritako artoa lantzen hasi zen; 1610 eta 20 urte bitartean artoa kostaldeko herrietan erabat finkatu zen²⁸¹.

2. NEKAZARITZA: KRISIALDIAREN IRTENBIDEA (1625-1760)

Esan dugu, krisiaren ondorioak itsasoarekin zerikusia zuten jarduerak jasan zutela. Baina, XVII. mendearen 20. hamarkadatik aurrera, nekazaritzari esker, ekonomia berpizten hasi zen eta, XVIII. mende bukaerarte, oriotarren ekonomi iturri garrantzitsuenetakoa izan zen.

Bestalde, alturako arrantzarekin jarraitzeko azken ahaleginak egin ziren; ontzigintzak aurrera egin zuen, baina, produkzio gehiena kanpora bidaltzen zen eta langile trebeenak ere kanpora joan ziren; merkataritzak, berriz, nola edo hala, iraun zuen.

2.1. NEKAZARITZAREN BILAKAERA

XVI eta XVII. mendeetako eskasia garaiaren ondorioz, itsaso jarduerekin jarraitu arren nekazaritzari ekin zioten oriotarrek beste irtenbide baten bila.

a) Artoaren garrantzia

Nekazaritzarako joera Gipuzkoan eta Bizkaian eman zen gehienbat, nahiz eta krisialdia iritsi arte oso garrantzi gutxi izan.

Nekazaritzak aurrera egiteko ezinbestekoa izan zen Ameriketatik ekarritako artoa. Lehen aipamenak 1575. urtekoak dira, eta 1620-25 urte bitartean erabat finkatuta zegoen. ISASTIk dioen bezala, kostaldeko lurretan sartu eta hazi zen aurreneko artoa²⁸². Izan ere, artoa landatzeko lekurik aproposenak bailara sakonak eta itsas-ibarrak dira. Artoak, bestalde, uda garaiko landarea denez, beste landare batzuk baztertu zituen, esate baterako artotxoa, oloa eta garagarra —denak uda garaikoak—. Zekalea ere, nahiz negu parteko landarea izan, alde batera geratu zen. Lur onenak artoa landatzeko gordetzen ziren, gainontzeko landareak baino ugariagoa zelako, eta horrela, piskanaka-piskanaka, beste landareak desagertu egin ziren²⁸³. Bestalde, lugorri gabe, artoa eta garia batera lantzen zirenez, produkzioa eta landaketa izugarri haunditu zen²⁸⁴.

Orion artoa aipatzen den lehen agiria 1635. urtekoa da, salmenta baten gorabeherakoak hain zuzen, baina seguruenik lehendik ere ezagutzen zuten²⁸⁵.

²⁸⁰"A cada fanega de trigo, avá, çebada, çenteno, mixo, abena, que entrare o saliere por la dicha barra e otra qualquiera çevera o legumbre, quatro maravedís. 4; A cada barrica de sidra que entrare o saliere por la dicha barra, ocho maravedís, 8; A cada barrica de vino de qualquier género que sea que entrare o saliere, vn real. 34 maravedís; Por cada fanega de sal que entrare por la dicha barra para bender en la dicha villa o fuera d'ella, medio real. 17 maravedís" (Ikusi X. ERANSKINA).

²⁸¹BILBAO, L.M.: "La introducción y expansión del maíz..." *Op. cit.*

²⁸²MARTÍNEZ DE ISASTI, L.: *Compendio historial...* *Op. cit.* 152 orr.


²⁸³BILBAO, L.M.: "La introducción y expansión del maíz...", *Op. cit.* 52 orr.

²⁸⁴"Así, al desaparecer el barbecho, el incremento de la producción habría de ser proporcionalmente superior al aumento de la extensión de las áreas de cultivo. Todo lo cual se traducía (...) en una clara intensificación global de la agricultura en esta área marítima" (BILBAO, L. M.; FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: "La evolución del producto agrícola bruto en Vascongadas, 1530-1850", *Historia General del País Vasco*, T. 6., L.G.E.V. Bilbao. 20. orr.).

²⁸⁵G.A.O., CO-L.CI., 915 (1635), G.P.A.H. Juan de Etxaniz. 3/1.847 (1635).

b) Lanberritze prozesua: erriberako lurrak

Orion artoa eta garia landatzeko lanberritzea hasi zen, eta baita erriberako lurren lehorketa. Lur gehienak Kontzejuarenak ziren²⁸⁶, eta berak banatzen zituen herritarren artean. Nekazaritza Kontzejuaren kontrolpean zegoen, lanberritzeko baimenak ematen baitzituen²⁸⁷. Hori guztia garaiko agirietan irakurri dugu, eta horien arabera nekazaritzak garrantzi handia izan zuela baieztatu dezakegu. XVIII. mendera arte lurrak alokatzearena erabat zabaldua zegoen, baina aurkitu dugun lehen aztarna 1675. urtekoa da²⁸⁸.



Orioko erriberak (*Photomuseum Artxiboa*).

Artoa landatuz eta txandakako laborantza eginaz, nekazaritzak ekoizpen izugarria lortu zuten. Era berean, lurrak ez agortzeko ongarririk erabiltzen zituzten; Orion, XVII. mendean eta, batez ere XVIII. mendean, karea, ote zuria eta harea erabiltzen ziren²⁸⁹.

²⁸⁶Kontzejuaren ondasunak, orokorrean, bi motakoak dira: herri-lurrak eta udal ondasunak edo propioak. Lehenengoetan larruneak, basoak eta lurrak sartzen dira, oriotar guztien gozamenerako zirenak. Propioak, berriz, Kontzejuak zaintzen zituen eta errentan ematen zituen, haziendarako irabaziak lortzeko iturriak baitziren. XVI eta XIX. mende artean desberdinketa hau ez zen hain zorrotza izan, izan ere, herri-lurrak eta basoen aprobetxamendua astiro-astiro Kontzejuaren kontrolpean bukatu baitzuten (CRUZ MUNDET, J. R.: "La Hacienda municipal de Rentería en el Antiguo Régimen", *Congreso de Historia de Euskal Herria: Economía, Sociedad y Cultura durante el Antiguo Régimen*. Bilbao, 1988. T.III, 147-159 orr.).

²⁸⁷Zentzu honetan Gipuzkoako Probintziak arautzen zuten. Ikusi 1583. urteko *Recopilación de Leyes y Ordenanzas de Gipuzkoa*: "Título XXXVIII. Del plantar y cortar árboles y de las rozaduras. Capítulo V. Que no se hagan rozaduras si no es en la forma que se expresa en esta Ley, y del cuidado y obligación que han de tener los Concejos y los que abren tierras concejiles para rozar y sembrar" (*Op. cit.* 464-466. orr.).

²⁸⁸1675. urteko agirian, Martín Arano de Zelaia, kontzejuaren Arano barrutiko erein-lurren maizterra zela agertzen da (OUA, Libro de Cuentas, C-226). Ez dago data hau baino lehenagoko aztarnarik, hala ere, erein-lurrak, 1625 eta 30 urteetan alokatzen zirela suposa dezakegu, hain zuzen, Gipuzkoan artoa sartu zen garaian.

²⁸⁹Orioko Kontzejuak karobiak (labe bereziak) zituen eta herritarrek karea labeetan sartu eta, gero, ongarririk bezala erabiltzen zuten. (OUA, C-222-2; 1735-XII-25). Horretaz gain, Orion otadi ugari zegoen, Saroe izenekoa sasiarte adibidez, beraz, ongarririk ere erabilia izan zen (OUA, C-222-2 [1736-XII-13]). Bestalde, J. URRUTIKOETXEAK Orion harea ongarririk modura erabili izanaren datua ematen du (*En una mesa y compañía: Caserío y familia campesina en la crisis de la "sociedad tradicional"*. Irun, 1766-1845. Mundaiz, Donostia, 1992. 321. orr.).

"A lo largo de un ciclo de cultivos, que abarcaba dos años y tres cosechas, la tierra era abonada con cada nuevo producto; tres meses después de la siembra del trigo, a mediados de agosto, antes de la sementera del nabo, y después de la del maíz"²⁹⁰.

Orokorrean, Orioko nekazaritzaren ezaugarri nagusiak hauek ziren: batetik, herritarrek Kontzejuari alokatzen zizkioten lurak lanberritzeko eta Arano, San Juan, San Martin, Barazaberrieta, Atalaia, Antilla, Zalmaristi, Aizleuntzikia, Arziboton... kokatuta zeuden²⁹¹.— Alokatzeko sistemak 1760. urte inguru arte iraun zuen—. Bestetik, Kontzejuak berak, nekazaritza bultzatzeko asmotan hainbat etxalde eta errota eraiki zituen, esate baterako, 1627. urtean Bunioeta etxaldea; 1670. urtean Itxaspekoa; eta 1705. urtean Zalmaristiko Maria-errota. Horrez gain, XVI. mendetik aurrera, behintzat, Kontzejuak beste bi errota zituen (XVIII. mendean, Txanka izenez ezagutzen ditugunak) eta Lusarbe etxaldeak²⁹². Hala ere, baziren baserri eta lur jabeak²⁹³.

Ongarriei dagokionez, Orion baziren kare labeak: Saroe, Arano, Rezabal, eta, Kontzejuaren etxalde bakoitzak bi. Labe horien erabilera librea zen, baina, labea pizteko behar zen egurra Kontzejuak saltzen zuen²⁹⁴.

Orion artoa eta gariak gain barazkiak eta linoa landatzen zen²⁹⁵. Hala ere oso barazki gutxi landatzen zen, hain zuzen ere: "una poca de hortaliza que cada uno haze para sí y su familia"²⁹⁶.

c) Basoak babesteko neurriak

Orain arte aipatutako lanberritzeak, landugabeko lurretan egin ezazik, baso eta zuhaitzen kalterako ere izan ziren —besteak beste, gaztainondo eta ariztiak—²⁹⁷. Basoak desagertzen ari ziren eta konponbidea emateko XVIII. mendean zenbait arau legeztatu ziren: zuhaitzak zeuden lekuetan ezin zen lanberritu; lanberritutako anega bakoitzeko —aleetarako edukiera-neurria— sei zuhaitz landatu behar ziren²⁹⁸.

1738an eta 1749an basoa babestu eta butzaltzeko arautegiak egin ziren, bai probintzirako eta bai erreinurako²⁹⁹. Orion ere, 1749. urtetik aurrera basoak babesteko neurriak hartu zituzten eta 1865. urtera arte izan zuen Kontzejuak ardura hori³⁰⁰.

²⁹⁰FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco (1100-1850)*. Ed. S. XXI, Madrid, 1974, 216. orr. CARO BAROJAK, bestalde, "sistema de rotación de cultivos" prozedura azaltzen du. Laburbilduz, horrela zen: abenduan, alea (garia) ereiten zen; uztailean, gal-ebatea; abuztuan, arbi ereitea; otsailean, arbia biltzen zen; apirilean, arto ereitea; azaroan, artoa biltzen zen, eta beste bi-urteko aldi berria hasten zen (*Los Vascos*. Istmo. Madrid, 1986. 139-140 orr.).

²⁹¹1704-1758. urte bitarteko Udak-aktetan, lanberri eta akura ugari izan zela aipatzen da. Horretaz gain, 1750. urtean, Orioko Kontzejuaren esanetan "la villa no tiene nuevas rozaduras de tierras para sembrado ni por ella ni por persona particular" (OUA, Libro de Plantaciones [1738-1865] C-225, F. 30 [1750-VI-12]).

²⁹²Lusarbe, Bunioeta, Itxaspe, Txanka eta Zalmaristiko errota, Udal Haziendaz hitzegiterakoan beraien ezaugarrietan sakonduko dugu.

²⁹³Honi buruz, 1705. urteko dokumentu batean Kontzejuaren kargu guztien hondasunen zerrenda bat agertzen da. Bertan, partikularren etxe edo etxaldeak, sagarondo eta lurren aipamenak agertzen dira. Ikusi GPAH, Agustín de Aranza, 3/1.879, F. 65-69 (1705-V-17).

²⁹⁴1737ko abenduaren 29an, adibidez, Koskollo mendian egurra moztu ondoren, sukalde edo karobietako egurra beharrezkoa zuten herritarrei Kontzejuak saldu egiten zien: karga bakoitzak 3 erreale balio zuen (OUA, C-222-2).

²⁹⁵"Que en las tierras propias y concejiles se siembre sólo hortaliza, para que aya abundancia de ortaliza, so pena de la pérdida de las tierras concejiles". Honela Kontzejuak barazkiak landatzea nahi izan zuen (OUA, C-219 [1705-VII-26]). Linoari dagokionez, 1758ko maiatzaren 28an, Kontzejuak honako hau erabaki zuen: "el lino que se halla en las huertas concejiles hasta que se saquen no se les haga novedad y sacando se les notifique a todos los que traen el dicho lino para que no hagan en adelante más que ortaliza" (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-221-2 [1756-1766]).

²⁹⁶OUA, C-VI D-1 (1785).

²⁹⁷BILBAO, L. M.; FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: "La evolución del producto agrícola..." *Op. cit.* 25. orr.

²⁹⁸ARAMBURU, L.: *Nueva recopilación de los fueros, privilegios, buenos usos y costumbres, leyes y órdenes de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*. 1696. Donostia, Imprenta de la Provincia. 1919. Ikusi "Título XXXVIII, Cap.V.". 464-466. orr.

²⁹⁹Bi legeak 1696. urteko Rekopilazioan azaltzen dira eta herri bakoitzaren betebeharrak, alorrak, zuhaitz motak... zein izango diren zehazten du. Gainera, basoak zaintzeko arazoia argi azaltzen da, hau da, Erret ontzigitzarako oso garrantzitsua zelako (OUA, C-225. Reglamento 1738-IX-26. Donostia. OUA, C-225 Cédula real. 1749-VI-28). Aranjuez).

³⁰⁰Horren lekukorik argigarriena OUAan gordetzen den "Libro de Plantaciones" izeneko dokumentazioa dugu.

Nekazaritzari esker oriotarrek krisialdiari buelta eman zioten: jaitsiera demografikoari —burdingintza eta merkataritzaren krisialdiak eragindakoa— aurre egin zioten; eta bestetik, artoari esker, kanpoko gariaren hornikuntzaren zailtasunei aurre egin zieten³⁰¹.

Beraz, garai honetako ezaugarria itsas girotik nekazaritzarako aldaketa da. Ikertzaile batzuren ustetan Gipuzkoan eta Bizkaian gertatutakoa "revolución en la miseria" izan zen. Kontuak kontu, lurralde horien bizibidea nekazaritza izan zen³⁰². Orion ere gauza bera gertatu zen XVIII. mende erdira arte. Hala ere, lortutako datuen arabera³⁰³, nekazal ekoizpenak, itsasotik ateratakoekin konparatuta —XVI. mendekoak— ez ziren oso handiak izan, baina bai bizimodua aurrera ateratzeko adinakoa. Datuak alde batera utzita, oso interesgarria iruditu zaigu, betidanik itsasoari lotuta egondako herriak, nekazaritzara moldatzeko egin zuen ahalegina. Hala ere, jarraian ikusiko dugun bezala, itsasoarekin zituen harremanak ez ziren guztiz eten.

2.2. ARRANTZAREN SUSPERRALDIA: GALIZIA ETA ASTURIAS

Esan dugun bezala, Ternuako bale harrapaketak gutxitu zirenean, Asturias eta Galizia aldera jo zuten oriotarrek.

Nekazaritza jarduera nagusia zen garaian ere, bale arrantzara joaten ziren, batez ere, Asturias eta Galiazara, baita Ternuara noizbehinka ere, garai hartan Norvegiarako joera hasi baitzen. Seguruenik, bi jarduerak — nekazaritza eta itsasoa— batera egiteko aukera ikusi zuten, horrela itsasoarekin zuten lotura mantenduz.

a) Asturias eta Galiziarako bidaiak

Asturias eta Galiziarako bidaiak XVI. mendean hasi ziren eta XVIII. mende erdirarte iraun zuten. Portu berberetan lehorreratzten ziren, besteak beste, Llanes, Lastres, Bares, Malpica... Azken garaian aurkitu ditugun toponimo berriak "Langosteras", "Tapia" eta "Viabelez"; lehenengoa Galiziar dagokio³⁰⁴, eta beste biak, Asturiasen daude³⁰⁵. Beste herrietakoekin batera antolatzen zituzten bidaiak, batez ere, bizkaitarrekin³⁰⁶.

Kontsultatu ditugun agirien arabera, pleit-ordainketak, aurreko garaikoekin konparatuta, ez ziren asko aldatu, 800 eta 1.100 erreal artekoa zen. Igoera ez zen oso garrantzitsua, baina diferentzia salmentekin orekatzen zuten. Adibidez, barrika bale koipe garestiagoa zen, XVI. mendean 55-99 erreal balio zuen eta, XVIII.enean, berriz, 220 erreal³⁰⁷.

³⁰¹URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...* Op. cit. 51. orr.

³⁰²"Durante el siglo XVII el maíz pudo tener un carácter más afín al de *revolución en la miseria*, al paliar las defeciones de los sectores económicos antes más dinámicos y decisivos. Pero el rápido progreso del maíz relleno en definitiva un vacío substancial en las actividades económicas" (BILBAO, L.M.: "La introducción del maíz..." Op. cit. 62. orr.).

³⁰³Agiri askotan azaltzen da: "hay mucha escasez de granos" (GPAH, Agustín de Aranza, 3/1.880, f. 15 [1710-III-9]). 1709-1710 urteetan Gipuzkoako Diputazioak garia edo artoa probintziatik kanpo ateratzea debekatu zuen, beraz, bi irakurketa egin daitezke: herriko garia babesteko zela; edota, oso gari gutxi zegoela (OUA, C-219). Gariaren urritasunari buruz hitzegiten duten aipamenak 1705, 1710, 1736, 1751. urtekoak dira. Azalpen xume hauek nekazaritzari buruzko gaiaren egoera kokatzeko dira, jarraipena eta zehaztapenak Haziendari dagokion atalean emango baititugu.

³⁰⁴GPAH, Gabriel de Arbe, 3/1.835, f. 81 (1628-X-20).

³⁰⁵GPAH, Domingo de Gainza, 3/1.851, F.240 (1650-IX-30).

³⁰⁶GPAH, Gabriel de Arbe, 3/1837, F.89 (1630-IX-2); Domingo Alonso de Mendia, oriotarra, eta Martín de Arizti, plazentziarraren arteko Galiziarako akordioa. GPAH, Francisco de Gaztañaga, 3/1.868, f.99 (1670-IX-8); Miguel de Alzega, kapitain oriotarrak, bizkaitar baten ontzia alokatzen du Bares-era joateko.

³⁰⁷GPAH, Juan de Étxaniz, 3/1.847, F.22 (1635-V-11); Domingo de Yerobik 20 barrika bale koipe 400 dukatetan saldu zuen.

XVI. mendean baleak urtzeko Ternuan hasi zen ohiturarekin jarraitzen zuten Asturiasen XVIII. mendean³⁰⁸.

Oriotarrak bale arrantzan Asturias eta Galizian aritu zirela dugun azken datua 1720. hamarkadakoa da. Hala ere, beste lekuetara joaten jarraitu zuten.

b) Ternuatik Norvegiara bale arrantzara

Egia esan Ternuara bale arrantzara ez ziren askotan joaten, noizbehinka baizik, eta, Norvegiak hartu zion txanda. Bidai horien berririk ez dugu lortu, aipamena besterik ez.

Aurreko atalean Ternuako bale arrantzaren jaitsiera eta arrazoiak azaldu ditugu. Baina, Utrecht-eko ituna —1714. urtean— ere kontutan hartu behar da. Ingalaterra izan zen gehien irabazi zuena eta Ternuako itsas basea jaso zuen³⁰⁹, orduan galdu zuten euskaldunek eta, baita oriotarrek ere, Ternuako bale arrantzaren nagusitasuna. Gainera, oriotarrak Ternuan izandako azken aipamena 1714. urtekoa da³¹⁰.

Norvegiararako bidaiak XVIII. mendean hasi ziren eta 40 eta 60. hamarkadara arte iraun zuten. Litekeena da Ternuaren txanda Norvegiak hartzea, eta baita Asturias eta Galiziarena ere. Oso gauza bitxia iruditu zaigu, Norvegiara joandako oriotarren inguruko aipamen gehienak alkate, errejidore, sindiko eta diru arduradunarenak izatea, hau da, denak Kontzejuko ofizialenak. Hori guztia aurrerago azalduko dugu, Udal Gobernuaren gaineko atalean³¹¹.

c) Itsas bazterreko bale arrantza

Aipatu dugu, 1615. urtean Kofradiak Donostiako arrantzaleekin zuen akordioa puskatu egin zela. Baina 1700. urtean bi herrietako Kofradiak bale arrantzari buruzko beste akordioa sinatu zuten. Hauxe erabaki zuten Donostia eta Orioko Kofradiak:

"(...) de forma que los naturales de ambos los dichos puertos, o de cada uno de ellos, tengan libre facultad de poder erir, aferrar y matar en qualquiera parte que se hallaren, qualesquier ballena o ballenas, aunque sea a vista y seña del talaiero del otro puerto, y los d' éste no las puedan aferrar, eriendo primero los del otro puerto, con la pena de que aunque heriere y se matare sobre su arpón y armazón no tendrá parte (...)".

Orioko Kofradiako ordezkariak Areizaga Kapitaina eta Nicolas de Etxebeste ziren³¹².

³⁰⁸Oriotarrek baleen zatiak pertz haundietan urtzen zituzten koipea ateratzeko (GPAH, Francisco de Gaztañaga, 3/1.872 [1675-VII-19]). Tresna horiek Asturias eta Galiziako portuetan uzten zituzten, beste batetan erabili ahal izateko. Beraz, ez zen behin-behineko jarduera izan, nahiko iraunkorra baizik (GPAH, Agustín de Aranza, 3/1.882, f. 24 [1719-IV-24]).

³⁰⁹Noiz-behinka egin zituzten bidaiegatik, badirudi, oriotarrak lehen izan zuten nagusitasunari eusten ahalegindu zirela (CIRIQUIAIN, M.: *Los vascos en la pesca de la ballena. Op. cit.* 316. orr.).

³¹⁰1705-1713. urtean artean alkate oriotar batzuk Ternuara joan izanaren aztarnak ditugu. Ikusi: OUA, C-219.

³¹¹Norvegiara bale arrantzara joaten diren ofizial oriotarren aipamenak hauek dira (OUA, C-219, C-222-2):

1705. urtean, Martín de Illunbe, alkatea.
1712. urtean, Joseph de Arriola, errejidorea.
1719. urtean, Bartolome de Madariaga, alkatea.
1716. urtean, Joseph de Etxabe, errejidorea.
1718. urtean, Ignacio de Gaztañaga, errejidorea.
1721. urtean, Joseph de Segura, errejidorea.
1724. urtean, Ignacio de Gaztañaga, errejidorea.
1725. urtean, Nicolas de Hoa eta Joseph de Etxabe, alkateak, eta Joseph de Segura, errejidorea.
1727. urtean, Ignacio de Gaztañaga, alkatea, eta Nicolas de Hoa, sindikoa.
1728. urtean, Nicolas de Hoa eta Manuel de Jauregieta, errejidoreak.
1735-36. urteetan, Manuel de Jauregieta, maiordomoa.
1738. urtean, Manuel de Jauregieta, errejidorea.

³¹²Orioko kofradeek, beste batzuen artean, Don Antonio de Areizagari, Itsas eta Gerrarako Kapitanari, boterea eman zioten. Donostiako kofradeekin batera harrapatutako bale baten inguruan eztabaidatzeko, baleak 600 ezkutu balio zuen eta. Areizagak kofrade guztien artean banatzea proposatu zuen (GPAH, Agustín de Aranza, 3/1.878, f.49-52 [1700-III-25]).

Akordia oso garrantzitsua izan zen: batetik, altura eta itsasbazterreko bale arrantza arautu zuten. Bestetik, 1714. urtean Orioko Arrantzaleen Kofradiak bere Konstituzioak idatzi zituen, 1589 -1621. urte bitarteko Ordenantzak dokumentu bakar batean bilduz. 27 konstituzio horiek Kofradiaren elizkizunetaz eta ontzien atoi lanetaz arduratzeaz gain, kofrade zirenenei pribilegioak ematen zieten; jakina, nekazari eta beste herrietako arrantzaleen kaltetan. Hau da, balea banatzerakoan kofradeek beti lehentasuna zuten. Konstituzioek desberdinketa legez arautzean, joera zaharra baieztatu zutela pentsa dezakegu; edo agian, Kofradiak bere interesen alde egin zuten³¹³.

d) Baxurako arrantza: jurisdikzio auziak

Orioko itsasadarrean, bokalean eta nasetan egindako arrantza Kontzejuaren ardurapean zegoenez, bi hitz besterik ez ditugu esango.

Baxurako arrantzarekin zerikusia duten gertaera batzuk badira, aspaldiko itsasadar eta nasetako ekintzen jarraipena posible egin zutenak. Batetik, 1627tik 1701era jurisdikzio eztabaidak izan ziren. Don Antonio de Idiakezek, Arrazubiko maiorazkoak, Motondo eta "Don Pedro de Rena" izeneko tokien jurisdikzioa lortu nahi zuten eta Oriorekin auzia izan zuten; azkenean, Valladolideko Kantzelaritzak herriaren alde egin zuten³¹⁴. Bestalde, Orreaga Monasterioak eta bere ordezkoa zen Usurbilgo Kontzejuak, Izaoko ihitokia bereganatu nahi izan zuten, arrantzarako leku aproposa baitzen. Oriok, 1748. urtean, Izaoko jurisdikzioa lortu zuten, XVI. mendeaz geroztik bere kontrolpean egon zela frogatu baitzuten³¹⁵.

Begibistan da itsasadarreko jurisdikzioa lortzea oso garrantzitsua zela, baliabide ekonomiko garrantzitsua baitzen. Horren seinale, baita ere, Idiakez eta Orreaga Monasterioa bezalako erakundeak eztabaidan sartu izana da.

Horrezaz gain, oriotarrek Kontzejuaren ardurapean zegoen itsasadar eta nasekin egindako arrantzarekin jarraitu zuten³¹⁶.

2.3.- ONTZIGINTZAREN GARAPENA: ERRET ONTZIOLAREN GARRANTZIA

Garai honetan Orioko ontziola suspertzen hasi zen, batez ere Koroaren flotarako berriro ontziak egiten hasi zirenean³¹⁷. Zurgin eta ontzigile oriotar asko Pasaia, Santander eta Galiziako Erret ontzioletan lan egitera joan ziren, beraz, Erregeen eskaerak Orioko ontziolen garapena bultzatu zuten.

a) Ontzigintzaren produkzioa

Garai honetako kronolojiaren ardatzak L. ODRIOZOLAK aztertu ditu:

- XVII. mende bukaera bitartean Oria ibaiko ontzigintza sendotu egin zen, batez ere Usurbilgoa. ODRIOZOLAREN arabera, Orion sei ontzi besterik ez ziren egin, hala ere, Orioren gainean beste bi aipamen gehiago aurkitu ditugu³¹⁸.

³¹³Dena den, kofradeen aldeko bererizgarriek ez zuten Iruñako Elizbarrutiaren onarpena izan. Hala ere, aurkitu ditugun ondorengo aipamenean arabera, ez ziren pribilegioak deuseztatu (IEAH, Secr. Villanueva. C/1.731. N^o17 [1714-1716]).

³¹⁴Auzi honi buruzko gorabeherak ikusi: V.E.K.A. Masas. C/2.698/1. Leg. 638 (1692-1700). OUA L-3 (1627-1701).

³¹⁵Oriok Izaoko arrantzaren errenta-agiriak aurkeztu zituen. A.H.N. Kontseilu Ezabatuak. Gaztelako Patronatoa. Leg.16.066. Expt.2-2^o (1518-1748)

³¹⁶Errenten gorabeherataz Haziendari buruzko atalean arduratuko gara.

³¹⁷ODRIOZOLA, L: "Oria ibaiko ontzigintzaren bilakaera historikoa". *Op. cit.* 32. orr.

³¹⁸Hain zuzen ere, 1665. urtean, Blasío de Etxebestek, "maestro de las reales fábricas de Su Magestad", Orioko ontziolan galeoi bat egin zuten (GPAH, Francisco de Gaztañaga, 3/1.863, f. 57 [1665-VI-26]). ODRIOZOLAK lan hau aipatzen du. 34 orr. 1669 eta 1670. urteetan Asencio de Arbostainek bi galeoi eraiki zituen. 1688.ean, Agustin de Bidasorok ontzi txiki bat egin zuten. 1695ean Agustin de Bidasorok Orioko ontziolan ontzi bat egin zion plentziar bati: "Barco de una vela de gabia para transportar y conducir bena de hierro de trezientos quintales". Domingo de Bareñok, plentziarrak, 100 zilar ezkutu eta 6 zilar erreal eman zion (GPAH, Agustin de Aranza, 3/1.877, f.18 [1695-VI-23]). ODRIOZOLAK zurginak egindako beste bi ontzi

- XVIII. mende hasierako dinastia-aldaketa eta Ondorengotza-gerrak (1700-1713), ez zuen Orioko Erriberako ontziolen produkzioa eten eta "aurreko mendean baino ontzi gehiago egin zen. Horren arrazoia honakoa izan zen: 1706tik aurrera era askotako ontziak egiten hasi ziren, eta ez bakarrik Erregearen Armadarentzat, baita merkatari, arrantzale, armadore eta garraiolariarentzat ere"³¹⁹. 1708. urtean Tomas de Miranda ontzigileak eta orduko Kontzejuko errejidore zenak, 20 ukondoko kila patatxa —bi mastetako belaontzia— egin zuen. Ontzia egiteko kontzejuarenak ziren mendietako egurra behar zuen, "de curvas de zinquenta a sesenta escudos de los montes conzejiles"³²⁰. 1713. urtean, Kantauriko Ontziolen Superintendente Nagusia zen Antonio de Gaztañetak aginduta, Joseph de Iriberrik eta Jeronimo de Etxebestek Orioko ontziolan hiru ontzi egin zituzten³²¹.

-1715. urterarte Orioko produkzioak aurrera egin zuen. Adibidez, 1718. urtean Simon de Zelarain kapitainak, galeoi bat egiteko, "para las Reales Fábricas de Su Magestad", zumar bat mozteko baimena eskatu zion Kontzejuari³²². 20. hamarkadatik aurrera, 1748. urterarte, produkzioa berriro eten egin zuen. ODRIOZOLAK ematen dituen datuetaz gain, 1730 eta 1740an partikularrei egindako bi ontzien aipamenak lortu ditugu: 1730. urtekoa, Don Joseph de Iturriaga alkateak Baionako Don Leon Bretheoux-i San Francisco Javier izeneko nabioa Orioko ontziolan egin zionekoa; eta bigarrena, 1740an, Jose de Urreizmendik Juan de Areizagari egindako txaluparena, gerora Areizagak gaizki egina zegoela esan ziona³²³.

- 1748 eta 1755 urte bitartean produkzioak gora egin zuela dio ODRIOZOLAK, nahiz eta XVIII. mende hasiera adinakoa ez izan³²⁴. Juan de Arizmendi eta Juan de Lertxundik lantxoiak egin zituzten Erregearentzat; eta, Domingo Pablo de Aizpurua eta Francisco de Sagarzazuk, nao txikiak partikularrentzat³²⁵. Handik urte batzutara, 1758. urtean, Francisco de Azpillaga ontzigileak, iturri-zelaiari, Guruzeagaenea izeneko etxe inguruan, ontziak egiteko etxe bat egin zuen —ontziola modukoa—; beraz, hori ere produkzio oparoaren seinale³²⁶.

b) Oriotarren partaidetza Erret ontzioletan

Oriotarrak bertako ontzioletan aritzeaz gain, garai honetan kanpora ere joaten ziren lanera, hain zuzen ere Erret Ontzioletara. Krisialdiaren bukaeraldera hasi ziren kanpora joaten. Lehen aipamena 1625. urteko agirian aurkitu dugu, Domingo de Arrazain Ribadeo-ra (Galizia) "a las Reales Fábricas de Su Magestad" joan zenekoa³²⁷.

aipatzen ditu: 1695ean, ontzi txiki bat eta 1696.ean nabio bat. 1695an Tomas de Mirandak, txalupa egile maisuak, Miguel de Areizagari txalupa egin berria saldu zion 35 errealetan (GPAH, Agustin de Aranza, 3/1.877, f.33 [1695-X-22]). (ODRIOZOLA: *Op. cit.* 34. orr.).

³¹⁹ODRIOZOLA, L.: *Op. cit.* 35. orr.

³²⁰OUA, C-219 (1708-XI-1). ODRIOZOLAK patatxaren aipamena egiten du (*Op. cit.* 38. orr.).

³²¹ODRIOZOLA, L.: *Op. cit.* 36. orr.

³²²OUA, *Libro de Despachos y Testimonios*. (1703-1721) C-219 (1718-VI-27). Adibide horretaz gain, urte berean, Simon de Zelarain kapitaina eta ontzigileak hainbat zuhaitz mozteko Kontzejuaren baimena lortu zuen, erregearentzat ontziak egiteko. Bestalde, 1717. urtean bi ontzi eraiki ziren, Pedro Antonio de Lazarainek Príncipe San Luis izenekoa, eta, San Fernando ontzia (SEOANE, M. de: "Relación de algunas naves construidas en astilleros vascos"). Izan ere, SEOANE berak, garai honetan Orion lan egin zuen Jose de Arzueta ontzigilearen izena ematen du ("Relación de constructores naturales de la Provincia de Guipúzcoa").

³²³GPAH, Agustin de Aranza, 3, 1.884, f.9, (1730-III-15); GAO, CO-E.CI., 2.715 (1740).

³²⁴ODRIOZOLA, L.: *Op. cit.* 37. orr.

³²⁵Datu hauek kontzejuaren mendietan moztu ziren hainbat zuhaitzen erabilera aipatzerakoan agertu dira (OUA, C-225, F.51 [1755-3-4]).

³²⁶OUA, C-221-2 (1758-XII-28).

³²⁷GPAH, 3/1.832, F.14 (1625-IV-29).

Beraz, XVIII. mendean zehar, bertako ontzioletan lan handiegirik ez zenez, ontzigile oriotar asko Pasaia, Santander (Santoña eta Guarnizo) eta Galiziako (Esteiro, A Coruña) Erret ontzioletara joan ziren³²⁸.

³²⁸Ikusi IV. Taula.

IV. TAULA. ERRET ONTZIOLAN ORIOTARREN PARTAIDETZA

URTEA	ERRET ONTZIOLA	ONTZIGILEA	GOBERNU KARGUA
1625	RIBADEO	Domingo de Arrazain	-
1718	PASAIA	Domingo de Illunbe	Errejidorea
1719	SANTOÑA	Tomas de Miranda	-
1725	GUARNIZO	Matias de Iruetagoiena	-
1726	GUARNIZO	Juan Lorenzo de Etxebeste	Sindikoa
1728	GUARNIZO	Francisco de Embil	-
1730	GUARNIZO	Tomas de Miranda	-
1737	GUARNIZO	Juan de Lertxundi	Errejidorea
1745	PASAIA	Francisco de Sagarzazu	Errejidorea
1746	PASAIA	Francisco de Embil	Sindikoa
1747	PASAIA	Joseph Joaquin de Gaztañaga	Alkatea
1750	FERROL	Juan de Arizmendi	Soldaduen diru-zaina
1751	FERROL	Ontzigileak	-
1751	FERROL	Ontzigileak	-
1751	FERROL	Zurginak	-
1752	FERROL	Zurginak	-
1752	FERROL	Domingo de Lertxundi	Alkatea
1752	ESTEIRO	Domingo de Lertxundi	Alkatea

- Pasaia. 1718 eta 1747 urte bitartean joan ziren oriotarrak Pasaiko ontzioletara Erregearentzat ontziak egitera. Aipatzekoa da, joandako gehienak Kontzejuko ofizialak zirela: 1718. urtean Domingo de Illunbe, sindikoa; 1745an, Francisco de Sagarzazu, errejidorea; 1746an, Francisco de Enbil, sindikoa; 1747an, Joseph Joaquin de Gaztañaga, alkatea³²⁹.

³²⁹OUA, C-219 (1718-VI-27); C-222-2 (1745-IX-29); (1746-IX-29); (1747-III-12).

- Santander. 1719 eta 1737 urte bitartean Guarnizo-ra joaten ziren "a las Fábricas Reales del Rey". Tomas de Miranda 1719 eta 1730ean joan zen; Matias de Iruretagoiena, berriz, 1725an; eta Francisco de Enbil, 1728an. Horiek maisuak ziren; bestetik, 1726an, Juan Lorenzo de Etxebeste, sindikoa, eta 1737an, Juan de Lertxundi, errejidorea, Guarnizo-ra abiatu ziren³³⁰.

- Galizia. Oriotar asko Ferroleko Erret ontziolara joan zen, eta batez ere, 1752. urtean. Kontzejuak Diputazioari egindako kexaren arabera, benetan askok alde egiten zuela egiaztatzen digu:

*"Los mejores carpinteros están en El Ferrol, en total cincuenta y cuatro oficiales d'esta dicha villa (...) no hay oficial de consideración"*³³¹.

XVIII. mendeko 50. hamarkadatik aurrera, Ferroleko Erret Ontziolara joandako oriotar askok, besteak beste, zenbait zurginek eta alkateren batek, herriko egurra eraman zuten³³².

Beraz, garai honetan Orioko zurgin eta ontzigileen lana oso estimatua izan zen eta, oriotar askok Erret Ontzioletan aritzeko paregabeko aukera izan zuten.

c) Basoak babesteko politika

1696. urtean Gipuzkoan Foru, Pribilegio eta Legeen Bilduma berria egin zen eta oso garbi isladatzen da basoak babesteko zuten nahia edo premia:

*"En todos tiempos y en todas las provincias y reinos se ha reconocido por cosa importantísima y necesaria el plantío de los árboles y su conservación, particularmente en esta Provincia, donde tiene más uso y comercio su material por haber en ella fábrica de navíos y labranza de herrerías, cuya cosecha es el fruto de más consideración de esta tierra y cuyo ministerio pide innumerables cantidades de leña y carbón (...)"*³³³.

XVIII. mendean lege ugari eman zen basoak landatzeko edota lanberrien zabalera zehazteko eta abar³³⁴. Herri guztien betebeharra zen zuhaitzak landatzea, eta are gehiago Orion, ontzigitzarako derrigorrezko baldintza baitzen. 1750. urteko agiri batean honako hau esaten da: "que las tierras baldías se fomente el cultivo de árboles para que haya madera abundante para fabricar navíos"³³⁵.

Basoak babesteko lege guzti horiek ondorio onak ekarri zituen, XVIII. mendean ontzigitzak, nahiz eta gorabehera handiekin, aurrera egin baitzuen. Gainera, Ferrolera ere egurra eramaten zenez, badirudi kanpora eramateko adina egur bazela.

³³⁰GPAH, Agustín de Aranza, 3/1.882, F. 18 (1719-III-27); 3/1.883 F.21 (1725-III-3); OUA, *Libro de Despachos y Testimonios*. C-220 (1715-1746), (1726-I-27), (1728-I-25); C-222-2 (1723-1752) (1730-IX-8); (1737-IV-22).

³³¹OUA, *Libro de Ayuntamiento (1743-1767)*, C-221-1 (1752-VII-16).

³³²OUA, *Libro de Ayuntamiento*, C-221-1, (1750-IX-6); (1752-I-20); (1752-IV-30); C-222-2 (1751-II-21); C-225 (1751).

³³³ARAMBURU, L.: *Nueva Recopilación...*, . 1696, Op. cit. 464. orr.

³³⁴OUA, C-225 (Reglamento 1738-IX-26 Donostia); (1749- VI-28 Aranjuez, Cédula Real).

³³⁵OUA, C-225 (1750-IX-18).

d) Ontziak egin ondoren atoian eramatearen ardura

Aurreko atalean aipatu dugu ontziak egin ondoren atoian edo erremolkean eraman behar zirela itsasoratzeko. Nahiz eta betidanik arazo larriena barratik pasatzea izan, garai honetan baziren bestelako arazoak ere³³⁶.

Nasekin izokina harrapatzeak XVI. mendetik aurrera istiluak sortarazi zituen, nabigazioa galerazten baitzuen. Usurbilgo Mapil Ontziolan egiten ziren ontziek ezin zuten itsasoratu oriotarrek nasak zituztelako. 1698. urtean, Gipuzkoako Probintziak nasak ontzigintzaren kontrakoak zirela erabaki zuen. Hala ere, Orioko nasak ez ziren kendu. Orioko kontzejuak ibaiaren herena nabigazioarako libre uzteko agindu zuen, azken finean, Orioko ontzigintzarako ere oztopoa baitzen³³⁷.

XVIII. mende erdialdean atoi lanengatik auzi bat izan zela jakin dugu. 1752. urtean Manuel de Aizpuruak Usurbilgo ontziolatan bi lantxoi egin zituen, eta bi hondarribitar arduratu ziren ontziak itsasorateaz. Horrela sortu zen eztabaida, 1621 eta 1714. urtetako Kofradiako Konstituzioen arabera, Oria ibaiko ontziolatan egindako ontziak oriotarrek eraman behar zuten atoian. Azkenean, Aizpuruak eta Jose de Larrumek, Konstituzioetan agintzen zena onartu zuten³³⁸.

Beraz, garbi dago Kofradiari ere interesatzen zitzaiola ontzigintza babestea.

Laburbilduz, Orioko ontzigintzak krisialdiari aurre egin zion eta, XVIII. mendean nahiz eta gehienbat kanpoan aritu, herrian ere eutsi zioten.

2.4. MERKATARITZA ETA GATAZKA POLITIKOAK

Garai honetako merkataritzaren ezaugarri nagusia da oriotarrek Europarekin zuten harremana eten egin zela gatazka politikoen eraginez. Burdina eta arrantza jardueren nagusitasuna ere galdu egin zuten eta, Europako merkatuetatik kanpo geratu ziren. Beraz, garaiko merkataritza jarduera hauetara mugatu zen: batetik, Galizia eta Asturiasen harrapatutakoari esker komertzializazioa posible izan zen, nahiz eta oso garrantzitsua ez izan; eta bestetik, Caracas-eko Erret Konpainia Gipuzkoarraren bitartez oriotar askok denboraldi labur batez lanean aritzeko aukera izan zuten.

a) Nazioarteko gatazka egoera

Aurreko kapituluan, krisialdiari buruz hitzegiterakoan, esan dugu, nazioarteko gatazkaren ondorioz Euskal Herriak zituen lotura ekonomikoak desagertu egin zirela.

Garai honetan gerra ugari izan zen, hain zuzen ere, XVII. mendearen bigarren erditik aurrera, Oriok gerraren eragina jasan zuen, batzuetan zuzenean eta, bestetan zeharka. Gerraren lehenengo ondorioa soldadu eta ontzien beharra izan zen. 1636tik 1653ra bitartean oriotarrek Frantziaren kontrako gerran parte hartu zuten; esate baterako, 1638. urtean, Frantziak Hondarribia erasotu zuenean³³⁹. XVIII. mendean ere gatazka

³³⁶Nahiz eta Orioko portuko arazoak iraun, portu barneko zabalera nahiko ona zen. Hori pentsa arazten du 1750. urteko berri honek: "Orio es un puerto de barra que en plemar tendrá onze pies de agua, y pueden entrar embarcaciones de 100 a 130 toneladas, que después de haver entrado, están con mucha seguridad; tiene varias lanchas para la pesca y algunas embarcaciones de 30 a 50 toneladas para el comercio" (ONTZI MUSEOA, Madril, Kantabriako Marina, Miscelánea. Doc. 3, f. 4-6).

³³⁷GAO, Sec. 2 Neg. 12 Leg. 55 (1697-1698).

³³⁸GAO, CO-L.Cl., 2.829 (1752).

³³⁹Felipe IV. ak, Gipuzkoako herriei, Frantziaren kontrako gerra eta Kataluniako "Matxinada" rako jendea, ontziak eta jan-edariak eskatu zizkien (OUA, C-37). 1638. urtean, Orioko alkateak, Juan Diaz de Areizagak, Frantziako erasoaldi baten kontrako neurriak hartu zituen, partikular baten pinaza bahituz (GAO, CO-CR. 30,2 [1638]). Izan ere, Frantziak Hondarribia eraso zuenean, hainbat gipuzkoar, Esteban de Areizaga oriotarra besteak beste, "al socorro de Fuenterrabía que está sitiada por el enemigo francés", joan zen (GPAH, Francisco de Hoa, 3/1.848, F. 85 [1638-VII-16]). Horretaz gain, hurrengo urteetan eta erregearen izenean, "Sargento Mayor del Ejército en la Provincia" zenak, Cristobal de Eguzkizak, Erret Armadaren zerbitzurako, oriotar ontziak bahitu zituen (GPAH, Francisco de Hoa, 3/1.849. F.30 [1639-III-5]).

ugari izan zen, Ondorengotza-gerrarekin (1704-1714) hasi³⁴⁰ eta, Utrecht itunarekin bukatu zena. Gerra honetan, Felipe V.ak, Espainako lehenengo Borbondarrak, Ipar Atlantikoan eta Ternuan zuen nagusitasuna galdu zuen eta, Ingalaterra izan zen gehien irabazi zuena. Espainiak Europako hainbat leku estratejiko galdu zuenez, berreskuratzeko ahaleginak egin zituen; baina, 1718. urtean Britainia Handia, Holanda, Austria eta Frantziak Aliantza Laukoitza izeneko ituna sinatu zuten Espainiari Utrecht-eko ituna betearazteko. Frantziako ejerzitioa Gipuzkoan sartu zen eta Orion kalte handia egin zuten: batetik, bertako jendeak herria babestu behar zuen; eta bestetik, frantsesek janaria lapurtzen zuten garaia eta okela ez zegoen³⁴¹.

Guzti horren ondorio nagusia, arestian aipatutakoaz gain, honakoa da: Gipuzkoak eta jakina, Oriok, Europarekin zituen merkatal loturak eten egin ziren.

b) Merkataritza loturak Galizia eta Asturiasekin

Garai honetan Oriok Galizia eta Asturiasekin bakarrik izan zituen merkatal harremanak. Arrantzara joaten zirenean, oriotarrek han saltzeko produktuak eramaten zituzten, eta bueltan, han erositakoak ekartzen zituzten, adibidez, Ribadavia-ko ardoa³⁴². Ildo beretik jarraituz, erabat adierazgarria iruditu zaigu XVIII. mende hasieran oriotar batzuek egin zuten "elkartea". Joseph de Segura, Domingo de Maitin, Antonio de Gaztañaga, Joseph de Oskorta, Nicolas de Urreizmendi eta Juan de Maitin ados jarri ziren Galiziar joateko eta "elkarte" bat osatzeko; han tabakoa eta gatza saldu nahi zuten. Bakoitzak 2.500 erreale zilar jarri zuen eta, haien asmoa ez zen elkarteak betirako irautea, baizik eta bidaiak zuen iraupen berbera izatea; jakina, irabaziak eta galerak banatu ondoren³⁴³. Ez dugu mota horretako elkarteei buruz berri gehiagorik lortu, baina hori ikusita garbi dago oriotarrek beste jarduerak bultzatzeko ahaleginak egin zituztela. Zaila da salerosketa horiek baieztatzea, lortu ditugun datuak gutxi baitira.

c) Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarraren eragina

1728. urtean Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarra sortu zen kakaoa, tabakoa eta larruzko gaiekin komertzializatzeko³⁴⁴. Konpainiak iraun zuen arte merkataritzak hazkunde handia izan zuen. 40. hamarkadatik aurrera marinel oriotar askok Konpainiako ontzietan Caracaserako hainbat bidaietan parte hartu zuten, eta hori izan zen Konpainiak Orion izan zuen eragina.

1745. urtean Lertxundi errejidoreak bere karguari uko egin zion Caracaseko Konpainian lana egin nahi zuelako³⁴⁵. Agirietan ikusi dugunez, oriotarrek marinel lanak egiten zituzten, batez ere Caracaseko Konpainian³⁴⁶. Hala ere, zenbaitzuk bestelako lana egin zuten Konpainian; adibidez, 1746. urtean Don Joseph de Maitin Konpainiako Nabio-Kapitaina izan zen³⁴⁷; 1770. hamarkadan, bestalde, Joseph Santiago de Claessens, urte askotan Orion bizi izandakoa, zuzendaria izan zen. Claessens-tarrak Donostiakoak ziren, baina Joseph Santiagok eta bere oinordeko

³⁴⁰Gerra honetarako ere erregeak laguntza eskatu zuen (OUA, C-37).

³⁴¹1719. urteetako aktetan azaltzen da (OUA, C-219 [1703-1721]).

³⁴²1625. urtean Josepo de Etxaniz oriotarra, Galizia eta Asturiasera joan zen hemengo produktuak saltzera (GPAH, Gabriel de Arbe, 3/1.832, F. 19; 1625-V-29). Galizia eta Asturias-era zihoazten oriotar gehienek salgaiak eramaten zituzten beren ontzietan. Bestalde, Domingo Alonso de Mendiak, Galizian hil zenak, handik, normalean, Ribadavia-ko ardoa ekarri ohi zuen (IEAH, Secr. Mazo. C/437 N°17 [1663]).

³⁴³GPAH, Agustin de Aranza, 3/1.880, F.111-112 (1710-XI-10).

³⁴⁴GARATE OJANGUREN, M.: *La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Doctor Camino, Donostia, 1990.

³⁴⁵OUA, C-222-2 (1745-V-23).

³⁴⁶M. GARATE OJANGURENek 1755-1770. urte bitartean "marineros ausentes en Caracas" izeneko zerrenda eman zuen (*La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Op. cit. 204., 207. orr.). Horretaz gain, Demografiari dagokion atalean, 1760-1815. urte bitartean Caracasen zeuden marineletaz arduratuko gara.

³⁴⁷GPAH, Juan Beltrán de Illunbe, 3/1.913, F.21 (1765-II-5).

batzuk Kontzejuko karguak betetzeaz gain, herriko beste zereginetan aritu ziren eta gainera, Orion "Claessens" izeneko etxea dago³⁴⁸.

Konpainia 1778. urtean desagertu zen, merkataritza librea onartu zenean³⁴⁹. Oriotarrentzat, eragin garrantzitsuena, ordurarte nahiko geldirik zegoen itsas-loturen bultzada izan zen; eta bestalde, marinelek itsas bizimoduarekin jarraitu ahal izan zuten.

III. ERREGIMEN ZAHARRETIK INDUSTRIALIZAZIORA (1760KO HAMARKADATIK XX. MENDE HASIERA ARTE)

Ekonomiari buruzko atal honen azken garaiak kronologikoki bi muga ditu: XVIII. mendearen bigarren zatia eta XX. mende hasiera. Zatiketa hori egiteko bi faktore hartu ditugu kontutan: lehenengoa, 1760. hamarkadan Erregimen Zaharraren Krisia³⁵⁰, hau da, oinarri ekonomiko eta sozialek izugarritzko aldaketa jasan zutenean; eta bigarrena, industrializazioaren lehenengo aztarnak eman zirenekoa, hau da, XX. mende hasieran sortu zen garai ekonomiko berria.

1. GERTAERA GARRANTZITSUAK

Aipatu epe luze horretan historian garrantzitsuak izan diren gertaerak izan ziren, esate baterako, Konbentzio-gerra, I eta II. Karlistadak, Desamortizazioa, —ondasun propio eta komunalen salmenta— Foruen Ezabaketa eta Industrializazioa. Gertaera guzti horien azterketa xume bat egingo dugu, Oriori dagokion einean.

1793tik 1795era bitartean Konbentzio-gerra izan zen. 1760. hamarkadatik aurrera Gipuzkoak egoera gogorra bizi izan zuen, nekazaritza bere ahalbideen mugara heldu zen, baliabide teknikoak oso eskasak baitziren, eta merkatal mugimenduak izugarri gutxitu ziren. Frantziako egoera ere ez zen oso ona, izan ere, garai horretan monarkia abolitu eta errepublika aldarrikatu zen. 1793. urteko martxoan, Frantziako Konbentzioak Espainaren aurkako gerrari ekin zion³⁵¹ eta, 1794. urtean tropa frantsesak Gipuzkoan sartu ziren. Don Juan Antonio de Argotek, garai hartako Orioko alkatea, adierazi zuenez, abuztuan sartu ziren³⁵².

Konbentzio-gerrak ondorio latzak izan zituen oriotarrentzat, askotan aipatzen baitira honelako esaldiak, "perjuicios que han tenido por dicha invasión del francés" eta "tiempo en que los franceses han ocupado esta villa y sus tránsitos". Bestalde, garai hartan garia izugarri garestitu zen, eta bestetik, Probintziako tropen kontribuzioei aurre egiteko Kontzejukoak bere ondasun propioak eta komunalak hipotekan jarri behar izan zituen. Beraz, Konbentzio-gerraren ondorioz Udal Haziendak lehen oztopoak izan zituen.

³⁴⁸GARATE OJANGUREN, M.: *La Real Compañía... Op. cit.* 272. orr.

³⁴⁹"La Compañía acabaría fundiéndose con otra Compañía más joven, la de Filipinas. Los accionistas de la Guipuzcoana hubieron de acudir a un canje de sus acciones por las de Filipinas" (URIARTE, G. de: "Estructura económica". *Historia del País Vasco. Siglo XVIII*. Univ. Deusto. Bilbao. 1985. 155. orr.).

³⁵⁰Izena FERNÁNDEZ ALBALADEJOK tesiaren izenburutik hartu dugu.

³⁵¹Konbentzio-gerraren nondik norakoak ikusi: J. GONÍ GALARRAGA: "La revolución francesa en el País Vasco: La Guerra de la Convención (1793-1795)", *Historia del Pueblo Vasco, III*, Donostia 1979, 5-69. orr.; IDEM: "Guipúzcoa en la Paz de Basilea (1795)" *Homenaje a J. Ignacio Tellechea Idigoras. Boletín Estudios Históricos Sobre San Sebastián*. Nº16-17 (1982-83), 761-803. orr.; CRUZ MUNDET, J. R.: *Konbentzio-gerra Gipuzkoan (1793-1795): I.V. Sarastiren eskuizkribua*. Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia, 1993.

³⁵²"Don Juan Antonio de Argote, vecino de ella, alcalde y juez ordinario que fue de esta dicha villa que es en la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa, el año pasado de mil setecientos y noventa y cuatro, vaxo el juramento que presto, por testimonio de mi el escribano de ella dixo que al tiempo de la inbasi3n de los franceses por el mes de agosto de aquel año (...) con noticia que tubieron de que los franceses venían a este pueblo (...) y haviendo llegado a este pueblo el francés y rexistrado la iglesia y varias casas de la villa, igualmente que la dicha casa concejil" (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.943 [1796-XII-19]).

Bestalde, 1808tik 1814ra bitartean, Independentzi gerra garaian, frantsesak berriro Orion sartu ziren. 1809. urtean hartu zuten frantsesek Orio eta Jose Napoleon Erregearen agintepean jarri zen³⁵³. Guzti horren ondorio nagusia ondasun propio eta komunalen salmenten igoera izan zen.

Lehen Karlistadaren garaian (1833-1839) salmentek jarraitu zuten. Horrez gain, I. eta II. Karlistaden (1873-1876) ezaugarri nagusia zera izan zen: gerrarako marinela behar zirenez, oriotar ugari joan zen herritik.

II. Karlistadaren lehenengo ondorioa foruak deusestatzea izan zen eta, Oriok betidanik izan zituen hainbat pribilegio eta usadio galdu egin zituen. Bestalde, 1841. urtean aduanak barnealdetik kostaldeko portuetara eraman ziren eta ekonomia hazi egin zen; orokorrean, Gipuzkoan orduan hasi zen industrializazio prozesua.

CASTELLS-ek emandakoak dira Gipuzkoako industrializazioaren ezaugarri nagusiak. Gipuzkoak atzerapen teknikoei eta lanbide espezializatuen ezari aurre egin behar izan zion. Arazoak gainditzeko oso garrantzitsua izan zen merkatu nazionalera —España— zabaltzeko 1841. urtean hartutako erabakia; baita kanpoko kapitalaren laguntza eta inbertsio txikiak ere; kokapen geografikoa ezin hobea zen, eta gainera, ibaiak zituen. Beraz, Gipuzkoako industrializazioaren ezaugarriak hauek izan ziren: batetik, industri dibertsifikatua eta, bestetik, enpresak txikiak eta erdi mailakoak sortu ziren³⁵⁴.

Oriori dagokionean, industrializazioa XX. mendean garatzen hasi zen, ontzigintza, arrantza eta buztingintzaren eskutik. Lantegi txikiak antolatzen hasi ziren eta, aldi honetako aurrerapenik funtsezkoenetakoa eman zen, itsasontzietan baporea edo lurrina erabiltzen hasi zen; horrela, herritarrek betiko jarduerarekin jarraitu ahal izan zuten.

Laburbilduz, XVIII. mende bukaeratik XX. mende hasiera bitarteko nekazaritza, arrantza, ontzigintza eta merkataritzaren ezaugarriak hauek dira: XIX. mende hasierate nekazaritza oso garrantzitsua izan zen, baina gero esan daiteke, onenak emanak zituela; arrantzan, eta batez ere ontzigintzan hazkundera nabaritu zen, kabotaje merkataritzari esker. Bestalde, 1840. urterate nahiz eta arrantzak eta merkataritzak aurrera egin, ontzigintzaren krisialdia eman zen; Baina, I. Karlistada eta gero, berriz ere hazi egin zen. Gerora, 1876. urtetik aurrera, industrializazioaren ondorioz, jarduera ekonomiko guztiak indarberitu eta hazi egin zen.

2. NEKAZARITZAREN GAINBEHERA (1760-1815)

Aurreko garaian erriberetan eta bestelako lurretan emandako lanberritzearen ondorioz, nekazaritzak gora egin zuen. Aipatu urteetan, ordea, nekazaritzak ez zuen lehen adinako garapenik izan. Lanberritzearekin jarraitu zuten, baina erritmoa izugarri jaitsi zen. Nahiz eta 1763tik 1766ra oriotarrek lurak lanberritzeko baimena Kontzejuari eskatu³⁵⁵, 1760. hamarkadaz geroztik lanberritzeak, etekinei dagokionez, ez ziren leku egokietan egin.

Garai honetan, txara —zuhaitz motzez edo zuhaiskaz osatutako baso zarratua—, ihitza eta balio handia ez zuten lurak, erein lurretan bihurtzeko ahaleginak egin ziren. Adibidez, 1791-1800 urte bitartean Saroeko txara lanberritzea proposatu zen, produkzioa izugarri gutxitu baitzen, "la cosecha de granos que se coge en su distrito

³⁵³Herri osoa, Kontzejuak eta biztanleak, errejimen berria onartuko zutela zin egin behar izan zuten (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.956, F.18-28 [1809-II-1]).

³⁵⁴CASTELLS, L.: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*. Siglo XXI, Madrid, 1987. Horretaz gain, industrializazio prozesua ikusteko: FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.; HERNÁNDEZ MARCO, J.L.: *La industrialización del Norte de España*. Crítica, Barcelona, 1988; FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: *Crecimiento económico y transformaciones sociales en el País Vasco*. Siglo XXI, Madrid, 1974; GONZÁLEZ PORTILLA, M.: *Estado, capitalismo y desequilibrios regionales (1845-1900)*. Andalucía. País Vasco. Haramburu, Donostia, 1985; NADAL, J.: *El fracaso de la Revolución industrial en España, 1814-1913*. Ariel Historia, Barcelona, 1982.

³⁵⁵OUA, *Libro de Ayuntamiento (1756-1766)*, C-221-2.

anualmente apenas alcanza para tres meses"³⁵⁶, baina ez zen nekazal galerak gainditzea lortu. Beraz, nahiz eta nekazaritza mendi erdirarte ekonomiaren oinarria izan, bere onenak emanak zituen eta, ezin zuen gehiago hazi jabetza egiturak aldatu gabe eta laborantza teknikak berritu gabe behinik behin³⁵⁷.

2.1. NEKAZARITZAREN EGOERA: LURREN SAILKAPENA ETA PROBETXAMENDUA

XIX. mendeko nekazaritzaren egoera ezagutzeko 1802. urtean egin zen galdeketa funtsezkoa da. Honela izena zuen: *Ynterrogatorio sobre la cantidad, calidad, destino y cultivo de las tierras para formar la división agrícola de España*³⁵⁸. Segidan oriotar batek galdeketa idatzitako daturik argigarrienak aipatuko ditugu:

a) Lanberritze prozesuaren azken bultzada

1800. urterarte 11,9 Ha. landu ziren Orion. Beraz, lanberritze prozesuak XIX. mende hasierarte iraun zuen eta orduan heldu zen mugara.

b) Lurren jabetza: Kontzejuaren indarra

Orion lantzen zen lurren % 75a Kontzejuarena zen, eta gainontzeko % 25a partikularrena. Kontzejuaren lurak maizterrek lantzen zituzten, beraz, jabegotasun mota nagusia maiztertza izan zen. Bestalde, landugabeko lurren % 75a Kontzejuarena zen eta % 25a partikularrena³⁵⁹. Kontzejuak modu honetan banatzen zituen lurak: zati haundi bat erein lurra zen; beste zatian haritzak ladatzen ziren; beste txiki batean gaiztainondoak; eta gainontzekoa otadi, harritsua eta emankortasun eskaseko lurra zen.

c) Aurrerapen teknikoek eskasia

Tresna hidraulikorik ez omen zen eta, erabiltzen ziren tresnak aurreko garaikoak ziren. Beraz, tresneriari dagokienez, ez zuen aurrerapenik izan.

Aurreko garaian bezala, ongarriak erabiltzen zituzten, eta batez ere, ote zuria eta harea. Baserrietan karea asko erabiltzen zen, kalean ez bezala, oso urruti baitzegoen. Bestalde, harea eta "cierta yerba que despide el mar", itsas-belarra, alegia, erabili ziren ongarri modura.

Laburbilduz, ongarriak erabiltzea behar-beharrezkoa zen, nekazariak ez baitzioten lurrari atsedean hartzen uzten. Baina, era berean, lurren emankortasuna txikia zen. Bestalde, lurak ondo ureztatuta egoten ziren, Orion ez baitzen ur faltarik izan.

d) Lur landuen sailkapena eta probetxamendua

XIX. mende hasieran Oriok 1.162,8 Ha. lur zituen, eta horietatik 105,4 Ha. bakarrik zeuden landuta³⁶⁰. Beraz, lur guztiaren % 9,06a besterik ez. Galdeketa ikusi dugunez, landutako lurak hiru mailatan banatzen ziren emankortasunaren arabera: lehenen mailakoak edo lur onak; bigarren mailakoak edo lur-buztintsuak; eta, azkenik, hirugarren mailakoak edo kaskarrak.

³⁵⁶Vicente de Segurak Saroe txara lanberritzea proposatu zuen. Horretarako, Kontzejuari errenta ordaindu zion (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.947, f.92-95 [1791-1800]).

³⁵⁷CRUZ MUNDET, J. R. *Konbentzio-gerra Gipuzkoan. Op. cit.* 12. orr.

³⁵⁸HEAA, Vargas Ponce Bilduma. Vol. 24. 9/4.197 (1802-XII-8).

³⁵⁹Partikularren jabetzaren lekuko, besteak beste, Errezabal, Aizperro, Kallaberro, Lizargarate haundia eta txikia, Aganduru, Agirre, Etxaiz eta Aldape etxeak edo baserriak ditugu. Horietako batzuk Kontzejuaren lurrekin batzen ziren eta, jakina, errenta hauengatik ordaintzen zuten (GPAH, Juan Bautista de Illunbe, 3/1.933, F.43-51 [1785]).

³⁶⁰Dokumentu honetan azaltzen den "Postura" neurria garai horretan erabiltzen zen eta 441 oin karratu da. Neurriak hobeto ulertzeko, posturak Hektareetan bihurtu ditugu. Horrela, postura bakoitza 0.0034 Ha. da (BALZOLA, P. de: *Tablas de correspondencia de todas las pesas y medidas de Guipúzcoa y las principales del extranjero con las del sistema métrico*. Imprenta de la Provincia. Donostia, 1917).

V. TAULA. ORIOKO NEKAZAL PROBETXAMENDUA

	"POSTURAS"	HEKTAREAK	%
JURISDIKZIOA	342.000	1.162,8	100
LANDUTAKO LURRAK	31.000	105,4	9,06
LUR LANDUGABEAK	51.000	173,4	14,9

VI. TAULA. ORION LANDUTAKO LURREN SAILKAPENA

LURRAK	"POSTURAS"	HEKTAREAK	%
1. Maila	-	-	-
2. Maila	20.200	68,68	65,1
3. Maila	10.800	36,72	34,9
GUZTIRA	31.000	105,4	100

* Lehen mailako lurra, onak eta aberatsak, ez zeuden Orion, lur gehienak kostaldekoak zirelako. Emankortasunari dagokionez ez ziren kalitate haundikoak.

* Bigarren mailakoak edo buztin-lurra baziren Orion eta landutako lurren % 49,3a zen, hau da, 52,02 Ha. Garia eta artoa landatzen zen, eta hauek ziren etekinak: landatutako anega gari bakoitzak 11 anega ematen zituen; artoarenak 15. Mota honetako lurretan sagarrondoak ere landatzen ziren, 16,66 Ha. — %15,8a—. Lur hauek ziren, emankortasunari eta zabalerari dagokienez, garrantzitsuenak.

VII.TAULA. BIGARREN MAILAKO LURREN LANDAKETAK

PRODUKTUAK	"POSTURAS"	HEKTAREAK	%
GARIA/ARTOA	15.300	52,02	49,3
SAGARRONDOAK	4.900	16,66	15,8
BARAZKIAK	-	-	-
GUZTIRA	20.200	68,68	65,1

* Hirugarren mailako lur gehienak utsalak eta harezkoak ziren. Guztira 36,72 Ha. osatzen zuten, hau da, landutako % 34,9a. Lur hauek, era beran, hiru mota ezberdinetan banatzen ziren:

- Lur hareatsuak 8,16 Ha. ziren, — % 7,8a—. Garia eta artoa landatzeaz gain, lurren aprobeixamendu nagusia harea zen, ongarriztat erabiltzen zena.

- Hain txarrak ez ziren lurak. Guztira 18,36 Ha. ziren, —%17,3—. Horietatik 14,62 Ha.tan, —%13,8a—, garia eta artoa landatzen zen. Landatutako anega gari bakoitzak 8 ematen zituen, eta artoarenak 12 anega. Gainontzeko 3,74 Ha.tan sagarrondoak zeuden, lur guztiaren % 3,5a betetzen zuen.

- Kalitate txikiko lurrek 10,2 Ha.ko lur eremua hartzen zuten, —% 9,8a—. Batez ere aleak landatzen ziren. 8,6 Ha.tan —% 8,2a—landutako anega gari bakoitzetik 8 lortzen ziren, artoarekin, berriz, 9. Lur hauetan ez zen sagarrondorik landatzen. Gainontzeko 1,6 Ha.tan barazkiak landatzen ziren, —% 1,6a—.

VIII. TAULA. HIRUGARREN MAILAKO LURREN LANDATZE OROKORRA

PRODUKTUAK	"POSTURAS"	HEKTAREAK	%
GARIA/ARTOA	9.220	31,38	29,8
SAGARRONDOAK	1.100	3,74	3,5
BARAZKIAK	480	1,6	1,6
GUZTIRA	10.800	36,72	34,9

IX. TAULA. HIRUGARREN MAILAKO LURRAK: LUR HAREATSUETAN

3. MAILAKO LURRAK: LUR HAREATSUETAN			
PRODUKTUAK	"POSTURAS"	HEKTAREAK	%
GARIA/ARTOA	2.400	8,16	7,8
SAGARRONDOAK	-	-	-
BARAZKIAK	-	-	-
GUZTIRA	2.400	8,16	7,8

X. TAULA. HIRUGARREN MAILAKO LURRAK: KALITATE ERTAINEKOAK

3. MAILAKO LURRAK: KALITATE ERTAINEKOAK			
PRODUKTUAK	"POSTURAS"	HEKTAREAK	%
GARIA/ARTOA	4.300	14,62	13,8
SAGARRONDOAK	1.100	3,74	3,5
BARAZKIAK	-	-	-
GUZTIRA	5.400	18,36	17,3

XI. TAULA. HIRUGARREN MAILAKO LURRAK: KALITATE TXIKIKO LURRAK

3. MAILAKO LURRAK: KALITATE TXIKIKO LURRAK			
PRODUKTUAK	"POSTURAS"	HEKTAREAK	%
GARIA/ARTOA	2.520	8,6	8,2
SAGARRONDOAK	-	-	-
BARAZKIAK	480	1,6	1,6
GUZTIRA	3.000	10,2	9,8

Bestalde, agiri horretan aurrerago aipatzen da, Orion urtero 85 Ha. lantzen zela, lehenxeago 105,4 Ha. aipatu ondoren. Beraz, badirudi gainontzeko lur zatian —% 20a — ez zela landatzen edo ereiten, agian atseden hartzeko edo emankortasuna gero eta txikiagoa zelako.

Oriok zituen beste 173,4 Ha.tan —% 14,9— ez zen lantzen, hirugarren mailakoak zirelako, hau da, herritik oso urruti zeudelako eta emankortasun txikiko lurra zirelako.

e) Landatutako produktuak

Batetik, garia eta artoa ziren landatutako zekale bakarrak, beraz, ez zen lantze berririk izan. Uzta batetik bestera arbia lantzen zen gari eta artoaren lekuan. Bestetik, sagarrondoekin batera babarrunak eta kalabazak ereiten ziren. Eta, azkenik, barazkiak eta frutak ere bai.

Etekin handiena artoarekin ateratzen zen eta, hain zuzen ere, gehien landatutakoa izan zen.

f) Nekazaritza eta ontzigintzaren eragina: basoen galera

Bere garaian, lanberritze prozesua beharrezkoa izan zen nekazaritzak aurrera egiteko, baina, gehiegizkoa izan zen nolabait. Bestalde, ontzigintzaren hazkundera ere kontuan hartu behar da. Guzti horren ondorioz, basoak ia desagertu egin ziren. Agirietan aipatzen diren baso motak hauek dira:

- gaztainondoak: 1,632 Ha.

- txarak: 13,6 Ha.

- haritz-motzak: 14,28 Ha.

Hau da, basoari zegokion zabalera 29,512 Ha.koa zen, Oriok zituen lurren % 0,02a. Ez da asko, aurreko mendean basoak babesteko martxan jarri zen politika kontutan hartuta.

Nekazaritzaren egoerari amaiera emateko, Orioko jurisdikziopean zeuden gainontzeko lurak aztertuko ditugu. Hain zuzen ere, lur hauetan herriko 93 etxe eta 23 baserri zeuden³⁶¹. Baina, sasi-basoak, emankortasun eskaseko lurak eta otadiak ere baziren eta horiek guztiak, sukaldeetan eta ongarrri modura erabili ohi ziren.

Laburtuz, esan, produktu eta teknologian ez zela aldaketarik izan, eta nekazaritzak ezin zuela aurrera egin. Lanberritze prozesuak produkzioaren geldialdia eta jaitsiera ekarri zuen, kalteak eragin basoetan. Gainera, ordurarte landu ez ziren lurak kalitate kaskarrekoak ziren. Guzti hori kontutan hartuta zera ikusten da: nekazaritzaren garepenerako baldintzak eskasak zirela.

Deskribapen xume horrekin Orioko nekazaritzari buruzko ezaugarri batzuk ikusi ahal izan ditugu, hain zuzen, produktu eta aurrerapen teknikoen aldetik ez zela aldaketarik nabarmentzen, beraz, egoera horretan nekazaritza produkzio mugara heldu zen. Bestalde, aurretik landuta zegoena eta momentu honetan lantzen zena konparatuz, lanberritze prozesuak ere geldialdia izan zuela esan beharra dago. Gainera, argi ikusten da basoetan nekazaritzaren eragina oso kaltegarria izan zela.

Orain arte esandakoaz gain, aipatu bazirela bestelako arazo batzuk uzta gutxitzen zutenak, eta jakina, etekinak ere bai; esate baterako, ekaitzak, gerrak... Agiri batean ikusi dugun bezala, 1789tik 1793ra bitartean garai latzak bizi izan zituen oriotarrek, honela zioen pasarte batek: “para el surtimiento de sus havitantes ”(...) “menoscabo que ha habido en esta villa en la cosecha de trigo”³⁶². Konbentzio-gerran ere (1793-1795) gauza bera gertatu zen, batzuetan ogirik ez zen izaten eta, bestetan, garia izugarri garestitzen zen³⁶³.

³⁶¹HEAA, Vargas Ponzeren Bilduma. *Estados de Vitalidad y Mortalidad*. 9/5.886 (1800). 139. orr.

³⁶²Orioko Kontzejuak Diputazioari 1.000 anega gari eskatu zizkion, ale gutxi baitzen, eta bi hilabetera jaso zituen (OUA, C-223-2 [1789-X-5]; [1789-XII-26]). 1790tik 1793ra uzta txarrak izan zirela jakin dugu agirien bidez: GPAH Manuel Antonio de Ilunbe, 3/1.939...

³⁶³1793. urtean Orion ez zen ogirik, gerraren eraginez ezin zelako kanpotik ekarri. 1796an, berriz, garia asko garestitu zen frantsesen menpe baitzegoen herria. Urte batzuk geroago ere, 1802an, ogirik ez zela aipatzen da (OUA, C-223-2 [1793-IX-1]; [1796-V-21]; [1802-XII-21]).

2.2. LANBERRITZE PROZESUAREKIN JARRAITZEKO AZKEN AHALEGINAK

Orain arte aipatutako egoera kaskarra gainditzeko, oriotarrek lanberritzearekin jarraitu besterik ez zuten. 1801etik 1808ra Saroeko txara, Izaoko ihitza eta Marea Errotako presa lanberritzeari ekin zioten. Iadanik Saroeko txarari buruzko azalpenak eman ditugu, eta baita emaitzak kaskarrak izan zirela esan ere. Badirudi Izaoko ihitza inguruko lurra hobea zela : "porción preciosa y capaz de producir mucho grano de maíz si se rozase y cultivase"³⁶⁴. Hala ere, Oriori Izaoko lurren laurdena bakarrik zegokion, gainontzekoa Orreagako Monasterioaren jurisdikziopean baitzegoen. Beraz, pentsa dezakegu, Oriok atera zituen etekinak ez zirela ikaragarriak izan³⁶⁵. Azkenik, 1808. urtean, Marea Errotako presan lanberriak hasi ziren, eta, lan horri ekiteko arrazoia Juan Antonio de Lertxundik eta Francisco de Elgorriagak azaldu zuten:

"La decadencia de la agricultura destruye a los pueblos y el fomento de ella los anima y sustenta (...) reducir a sembradío la playa de la presa del molino de marea, propio de vuestra señoría, haciendo zampeaduras para asegurar en las mareas altas".

Presako lurra 28 "jugada"tan zatitu zuten, gutxi gorabehera 9,52 Ha., eta errentan eman ziren³⁶⁶.

Beraz, aipamen gehiago aurkitu ez dugunez, horiek izan ziren XIX. mendean nekazaritzaren inguruko arazoak gainditzeko azken ahaleginak.

2.3. LUR PROPIOEN SALMENTAK

Konbentzio-gerraren ondorioz Gipuzkoako herri asko zorrez gainezka geratu zen, gerrako zergak ordaindu behar baitzituzten. Horregatik, 1793. urtean, Erret Agindu baten bidez, herri bakoitzak beren ondasun propio eta *arbitrioen* gain hainbat hipoteka har zezakeen. Beraz, Gipuzkoako herri askotan, baita Orion ere, bere propioak hipotekatu zituen. Orohar, mailegu hauen ordainketei aurre egiteko, herri askoren irteera ondasun propio eta komunalak saltzea izan zen³⁶⁷. Hortaz, Oriok, Gipuzkoako beste herri askok bezala, lehen errentan zituen lurrak, errotak, etxaldeak... saldu egin zituen. Horrela bada, 1798. urtetik aurrera, lurren jabetza aldatu egin zen, Kontzejuarenak izatetik, partikularrenak izatera pasa zen. Independentzia-gerraren eraginez (1808-1814) salmenten joera areagotu egin zen. Dena dela, I. Karlistada ondoren (1835-1855), Orion lursailak saltzen ziren³⁶⁸.

Jabetza partikularra ugaritu egin zen eta, horrekin batera, maizterren egoera aldatu —errentak desagertu zirelako—; gure ustez, hori izan zen lursailak saltzearen ondorio nagusia³⁶⁹. Horrela, nekazaritzak aurrera egin ahal izan zuen, baina, hori bai, etxerako adina atereaz, eta horretarako, baserri-bizimodua zen egokiena.

³⁶⁴OUA, C-30.2 (1803-1808).

³⁶⁵Orioko alkateak Izaoko lursailak errentan hartu nahi zituztenekin hitz egin zuen. Urtebetera, 1807an, errentak zenbatekoak izan behar zuten erabaki zen (OUA, C-223-2 [1806-XII-1]; [1807-VI-11]).

³⁶⁶Jugada bakoitzak 0,34 Ha. neurtzen du (BALZOLA, P. de.: *Tablas de correspondencia... Op. cit.*). 1808-II-29an, bi oriotarrek Maria-errotako lurak eskatu zituen Kontzejuari. Orioko Kontzejuak 1808ko abuztuaren 8an eta 9an 28 jugada, hau da, 9,52 Ha.k eman zizkien errentan (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.955, F. 16 46-89).

³⁶⁷URRUTIKOETXEA, J.: *En una mesa y compañía. Op. cit.* 353. orr.

³⁶⁸Ondasun propio eta komunaleen salmentaz Haziendari buruzko atalean arduratuko gara.

³⁶⁹"Los pescadores de Orio habían ido ganado en Motondo, Anibarko-Portua, en Erriberas y posteriormente en Antilla con la escollera, terrenos ganados al mar, que revierten a propiedad privada de los propios pescadores y agricultores, que los convierten en zonas de cultivo complementarias a su economía familiar y en paloras para el secado y reparación de las redes. Los terrenos de la Antilla, la mayoría no aptos para el cultivo por causa de las arenas salinas, habían revertido a propiedad municipal" (OUA, *Hirigintz Planeamenduko Arau... Doc. cit.* 21. orr.).

3. ARRANTZA: INDUSTRIALIZAZIOAREN ERAGINA

Arrantzak, garai honetan, aldaketa ugari jasan zituen. Alde batetik, bale harrapaketak gero eta eskasagoak ziren —azken harrapaketaren aipamena XX. mende hasierakoa da—. Bestalde, 1879. urterarte baxurako arrantza errenta sistemarekin arautzen zen.

XIX. mende bukaera aldera jarduera honek izugarrizko jaitsiera jasan zuen; baina, XX. mende hasieran erabat gainditu zuen krisia. Industrializazioaren eraginez arrantza indarberritu egin zen eta, ekonomiaren oinarri bihurtu.

3.1. BALE ARRANTZA: BEHIN-BEHINEKO JARDUERA

Behin sarrera eginda, lehenik bale arrantzari buruz arituko gara. Oso datu gutxi ditugu eta, gainera, horiek zeharkakoak dira.

1791. urtean, adibidez, Orioko Kofradeek baleak urtzeko edo desegiteko pertza bat saldu zieten zarauztar batzuei; eta, jakin dugunez, 1817an bale koipea saltzen zuten³⁷⁰. Beraz, oriotarrek baleak harrapatzen zituzten eta koipea urtu eta gero saldu egiten zuten. Ez dugu ahaztu behar, batzuetan beste herritar batzuekin elkartzen zirela baleak harrapatzeko³⁷¹.

Datu xume horiekin argitu nahi dugu, bale arrantzarekin jarraitu zutela eta, noizbehinka ere harrapatzen zituztela; dena dela, 1901. urtean harrapatu zuten azken balea oriotarrek.

3.2. BAXURA ETA ITSAS BAZTERREKO ARRANTZAREN BULTZADA

Baxurako arrantzan jende asko aritu izan da beti; baina, itsasadarreko arrantza, XVI. mende geroztik, Orioko Kontzejuak akuran edo alkilerrean ematen zuen. Ohitura horrek luzaroan jarraitu bazuen ere, II. Karlistada garaian (1873-1876) eten egin zen, istiluak zirela-eta, oso zaila baitzen arrantzan egitea³⁷².

Baxura eta itsasbazterreko arrantzan oriotar ugari aritu zen eta familia askoren bizibidea izan zen³⁷³.

a) Kontzejuaren menpe zegoen arrantza: maiztertzia

Arrantzan, maizterrek eta arrantzaleek, erabiltzen zituzten tresnei buruz azalpen batzuk ematea komenigarria dela uste dugu. Hain zuzen ere, XIX. mendean, oriotar arrantzale batzuek etorkizunari begira arrantzarako kaltegarriak izan zitezkeen sareak erabiltzen zituzten. Gogoratuko dugunez, Orion, baxurako arrantzan gehien erabiltzen ziren sareak "traina" izenekoak ziren; txingak edo hondo sareak, berriz, ez ziren hainbeste erabiltzen arrantzarako kaltegarriak baitziren³⁷⁴.

1733. urtetik aurrera, itsasadarrean trainak erabiltzen ziren, txingak —sare mota—, ordea, noizbehinka eta leku zehatzetan. Zenbait tokitan sokak eta beita botatzea debekatuta zegoen, batez ere, trainak botatzen ziren lekuetan eta nasak zeudenetan³⁷⁵.

³⁷⁰GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.940, f.21 (1791-I-27); GPAH, Ramon de Illunbe, 3/1.957, F.41 (1817-XII-10).

³⁷¹FERNÁNDEZ DUROk dioen bezala: "por fin entre los de Getaria, Zarauz y Orio mataron la última en 1878". Bale bat harrapatu zuten, baina ez zen azkenekoa izan, 1901. urtean oriotarrek beste bat, oraingoan bai azkenekoa, hil baitzuten (URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...* Op. cit. 28-29. orr.).

³⁷²Itsasadarrean arrantza egin ahal izateko kontratuak aurkitu ditugu eta, 1762-1865. urteetan etengabe hasi zela egiaztatu ahal izan dugu. Aurreko garaia azaltzerakoan esan dugun bezala, jarduera honetaz Haziendari buruzko atalean arduratuko gara.

³⁷³Adibidez, 1817. urtean, Ixtaspen aurkitutako "serena" izeneko arrainaren arrantzan 51 oriotarrek parte hartu zuten, eta guztien artean 7.000 erreal inguru banatu zuten (GPAH, Ramon de Illunbe, 3/1.957, f.25-27 [1817-XI-4]).

³⁷⁴1607. urteko Ordenantzetan, trainaren erabilpenaz hitzegiten da (OUA, C-III, D-3).

³⁷⁵Trainak honako lekuetan botatzen ziren: "Usaberarza, Arranoaiz, Oribarzar, Arrigorcia, Sanjuanpea, Punta de la Antilla, frente de Sudugaray hasta la estacada inclusive". Bestalde, Antillako puntatik behera, traina botatzen zen lekuetan, ezin ziren sokak ezta beita ere erabili (GOROSABEL, P. de.: *Cosas memorables de Guipúzcoa. Vol. II. Op. cit.* 240-241. orr.).

Bestalde, sokak beitarekin erabiltzen ziren, eta horiek zeuden lekuetan ezin zen sarerik bota³⁷⁶.

XVIII. mende bukaera aldean, trainak erabiltzen zituzten³⁷⁷. Horrezaz gain, XIX. mende hasieran, "kakoa" izeneko beste tresna bat erabiltzen hasi ziren eta, aurkitu ditugun aipamen guztietan debekatuta zegoela esaten da³⁷⁸.

Gure ustez eta, aurkitutako datuen arabera, garai hartan erabiltzen ziren tresnen arazo nagusia mallaren neurrian zetzan; oso malla itxiko sarea, epe luzera, —esate baterako txinga— kaltegarria izan zitekeen-eta³⁷⁹.

b) Arrantzaren inguruko ekimen berria

1834. urtean, I. Karlistada garaian, elkarte baten modura aritzeko, arrantzale batzuek enpresa bat sortu zutela jakin dugu. Enpresaren helburua "pastia"rekin arrantzan egitea zen. Antza denez, "pastia" delakoa arrantzarako sare mota bat zen.

Don Jose Maria de Claessens, Miguel Antonio de Telletxea, Juan Jose de Olaizola oriotarrek, eta Jose Antonio de Aizpurua getariarrak, akordio bat sinatu zuten: "quieren establecer en esta villa la empresa de la pastia". Horretarako, 30.000 erreale jarri zituzten tresnak erosteko: sareak, lantxoak, arraina gazitzeko pertzak, etab. Oriotarrek 7.332 erreale jarri zuten eta, getariatarrak kopuru osoaren laurdena, 2.444 erreale. Gainontzeko dirua martxoan jarri behar zuten. Irabaziak eta gastuak kontu-liburu batean apuntatuko zituztela ere aipatzen da³⁸⁰.

Beraz, arrantza mota horrekin berrikuntzak ezartzeko nahia somatzen da; eta arrantzan aritzeko modu berria, enpresarena. Hemen dugu, hortaz, Kontzejutik kanpo egindako ekimen partikular baten aipamena.

c) Arrantzan errenta sistema desagertzearen ondorioak

Lehen esan dugun bezala, II. Karlistadan Kontzejuak ezin izan zuen itsasadarrako arrantza errentan eman. Baina, gerra bukatu zenean subastari ekin zioten berriz ere; Foruak deuseztatuak izan arren, itsasadarra subastan jarria izan zen azkeneko aipamena 1879. urtekoa dugu³⁸¹. Urte horretan bertan, Orioko Udalak errenta sistema aldatzea pentsatu zuen eta, horren orde, arrantzaleen eta Udalaren arteko kontratu modukoa egitea proposatu zuen. Horrela, arrantzaleek Udalarari ordaindu behar izango zioten itsasadarrean arrantzan egiteagatik. Azkenean, Udalaren proposamenak aurrera egin zuen, baina, oriotar batzuek sistema berriarekin ados ez zeudenez, beren kexa azaldu zuten Udaletxean³⁸².

³⁷⁶GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/2.004, f.70 (1865-V-29).

³⁷⁷Hain zuzen ere, Josepha Antonia de Ipenzak Kontzejuari baimena eskatu zion trainako arrantzara gizonekin batera joateko, eta Kontzejuak baimena eman zion. Bestalde, beste dokumentu batean honako hau aipatzen da: "cada vez que el rematante vaya a hacer serrada o a echar treina debe dar parte a los regidores". Arrantzara joaten ziren bakoitzean Kontzejua jakinaren gainean egotea oso normala zen (OUA, C-223-1 [1782-IV-21]; GPAH Juan Beltrán de Illunbe, 3/1.913, f-197 [1765-XII-31]).

³⁷⁸1803-1855. urte bitartean, itsasadarraren arrantza egiteko errentapen-kontratuak egiten zirenean, beti aipatzen zen debekatuta zegoela kakoa erabiltzea. Adibidez: GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.989, f.163 (1850-XII-28).

³⁷⁹Ikusi 1879. urtean itsasadarreko maizter batek egindako kexa malla txikiko sarea erabiltzeagatik: OUA, L-28 (1879-VIII-11).

³⁸⁰GPAH, Ramon de Illunbe, 3/1.973, f.6-8 (1834-I-5).

³⁸¹1877. urtean, Karlistadaren garaian akurarik ez zela egin aipatzen da. Izan ere, 1876. urtean Foruak deuseztatu ziren, eta Oriok, itsasadarraren inguruko pribilegioak, hau da, pasaiak eta arrantza, galdu egin zituen. 1879. urtean, berriz, maizter batek malla txikiko sarea erabiltzeagatik kargua hartu zion arrantzale batzuei. Beraz, itsasadarra orduan ere akuran zegoen. Ikusi: OUA, L-28 (1877-XI-10); (1879-VIII-11).

³⁸²1879ko azaroan kontratuak egitea erabaki zen, eta abenduan oriotar batzuek esan zuten ez zeudela ados (OUA, L-28 [1879]).

Errenta sistema desagertu egin zen, baina, kontratuarena ez zen, nonbait, oso komenigarria izan oriotarrentzat. Esate baterako, 1877 eta 1880. urteetan Udalak harrapatutako antxoa eta sardinarengatik zerga bat ezartzea erabaki zuen —asko harrapatzen baitzen—. Jakina, arrantzaleentzat traba bat gehiago izan zen³⁸³.

Bestalde, 1880. hamarkadan, itsasoari etekin handiagoa ateratzeko ahaleginak egin zituzten, adibidez, ostra-lekuak jarri zituzten³⁸⁴.

d) Industrializazioaren inguruko garapena

XX. mendean, industrializazioaren eraginez, arrantza izugarri hazi zen, besteak beste, lantxa eta baporeontziak erabiltzen hasi baitziren. Traina sareekin arrantzatzen jarraitu zuten, nahiz eta beste portu batzuetako arrantzaleek, adibidez getariarrak, dinamita erabili. Baina, oriotarrak ez zeuden ados getariarrekin, eta behin eta berriz kexatu ziren³⁸⁵.

Esan dugun bezala, arrantza izugarri hazi zen; eta, horrela adierazten digu 1909. urteko agiri batean irakurritakoak:

*"(...) número de individuos que se dedican a las faenas de la pesca, que cada año va aumentando, y en la actualidad pasa de ciento sesenta"; "(...) el desarrollo de la pesca de vaporcitos"*³⁸⁶.

XX. mendean, beraz, arrantzaren inguruko jarduerak bultzada izugarria somatu zuten; baina, salmenta sistema aldatzen hasi zen; betidanik, arraina kanpora eramane baino lehen, arrantzaleak bi edo hiru orduz aritzen ziren Orioko kaleetik barrena arraina saltzen. Ohitura hori, ordea, errenta sistemarekin batera desagertu egin zen. Gauzak horrela, 1910. urtean oriotarrak kexatu egin ziren arrainik gabe geratzen zirelako. Ikus dezagun gertakizunaren nondik-norakoak:

*"(...) desde 1876, que se abolieron nuestros fueros y perdió esta villa el privilegio de arrendar la ría Oria y su barcage... se siguió la antigua costumbre de vender primero en las calles todo el pescado que entraba en el pueblo, hasta hace pocos años en que se ha establecido una cofradía de italianos, que sacan el pescado a la venta sin venderlo siquiera en el muelle ni en las calles, y la población se queda sin pescado, porque los conpran todos los italianos, y los llevan para sus países. No es justo que los vecinos se queden sin pescado, ya que ellos pagan impuestos, no así los italianos"*³⁸⁷.

Gure ustetan, argi ikusten da, Kontzejuak babestu eta antolatzen zuen salmenta sistema desagertzeak ondorio txarrak ekarri zietela oriotarrei, eta aurreko ohiturak mantentzen saiatu ziren.

Hala eta guztiz ere, arrantzari etekin handia atera zioten, batez ere antxoa eta sardinarekin³⁸⁸. Gainera, ez dugu ahaztu behar Oriok beti izan duen barraren arazoa. Barraren arazoa izan ez balitz arrantza, oraindik ere jarduera garrantzitsuagoa zatekeen.

³⁸³OUA, L-28 (1880-VII-11).

³⁸⁴Proiektu hau Burdeostar baten ekimena izan zen, eta, Diputazioak babestu egin zuen. Sudugaraytik "caseta de carabineros"-raino ostra-lekua kokatu zen. Ikusi: OUA, L-28 (1880-IV-9). Gertakizun honen parte J. URRUTIKOETXEAK eman du. *Análisis de los factores.. Op. cit.* 60. orr.

³⁸⁵OUA, C-36 (1906-V-11).

³⁸⁶OUA, C-30.3 (1909-V-5); C-108.17 (1910-II-26).

³⁸⁷OUA, C-36 (1910-III-18). J.A. ACHÓN INSAUSTI eta V. HERRERO LIZEAGARI eskertzen diet dokumentu hau eskuratu izana.

³⁸⁸Orio era el punto donde siempre ha sido más abundante la pesca de la anchoa y especialmente de la sardina, de la que, aún hoy en día, se recoge mayor cantidad que en todos los demás puertos de la provincia juntos. En 1914, la renta producida por la pesca de red fue de 1.055.280,37 pts., y la de anzuelo de 500.325 pts., aunque de haber sido mejores las condiciones de la barra, estas rentas hubieran ascendido notablemente" (URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores... Op. cit.* 60-61. orr.).

Arrantzak bultzada izugarria izan zuenaren beste froga 1924an eman zen, Orioko Kofradiak etxea eraiki zuenean, hain zuzen ere, gaur egun dagoen lekuan³⁸⁹.

Hortaz, arrantza, lehen herria asetzeko adinakoa zena, XX. mendean Orioko oinarri ekonomikoan bihurtu zen. Aurreko garaietan bakailua eta bale koipeak bakarrik zuten interes merkatala; garai berrian, Orioko arrantzaren bultzada hasi zen industrializazioak lagunduta eta, era berean, gazitegiak, arrain freskuen salmentak eta kontserba lantegiak agertu ziren³⁹⁰.

4. ONTZIGINTZAREN BULTZADA

Garai honetan ontzigintzak jarraitzen zuen eta, kronolojikoki, aldi desberdinetan banatu daiteke. Batetik, XIX. mende hasiera bitartean, ontziak egin zituztela jakin dugu agirien bidez, bai partikularrek eskatuta, eta baita kabotaje komertzioaren — itsasertzean zehar egindako nabigazioa, bereziki estatu bateko portuen artekoa— eraginez ere. Gainera, zenbait zurginek ontziola ezarri zutela ere jakin dugu. Bestetik, ontzigile batzuk Erret ontziolletara joan ziren. Gero, XIX. mende hasierako isilunearen ondoren, 1840tik 1876ra bitartean ontzigintza berpiztu egin zen. Horrezaz gain, II. Karlistada ondoren, industrializazioaren eraginez, ontziola partikularrak eraiki ziren.

4.1. KABOTAJEKO KOMERTZIOAREN ERAGINA

Lehenengo aldiari ekinez, hau da, XIX. mende hasierarte luzatu zena, zera esan behar dugu, 1763 eta 1802 urte bitartean egindako ontziak, partikularrek eskatuta egin zirela. Hain zuzen ere, L. ODRIOZOLAK dioen bezala ontziak arrantzarako, kabotaje merkataritzarako eta, inguruko burdinolatan egindako produktuak eta burdina garraiatzeko eraiki ziren³⁹¹. Garai honetan egindako ontziak, besteak beste, txalupak, lantxoak, nabioak, gabarrak, bergantinak, katxemarinak... dira³⁹². 1775. urtean, adibidez, Francisco de Azpillaga ontzigileak, Joseph Antonio de Elgorriaga eta Juan Bautista de Arostegiren laguntzarekin, Andres de Salcedo hondarribitarrari lantxo bat egin zion; bestalde, 1797. urtean, Don Antonio de Portu Larrumek, Orioko alkateak, San Antonio izeneko bere pinaza, Mundakako Antonio de Murgoa Arquetari saldu zion, eta Portu Larrumek pinaza katxemarin bihurtzeko lanak egin zituen³⁹³. Produkzioa ikaragarria zen, hain zuzen ere ontziola partikularrak sortzerainokoa; esate baterako, Francisco de Azpillagak eta Vicente Joseph de Segurak, biak ontzigile oriotarrak, beren ontziola egin zuten³⁹⁴.

1780. hamarkadan oriotarrek ontzi ugari eraiki zuten: "de seis años a esta parte más de cuarenta barcos, entre fragatas, bergantines, paquebotes, cachemarines y pataches"³⁹⁵.

a) Ontzigile oriotarren jarduera

Garai honetako ontzigile entzutetsuenak, Azpillaga eta Seguraz gain, Francisco de Manzidor, Antonio de Zapiola, J. Nicolas de Aizpurua, Jose Joaquin de Gaztañaga, Antonio de Portu Larrume, Ignacio de Areizaga eta Don Ramon Santos de Gaztañaga

³⁸⁹Dakigunez, Kofradiak ez zuen berezko etxerik, eta 1924. urtean eraiki zuen gaur ezagutzen duguna. Kofradiaren etxeari buruzko azalpenetaz Hirigintza eta Kultura ataletan arduratuko gara (OUA, L-34 [1924-VII-10]).

³⁹⁰OUA C-21.4: Orioko eskabetxerietan haurrek ere lana egiten zuten (1919).

³⁹¹ODRIOZOLA, L. *Op. cit.* 37. orr.

³⁹²Ikusi 12. Taula.

³⁹³Azpillagak egin behar zuen lantxoaren ezaugarriak azaltzen dira: GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.923, f. 30-31 (1775-III-9). ODRIOZOLAK ere lantxo honen eraikuntzaren parte ematen du (*Op. cit.* 38. orr.; GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.944, f. 106 [1797-XII-18]).

³⁹⁴Francisco de Azpillagak egin zuen ontziak eraikitzeko "casilla" —horrela azaltzen da agirian, baliteke etxe txikia izatea— 1764. urtekoa baino lehenagoa da (OUA, C-221-2 [1764-I-22]). Bestalde, Segurarenaren berri 1785. urteko dokumentu batek ematen digu. (OUA, C-VI D-1 [1785]).

³⁹⁵EHAA, Vargas Ponze Bilduma. 9/4.197 (1785).

izan ziren. Guztiek ontziak egin edo konpontzen zituzten Orion eta, horretarako, gehienetan behintzat, Kontzejuari eskatzen zioten materiala, hau da, egurra³⁹⁶.

XII. TAULA. ORIOKO ONTZIGINTZAREN PRODUKZIOA: 1760-1876

URTEA	ONTZIGILEA	ONTZI MOTA
1763	FRANCISCO DE MANZIZIDOR	Txalupa
1766	ANTONIO DE ZAPIOLA	Lantxo
1770	FRANCISCO DE AZPILLAGA	Nabioa
1771	JOSE NICOLAS DE AIZPURUA	Nabioa
1775	FRANCISCO DE AZPILLAGA	Lantxo
1775	JOSE JOAQUIN DE GAZTAÑAGA	Nabioa
1778	Ezezaguna	Gabarra
1782	JOSE JOAQUIN DE GAZTAÑAGA	Nabioa
1782	VICENTE JOSEPH DE SEGURA	Nabioa
1787	VICENTE JOSEPH DE SEGURA	Bergantina
1789	ANTONIO DE PORTU LARRUME	Ontzia
1790	IGNACIO DE AREIZAGA	Txalupa
1797	ANTONIO DE PORTU LARRUME	Katxemarina
1798	ANTONIO DE PORTU LARRUME	Txalupa
1801	VICENTE JOSEPH DE SEGURA	Katxemarina
1804	RAMON SANTOS DE GAZTAÑAGA	Fragata
1840	JOSE ANTONIO DE SEGURA	Katxemarina
1850	JOSE ANTONIO DE ZALDUA	Katxemarina
1850	JOSE ANTONIO DE ZALDUA	Katxemarina
1855	JOSE ANTONIO DE ZALDUA	Pinaza
1874	BARTOLOME DE ATXEGA	Ontzia

³⁹⁶Ignacio de Areizagak, adibidez, 1790. urtean basozainari txalupa bat konpontzeko materialak eskatu zizkion. Antonio de Portu Larrumek ere 1798. urtean eskakizun bera egin zuen (OUA, C-223-2 [1790-V-9]; [1798-X-28]).

b) Erret ontzioletako jarduera

Esan dugun bezala, ontzigile oriotar batzuek, XVIII. mende erdialdetik aurrera, bere lanbidea garatu ahal izateko Erret ontzioletara joan behar izan zuten. Garai honetan ere joaten ziren, eta Galizian —Ferrol eta Montesteriro— izan zirela frogatzen duten agiriak aurkitu ditugu. 1775 eta 1796. urte bitartean, Juan Bautista de Iruretagoiena, Juan Pedro de Agote eta Don Jose Antonio de Azkue, azken hau, Orioko alkatea, Erret ontzioletara joan ziren lanera³⁹⁷.

Horrela, Orioko ontzigintzaren garapen aldia XIX. mende hasiera arte luzatu zen. Garai honetan, berriz, Gipuzkoako ontziolen produkzioa, eta baita Euskal Herrikoena ere, izugarri jaitsi zen. Beheraldi horrek bi arrazoi nagusi izan zituen: batetik, Euskal Herria jasaten ari zen egoera ekonomiko txarra eta merkataritzaren krisia; eta bestetik, Napoleonen gerrak eta Euskal Herrian izandako barne-liskarrak³⁹⁸. Edozein jarduera ekonomikorako latza zen egoera, baita ontzigintzarako ere. Horren adierazle, 1802. urteko agiri bat dugu; bertan, ontzigintzari dagokion deskribapena egiten da, aurreko urteetako nagusitasuna nabarmentzen bazen ere, orduan "está sumamente escasa" zioen; gainera, bertan aipatzen den bezala: "el fomento de la construcción de bajeles son los únicos medios de restaurar lo perdido en esta parte"³⁹⁹.

4.2.- ONTZIGINTZAREN SUSPERRALDIA

Ontzigintzak, beraz, laguntza behar zuen. Izan ere, I. Karlistadaren ondoren, 1840. hamarkadan, ontzigintza bultzatzeko aukera ezin hobea eman zen. 1841ean aduanak barnealdetik kostaldeko portuetara aldatu ziren eta, beraz, harrez gero Espainako merkatuak sarbide errazagoa izan zuen; era berean, ontzigintzari erregimen protekzionista ezarri zitzaion⁴⁰⁰. Horrek guztiak, II. Karlistadaren bukaera arte iraun zuen.

a) Ontzigintzaren produkzioa

Aldi honetako ontzigilerik garrantzitsuenak Don Jose Antonio de Segura eta Don Jose Antonio de Zaldua izan ziren. Batez ere partikularrentzat egiten zituzten ontziak eta, Gipuzkoa, Bizkaia eta Santanderrekoak izan zitezkeen bezeroak⁴⁰¹. Katxemarinak eta pinazak egiten zituzten normalean. Zalduak Zalmaristin zuen bere ontziola. Garai honetan egin zen azken ontzia, aurkitutako datuen arabera, Bartolome de Atxegak egindakoa da, hain zuzen ere pasaiarako —errioa pasatzeko— egin zuena⁴⁰².

4.3. INDUSTRIALIZAZIOAREN ERAGINA ONTZIGINTZAN

II. Karlistadaren ondoren Orioko ontzigintzak beste oztopo bat izan zuen, gerraontzi inglesen konpetentzia. Konpetentziari eman zitezkeen irtenbide bakarra berrikuntza zen. Izan ere, baporeontzien eraikuntzarekin garapen aldia ezagutu zuen ontzigintzak. Orion, esan genuen bezala, 1910. urtetik aurrera arrantzarako baporeontziak egiten hasi zen. Horretarako azpiegitura beharrezkoa zenez, Antonio de Mutiozabal y Arrillaga ontzigileak Udalarari ontziola bat jartzeko baimena eskatu zion:

³⁹⁷Adibidez, ikusi GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.923, (1775) eta OUA, *Libro de Ayuntamiento (1788-1808)*, C-223-2 (1796).

³⁹⁸ODRIOZOLA, L. : *Op. cit.* 38. orr.

³⁹⁹EHAA, Vargas Ponze Bilduma. Vol. 24. 9/4.197 (1802).

⁴⁰⁰ODRIOZOLA, L. *Op. cit.* 39. orr.

⁴⁰¹Adibidez, Don Jose Antonio de Segura ontzigileak, zumaiar bati katxemarin bat eraiki zion: GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.979 (1840). Bestalde, Don Jose Antonio de Zalduak, 1850. urtean, ontzi batzuk eraiki zituen Zalmaristin zuen ontziolan, bi katxemarin, bi mundakatarrentzat bana; 1855ean santandertar batentzat pinaza bat: GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1989 (1850); 3/1.994 (1855).

⁴⁰²OUA, C-36 (1880-I-10).

"Ante el desarrollo de la pesca en vaporcitos (...) se trata de construir un pequeño dique para reparaciones de vapores de pesca, y el resto de la superficie hasta la rampa pública se destina a nuevas construcciones"⁴⁰³.

Horrela, arrantzan eta ontzigintzan egindako berriketen eraginez, bi jarduerak aurrera egin zuten elkar hartuta; hain zuzen ere, 1914. urtean, Mutiozabal berak, orduan Orioko alkatea, herrian arrantzarako 13 baporeontzi eta 100 bela-ontzi zeudela esan zuen⁴⁰⁴.

Sektorearen garapenerako euskarriak finkatuta, XX. mendean zehar ontzigintzak ildo horretatik jarraitu ahal izan zuen.

5. MERKATARITZA: JARDUEREN IRAUPENA

Merkataritza arloari dagokionez, zera esan behar dugu, garai honetan izandako gerren eraginez, beste herrialdeekin merkatal harremanak izatea zaila zela. Hain zuzen, garai honetan gatazka ugari izan zen, Konbentzio-gerra, I. eta II. Karlistadak... Hala ere, kabotaje merkataritzaren garapenaren ondorioz, batez ere XVIII. mendearen erdialdetik aurrera, igoera somatu zen; kontutan izan behar da, baita ere, Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarraren garrantzia.

5.1. BURDINAREN INGURUKO KABOTAJE KOMERTZIOA

XVIII. mende bukaeran, 1780. hamarkadan, burdina, aingurak eta ontzigintzaren inguruko tresnak ziren Oriotik ateratzen ziren merkatal produktu nagusiak, "hubo un comercio activo por todos los barcos que entraban y salían por la barra"⁴⁰⁵. Denda edo txabola ugari ireki zen, merkatal mugimenduaren adierazle izan daitekena. 1781. urtean, adibidez, oriotar batzuek aingura eta burdin zamak Donostiara eramaten zituzten, merkataritzaren beste aukera izan daiteke⁴⁰⁶. Horrezaz gain, ontzigintzaren garapenarekin jarraituz, gogora dezagun merkatarik partikularrek ere eskatzen zutela ontziak egitea⁴⁰⁷.

Ildo beretik jarraituz, Gerra Napoleondarretik aurrera, XIX. mende hasieran, Orioko populazioa hazi egin zen, eta baliteke kabotaje komertzialaren eraginez izatea.

M. NÁJERAk kabotaje komertzialaren gorabeherak azaltzen ditu⁴⁰⁸. Hain zuzen ere, Orioko kabotajea eta horrekin lotutako burdin esportazioaz arduratu da. Kontutan izan behar duguna zera da, Orio inguruko burdinoletan egindako produktuen pasabide eta irteera izan zela betidanik; beraz, kabotajea indartzen ari zen momentuan, burdinaren inguruko merkataritza areagotu egin zen⁴⁰⁹.

Horrezaz gain, merkataritzak izan zuen garrantziaz jabetzeko, 1852. urteko agiri batean aurkitutakoa da: Orioko Udalak herrian abere feria antolatzeke baimena eskatu zuen Batzar Nagusian⁴¹⁰.

⁴⁰³OUA, C-108.17 (1910-II-26).

⁴⁰⁴URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...* Op. cit. 60. orr.

⁴⁰⁵OUA, C-VI D-1 (1785).

⁴⁰⁶OUA, C-37 (1781-III-5).

⁴⁰⁷Har dezagun, adibidez, Zaldua ontzigileak Santander merkatarik bati egin zion ontzia, datu hau Kantauri kostaldean zehar izandako kabotaje komertzioaren isla da (GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.994, f. 150 [1855-VI-27]).

⁴⁰⁸NÁJERA, M.: "El comercio a través del puerto de Bilbao (1800-1825)", *Historia marítima del País Vasco*. Donostia, Txertoa. 1983, 208. orr.

⁴⁰⁹"Importancia de las explotaciones minerales de Somorrostro, en tanto que cubrían gran parte de la demanda generada por los establecimientos siderúrgicos situados a lo largo de la cornisa cantábrica, especialmente los guipuzcoanos, quienes absorbían casi el cincuenta por ciento de las extracciones globales". Oriora burdin minerala ekartzen zen, esate baterako, 36.620 kintal "machos" ekarri ziren 1829-1842. urte bitartean (URRIARTE, R.: "El tráfico marítimo de mineral de hierro vizcaino (1700-1850)", *Historia de la economía marítima del País Vasco*. Op. cit. 181-183. orr.).

⁴¹⁰URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...* Op. cit. 58. orr.

5.2. CARACASEKO ERRET KONPAINIA GIPUZKOARRAREN AZKEN BULTZADAK

Burdin esportazioaz gain, merkataritzaren garapena Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarraren eraginez izan zen. Aipatu dugu, aurreko garaian, oriotar ugari aritu zela marinel gisa Konpainiako ontzietan. Baina, XVIII. mende erdialdean, Konpainiaren egoitza Donostiatik Madrilera pasa zen eta, poliki-poliki, Konpainiak zituen pribilegioak gutxitu egin ziren; azkenean, Venezuelarekin zuen monopolioa galdu egin zuen. Horrek ere eragina izan zuen oriotarrengan, Caracaserako gero eta mariñel gutxiago joan baitzen⁴¹¹.

Hala eta guztiz ere, 1760. hamarkadatik aurrera eta XIX. mende hasiera arte, marinel oriotar batzuk Konpainiako ontzietan aritu ziren lanean. Horren lekuko, mariñelen zerrendak dira: "ausentes en Caracas". Horrez gain, Cádiz, Buenos Aires, Lima edo Erret zerbitzuetan parte hartzen zuten izenak ere azaltzen dira⁴¹². Beraz, XIX. mende hasiera arte, Caracas eta Amerikako beste toki batzuk erakargarritasun handikoak izan ziren oriotarrentzat.

Bestalde, atzeritik produktuak ekartzen zituzten, batez ere, nekazal produktuak⁴¹³. Bestelakoak, adibidez ardoa eta pattarra, Frantzia, Nafarroa eta Kataluniatik ekartzen baitzituzten. Beraz, nahiz eta produktuak herritarrentzat izan, merkatal loturak mantendu egin ziren. Gogoratu behar dugu nekazaritzak egoera txarra hobetzen laguntzen zuela.

Dena dela, gerren eraginez gorabeherak izan ziren merkataritzan.

5.3. MERKATARITZAREN NORABIDE BERRIA: INDUSTRIALIZAZIOAREN ERAGINA

XX. mendean, II. Karlistada bukatu ondoren, arrantzaren garapenaren eraginez eta, batez ere, 1840. urtetik aurrera aduanak kostaldera aldatzearen ondorioz, merkataritzan igoera nabarmena izan zen⁴¹⁴. Horren lekuko 1911tik 1915era bitartean izandako esportazioei buruzko datuak dira. Horien arabera, burdina esportatzen jarraitu zuten; baina, batez ere, adreilua eta arrain gazitua; era berean, buztina, ikatza, refraktarioak eta "piedra adoquín" ekartzen zuten⁴¹⁵.

Beraz, aldi honetako komertzioak eta industriaren garapenak zerikusi handia dute.

6. INDUSTRIALIZAZIOA: ORIOKO EKONOMIAREN BILAKAERA

Orioko industrializazio prozesuaren adierazlerik funtsezkoenetaz arduratuko gara. Arrantza eta ontzigintzaren inguruko garapenaren azalpenak ere gogoan izan behar ditugu. Industria gehienak herri barnean zeuden, portuaren inguruan eta etxe azpian.

⁴¹¹URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...* Op. cit. 55. orr.

⁴¹²Adibidez, interesgarria da, 1800 eta 1805ean egin zen marinel zerrenda (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.947 [1800-VI-28]; 3/1.952 [1805-VI-30]). Horretaz gain, esana dagoen bezala, XVIII. mendean egindako zerrenda ugari dago.

⁴¹³"Orden de la Provincia para saber qué cosechas se producen en Orio y qué consumo hacen de cacao, azúcar, canela, especiería, abadejo, grasa y aguardiente, trigo, maíz, haba, alubia... para saber qué hay que traer de reinos extraños" (OJA, C-37 [1770-XI-30]).

⁴¹⁴FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen...* Op. cit. 249. orr.

⁴¹⁵URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...* Op. cit. 61. orr.



Orioko portua 1925. urte inguruan (I. Ojanguren argazkia. *Gipuzkoako Artxibo Orokorra*).

6.1. LEHENENGO LANTEGIAK

Industrializazioaren aurreneko eraginak XX. mende hasieran eman ziren. Hain zuzen ere, buztigintza izan zen Orion ezagutzen dugun lehen industrietako bat, 1903. urtekoa baita⁴¹⁶. 1907. urtean Orion zeuden lantegi zerrenda batean honako lantegiak agertzen dira⁴¹⁷:

- "La Cerámica Guipuzcoana" 1903. urtean kokatu zen Orion. Donostian zuen egoitza ofiziala, eta adreiluak egiteko patentea zuen. Elkarte Anomimo gisa antolatuta zegoen.
- Andres Holstein eta Felix Larribal jaunek Buztigintza lantegia, berriz, 1904. urtean Arratolan ezarri zuten; buztin produktuak lantzen ziren⁴¹⁸.
- Arin eta Embil jaunen altzarien lantegia 1904. urtea baino lehenagokoa da⁴¹⁹. Horrezaz gain, Aramendi eta Esnal altzari lantegiak ere azpimarratu beharrekoak dira.
- Arbillaga jaunaren "Trenzas de Yute" lantegia ere bazen.

6.2. ONTZIGINTZAREN ETA ARRANTZAREN ARTEKO HARREMANAK

Arrantzak eta ontzigintzak ere industrializazioaren garapenean eragina izan zuten. Hain zuzen ere, arrantzaren inguruan kontserba lantegiak agertu ziren —gazitzeko, kontserbak egiteko...— bestalde, ontzigintzari dagokionez, garapen industrialia bapareontzien sorrerarekin batera izan zen. Ostolaza eta Ortzaiakako ontziolak ziren garrantzitsuenak.

⁴¹⁶OUA, C-36 (1903-XII-4).

⁴¹⁷OUA, *Relación de fábricas existentes en Orio*. C-237.2 (1907-IX-11).

⁴¹⁸OUA, C-36 (1904-IV-1).

⁴¹⁹1904. urtean martxan zegoen (OUA, C-36 [1904-IV-1]).

6.3. INDUSTRIALIZAZIOAREN BILAKAERA

Industrializazio atalari amaiera emateko, 1924. urtean Orion zeuden lantegi motak aztertuko ditugu. Hain zuzen ere, % 13a jostunak ziren; oinetakoaren inguruko industria % 4,34a zen; aroztegi, zurgintza eta altzarien inguruko lantegiak % 17,4a; krisailugintzakoak % 4,34a; sagardotegiak ere asko hedatu ziren, % 23,9a; mekanika-lantegiak % 2,1a; gazigintzan aritzen zirenak %6,5a osatzen zuten; saskiak egiten zituzten lantegiak % 2,1a; burniolak eta sutegiak %6,5a; produktu errefraktarien lantegiak % 4,34a; errotak, % 4,34a; okindegiak % 6,5a; txokolategiak, % 2,1a; eta azkenik, ezkogintza, % 2,1a⁴²⁰.



Estazioko aurrea (Photomuseum Artxiboa).

Beraz, XX. mendetik aurrera zurgintza izan zen, sagardotegiekin batera, garapen haundiena jasan zutenak eta, produktu refraktarioak eta gazingintzarena, berriz, gutxitu egin zen.

⁴²⁰GAO, *Estadística de la Producción Industrial de la villa de Orión del año 1924*. J.D. I.T. 1964, (1924). Jose Antonio Rodríguez Ranz-i eskertzen diot dokumentu hori eskuratu ahal izana.

IV. ATALA. UDAL GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKETA

I. HIRIBILDUAREN SORRERA: ORIOKO HIRI-GUTUNA (1379)

Orioko Hiribildua sortu zenean, herria historiaren parte izatera pasa zen.

1379. urtean, Juan I.ak Villa Real de San Nicolas de Oriori hiri-gutuna eman zion. Dena dela, emate hori ez da gertaera bakartzat hartu behar, Nafarroa eta Gaztelako erregeek bultzatutako herri sorrera prozesuan aztertu behar baita.

1. HIRIBILDUEN SORRERA

Donostia fundatu zenetik (1180), Gipuzkoan beste zenbait hiri ere fundatu zen. Esan, Euskal Herrian Gaztelan baino beranduago hasi zela hiri-fundazioa. Berandutzearen arrazoiak hauek dira: batetik, Gipuzkoa eta Bizkaia Gaztelako Koroaren azken mugan zeuden; eta, bestetik, ezaugarri geografiko eta geo-politikoak ez ziren oso onak, hau da, lurra ez zen emankorra. Baina garapen ekonomikoaren eraginez herrien aurrerapenerako baldintzak aldatu egin ziren, eta, merkataritza, salerosketak, nabigazioa, garraioak, etab. aberastasunaren oinarri bihurtu ziren. 1200. urtean Gipuzkoa Gaztelako lurraldeen zati izatera pasa zen, eta Gaztelako Koroa Gipuzkoaren kokapenaren garrantziaz konturatu zen. Ordurarte Nafarroa eta Gaztela arteko muga besterik ez zen, baina, berehala konturatu zen lurralde estrategikoa izan zitekeela. Beraz, hiri fundazioen eraginez Gipuzkoa ekonomikoki eta administratiboki antolatzen eta indartzen hasi zen⁴²¹.

Gipuzkoako hiri fundazio prozesuari dagokionean⁴²², batez ere azken urteak interesatzen zaizkigu, hau da, Orio fundatu zeneko garaia. XIV. mendean herriak sortzeko arrazoi nagusiena jendeak elkarrekin biltzeko zuen nahia izan zen⁴²³; ekonomikoki ere garrantzitsua izan zen, batez ere kosta aldean, merkataritza indartzeko⁴²⁴.

⁴²¹ BANÚS Y AGUIRRE, J.L.: "El movimiento municipalista de Guipúzcoa", *Las formas de poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*, 1975, 45-67. orr.

⁴²² Gipuzkoako hiribilduen sorrera prozesua 1180. urtean hasi eta 1383an bukatu zen. Bitarte horretan sortu ziren herriak, foruak, ezaugarriak eta sortze arrazoiak ezberdinak izan ziren. B. ARÍZAGA BOLOMBURU-k prozesuaren aldiak zehazten ditu.

⁴²³ Azkoitia eta Zestoako kasuak ezberdinak izan ziren, inguruko gatazkak pairatzeko sortu baitziren (BILBAO, L. M; FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: "En torno al problema del poblamiento..." *Op. cit.* 305-337. orr.).

⁴²⁴ Horregatik, garai honetan, erregeek Deba eta Oriori pribilegioak eman zizkieten, beste hainbat herrien artean, herri bana finkatuz.

2. ORIOREN FUNDAZIOA

1379. urtean Gaztelako Juan I.ak San Nicolas elizaren inguruan bizi ziren eliztarrei Orioko lurretan kokatzeko eta bizitzeko hiri-gutuna eman zien. Pribilegio hori aztertuz gero, fundazioaren arrazoiak, izaera eta ezaugarri nagusien balorazioa egin ahal izan dugu:

- Lehenik eta behin, bertan bizi zirenen ekimena oso garrantzitsua izan zen, elizaren inguruan bizi zirenek eskatu baitzioten erregeari bertan finkatzeko baimena⁴²⁵.

Hiri-gutunaren bidez jasotako pribilegioen artean, lurralde batzuren jurisdikzioa azpimarratu behar da⁴²⁶. Jurisdikzio kontzesioak herria kokaleku pribilegiatu bihurtu zuen.

Erregeak hiri-gutuna ematean foruak ere ematen zituen, errege-zuzenbidearen menpe zegoena⁴²⁷. Oriori Donostiako Forua eman zion erregeak, Jaka-Lizarrako forua, baina, kostako ezaugarrietara moldatua. Franko-forua zen, beraz, badirudi atzerritarrak hona etortzeko joera zutela (herrian zegoen merkatal mugimenduarengatik). Foruaren bidez lurraldea gobernatzeko eta antolatzeko oinarriak ezarri zitezkeen⁴²⁸. Forua eta hiri-gutuna jasotzearen alde garrantzisuena honako hauek dira: leku-pribilegiatu bihurtu zen; foruarekin lortutako baldintza juridiko eta administratiboei esker, oriotarrek, askatasun osoz, ekin zioten beren jardueri.

- Oriok zituen ekonomia eta merkataritza ezaugarriak oso garrantzitsuak izan ziren hiri-gutuna jasotzeko. Hau da, oso leku erakargarria zen merkatarientzat karga eta deskarga egiteko, eta era berean, erregeek errenta-sistema mantentzeko; pasabidearen kokapenez baliatuz, eta, itsas eta lur-komunikazioak hobetzeko aukera paregabea zen. Beraz, Orio fundatzeko arrazoiak bazituen⁴²⁹.

Hiri-gutunaren bidez pribilegio ekonomiko, juridiko eta sozialak jaso zituen Oriok. Bestalde, oriotarrek zenbait oinarri politiko ezarri ahal izan zituzten beren gobernurako. Horrela hasi zen "Villa Real de San Nicolás de Orio" herriaren bilakaera historikoa.

3. ORIORI EMANDAKO PRIBILEGIOAK

Hiri-gutunarekin jasotako pribilegioak urte batzuetan mantendu egin ziren, eta, baita zabaldu ere, gerora izan ziren zenbait Erregek ere onartu egin baitzituzten; hauek izan ziren garrantzitsuenak:

* HIRI-GUTUNA⁴³⁰.

- Emailea: Juan I.a, 1379-VII-12. Burgosen.

⁴²⁵ "(...) por facer bien e merced a vos los parroquianos de la iglesia de San Nicolás de Orio, que me lo enviásteis pedir por merced (...)". Ikusi II. ERANSKINA (1379).

⁴²⁶ "(...) e que haya por sus términos e pastos e exidos todos aquellos términos que vos los dichos parroquianos de la dicha iglesia habiades e habedes fasta aquí (...)". Ikusi II. ERANSKINA (1379).

⁴²⁷ E. CORRAL GARCÍA hiri-gutunei buruz hitz egiterakoan hau esaten du: "(...) documentos de carácter público emanados del poder real o señorial cuyo objetivo es procurar la repoblación de un lugar que se funda de nuevo o que se trata de favorecer... una vez otorgadas y aceptadas adquieren el carácter de un pacto que obliga a las partes." (*Ordenanzas de los concejos castellanos. Op. cit. 27. orr.*).

⁴²⁸ "(...) e que hayades el Fuero de la villa de San Sebastián e todas las franquezas, libertades, buenos usos e buenas costumbres que el dicho concejo de la villa de San Sebastián ha (...), e pongades en la dicha villa por cada año alcaldes, prebostes, jurados, escribanos e otros oficiales qualesquier (...)". Ikusi II. ERANSKINA (1379).

⁴²⁹ "(...) e que sea en la dicha villa de Villa Real de San Nicolás de Orio la carga e desacarga de los navíos que (...) aportaren; (...) que sea en la dicha villa el peso e rentería del fierro que en las ferrerías de las comarcas se ficieren e labraren; (...) porque sean mejor guardadas e recabadas (...) todas las rentas e pechos e derechos que a mí pertenecen en las dichas comarcas para mi servicio (...)". Ikusi II. ERANSKINA (1379).

⁴³⁰ OUA, C-II, D-1. (1379); GOROSABELEk transkripzioa egin zuen. Konfirmazioak: OUA, C.II, D.2 (1379, 1393, 1499); OUA, C-II, D-3 (1560); SAO, *Escribanía Mayor de Rentas, Mercedes, Privilegios, Ventas y Confirmaciones*. Leg. 313, F.12. Ikusi II. ERANSKINA (1379).

- Hartzaileak: Orioko eliztarrak, merkatariak eta gainontzeko guztiak.

- Berretsi zutenak:

. Juan I.ak, 1379-IX-28. Burgosen.

. Enrique III.ak, 1393-XII-15. Madrilen.

. EE.KK.ak, 1499-VIII-26. Granadan.

. Felipe II.ak, 1560-VIII-9. Toledon.

* **ERRIOKO PASAIETAKO-ONTZIAK ERABILTZEKO PRIBILEGIOA**⁴³¹.

- Emaileak: EE.KK.ak. 1484-V-22. Valladoliden.

- Hartzailea: Orioko Kontzejua.

* **ERRET PROBISIOA, PORTUTIK PASATZEN ZIREN ONTZI ETA MERKATAL GAIEI SISA EZARRI AHAL IZATEKO**⁴³².

- Emailea: Felipe II.a, 1574-VI-2. Madrilen.

- Hartzailea: Orioko Kontzejua.

* **BARRA KONPONTZEKO 14.000 DUKAT**⁴³³.

- Emailea: Felipe III.a. 1609.

- Hartzailea: Orioko Kontzejua.

* **BARRA KONPONTZEKO ARBITRIOEN KONTZESIOA**⁴³⁴.

- Emailea: Felipe III.a. 1612-VI-16. San Lorenzo del Realen.

- Hartzailea: Orioko Kontzejua.

4. ITSASADARRAREN JURISDIKZIOA: AUZIAK

Hiri-gutunean agertzen zenez, Oriori zegokion errioren jurisdikzioa; karga eta deskargarako lekua zen, eta zergak ere Oriori kobratzen ziren; errioren arrantza egitea eta nasak jartzea Oriori zegokion. Nahiz eta erregeak pribilegio horiek Oriori eman, eta, ondorioz, legezko eskubidea izan, inguruetako Kontzejuek eta Jaunek Oriari ibaiko hainbat lekuren jurisdikzioa eztabaidan jarri zuten.

4.1. AIAKO UNIBERTSITATEAREN KONTRAKO AUZIA

Lehenengo auzia Aiaren kontra izan zen. Portutik sartzen ziren produktuak Oribarren pisatzeko eskubidea lortu nahi izan zuen. Orioko Kontzejuaren arabera, ordea, berari besterik ez zegokion portutik sartu eta ateratzen ziren produktuen karga eta deskarga eskubidea. 1473an, Juan Ortiz de Zarauzek emandako epaiaren arabera, burdinaren zerga kobratzeko erret eskubidea Oriori zegokion; hala ere, gaineratu zuen, Aiako Unibertsitateak lonja eta pesa jarri zezakeela Laurgainen.

Istiluak ez ziren baretu, izan ere, 1500. urteko abuztuaren 31n, Donostiako Kontzejuak emandako epaiaren arabera, Aiak bere lurretan lonja bat jartzeko eskubidea zuen. Handik urte batzuetara, 1598an, Aiak Orioko Kontzejuari esan zion Landerbides, Oribar, Elkano eta Ibarrolako lurak erabiltzen ari zela beren jardueretarako.

⁴³¹ OUA, C.I, D.2 (1484); SAO ZEO, Consejo, f.15 (1484). Ikusi III. ERANSKINA.

⁴³² OUA, C.V, D.3/1 (1574). Ikusi V. ERANSKINA.


⁴³³ CIRIQUIAIN GAIZTARRO, M.: *Los puertos marítimos...* Op. cit. 141-142. orr.

⁴³⁴ *Euskalerría* (1891), XXIV, 279-280. orr.

Azkenean, Valladolideko Kantzelaritzak eman zuen epaia: Orioko Kontzejuari zegokion erriko inguruko lur-eremua; batetik, Oribarzarretik Sudugaray-raino; eta bestetik, Arratolako kaitik Olabarrietaraino luzatzen zen lur eremua. Hau da, itsasgoran ureztatzen ziren lurak⁴³⁵.

4.2. DON ANTONIO DE IDIAKEZEN KONTRAKO AUZIA

Bestalde, Motondo eta "Donpedrorena" izeneko tokiaren jurisdikzioa zela eta, Oriok eta Antonio de Idiakenez jaunak, Azkoitiako Santiagoko Zalduna zenak, auzi luze bat izan zuten. Auzia Idiakenez maizterrak aipatu tokietan arrantzan harrapatu zituztelako hasi zen.



Orioko itsasadarra (*Photomuseum Artxiboa*).

Idiakenez Arrazubia eta Zarautzko maiorazkoa zen, eta Motondo eta "Donpedrorena" tokiak bere jurisdikzioaren mende zeudela esaten zuen, eta Orioko Kontzejuak, berriz, herria fundatu zenetik eta Errege batzuek onetsi zuten, berari zegokiola esaten zuen. Orioko Kontzejuak argudiatzen zuen erriko arrantza betidanik oriotarren ondasuna izan zela, eta, joera eta ohitura hori baieztatzeko XVII. mendetik aurrerako agiriak aurkeztu zituen; agirietan erriko arrantza errentan ematen zela ikus zitekeen. Beraz, 1700. urtean, Kontzejuak eta Idiakenezek epaiketan frogak aurkeztu ondoren, Valladolideko epaimahaiak honakoa erabaki zuen: Idiakenezek edota bere maizterrek

⁴³⁵ Hain zuzen ere, 1622an, Orioko jabetza eta jurisdikzio zibil eta kriminala, itsasadarrean eta bokalean, honako lekuen artean zegoela erabaki zen: "(...) en todo lo que inunda el mar en las mayores aguas (...) desde la punta de la barra asta la de Arranoiz, y entrando en la playa de entre Arranoiz y Oribarzar, y dende la punta de Oribarzar entrando en la ensenada de Orialde asta el puerto de Sudugaray, y el mojón que se a de poner en su embarcadero y losadura, y dende el moxón que se a de poner a la parte de Orivar asta la punta de las peñas y puerto de la parte de Arratola y su calçada losada, donde se a de poner un moxón, y dende arrimado a la montaña está una piedra grande que se señala por moxón, dende asta un moxón que se a de poner a la parte de la mota que desde el moxón que se a de poner en Sudugaray a la parte de Oribar asta las puntas de peñas de Arratola (...) y desde la piedra que se toma y señala por moxón a la dicha peña de la parte de la mota, se señaló la otra cinguirra de Arracuvia, y dende la otra punta de la parte de arriba de la mota entrando toda la ensenada asta la punta de Saroechipi, y desde la punta de saroechipi asta el arroyo de Olavarrieta, que es en confin de la dicha tierra de Aya (...)" (OUA, L- 4. Orio eta Aiaren arteko auziaren erabakia (Ejecutoria). Valladolideko Kantzelaritzaren epaia [1473-1622]; VEKA, Masas C/1.307/1, 1.308/1 [1597-1617]). Bestalde, Arratola etxearen jabetza Aiari zegokiola erabaki zen 1701. urtean (VEKA, Masas, C/3.223/1 [1694-1701]); GAO, CO-UCL, 777, 1701). Ikusi II. Mapa.

aurrerantzean ezin izango zuten Motondon arrantzan egin, ezta Donpedrorena izeneko tokian nasak erabili ere, lurak Oriorenak zirelako⁴³⁶.

4.3. ORREAGAKO MONASTERIOAREN KONTRAKO AUZIA

Orioko Kontzejuak auzi gehiago ere izan zituen, esate baterako, Arrazubiako Andrearekin eta Atxega Jaunarekin nasak jartzeagatik, eta, Orreagako Monasterioarekin (eta haren izenean Usurbilgo Kontzejuarekin) Izaon edo Usaterrekako lurren probetxamenduagatik. Orreagako Monasterioak Izaon (Andatza mendiaren behealdean) lurak zituen, eta, Usurbilgo Kontzejuaren ardurapean zeuden. 1518. urteaz geroztik, Orioko maizterrek arrantza egiteko nasak jartzen zituzten Izaon, eta Usurbilgo Kontzejua eta Monasteriokoak kexatu egin ziren behin eta berriz. Azkenean, 1748. urtean epaiketa izan zen, eta erabaki zuten Izaoko lurak, "hasta donde inunda el mar en las mayores aguas" Oriori zegozkiola, XVI.az geroztik horrela izan zelako. Monasteriokoak ez zeuden ados erabakiarekin, eta urtetan Orioko Kontzejuaren aurka azaldu ziren. Bestalde, Izaoko lurretan ezin zen lanberritza egin, ez oriotarrek ezta usurbildarrek ere.

1751. urtean auzia berriz hasi zen, eta azkenean, 1808. urtean, Izaoko lurak Orreaga eta Orioren artean banatu behar zirela erabaki zen⁴³⁷.

XIX. mende bitartean Orioko Kontzejuak auziak izan zituen lurak zirela-eta, horietako batzuek pribilegio ekonomikoa baitzekarten. Hain zuzen, hainbeste eztabaida izateak zerbait esan nahi du, botere garrantzitsuak lortu nahia. Orioko kasuan herria izan zen garaile.

Beraz, Oriok, hiri-gutunaren bidez lortutako eskubideak mantendu ahal izateko, askotan izan zituen auziak inguruko herriekin edota herritarrekin.

II. GOBERNU ANTOLAKETA ARAUTEGIA IZAN AURRETIK

1. XVI. MENDERA ARTEKO ANTOLAKETA

Oriok, hiri-gutuna jaso geroztik, herriko bizitza politikoa antolatzeko eskubidea zuen. Hain zuzen, Antzinako erregimenean herria etxea balitz bezala ulertzen zen eta etxea gobernatu egin behar zen; gobernari hori Herriko Erregimentua zen eta aita baten figura betetzen zuen⁴³⁸. Horrela, herriak urtero alkatea, errejidoreak, probestuak, juradoak, eskribauak eta bestelako ofizialak izendatzeko eskubidea zuen⁴³⁹. Beraz, Donostiako Foruaren arabera, ofizialak izendatzeko eskubidea biztanleen batzarrari zegokion⁴⁴⁰. Guzti horren inguruko agiririk aurkitu ez badugu ere, badakigu 1511. urteaz geroztik, kargu berrietarako hautaketak, ofizialek bakarrik egiten zutela.

⁴³⁶ Hain zuzen ere, 1701ean Orioko Kontzejuak leku horien jabetza adierazteko honako hau agindu zuen: "(...) en la plaza, muelle y embarcadero de ella (...) se prevenga y atripule una chalupa y se embarquen en ella Domingo de Echave, síndico procurador general y poder abiente de esta villa, Joseph de Echave, menor, arrendatario de la ría y canal d'ella y su pesca, uso y aprovechamiento" (OUA, L-3. Orio eta Azkoitiako Don Antonio de Idiakezen, Santiagoko Zalduna, aurkako auziaren epaia [1627-1701]); VEKA, Masas. C/2.698/1. Leg. 638 [1692-1700]). Ikusi II. Mapa.

⁴³⁷ Auzi honen gorabeherak 1518. urtetik 1748rarte: AHN, Kontseilu Ezabatuak. Gaztelako Patronatua. Leg. 16.066. Exp. 2-3º (1748); Usurbildarrek Oriok Izaon zuen jurisdikzioaren kaltetan, lanberriak egin zituzten (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 [1616-VII-4]); OUA, C-222-2 [1751-VIII-9]); C-223-2 [1806-IX-18], C-30.2 [1803-1808]). Ikusi II. Mapa.

⁴³⁸ Ikusi "pater familias"-ari buruzko azalpena: FRIGO, D.: *Il padre di famiglia. Governo della casa e governo civile nella tradizione dell'economica tra cinque e seicento*. Bulzoni. Roma. 1985; MOZZARELLI, C.: *'Familia' del Principe e famiglia aristocratica*. Bulzoni, Roma, 1988; BRUNNER, O.: "La casa como complejo e l'antica económica europea", *Per una storia costituzionale e sociale*. 133-164. orr.

⁴³⁹ Hiri-gutuna (1379).

⁴⁴⁰ "El Fuero de San Sebastián contiene normas de organización interna: el concilium elegía todos los años una alcalde y un preboste" (NAVAJAS LAPORTE, A.: "Aproximación a las Instituciones Jurídicas guipuzcoanas, siglos XVII-XVIII", *BRSVAP*, 1982, 83. orr.).

Batzarretan biztanle guztiek parte hartzen zuten, "comunitas"en kide zirelako, eta batzarretan bildu ohi ziren herriko arazo eta gai nagusiak aztertzeko. Beraz, XVI. mendera arte, batzarrak izendatzen zituen herria gobernatu behar zuten ofizialak, eta denak arduratzen ziren arazo larrienetaz. Garai honetako dokumenturik ez dugu lortu, baina, Gipuzkoako joera orokorra aztertuta, oriotarrak ere modu berean antolatzen zirela pentsatu dugu.

2. XVI. MENDETIK AURRERAKO ANTOLAKETA

2.1. LEHEN EZBERDINTASUNAK: AUZOTASUNA

XVI. mendeko agirien arabera, Orion, Batzar Nagusia, Kontzeju Nagusi gisa ezagutzen duguna, erabat finkatua zegoen. Kontzeju Nagusia alkateak, errejidoreak eta "omes buenos, vecinos e moradores" guztiek osatzen zuten, eta herria gobernatzen zuten. Kontzeju Nagusiak honako gaiak aztertzen zituen: ofizialen hauteskundeak (nahiz eta biztanleek botorik ez izan); Kontzejuaren propioen errentak, botereak; Elizaren apaiz-benefiziari edo bikarioaren aurkezpena... Hitz batean esanda, herriari zegokion guztia. Beraz, XVI. mendeko 50. hamarkada arte, Kontzeju Nagusian oriotar guztiek parte hartu zuten, hau da, "comunitas" osoak, gizarte edo ekonomia desberdintasunik egin gabe⁴⁴¹.

Baina, pixkatera lehendabiziko desberdintasunak agertzen hasi ziren, eta, Kontzeju Nagusiko kideak izendatzeko "maila" desberdinak azaldu ziren; batetik, ofizialak; bestetik, "omes buenos"; eta, azkenik, gainontzeko herritarrak eta biztanleak. Desberdintasunak baldintza ekonomiko, kultural eta ospearean araberakoak izaten ziren. Beraz, nahiz eta garai honetan Kontzeju Nagusia herritar eta biztanle guztiek osatu, lehendabiziko desberdintasunak batzar honetan bertan egin ziren: herritarra edo "vecino" bertan jaiotakoa zen, edota denbora zehatz batez herrian bertan bizi eta ondasun materialak zituen. Biztanleak, berriz, herrian bizi zirenak ziren, agiritan "moradores" izena azaltzen da⁴⁴². Bestalde, "omes buenos" deitzen zirenak ez zuten derrigorrez ondasun materialik izan behar, gizon zintzoak zirelako; izena izaera moraletik zetorkion. ORELLAren arabera "omes buenos"ak herria fundatu aurretik bertan bizi izan zirenak ziren, "un grupo social contradistinto de los vecino y moradores, cualificados por su probidad moral (...) su renombre y fama"⁴⁴³. Beraz, gizon zintzo horiek oso garrantzitsuak ziren, eta batzuk "comunitas" osoaren ordezkari politiko bereganatu zuten.

2.2. ORDEZKARITZA POLITIKOAREN MURRIZKETA

1550. hamarkadaz geroztik Orion Kontzeju Nagusia osatzen zutenen artean desberdintasunak haunditu egin ziren, ez baitziren "omes buenos"-ak agertzen, "fijosdalgo"-ak baizik. Gainera, garai honetan biztanleak ez ziren batzarretara joaten. 1527.eko Zestoako Ordenantza izan zen, joera aldaketaren arrazoia: kaparetasuna (nahiz aitonen seme edo alaba izan ez, hainbat pribilegioren jabe izatea) juridikoki Gipuzkoa osora zabaldu zen, eta "omes buenos"ek, bereiztasuna mantendu ahal izateko beste izen bat asmatu zuten, "fijosdalgo" a alegia⁴⁴⁴.

⁴⁴¹ 1511-VI-29: "Creación de los oficiales de Orío", bertan Kontzejua, alkateak, juradoa, errejidoreak eta "omes buenos fijosdalgo de la dicha villa" parte hartu zuten, hain zuzen ere 22 herritar baino gehiagok eta biztanle askok (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215). 1511ko uztailearen 13an Kontzejuak, alkateak, juradoak, errejidoreak eta 17 "omes buenos fijosdalgo" eta biztanle askok pasaietako ontziak eta harrobiak errentan jarri zituzten (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215). Hurrengo urteetan, Kontzeju Nagusia ez zen aidatu, bertan herritar eta biztanle askok parte hartzen jarraitu baitzuten (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215, 2/1.217; Domingo de Hoa 3/1.779...).

⁴⁴² ARÍZAGA BOLOMBURU, B.: *El nacimiento de las villas... Op. cit.* 106. orr.; GARCÍA DE VALDEAVELLANO, L.: *Curso de Historia de las Instituciones Españolas*. Alianza Univ. Madrid. 1986. 543. orr.

⁴⁴³ ORELLA UNZUÉ, J.L.: *El régimen municipal en Guipúzcoa en el siglo XV*. C.A.M. Donostia, 1982. 119-120. orr.

⁴⁴⁴ TRUCHUELO GARCÍA, S.: *Gobierno municipal en la villa de Tolosa*. 1994. (Inédito) 43. orr. Ikusi ere bai ÍDEM: "Análisis de los principales rasgos políticos de la villa de Andoain en el Seiscientos", *Leyçaur*, 4, 1996, 9-97. orr.

Garai honetako agirien arabera, 1550. hamarkadaz geroztik, alkateak, erregidoreak eta gainontzeko ofizialak (orain artean Batzar Nagusiak izendatzen zituenak), Kontzeju Itxian, Erregimentuan elkartzen ziren⁴⁴⁵. Erregimentu batzarrak antolatzearen arrazoietako bat "comunitas"ean desberdintasunak egotea izan daiteke; baina, ezin dugu erabat ziurtatu, aurkitu ditugun datuak ez baitira oso zehatzak. Dena den, XVI. mendetik aurrera, Kontzeju Nagusiak batzarretan biltzen jarraitu zuen.

Beraz, garai honetako —1550.etik aurrera— gobernu antolaketaren ezaugarriak ziren: Kontzeju Nagusiak "comunitas"aren ordezkari politiko bereganatu zuen, eta Kontzeju horretan desberdintasunak ematen ziren; batetik, Erregimentua sortu zelako; eta bestetik, herriaren partaidetza murriztu egin zelako (biztanleek ez zuten bileretan parte hartzen).

3. OFIZIALAK AUKERATZEKO HAUTESKUNDE SISTEMA

XVI. mende hasieran nahiz eta Kontzeju Nagusiak erabaki guztiak hartu, Kontzejuko ofiziala izateko aukera gutxi zen. Hori guztia, ofiziala izateko zeukaten hauteskunde sistema aztertuz jakin dugu. Sei hauteskunderen berri bakarrik dugu, baina, horien arabera, horrela egiten ziren: Kontzejua elkartzen zen, hau da, alkatea, juradoa, errejidoreak, herritarak eta biztanleak. Kontzejuko alkate, jurado eta errejidoreek, hau da, ofizialek, herriko zortzi lagunen izenak proposatzen zituzten. Zortzi lagun horiek alkategaiak ziren eta zozketa bidez bi izen aukeratzen ziren, alkateak izango zirenak. Ondoren, Kontzejuko ofizialek, gainontzeko 6 lagunen (hasiera batean txarteletan proposatutakoak) eta beste herritar batzuren artean, juradoa, 4 erregidore, eliza eta ospitaleko maiordomoak izendatzen zituzten. Izendatua izan ahal izateko bertan egon behar zen. Gero, Kontzejuko alkateek, juradoak eta errejidoreek, sindiko prokuradorea hautatzen zuten. Aipatuta hauteskunde sistema 1511. urtekoa da, eta izendatzeko eta hautatzeko gaitasuna ofizialek bakarrik zuten⁴⁴⁶.

1512. urtean, hauteskunde garaian, Kontzejuko ofizialek esan zuten, gizon asko "ausentes por mar y tierra" zeudela, eta, handik aurrera gobernuak 2 errejidore besterik ez zituen izango, guztira 6 ofizial izanik. Dena dela, hauteskunde sistema 1511. urteko berbera izan zen⁴⁴⁷.

1513an, berriz, hauteskunde sistema aldatu egin zen; alde batetik, Kontzeju Nagusia batzarrean zegoela egiten zen; bestetik, ofizialgaien izaera zehaztu egin zuten: "echaron en suertes e charteles seis onbres raigados e avonados de la dicha villa" edo "seis onbres que les parezcan suficientes para la gobernación de la villa". Beraz, ofiziala izateko baldintza jarri zuten, "ome bueno" izatea eta ikusi dugun bezala, gaitasun murriztua zen. Beraz, edozeinek ezin zuen ofiziala izan. Bestalde, alkate berriek eta ofizial zaharrek elkar hartuta, juradoa, sindikoa, bi errejidoreak eta maiordomoa izendatzen zituzten. Ondoren, Kontzeju osatu berriak bakarrik edota zaharrarekin bat eginda, —edozein kasutan ofizialek besterik ez zuten gaitasuna—, eliza, ospitale eta San Martin ermitako maiordomoak izendatzen zituzten⁴⁴⁸.

Hortaz, Ordenantzak egin aurreko hauteskunde sistema Kontzeju Nagusian erabakitzen bazen ere, ofiziala izateko aukera ez zuen "comunitas"eko edozeinek, gizon zintzoei edo herritar ospetsuei bakarrik zegokien. Beraz, garbi dago Kontzejuko zuzendaritzan parte hartu ahal izateko aukera oso lagun gutxiren esku zegoela.

⁴⁴⁵ "Alcaldes, justicia y regimiento de los fijosdalgo que estamos juntos, entendiendo en cosas tocantes al gobierno de la república a llamamiento de nuestro jurado". Erregimentu batzar honetan ez zuten ez "omes buenos"ek ezta biztanleek ere parte hartu, ofizialek bakarrik (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.795 [1569-IX-4]).

⁴⁴⁶ GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.215 (1511-VI-29).

⁴⁴⁷ GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.216 (1512-VI-29).

⁴⁴⁸ Ofizial berriak hautatzeko era hau, ditugun datuen arabera, 1513-1516. urte bitartean eman zen. Ikusi: GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.216 (1513-VI-29), (1514-VI-29); 2/1.217 (1515-VI-29) (1516-VI-29).

4. KONTZEJUKO OFIZIALAK ETA HAIEN BETEBEHARRAK

Gobernu antolaketa hobeto ulertzeko Kontzejuko ofizialak zeintzuk izaten ziren eta horien betebeharrak zein izaten ziren ikusiko dugu:

- Alkateak. Orion bi alkate izaten ziren eta herriko agintaritza nagusia zuten. Herrian justizia administratzeko gaitasuna zuten, hau da, jurisdikzio zibila eta kriminala. Bestalde, alkateek herrian ordena publikoa ziurtatu behar zuten, baita jabetzak babestu, horniketak kontrolatu, etab⁴⁴⁹.

- Probestuak. Erregeak izendatzen zituen; Orion, 1508. urtera arte Kontzeju batzarretan parte hartzen zuten. ORELLAk dioenez kartzeletako gartzela eta ordena publikoa ziurtatu behar zuten, hain zuzen ere, gerora juradoak izango zuen lana. Orion, probestuak Zarautz eta Gebara familiakoak izan ziren. Badirudi kargu hau betetzen zutenek Orioko gobernutik etekin ekonomikoak ateratzen zitzutela⁴⁵⁰. Orion, XVI. mendean kargu hori desagertu egin zen, eta juradoek egin zuten probestuen zeregina.

- Erregidoreak. 1511. urtera arte lau erregidore izan ziren, baina, 1512. urtean bi erregidore izatea erabaki zen. Jurado, alkate eta erregidoreek elkarrekin egiten zuten lana: "guardar el servicio de Dios e de Su Alteza e los previlejos de la dicha villa, y pro común de la república d'ella, en conformidad en uno con las rentas e propios e vienes".

- Sindiko prokuradoreak. Nahiz eta batzuetan juradoaren lana bere gain hartu, hau da, poliziarena, prokuradoreen zeregina auzietan Kontzejuaren interesak babestea zen.

- Maiordomoa edo diruzaina⁴⁵¹: Kontzejuak zituen ondasun propioetaz eta errenten kontuetaz arduratzen zen.

- Basozaina. 1515ean azaldu zen lanbidea; eta 1511 arte beste ofizialak arduratzen ziren basoak zaintzeaz. Postu berria sortzearen arrazoia hauxe izan zen: "por quanto los ganados fásian muchos dannos en los prados e pastos e dehesas de la dicha villa en ella, de noche e de día, e muchos vesinos e estrannos cortavan los montes e arboledas del dicho concejo"⁴⁵².

- Eskribaua. Ez zen kontzejuko ofiziala; bere zeregina dokumentuak idaztea eta ziurtapen juridikoa ematea zen. Hauteskundeetan eskribaua lekukoa zen, eta han gertutako guztia idatzi eta legezko indarra ematen zion. Eskribaua Kontzejuak izendatzen zuen, hain zuzen, alkateek, erregidoreek, sindikoak, juradoak eta urte askotan herrian bizi zirenek, gaztelaniaz, "arraigados" esaten zitzaizkien⁴⁵³.

Hauteskunde bidez izendatutako ofizial berriek, hau da, alkate, jurado eta erregidoreek, Gurutzearen aurrean karguaren zina egin behar zuten, eta alkate ohiek justiziaren bara ematen zien izendatu berriei.

Kontzeju zaharreko kideek —alkate, jurado, erregidore eta "omes buenos fijosdalgo"ak—, ofizial berriei beren karguen zereginak betetzeko boterea ematen zieten:

⁴⁴⁹ ARÍZAGA BOLOMBURU, B.: *El nacimiento de las villas*. Op. cit. 108-109. orr.

⁴⁵⁰ 1498an EE.KK.ek bere "contino" Nicolas de Gevara zena Orioko probestu izendatu zuten, aurrekoak Lope Martínez de Zarauzek, utzi egin baitzuen (SAO, ZEO, F. 258 [1498-II-5]). Probestu honek ordezkari bat izaten zuen Orion, bere esanak betetzen zituena (OUA, L- 2. Orio eta Aiaren arteko auzia [1500-V-5]). Ikusi ere: ORELLA UNZUÉ, J.L.: *Régimen municipal en Guipúzcoa*. Op. cit. 111. orr.; SORIA SESE, L.: "La función judicial en los municipios guipuzcoanos en la Edad Moderna", *Revista de la Facultad de Derecho de la Univ. Complutense*, nº 77, 295-320. orr.

⁴⁵¹ Diruzainari buruzko azalpenak ematerakoan, interesgarriagoa iruditu zaigu "maiordomo" izen zaharra mantentzea.

⁴⁵² GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.217 (1515-IX-10).

⁴⁵³ GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.817 (1599-VI-20).

"(...) para poder sacar o otorgar qualesquier obligaciones que bieren les cunplan para las nesçesidades del concejo e para faser qualesquier derramas, repartimientos que vieren que cunplen al dicho concejo, e obligando a los bienes e propios e rentas del dicho concejo de los pagar en los plazos que pusyeren e so las penas que otorgaren"⁴⁵⁴.

Laburbilduz, XVII. mende bitartean, Orioko ordezkarriz politikoak ofizialek bete zuten, eta, herriko arazoak Kontzeju Nagusiak aztertzen eta gobernatzen zituen. 50. hamarkadatik aurrera, Kontzejuko gobernuan parte hartzeko aukerak gutxitu egin ziren; batetik, biztanleek parte hartzen ez zutelako; eta bestetik, Kontzejuko ofizialak Erregimentuan antolatzen hasi zirelako, eta horren ondorioz, lehen Kontzeju Nagusiak hartzen zituen erabakiak Erregimentuak hartzen zituelako.

III. ORIOKO KONTZEJUAREN ARAUTEGIA. UDAL POLITIKAREN EGITURA: ORDENANTZAK

1. LEGE JURIDIKOEN ESPARRUA: KOROA ETA PROBINTZIA

Orioko lehen iturri juridikoa hiri-gutuna izan zen, baina ez zituen eguneroko bizitzako zenbait alde garrantzitsu arautzen, eta beharrezkoa izan zen arau berriak ezartzea. Orion, Gipuzkoako gainontzeko beste herrietan bezala, Probintziako Batzar Nagusiek emandako ordenantzek, forua osatzen zuten, eta era berean errege-zuzenbidearen menpe zeuden⁴⁵⁵. Hortaz,

*"Las corporaciones municipales debían observar las disposiciones que les afectaban, que eran emanadas por la entidad política supramunicipal en la que se insertaban, es decir, la Provincia representada en Juntas; de la misma manera, esta jerarquización de poder establecida entre los diversos cuerpos políticos que integraban el Reino, situaba a la autoridad del monarca y, por lo tanto, a las leyes emanadas del ejercicio de su potestad, en leyes superiores de obligado cumplimiento por los cuerpos inferiores, principalmente aquellas disposiciones legales que les atañían más directamente"*⁴⁵⁶.

⁴⁵⁴ GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215 (1511-VI-29).

⁴⁵⁵ Probintzian, Batzar Nagusien ordenamenduak 1583an bildu ziren, hain zuzen ere, Cristobal Lopez de Zandateguik eta Luis Cruzatek landu zutena (*Recopilación de Leyes... Op. cit.*). Nahiz eta bilduma hori erregeak ez baiezatu, Probintzian erabilia izan zen. 1696an, berriz, erregeak bere baimena eman zion Aranburuk egin zuen Foru eta Pribilegioen Bilduma Berriari (ARAMBURU, L.: *Nueva Recopilación... Op. cit.*). XVIII. mendean, Probintzian arautegi desberdinak izan ziren, herriak bete behar zituztenak. Estatu mailan, berriz: 1348. urteko Alfonso XI.ak agindutako "Ordenamiento de Alcalá" rekin, 1505. urteko Leyes de Toro, 1567. urteko Nueva Recopilación, eta XVIII. eta XIX. mendean egin ziren Legeen Bildumak (Carlos IV, 1810-1822, urte bitartean Korteek egin zituztenak, Fernando VII.aren Dekretuak, Isabel II.arenak...) Ikusi APARICIO PÉREZ, B.: *Poder municipal. Economía y sociedad en la ciudad de San Sebastián (1813-1855)*. Doctor Camino, Donostia, 1991, 349. orr.

⁴⁵⁶ TRUCHUELO GARCÍA, S.: *Gobierno municipal. Op. cit.* 57. orr.; ÍDEM: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1997.

2. ORIOKO ORDENANTZAK

2.1. ARAUTEGIA EGITEKO ARRAZOIAK

Oriok, juridikoki, errege eta probintziaren legeak onartzen bazituen ere, ez ziren nahikoak herriko arazo guztiak arautzeko; horregatik, eta herriak berarentzako araudia emateko zuen gaitasunagatik, arautegi bat idatzi zuen. 1607. urtean, Orioko Kontzejuko gobernua Ordenantzak idaztea erabaki zuen. Orioko alkatea eta bere ordezkaria, bi errejidore, maiordomoa, sindikoa, juradoa eta 14 herritar, "como la mayor e más sana parte" Kontzeju Nagusian bilduta zeudela, alkateak esan zuen Ordenantzak idazteko beharra somatzen zuela herrian. Alkatearen ustetan ordurarte Ordenantzarik ez izatea kaltegarria izan zen herriarentzat, eta arazoei —iruzurrak— aurre egiteko Kontzejuak Ordenantzak egingo zituela esan zuen⁴⁵⁷.

Ordenantzak aztertuz gero zera somatu dugu: Kontzeju Nagusian egin zirela aipatzen bada ere (arautegia herritar eta biztanle guztientzat nahi zuten) herriarren ordezkaritza oso txikia izan zen, ofizialez gain 14 herritar bakarrik, eta, ez zegoen biztanlerik. Beraz, Kontzeju Nagusian "comunitas"en ordezkaritza oso txikia zen.

Ordenantzak idatzi ondoren alkateari boterea eman zioten Erregearen baieztapena lortzeko, beraz, Ordenantzek lege-indarra izan zuten⁴⁵⁸.

2.2. ORDENANTZEN ESKEMA OROKORRA

Ordenantzak 53 kapitulu zituen; lehenengo hamar atalak hauteskundeei buruzkoak ziren: hauteskunde eguna, lekua, maiztasuna, egiteko modua, hautatzaileak, hautagaiak, ofizialen zereginak, kargua betetzeko baldintzak eta gaitasun eza, ofizioaren hutsaldiak eta zigorrak, kontrolak (kaparetasuna eta jabegotasunak), jurisdikzio gaitasuna, etab. zehazten ziren.

Gainontzeko kapituluek, besteak beste, ekonomia eta administrazio mailako ofizialen betebeharrak, ondasun nahiz zerbitzuen prezioak, epaitzeko gaitasuna, jurisdikzio mugen bisitaldiak, pribilegioen babesa, horniketak, pisu eta neurriak, salmenta publikoak, udal ondasun eta propioen babesa, basoak, lanberriak, abereak, arrantza, osasuna, ongintate zerbitzua, etab. arautzen zuten.

Beraz, Ordenantzen bidez Orio gobernatu eta administratzeko arauak ezarri ziren, eta "comunitas" osoaren bizitza antolatzea zuen helburu. Ordenantzek XIX. mendera arte iraun zuten.

Ordenantzen sailkapen orokorra aipatu ondoren, jarraian, gai bakoitza gehiago sakontzen ahaleginduko gara.

⁴⁵⁷ "Señor alcalde propuso y dixo cómo conbenía y hera nescesario e vtil en esta dicha villa hubiese para su gobierno unas buenas hordenanças para que guardasen y hexecutasen, con que primero e ante todas cosas se confirmasen por Su Magestad e por los señores presidentes e oydores y de los demás de su Consejo Supremo, porque por esperiençia se a visto los daynos e ynconbenientes que en esta dicha villa en los años pasados avía avido por no tener las dichas hordenanças como conbenían para su gobierno, utilidad e provecho, e agora, por quitar todo fraude, colusión y engaño, aviendo tratado y comunicado y conferido entre sí en el dicho Conçejo, acordaron e hizieron las hordenanças seguiétes" (OUA, Orioko Udal Ordenantzak. Hitz-aurrea. C-III, D-3 [1607-IX-6]; ikusi ere TRUCHUELO GARCÍA, S.; TRUTXUELO GARCÍA, M.: "Reglamentación política de las villas guipuzcoanas en la alta edad moderna: las Ordenanzas concejiles de Rentería, Tolosa, Hondarribia y Orio", *Vasconia*, 25, EI-SEV, 1998, 357-383. orr.).

⁴⁵⁸ Erregeak 1607ko azaroaren 3an eman zuen baieztapena (OUA, Udal Ordenantzak. C-III, D-3 [1607]).

IV. KONTZEJUKO OFIZIALAK AUKERATZEKO HAUTESKUNDEAK (XVI-XIX MENDE BITARTEAN)

1. HAUTESKUNDEEN OINARRIA: KARGUAK BERRITZEKO ASMOA

Gipuzkoako herri guztiek izendatzen zituzten beren gobernuaz eta administrazioaz arduratuko ziren ofizialak. Herriak gobernaria aukeratzen zuen ondasunak administratzeko; beraz, udal askatasunaren islada litzateke⁴⁵⁹.

Orioko gobernuko ofizialen karguak, hau da, alkateak, errejidoreak, sindikoa, maiordomoa, juradoa eta basozaina, urte beterako izaten ziren, beraz, urtero aldatzen ziren hauteskunde bidez. Badirudi, boterea hiritar guztiek hauteskunde bidez hautatutako ordezkarien eskuetan zegoela, eta demokrazia ezartzeko ahalegina egiten zutela. Baina, ikusiko dugun bezala, hauteskunde sistemak berak, printzipio hori baztertzen zuen.

2. HAUTESKUNDE EGUNAK

Hauteskunde eguna, historian zehar, aldatuz joan zen:

- 1690. urtera arte, San Pedro egunean, ekainaren 29an, izan zen. Hauteskunde eguna Ordenantzetan arautu zen, eta XVI. mendetik aurrera egun horretan egin ohi zen⁴⁶⁰.

- 1691tik 1700era ez dugu hauteskundeen berririk aurkitu, baina, bestelako agirien bidez jakin dugu, Santiago egunean ere, uztailaren 25ean, Kontzejuko ofizialen karguak berritu egin ohi zirela⁴⁶¹.

- 1701etik 1760ra bitartean hauteskundeak San Miguel egunean izan ziren, irailaren 29an.

- 1762tik aurrera eta XIX. mendera arte, ofizialak urteberri egunean, urtarrilaren 1ean, hautatzen ziren.

3. HAUTESKUNDEEI BURUZKO ITURRIAK

Orioko Artxiboan, Gipuzkoako gainontzeko herrietan gertatzen ez den bezala, ez da Hauteskunde Libururik gordetzen. Beraz, Udal-akten liburueta jo eta hauteskunde-aktak aztertu behar izan ditugu. Oñatiko Protokolo Artxiboan XVI. mendeko hauteskunde-agiriak aurkitu ditugu; guztira, 61 hauteskunderen berri dugu (1511-1808 urte bitartekoak)⁴⁶². Hurrengo hauteskunde-agiria 1876. urtekoa da, foruak ezabatu egin baitziren.

Beraz, 1511. urtetik 1808. urtera arte Orioko hauteskundeak nola antolatu ziren ikusiko dugu.

4. GIPUZKOAKO UDALEN HAUTAKETA SISTEMAK

Gipuzkoako herri askotan, XVI. mendera arte, Kontzeju Nagusian bilduta, herritarrek izendatzen zituzten gobernuko ofizialak. Baina, Orion ez dugu joera horren lekukorik.

⁴⁵⁹ TRUCHUELO GARCÍA, S.: *Gobierno municipal. Op. cit.* 103. orr.

⁴⁶⁰ "Sean nombrados y helegidos por el día del señor San Pedro del mes de junio de cada un año" (Udal Ordenantzak, 1. Kapituluua [1607]).

⁴⁶¹ Kontzejuak aztertu ondoren, horrela izan zela pentsatu dugu (OUA, *Libro de Cuentas*).

⁴⁶² 1511-1516 urte bitartean eta 1615. urteko hauteskundeak (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215, 2/1.216, 2/1.217; Bartolome de Arbe, 3/1.828); bestalde, 1703-1704, 1706, 1728, 1730, 1736-1738, 1745-1766, 1781, 1783-1794, 1796-1798, 1800-1808 urteetako hauteskundeak (OUA, C-219, C-221-1, C-221-2, C-222-2, C-223-1, C-223-2).

XVI. mendetik aurrera Gipuzkoan bi hauteskunde mota ezarri ziren; batetik, ofizial zaharrek zuzenean hautagaiak izendatzen zituzten; eta bestetik, politikan aritzeko baldintzak betetzen zituzten herritarren artean hautagaiak izendatu eta horien artean ofizioak zozketatzen ziren.

Lehenengo sistemarekin (*cooptación*), hautatua izateko aukerak gutxi ziren. Arazo ugari sortarazi zituen, eta XVI. mendetik aurrera, Gipuzkoako herrietan sistema hori baztertzen hasi ziren eta zozketaren sistema (*insaculación*) hedatu egin zen, horrela:

*"(...) se lograban unificar los sistemas y terminar con un procedimiento descaradamente oligárquico, la cooptación, permitiendo cierta ampliación de la base electoral a un mayor número de vecinos que podían optar, mediante el sorteo, a salir como electores, y constituyéndose al mismo tiempo, como una garantía para la alternancia en el ejercicio del poder por parte de los diferentes grupos"*⁴⁶³.

Gipuzkoako herri askotara zabaldu zen zozketaren sistema eta Oriora ere heldu zen, baina Orion ez zen beste herrietan bezain garbia, aurreko sistema edo oligarkikoa XVI. mendean erabat sustraitua baitzegoen.

5. HAUTESKUNDEAK EGITEKO DEIALDIA ETA BILTZARRA

Orion, gobernuko ofizialak berritzeko, Kontzeju Nagusian biltzen ziren, eta, ofizial zaharrek, herritarrek eta biztanleek parte hartzen zuten. Baina, esan dugun bezala, 1550. urteaz geroztik, Kontzeju Nagusia ofizialek eta herritar batzuek bakarrik osatzen zuten. Esate baterako, 1511-1516 urte bitartean, herritarren %17ak hartu zuen parte, eta partaidetza gutxituz joan zen 1550. urtetik aurrera⁴⁶⁴. Herritar batzuek, nahiz eta hauteskunde batzarretan egoteko eskubidea izan, ez zuten hautagai izateko aukerarik ezta hautatzeko eskubiderik ere; beraz, lekukoak besterik ez ziren izaten.

Batzarra modu honetan hasi ohi zen: "En la sala concejil d'esta noble y leal Villa Real de San Nicolas de Orio (...) haviéndose juntado a son de canpana tañida, según lo tienen de uso y costunbre el Concejo, justicia y regimiento y vecinos hijosdalgo"⁴⁶⁵. Hasiera batean hauteskundeetarako deialdia ofizial zaharrei eta, herritar eta biztanle batzuei bildaltzen zitzairen, baina XVII. mendetik aurrera, ofizialei eta herritar gutxi batzuei besterik ez.

6. KONTZEJUKO KARGUETAN ARITZEKO BALDINTZAK ETA KONTROLAK. HAUTAGAIK ETA HAUTESLEAK

Kontzeju Nagusian bildu ondoren hautagaiak izendatu ohi ziren. Orion, nahiz eta hauteskundeak Kontzeju Nagusian egin, hautesle bakarrak ofizial zaharrak ziren, eta herritarrek lekukoak besterik ez ziren izaten. Hain zuzen, 1511n, ofizial zaharrak izan ziren hautesleak; eta, 1512-1516 urte bitartean, ofizial zaharrak eta alkate berriak izan ziren. 1607. urteko Ordenantzetan, ordea, aurrerantzean alkateak, errejidoreak eta maiordomo zaharrak izango zirela hautesleak erabaki zen, eta hautatutako alkateak eta errejidoreek beste karguak izendatzen zituzten. 1615. urteaz geroztik ofizial zaharrak izan ziren hautesleak.

⁴⁶³ Hala ere, zozketa edo "insaculación" sistemaren oinarria murriztu egin zen, hain zuzen, gobernuko karguak betetzeko baldintzak ez zituen edozein herritarrek betetzen (TRUCHUELO GARCÍA, S.: *Gobierno municipal. Op. cit.* 112. orr.) Gipuzkoako hainbat hauteskunde sistemarekin parekatzeko ikusi, SORIA SESÉ, L.: *Derecho municipal guipuzcoano.* 167-178. orr.

⁴⁶⁴ 1550. hamarkada arte hauteskundeetan, batzuek beste, 25 herritarrek parte hartzen zuten. Izan ere, bertan ere biztanle asko zeuden. XVII. mendean, berriz, kopurua gutxitu egin zen, hain zuzen ere, 6 besterik ez ziren, hau da, % 5a, eta, garai horretan eta datorrenean, biztanleek ez zuten hartu. Horrela izan zen XVIII. mende erdira arte, gero, hautagaiek eta hautatuek bakarrik parte hartzen zuten.

⁴⁶⁵ OUA, C-222-1 (1747-IX-29).

6.1. BALDINTZAK: KAPARETASUNA ETA JABETZAK

Edozeinek ezin zuen hautagai izan, hain zuzen, 1513. urtetik aurrera hautatua izateko, baldintza hauek bete behar ziren:

*"(...) onbres buenos arraigados e avonados de la dicha villa (...) e facíficos, de buena bida y costumbres, que sean suficientes e áviles (...) que no sean padres, ni hijos, ni cuñados suyos (...) e si alguno e algunos naturales d'esta dicha villa quisieren entrar y entraren en Conçejo e ajuntamiento de los demás fijosdalgo, no sean admitidos sin que tengan bienes raíces, casas e mançanal e huerta como es de huso y costumbre (...) por espacio de una año y sea vezino conoçido en la dicha villa"*⁴⁶⁶.

Begi bistan da, hautagaia izateko aukerak oso gutxi zirela; baita Kontzeju Nagusian parte hartzeko gaitasuna ere, herritarra izatea, kaparetasuna —auzotasuna lortu nahi zuten kanpotarrek beren noblezia frogatu behar izaten zuten—eta ondasunak ("millares") izatea beharrezkoa baitzen. Beraz, Kontzeju Nagusian parte hartzen zuten herritarrek gero eta gutxiago ziren.

Kaparetasuna Gipuzkoako Ermandadeak ezarri zuen 1379an, eta 1527an, Zestoako Batzar Nagusiak berreskuratu eta erregeak baieztatu egin zuen⁴⁶⁷. Hazkunde demografikoaren eraginez jende asko etorri zen Gipuzkoara atzerritik eta baita inguruko probintzietatik ere. Gipuzkoan bizi nahi zutenek aukeratutako herriko alkateari kaparetasun agiria eman behar zioten. Kaparetasuna Orion Udal Ordenantzek arautu zuten.

Kaparetasuna beharrezkoa zen Kontzejuko ofiziala izateko eta Kontzeju Nagusian parte hartu ahal izateko⁴⁶⁸. Oriora bizitzera etortzen zirenek (atzerritarrek edo gipuzkoarrak) kaparetasun agiria aurkeztu behar zutela agindu zuen Orioko Kontzejuak 1707an. Bestalde, 1767an Kontzejuak esan zuen, Batzar Nagusien aginduak beteaz, atzerritarrek kaparetasuna frogatu behar zutela, bestela herritik kanpora bidaliko zituztela⁴⁶⁹. Baina, 1790. urtean arazo ekonomiko eta demografikoak hasi zirenez, eta Orion ofizialak izateko nahikoa jende ez zegoenez, Kontzejuak kaparetasun agiriak aurkeztea agindu zuen, hautagaien kopurua gehitzeko eta Kontzeju Nagusiko partaidetza handitzeko⁴⁷⁰.

Gainera, gobernuan parte hartu ahal izateko, bai Kontzeju Nagusian eta bai gobernuko ofizialgaia izateko, baldintza ekonomikoa ere bazen, "millares" izenekoa⁴⁷¹. Horren arabera, hautagaia izateko ondasun jakin batzuk edukitzea beharrezkoa zen; eta, batzuetan emazteak bere ondasunak ematen zizkion senarrari gobernuko partaide izateko⁴⁷². Gure herriari dagokionean, ez dakigu zenbateko ondasuna zen beharrezkoa gobernukide izateko.

⁴⁶⁶ Udal Ordenantzak. 3. Kap.

⁴⁶⁷ Baieztapena 1583 eta 1696 urtetako Bildumetan daude, hain zuzen ere, Título XLI, Ley 2, cap. 2. Erregeak Madrilen baieztu zuen, 1527ko uztailaren 13an.

⁴⁶⁸ Udal Ordenantzak. 48. kap.

⁴⁶⁹ OUA, C-219 (1707-VIII-7); GAO, Kaparetasunak 290.15 (1767).

⁴⁷⁰ OUA, C-223-2 (1790).

⁴⁷¹ "Millares" zenbait ondasun mila marabeditan preziatuak ziren (SORIA SESÉ, L.: *Derecho municipal guipuzcoano. Categorías normativas y comportamientos sociales*. IVAP, Oñati, 1992).

⁴⁷² Esaterako, Josepha Martina de Allurraldek, Azperro Etxaldea eman zion bere senarrari, Jose Antonio de Olaskoagari, Kontzejuan sartu ahal izateko. Josepha Antonia de Manterolak ere senarrari eman zizkion ondasunak, Miguel de Oskortari; Ana Antonia de Agotek Francisco Antonio de Segurolari eman zion (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.944 [1797-XII-30]; 3/1.947 [1800-X-21]; [1800-XII-23]).

Beraz, baldintza ekonomikoak eta kaparetasunak herritarren arteko desberdintasunak areagotu zituen, eta bestalde, herritarrek gero eta aukera gutxiago zuten agintera heltzeko⁴⁷³.

6.2. BATZARREAN EGOTEKO OBLIGAZIOA

Hautagai izateko beste baldintzetako bat, hauteskundera egiten zen momentuan bertan egotea zen. Orion, hala ere, ez zen baldintza hori betetzen, askotan bai hautesleak eta bai hautagaiak kanpoan izaten zirelako hauteskunde egunean. Horrelakoetan, kanpoan zegoen ofizialaren botoa beste ofizialek aho batez ematen zuten. Hori zela eta, kexak izan ziren, baina, ez ziren sekula aintzat hartuak izan⁴⁷⁴. Horrezaz gain, hauteskundeetan izaten ez ziren hautagaiak aukeratuak suertatuz gero, ez zuten beren kargua behar bezala betetzen, herritik kanpo denbora luzea ematen zutelako, eta, hori nabarmena izan zen XVIII. mende erdialdetik aurrera. Izan ere, alkate kargua ohorezko izendatzea bihurtu zen, eta aukeratutako pertsonak ez zituen karguaren beharrak betetzen. Beraz, horrek guztiak eragina izan zuen Orioko gobernu antolaketa.

Hautatua izateko, beraz, aukerak gutxi ziren. Guzti honi gaineratu behar zaio Ordenantzetan emandako beste araua: debekatuta zegoen ofizial zahar eta hautatu berriaren arteko enidetasuna. Baina, ikusiko dugun bezala, ez zen baldintza hori betetzen, eta gobernu familia edo talde gutxi batzuren eskuetan egon izan zen askotan.

6.3. BALDINTZA KULTURALAK

Orion, alkate izateko, irakurtzen eta idazten jakin behar zen⁴⁷⁵. Hau da, alkateek gaztelaniaz idazten eta irakurtzen jakin behar zuten; baina, oriotarren hizkuntza bakarra euskara zen, eta, eskribauek eta apaizek bakarrik zekiten eta egiten zuten gaztelaniaz. Dena dela, aurkitu ditugun agiri ofizial gehienetan, eskribauaren sinadurarekin batera alkatearena ere azaltzen da. Beraz, XVII. mendea arte, alkateek bere izena, behintzat, idazten bazekiten. XVII.etik aurrera, ikasteko aukera gehiago zutenean, beste ofizialen sinadurak ere ageri dira, eta XVIII. mendetik aurrera normala zen sinadura desberdinak azaltzea agirietan.

6.4. BATERAEZINTASUNAK

Ordenantzetan aipatzen zen ofizialek ezin zutela Kontzejuaren ondasun propioak errentan hartu⁴⁷⁶. Hala eta guztiz ere, araua ez zen askotan bete, hurrengo atal batean, ofizialen betebeharrak aztertzerakoan, ikusiko dugun bezala.

7. ORIOKO HAUTESKUNDE SISTEMA (XVI-XIX MENDEETAN)

Historian zehar, Orion, gobernu berria hautatzeko sistema askotan aldatu zen. Hain zuzen, aurkitu ditugun 61 hauteskundeak ezberdinak dira. Nahiz eta 1607an Ordenantzek hauteskunde sistema arautu, hauek izan ziren hainbeste aldaketen arrazoiak: legez kanpo gobernuakide ugari izendatu ziren; pertsona bera kargu bereberetan aritzen zen urte askotan; hautesle eta hautagai izateko aukera gutxi zegoen, eta ondorioz, partaide gutxi izaten zen hauteskundeetan, eta abar. Guzti horren ondorioz, familia gutxi batzuren esku egon zen gobernu. Dena dela, Orio herri txikia zenez, ez da arraroa horrelakoak gertatzea.

⁴⁷³ Hain zuzen, "la antigua oligarquía de los parientes mayores revive otra basada en la posesión de bienes.. se exige una cierta cantidad de bienes raíces (los millares) para acceder a los cargos municipales" (DOMÍNGUEZ ORTIZ, A.: *Sociedad y estado en el siglo XVIII español*. Ariel Historia, Barcelona, 1984, 169-170. orr.).

⁴⁷⁴ Adibidez, Juan Beltran de Illunbek 1746. urteko hauteskundetan esan zuen ezin zela kanpoan zeuden hautagaiak izendatu. Nahiz eta bere kexa azaldu hauteskundeak onartu egin ziren (OUA, C-222-2 [1746-IX-29]). Bestalde, hauteskundeetan interesatua bertan egotea obligazioa zen erreinuaren legeetan (CASTILLO DE BOBADILLA, J.: *Política para corregidores*. Libro I, Cap. XV, 39, 42. zenb.)

⁴⁷⁵ Udal Ordenantzak. 3. kapitulua.

⁴⁷⁶ Udal Ordenantzak, 46. kapitulua.

7.1. HAUTESKUNDEEN ARTEKO BERDINTASUNAK: IZENDATZE ZUZENA ETA ZOZKETA

Orion, hauteskunde sistema desberdinak izan ziren, baina, denetan, ofizial zaharrek izendatzen zituzten beren txanda hartu behar zutenak. Batzuetan, ofizial guztiek parte hartzen zuten hautaketan; eta bestetan, alkateak, errejidoreak eta maiordomoak bakarrik. Beraz:

- Batzuetan, ofizial zaharrek, banaka edo elkar hartuta, izen bat edo gehiago proposatzen zuten. Proposatutako izenen artean zozketa egiten zen eta, ondoren, ofizio bat edo gehiago ematen zitzaien hautatu berriei.
- Bestetan, ofizioak ez ziren zozketatzen, eta ofizial zaharrek, banaka edo denek batera, ofizio baterako edo gehiagorako izendatzen zuten, zuzenean, hautatu berria.

7.2. HAUTESKUNDE EREDUAK

Beraz, orain arte esandako guztia kontuan hartuta, hauteskundeak horrela egiten ziren:

a) 1511. urtean, ofizial zaharrek zortzi hautagai proposatu zituzten, eta horien artean bi alkateen postuak zozketatu ziren. Jarraian, aho batez eta zuzenean, jurado, errejidoreak, maiordomoa eta bestelako batzuk (elizari, San Martin ermitari eta ospitalari zegozkien maiordomoak) hautatu zituzten. Ondoren, ofizial hautatu berriek, (2 alkate, 4 errejidore eta juradoa) aho batez eta zuzenean, sindikoa (baso-zainaren lana ere egiten zuen) hautatzen zuten. Beraz, hauek izan ziren aurreneko hauteskundeen ezaugarriak⁴⁷⁷.

b) 1512ko hauteskundeetan, berriz, aldaketa batzuk izan ziren: ofizial zaharrak ziren hautesle bakarrak. Horiek sei lagun proposatzen zituzten, eta seiak bi alkateen zozketan sartzen ziren. Bestalde, ofizial zaharrek eta alkate berriek, juradoa, maiordomoa, bi errejidoreak, sindikoa eta basozaina (baita eliza, ospitale eta San Martingo maiordomoak ere) aho batez eta zuzenean hautatzen zituzten. Beraz, alkate izateko aukera txikiagoa zen. Sistema honek, orokorrean, 1512tik 1516ra bitartean iraun zuen⁴⁷⁸.

c) 1607ko Ordenantzen arabera, hauteskunde sistemak modu honetan izan behar zuen: alkateak, bi errejidoreak eta maiordomo zaharrak ziren hautesleak. Horiek, aho batez lau hautagai proposatzen zituzten. Izenak lau txarteletan idatzi eta ontzi batean sartu ondoren zozketa egiten zen. Aukeratutako lehen izena alkatea zen; bigarrena, alkate ordea; eta, hirugarrena eta laugarrena, errejidoreak. Zozketan alkate eta errejidore postuetarako hautatutakoek, gainontzeko ofizioak zuzenean eta aho batez hautatzen zituzten: maiordomoa, sindikoa (elizako maiordomoa ere izango zena), eskribaua eta basozaina. Beraz, alkategaiak eta errejidoregaiak zuzenean proposatzen

⁴⁷⁷ 1511n, Juanes de Lertxundi eta Nicolas de Endaia alkateek, Martin de Forseta juradoak eta Juan Martinez del Puerto, Pedro de Urreizmendi, Domingo de Miranda eta Juan de Errialde errejidore zaharrek, aho batez 8 izen proposatu zituzten: Miguel de Argiain, Juan de Urreizti, Pedro de Urreizmendi, Domingo de Miranda, Juan Perez de Aldape, Martin de Aia, Juan de Gabiola eta Miguel de Errialde. Horiek bi alkateen ofizioen zozketan sartzen ziren, beraien izenekin 8 txartel eginez. Zozketan Miguel de Argiain eta Juan de Gabiola atera ziren alkate izateko. Ondoren, ofizial zaharrek aho batez eta zuzenean, Domingo de Miranda jurado hautatu zuten; errejidore Juan de Urreizti, Cristobal de Aganduru, Juan Otxoa de Oribar eta Juan de Argiain. Bestalde, Juan de Gabiola elizako maiordomo hautatatu zuten; San Martingoa Juango de Aganduru, eta ospitalekoa Martin de Forseta. Bestalde, Kontzeju berria hautatu ondoren, horrek zuzenean eta aho batez beste ofizio batzuek hautatzen zituen, esaterako, sindikoa: Domingo de Miranda, Pedro de Urreizmendi eta Juan de Aganduru (GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.215 [1511-VI-29]).

⁴⁷⁸ Adibidez, 1514an, Juan Perez de Aldape eta Asencio de Segura alkateek, Cristobal de Aganduru eta Miguel de Argiain errejidoreek eta Pedro de Urreizmendi maiordomoak, 6 izen proposatu zituzten bi alkateen zozketan ateratzeko. Dokumentuan ez dira izen horiek agertzen, baina, San Juan de Aldape eta Juanes de Agote hautatu zituzten alkate. Ofizial zahar hauek eta alkate berriek, zuzenean eta aho batez, Petri de Olloki izendatu zuten jurado; errejidore lanak egiteko, Juan de Aganduru eta Domingo de Miranda hautatu zituzten; maiordomo, berriz, Cristobal de Aganduru. Bestalde, aipatu guztien artean elizako maiordomo Miguel de Argiain izendatu zuten; eta, ospitalekoa Juan de Etxaniz (GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 3/1.216 [1514-VI-29]). Hauteskunde sistema hori 1512-1516 urte bitartean eman zen.

zirenez, kargu horiek betetzeko aukera txikiagoa zen, aurreko urteetako hauteskondeekin konparatuta. Aipatu hauteskunde modua Ordenantzetan arautu zen arren, ez zen hurrengo urteetan bete⁴⁷⁹.

d) 1615etik 1808ra bitartean izandako hauteskundeetan ofizial zaharrak izan ziren hautesleak. Gainontzean, hauek izan ziren ezaugarri nagusiak:

* Hautagaiak zuzenean izendatzen ziren, jarraian zozketa egin eta ofizioak banatu ahal izateko. Ondoren, gainontzeko ofizialak, aho batez eta zuzenean aukeratzen ziren.

- Ofizial zaharrek, aho batez, hautagaien izenak ematen zituzten, eta txarteletan apuntatzen ziren. Izen kopurua, jakina, ofizial zaharren partaidetzaren arabera izaten zen. Beraz, sei, bost, lau, hiru, bi edo txartel bakarra egon zitekeen, eta horien arabera banatzen ziren ofizioak.

- Zozketan sartzen ez ziren gainontzeko ofizioak, ofizial zaharrek, aho batez eta zuzenean hautatzen zituzten. Hemen, berriz ere, hautatutako ofizio kopurua, ofizial zaharren partaidetzaren arabera izaten zen⁴⁸⁰.

* Batzuetan, ofizial zaharrek hautagai bana proposatzen zuten; eta bestetan, ofizial zahar guztiak ez zuzenean, aho batez eta elkar hartuta proposatzen zituzten. Hautagaien artean zozketa egiten zen, beti ere hautesle kopuruaren arabera. Gobernu osatzeko falta ziren ofizioak, aho batez eta zuzenean izendatzen zituzten ofizial zaharrek⁴⁸¹.

* Hauteskunde sistema honetan beste aldagai bat zegoen: ofizial zahar guztiak, aho batez eta zuzenean, ofizio berriak izendatzen zituzten. Izan ere, kasu honetan zozketa bakarra egiten zen kargu txiki bat aukeratzeko. Zozketa hau ez zen erabiltzen kargu garrantzitsuak aukeratzeko⁴⁸².

⁴⁷⁹ Udal Ordenantzak, 1-6 kapituluak. (1607).

⁴⁸⁰ Adibidez, 1728an ofizial zahar bakoitzak, banaka, hautagai izateko izen bat proposatu zuen: Ignacio de Illunbe alkateak, Asencio de Azpillaga; Domingo de Illunbe alkateak, Juan de Lertxundi; Nicolas de Hoa errejidoreak, Miguel de Areizaga eta Manuel de Jauregieta sindikoak, Juan Lorenzo de Etxebeste. Bost izen horiekin txartelak egin ziren eta beste bost txarteletan, alkate, alkate, erregidore, erregidore eta sindikoa idazten zen zozketa egiteko. Zozketaren emaitzaren arabera, urte horretan gobernu horrela banatu zen: Francisco de Agote eta Miguel de Areizaga alkate, Juan Lorenzo de Etxebeste eta Juan de Lertxundi, erregidore eta Asencio de Azpillaga, sindiko. Bestalde, gainontzeko ofizioetarako, hau da, maiordomorako, ofizial zahar guztiak aho batez eta zuzenean Joseph de Etxabe kapitaina hautatu zuten (OUA, C-222-2). Beste kasu batean, hain zuzen ere, 1760an, ofizial zahar batzuek, bi alkateek eta erregidore batek izen bana proposatu zuten: Francisco de Lertxundi Berraiarza alkateak, Ignacio de Allurralde; Nicolas Antonio de Lertxundi Ainzia alkateak, Juan Beltran de Illunbe; eta, Francisco de Azpillaga erregidoreak, Ignacio de Lertxundi Ainzia. Horien artean, bi alkate ordezkari eta erregidore postua zozketatu ziren. Horrela, Juan Beltran de Illunbe eta Ignacio de Lertxundi Berraiarza alkateorde hautatuak izan ziren, eta Ignacio de Allurralde erregidore. Bestalde, ofizial zaharrek, aho batez eta zuzenean, gainontzeko 5 ofizioetan arituko zirenak hautatu zituzten: Don Agustin de Iturriaga eta Don Juan Joseph de Garagorri y Etxebeste alkate; Joseph de Lertxundi Berraiarza erregidore; Sebastian de Manterola sindiko; eta Joaquin de Portu maiordomo (OUA, C-221-2). Hautagaien izendatze zuzena eta zozketa, eta denen artean aho batez eta zuzenean ofizioen hautatze sistema 1706, 1728, 1730, 1736, 1745, 1746, 1748, 1749, 1750, 1752-1760, 1764, 1765, 1766, 1783, 1785-1789, 1792 eta 1793an eman zen. Urte horietan zehar, ofizioen izendatze zuzena eta zozketa kopurua desberdinak izan ziren eta, horien arabera, aldagai ezberdinak sortu ziren.

⁴⁸¹ 1751n, adibidez, ofizial bakoitzak hautagai izateko eta zozketan sartzeko izen bat eman zuen: Francisco de Manzidor alkateak, Francisco de Lertxundi Berraiarza; Francisco de Azpillaga alkateak, Joakin de Portu; Juan de Lertxundi erregidoreak, Francisco de Agote. Bestalde, erregidore zaharra hil egin zenez, eta sindikoa kanpoan zegoenez, beste ofizial zahar guztiak, aho batez, zozketarako izen batzuek proposatu zituzten, esaterako, 1751n Juan Lorenzo de Etxebeste eta Domingo de Lertxundi. Izen horien artean zozketa egin zen, eta ofizioen banaketa egin ondoren horrela gertatu zen: Francisco de Agote eta Domingo de Lertxundi alkate; Juan Lorenzo de Etxebeste eta Joakin de Portu, erregidore; eta Francisco de Lertxundi Berraiarza, sindiko. Horretaz gain, ofizial zahar guztiak, zuzenean eta aho batez, Manuel de Jauregieta maiordomo izendatu zuten (OUA, C-221-1). Bestalde, 1784an, ofizial zahar guztiak aho batez hautagaiak izateko eta zozketan sartzeko Juan Antonio de Argote eta Esteban de Endaia izendatu zituzten ordezeko alkateak izateko. Bestalde, aho batez eta zuzenean, Don Juan Joseph Vicente de Mitxelena eta Don Juan Angel de Embil alkate hautatu zituzten; erregidore Sebastian de Manterola eta Joseph de Lertxundi; sindiko Joakin de Portu; eta basozain Joseph Antonio de Lertxundi (OUA, C-223-1). Sistema hau aipatu bi urtetan besterik ez zen erabili.

⁴⁸² 1781ean, adibidez, ofizial zahar guztiak zuzenean eta aho batez Ignacio de Olaskoaga hautatu zuten alkate izateko, Joseph Joakin de Gaztañaga bere ordezkaria izateko; Francisco de Azpillaga eta Francisco de Lertxundi Ainzia erregidore izateko hautatu zituzten; Joakin de Portu sindiko izateko eta, Juan Antonio de Argote basozain. Bestalde, elizako maiordomoa alkateen ordezkarien artean zozketatu zen, eta Joseph Joakin de Gaztañaga aukeratu zuten. (OUA, C-223-1). Sistema hori 1762, 1763, 1781 eta 1798an erabili zen.

* Bukatzeko, eta aurkitu ditugun agirien arabera, hauteskundeak egiteko beste modu bat ere bazen. Esate baterako, ofizial zaharrek hautagai bana eta zegokion ofizioa aukeratzen zuten. Eta, libre geratzen ziren ofizioak aho batez eta zuzenean izendatzen zituzten⁴⁸³.

Laburbilduz esan daiteke, hauteskunde sistemak aldaketa ugari izan bazituen ere, denetan hautagaia izateko aukera txikia zela; eta oraindik are txikiagoa hautaketa zuzenean egiten zenean.

7.3. OFIZIO BATEAN ARITU ONDOREN BERRIRO HAUTATUA IZATEKO DENBORA MUGAK

a) Ordenantzetan emandako agindua

Ordenantzetan oso garbi azaltzen zen, lehendik ofizioen batean aritutakoek, berriz ere hautagai izateko bete beharreko baldintzak zeintzuk ziren. Hain zuzen, denbora mugak ezarri zituzten. Esate baterako, alkate izandakoak ezin zuen ofizio berberean aritu hiru urte pasa baino lehen; eta gainontzeko ofizioetan aritu ahal izateko bi urte itxaron behar zuen alkate izan zenetik. Bestalde, alkate eta erregidoreordeek, hurrengo urtean, zegozkien ofizioetan aritzeko aukerarik izan ez bazuten, izan zitezketen hautagaiak⁴⁸⁴.

Baina, nahiz eta Ordenantzen bidez agintean lagun berberak ez aritzeko ahaleginak egin, Orioko Kontzejuak ez zituen beti arauak bete. Adibidez, 1510. urtean Domingo de Miranda izan zen erregidore, eta handik urte betera juradoa izateko hautatu zuten, eta 1512an, alkate izan zen; 1513an Cristobal de Aganduru izan zen erregidore eta, hurrengo urtean, maiordomo lanetan aritzeko izendatu zuten.

b) Behin baino gehiagotan izendatutako zenbait adibide

Batez ere, XVIII. mendean izandako hauteskundeetan gertatu zen berrizendapena. Adibidez, 1788an eta 1795ean, Kontzejuko ia ofizial guztiak izan ziren berrizendatuak. 1775ean, 1782-83-84 eta 1786an, hiru ofizio izan ziren berrizendatuak⁴⁸⁵.

Aurrekoarekin lotuta, XVI-XIX mende bitarteko hauteskunde sistemaren ezugarriak dira: izendapen zuzenak, berrizendapena, ofizio batzuren errepikapena... Beraz, Orioko Kontzejuaren gobernuan ez zen aldaketa gehiegirik izan, eta agintea, orokorrean, talde txikiek izan zuten.

⁴⁸³ 1801ean adibidez, ofizial zahar batzuek hainbat ofizio berrietarako hautagaiak eta ofizioak, zuzenean eta banaka, izendatu zituzten. Xabier Antonio de Lertxundi alkateak don Jose Joakin de Lertxundi alkate izateko hautatu eta izendatu zuen; Antonio de Portu Larrume alkateak, don Ramon Santos de Gaztañaga hautatu zuen alkate; Jose Vicente de Segura erregidoreak, Ignacio de Allurralde; Sebastian de Manterola erregidoreak, Juan Antonio de Argote. Bestalde, guztien artean, aho batez eta zuzenean, sindiko izateko Juan Miguel de Sagarzazu hautatu zuten; eta Jose Antonio de Lertxundi basozain. Izan ere, beste ofizio txiki batzuetarako arduradunak ere hautatu zituzten, halaber, kontu ikertzaile, Jose Joaquin de Gaztañaga eta Juan Miguel de Sagarzazu; eta "depositario de penas de cámara y de justicia", Esteban de Endaia (OUA, C-223-2). Sistema hori, 1790, 1791, 1794, 1796, 1797, 1799, 1800-1808 urteetan erabili zen.

⁴⁸⁴ Udal Ordenantzak, 8. kapitulua (1607).

⁴⁸⁵ 1736an alkatea, 1738an maiordomoa, 1739an alkatea, 1750, 52, 58, 60, 63an, maiordomoa; 1765ean, maiordomoa eta erregidorea; 1766an maiordomoa, sindikoa eta basozaina; 1767an basozaina; 1768an sindikoa; 1769an basozaina; 1770ean, maiordomoa; 1772an sindikoa eta basozaina; 1774an sindikoa; 1775-76an, sindikoa, maiordomoa eta basozaina; 1777an basozaina; 1778an alkatea eta basozaina; 1781ean sindikoa; 1782an sindikoa, maiordomoa eta basozaina; 1784an alkatea, sindikoa eta maiordomoa; 1786an bi alkateak eta maiordomoa; 1787an sindikoa; 1788an alkatea, sindikoa, maiordomoa eta basozaina; 1789an basozaina; 1790ean, sindikoa; 1791n alkatea eta maiordomoa; 1792an sindikoa eta maiordomoa; 1794an maiordomoa; 1795ean, alkatea, bi erregidoreak, sindikoa eta maiordomoa; 1796an sindikoa; 1797an sindikoa eta maiordomoa; 1798an erregidorea eta maiordomoa; 1800ean, maiordomoa; 1801ean, maiordomoa eta basozaina; 1803an maiordomoa; 1804ean maiordomoa; 1805ean, maiordomoa, eta 1807an sindikoa.

7.4. KARGU BERRIEN ZIN-EGITEA

Hauteskundeak egin ondoren, ofizial berriek beren karguen zina egiten zuten, zintzotasunez beteko zutela esanez. Hain zuzen, Ordenantzen arabera, horrela egin behar zuten:

"(...) que entren los oficiales en la yglesia parroquial de ella, así el alcalde biejo e rejidores del año pasado, y antes de entregar la bara, resçiva e tome juramento sobre un libro misal y la cruz, que bien e fiel y limpiamente, sin fraude ni cautela alguna, guardará lo que fuere en servicio de Dios y de Su Magestad, e pro e bien común del dicho Conçejo, e usos e buenas costunbres y libertades, y guardará y hexecutará estas dichas hordenanças, que bien e fielmente administrará justicia a las partes (...) y el dicho alcalde nuevo tome juramento de los dichos regidores, mayordomo e procurador síndico e guardamonte, que bien e fiel e diligentemente husarán sus ofiçios cada uno d'ellos, y tome en su poder el sello y libros del conçejo ante el escribano fiel para que no pretenda ynorançia y cunpla y hexecute las dichas hordenanças"⁴⁸⁶.

1703. urteaz geroztik ofizial berriek, alkate zaharren aurrean, beren karguen zina egin zuten⁴⁸⁷.

7.5. OFIZIALEN AUSENTZIAK

Orioko gobernuko ofizioak behin baino gehiagotan hutsik geratu ziren, batez ere lan arazoengatik, eta, baita gaitz edo heriotzagatik ere. Horrelakoetan, Ordenantzetan esaten zenaren arabera, Kontzeju Nagusiari zegokion ordezkaria izendatzea⁴⁸⁸. Hala eta guztiz ere, Ordenantzak egin baino lehen, ofizialen batek kanpora joan behar izanez gero, normalean berak izendatzen zuen zuzenean ordezkoa⁴⁸⁹. Baina, esan bezala, ohitura hori baztertzea erabaki zen Ordenantzetan. Horrela gertatu zen 1705ean, Martin de Illunbe alkatea, San Bartolome nabioan, bale arrantzara joan zenean; joan aurretik bere ordezkoa izendatu zuen, baina Kontzeju Nagusiak ez zuen onartu, ordezkariak izendatzea errepublikari bakarrik zegokiola esanaz⁴⁹⁰.

Ofizial batzuek lana herritik kanpo egiten zutenez, kargu nagusien ordezkariak ere hautatzen ziren hauteskundeetan. Bestalde, XVIII. mendetik aurrera, Gipuzkoako zenbait herritan, pertsona gorenak alkate izendatzeko ohitura zabaldu zen, eta, ohorezko izendapenak zirenez eta Orion bertan bizi ez zirenez, ordezkariak izendatzen ziren. Ordezkariak, ofizialen zeregin eta botere berbera zuten, azken batean, haiek izaten ziren gobernuko arduradun nagusiak⁴⁹¹.

⁴⁸⁶ Udal Ordenantzak. 2. eta 10. kap. (1607). Izan ere, 1511. urteaz geroztik ofizial berriek ere zin egiten zuten, hain zuzen ere horrela: "juramento e solenidad en tal caso acostunbrado de guardar el servicio de Dios e de Su Alteza e los privilejos de la dicha villa y pro común de la república, en conformidad en vno con las rentas e propios e bienes" (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215 [1511-VI-29]).

⁴⁸⁷ Don Joseph Joaquin de Urreizmendi alkatearen esanetan: "juro a Dios Nuestro Señor y una señal de la Cruz, en la forma ordinaria de administrar justicia sin parcialidad alguna" (OUA, C-223-2 [1788-VI-30]). Gero, ofizial bakoitzak zin egiten zuten: "jura en forma de usar bien, fiel y diligentemente de él" (OUA, C-219).

⁴⁸⁸ Ordenantzak, 9. kap. (1607).

⁴⁸⁹ Adibidez, 1575ean Domingo del Puerto alkateak Ternuara bale arrantzara joan behar zuelako, ordezkaria izendatu zuen; 1592an, berriz, Domingo de Miranda alkateak gauza bera egin zuen, ordezkari Domingo de Azperro hautatuz. Cristobal de Jauregieta, 1599an bale arrantzara joan zenean, Domingo de Azperro izendatu zuen (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.801 [1575-VI-15]; 3/1.812 [1592-II-3]; 3/1.817 [1599-X-13]).

⁴⁹⁰ Azkenean, nahiz eta onartu ez, alkateak hautatu zuen pertsona bera izan zen izendatua (OUA, C-219 [1705-IV-16]).

⁴⁹¹ Orion 1750. hamarkadan hasi zen alkate izateko pertsona ospetsuak izendatzeko ohitura. Adibidez, 1752-1753urte bitartean, alkatea San Millan markesa izan zen; 1757-58an Manuel Antonio de Antxiola, "oficial de la contaduría general de la guerra y cajero principal de ella" izan zen. Aipatu ohitura, Gabriel de Hoarekin hasi zen, XVII. mendean alkate hau Felipe III. Kontseiluaren Idazkaria izan baitzen.

7.6. OFIZIALEN PRESENTZIA BATZARRETAN

Udal Ordenantzen arabera, Kontzejua biltzen zenean, juradoak deitzen zituen ofizialek eta herritarrek batzarrera joan behar izaten zuten, eta, joaten ez zirenek isuna ordaindu behar zuten. Hau da, XVIII. mendean herritar gutxik parte har zezakeen Kontzejuan, eta gainera, ez ziren askotan joaten batzerretara. Beraz, hauteskundeetan hautagai gutxi izatea ez zen arraroa, eta, karguak urtero berritzea arazo bilakatu zela esan daiteke⁴⁹².

7.7. OFIZIALEN KAUDIMEN BETEBEHARRA

Ofizial batzuek, esate baterako, maiordomoek (baita elizako zaindarien ere) betebeharrak ekonomikoak betetzeko ahalmen edo gaitasuna bazutela frogatu behar zuten Kontzejuaren aurrean; horri kaudimena deitzen zaio. Horrela, beren karguak hobeto beteko zituztela pentsatzen zuten. Hori guztia Ordenantzetan arautzen zen⁴⁹³.

V. UDAL GOBERNUAREN AGINPIDEAK: KONTZEJU NAGUSIA, ERREGIMENTUA, OFIZIALAK

Orioko gobernuaren agintaritza Kontzeju Nagusiak, Erregimentuak eta ofizialek osatzen zuten.

1. KONTZEJU NAGUSIA

Aurkitutako aipamenen arabera, XVI. mendeaz geroztik, udal gobernuaren nagusitasuna Kontzeju Nagusiak izan zuen. Hain zuzen, XVI. mendearen 50. hamarkada bitartean, Kontzeju Nagusian gobernuko ofizialek, herritarrek eta biztanleek parte hartzen zuten, horrela Kontzeju Nagusiak "comunitas" osoaren ordezkari izan zuten. Baina, harrezkero, ordezkari gutxituz joan zen, eta, ofizialak eta herritar batzuek bakarrik parte hartzen zuten Kontzeju Nagusiko batzarretan. XVII eta XVIII. mendeetan ere partaidetza gutxitu egin zen.

Bestalde, Orio herri txikia zenez, Kontzeju Nagusietara zenbat herritar joaten zen jakitea ez da oso zaila⁴⁹⁴. Esate baterako, XVI. mendean, dagoeneko, nabarmena da oso gutxi parte hartu zuela, %13ak. Hurrengo mendeetan partaidetza gutxitu egin zen, hain zuzen, XVII. mendean %9ak; eta XVIII. mendean, berriz, %6 eta %4aren artekoak. XVII. mendean gobernuaren batzarretan parte hartu ahal izateko zenbait baldintza betetzea beharrezkoa zenez, partaidetzarako aukerak ere gutxitu egin ziren. Garai honetan Kontzejuaren batzarretan parte hartzeko eta ofizioetan aritu ahal izateko baldintzak parekoak ziren⁴⁹⁵.

⁴⁹² Hain zuzen, 1607. urtean isuna 4 errealekoa zen; XVIII. mendean, berriz, 2 dukat edo 22 errealekoa izan zen. Esan dugun bezala, hauteskundeetara ez ziren hautatzaileak eta hautagaiak askotan joaten, beraz, konponbidea eman nahian isuna jartzea erabaki zuten (OUA, Udal Ordenantzak, 52. kapitulua. C-223-2 [1791-V-15]).


⁴⁹³ OUA, Udal Ordenantzak, 4. kapitulua (1607).

⁴⁹⁴ 1575ean Oriok 750 biztanle zituen, beraz, herritarrek 150 inguru ziren; 1587an, berriz, 713; beraz, 150 herritar; 1632an, 500 biztanle, hau da, 106 herritar; 1733an, 660 biztanle, eta, 132 herritar; 1768an, 692, alegia, 138 herritar; 1787an 642, hain zuzen, 128 herritar; eta 1800an, 510 biztanle, beraz, 102 herritar. Biztanleak herritar bihurtzeko koefizientea, XVI. mendean 4,75koa zen; XVII. mendean, 4,7koa; eta XVIII. ean 5a (PIQUERO ZARAUZ, S.: *Demografía guipuzcoana en el Antiguo Régimen*. Universidad del País Vasco. Bilbao, 1991. 107. orr.)

⁴⁹⁵ Udal Ordenantzak, 48. kapitulua.

Hauteskundeak aztertuz gero, garbi dago, herritarrek oso gutxi parte hartzen zutela. Horrekin zera esan nahi dugu, Kontzeju Nagusiaren agintaritzaren herritar gutxi batzuren eskuetan zegoela eta, ondorioz, "comunitas"aren ordezkariak mugatua zela.

Kontzeju Nagusian biltzen ziren ofizialek eta herritarrek herriaren gobernu eta administrazioari zegozkien ekintzen ardura zuten, esate baterako, ofizialen hautaketa, berrizendapena, gainontzeko erakundeetako karguen ardura, kontzejuko kontuak egitea, hornidurak, zergak, propioen errenten alokairua, hirigintza inguruko kontuak, Kontzejuko auzietarako prokuradoreak izendatzea, irakaskuntza, osasuna, festak, eta Probintziako Batzar Nagusietara ordezkaria bidaltzea (prokuradoreak)... Beraz, Kontzeju Nagusiaren esku zeuden herriko zeregin garrantzitsuenak, hau da, gobernuaren aginpiderik nagusia zen. Baina, guzti horretarako benetako boterea eta gaitasuna Erregimentuak eta gobernuko ofizialek zuten.



Orioko udaletxe zaharra (Photomuseum Artxiboa).

1.1. BATZARRETAO PROKURADOREAK

Gipuzkoako herri gehienek Probintziako Batzar Nagusietara joateko eskubidea zuten. Izan ere, 1397. urtetik, Gipuzkoako Ermandadea sortu zenetik, bertan, herri eta Probintzia guztiari zegozkion gaiak eztabaidatzen ziren⁴⁹⁶. Probintziako Batzarrek izaten zirenean, Orioko Kontzejuak prokuradore bat bidaltzen zuen; bere zeregina honakoa zen: herriari zegozkion gaiak, kexak eta eskaerak aurkeztu, eta, eztabaidatzen ziren gaien inguruan botoa eman. XVI-XIX mende bitartean, gehienetan, prokuradorea alkatea bera izan zen. Hala ere, Udal Ordenantzen arabera, edozein herritar zintzo —hau da Kontzejuaren parte hartzen zuena eta ofizioak betetzen zituena— joan zitekeen⁴⁹⁷.

Seguruenik, alkatea zenez herriko berri eta beharrak hobekien ezagutzen zituena, bera zen batzarretara joateko pertsonarik aproposena, herriko interesak indar haundiagoz defendatuko zituelako.

⁴⁹⁶ 1397an Orioko prokuradore Johan Beltran de Amas izan zen. HISTORIA DE LAS JUNTAS Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA. Foru Aldundia. Donostia. 1992. 27. orr.

⁴⁹⁷ Udal Ordenantzak, 16. kapitulua. 17an, berriz, Valladolideko Kantzelaritzaren edo Erregearen Gortera herriaren izenean joaten ziren prokuradoreetatik hitz egiten zen.

1.2. ANDATZABEAKO BATZARRA

1826an, Orioko Kontzeju Nagusiak, Usurbil eta Zizurkilgo herriein batera, Andatzabeako Batzarra sortzea erabaki zuen. Hauxe izan zen elkarte sortzeko arrazoia: "en consideración a los gastos que le ocurren con la asistencia a juntas"⁴⁹⁸. Hau da, hiru herrien izenean prokuradore bakarra bidaltzea batzarretara, horrela, gastuak murriztuz. Hasiera batean, hamazortzi urte iraun zuen elkarteak, eta ondoren, 1849an, akordioa berri egin zuten. Bestalde, herri bakoitzak prokuradore partikular bat izendatzeko aukera zuen⁴⁹⁹.

2. ERREGIMENTUA

Esan dugun bezala, 1550. hamarkadaz geroztik, Orion, Kontzeju Nagusiaz gain, beste biltzarra sortzen hasi zen: Erregimentua.

Erregimentua alkateek eta erregidoreek osatzen zuten, eta Kontzeju Nagusian erabakitakoak bete araztea zen beren ardura. Aipatu behar da, XIX. mendean bazela erregimentuaren tankerako beste elkarte bat, "ayuntamiento particular", izenekoa; eta elkarte horri zegokion Udal Nagusiak erabakitako aginduak bete araztea; hau da, eginbehar parekoa zuten bi elkartek⁵⁰⁰.

2.1. ZEREGINAK

Gipuzkoako herri batzuetan Erregimentua batzarretan biltzen bazen ere, Orion ez zen horrelakorik izaten. Hain zuzen, hauexek dira erregimentuak zituen zereginak:

a) Zeregin ekonomikoak

Alkateek eta erregidoreek Kontzejuari zegozkion ordainketak eta salmentak egiten zituzten⁵⁰¹. Herritarrek behar zituzten jan-edariak edota bestelako hornikuntza antolatzen zuen erregimentuak, esate baterako, haragia, olio, ardo, sagardoa, pattarra... Gainera, erregimentuak erabakitzen zuen zein prezioetan saldu behar ziren. Bestalde, erregimentuak ematen zituen errentan Kontzejuaren ondasun propioak; udalaren ondasunak saltzea erregimentuaren ardura zen; egurraren salmenta ere bai...⁵⁰².

b) Gobernuari buruzko zereginak

Alkateek eta erregidoreek (hau da, Erregimentua), zenbait hauteskudetan, ofizial berriak izendatzeko eta hautatzeko boterea zuten bakarrak izan ziren. Baina, 1607. urteaz geroztik, ofizial guztiek zuten ofizial berriak hautatzeko baimena⁵⁰³.

⁴⁹⁸ GPAH, Ramon de Illunbe, 3/1.965 (1826-III-29).

⁴⁹⁹ *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Vol. II. Op. cit.* 34. orr.

⁵⁰⁰ "Ayuntamiento particular"aren partaideak, orokorrean, alkateak, erregidoreak, sindikoa, "diputados del común" eta "síndico personero" a ziren. Udal Nagusiaren baimenarekin betetzen zituzten beti beren jarduerak.

⁵⁰¹ 1547. urtean, Kontzejuak Lusarbe Etxaldea erosi zuenean, Orioko Erregimentuak Ortiz de Zarauz etxaldearen jabea zenari ordaindu zion (OUA, C.III. D.2 [1547-1548]). Izan ere, Erregimentuak, Kontzeju Nagusiaren baimenarekin, herriaren lur zati bat pertsona partikular bati saldu zion (GAO, Uria Civiles, 173 [1606]).

⁵⁰² Kontzejuaren zereginak eta hazienda ikusten dugunean, gai honetan sakonduko dugu. Bestalde, hona hemen Erregimentuaren zenbait adibide: Udal akta batean Erregimentuak ardoaren prezioa ezarriko zuela aipatzen zen (OUA, C-221-1[1737-XI-26]). Erregimentuko ofizialak ardo, pattarra, olio, haragia eta "primicia" ren enkanteen arduradunak ziren (GPAH, Juan Bautista de Illunbe, 3/1.939 [1785-III-14]). Izan ere, ardo banatzaile maizterra erabaki ondoren, honek alkateei eta erregidoreei bere produktua erakutsi behar zien (GPAH, Bartolome de Arbe, 3/1.827 [1617-II-15]). Bestalde, herritar eta biztanleek sukalde edo etxeak konpontzeko behar zuten egurra, Erregimentuak saltzen zuen (GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.947 [1793-VII-27]). Izan ere zeregin guzti horiek Udal Ordenantzen zenbait kapituluak arautzen zuten, adibidez, 19-23, 25-26, 42-44 (OUA, Udal Ordenantzak [1607]).

⁵⁰³ Ordenantzen 2-6. kapituluak (1607). Hauteskudeei buruzko azalpenetan argitu dugu gai hori.

2.2. KONTZEJU NAGUSIAREKIKO MENPEKOTASUNA

Erregimentuak, beti, Kontzeju Nagusiak emandako ahalmenaren arabera egiten zuen lana, esate baterako, auzietarako ahalmena zuen, Batzar Nagusietan prokuradore izateko ahalmena zuen...⁵⁰⁴

2.3. ELIZAREKIKO ETA KOFRADIAREKIKO HARREMANAK

Kontzejua Elizako patroia zen, eta era berean, Erregimentuak egiten zuen apaiz-benefiziatuen eta bikarioaren aurkezpena. Bestalde, bikarioak bazituen Kontzejuarekiko obligazioak, adibidez, San Pedro eguneko sermoia; udala, probintzia eta erregearen aginduak herritarren artean ezagutu araztea. Gainera, ospitalaren inguruko erabakiak Erregimentuak har zitzakeen⁵⁰⁵.

Alkate eta erregidoreen betebeharra zen, baita ere, erregeak edo Probintziak gerrarako eskatzen zituzten marinelen zerrendak egitea⁵⁰⁶. Zerrendak San Pedro Kofradiako maiordomoak egiten zituen, eta, maiordomoa, erregimentuak hautatzen zuen⁵⁰⁷.

Beraz, Orion erregimentua bazen ere, haren funtsezko eginkizuna Kontzeju Nagusiaren erabakiak betearaztea zen.

3. GOBERNUKO OFIZIALAK ETA BEREN BETEBEHARRAK

Jarraian, Orioko gobernuko ofizialak eta beren betebeharrak zeintzuk ziren azalduko dugu.

3.1. ALKATEAK: GOBERNU BURU

Orion, XVI. mendez geroztik, bi alkate izan ziren, eta, gobernuko ofizialik garrantzitsuenak ziren. Dena dela, 1607. urteko Ordenantzetan alkate bakarria izatea erabaki zen, bi alkate izateak, nonbait, arazo eta gatazka ugari sortzen zuen⁵⁰⁸. Baina, Ordenantzetan emandako araua ez zen bete, eta aurrerantzean alkatetza bi lagunek osatu zuten.

Alkateak herriko buru izateaz gain, ardura zibil eta penala zuten, eta, herrian gertatutako arazoetaz epaitzea ere beren esku zegoen. Ordenantzetan agertzen zen bezala, alkateen zeregina zen: "buena gobernación e administración de justicia".

Alkateak Kontzeju Nagusiko batzarreko eta, gobernu eta administrazioko buru zirenez, erregidore, sindiko, basozain eta maiordomoaren betebeharrak zehazten zituzten.

Orion, normalean, Gipuzkoako Batzar Nagusietara alkateak joaten ziren; beraz, batzarre-prokuradoreak ere baziren⁵⁰⁹.

Alkate ofizioaren ezaugarriarik garrantzitsuenak epaitzeko ahalmena zen. Horregatik, arazo edo istiluren bat izaten zenean, alkateak erabakitzen zuen; beraz, kartzela, zigorra edo isunak jartzeko ahalmena zuen⁵¹⁰.

⁵⁰⁴ Aztertu ditugun jurisdikzio auzietan, Kontzejuko prokuradoreen betebeharra herriaren interesak auzietan babestea zen. Izan ere, Batzar Nagusietara joaten zirenak, hau da, batzarre-prokuradoreak, bertan Kontzejuaren ordezkaria izatearen boterea zuten.

⁵⁰⁵ Zentzu horretan, ikusi eliza eta ospitalari buruzko azalpenak, hau da, Patroitza eta Kontzejuaren arteko harremanak.

⁵⁰⁶ XVII. mendetik aurrera horrelako agindu asko azaltzen da dokumentazioan (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.947 [1800-VI-28]).

⁵⁰⁷ 1714. urteko Kofradiaren Ordenantzetan maiordomoa Erregimentuak izendatuko zuela aipatzen da.

⁵⁰⁸ Udal Ordenantzak. 1. Kap. (1607).

⁵⁰⁹ Batzarre-prokuradoreak zituen betebeharrak aztertzerakoan argi ikusiko dugu alkateek agintzen zutela.

⁵¹⁰ Ordenantzen 12. atalean, alkateek justizia banatzeko zuten gaitasunaz hitz egiten da: "Yten que el dicho alcalde aga su audiencia en los tiempos acostunbrados en la cassa conçeçgil d'esta dicha villa y aga justicia a los que vinieren a pedirla" (OUA, Udal Ordenantzak, Kap. 12). Adibidez, 1798an Orio zeharkatzean Santanderreko merkatarri batzuek istripu bat izan zuten eta horietako bat hil egin zen. Orioko alkateak

Bestalde, alkateak, erregimentu buru zirenez, askotan, eliza, ospitale, San Pedro Kofradia eta Errosario Kofradia buru ere izaten ziren. Hau da, erakunde guzti horien kargurik garrantzitsuenak betetzen zuten, eta jakina, diru-kontuez ere arduratzen ziren⁵¹¹.

Lanberritarako eta itsasadarretik gauzak pasa ahal izateko baimena ere alkateek ematen zuten⁵¹².

Alkateek bazuten bestelako zeregin bat ere, eta seguruenik, orain arte aipatutakoak bezain ezaguna ez dena: aitarik gabe geratzen ziren haurrei aitaorde bat izendatu. XVI. mendeko ohitura da, batipat, Ternuan, arrantzan, eta Erret armadan gizon ugari hiltzen zelako. Alkateek, "curador" izena zuten gizonezko bat izendatzen zuten haurra zaintzeko. Gehienetan, aitaordekoa familiartekoa izaten zen, haurraren familiak zituen ondasunak administratzeko⁵¹³.

Bestalde, gatazka politikoen garaian alkateak ziren ejerzito buru⁵¹⁴.

Erregeak emandako lege baten arabera, gobernuko ofizialek ezin zuten, aldi berean, beste lanbiderik izan. Baina, Gipuzkoar guztiak kapareak —zenbait pribilegioren jabe zen pertsona askea— zirenez, Probintziako baliabide ekonomikoen eraginez, aipatu legea ez zen guztiz bere horretan betetzen gurean⁵¹⁵. Izan ere, Orio herri txikia zenez, oso zaila zen bere lana utzi zezakeen pertsona bat aurkitzea; gainera, horrela, hautagaia izan ahal izateko aukera, oraindik ere, txikiagoa izango zatekeen. Beraz, Orion ez zuen eragin handirik izan Erregeak emandako legeak⁵¹⁶. Eta, alkate asko, ontzigile, arrantzale, kapitain edo nekazariak izan ziren. Gainera, Orion, alkate, erregidore edo maiordomo izateak ez zuen lana uzteko adina ematen⁵¹⁷.

Orioko gobernuko ezaugarriak bereziak ziren, gobernuko lana betetzeaz gain, bestelako lanetan ere aritzen zirelako buruzagiak, eta horietako asko, denbora luze izaten ziren herritik kanpo. Adibidez, alkateak herritik kanpo zeudenean ordezkokoak izendatu behar ziren.

gertaera horren inguruko arrazoiak ikertzen hasi ziren (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.945 [1798-V-15]). Bestalde, 1566an aiar batzuek Aiatik Orioko hondartzaraino abereak eraman zituzten, eta oriotar batzuk Nicolas de Endaia alkatearengana joan ziren kexatzera, abereek kalteak egin zituztela esanaz (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.787 [1566-VIII-28]). Izan ere, Oriok Aia, Usurbil eta zenbait lagunekin jurisdikzio auziak izan zituen, eta, lehenengo instanzietan Orioko alkateak erabaki zuten. Bestalde, Ordenantzetan arautzen zena bete ezean, isun handiak ordaindu behar zirela aipatzen da.

⁵¹¹ 1745ean Matias de Iruretagoiena alkatea Rosario Kofradiako maiordomoa zen; eta 1784an Juan Antonio de Argote (OUA, C.222.2 [1745-VIII-9]; C-223-2 [1784-V-9]); 1777an, bestalde, Juan Antonio de Argote alkatea San Pedro Kofradiako maiordomoa izan zen (GAO, CO-M.CI., 4.206 [1777]); 1763an, alkatea elizako maiordomoa izan zen (OUA, C-221-2 [1763]).

⁵¹² XVII. mendetik aurrera nekazal prozesua bultzatzen ari zenean, zenbait oriotarrek Kontzejuaren lurak lantzeko baimena eskatu behar zieten alkateei. Izan ere, alkateen ardura zen lanberritzeko lurak herritarren artean banatzea, errentak jartzea, baldintzak zehaztea, etab. Zentzu horretan, ikusi Nekazaritzari buruzko atalak. Bestalde, portutik produktuak atera ahal izateko alkateek eman behar zuten baimena (GPAH, Gabriel de Arbe, 3/1.831 [1624-IV-6]).

⁵¹³ Adibidez, 1511n Maria de Aganduruk, Domingo de Agirreren alargunak, bere hiru semeak alkatearen aurrean aurkeztu zituen, honek "curador" a izenda zezan. Bere senarra Amerikan hil zen. Alkateak Maria de Aganduru bera hautatu zuen "curador", bere familiarterko batzuekin batera, eta bere semeetaz arduratzeko aukera eman zitoten (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215 [1511-II-15]).

⁵¹⁴ Halaber, 1809. urtean, Independentzia-gerra zela eta, Orioko alkatea Don Ramon Santos de Gaztañaga ejerzito buru izan zen (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.956 [1809-IV-14]).

⁵¹⁵ DOMÍNGUEZ ORTIZ, A.: *Las clases privilegiadas en la España del Antiguo Régimen*. Istmo, Madrid, 1973, 68-70. orr.

⁵¹⁶ Udal Ordenantzak. 47. kapitulan Orioko alkate, erregidore edo maiordomo izan nahi zutenek, ezin zuten Kontzejuaren errentarien maizter edo "fiador" a izan (1607).

⁵¹⁷ Adibidez, historian zehar hainbat kapitain edo arrantzalek bete zuten kargu hori: 1567an, Juan Martinez de Ondarra kapitaina; Domingo del Puerto, 1575an; Domingo de Mirandak, zenbait urtetan Kontzejuko ofizioak bete zituen, 1592an alkate izan zen; Francisco de Elorriaga kapitaina ere alkate izan zen 1591n; 1611n, Vicente de Segura kapitaina; bestalde, ontzigileak ditugu: Agustin de Bidasoro 1688an; Juan de Etxebeste 1702an; don Joseph de Iturriaga, 1730ean; 1789. urteko alkatea Antonio de Portu Larrume ontzigilea izan zen; eta azkenik, don Ramon Santos de Gaztañaga, lur eremu baten maizterra, 1808an. Guzti horiek adibide gutxi batzuk besterik ez dira, ofizial gehienek egiten baitzuten bestelako lana.

3.2. ERREGIDOREAK: UDAL HAZIENDAREN ARDURADUNAK

XVI. mende hasieran lau lagun aritzen ziren hazienda edo ogasun lanetan; baina, herrian jende asko izaten ez zenez, — "ausentes por mar e por tierra"— Kontzeju Nagusiak erabaki zuen bi erregidore nahikoak zirela hazienda lanetan aritzeko⁵¹⁸.

Erregidoreen zereginik garantzitsuena Kontzeju Nagusiak eta alkateek erabakitako arauak edo aginduak betearaztea zen. Izan ere, erregidoreek, alkateekin batera, Erregimentua osatzen zuten. Erregidoreek herriko administrazio ekonomikoaren arduradunak ziren; herritarrek behar zuten egurra banatu eta saltzen zuten; orokorrean, herritarrek behar zuten horniduraz arduratzen ziren, —"a satisfacción de los señores regidores"—; ondasun propioen enkanteak antolatzen zirenean erregidoreek, alkateekin batera, bertan izan behar zuten⁵¹⁹. Hau da, erregidoreei zegokien, esate baterako, sagardo eta ogiaren prezioa eta neurri egokiak ezartzea⁵²⁰.

Bestalde, herritarren batek lur zati bat lanberritu nahi zuenean Kontzejuari baimena eskatu behar zion, eta erregidoreek, lurraren ezaugarriak aztertu ondoren, errentak zenbatekoa izan behar zuen zehazten zuten. Horretarako, erregidoreek peritoen laguntza ere izaten zuten⁵²¹.

Erregidoreek alkateen eginkizunak martxan jartzeko ardura zutenez, batzuetan, alkateei zegozkien jardura garrantzitsuetan lagundu ohi zieten, adibidez, justizia lanetan⁵²². Erregidoreek marinelen zerrendak egiten zituzten eta Kontzejuko Patroitzak eskubideaz arduratzen ziren. Bestelako lanetan ere aritu ziren erregidoreak, hala nola, 1730. hamarkadan erabaki zen, Rosario Kofradiaren eta ospitalaren administrazioa erregidoreei zegokiela⁵²³. 1800. urtean San Pedro Kofradiako maiordomo lanetan aritzeko inor ez zegoenez, Kontzejuak erregidore bat izendatu zuen lan horretaz arduratzeko⁵²⁴. Horrela, pixkanaka-pixkanaka, alkate eta erregidoreek eliza eta kofradiako kargurik garrantzitsuenetan aritzea lortu zuten, eta Kontzejuaren kontrola ezarri zuten nolabait korporazio hauetan.

⁵¹⁸ 1511. urteko hauteskundeetan lau erregidore zeuden; 1512an, berriz, aipatu arrazoiak zirela eta, bi besterik ez ziren (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215 [1511-VI-29]; 2/1.216 [1512-VI-29]).

⁵¹⁹ Orioko mendietako arbolak moztu behar zirenean, erregidoreek bertan izan behar zuten, izan ere, gero, lortutako egurra herritarren artean banatu behar zuten eta salmentako prezioak jarri behar zituzten (OUA, C-221-2 [1758-XII-28]). Bestalde, ardoa, olio, pitarra, haragia eta bestelako produktuak ekartzea ere erregidoreen ardura zen (OUA, C-222-2 [1735-XII-11]). Izan ere, probisioak ondo antolatzeak jakien kontsumoaren kontu eraman behar zuten (OUA, C-223-2 [1788-IV-6]). Probisioen eta Kontzejuaren beste ondasun propioen enkanteak alkateekin batera egiten zituzten; 1766. urtetik aurrera, "Diputados del común" izeneko ofizialak ere enkanteen antolaketan izaten ziren (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.947 [1800-XII-9]).

⁵²⁰ Sagardoari buruz, erregidoreek, beste ofizial batzuren laguntzaz, herrian zeuden sagardo barrikak nola zeuden ikertu behar zuten, eta emaitzen arabera prezioak eta neurriak ezartzen zituzten (OUA, C-222-2 [1735-XII-25]). Izan ere, herrian saltzeko ogiaren prezioa eta neurriak jartzea ere erregidoreei zegokien (GPAH, Juan Bautista de Illunbe, 3/1.913 [1765-II-5]).

⁵²¹ XVII. mendean lanberri prozesua hasi zenetik, erregidoreek hainbat lurren balorazioa eta egokitasuna aztertu behar izan zuten, 1763an Motondo, Zalmaristi eta San Juango bideko lur zatietan egin zuten bezala; edo 1806an Izaon egindako azterketak bezala (OUA, C-221-2 [1763-VIII-28]; C-223-2 [1806-II-3]). Ondasun propioen eraikuntzen hobekuntza eta konponketa lanetaz ere askotan arduratu ziren, esaterako, Marea Errota edo Txanka errotako lanak (OUA, C-222-2, [1730]).

⁵²² Horrela, 1724an Oriotik bi presok erria igerian zeharkatuz alde egin zutenean, alkateak eta erregidoreak txalupaz haien atzetik joan ziren, presoak, erria beste aldetik, Arratola kaitik, harriak botaz, aldentzen saiatu ziren (OUA, C-222-2).

⁵²³ 1730. urtetik aurrera erregidore bat Rosario Kofradiarentzat limosna biltzeaz arduratu zen; alkateak, aldiz, bertako maiordomoa zenez, kontuak eramaten zituen. 1738an, erregidoreen artean lehenengoa hautatu zenari, aurrerantzean ospitaleko administrazioaren kargua zegokiela erabaki zen (OUA, C-222-2 [1730-XII-31]; [1738-V-11]; [1745-VII-4]).

⁵²⁴ OUA, C-223-2 (1800).

Azkenik, esan, 1607. urteko Ordenantzetan erregidoreei ere galerazi egin zitzaizela bestelako lanbidetan aritzea, baina, alkateekin gertatu zen moduan, erregidoreek ere ez zuten legea bete⁵²⁵.

3.3. SINDIKOA ETA DIPUTATUAK

1766. urteaz geroztik eta Erregearen aginduz, sortu ziren, herri guztietan, "sindico personero" eta "diputados del común"⁵²⁶. Horien zeregina, kontzejuko alkate eta erregidoreekin batera, herritarren hornidura ziurtatzea eta errenten arduratzea izatea zen. Ofizio berri horien hautaketa Kontzejuari zegokion. Zergak ordaintzen zituzten herritarren artean, Kontzeju Nagusian bilduta, 24 lagun izendatzen zituzten. Ondoren, alkateek eta erregidoreek, hogeita lau lagun horietatik, sindiko bat eta bi diputatu izendatzen zituzten; eta, Kontzeju Nagusiko batzarretara joateko eskubidea eta beharra zuten. Hasiera batean, urtero aldatzen ziren, hau da, urtebeteko iraupena zuten aipatu ofizioek; baina 1769an, erregeak erabaki zuen, diputatuen kargua bi urtetik behin aldatzea komeni zela, diputatu berriei aholkuak emateko⁵²⁷.

Sindikoa eta diputatuak, 1766. urtera arte, alkate eta erregidoreei bakarrik zegozkien lanetan aritzen ziren. Aipatu urtetik aurrera honako hauek ziren sindiko eta diputatuen zereginak: maiordomoaren kontuen azterketa; premiazkoak ziren gauzen hornidura —erregidoreekin batera, aho batez, onespina ematen zuten—; hornidura ordainketen azterketa; ogi hornidura. Hitz batean esanda, batez ere, biztanle guztien eskubide ekonomikoen babesleak ziren⁵²⁸.

Bestalde, sindiko eta diputatuek bestelako lanetan ere aritzen ziren, esate baterako, Sebastian de Iturzaeta diputatua, San Pedro Kofradiako maiordomoa izan zen urte batzuetan.

Erregeak, bi kargu berri horiekin, udaletako eliteak edo oligarkiak zuen boterea suntsitu nahi izan zuen; eta, era berean, alkateek eta erregidoreek Kontzejuan zuten askatasun ekonomikoa gutxitu nahi zuen. Baina, ofizio berriekin hornidura sistema hobetu egin bazen ere, talde batzuk kargu garrantzitsuak bereganatzen eta kontrolatzen jarraitu zuten.

⁵²⁵ Adibidez, Tomas de Miranda ontzigilea 1708an erregidore izan zen; eta, 1760an gauza bera gertatu zen Francisco de Azpillagarekin. Bestalde, Ignacio de Makazagak Kontzejuaren lur zati bat errentan hartu zuen 1795ean; beste erregidore batzuek, Nicolas de Lertxundik eta Joseph Antonio de Azkuek, lur zati bana eskatu zioten kontzejuari bertan zuhaitzak landatzeko, 1758 eta 1801ean.

⁵²⁶ 1766. urtean, Madrilen, Valencian, Cuencan, Elchen eta Gaztelako beste herrietan matxinadak izan ziren, gari gutxi zutelako, eta, azpiegitura ekonomiko, soziala eta politikoa salatuz. Matxinada horien ondorioz, Carlos III.ak, udal guztietan bi ofizio horiek ezartzea agindu zuen: "procurador sindico personero y diputado del común". Horrela, bere agintea udaletan sendotuko zuen eta pertsona horiek gari eta aleen horniketa kontrolatuko zuten. Era berean, Carlos III.ak udal oligarkiaren boterea murriztu nahi izan zuen. Gai honi buruz ikusi: ANÉS, G.: "Antecedentes próximos del motín de Esquilache", *Moneda y Crédito*, nº128 (1974) 219-224. orr.; IDEM: "Los pósitos de la España del siglo XVIII", *Moneda y Crédito*, nº 105 (1968), 36-69. orr.; GUILLAMÓN ÁLVAREZ, F.J.: *Las reformas de la administración local durante el reinado de Carlos III*. Instituto de Administración local. Madrid, 1980; IDEM: "La creación de los diputados y personeros del común", *Cuadernos de Investigación histórica*. nº 1, 111... orr.; MACÍAS DELGADO, J.: *El motín de Esquilache a la luz de los documentos*. Centro de Estudios Constitucionales. Madrid. 1988; RODRÍGUEZ, L.: "El motín de Madrid de 1766", *Revista de Occidente*, 121 (abril-mayo 1973), 24-49. orr.; VILAR, P.: "El motín de Esquilache", *Revista de Occidente*, 107. feb.1971, 199-249. orr.

⁵²⁷ 1766an Carlos III.ak, ofizio hauek sortzeko Probisioa edo "Auto Acordado" deiturikoa eman zuen (OUA, "Libro de Elecciones de Síndico Personero y Diputados del Común", L-1 [1766-V-5]). 1767an, ofizialek, beren kargua bete ondoren, eta urte beteko epean, Kontzejuko beste ofizioetan aritzeko baimena ematea erabaki zen (OUA, Erret Zedula, L-1 [1767-XII-30]). Diputatuak karguaren urte beteko luzapenerako ikusi Erret Probisioa: OUA, L-1 (1769-IV-17).

⁵²⁸ Kontu Liburuen aipamenen arabera sindikoeak eta diputatuek kontuen azterketan parte hartzen zuten (OUA, *Libro de Cuentas*, C-227). Izan ere, probisioen enkanteak egiten zirenean, ardoa, pataarra, olio eta haragia erregidoreekin batera aritzen ziren. Bestalde, probisioetan aldakuntzaren bat agertzean, esaterako, erregidoreek haragiaren salneurria igotzen bazuten, kexatu egiten ziren, igoera herriaren kalterako baitzen. Zentzu horretan, Orion ogi faltan zeudenean, lur-lanberri gehiago egitea proposatu zuten, 1794an gertatu zen modura (OUA, C-223-2 [1788], [1793], [1794]...).

3.4. ESKRIBAUUA: GOBERNU-JARDUEREN LEGEZKO INDARRA

Kontzejuko eskribaua Erregimentu kidea zen, alkate eta errejidoreekin batera. Bere betebeharra alkateek eta errejidoreek erabakitzen zituzten ekintzak paperean idaztea zen, eta horrela, aginduei indar juridikoa ematen zien. Beraz, Kontzeju Nagusiaren biltzarretan eta hauteskundeetan izan behar zuen. Hala ere, berak ez zuen ez hitzik ezta botoa emateko gaitasunik ere. 1513. urtean Juana erreginak Erret Zedula bat egin zuen esanez, Kontzeju Nagusiari zegokiola eskribaua izendatzea⁵²⁹. Hau da, alkateei, errejidoreei, sindikoari, maiordomoari, juradoari eta herritar batzuei⁵³⁰.

Baina urteen poderioz, Erregimentuak bereganatu zuen eskribauak izendatzeko ahalmena. Ordenantzen arabera, alkateek eta errejidoreek herriko eskribauetatik bat hautatu behar zuten. Hautaketa, normalean, Kontzeju Nagusiaren batzarre batean egiten zen, nahiz eta boto eskubidea Erregimentuak eta zenbait pertsonen besterik ez izan. Eskribauaren soldata 2.500 marabedikoa zen⁵³¹.

Eskribauak Kontzejuko egintzei fede publikoa ematen zien, modu horretan egintzei egitasuna publikoa eta indarra legala jasoaz. Eskribauak, bere sinadurarekin, Kontzejuak eta partikularrek eskatutako dokumentuak legeztatzen zituen⁵³². Bere sinaduraren bidez, udal gobernuko egintzak eta aginduak baieztatu eta juridikoki legeztatzen ziren.

3.5. MAIORDOMOA: KONTUEN ARDURADUNA

XVI. mendean Kontzejuak sortu zuen maiordomo ofizioa, eta, bere zeregina, Kontzejuaren kontuak eramatea zen. Hain zuzen, ordura bitartean, 1511. urtera arte, sindikoak eramaten zituen Kontzejuko kontuak; eta, urtebetera, 1512an maiordomoa sortu zen. Kontzejuaren ondasun propioen errentak kobratzen zituen, ordainketak egiten zituen, zorrak kontrolatzen zituen. Lanean urtebete aritu ondoren, hau da, bere ofizio-denbora bukatzen zenean, alkate eta errejidoreei urteko balantzea aurkeztu behar zien⁵³³.

Beraz, maiordomoaren lanik garrantzitsuena Kontzejuaren ondasun propioen errentak kobratzea zen; esate baterako, Txanka Goikoa, Behekoa, Marea Errota, Lusarbe, Bunioeta eta Ixtaspe baserrienak; itsasadarra eta nasetako arrantzarenak; taberna eta lonjena; Sudugaray eta Arratolako pasaietakoak; lastarenak, landutako lurrenak... Bestalde, ardo, pattarra, haragi eta olioaren horniduraz arduratzen zirenek ere maiordomoari ordaindu behar zioten, eta diru kopuru hori, alde zurririk Kontzejuak ezarritakoa izaten zen.

Maiordomoak, urtero, gastu eta irabazien kontuak aurkeztu behar zituen. Kontzejuak izendatzen zituen lau lagunek, eta, alkate eta errejidoreek, kontuak berrikusten zituzten. Horretarako, "Ayuntamiento de Especiales" izeneko batzarrean biltzen ziren⁵³⁴.

⁵²⁹ *Recopilación de Leyes (1583). Op. cit.*

⁵³⁰ Hain zuzen, 1518an izan zen. Urte horretan Orioko eskribau bakarrak Aian bizi ziren, eta, erregeak Orion bertan bizi eta lan egingo zuen pertsona baten hautaketa baieztatu zuen. Eskribaua, azkenean, Juan Martínez de Arranibar izan zen, eta Orioko Kontzejuak hautatu zuen (SAO, Gaztelako Kamara, Memoriales y Expedientes). Leg. 130, f.67). Izan ere, Kontzeju Nagusiak bere eskribaua hautatzeko ohiturak luzaroan jarraitu zuen, 1599an beste eskribaua hautatu baitzuen (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.817 [1599-VI-20]).

⁵³¹ OUA, Udal Ordenantzak. 6. atala. 1622. urtean, Kontzeju Nagusian bilduta, alkateek, errejidoreek eta 3 lagun bereziek, Gabriel de Arbe, Kontzejuko eskribau izendatu zuten (GPAH, Juan de Etxaniz, 3/1.845 [1622-III-13]).

⁵³² Kontzejuaren eskribauaren ofizioa aztertzeko ikusi CORRAL GARCÍA, E.: *El escribano del concejo en la Corona de Castilla (siglos XI-XVII)*. Ayuntamiento de Burgos, Burgos, 1987.

⁵³³ GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro. 2/1.216 (1512-VI-29). Izan ere, Udal Ordenantzak karguaren zereginak arautzen zituen: "el alcalde y regidores, comunicándolo entre sí, puedan elegir y nombrar el mayordomo del concejo de la dicha villa, para rescevir y cobrar su aver y rentas de la dicha villa y sus propios, e dar sus cartas de pago". Horretaz gain, Kontzejuak ere elizako maiordomoa hautatzeko gaitasuna zuen (OUA, Udal ordenantzak, 4. kap. [1607]).

⁵³⁴ Adibidez, 1704. urtean, kontu ikuskariak Joseph de Etxabe, Juan de Sagarzazu, Tomas de Portu eta Juan de Etxebeste izan ziren. "Ayuntamiento de Especiales" izeneko batzarrean alkateek, errejidoreek eta pertsona berezi horiek maiordomoak egindako kontuak baieztatzen zuten (OUA, C-219 [1704-X-19]; C-222-2

1762. urteaz geroztik eta erregearen aginduz, Gipuzkoako Kontzeju guztiek, urtero, kontuak erregearen Kontu-ikuskatzaile berezi batean aurkeztu behar zituzten⁵³⁵. XVIII. mende bukaeran Gipuzkoako Korregidoreak Kontzejuko maiordomoa izendatzeko eskubidea eskuratu zuen; karguaren iraupena ere aldatu egin zen, harrezgero, bi edo hiru urterako hautatuak izan ziren. Modu horretan, erregeak eta probintziak udal administrazioa gehiago kontrolatu ahal izan zuten⁵³⁶.

Bestalde, maiordomoaren lana, XIX. mendean, gehitu egin zen, esate baterako, gurutzadako buldak banatu eta jaso behar izaten zituen⁵³⁷.

Alkate eta erregidoreen modura, maiordomoek ere debekatuta zuten, Kontzejuarentzako lana egiten zutenean, bestelako lanetan aritzea. Baina, maiordomoen kasuan ere, araua ez zen betetzen, eta askotan Kontzejuko ondasun propioak errentan izaten zituzten⁵³⁸. 1512an erabaki zen, maiordomoaren soldata alkate eta erregidoreen adinakoa izatea.

Maiordomoek ere bazuten, alkate, erregidore eta sindikoek bezala, beste ofizioetarako hautagaiak aukeratzeko eskubidea.

3.6. PROKURADORE SINDIKOA: HERRIAREN PRIBILEGIOEN BABESLEA

Esan daiteke, XVI. mendeko "Prokuradore Sindiko Orokorra" izeneko ofizioa, basozainaren tankerakoa zela. Sindikoaren betebeharra, berez, Kontzejuaren pribilegioak babestea zen; hortaz, ondasun propioak pribilegio gisa ulertuz gero, urte askotan, Orioko sindikoak ondasunak defendatu zituen, hain zuzen, "en forma con el cargo de guardar los montes y frutos y retener las rentas y propios del concejo, dar cartas de pago, defender a la villa en sus pleitos"⁵³⁹.

Bestalde, Ordenantzetan sindikoaren zereginak zehazten ziren:

*"nombren el procurador síndico general de la dicha villa y su jurisdicción, raygado e abonado e fiel y legal y de buena bida y diligente en guardar los privilegios e libertades y esenciones d'esta dicha villa, con mucha deligencia y cuidado e seguir sus pleitos y contiendas con horden de los letrados y acesores [asesores] de esta dicha villa"*⁵⁴⁰.

Sindikoaren zeregin garrantzitsuena herriaren pribilegioak babestea zen, eta, oriotar guztiak aitonen seme edo hidalgoak zirenez, sindikoak Kaparetasun frogetan — kanpotarrek noblezia frogatu behar izaten zuten— parte hartzen zuten⁵⁴¹.

[1726-III-31]].

⁵³⁵ MUGARTEGUI, I.: *Hacienda... Op. cit.*

⁵³⁶ Kontzejuak egindako kontuak zuzenak zirela baieztatzen zenean, Gaztelako Kontseiluak hautatutako Behatzaileari aurkeztu behar zizkion (OUA, C-221-2 [1762-I-21]). Orioko kasuan, bestalde, 1780. hamarkadatik aurrera, Kontzejuak maiordomo izateko hiru lagun aurkezten zituen eta, Korregidoreak horietako bat hautatzen zuen. Izan ere, maiordomo karguaren iraupena bi edo hiru urtez luzatu zen (OUA, C-223-1 [1786-X-25], C-223-2 [1789-XII-26], [1807-XI-29]).

⁵³⁷ XVI. mendetik aurrera, bahiturik zeuden hainbat kristauren erreskatea ordaintzeko, biztanleek hainbat bulda ordaindu ohi zuten. XIX. mendean, maiordomoari, ardura horren ordain gisa, soldata igo zioten, hain zuzen, betiko 400 erreal kuartoz gain, 120 erreal gehiago eman zioten. Erreal kuarto txanpon zahar bat zen, "real de vellón" izenekoa (OUA, C-223-2 [1801-XI-29]).

⁵³⁸ Adibidez, 1760an, Joseph de Etxabe kapitaina maiordomo zela, Sudugaray pasaiako ontzia alokairuan izan zuen (OUA, C-220 [1729-VI-19]).

⁵³⁹ GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.215 (1511-VI-29).

⁵⁴⁰ Udal Ordenantzak. 4. kap. (1607).

⁵⁴¹ Lortu ditugun Kaparetasun froga guztietan sindikoak, alkatearekin batera, lekukoei galderak egiten zizkion eta fiskal baten moduan aritzen zen (OUA, C.221-2 [1763-II-14]; Juan de Arizmendiren kaparetasuna). Pedro eta Asencio de Garaikoetxearen kaparetasuna (GAO, Kaparetasunak 290.1 [1743]; 290.5 [1709]).

Dena dela, XVI. mendean basozain lanak egiten zituen sindikoak, horregatik, gerora ere, sindikoaren lanak zerikusi handia izan zuen basozainaren lanarekin. Horrela, sarritan sindikoa zen zuhaitzak birlandatzearen arduraduna; edo zuhaitzak moztu behar zirenean, peritoekin batera lekua aztertzerantz joaten zena, gero, egurraren horniduraz arduratzeko; ongarrien salmentaren arduraduna ere bazen⁵⁴².

3.7. BASOZAINA: LUR ETA BASO ONDASUNEN BABESLEA

1515. urtera arte, lur eta baso ondasunen babeslea sindikoa izan zen, baina, aipatu urtean, basozaina eta sindikoaren lanak bereizi egin ziren. Basozain lanbidea sortzearen arrazoiak, hain zuzen, hauek izan ziren: "por quanto los ganados e vestias de estrannos fasían muchos dannos en los prados e pastos e dehesas de la dicha villa en ella, de noche e de día, e muchos vesinos e estrannos cortavan los montes e arvoledas del dicho Conçejo"⁵⁴³. Beraz, Kontzejuaren ondasunak —lurra eta mendiak — babesteko sortu zen basozain kargua. Udal Ordenantzetan ere, basozainaren betebeharrak zehazten ziren:

*"guardamonte que guarde los montes exidos del Conçejo e su juridiçión, e sea persona de buena vida e fama, confidente, que mire por las heredades d'esta dicha villa e su juridiçión, e acuse criminalmente a las personas que hizieren talas e cortaren montes o pusieren yncendios de fuego o vrtaren mançana de los mançanales o hotra qualquiera fruta sin licencia de su dueño, e los acuse ante la justiçia d'esta dicha villa por tales malhechores para que sean castigados e punidos mediante justiçia"*⁵⁴⁴.

Dena dela, nahiz eta basozain kargua sortu, XVIII. mendean Orion, sindikoa eta basozaina pertsona bera izan zen askotan⁵⁴⁵.

Basozainaren zereginetako batzuk hauek ziren: abereek kalteak ez eragiteko neurriak hartu; zuhaitzak landatu; basoak babestu; Kontzejuak zituen mendiak nola zeuden ikustera joan urtean behin, alkate, erregidore eta sindikoarekin batera; eta, zuhaitzak moztu ondoren egurraren salmenta⁵⁴⁶.

3.8. JURADOA EDO PROBESTUA: HERRIKO ORDENA PUBLIKOAREN ZAINDARIA

Jurado edo probestuaren zeregina herriko ordena publikoa zaintzea zen. Bestalde, Kontzeju Nagusia biltzeko deia juradoak egiten zuen, "a llamamiento de nuestro jurado". Esate baterako, istiluak zeudenean, juradoak eragileak atxilotu behar zituen, beti ere alkatearen aginduz; eta, auzietarako lekukoen bila joan behar zuen. Bestalde, Kontzejuak erabiltzen zituen neurri eta pisuak kontrolatu behar zituen; eta, azkenik, gartzelako zaindaria ere juradoa izaten zen⁵⁴⁷.

XVI. mende hasieran ofizial honek beste ofizialak hautatzeko edo izendatzeko eskubidea zuen eta juradoen ofizioa urtero berritzen zen⁵⁴⁸; XVII. mendean, berriz,

⁵⁴² Udal Ordenantzetan, 13. kapituluaren, alkateak, erregidoreak eta sindiko basozainak herriaren mugarriak urtero errebisatu behar zituztela aipatzen zen. Beraz, ez da arraroa sindikoaren lanak lotura handia izatea basozainarekin. Horrela, sindikoa mendi eta udal ondasunen egokitasunaz arduratzen zen, batez ere, zuhaitzen babesaz (OUA, C-222-2, C-225). Tolosan ere, sindikoak basozainaren betebeharrak asko bereganatu zituen XVIII. mendean (TRUCHUELO GARCÍA, S.: *Gobierno municipal. Op. cit.* 206. orr.)

⁵⁴³ GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.217 (1515-IX-10).

⁵⁴⁴ Udal Ordenantzak, 5. kapituluaren (1607).

⁵⁴⁵ Adibidez, Ignacio de Allurralde, 1745, 1755 eta 1766an bi ofizioak bete zituen (OUA, C-222-2 [1745-IX-29], C-221-2 [(1755-IV-6)]).

⁵⁴⁶ Udal Artxiboan dagoen *Libros de Plantaciones* izeneko dokumentuan, basozain bakoitzak urtero herrian landatzen ziren zuhaitzen kontua azaltzen da (OUA, C-225).

⁵⁴⁷ Horrela zioten Ordenantzak: "Yten que el jurado hexecutor d'esta dicha villa tenga quatro pares de grillos y la cadena grande con sus candados y llaves bien puestos de manera que estén para usar d'ellos y hechar a las personas que merescieren y mandare el dicho alcalde y regidores, e que después de acavado su año se los dé y entregue al otro jurado hexecutor del otro año por cuenta y razón para el dicho heffeto, y las medidas y marcas del bino e azeite y sidra marcados con la marca y señal de la dicha villa, e tome su carta de pago del dicho jurado a quien entregare las dichas medidas, pesos y pesas a todo lo que así les entregare por cuenta y razón" (Udal Ordenantzak, 45. kapituluaren).

⁵⁴⁸ 1511-1516 urte bitarteko hauteskundeak (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215-1217).

nahiz eta urtero berritu, ez zen hautesle; eta, XVIIIan, juradoaren ofizioa biziartekoa izaten zen, hau da, bizitza guztirako. Bestalde, garai honetan ofizial guztiek elkar hartuta juradoa izendatzen zuten.

3.9. GAINONTZEKO KARGUAK

Orain arte aipatutako karguez gain, baziren Orion bestelako karguak, eta, gainera, eguneroko bizitzarako beharrezkoak zirenak. Esaterako, ekonomia arloan, alkabalak — salerosketen gain kobratzen zen zerga biltzen zituena—, emate-agiriak eta hamarrenak biltzen zituztenak, bula edo bulden biltzailea, eta ganbara-zigorren hartzailea ("receptor de penas de cámara").

a) Alkabala biltzailea

XVI. eta XVII. mendeetan Kontzejuko ofizialek urtero izendatzen zuten alkabala biltzaile bat; baina era berean, maizter bat ere izendatzen zuten dirua bildu zezan, gero biltzaileari emateko. XVII. mendean, ordea, desagertu egin zen ofizio hori eta, gerora beste sistemak erabili zituzten aipatu zerga kobratzeko⁵⁴⁹. Bestalde, lanbide hori ez zen beste karguekin batera hautatzen, zeregin oso zehatzak baitzituen.

b) Hamarrenen eta emate-agirien biltzaile zintzoa

"Fiel y cogedor de los albalaes y diezmo viejo" izeneko kargua XIII. mendean sortutakoa da, eta harrezkerotik Oriok kobratu zuen erregeak burdinari ezarritako zerga. XVII. mende hasiera arte iraun zuen karguak, eta ordurarte herriko ofizialek kargu horretarako pertsona bat hautatu izan zuten⁵⁵⁰.

c) Bulda biltzailea

XVIII. mendean sortu zen kargua, eta Orion, batzuetan alkateari, bestetan eskribauari edota maiordomoari zegokion bulda biltzea⁵⁵¹. Hauteskundeak izaten ziren egun berean hautatzen zuten kargua.

d) Ganbara-zigorren eta justizia gastuen hartzailea

Ofizioaren betebeharrak Kontzejuaren batzarretan azaltzen ez ziren pertsoneri isun bat ordainduaraztea zen, eta Kontzejuaren auzien inguruko gastuak ere pertsona hauen bidez kontrolatuta zegoen. Orion, hauteskunde egunean, kargu horretarako pertsona bat hautatzen zuten. Kasu batzuetan beste ofizialak ziren kargu horretaz arduratzen zirenak, esaterako, basozaina⁵⁵².

⁵⁴⁹ 1508. urtetik aurrera hasi ziren izendatzen Orion "fiel cogedor de la alcabala estranna" izeneko ofiziala; urte horretan Martin Sanchez de Ondarra izan zen izendatua, 1510ean Domingo de Urdaire eta Matxin de Argiaín izan ziren. Ofiziala hautatu ondoren, alkabala enkantean jarri eta maizter (diru kopurua biltzeko) Domingo de Miranda aukeratu zuten (GPAH, 2/1.215 [1508]; [1510-I-1]; [1510-I-20]). Alkabala zerga aztertzerakoan gaia berreskuratuko dugu.

⁵⁵⁰ 1507an Juan de Errialde izan zen "fiel y cogedor de los albalaes y diezmo viejo"; 1510ean, berriz, Juan de Urreiziti (GPAH, 2/1.214 [1508-I]; [1510-I-1]). XVII. mende hasieran Oriok ofizio hori hautatzeari uko egin zion (Ikusi 1601, Ekonomi atalean).

⁵⁵¹ Juan Beltran de Illunbe eskribauak bildu zituen buldak 1781ean; 1785ean, berriz, alkate ordeak, Joseph Antonio de Lertxundik; eta 1801ean, maiordomoak (OUA, C-223-1, C-223-2).

⁵⁵² 1760tik 1787ra bitartean Esteban de Endaia basozainak bete zuen lana (OUA, C-223-1 [1787]).

e) Portu zaindaria

1580an, Korregidoreak aginduta, portutik atera eta sartzen ziren gaiak kontrolatzeko sortu zen portu zaindariaren kargua. XVI. mende bukaerarte iraun zuen karguak, eta horretan aritzen zenak zeregin zehatza zuen: Genoa, Ceuta eta Lisboako produktu eta jendearen sarrera eragotzi behar zuen⁵⁵³. XVI. mende bukaera arte iraun zuen portu zaindariaren karguak.

f) Erloju-konpontzaile eta iturgina

Erlojuak eta iturriak beti ondo izateko, Kontzejuak bi lagun aukeratzen zituen aipatu lanetarako, eta, jakina, soldata bana zuten.

Bestalde, Orion baziren osasun gaitiaz arduratzen zirenak ere, esaterako medikua, zirujaua eta barberua. Irakaskuntza arduradunaere bazen, maisua⁵⁵⁴.

Horretaz gain, festekin zerikusia duten jardueretan aritzeko hainbat lagun ere bazen, hala nola, danbolinjoleak, txistulariak, organojoleak...⁵⁵⁵.

Beraz, ofizial guztiek, kargu txiki horiekin batera, Orioko gobernua, hazienda, osasuna, irakaskuntza, festak, eta abar antolatzen zuten, herritarren bizimodua erraztuz.

4. UDAL GOBERNUAREN ANTOLAKETAREN BILAKAERA XIX. MENDEAN

XIX. mendean ere oso jende gutxik parte hartzen zuen Kontzeju Nagusian; hauteskundeetan karguak zuzenean izendatzen zituzten. 1845. urteko Udal Legearen arabera, udal gobernua alkateak, ordezkariak eta 6 erregidorek osatu behar zuten; guztiz oligarkizatua zegoen garai hartan⁵⁵⁶.

VI. UDAL HAZIENDAREN ANTOLAKETA

Orioko udal haziendaren antolaketa XVI. mendetik datorkigu. Harrezkerotik, eta denboraren poderioz, azpiegitura aldatu eta garatu egin da.

Kontzejuko Erregimentua, herriko "aita" bezala, "etxea"ren gobernu ekonomikoaz arduratzen zen⁵⁵⁷. Hau da, alkateei eta erregidoreei zegokien herriaren zuzendaritza: diru sarrerak, errenten gestioa, gastuak, maiordomoaren jarduera eta abar. Hori guztia, Kontzejuko Erregimentuaren zuzendaritzapean zegoen.

⁵⁵³ Kargu horretarako, alkateek, erregidoreek, maiordomoak eta juradoak, Kontzeju Nagusian bilduta, Nicolas de Endaia izendatu zuten (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 3/1.824 [1580-I-22]).

⁵⁵⁴ Osasuna eta irakaskuntzaz Kultur Agerpideari buruzko atalean arduratuko gara.

⁵⁵⁵ Gai hauetaz ere Kultur Agerpideen inguruko atalean arduratuko gara.

⁵⁵⁶ GOROSABEL, P. de: *Diccionario. Op. cit.* 370. orr.

⁵⁵⁷ BRUNNER, O: *La casa como complejo. Op. cit.*

1. UDAL HAZIENDAREN MENPETASUNAK

Udal hazienda ez zen autonomoa; batetik, korregidoreak udaleko kontuak aztertzen zituen; eta bestetik, XVIII. mendetik aurrera, Hautamen eta Propioen Artekaritza Orokorra izeneko erregearen organuak, udal gastuak eta sarrerak ikuskatzen zituen⁵⁵⁸.

Bestalde, Probintzia mailan, "zerga-askea" zelakoaren arabera, aspalditik (XV. mendetik aurrera) Sukaldezko banakuntza ("repartimiento fogueral") zerga bilketazko sistema nagusia izan zen. Hain zuzen ere, Probintziak erregeari eman behar zizkion zergak herrien artean banatzen ziren, herri bakoitzak zituen suen arabera. Oriok, 1826. urtera arte 5 su zeuzkan, hortik aurrera 8 izan zituen. Sukaldezko banakuntza sistema XVI. mendera arte luzatu zen, hortik aurrera, Probintziak ordaindu zituen zergak, kontsumorako produktuen gaineko zergak herriek ordaindu zituzten⁵⁵⁹. XVII. mendean, Probintzian, beste fiskalitateak martxan jarri ziren: donatiboak, gerrarako ordainak, komunikabideen lanetarako ordainak, etab.

XVI. mendetik XIX. mendera arte, Orioko Kontzejuko haziendari dagokionez honako sarrera ekonomikoak zituen: ondasun propioen errentak, salmentak, sisa eta arbitrioen zergak; eta bestetik, honako gastuak: soldatak, festak, alkabala, maileguren ordainak, lanak... Azpiegitura horrek XIX. mendeko 20. hamarkada arte iraun zuen; baina gerora, Gipuzkoako udalek, beren zorrei aurre egiteko, zenbait ondasun propio saldu zituzten. Gure historia lanari dagokionez, ondasun propioen salmentak hasi ziren garaia da ikerketaren azken puntua, horrela, sarrera eta gastuen arteko oreka edo desoreka aztertuz, Orioko hazienda, batez ere XVIII. mendean, argitzen saiatuko gara.

2. ORIOKO UDALAREN SARRERA EKONOMIKOAK ETA BILTZEKO MODUA

Orioko Kontzejua zituen sarrera ekonomikoak bi ataletan banatzen ziren; batetik, udalaren ondasun propioak; eta bestetik, zergak.

2.1. ERRENTAK: ONDASUN PROPIOAK

Herria fundatu zenetik Oriok zenbait lurren jurisdikzioa izan zuen, eta horiek osatzen zuten udal ondasuna. Propioak eta komunalak izan zitezkeen; ondasun propioen antolaketa Kontzejuari zegokion, ahalik eta onura gehien ateratzeko; Komunalak, berriz, herri guztiaren probetxuramendurako ziren. XVI. mendean Orioko udalaren funtsezko ondasunak edo propioak hauek ziren: lonja bat, Lusarbe etxaldea, bi errota, harategia, Sudugaray eta Arratolako pasaiak, zenbait lur eremu, harrobiak, itsasadarra eta nasetako arrantza⁵⁶⁰. Denborarekin, ondasun guzti horiek haunditu egin ziren eta XVIII. mendean propioen antolaketa hauxe zen: Itxaspe, Lusarbe Erdi, Lusarbe Aundi eta Munioeta Etxaldeak, Marea, Txanka Goiko eta Beheko errotak, Arriaga etxea, tabernak, lonja, lasta, Sudugaray eta Arratolako pasaiak, landalurrak, baratzak, txabolak, zuhaitzak, egurra eta itsasadarreko arrantza.

Orion, propio guzti horiek errentan ematen ziren. Kontzejua eta errentan hartzeko asmoa zutenek, Pilliku plazan biltzen ziren. Bertan, propioak enkantean jartzen ziren eta jendeak bere eskaintza azaltzen zuen. Eskaintza handiena egiten zuenak hartzen zuen errentan, baina, beti ere fidatzaile bat aurkeztu behar zuen, eskaintakoa ordaintzerik ez bazuen hark ordain zezan.

⁵⁵⁸ XVIII. mendetik aurrera, Erregearen eskuartzea udalean areagotu egin zen. MUGARTEGUI, I.: *Estado, provincia y municipio. Estructura y coyuntura de las Haciendas municipales vascas. Una visión a largo plazo (1580-1900)*. IVAP, Oñati, 17. orr.


⁵⁵⁹ "Repartimientos y derramas foguerales" aztertzeko ikusi, FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. eta BILBAO, L. M.: *Hacienda Pública española (1987, 1991)*.

⁵⁶⁰ GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.788 (1562).

a) Sudugaray eta Arratola Ontzi Pasaiak

Pasaietako eskubidea da Oriok izan duen pribilegiarik zaharrenetakoa. 1484. urtekoak dira lehen aztarnak, hain zuzen, Errege Katolikoek Kontzejuari pasaiak errentan jartzeko baimena eman zioteneko. Bi ontzi erabili ohi ziren jendea eta abereak pasatzeko. Behartsuek eta erromesek ez zuten ordaindu behar pasatzeagatik⁵⁶¹. Baina, XVIII. mendean, Kontzeju Nagusiak erabaki zuen oriotarrek ere ez zutela pasatzeagatik ordaindu behar, baldin eta merkatal helburuak ez bazituzten; janaria pasatzeagatik ere, esate baterako garia, ez zuten ordaindu behar, familiarentzako janaria baitzen⁵⁶². Gainontzeko guztiek eskubideak ordaindu behar zituzten.

Bestalde, Arratola zein Sudugarayko pasaiak gauez erabiltzea debekatuta zegoen. Horretaz gain, pasaiak errentan hartzen zutenek betebeharrak jakin batzuk zituzten, esate baterako, festetarako danbolinjolea eta txistularia ekarri eta, janaria eta etxea eman; eta, jaietarako zezena ekartzeaz arduratu behar zuten⁵⁶³.



Pasaietako pribilegioa oso zaharra zen. Argazkian, zur-garraioa.

Ontzi pasaien maiztertzaren iraupena diferentea izaten zen, batzuetan bi edo hiru urtez luzatzen zen; eta bestetan, maiztertzaren pertsona berari berritzen zitzaion⁵⁶⁴, batez ere konfidatzailea eta lana ondo egiten zuenari. Bestalde, maizterrek ordaindu behar zutena urtero aldatu egiten zen. Dena dela, diru sarrera garrantzitsua izan zen Kontzejuarentzat.

⁵⁶¹ III. Eranskinean aurkezten dugu Pribilegio originalaren transkripzioa. Ondasun propioak ikusteko, aztertu III. Mapa.

⁵⁶² 1685. urteko Pasaietako Arantzela izan zen, eta 1707an martxan jarraitzen zuen (OUA, C-219 [1715-VI-2]). Oriotarrek zituzten pasaien inguruko pribilegioak Arratola eta Sudugaray pasaietako enkante agirietan azaltzen ziren (OUA, C-222-2 [1736-VI-16]). 1685-VII-9an ezarri zen arantzela hau: oriotarrek eramaten zuten zaldi zama bakoitzeko, 12 marabedi ordainduko zituzten; zaldiak zamarik gabe zihoaztenean, 6 marabedi.

⁵⁶³ Arratolako ontzi-gidariari danbolina ekartzea zegokion; Sudugaraykoari, berriz, txistularia eta zezena (OUA, C-222-2 [1747-V-28]).

⁵⁶⁴ Aurkitutako kasu gehienetan, bai Arratola bai Sudugaray pasaien maiztertzak bi edo hiru urteko iraupena izaten zuten. Adibidez, 1765. urteko enkantean, pasaietako eskubidea hiru urterako eman zen (GPAH, Antonio de Illunbe, 3/1.890 [1765-V-18]). 1775ean ere hiru urterako izan zen (GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.923 [1775-VII-16]). Baina, nahiz eta maiztertzaren orokorrean, bi edo hiru urterako izan, normalean pertsona berari luzatzen zitzaion, esaterako, 1787an, Miguel de Orendainek, errentaren luzapena eskatu zuen eta 30 urtez aritu zen lan horretan; Jose Antonio de Egañak, Arratolakoak, berriz, 5 urte eman zituen (OUA, C-223-1 [1787-II-18]).

Arratola eta Sudugaray pasaietako eskubideak XIX. mende arte iraun zuen, izan ere, Foruen Ezabaketarekin batera, Orioko Kontzejuak pasaietako eskubidea galdu egin zuen⁵⁶⁵.

Sudugaray eta Arratola pasaiak Kontzejuak zituen errentarik garrantzitsuenak izan ziren⁵⁶⁶.

b) Itsasadar eta nasetako arrantza

Orioko Kontzejuak, gutxienez XVI. mendetik aurrera, Oria ibaian eta itsasadarrean arrantzan aritzeko eskubideak bereganatu zituen; eta, Kontzejuak arrantza eskubidea errentan ematen zuen. XVI-XVII. mendeetan, Kontzejuak bi enkante egin zituen, itsasadarreko arrantzarena eta izokin nasetakoa. XVIII. mendean, berriz, enkanteen arabera, bi probetxamenduak bateratu egin zituen, eta, errentak itsasadarrekoak bakarrik ziren.

1695. urtean Kontzejuak beste nasa bat eraiki zuen, hain zuzen Zalmaristin zituenaren ondoan⁵⁶⁷.

Enkantearen bidez maizterra erabaki ondoren, Kontzejuak arrantzan harrapatutakoa zein baldintzatan saldu behar zen erabakitzen zuen. Esate baterako, arrainaren prezioa erabakitzen zuen. 1575. urtean izokin nasekin harrapatutakoaren prezioa zen: San Miguel egunetik Pazko bitartera, izokin libera 2 erreal; kolaka 24 marabedi; lupia erreal erdia; bestalde, Pazkotik San Miguel eguna bitartean, izokin eta kalako liberak erreal bat balio zuen. Arraina kalean saltzen zuten, Piliku plazan, eta Kontzejuaren aginduz, bi orduz egon behar zuten saltzen⁵⁶⁸, bi ordu pasa ondoren, geratzen zitzairen arraina etxera eraman zezaketen. XIX. mendean, berriz, Kontzejuak arauak aldatu egin zituen, eta, harrapatutakoaren erdia sal zezaketen kalean. Bestalde, Udal Ordenantzetan arautzen zenaren arabera, maizterrak arrantzara joan nahi zuen bakoitzean erregidoretako batek jakinaren gainean egon behar zuen⁵⁶⁹.


⁵⁶⁵ Orioko Udal aktetan 1876. urtetik aurrera pasaietako pribilegioa kenduz gero sortutako kalteak agertzen dira. Horregatik, Udalak Probintziako Diputazioari indemnizazioa eskatu zion (OUA, L-28 [1876-XI-26]...).

⁵⁶⁶ Ikusi XIII. TAULA.

⁵⁶⁷ Kontzejuak nasa berriaren maiztertzatza, 10 urtez, Antonio de Porturi ematea erabaki zuen, eta berak, urtero, 10 dukateko errenta ordaindu behar zuen (GPAH, Agustin de Aranza, 3/1877 [1695-VIII-7]).

⁵⁶⁸ GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.801 (1575-III-10).

⁵⁶⁹ Adibidez, 1810. urteko itsasadarraren arrantza eskubidearen enkantean baldintzak zehaztu ziren; horretaz gain, arrainaren prezioa Kontzejuak jartzen zuen: "libra de corrocón de peso de dos en libra a cinco cuartos la libra; del mismo pescado de menor tamaño a tres cuartos la libra; libra de lengoado a doze cuartos; la de lubina a siete cuartos; la de lapuza o zaboroa a ocho; la de zarbo o barbo a cuatro" (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.957 [1810-XI-21]).



Piliku enparantza (*Photomuseum Artxiboa*).

Arrantzaren maiztertzak XIX. mende bukaera arte iraun zuen, hain zuen, 1879an Diputazioak ibaietako nasa guztiak kentzeko agindu zuen arte⁵⁷⁰. 1880. hamarkadan ere, Udala enkante sistema baztertzen saiatu zen, eta, 1910. urtean desagertu egin zen betiko⁵⁷¹.

Arrantzaren errentatik jasotzen zena, Kontzejuak zituen propioen sarreraren %1a zen, bataz beste⁵⁷².

c) Errotak: Txanka Goikoa eta Behekoa, eta, Marea Errota

Orioko Kontzejuak, gutxienez XVI. mendean geroztik, bi errota zituen, gerora, XVIII. mendean, Txanka Goikoa eta Behekoa izenez ezagutu zirenak. XVI. mende hasierarako Kontzejuak bi errotak errentan ematen zituen, eta oriotarrek hara eramaten zituzten aleak ehotzeko. Ibaiko errotak ziren⁵⁷³.

XVIII. mende hasieran, nekazaritza prozesuaren garapenarekin batera, Kontzejuak beste errota bat eraikitzea erabaki zuen: Marea Errota. Itsasgoran zenean, olatuen indarra aprobetxatzen zuten errota martxan jartzeko, eta hortik datorkio izena. 1705ean hasi ziren egiten Zalmaristin, eta, errentan emateko lehen enkantea 1710ean izan zen⁵⁷⁴.

⁵⁷⁰ "Orden de la Diputación de destruir todas las nasas, empalizadas, estacadas y otras cosas que estén fuera del reglamento de pesca de la Provincia y que existan en la ría del Oria". Orioko Udalak, bere nasak babestearren, Oria ibaian zeudenak Usurbilgo jurisdikzioari zegozkiola esan zuen (OUA, L-28 [1879-VIII-24]).

⁵⁷¹ 1876. urtean, oriotarrek, Foru Ezabaketarekin batera Oriok arrantza errentan emateko pribilegioa galdu zuela aipatzen da, eta oso kaltegarria izan zela azpimarratu zuten (OUA, C-36 [1910-III-18]).

⁵⁷² Ikusi XIII. TAULA.

⁵⁷³ 1506 eta 1510. urtekoak dira errotak errentan eman zirenen lehenengo dokumentuak (GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.214 [1506]; [1510-IV-28]; 2/1.215 [1510-VI-5]).

⁵⁷⁴ 1705ean Marea errotako lanak hasi zirela aipatzen da dokumentu batean, eta bertan jende askok parte hartu zuela esaten da. Errotara heltzeko bidea Areizaga Almirantearen lurak zeharkatu behar ziren, eta, lurak ez hondatzeko, Areizagari bere lur horiek Kontzejuak Aranon zituen beste batzuren truke eman zizkion. Horrela, errota eta errotariaren etxea bukatu ahal izan zuten (GPAH, Agustin de Aranza, 3/1.879

Txanka eta Marea Errotaren enkantea egiten zenean, errotariak bete behar zituzten baldintzak zehazten ziren: Orioko herritarrek eta biztanleek lehentasuna zuten, kanpotarren aldean, beren aleak ehotzeko; ehotu ondoren, garia edo artoa, errotako pisuan edo lonjan eman behar zuten. Errotariak, jakina, aleak ehotu eta pisatzeagatik kobratzen zuten. Errotak kalteren bat izanez gero, errotariari eta Kontzejuari zegozkien konponketak egitea⁵⁷⁵.

Errotan maiztertza, pasaietakoarekin gertatzen zen modura, Kontzejuak pertsona berari berri ohi zion, beti ere lana ondo egin bazuen.

Errotan errenta, XVIII. mendean, Kontzejuak izan zuen errentarik emankorrenetakoa izan zen, hain zuzen, sarreren %14a izan zen⁵⁷⁶.

d) Etxaldeak

Lusarbe, Muniota eta Itxaspe etxaldeetan eta inguruko lurretan, artoa eta garia oso ugaria zen; beraz, nekazaritza aurrerapenerako oso leku garrantzitsuak izan ziren. Etxaldeetako maizterrek ongarririk atera ahal izateko, karobiak egin behar zituzten, bai beren lurretan erabiltzeko, eta bai beste herritarrei emateko. Bestalde, Kontzejuak, urtero, zuhaitz kopuru jakin bat landatzeko agintzen zien, birlandaketa bultzatzeko eta basoen iraupena ziurtatzeko⁵⁷⁷.

- Lusarbe etxaldeak Kontzejuak zituen etxalde zaharrenetakoa ziren. 1550. hamarkadan, Kontzejuak Pedro Ortiz de Ganboari, Zarauzko Ahaide Nagusiari, erosi zizkion 900 dukatetan⁵⁷⁸. Lusarbe etxaldean errentekin Kontzejuak Orioko sarrera ekonomikoen %7- 16 bitartekoa jaso zuen⁵⁷⁹.

[1705-V-17]; [1705-VIII-13]; [1705-IX-28]]. Lehenengo enkante publikoa Pedro de Minerrek irabazi zuen; maiztertza bi urtez luzatu zen, eta, urtero, Minerrek "362 reales de a 8 y medio y 23 maravedís" Kontzejuari ordaindu zion (GPAH, Agustín de Aranza, 3/1.880 [1710-III-3]).

⁵⁷⁵ Adibidez, Marea Errotan, errotariak kobratzen zutena hauxe zen: "por cada fanega de trigo, seis libras, y por cada fanega de maíz, ocho libras, éste siendo de ochenta libras a razón de diez libras vno"; bestalde, errotaren kalteak horrela banatuko ziren: "las obras maiores, como son paredes principales del molino y presa, piedras de moler, espadas y zeio, aparejos de levantar piedras, sean a cuenta de la villa, como también si sucediere de romper algunas piedras de los cubos, las dos tercias parte aia de llevar la dicha villa, y una tercia parte, el rematante; también aian de ser las obras menores como son rodeznos, vios, estoldas y componer puertas de comporta, a cuenta del rematante, dándole la villa el material en su monte conzejil (...) el rematante a su costa el hazer y componer los fierros pertenecientes al dicho molino". OUA, C-221-1 (1748-VI-16).

⁵⁷⁶ Ikusi XIII. TAULA. Errotei buruzko aipamenak: AGUIRRE SORONDO, A.: *Tratado de molinología. Los molinos de Guipúzcoa*. El-SEV. 1988.

⁵⁷⁷ Basozainak, urtero, zuhaitz landaketak ikuskatzen zuten (OUA, *Libro de Plantaciones*. C-225 [1738-1865]). Lusarbe, Itxaspe eta Muniota etxaldeetako maizterrek beren lurretan karobi bana egin behar zuten, eta betebeharreko baldintza hauxe zen: "cocer una calera de quinientos quintales machos" (OUA, C-223-1 [1787]).

⁵⁷⁸ OUA, C.III, D.2 (1547-1548). Urte batzuk geroago, Ganboatarrak salmenta desegin nahi izan zuen, baina, Valladolideko Kantzelaritzak erabaki zuen Oriori zegokiola jabetza (VEKA, *Pleitos civiles, Masas fenecidos*. C/1.124/2 [1551-1552]). Baina Pedro Ortiz de Zarautzek ez zuen etsi eta Orioko Kontzejuaren kontrako auziak eztabaidatzen jarraitu izanaren dokumentu gehiago daude, esaterako, 1612an. Hala eta guztiz ere, Orioko Kontzejuak etxaldea errentan ematen hasi zen, beraz, Ganboatarren asmoak ez zuela aurrera egin suposa dezakegu (OUA, C.III, D.2 [1612]).

⁵⁷⁹ Lusarbe "allende"ko (gaurko Lusarbe Handi) portzentaia % 4-8a zen, 1762-1798. urteen artean; Lusarbe "El Medio" edo Lusarbe Erdikoak, berriz, % 3-9a zuten.

- Bestalde, XVII. mendean, 1670ean, nekazaritzaren garapena bultzatzeko Orioko Kontzejuak Ixtaspe baserria eraikitzea erabaki zuen. Harrezkerotik, baserrien inguruko lurak ere errentan eman zituen Orioko Kontzejuak⁵⁸⁰.

- Bunioeta edo gaur egun Muniota izenez ezagutzen dugun baserria, 1625ean eraiki zuten Kontzejuarentzat Joanes de Arbestain eta Antonio de Idoeta maisuek⁵⁸¹. XVII. mendean Kontzejuak errentan jarri zuen, eta, derrigorrez, lanberriak eta basoak birlandatu behar zituen maizterrak⁵⁸².

Beraz, garbi dago, Kontzejuarentzat komenigarria zela etxaldeak edo baserriak errentan jartzea, diru-iturri garrantzitsua baitziren⁵⁸³.

e) Lurrak

Batez ere, XVII. mendeaz geroztik, oriotarrek Kontzejuari baimena eskatzen zioten udal lurak lanberritzeko. Zalmaristi, Arano, San Juan, San Martin, Talaia, Ixtaspe, Bunioeta, Lusarbe eta Antillako lurak lanberritu eta errentan eman ziren⁵⁸⁴.

Nekazaritza prozesuaren eraginez Orioko nekazari guztiak Kontzejuaren maizterrak ziren; eta norberaren baserria zuenak, askotan, Kontzejuaren lurak hartu behar izaten zituen errentan. Horien artean, Errezabal, Aizperro, Kallaberro, Lizargarate, Itxaiz, Aganduru, Agerre, Aldape eta Etxeberri baserrikoek⁵⁸⁵.

XVIII. mendean, ondasun propioei dagokionean, lurren eta baserrien errenta izan zen kontzejuarentzat diru iturri garrantzitsua, errenta guztien %23a izan baitzen⁵⁸⁶.

f) Beste errenta batzuk

Aipatu diru sarrerez gain, Orioko Kontzejuak bazituen bestelako batzuk ere. Esaterako, portuan zegoen Arriaga etxea. Taberna, harategia, lonja eta ardoa saltzen zen, eta, orokorrean Kaia edo Plazako etxea deitzen zioten.

Arriagako maizterrak gela bat hutsik izan behar zuen, festetan, zezenak izaten zirenean, erabiltzen zuten egurrezko hesia gordetzeko⁵⁸⁷. Bestalde, maizterrak portuko konponketa lanetan lagundu behar izaten zuen. Izan ere, XVIII. mende bukaeraz geroztik, Kontzejuaren ondasun propioak errentan zituzten ia maizter guztiak lagundu behar izaten zuten portuko lanetan.

⁵⁸⁰ 1750. urtearen aipamen batean Kontzejuak Ixtaspe etxaldea 1670. urtean eraiki zuela azaltzen da (OUA, C-225 [1750-VI-12]). Izan ere, XVIII. mende hasieratik aurrera, Ixtaspe eta "Aizleuntxikia" eta "Arziboton" izeneko lekuen artean Kontzejuak hainbat lur maiztertzan eman zituen (OUA, C-219 [1707...]). Etxaldea, besteak bezala, konpondu egin zen; Ixtaspren 1725ean izan zen konponketa lan garrantzitsua, etxaldea guztiz berritu izan behar baitzen (Joseph de Zubiaurre usurbildarrak zuzendu zituen lanak) (GPAH, 3/1.883 [1725-IX-25]).

⁵⁸¹ GPAH, Gabriel de Arbe, 3/1.834 (1627-III-8).

⁵⁸² Etxaldea Kontzejuak errentan izan zuela jakin dugu 1713. urteko agiri batean aurkitutakoaren arabera (OUA, C-219 [1713]).

⁵⁸³ Ikusi XIII. TAULA.

⁵⁸⁴ Adibidez, ikus dezagun nolakoa zen XVIII. mendean lur eremu baten enkante eta maiztertzaren baldintzak: "(...) almoneda y remate de las tierras sembradas de la Atalaia para el tiempo y espacio de nueve años (...) con condición que están dados sesenta reales de vellón por cada vn año por Lazaro de Munoa, dándole el primer año de gratis por la ocupación de hacer setos, y que dichas tierras aian de sembrar por el rematante, y no an de estar al pasto del ganado y además de todo argomal y elecho de aquel partido aia de cortar y recoger el rematante para el abono de dichas tierras y no otro ninguno" (OUA, C-220 [1743-X-6]).

⁵⁸⁵ Baserrien jabeek, beste baserriarrek bezala, Kontzejuaren lurren probetxamenduagatik kopuru bat ordaindu behar zuten (GPAH, Juan Bautista de Illunbe, 3/1.933 [1785]).

⁵⁸⁶ Ikusi XIII. TAULA.

⁵⁸⁷ XVIII. mendean kaian egindako etxearen enkantean harategia, taberna eta errotariaren lonja izan ezik gainontzekoa maiztergoan hartzea bazela esaten da (GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.939 [1790]; 3/1.940 [1791]; 3/1.941 [1792]...). Guztien errenta 12 dukatekoa zen. Bestalde, pisatzeagatik honakoa kobratzen zen: "(...) en la lonja y pesa se pesen los vinos, carnes, pescado, aceite y otras cosas que fueren necesarias (...) por cada carga de vino y aceite siendo obligado de esta dicha villa aya de llebar en pesando un cuartillo de real de plata, y siendo de ventureros y de todos los demás cuatro por la dicha carga, por cada fanega de trigo, maíz, haba, legunbre, sal y otras cosas un ochavo; por cada buey o vaca, una libra de carne o su valor; por cada ganado menor, dos cuartos; por cada pesada de pescado un ochavo; por cada quintal de fierro, un cuarto; una vez pesados los géneros han de sacarse fuera de la lonja, salvo el vino, que a de estar ahí del obligado" (OUA, C-221-2 [1749-VI-1]).

Kaiko Arriaga etxean saltzen ziren produktuak Kontzejuak ekartzen zituen, hau da, Kontzejua arduratzen zen horniduraz. Gauza bera gertatzen zen herrian zeuden gainontzeko dendetan ere. Alkateek eta erregidoreek erabakitzen zuten zein preziotan saldu behar zituzten gauzak⁵⁸⁸.

Orioko portura etortzen ziren ontziek ere zerga bat ordaindu behar zuten ontziak bertan izateagatik. Ontziek lasta behar zuten amarratuta egoteko. "Lastre", "mollaje" edo "anclaje" izeneko eskubidearen maiztertza Kontzejuak zuen. Kontzejuak, lan hori errentan zuen eta maizterrak armadoreei diru kopuru jakina eskatzen zien⁵⁸⁹.

2.2. SALMENTAK: EGURRA

Orioko mendietatik ateratako egurra ere Kontzejuaren beste ondasun bat zen. Hala ere, ez zen errenta sistema erabiltzen, Kontzejuak zuzenean saltzen zuen egurra. Herritar gehienek erosi behar zuten egurra, beharrezkoa baitzen etxeetan, eta zer esanik ez ontziak egiteko. Beraz, esan daiteke, egurraren salmenta diru iturri garrantzitsua izan zela Kontzejurentzat. Hain zuzen, XVIII. mendean diru sarreraren %6,3a egurraren salmentarekin lortu zuten.

2.3. ZERGA: ARBITRIOAK ETA SISAK

Ondasun propioak errentan emateaz edota saltzeaz gain, Kontzejuak beste zergak ere ezartzen zituen: arbitrioak eta sisak. Bi zerga horiek ezarri ahal izateko Erregeari baimena eskatu behar izaten zion Kontzejuak. Hain zuzen ere, Kontzejuak lana bereziak egin behar zituzten edo bere haziendaren sarrera ekonomikoak hobetu nahi zuenean, kontsumorako produktuen gain honelako zergak jartzea eskatzen zion erregeari.

Sisa izeneko zerga, produktuaren balioari kopuru bat kenduz lortzen zuten; eta arbitrioak, berriz, produktuaren prezioa gehituz⁵⁹⁰. Zerga horiek ezarri ahal izateko derrigorrezkoa zen Erregeari baimena izatea, baldintza batzuk eman behar baitziren: batetik, ekimen jakin batzuetara zuzentzen ziren, eta bestetik, epea ere mugatua zen.

Zerga horien ondorioz, kontsumorako produktuak garestitu egiten ziren eta herritarrentzat oso gogorra izaten zen, batez ere, krisialdietan. CRUZ MUNDETek azaltzen duenez, zergak bi modutan kobratzen ziren, errentan edo zuzenean dirua jasoaz:

*"El procedimiento arrendatorio, poniendo su cobro a remate del mejor postor, resultaba el sistema más ventajoso por cuanto ofrecía a éste una perspectiva sólida de beneficio y al Ayuntamiento verse libre de los gastos de la recaudación. El procedimiento recaudatorio, en el que el Concejo se encargaba de cobrar directamente las exacciones. Se recurría a él cuando las malas perspectivas espantaban a los licitadores o si sus ofertas resultaban inaceptables"*⁵⁹¹.

⁵⁸⁸ XVI. mendetik aurrera Kontzejuak ardoa, pattarra, olio eta haragia ekartzen zuen, horrela zioten Udal ordenantzak: "Otro sí que es justo y conviene a la administración de la justicia e bien e pro común de los vezinos y naturales d' esta dicha villa, que se aforen y tassen los mantenimientos para que se bendan y agan bender por menudo en la calle de la plaça pública de la dicha villa, que sus dueños se apremien a ello" (...) "Yten que los alcaldes y regimiento tengan buena cuenta que sea la villa bien proveída e bastecida de carne e pan, e por la Quaresma de cada año rematen las carnescerías para todo el año, que aya abundancia, y los tales regidores se provean de carne, y el alcalde y regidores tengan mucha cuenta de favorecerles e ayudarles para que así lo agan y cunplan, y rematat las dichas carnescerías con tiempo en la dicha Quaresma como es de huso y costumbre" (Udal Ordenantzak, 11 eta 42. kapituluak).

⁵⁸⁹ Maizterrak 2 erreal kuarto kobratzen zieten ontzietan (OUA, C-221-2 [1757-VI-5]).

⁵⁹⁰ "La sisa era una deducción que hacía el fisco del precio de venta de un producto". Gure Probintzian Arantzeltzat hartu zen, produktuek ordaindu behar zuten "sisa" hori azaltzen zen (DÍEZ DE SALAZAR, L. M.: *Ferrerías. Op. cit.* Vol. 2, 285. orr.).

⁵⁹¹ Maiztertza sistema nagusia izan zen (CRUZ MUNDET, J.R. "La hacienda municipal..", *Op. cit.* 150. orr.).

Orioko Kontzejuak, 1574. urtean erregearen baimena lortu zuen sisa eta arbitrio zergak ezartzeko. Horrela, aipatu urtean Orioko Kontzejuak zerga horiek ezarriko ziren produktuen zerrenda argitaratu zuen (Arantzela alegia): burdina, bakailua, antxoa, garia, zekalea, sagardoa, ontziak, izokina, errotetan erabiltzen ziren harriak, bale haragia eta koipea, ardoa, linazia, Orioko barratik sartu edo irtetzen zen edozein produktu... Hau da, produktu gehienetan ezarri zen.

Sisaren zerga portua hobetzeko ezarri zen, hau da, lortutako dirua portua hobetzeko lanetan inbertitu zuen Kontzejuak. Bestalde, zergak maiztertza sistemaren bidez bildu ziren, eta horren arduraduna Domingo de Aganduru izan zen. Sei urtez ezarri ziren zergak eta urteko 200 dukat bildu ziren⁵⁹².

1612an ere Erregeak baimena eman zion Orioko Kontzejuari zenbait produkturi zerga ezartzeko. Hortaz, 1613an, zerga ezarri zen produktuen zerrenda argitaratu zuen Kontzejuak. Orduan ere portua hobetzea zen helburua, aurreko mendean ez baitzen behar adina diru bildu portuko lanak bukatzeko. Hamar urte iraun zuen zergak⁵⁹³, eta seguruenik, Kontzejuak bildu zuen, agiritan ez baita azaltzen maizterraren izenik.

XVIII. mendean, berriro ere, Kontzejuak erregearen baimena lortu zuen ardo pitxar bakoitzeko zortzi marabediko sisa ezartzeko. Iturriak eta bideak konpontzeko, eta, maisua eta medikuaren soldatak ordaindu ahal izateko ezarri zen aipatu zerga. Hasiera batean, hamar urtez kobratzeko baimena eman zion Erregeak⁵⁹⁴, baina, 1784an, beste hogeitau urtez kobratzeko baimena lortu zuen Kontzejuak; 1805ean, berriz, baimena berriro eta lau marabedietan gehitu zen⁵⁹⁵.

Zergen eraginez kontsumorako produktuak garestitu egin ziren eta herritarrak ez zeuden oso gustora. Gainera, batez ere udalaren zorrak ordaintzeko erabili zuten zergen bidez ateratako dirua.

3. ORIOKO UDALAREN GASTUAK

Orioko Kontzejuaren sarrera ekonomikoak ikusi ondoren, jarraian, gastuak aztertuko ditugu. Kontzejuaren gastuak hauek ziren: soldatak, maileguen interesak, festak, bide konponketak eta eguneroko administrazio eta gestio lanetakoak.

3.1. SOLDATAK

Gobernuko ofizial batzuek urtero soldata kobratzen zuten. Baita, besteak beste, herriko maisu, mediku, festetan parte hartzen zutenek, eta abar⁵⁹⁶.

a) Alkateak eta sindikoa

Horien soldata 1762tik 1773ra bitartean 33 erreal kuartokoa izan zen; 1784an gehiago kobratu zuten, 44 erreal-kuarto; eta 1798an, berriz, gutxiago, hain zuzen, 40 erreal-kuarto.

⁵⁹² OUA, C.V, D.3/1 (1574-X-17). Ikusi DÍEZ DE SALAZAR, L. M., AYERBE IRIBAR M. R. *Juntas y Diputaciones...* Op. cit. T.VI (1574-XI-14/24).

⁵⁹³ OUA, C.V D.3/3 (1613-V-8).

⁵⁹⁴ OUA, C.V D.3/6 (1770-X-22). 1728an Oriok sarrera ekonomikoak sendotzeko arbitrioak edo sisak ezarri zituen, guztira, 132 erreal kuarto (MUGARTEGI: Op. cit. 58. orr.).

⁵⁹⁵ 1.932 dukat zor zituen (mailegu baten interesa) eta kontuan hartzeko datua da (OUA, C.V, D.3/6 [1784-VI-17]; C-223-2 [1805-XI-25]).

⁵⁹⁶ Soldatak aztertzeko iturri nagusiak hauek izan dira: OUA, C.V, D. 4/3 "Reglamento de cargas y arbitrios" (1762-1773); GPAH, Juan Bautista de Gorostidi. *Razón de los propios que esta noble villa tiene*. 3/1.945 (1798-VII-15).

b) Eskribaua

Eskribauaren soldata, XVIII. mende guztian, 600 errealekoa izan zen.

c) Prebostea edo juradoa

Horien soldata, 1769. urtera arte, 24 erreal kuartokoa izan zen; eta handik aurrera 33 erreal-kuartokoa.

d) Medikua

Medikuak, 1762tik 1769ra arte, ez ez zuen soldatarik izan. 1770. urteaz geroztik, 520-218 erreal arteko soldata kobratu zuen. 1798an, berriz, bere soldata 600 errealekoa izango zela erabaki zuten.

e) Maisua

1771ko uztailaren 11n emandako Erret Probisioaren arabera maisuak azterketa batzuk gainditu behar zituen; soldata, 1769. urtera arte, 770 errealekoa izan zen; hurrengo urtean soldata jaitsi egin zioten (704 erreal); 1771-1773 urteen artean ez zioten ezer ordaindu; baina, 1798an, berriz ere, hasieran adina kobratzea lortu zuen.

f) Erlojularia

Herriko erlojuaren konponketaz arduratzen zen. Bere soldata, XVIII. mendean, 88 erreal kuartokoa izan zen.

g) Zirujaua

Zirujauak, 1762-1770 urte bitartean, 638 erreal kuarto jaso zituen. Gero, 1798a bitartean, ez zuen soldatarik izan; eta azkenik, aipatu azken urtean, 600 erreal-kuarto jaso behar zituela erabaki zuten.

h) Batzar prokuradorea

Probintziako Batzar Nagusietara joatea zen prokuradorearen zeregina, eta, egunez egun kobratzen zuen soldata: 3 peso egunean. Dena dela, prokuradorearen soldatak batzarretan zuen partaidetzaren arabera izaten zuen, beraz, ez zuen soldata finkorik izaten.

i) Basozaina

1762-1777 urte bitartean 300 erreal kuarto zegokion, handik aurrera, eta XVIII. mende bukaera arte, soldata erdia kobratu zuen.

j) Iturgina

Iturginek ere lanaren arabera soldata izan zuten. Horrela, 1767-69 urte bitartean 60 errealeko soldata izan bazuten ere, XVIII. mende bukaeran, bikoiztu egin zen.

k) Danbolinjolea

Herriko festetarako danbolinjolea kontratatzen zen, eta XVIII. mendean, urtero 77 erreal ordaintzen zioten. Bestalde, herriko ospakizun guztietara etorri beharra zuen.

l) Maiordomoa

XVIII. mende osoan kopuru bera kobratu zuen, hain zuzen, 400 erreal.

m) Bulda biltzailea

Bulda biltzaileak 100 errealeko soldata zuen.

Soldatetan gastatutakoa, 1762-1773 urte bitartean, gastu guztien %37,6a izan zen. Urte batzuetan zenbait soldata ezin izan ziren ordaindu, beraz, gastu handi samarra izan zela pentsatzen dugu⁵⁹⁷.

3.2. MAILEGUEN INTERESAK

Edozein lan edo konponketa egin ahal izateko dirua behar izaten zen, eta hori, batzuetan Kontzejuarentzat arazoa izaten zen. Horrelakoetan, zerbait egin nahi eta nahikoa diru ez zuenean, Kontzejuak mailegua eta prestamoa eskatzen zien herritarrei, eta jakina, diru hori bueltatu egin behar zuen bere interes eta guzti. Zorra ordainduko zuela ziurtatzeko, hipoteka gisa Kontzejuak ondasun propioak uzten zieten mailegariei.

Garaiko maileguak aztertuz gero, badirudi Kontzejuak zor dezente izan zituela. Beraz, interesak ere kontuan izan behar dira gastuen zerrenda egiterakoan.

Oriok izan zuen zor handiena 1.932 zilar dukateko mailegua izan zen, eta mailegaria San Bartolomé Extramuros Mojetxea izan zen. Mailegua 1798an ere ez zen kitatu izan⁵⁹⁸.

3.3. ELIZAREN FESTAK ETA LIMOSNAK

Elizkizunen inguruko gastuak, limosnak, sermoiak eta horrelakoak ere kontuan izan behar dira⁵⁹⁹.

3.4. BIDEAK KONPONTZEKO GASTUAK

Kontzejuak, XVIII. mende bukaeran, herriko bideak eta Probintziak agindutako Errege Bide egiteko dirua inbertitu behar izan zuen. Bestalde, Probintziak erabaki zuen, udal guztiek ondasun propioen sarreren %5a bideak egiten erabili behar zutela⁶⁰⁰. Baina, Orioko udalak arazo ekonomikoak zituen Probintziak emandako araua betetzeko, eta, 1787an esan zuen, ezinezkoa zuela aipatu diru kopurua bidetan gastatzea⁶⁰¹.

3.5. ZUHAITZ LANDAKETA

XVIII. mendetik aurrera, ontzigintzarako beharrezkoa zelako batez ere, Orioko Kontzejuak basoak birlandatzeari ekin zion. Inbertsio handia egin behar izan zuen, esate baterako, 1789an gastu guztiaren %11a erabili zen basoak birlandatzen.

3.6. BESTELAKO GASTUAK

Nahiz eta gastu oso garrantzitsuak ez izan, kontuan izan behar dira, baita ere, ofizialen bidaiak, auziak, kontabilitatearen ingurukoak, eta abar.

3.7. ALKABALA ETA DONATIBOAK

a) Alkabala

XVI. mendeaz geroztik, Gipuzkoa Probintziak alkabala (salerosketen gain kobratzen zen zerga) ordaindu behar zion erregeari. Garai hartan alkabala beti kopuru jakina

⁵⁹⁷ Ikusi XIV. TAULA.

⁵⁹⁸ Ikusi XIV. TAULA.

⁵⁹⁹ Ikusi XIV. TAULA.

⁶⁰⁰ FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: "Gasto público reformas fiscales. Las Haciendas forales vascas" *Op. cit.* Izan ere, 1777an Probintziak errege bideak konpontzeko %5a erabili behar zela agindu zion Oriori (OUA, C-V D-4/3 [1777]).

⁶⁰¹ 1787an Kontzeju Nagusiak Oriok %5aren ordainketari aurre egiteko dirurik ez zuela aitortu zuen (OUA, C-223-1 [1787-VI-17]; C-223-2 [1802-IX-20]).

izaten zen eta sukaldetza-zergaren arabera biltzen zen⁶⁰². Oriok Zarautzekin batera ordaintzen zuen, eta XVI-XVII mende bitartean, batez ere errentan hartzen zen⁶⁰³. XVII-XVIII mende bitartean, berriz, olio, ardo eta haragi-horniketaz arduratzen zirenek biltzen zuten alkabala zerga⁶⁰⁴.

XIII. TAULA. UDAL HAZIENDA: SARRERA EKONOMIKOAK: ONDASUN PROPIOEN ERRENTAK (1798)⁶⁰⁵

UDAL ONDASUNAK	ERRENTAK (err.)	%
SUDUGARAY	1.155	16
ARRATOLA	198	3
ARRANTZA	77	1,3
MAREA ERROTA	600	8,3
TXANKA GOIKOA	220	3
TXANKA BEKOA	216	2,9
LUSARBE HAUNDI	674	9,3
LUSARBE ERDI	587	7,9
ITXASPE	450	6,1
BUNIOETA	630	7
LURSAILAK	1.707	23,1
ARRIA ETXEA	187	2,5
TABERNA	144	2
LASTA	92	1,3
EGURRA	469	6,3
GUZTIRA	7.406	100

⁶⁰² BILBAO, L. M.: "Haciendas forales y hacienda de la monarquía". *Op. cit.* 51. orr.

⁶⁰³ Orion alkabala zerga errentan ematen zen; maizterrak Zarauzko biltzaileari diru kopurua ematen zion, eta honek Probintziari. Ditugun datuen arabera, Oriori zegokion alkabala zerga 13 eta 10 dukat artekoa izan zen (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215). Alkabala errentan hartu zuena Domingo de Miranda izan zen (1510-I-20); Juan del Puertok hartu zuen (1555-XII-20); Martin de Argiaín alkabalaren maizterra izan zen (1561-V-1); Esteban de Miranda alkabala errentan hartu zuen (1606-I-29).

⁶⁰⁴ "La alcabala era un tributo indirecto que se repartía por encabezamiento la distribución del cupo que correspondía a cada lugar o villa. Los ingresos procedentes de la administración directa o arriendo de las alcabalas de las carnicerías, tabernas, etc. resultaban suficientes para cubrir el encabezamiento" (BILBAO, L. M., FERNANDEZ DE PINEDO, E.: "Factores que condicionaron la evolución del régimen de la propiedad...." *Op. cit.* 187. orr.).

⁶⁰⁵ Taulan ez dira azaltzen arbitrio eta sisa kopuruak.

b) Donatiboak eta gerrarako zerbitzuak

Probintziak erregeari ordaindu behar zizkion zergak herri guztien artean biltzen ziren. Gipuzkoak oso zerga gutxi ordaindu behar zizkion erregeari, zerga-erregimen berezi eta pribilegiatua zuelako, baina, XVII. mendeaz aurrera, erregeak donatiboak eta gerrarako diruak eskatu izan zizkion Gipuzkoari, eta horrek, herri guztietan dirua bildu ondoren, borondatez, ematen zizkion erregeari. Beraz, esan daiteke, Gipuzkoako herriek Probintziako gastuak finantziatu zituztela XVII-XVIII. mendeetan⁶⁰⁶. Donatiboak lortzearen, arbitrioak eta sisak jartzen hasi ziren erregearen baimenarekin. Ondorioz, egunero behar zituzten gauzak, eta batez ere janari-edariak, garestitu egin ziren; eta, zenbait herrik, donatiboa ordaindu ahal izateko ondasun propioak kaudimenean jarri behar izan zituen⁶⁰⁷.

XIV. TAULA. UDAL HAZIENDA: GASTUAK (1798)⁶⁰⁸

GASTUAK	KOPURUAK (err.)	%
SOLDATAK	3.928	54
MAILEGUEN INTERESAK	680	9,3
FESTAK	230	3,2
BIDEAK	1.657	22,8
ZUHAITZ LANDAKETAK	780	10,7
GUZTIRA	7.275	100

4. ORIOKO UDALAREN ZORREN NONDIK NORAKOAK

Orokorrean, eta Oriori dagokionez, XVIII. mendeko egoera honakoa izan zen: nahiz eta sarrera ekonomiko ugari izan, ez ziren gastuak ordaintzeko adinakoa izan. Izan ere, Probintziari ezarritako donatiboak, bideak konpontzeko kontribuzioak, eta erregeak eskatzen zuen gerrarako dirua eta soldaduen soldatak, Orioko ogasuna desorekatu zuen. Gastu guzti horiei aurre egiteko Kontzejua zorpetu egin zen; esaterako, 1798an, Konbentzio-gerra aurretik, 33.812 erreale kuartoko zorra zuen Orioko Kontzejua⁶⁰⁹.

⁶⁰⁶ Erregeak, lehenengo aldiz 1629an eskatu zion Gipuzkoako Probintziari "donativo gracioso o voluntario" a. Horregatik, zenbait produktuen gain zergak ezarri ziren. 1729an beste bat eskatu zion, 1778an, beste donatiboa ordaintzeko Erret zerbitzuan parte hartu zuten eta soldaduen soldatak ordaindu ziren. Orion 1778an ordaindu zen donatiboaren zerga 943 errealekoa izan zen (TELLECHEA IDÍGORAS, J.L.: "El donativo voluntario de Guipúzcoa a la Corona (1728)", *BRSVAP*, 1974, 125-151. orr.).

⁶⁰⁷ Orion, donatiboaren kopurua biltzeko era hauxe zen: Pertsona batek donatiboaren dirua maiztergoan hartzen zuen eta ardoa, pattrarra eta bestelako produktuak ekartzen zituztenek maizterrari ordaintzen zioten (OUA, C-221-1 [1748-XII-1]).

⁶⁰⁸ Taulan ez dira azaltzen Orioko Kontzejua zituen zorrak ezta alkabalak eta donatiboak ere.

⁶⁰⁹ Don Manuel Antonio de Antxiolari eta bere izenean don Santiago de Claessensi, iturriko lanetarako maileguan eman zion diruagatik 10.685 erreale zor zizkion; bestalde, don Joseph Ignacio de Mendiari ere, bidea konpontzeko gastuen %5a ordaindu zuenez, 5.255 erreale zor zizkion; Don Manuel Joaquin de Furundarenari, "administrador de caudales de guerra por el fogueral asignado por la Provincia para ocurrir a gastos de ésta por circunstancias de la guerra", gerrarako ordainak betetzeko, 1.680 erreale zor zizkion; bestalde, ogasun desorekak maiordomoei zor zien Kontzejua (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.945. "Deudas que tiene contraídas esta villa antes y después de la guerra con Francia" [1798-VII-15]).

5. UDAL ONDASUN ETA PROPIOEN SALMENTAK

Orioko udalaren zorrak gero eta handiagoak zirenez, 1798 eta 1814 urte bitartean, udalak ondasunak eta propio ugari saldu zituen. Hasierako salmentak Konbentzio-gerrak eragindako gastuei aurre egiteko izan baziren ere, aipatu urteetan izan ziren salmenta garrantzitsuenak, hain zuzen, udalak zituen zorrak kitatzeko izan ziren.

Gipuzkoak, foruen arabera, zenbait eskubide indibidual eta kolektibo zituen, esaterako, bake-garaian soldadutza egin beharrik eza. Baina, gerra egoeratan, gudaroste propioa osatu beharra zuen, probintzia eta udal haziendek ordainduta. Beraz, XVIII. mende bukaeran, Konbentzio-gerra eta Napoleonen kontrako gerrak eragindako gastuak ordaintzen lagundu behar izan zuen Oriok. Lehendik ere zorrak bazituen eta gerren ondorioz areagotu egin zirenez, ondasunak eta propioak saltzeari ekin zion 1798an⁶¹⁰.

Orion, Konbentzio-gerraren ondorioz, hasi zen udal ondasunen salmenta, hain zuzen, 1798an lur zati batzuk saldu ziren. Zenbait lur zati saltzeko, amortizatuta zeudenak, Gaztelako Kontseiluaren baimena behar zen⁶¹¹.

Dena dela, salmenta prozesua 1798an hasi bazen ere, udal ondasunen eta propioen salmenta nagusienak, Orion, 1808 eta 1814. urte bitartean izan ziren. Aipatu urtetan, salmeten ondorioz, 455.247 erreale eskuratu zituen udalak. Bestalde, 1817. urtean Oriok zituen ondasun propioak eta errentak hauek ziren:

- Sudugaray ontziak, urtero 1.650 errealeko errenta ematen zuen;
- Arratola ontziak, urtero, 132 erreale;
- Bi lonjek, 88 erreale;
- Harategiak, 66 erreale⁶¹².

XV. TAULA. ONDASUN PROPIOEN SALMENTAK (1808-1814)

ONDASUN MOTA	KOPURUA	PREZIOA (errealeak)	%
ERAIKINAK	9	139.756	30,7
LURSAILAK	161	315.491	69,3
GUZTIRA	170	455.247	100

⁶¹⁰ Gipuzkoa osoan udal ondasunak eta propioen salmenta garaia hasi zen. Hainbat lekutan Konbentzio-gerra baino lehenago hasi zen, baina orokorrean, 1793-1795 eta 1808-1813 urte bitartean izan zen (OTAEGI ARIZMENDI, A.: *Gerra eta Hazienda lokalaren krisia. Udal ondasunen eta propioen salmenta Gipuzkoan, 1764-1814*. Donostia, Foru Aldundia, 1991.).

⁶¹¹ 1798an Orioko Kontzejuak zituen zorrak ordaindu ahal izateko, Gaztelako Kontseiluari bere ondasunetatik lursailak saltzeko baimena eskatu zion. GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.945 (1798-V-20). Urte hartan Anibarko Portuko bi lursail saltzea lortu zen, 1.000 bilioi erreale inguru balio zuten (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.945 [1798]; OTAEGI, A.: *Op. cit.* 22. orr.).

⁶¹² Salmentei buruzko azalpenerako ikusi GAO, Sec. I, Neg. 17, leg. 80 bis (1817). Orion 1808-1814 urte bitartean egindako salmentari buruzko txostena. XVIII. mendean Oriok zituen maileguen interesak, 1817an oraindik kitatu gabe zeuden.

Saldutako ia guztia, lursailak izan ziren, hain zuzen, %80a; gainontzekoa, eraikinak izan ziren.

XVI. TAULA. ONDASUN PROPIOEN SALMENTAK: LURSAILAK

LURSAIL MOTAK	SALMENTA KOPURUA	PREZIOA (err.)	%
LANDALURRAK	30	40.766	13
OTALURRRAK	24	47.557	15
ERRIBERAKOAK	4	6.952	2,2
OTADIAK	3	2.042	0,6
HONDARTZAK	2	8.169	2,5
IHITOKIAK	1	21.100	6,7
ZEHAZGABEAK	97	188.905	60
GUZTIRA	161	315.491	100

5.1. LUR SALMENTAK (1808-1814)

Aurkitu ditugun agirien arabera, zehaztugabeak kontutan hartu gabe, landalurrak eta otalurrak izan ziren gehien saldutako lurak. Hain zuzen, Kontzejuak maiztergoan eman ohi zituenak. Bestalde, otadiak, hondartzak eta ihitokiak, etekin eta onura txikikoak, gutxien saldutakoak izan ziren. Bestalde, Kontzejuak seguruenik baso ugari salduko zuen, eta gainontzeko %60a salmenta horiei dagokiena izan daiteke⁶¹³.

XVII. TAULA. ONDASUN PROPIOEN SALMENTAK: ERAIKINAK

ERAIKIN MOTA	SALMENTA KOPURUA	PREZIOA (err.)	%
BASERRIAK	5	116.283	83,2
ETXEAK	1	6.192	4,4
BESTELAKOAK	3	17.281	12,4
GUZTIRA	9	139.756	100

5.2. ERAIKIN SALMENTAK (1808-1814)

Kontzejuak saldutako eraikin batzuk XVI. mendeko ondasun propioa osatzen zutenak izan ziren, esaterako, Txanka Goiko eta Beheko Errotak, Lusarbe etxaldea, Ihitokian zuen baserria, Marea Errota baserria, Munioeta baserria, Itxaspe etxaldea eta Kaiako taberna. Hain zuzen, salmenta guztien %30a izan zen. Aipatu etxalde eta errotak

⁶¹³ Zalmaristi, Itzao, Motondo, Apaiziturrieta, Danbolinsoro, Errekaburu, Antilla, Lusarbe, Arano eta Abaroko lurak saldu ziren (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.955 [1808]; 3/1.956 [1809]; 3/1.957 [1810]...).

Kontzejuaren diru-iturri nagusienetakoak ziren. Etxea edo errota saltzeaz gain, eraikinei zegozkien lurrak ere saltzen zituen Kontzejuak⁶¹⁴. Bestalde, Ixtaspe eta Lusarbe Erdiko etxaldeek salmentek eman zuten diru gehien.

XVIII. TAULA. ONDASUN PROPIOEN SALMENTAK:

ORDAINKETA MODUA

ORDAINKETA MOTA	ERAGIKETA KOPURUA	BALIOA (err.)	%
DIRUTAN	100	314.209	69
KONTRIBUZIOEN ITZULTZEA	70	141.038	31
GUZTIRA	170	455.247	100

5.3. ORDAINKETA MODUA (1808-1814)

Aurkitako agirietan azaltzen denez, 1808tik 1814ra bitartean Orioko Kontzejuak egindako salmentak bi modutara izan ziren ordainduak, dirutan eta gerra zergen zorren itzuleran. Ondasun guztien erdia baino gehiago, hain zuzen %69a, dirutan ordaindu zen, eta bildutako kopuruak gerrarako kontribuzioak ordaintzeko balio zuen.

XIX. TAULA. ERAIKIN EROSLEAK

ERAIKIN EROSLEAK	ERAGIKETA KOPURUA	PREZIOA (err.)	%
PARTIKULARRAK	4	44.292	31,7
PARTIKULARRAK "JAUNAK"	3	68.000	48,6
BATZUEN ARTEAN	1	21.183	15,2
EMAKUMEAK	1	6.281	4,5
GUZTIRA	9	139.756	100

⁶¹⁴ 1809an Txanka Goikoa Errota eta 3 zati landalur eta 52 zati otadi Don Joseph Antonio de Etxabek erosi zituen 6.000 errealetan. GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.956 (1809-X-26); Txanka Behekoari zegozkion lurrak 154 postura ziren, Francisco Antonio de Lertxundik erosi zituen 5.000 errealetan. 3/1.957 (1810-IV-9); Lusarbe "Allende"ri 110 postura landalur zegozkion eta Francisco de Balerdik erosi zituen 6.192 errealetan (1810-X-23).

XX. TAULA. LURSAIL EROSLEAK

LURSAIL EROSLEAK	ERAGIKETA KOPURUA	PREZIOA (err.)	%
PARTIKULARRAK	82	145.160	46
PARTIKULARRAK "JAUNAK"	23	51.098	16,2
BATZUEN ARTEAN	45	94.763	30
EMAKUMEAK	7	6.317	2
ELIZA	4	18.153	5,8
GUZTIRA	161	315.491	100

5.4. EROSLEAK**a) Partikularrak**

Partikularrek erosi zituzten ia ondasun guztiak. Guzti horietatik, bakarka, %42a erosi zuten.

b) "Jaunak"

Bestalde, agiritan "don" hitza erabiltzen da, hau da, tratu berezia ematen zioten, eta horiek %26a erosi zuten. Kopuru horretatik, taldeka, hau da, elkarte gisa, %22a erosi zuten.

c) Emakumeak eta eliza

Batetik, emakumeek eta, batez ere, alargunek; eta, bestetik, elizak, %6a eta %4a erosi zuten, hurrenez hurren. Beraz, partikularrek eta dirua zuten jaunek atera zituzten etekin handienak; hortaz, elite txiki batek eskuratu zuen lur eta eraikin gehien.

Dena dela, 1835 eta 1855 urte bitartean salmenta prozesuak jarraitu zuen⁶¹⁵.

Ondasun propioen salmentak Orioko Kontzejuaren kalterako izan zen, batez ere udalaren diru-iturriak murriztu egin zirelako. Bestalde, maileguak lortzeko berma gisa erabiltzen ziren ondasunak ere gutxitu egin ziren.

Diru-iturri nagusienak murriztu zirenez, Udalak zerga berriak ezarri zituen, eta jakina, normalean beharrezko elikagaietan ezartzen zirenez, herritarren kalterako izan zen.

Bukatzeko, esan behar da, XIX. mende bukaeran foruak ezabatu zirela eta, Orioko Kontzejuak zituen azken ondasunen errentak ere desagertu egin zirela, esate baterako, itsasadarreko arrantzaren errenta eta, Sudugaray eta Arratolako pasaien errentak. Harrezkerotik, Udalaren haziendaren antolaketa forala guztiz desagertu zen, XVIII. mende bukaeran hasi zen zergen ezarpenen prozesuarekin jarraitu zen.

⁶¹⁵ Aurkitu dugun azken salmentaren agiria 1855ekoa da, eta saldutako lurren diruarekin beste harategia eraiki zuten (GPAH, Manuel Antonio de Ilunbe, 3/1.994 [1855-II-8]).

V. ATALA.

ORIO ETA ORIOTARRAK:

BIZTANLERIAREN

ANTOLAKETA ETA

BILAKAERA DEMOGRAFIKOA

I. ORIOKO BIZTANLERIAREN ANTOLAKETA

Erregimen Zaharrean gizartea ez zen mailatan antolatzen, elkartasun edo "corpus" desberdinetan baizik. Hain zuzen, gizartearen antolaketa korporatibista hori jendea edozein esparru eta egoeratan batzeko eragilerik funtsezkoena zen⁶¹⁶. Orion, elkartasun taldeak lotura ezberdin askotatik sortu zitezkeen: familia harremanetatik, herritarra izatetik —auzotasuna—, lanbidetik, interes ekonomiko berdintsuetatik, eta abar.

1. ORIO HERRIAREN EZBERDINTASUNA: AUZOTASUNA

Orio herrian⁶¹⁷, biztanleen artean egiten zen desberdintasunik garrantzitsuena herritar eta biztanle artean egiten zena zen⁶¹⁸. Hain zuzen, herrian bizi ziren guztiak ez ziren herritarrak; dena dela, herritar bihurtzeko baldintzak bi ziren: Orion bertan zenbait urtetan bizitzea; eta Orioko jurisdikzioan ondasunak -"millares"- izatea; aipatu baldintzak betez gero edozeinek zuen herritarra izateko eskubidea.

⁶¹⁶Korporatibismoari buruz ikusi: HESPANHA, A.M.: *História das Instituições. Epocas medieval e moderna*. Livraria Al-Medina, Coimbra, 1982; BRUNNER, O.: *Per una storia costituzionale e sociale*. Vita e Pensiero, Milano, 1970; HINTZE, O.: "Formazioni degli estati e sviluppo costituzionale. Studio storico politico", *Annali del I.S.I.G.* Trento, IV, 1978, 217-234. orr.; FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P.: "La transición política y la Instauración del Absolutismo", *Zona Abierta*, 30, 1984, 63-75. orr.; CLAVERO, B.: "Sobre la idea de revolución burguesa: algunas puntualizaciones a Martínez Shaw", *Zona Abierta*, 26, 1980, 123-124. orr.; LOUSSE, E.: *La Société d'Ancien Régime. Organisation et représentation corporatives*. Universitäts, Louvain, 1952. Ideia guzti horiek Gipuzkoari dagokionean, ikusi: ACHÓN INSAUSTI, J.A.: "'Valer más' o 'valer igual': estrategias banderizas y corporativas en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa", *El Pueblo Vasco en el Renacimiento. Actas del Simposio del V Centenario del nacimiento de Ignacio de Loyola* (1990); ÍDEM: 'A voz de concejo'. *Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa*. Op. cit.; MARÍN PAREDES, J. A.: "Semejante Pariete Mayor". *Parentesco, solar, comunidad y linaje en la institución de un Pariete Mayor en Gipuzkoa: los señores del solar de Oñaz y Loyola (siglos XIV-XVI)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1998; TRUCHUELO GARCÍA, S.: *El gobierno urbano en la villa de Tolosa...* Op. cit.; ÍDEM: "Análisis de los principales rasgos..." Op. cit.; ÍDEM: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas...* Op. cit.; PORTILLO VALDES, J. M.: *Monarquía y gobierno provincial. Poder y constitución en las Provincias Vascas. (1760-1808)*. Centro de Estudios Constitucionales, Madrid, 1991.

⁶¹⁷Herria aipatzen dugunean, Hiribildua, Kontzejua edo Udala esan nahi dugu. "Comunitas" a, berriz, Orioko biztanleria edo jendetza guztia da; hau da, herritarrak, biztanleak, eliztarrak, kofradeak eta nekazariak, denek osatzen dute "comunitas" a.

⁶¹⁸"(...) el mayor poder de integración es, acaso, la vecindad: el hecho de la radicación espontánea o pacticia en una comunidad local dotada de personalidad jurídica propia, que da acceso a la participación de unos derechos y obligaciones comunes y crea unos lazos de solidaridad entre sus miembros y frente al exterior codificados en las propias normas consuetudinarias o escritas que rigen la vida de esa comunidad e institucionalizados en los mecanismos de autogobierno de la misma" (RUIZ DE LA PEÑA, J.I.: "Las solidaridades vecinales en la Corona de Castilla (Siglos XII-XV)", *XIX. Semana de Estudios Medievales (Estella). Cofradías, Gremios y Solidaridades en la Europa Medieval*, 1992, 52. orr.).

1.1. HERRITARRAK ETA BIZTANLEAK

Herritarrek bakarrik zuten gaitasuna eta aukera Udal Gobernuako ofizioak betetzeko; hau da, Orion zenbait urtetan bizitakoek, ondasunak zituztenek eta kaparetasuna eta kultur maila jasoa zutenek.

Bestalde, biztanleek, herritarrekin batera, osatzen zuten "Comunitas" a edo biztanleria. Hasiera batean, XVI. mendera arte, biztanleek ere Udal Gobernuaren batzarretara joateko eskubidea bazuten; hala ere, herritarren aldean zituzten ezberdintasun sozio-ekonomikoen eraginez, ez zuten eskubidea erabiltzen, eta gainera, parte hartzen zutenetan, herritarren iritziek ez zuten eraginik. Beraz, biztanleak gobernuaren ekintzetatik baztertuak izaten ziren, baina, Orioko "Comunitas"-a osatzen zutenek, herritarrekin batera, herriko ondasunen probetxamenduan parte har zezaketen.

Hauek ziren, besteak beste, bai herritarrek eta bai biztanleek zituzten eskubideak: mendietatik egurra hartu, erein lurra maiztertzea hartu, eta abar. Bestalde, Kontzejuaren zenbait ekimen "Comunitas" osoaren onerako eta erabilerarako ziren: ongizatezko zerbitzuak, irakaskuntza, osasun zerbitzuak, hirigintzari buruzko hobekuntza lanak, eta abar.

1.2. HERRIAREN ONGIZATEA

Orioko Kontzejuak, "comunitas" osoak bizimodu eroso eta osasuntsua izateko, alperren kontrako neurriak hartu zituen, hain zuzen ere, gizon maltzur eta lanbide gabekoen kontra, eta horrela agindu zuen:

*"Que ninguna persona de mala vida, bagamundos o descomulgados públicos hostinados que de otras partes fueren ehados no sean admitidos en la dicha villa, so pena de dozientos maravedís e que la tal persona sea desterrado d'esta dicha villa e su jurisdicción por el tiempo que el alcade y regimiento les paresciere"*⁶¹⁹.

Erresumak ere askotan eman zituen antzeko legeak⁶²⁰. Oriora atzerritar asko etortzen zen, gauza jakina baitzen Orioko merkatal gunea zela. XVI. mendetik aurrera, Gaztelako Koroak Europako zenbait herrirekin gerrak zituenez, Kontzejuak esan zuen ez zuela nahi kanpotik gerrarako etortzen zirenak, Orion sei hilabete baino denbora luzeagoan bizitzea⁶²¹.

Beraz, badirudi, Herriak berak beti "comunitas"-a babestu nahi zuela; hau da, bertan bizi zen jendea zaintzen zuen eta barne garapena bultzatzen zuen.

2. ELIZAREN ANTOLAKETA: PARROKIARTASUNA

Elizaren inguruko antolaketan, Herrian gertatu zen bezala, desberdintasunak eman ziren. Orioko herria elizaren inguruan antolatu zen, eta bertan bizi zirenek eskatu zioten Erregeari herri izateko baimena. XIV. mendean, parrokia oso garrantzitsua izan zen, oriotarrak han elkartzen baitziren; beraz, eliztarra eta "comunitas"-aren partaide izatea gauza bera zen⁶²².

Bestalde, hasierako eliza antolaketan desberdintasunak eman ziren, eta horren islada apaiz-benefiziodunak izan ziren. XVI. mendera arte, eliztar guztiek —biztanle eta herritarrek— hauta zezaketen apaiza. Baina, urte batzuetara, herritarrek bakarrik zuten apaizak izendatzeko eskubidea. Hortaz, elizaren "comunitas"-ean bereiztasuna eman zen; batetik, herritarrek; eta bestetik, eliztarrek edo biztanleak.

⁶¹⁹Udal Ordenantzak, 41. kapitulua (1607).

⁶²⁰GOROSABEL, P. de.: Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa. *Op. cit.* T.I, 265-276. orr.

⁶²¹Udal Ordenantzak, 49. kap.

⁶²²RUIZ DE LA PEÑA, J. I.: "Las solidaridades vecinales en la Corona de Castilla (Siglos XII-XV)" *Op. cit.* 59-60. orr. "Si podemos aceptar en principio que la función de la religión es la integración, la de reforzar mecanismos de solidaridad, entonces nada tendrá de extraño que sea a través de la Iglesia, en cuanto valores-pautas y en cuanto grupo formal, por donde se inicie la estructuración de unos linajes con otros y con el territorio" (ARPAL, J.: *La sociedad tradicional en el País Vasco*. Haranburu, Donostia, 1979, 73. orr.)

3. JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUKO ELKARTASUNA: KOFRADIAK

Kontuan izan behar da oriotarren jarduera garrantzitsuenak beti egon direla itsasoarekin lotuta. Hau da, arrantza, ontzigitza, atoi lanak eta merkataritza izan dira herri honen oinarritzko bizimodua. Jarduera guzti horien garapenaren eraginez, Orion beste erakunde bat sortu zen: Arrantzaleen San Pedro Kofradia. Bertan, arrantzale, ontzigitza, zurgin, errementari, kapitain, almirante, ontzi-maisu, lemari, arpoilari, marinel, eta abar ziren. Kofradiak zuen antolatze gaitasuna eta lortu zituen pribilegioen eraginez, elkarte berezi eta pribilegiatu bihurtu zen⁶²³.

Hortaz, Kofradiak jende gehien bildu zuen elkarte izan zen eta izugarritzko eragina izan zuen herrian.

Jarduera ekonomikoen garapenaren eraginez, XIII. mendean geroztik oriotarrak arrantza eta, orokorrean, itsasoarekin zerikusia zuen lanetan aritu ziren. Baxura eta alturako arrantza, ontzigitza eta atoi lanak ziren oriotarren jarduerak. Guzti horietatik arrantza izan zen garrantzitsuenak. Ez da harrizkoa, beraz, Kofradiaren inguruan aurkitu ditugun lehen aipamenak arrantzaleekin lotura izatea. Bestalde, kutsu erlijiosoa ere bazuen Kofradiak, bere sorrera Elizari baitzegokion⁶²⁴. Historian zehar Kofradiari buruz egin diren aipamenek, beti, elizarekin zuen erlazioa agerian utzi dute; esate baterako, 1621ean "Cofradía del Señor San Pedro de los Mareantes de la parroquia de ella" deitzen zen; 1714an, "Cofradía de San Pedro de los mareantes de dicha parroquia"⁶²⁵. Herriarekin izan zuen lotura ere azaltzen da: 1599. urtean "Cofradía de los Pescadores de San Pedro de la villa" izena baitzuen. Hortaz, Kofradiaren sorrera bi ikuspuntutik aztertu behar da; batetik, elizarekin zuen loturatik; eta bestetik, Kontzejuarekin zuen loturatik. Bi izaera ezberdin horiek hobeto ulertzeko, kontuan izan behar da biztanleriaren sailkapen bikoitza: herritarrak eta eliztarrak. Beraz, antolaketa bikoitzak Kofradian ere izan zuen islada edo eragina.

Kofradiaren inguruko lehenengo aipamena 1520. urtekoa da, eta idatziaren arabera, Kofradiako partaideak arrantzaleak ziren; beraz, arrantzaren inguruan sortu zen. Dena dela, izen desberdinak izan zituen kofradiak; izan ere, nahiz eta beti itsasoarekin zerikusia duen lanbidetan aritu oriotarrak, jardueren arabera izena aldatzen zioten.

3.1. KOFRADIAREN KIDEAK

Orioko San Pedro Kofradian lanbide bera zutenak elkartzen ziren. Hasiera batean, arrantzaleak ziren kide bakarrak. Denborarekin, itsasoarekin lotura zuten jardueren garapenaren ondorioz, partaideen artean desberdintasunak eman ziren, hain zuzen, 1600an "maestres de las pinaças y harmadores de la matanza de las ballenas, pescadores de la sardina y la marluza y otros géneros de pescados que entran de la mar salada en esta villa de Orio" bildu ziren⁶²⁶. Beraz, kofradeak elkartzen zituzten gakoek altura eda baxurako itsas arrantza zen. 1714an, nabigatzaileak, maestreak eta nekazariak kofradiako kide izan ziren⁶²⁷. XVIII. mendean oso normala izan zen Kofradeen artean marinel eta nekazariak izatea⁶²⁸. Hortaz, ia denak ziren kofradiakide.

⁶²³"Corpus" honetan, Kofradian, alegia, "comunitas" osoko jendea elkartzen zen. Hain zuzen, "corpus" pribilegiatuen gisa, erresuman ere agertzen da: noblezia, eliza, kofradiak eta gremioak, herriak, jaurgoak, probintziak, etab.

⁶²⁴1599. urteko aipamenean, Josepo de Etxanizek, bertako marinel eta arrantzale zenak, dio Orioko San Pedro Arrantzaleen Kofradiaren fundatzaileak Erregeak izan zirela. Lazaro de Segurak, beste arrantzale batek, Aita Santua izan zela adierazten du. Beraz, oso zaila da zehaztea nondik nora sortu zen Kofradia. Hala eta guztiz ere, historian zehar izan zuen elizarekiko harremanak nabariak dira (IMAZ, J.M.: *La industria pesquera en Guipúzcoa a final del Siglo XVI*. Imprenta de la Diputación, Donostia, 1944, 49. orr.).

⁶²⁵1621 eta 1714. urteetako Konstituzioak.

⁶²⁶GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.826 (1600-VII-30).

⁶²⁷IEAH, Secr. Villanueva, C/1.731. N°17 (1714-1716).

⁶²⁸Hain zuzen, 1752. urteko dokumentu batean 1723an kofradiakide izandakoen zerrenda azaltzen da, eta, bertan, marinel eta nekazariak bereizten dira (GAO, CO-L.CI. 2.829 [1752]).

Hasieran, kofradea izateko itsasoarekin zerikusia zuen lanean aritzea beharrezkoa zen, hau da, arrantzale, marinela, edo biak batera izatea; bestela esanda, altura edo baxurako arrantzan aritzea.

XVIII. mendean geroztik, nekazaritzaren hazkundera eman zenean, nekazari askok parte hartu zuen itsas-lanetan. Izan ere, garai hartan, askok bi lanak batera egiten zituen. Kofradiakide izateko, bai arrantzale eta bai nekazariak, ezkutu erdia ordaindu behar zuten. Bestalde, nekazariak urtero errealean kuarto bat ordaindu behar zutelako esan zuen Kofradiak, eta, diru arazoak edo istripuren bat izan zutenek, ahal zuten neurrian eman behar zutelako⁶²⁹. Hala ere, nekazariak edo baserritan bizi zirenei ez zegokien balea harrapatu ondorengo irabazirik⁶³⁰. Beraz, nahiz eta Kofradiak beste lanbidea zutenei elkarteko kide izateko aukera eman, arrantzaleek eta marinelek lehentasuna zuten.

a) Arrantzaleak eta marinela

1785. urteko agiri batean, arrantzale eta marinelen lana aipatzen da:

*"Se ejercitan o se emplean en las labores o tráfico del mar, como son pescar en esta ría, canal y brazo de mar que entra por su barra, y afuera de la misma barra, pescando sardina, besugo, lubinas, chipirones, langostas, congrios, mielgas, borondines (...) Estos mismos se ejercitan en remolques de los barcos que entran y salen por su barra, e igualmente de los que se construyen y fabrican en los astilleros que hay en esta villa y su canal; y también en conducir en sus barcos y pinazas y lanchas desde este puerto y canal a los puertos de la ciudad de San Sebastián y Pasajes diferentes especies y calidades de fierro, que se labran, no sólo en dicha ferrería llamada Saria, jurisdicción de esta dicha villa, si también las que se labran en cinco ferrerías comarcanas (...) de Aia (...) y en conducir a dichos puertos la multitud y gran número de anclas (...) que se hacen y trabajan sin cesar (...) en la oficina (...) de la ferrería llamada Saria (...) para los navíos, fragatas y buques de la Real Armada y Armada del Rey de Francia y Particulares"*⁶³¹.

- ARRANTZALEAK. Orion arrantzaleak herriarekin batera jaio ziren, eta XIV. mendean geroztik oriotarren bizibidea arrantza izan da. Batez ere, baxurako arrantzan aritu izan ziren, antolaketa errazagoa baitzen alturakoaren aldean. Bestalde, nahiz eta itsasbaterreko eta nasetako arrantza Kontzejuaren ardurapean egon, gehienetan oriotarren batek izaten zuen errentan. XIX. mende bukaera arte, hain zuzen Foruen Ezabaketa arte, egon zen errentan itsasadar eta nasetako arrantza.

XVI. mendean, Arrantzaleen San Pedro Kofradia eratu zuten oriotarrek arrantza antolatzeke eta arautzeko; esaterako, tresnen erabilera arautu zuten, harrapaketa eta banaketa, elizari zegozkion zergak, salmentak, kalteen konponbidea, eta abar. Bestalde, kofradiako kideak arduratzen ziren Oria ibaian egindako ontzien atoi lanetaz.

Alturako arrantzari dagokionez, XVIII. mendean arte, oriotar ugari joan zen Ternua, Galizia, Asturias eta Norvegiara; hasieran bakailutara, eta gero, bale arrantzara. XVI. mendean izan zen Ternuako bale arrantzaren garairik onena; baina, hurrengo mendean, XVII. mendeko krisi ekonomikoaren eraginez, XVIIIan Galizia eta Norvegia inguruetara joan izan ziren gure arrantzaleak baleak harrapatzera. Bestalde, Erdi Aroaz geroztik, Gipuzkoako nekazaritzak ekoizpen kaskarra izan zuen, eta ondorioz, jende askoren irtenbidea itsasoa izan zen⁶³². Urtero, bai Oriotik eta bai Gipuzkoako beste portu askotatik, marinela ugari ateratzen zen itsasora. Ontzi bakoitzak, gehienez, 75 gizonentzako lekua zuen, eta bertan maestra, kapitaina, arpoilariak, ontzia konpontzeko zurginak eta errementariak eta lonbardoak —gerra egoeratan—

⁶²⁹1714. urteko Kofradiako Konstituzioak: 5. eta 13. Konstituzioak. 5. Konstituzioan nekazariak, urtero, bi errealean kuarto ordaindu behar zutelako esaten da; baina, 26. Konstituzioan aipatzen da, nekazariak errealean kuarto bat besterik ez zutelako ordaindu behar.

⁶³⁰1714. urteko 17. Konstituzioa.

⁶³¹OUA, C-VI, D-1 (1785); HEAA, Vol. 24, 9/4.197 (1785).

⁶³²BILBAO, L. M.: "La general expansión del siglo XVI en Vascongadas". *Op. cit.* 114. orr.

itsasoratzen ziren⁶³³. Maestreak —ontzia gidaria— eta armadoreak —tresnak erosten zituen— banatzen zuten soldata harrapatutakoaren arabera, eta, agirietan aurkitu dugunez, asko harrapatzen zuten, soldatak ere haundiak baitziren. Beraz, alturako arrantza oparoa izan zela esan daiteke.

- MARINELAK. Historian zehar izandako gatazka politikoek eragina izan zuten gure herrian. Denbora luzez aritu ziren Erret armadan, Gaztelako Erregearen zerbitzuan, eta askok bizimodua aurrera atera ahal izan zuten. Batzuk, kargu berezietan aritu ziren, eta ospe handia lortu zuten Erret ontzioletan edota Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarrean lan bikaina egiteagatik. Baina gehienak ontzietako langile edo soldadu ziren.

- KORTSARIOAK. XVI. mendea geroztik ontzi asko erasotu ziren, bai arrantzontziak eta bai merkatalontziak. Normalean, gerra garaian aritzen ziren, eta atzerriko itsasontziak eraso eta beraien edukinez jabetzen ziren. Batzuetan erregeak berak ematen zien baimena kortsarioei ontziak erasotzeko⁶³⁴.

b) Zurginak eta lapur-trebeak

1785. urteko dokumentu baten arabera, hauek ziren zurginen eta lapur-trebeen —"galafates" izenekoak—betebeharrak:

*"Se ejercitan en la construcción de navíos, fragatas y otros buques que construyen en los astilleros, no sólo de esta villa, sino también en los de Pasages, en cadenar y reedificar nabíos y otros cualesquier buques viejos"*⁶³⁵.

XVI. mendean bale arrantza izugarri zabaldu zen eta ontzigintzan eragina izan zuen. Ontzi asko egin ziren mende horretan, arrantza, merkataritza eta gerrarako. Ontzigintzari esker lanbide ugari sortu zen gure herrian, esate baterako, olagizonek, errementariak eta zurginek lan handia izan zuten. XVI. mendean Orioko ontzigile garrantzitsuenak Juan de Urresti, Domingo de Miranda, Domingo de Urdaire, Domingo de Arriola, Juan de Miranda, Domingo de Irigoien, Anton de Yerobi, Domingo de Arbe, Juan de Iturrobe eta Francisco de Elorriaga izan ziren. Bestalde, XVII. mendea geroztik, ordea, ontzigile asko eta asko kanpora joan zen lanera, hala nola, Ferrolera, Pasaiara eta beste Erret ontzioletara. Horien artean, Domingo de Arrazain, Domingo de Illunbe, Tomas de Miranda, Matias de Iruretagoiena eta Juan Lorenzo de Etxebeste izan ziren aipagarrienak. Azkenik, XVIII. mendetik XX. mende bitartera ontzigile aipagarrienak Francisco de Azpillaga, Vicente de Segura, Jose Antonio de Zaldúa eta Antonio de Mutiozabal y Arrilaga izan ziren.

⁶³³GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 (1560).

⁶³⁴Hain zuzen, XV. mende bukaeran Pedro de Otaegi oriotarra beste gipuzkoar batzurekin Genovako ontzi bat eraso eta hango edukinez jabetu ziren. Ondoriak auzi luze batean eztabaidatu ziren (VEKA, R.E., C/141/69 [1499-XII-14]; Quevedo Fenecidos. C/2.768/1. leg. 596 [1501]; R.E. C/164/29 [1501-XI-4]). Horietaz gain, badakigu, erregeak "patentes de corso" eman ohi zituela; esaterako, Joseph de Maitini, Caracaseko Konpainiaren kapitainari (GPAH, Juan Beltran de Illunbe.,3/1.913 [1765-II-5]).

⁶³⁵OUA, C-VI, D-1 (1785); HEAA.,Vol. 24, 9/4.197 (1785). Lapur-trebeak garai horretan "galafate"ak izendatzen ziren.

c) Nekazariak

Nekazariak ere Kofradiakideak ziren eta hauek ziren haien eginkizunak: "se ejercitan en la labranza y cultivo de sus tierras". Horretaz gain, XIX. mendeko nekazarien bizimoduari buruzko zehaztapen batzuk aurkitu ditugu:

" (...) *labrador no omite medio alguno que pueda contribuir o que produzca la tierra, y viviendo en la mayor economía apenas puede subsistir; (...) los labradores, quando no están ocupados en la labranza, se emplean en disponer algunos utensilios y abonos, y los lavradores del cuerpo de la villa, amás [además] de ocuparse en estos mismos trabajos, algunos se ocupan en la construcción de bajeles y otros van a la pesca; (...) todos los que cultivan las tierras viven al lado de las mismas, en calidad de arrendatario o propietarios*"⁶³⁶.

Esan genuenez, nekazaritza prozesua XVII. mendean hasi zen eta, harrezkero, nekazal lanbidea herrian zabaldu zen. Hain zuzen, 1787an, Floridablancaren Zentsuan adierazten denez, 642 biztanle zituen Oriok eta horietatik 548 nekazariak ziren⁶³⁷. Bestalde, gehienak Kontzejuaren maizterrak ziren, beraz, lantzen zituzten lurra bereganatzeko aukerarik ez zuten. XIX. mendean geroztik, Kontzejuak zituen propio eta udal ondasunen salmenta hasi zen, eta ondorioz, ordurarte maizter ziren oriotar askok lurra bereganatu zuen. Beraz, nekazari eta errotarietarako etekin handiagoak lortu zituzten, besteak beste, Kontzejuari errentarik ordaindu behar ez zitelako.



Itzainak (Photomuseum Artxiboa).

Hortaz, Orioko Kofradiako kideak elkartzen zituen gakoa itsasoarekin lotutako jarduera zen; hala ere, kofradeek ez zuten lan bakar bat egiten: nekazaritzan aritzen zirenak bestelako lanetan aritzeko aukera zutelako eta nekazaritzak berak arrantzaleei beste ekintzetan lan egiteko aukera ematen zuelako.

⁶³⁶HEAA, Vargas Ponzaren Bilduma. Vol. 24. 9/4.197 (1802).

⁶³⁷Horretaz gain, Floridablancak "Clasificación por ocupaciones" banaketa egin zuen. Eta horren arabera, Orion apaiz bat zegoen, 5 apaiz-benefiziodun, sakristau bat, 3 meza-mutil, eskribau bat, ikasle bat, 11 fabrikatzaile, 12 artisau, 8 auzilari, eta 548 lagun nekazari (HEAA, Floridablancaren Zentsua. 9/6.227. 3.392. orr. [1787]).

3.2. KOFRADIAKIDEEN BETEBEHARRAK

Kofradeen betebeharrak hauek ziren:

- Arrantzale guztiek —baxura nahiz alturakoek— urtero irabazien %1a Kofradiari eman behar zioten. Bestalde, sardina harrapaketa %2a Kofradiari zegokion⁶³⁸.
- Arrantzaleek, itsasora atera baino lehen, bidaiaren berri eman behar zioten Kofradiari. Hau da, bale edo bestelako arrantzara zihoazten, arrantzale kopurua, eta, bueltan, lortutakoaren berri eman behar zuten⁶³⁹.
- Txalupa maisuek, hau da, txalupa jabeek, sardina harrapaketen kontua eman behar zuten, kostera bukaeran Kofradiari zegokion %2a eman ahal izateko⁶⁴⁰.

3.3. KOFRADIAREN ANTOLAKETA: ARAUTEGIA

Kofradiaren ezaugarriak adierazgarriena bere burua antolatzeke zuen gaitasuna da. Hain zuzen, Kofradiak, elkarte pribilegiatu gisa, itsasoarekin zerikusia zuen jarduera arautu zuen. Esaterako, 1589. urtean Kofradiak Konstituzioak eman zituen, eta lege baieztapena lortu zuen. Gero, Konstituzioak borobiltzeko, 1621. urtean, atoi lanen inguruko zereginak arautu ziren⁶⁴¹; eta kofrade ez ziren gainontzeko biztanleekin desberdintasunak agerian utzi zituen. Arau horiek erabakitzeke Eliza, Kontzejua eta Kofradia bildu ziren, hau da, Orioko "comunitas" osoaren ordezkariak.

1714an, berriz, Kofradeek konstituzio berriak idatzi zituzten; eta, Eliza, Kontzejua eta Kofradiako prokuradoreak bildu ziren; konstituzioaren xedea hauxe izan zen:

*"(...) aumento del culto divino y de la dicha Cofradía, mantención y beneficio de ella y, a fin de que su hermandad sea bien gobernada, los dichos señores apoderados añadieron y ordenaron las constituciones y estatutos siguientes"*⁶⁴².

Konstituzioen bidez betiko usadioak legeztatu ziren; hau da, elizkizunen inguruko betebeharrak; bale harrapaketa, aprobetxamendua eta banaketa; eta, atoi lanak arautu zituen kofradiak, bestela esanda, arrantza eta ontzigitzaren inguruko jarduerak.

Kofradiak, bestalde, berari zegozkion erabakiak hartzeko gaitasuna zuen, beti ere batzarrean bilduta. Bertan, kofrade guztiak biltzen ziren beharrezkoak ziren gaiet hitz egiteko. Kofradiaren Batzar Nagusia gobernu mailako Kontzeju Nagusiarekin parekatu daiteke.

3.4. DIRU ARDURADUNA: MAIORDOMOA

Maiordomoak kudeatzen zuen Kofradiaren dirua; bera ere kofradiakidea zen eta hauek ziren bere eginkizunak: diru kontuak eman, harrapatutako guztiaren kontu eman, sardina ondo gatzatuta zegoen egiaztatu, salmentak kontrolatu, eta maestre bakoitzari zegokiona eman. Maiordomo lanbidea engainu edo azpikeriei aurre egiteko sortu zen⁶⁴³. Maiordomoa kofrade guztien artean izendatzen zen, eta edozein izan

⁶³⁸1714. urteko lehen Konstituzioa: "Primeramente ordenaron y pusieron por constitución que todos los mareantes, cofrades de la dicha Cofradía y cualquier d'ellos en cada un año, de todas sus ganancias en la mar, de cualquier género de que sean, así de la pesca de la merluza, mielga, congrio y otro cualquier, como de viajes de ballenas, Galicia, Asturias, Andalucía, Francia, Olanda, Inglaterra y de todos los demás puertos de España y otros qualesquier estraños reinos, alian de dar y dén para la dicha Cofradía al maiordomo d'ella de ciento uno, y de la pesca de sardina, de ciento dos, según estilo antiguo, y d'ello anualmente se tome cuenta y se haga cargo al dicho maiordomo o maiordomos". Izan ere, 1581. urtetik aurrera, Kofradeek sardinaren arrantzatik kopuru jakina eman behar zuten: "tres maravedís por millar de sardina pescada y vendida en la villa o fuera de ella" (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 3/1.824 [1581-VII-9]).

⁶³⁹1714. urteko Konstituzioetan agertzen da betebeharra.

⁶⁴⁰1714. urteko 11. Konstituzioa.

⁶⁴¹1589 eta 1621. urteetako Konstituzioak: GAO, CO-L.CI. 2.829 (1589,1621,1752. urteak). Ikusi XI.

ERANSKINA.

⁶⁴²1714. urteko Konstituzioak: IEAH, Secr. Villanueva, C/1.731, nº17 (1714). Ikusi XII. ERANSKINA.

⁶⁴³Adibidez, sardina harrapaketa eta salmentan egiten ziren iruzurrak ikusita, 1565ean Orioko arrantzale kofradiakideek pertsona bat izendatzea erabaki zuten; hain zuzen, Domingo de Miranda. Bertan ez da aipatzen diruzaina denik, baina, bere betebeharrak ikusita, badirudi maiordomoa izan zela. Izan ere, 1520.

zitekeen lan horretarako hautatua. Orion, XVIII. menderarte bi maiordomo izan ohi ziren, eta geroztik, bakarra. Normalean, urtetik urtera aldatzen zen maiordomoa⁶⁴⁴.

Baina, orain arte aipatutakoak ez ziren beti horrela gertatu, esaterako, XVIII. mendean ez zuten kofradeek maiordomoa hautatzen; 1714. urteaz geroztik, Orioko Alkate eta Erregimentuak izendatzen zuten. Aurrerantzean, kontu ardura ere Kontzejuaren menpe egon zen⁶⁴⁵. Hala eta guztiz ere, maiordomoa behar zenean, kofradeek hautagaia proposa zezaketen⁶⁴⁶.

**XXI. TAULA. ARRANTZALEEN SAN PEDRO KOFRADIAKO
MAIORDOMOAK (XVI-XIX. MENDE BITARTEKOAK)**

URTEA	MAIORDOMOA
1520	PEDRO DE URREIZMENDI
1558	JOAN DE ETXANIZ/NICOLAS DE ARBE
1562	JUANES DE ILLUNBE/MANUEL DE ENDAIA
1563	DOMINGO DE MANTEROLA/JOANES DE ETXANIZ
1564	CRISTOBAL DE ITURRIAGA/MARTIN DE ETXANIZ
1569	DOMINGO DE ETXABE/JOANOT DE LARRUME
1581	DOMINGO DE MIRANDA/JOANES DE ARBE
1581	JUANES DE ETXANIZ/DOMINGO DE ETXANIZ ARRIAGA
1599	JOSEPO DE ETXANIZ/DOMINGO DE ARRIAGA Y ETXANIZ
1610	FELIPE DE SEGURA/JOAN MARTINEZ DE ARRANIBAR
1621	JOANES DE ARBE
1718	MATEO DE ENDAIA
1735	PACIO KAPITAINA
1740	IGNACIO DE ILLUNBE
1744	JOSEPH DE LARRUME
1745	JOSEPH DE LARRUME
1752	JUAN DE REMENTARITEGI
1755	JUAN DE REMENTARITEGI
1770	IGNACIO DE AREIZAGA
1776	JUAN ANTONIO DE ARGOTE
URTEA	MAIORDOMOA
1777	JUAN ANTONIO DE ARGOTE
1781	JUAN ANTONIO DE ARGOTE
1784	JUAN ANTONIO DE ARGOTE
1785	JUAN ANTONIO DE ARGOTE
1791	SEBASTIAN DE ITURZAETA
1794	SEBASTIAN DE ITURZAETA

urtek aurrera, Orion, badira Kofradiaren diruzaina izan zela baieztatzen duten datuak (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.791 [1565-VII-15]).

⁶⁴⁴GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 3/1.824 (1581-VII-29). Kofradiakideek Joanes de Etxaniz eta Domingo de Etxaniz Arriaga maiordomo hautatu zuten.

⁶⁴⁵1714. urteko 9 eta 10. Konstituzioak.

⁶⁴⁶OJA, C-219 (1720-IX-8).

1796	SEBASTIAN DE ITURZAETA
1797	SEBASTIAN DE ITURZAETA
1798	SEBASTIAN DE ITURZAETA
1800	SEBASTIAN DE ITURZAETA
1801	SEBASTIAN DE ITURZAETA

3.5. KOFRADIAREN JARDUEREN ESPARRUA⁶⁴⁷

Esan bezala, Kofradiak arrantzarekin zerikusia zuten jarduerak antolatzen zituen. Kofradiakideek egoera berezia eta pribilegiatua zuten, kideak ez zirenak eta beste herrietako jendearen kaltetan.

Orioko portutik ateratzen ziren merkatal ontziek irabazien %1a Kofradiari eman behar zioten⁶⁴⁸. Beraz, Kofradiak merkatal mugimendua kontrolatu nahi zuten. Bestalde, atoi lanak ere arautzen zituenez, kofradiakideek lehentasuna zuten lan hori egiteko. Dena dela, atoi lanak Kontzejuak ere arautzen zituen, horregatik, merkatal ontziek Kofradiari eta Kontzejuari eskatu behar zieten baimena⁶⁴⁹. Hala ere, Kofradiak atoi lanen inguruan zenbait eskubide ezarri zituen⁶⁵⁰.

Kofradiak, bestalde, Orioko marinelen errolda egin behar zuten urtero; batez ere, XVII. mendeaz geroztik. Hain zuzen, Kofradiako maiordomoak egiten zuten zerrenda, eta, herrian ziren marinelak, kanpoan zirenak eta hildako marinelen izen-abizenak apuntatu behar zituen. Erroldak, besteak beste, gerrara joan behar zutenen zozketa egiteko ere balio zuten. Erregeak jendea eskatzen zuten gerrarako, eta herri bakoitzari, erroldaren arabera kopuru jakin bat zegokion. Kontzejuak egiten zuten zozketa, Kofradiari zerrenda egitea bakarrik zegokion⁶⁵¹. Itsas Erret armadan parte hartzen zuten marinelen soldatak, XVIII. mendea geroztik, Kontzejuari eta Kofradiari zegozkien.

Orioko kofradiak beste herrietako kofradiekin harremanak izaten zituen, eta jakina, batzuetan onak, eta bestetan istilutsuak⁶⁵².

⁶⁴⁷Ikusi Orioko Kofradiako Konstituzioak: IEAH, Secr. Villanueva, C/1.731, N° 17 (1714-X-20); GAO, Lecuona Civiles. 2.829 (1589, 1621, 1752); Eranskinak.

⁶⁴⁸1714. urteko 2. Konstituzioa: "Item que todas las chalupas y alas d'esta villa que se cargaren con fierro, sidra, piedras de molinos, bena, materiales para las fábricas, hora sean tabla o maderamen y otros qualesquier géneros capaces de conducción y ganancia d'este puerto, aian de contribuir y pagar, contribuián y paguen a la dicha Cofradía y maiordomo o maiordomos d'ella, de quanto ganaren al dicho respecto, de ciento uno, y que el cabo o dueño de cada embarcación aia de dar y dé cuenta y raçón anualmente a cada cavo y cumplido que sea el viage o conducción o conducciones, al dicho maiordomo o maiordomos, sobre que se les encarga la conciencia gravemente".

⁶⁴⁹Adibidez, Aian eraikitako ontzi bat itsasoratzeko, Kofradiak eta Kontzejuak baimena eman behar zuten, eta ontziaren jabeak eskubide batzuek ordaindu behar zituen (GPAH, Agustin de Aranza, 3/1.878 [1700-III-25]).

⁶⁵⁰OUA, *Libro de Ayuntamiento*, (1781-1787) C-223-1 (1786-X-10).

⁶⁵¹Adibidez, ikusi 1636. urtean armadan parte hartzeko deia (OUA, C. VI D. 6/1 [1636-IX-29]). Izan ere, Kontzejuko ofizialak arduratzen ziren marinelen parte hartzeaz, hain zuzen, erregidorea eta diruzaina (OUA, *Libro de despachos y testimonios*, C-219 [1709-VIII-15]). Juan Beltran de Illunbe, Orioko eskribaua, 1758an izan zen "intendente del comisario para la entrega de los marineros para la leva"; Kontzejuak izendatu zuen (OUA, *Libro de Ayuntamiento*, C-221-2 [1758-IV-30]).

⁶⁵²Ikusi Ekonomiari buruzko atalean XVI. mendean oriotarrek getariarren kontra baxurako arrantzarako sareei buruzko eztabaidak. Horretaz gain, ikusi 1615. urteko Donostiako Kofradiarekin izandako bale baten inguruko auzia.

3.6. BESTE ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK: ELIZA ETA KONTZEJUA

a) Elizarekin izan zituen harremanak

Orioko San Pedro Kofradiak lanbide mailako adiskidetasuna babesten zuen. Horretaz gain, erlijioak ere garrantzi handia izan zuen. Orioko Kofradiak San Pedro Apostolua zuen zaindari, eta esan daiteke, orokorrean, arrantzale euskaldunen kofradia guztiak elizarekin zerikusia zutela⁶⁵³. Orioko Kofradiak San Nicolas elizan aldare bat zuen, San Pedoren ohorean, eta horrela, "Dios les goardasse e los defendiesse de los peligros de la mar"⁶⁵⁴. Maiordomoak zuen aldare aurrean zegoen argiaren ardura. Bestalde, kofradiakide bat hiltzen zenean, Kofradia osoak parte hartzen zuen hileta-elizkizunean; esan behar da, kofradiakideen derrigorrezko eginkizuna zela hileta-elizkizunetan eta Apostoluen mezatan parte hartzea⁶⁵⁵.

Orioko Kofradiak San Nicolas Elizarekin zituen betebeharrak hauek ziren:

- Baxura eta alturako arrantza etekinetatik %1a eman behar zion. Hasiera batean limosna gisa eman ohi zen, baina irabaziak handitu zirenean, derrigorrezko 'limosna' bihurtu zen. Beraz, elizak ere arrantzatik etekina atera zuen⁶⁵⁶. Adibidez, 1569an alkateak bi maiordomo atxilotu zituen %1aren inguruko akordio-agiria (Kontzejua, Eliza eta Kofradiaren artekoa) ez zutelako erakutsi nahi izan⁶⁵⁷.

- Bestalde, 1599. urtean, elizak kofradiaren azken bost urteko kontuak ikuskatu zituen. Kofradiak 227 erreale eta 2 marabedi zituen⁶⁵⁸.

- Horretaz gain, 1555. urteaz geroztik, Kofradiak elizari 6 urre dukat ordaindu behar zizkion urtero mezak ordaintzeko⁶⁵⁹. Urte batzuetara, 1751n, ordura arteko mezen ordainketa eztabaidatu zuten Kofradiak eta Elizak, eta auzia ere izan zuten; batetik, Kofradiak ez zuelako zegokion meza-dirua ordaintzen (6 erreale eta erdi); eta bestetik, apaizek korutik kantatu ordez bankutatik abesten zutelako meza. Azkenean, Iruñeko epaimahaiak erabaki zuen kofradiakideen mezak korutik kantatu behar zituztela apaizek⁶⁶⁰. Gerora, 1755ean, Elizak, Kontzejuak eta Kofradiak akordio bat sinatu zuten eta, erabaki zen, hildako kofradiakideen oroimenez eta Apostoluen eguneko mezak, ohitura zaharrari jarraituz, ospatu egingo zituztela. Ordainetan, kofradiak meza-dirua eman beharko zion elizari (kofradiakideen hiletatagatik 5 erreale eta erdi, eta Apostoluen mezagatik, kopuru bera)⁶⁶¹.

- Eliza eta Kofradiaren arteko harremanak ez ziren beti istilutsuak izan, esate baterako, Elizak organo bat erosten lagundu zion Kofradiari⁶⁶². Bestalde, arrantzaleek oso goiz esnatu behar izaten zuten, batzuetan ezin izaten zuten mezetara joan, eta, Gasteizko Apezpikuak apaiz bat izendatu zuen bereziki arrantzaleentzat, goizean goiz meza entzun zezaten⁶⁶³. Bestalde, kofradiak elizaren berrikuntza lanak ordaintzen lagundu zuen, hain zuzen, XVI. mende bukaeran, Nicolas de Garagarza maestreari ordaindu baitzion⁶⁶⁴.

⁶⁵³ERKOREKA, J.: Análisis histórico-institucional de las Cofradías de Mareantes del País Vasco. Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz, 1991, 411. orr.

⁶⁵⁴PUA, (1599) F. 134.

⁶⁵⁵1714. urteko Konstituzioetan kofradiakideen meza-elizkizunak arautzen ziren. 7, 8, 14, 15. Konstituzioak.

⁶⁵⁶Ikusi Ekonomia atalean 1520. urteko auzia eta Elorriagaren kasua (1562).

⁶⁵⁷GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.795 (1569-VII-17).

⁶⁵⁸PUA, S.B, N.2, L.1 E. 2 (1599).

⁶⁵⁹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.781 (1555-XII-19).

⁶⁶⁰OUA, (1751-11-5). Eliza eta Kofradiaren arteko auzia hasi zen. IEAH., Secr. Villava, C/2.165 N°2 (1753).

Iruñeko epaimahaiak Kofradiaren alde erabaki zuen. Elizak, berriz, erabakia apelatu egin zuen (OUA, C-221-1 [1755-III-9]). Auziaren erabakia oraindik ez zen azaldu.

⁶⁶¹IEAH, Secr. Villava, C/2.159 N°20 (1755). Orioko Eliz Batzarra, Kontzejua eta Kofradiaren arteko Konkordiaren 17-19. kapituluak (1755-IX-22).

⁶⁶²San Nicolas elizako diruzainak Kofradiako maiordomoei 30 dukat eman zien maileguan, organo bat egin ahal izateko (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.790 [1564-XI-5]).

⁶⁶³OUA, C-30.3 (1909-V-5).

⁶⁶⁴PUA (1599).

b) Kontzejuarekin izan zituen harremanak

Orio arrantzale herria izan denez, Kofradiak eta Kontzejuak beti izan zuten harremana. Aipagarria da, kofradiakide askok Kontzejuaren batzarretan parte hartzen zuela, baina ez kofradiakide izateagatik, batzarretan kofradiakide ugari zelako baizik.

Hasiera batean, Orion, Kofradiak ez zuen zerikusirik Kontzejuarekin. Adibidez, 1558an, Getariako arrantzaleek erabiltzen zituzten tresnen inguruan eztabaida piztu zenean, Kofradiak eta Kontzejuak, norbera bere aldetik, neurriak hartu zituzten⁶⁶⁵. Hain zuzen, XVI. mendetik XVIII. mendera arte, Kofradiak bere erakundea antolatzeko eta zereginak zehazteko gaitasuna izan zuen. Baina, XVIII. mendean, oriotarren egoera ekonomikoa kaskar samarra zenean, Kofradiak maiordomoa, kargurik nagusia, hautatzeko eskubidea galdu egin zuen, eta aurrerantzean, Kontzejuko ofizial batek bete zuen maiordomo kargua. Horrela, Kontzejuaren kontrola kofradiarengan areagotu egin zen⁶⁶⁶.

Bestalde, 1621 eta 1714ko Konstituzioak idazterakoan Eliza, Kontzeju eta Kofradiako prokuradoreek parte hartu zuten. Horrekin adierazi nahi da, kofradiakideek izan zuten pribilegioa edo garrantzia, eta batez ere, arlo ekonomikoa.

XVIII. mende bukaeran Kofradiaren egoera ekonomikoa txarra izan zen, eta Kontzejuak erabaki zuen erregidore batek eraman behar zituela kofradiako kontuak; era berean maiordomoa ere Kontzejuak aukeratzen zuen. Dena dela, Kontzejuaren esku hartzea laguntza gisa ulertu behar da, kofradiaren egoera oso gogorra izan baitzen.

Bestalde, lehendik ere lagundu izan zion Kontzejuak. Esaterako, XVI. mendeaz geroztik, moilako azpiegitura konpontzen eta hobetzen ahalegin handiak egin zituen Kontzejuak. Jakina, barraren arazoa konpontzen ere saiatu ziren⁶⁶⁷.

Hortaz, Kontzejua, Eliza eta Kofradia izan ziren oriotarren jardueren babesle eta bultzatzaile.

4. EMAKUME ETA GIZONEZKOEN ARTEKO DESBERDINTASUNA

Oriotarren antolaketan gizonezko eta emakumezkoen artean ezberdintasuna egiten zen. Emakumeen ardura nagusia itsasbazterreko arrantza produktuak saltzea zen, baita sareak egin eta konpotzea ere; bestalde, emakumezkoek ezin zuten arrantzan egin, garai hartako agiri batean aurkitu dugunez, "porque es indecente y van medio desnudas, además es una actividad de hombres"⁶⁶⁸.

⁶⁶⁵1558an, Kontzeju Nagusian bildu zen, hau azaldu zuelarik: "de pocos años a esta parte los vezinos de la villa de Guetaria han hecho ciertas redes de pescar marluzo en alta mar con las quales han exercido en muy gran daño vniversal d'esta villa y de otras d'esta Provincia, en especial de las de la costa de la mar y pescadores d'ella, por razón que por esperiençia se a visto que después acá no se a muerto sardina ni otro género de pescado con anzuelos al menos como se solia matar". Hori zela eta, Kontzejuak Valladoliden auzia hasteko boterea eman zuen. Kofradiako arrantzaleek eta maiordomoek arazoa azaldu ondoren, Juanes de Etxaniz maiordomoak, Zumaiako Batzar Nagusian, getariatarrak batzuen kontra neurri judizialak proposatu zituela aipatu zuen. Haiek ere, Valladoliderako botera eman zuten (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.783 [1558-1-6]).

⁶⁶⁶Juan Antonio de Argote alkatea, Orioko Kofradiako maiordomoa zen. Kofradiakideek kofradiaren aurkako 40 dukat maillegutzat hartzeko botera eman zioten OUA, *Libro de Ayuntamiento*, C-223-1 [1784-V-9]).

⁶⁶⁷Ikusi Hirigintza atala, portuaren inguruko azalpena.

⁶⁶⁸Emakumeek Nafarroa eta Gipuzkoako herrietara eramaten zituzten arrainak (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.826 [1606-VII-2]). Izan ere, Kontzejuak emakumeei itsasadarrean arrantza egitea debekatu zien (GPAH, Juan Bautista de Illunbe, 3/1.928 [1780-IX-9]).

4.1. EMAKUMEAK GOBERNUAN

Garai batean, Aintzinako erregimenean, gobernuko ofizioak edo lanbideak gizonezkoentzat bakarrik ziren; arrantzan, ontzigintzan eta merkataritzan ere gizonezkoak aritzen ziren. Dena dela, nahiz eta emakumeak gobernuko lanetan aritu ez, zeharka bazen ere, parte hartzen zuten. Hau da, gizonezkoek gobernuko ofizioetan parte hartu ahal izateko zenbait ondasunen jabe izan behar zuten, eta askotan, emazteek ematen zizkieten senarrei. Beraz, nahiz eta XX. mendera arte emakumeek boto eskubiderik eta Kontzejuan parte hartzeko eskubiderik izan ez, senarrek gobernuan parte hartu ahal izateko oso baliogarriak izan ziren emakumezkoen ondasunak⁶⁶⁹.

4.2. EMAKUMEEN GARRANTZIA EKONOMIAN

Gizonezkoek zuten lan motagatik hilabete asko pasa behar izaten zituzten etxetik kanpo. Horregatik, garai hartan, gizonezkoak kanpoan zeudenean, oso normala zen emakumezkoek izatea gizonezkoen ardura guztiak, esate baterako, ondasunak administratu, auzietaz eztabaidatu, zorrak ordaindu edo kobratu... Horretarako, senarrak, lanera abiatu baino lehen, guzti hori egin ahal izateko boterea ematen zion emazteari.

Adibidez, Margarita de Agirre, Cristobal de Agandururen emaztea eta Maria Ortiz de Segura, Juan de Agirreren alarguna, beren senarrekin batera San Nicolas izeneko ontziaren jabeak ziren. Eta, ontziak Ingalaterra eta Flandes erasotzeko armadan parte hartu zuenez, aipatu emakumeek, zegozkien soldatak eskatu zioten Erregeari⁶⁷⁰. Beraz, emakume horiek, beste askoren antzera, garrantzi handiko gai ekonomikoez arduratu ziren.

4.3. EMAKUMEEN ERAGINA ELIZAN

Orioko elizako apaizen bat hiltzen zenean edo beste nonbaitera joaten zenean, beste apaiza izendatzeko eskubidea zuten oriotarrek. Apaiza izendatzeari buruzko agirietan azaltzen denez, botoa ematen zuten gehienak emakumezkoak ziren, gizonezkoak etxetik urruti baitzeuden lanean⁶⁷¹.

Orain arte aipatutako zeregin horiez gain, eta salbuespenak salbuespen, XX. mendera arte emakumezkoak etxeko lanetan aritu izan ziren. Baina, gero, industrializazio garapenaren eraginez, emakume oriotar asko herriko lantegietan hasi zen lanean. Esaterako, 1907. urtean Orion lau lantegi zeuden, bertan 13 emakumek egiten zuten lan, beraz langileen % 9,02a emakumezkoak ziren⁶⁷².

⁶⁶⁹Zenzu horretan, ikusi Gobernuaren atala "millares"- en inguruko baldintza ekonomikoa.

⁶⁷⁰GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.783 (1557). Zentzu horretan ikusi Maria de Ondarrak bere senarraren izenean Lazaro de Seguraren txalupa berreskuratzeko egin zituen lanak (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.811 [1590-VI-30]). Ikusi baita ere: HUXLEY, S.: "Unos apuntes sobre el papel comercial de la mujer vasca en el siglo XVI", *Cuadernos de Sección Antropología-Etnografía. EI-SEV*, 1, 1982, 159-167. orr.

⁶⁷¹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.786. f. 125-141 (1563).

⁶⁷²Hain zuzen, "Cerámica Guipuzcoana" lantegian, 5 emakume zeuden; Holstein, eta Arin y Enbil-en ez zen emakumerik; "Trenzas de Yute" lantegian, 8 emakume (OUA, C-237-2 [1907]). Izan ere, urte batzuk geroago, Orion zeuden industria guztietatik, langileen %13an emakumeak ziren, gehienak, jostunak (GAO, *Estadística de la producción industrial de Orio del año 1924* [1924]. J.D. I.T. 1.964). Jose Antonio Rodríguez Ranz-i eskertzen diot dokumentu hau eskuratu ahal izana.

5. ZENBAIT ORIOTARREN ONEGINTZA EKIMENAK

Artxiboko dokumentazioak biztanleriaren barneko beste bereiztasun bat agerian uzten du. Agiri gehienetan zenbait oriotarren ekintzen aztarnak ikusten dira, eta biztanle asko aipatu gabe gelditzen dira (hain zuzen ere, oso pertsona gutxi baitziren negozio juridikoak burutzen zituenak eta maila ekonomiko onekoak zirenak). Dokumentazio berak gailendu dituen oriotarren ekimen horien bidez, jendetza guztiaren ibilera historikoa ezagutzea posible izan da; are gehiago, burutu zituzten ekintzak, orokorrean, beti "comunitas" osoaren onurako izan ziren. Gainera, pertsona hauen artean sarritan familia arteko harremanak ematen ziren, beraz, linajeen inguruko batasunaren garrantzia ere "comunitas"en beste ezaugarri bat izan zen. Jarraian, hau argitzearren, zenbait oriotarrei buruzko adibideak aurkeztuko ditugu.

FRANCISCO DE ELORRIAGA

Itsas kapitaina izan zen, eta XVI. mendean ospe handia izan zuen. Zumaian jaio eta Madalena de Urdaire oriotarrarekin ezkondu zen; beraz, Zumaia eta Orioko herritarra izan zen⁶⁷³. Ternuara bidai ugari egin zituen bale arrantzara, eta, La Madalena eta La Concepcion izeneko ontzien jabea eta kapitaina izan zen⁶⁷⁴. Bestalde, Orioko Udal Gobernuan ere parte hartu zuen, 1561. urtean, adibidez, Batzar Nagusietara joan izan zen prokuradore gisa. Alkate ere izan zen 1560tik 1561era eta, 1591n⁶⁷⁵. Zumaian eskribaua izan zen 1590. urtean⁶⁷⁶. Ternuara askotan joan zelako, etekin ugari lortu zituelako eta oriotar asko lanean berarekin aritu izan zelako, izan zuen ospe handia Francisco de Elorriagak. Esaterako, 1564. urtean, Elorriagak La Concepcion ontzian 2.300 barrika bale koipe ekarri zituen⁶⁷⁷. Urte horretan bertan, bere ontzia donostiar batzuei alokatu zien Ternuara joateko, eta asko irabazteaz gain, oriotar batzuei bertan lan egiteko aukera eman zien⁶⁷⁸. Gerra garaian, ordea, Elorriagak beste euskal marinel askoren antzera, Gaztelako erregearen zerbitzura joan beharra izan zuen; urte hartan La Madalena ontziak galera haundiak izan zituen⁶⁷⁹.

Bestalde, Orion Trinitarioen Monasterio bat ezartzen lagundu zuen Elorriagak, eta, behar bada, hori izan zen egin zuen laguntzarik aipagarriena. Monasterioa egiteko lehen urratsa 1591n izan zen, Cristobal de Gaona fraide trinitarioa Oriora etorri zenean Kontzejukoekin hitz egitera. Francisco de Elorriaga zen orduan alkatea, eta hauek ziren Orioko gobernuko gainontzekoak: Domingo de Miranda, San Joan de Arranibar eta Santuru de Zelaiandia, erregidoreak; Nicolas de Urdaire, sindikoa; Miguel de Urreizmendi, diruzaina; Joanes de Ostolaza, juradoa. Horiez gain, biztanleak ere Kontzeju Nagusian bildu ziren. Batzarre horretan esan zuen Elorriagak bere etxeak eta ondasunak, Elizaren ondoan zegoen etxea eta, Elizondo etxea eta lurrak Cristobal de Gaona fraideari emango zizkiola, Trinitarioen Monasterioa ezarri ahal izateko. Era berean, Francisco Elorriagak bazekien etekinak aterako zituela guzti horrekin, bera izango baitzen monasterioaren fundatzailea eta, ordainetan, limosnen bidez bildutako diru kopuru jakin bat berari zegokiolako. Baina Monasterioak ez zuen asko iraun, beharbada diru gutxi biltzen zelako⁶⁸⁰.

⁶⁷³HUXLEY, S.: "Unos apuntes sobre el papel comercial de la mujer vasca en el siglo XVI", *Op. cit.* 159-167. orr.

⁶⁷⁴IDEM: *Los vascos y las pesquerías...* *Op. cit.* 113. orr.

⁶⁷⁵Francisco de Elorriaga Orioko alkate izan zen, eta seguruenik, kanpoan denbora luzea eman zuen bale arrantzan (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 [1560]). Hurrengo urtean berriz ere, Kontzejuaren kargu bera bete zuen, eta beste alkate eta biztanleekin batera Batzar Nagusietara prokuradore gisa joan zen (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 [1561]; OUA, C.IV D.2 [1591]).

⁶⁷⁶VEKA, Pleitos Civiles Alonso Rodriguez Fenecidos, C.893/1 [1590].

⁶⁷⁷IEAH, Secr. Aginaga, C/3 N° 12 (1564). Dokumentu horretan aipatzen da Elorriagak ez ziola Orioko Elizako maiordomoari zegokion %1a eman.

⁶⁷⁸Pleit gutunaren arabera, Elorriagaren ontzian berak izendatutako maestre bat, kontra maestre bat, lapurre bat ("galafate"), zurgin bat, bi arpolairi eta lonbarderero bat itsasoratu ziren (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.790 [1564]).

⁶⁷⁹1567. urteko dokumentu batean Francisco de Elorriagaren naoa, La Madalena, alegia, galera asko izan zituela aipatzen da, behar bada eraso baten eraginez (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.794 [1567]). Bestalde, 1587an Ingalaterraren kontra eraso zuen Gaztelako San Esteban izeneko galeoian zihoan Elorriaga (GAO, Mandiola civiles, 442 [1593]).

Francisco de Elorriaga kapitainaren adibideak Orion XVI. mendean eman zen balearen arrantzaren inguruko nagusitasuna isladatzen du. Horrelako kapitainaren ekintzen eskutik oriotar askok lana aurkitu zuten eta Ternuako euskal arrantzaleen ospea garatzen lagundu. Zentzu honetan, Elorriagak erlijioaren inguruko ekimena ere aurrera eraman zuen, jendetzaren garapenerako eta herriaren hazkuntzarako lagungarria izan zen.

Ildo beretik jarraituz, oriotar batzuen ospea "comunitas" guztiaren alde jokatu zuela, pertsona hauen barneko elkartasun lokarria linajea izan zela eta XVI. mendeko marinelen joera argitzeko, Joanes de Illunbe eta Joanes de Urdaireren adibideak aintzat hartuko ditugu:

JOANES DE ILLUNBE

Jarduera ekonomikoen atalean esan dugu Joanes de Ilunbek bale arrantzara joateko bidai asko antolatu zituela, behintzat 1554. urteaz geroztik. Bestalde, "capitán ordinario de Su Magestad" izeneko kargua bete zuen, Erret armadako kapitaina izan baitzen. Esan behar da, Gaztelako erregearen zerbitzuan lanean aritu zenean etekin handiak lortu zituela. San Nicolas izeneko bi nao izan zituen, eta erregeak bahitu egin zituen gatazka eta arazo politikoak izan zirenean⁶⁸¹.

JOANES DE URDAIRE ALMIRANTEA

Joanes de Urdaire oriotarra bale arrantzako kapitain gisa hasi zen. Maria de Etxanizekin ezkondu zen, Joanes de Illunbe kapitainaren alabarekin⁶⁸². 1597. urtean Puerto Rico babesteko izan zen gerran parte hartu zuen; eta, 1600. urtean Ingalaterrako nao baten kontra burrukatu zuen; urte berean, Indietako Flotaren Almirantea izan zen. Horrezaz gain, Orioko Kontzejuko ofiziala ere izan zen; bestalde, 1599an Orioko Elizako diruzaina izan zen, eta, 1607an berriro ere Kontzejuan aritu zen lan horretan; bi urtera erregidore izan zen⁶⁸³. Joanes de Urdaire Portugaleko kostaldean hil zen.

Joanes de Ilunbe eta Joanes de Urdaire marinelen garrantzia Orion eta kanpoan kokatu behar dugu. Alde batetik, Erregearen zerbitzuan aritu ziren lanean eta oriotar asko eraman zituzten beraiekin lanera; eta bestetik, udal gobernuan eta bestelako udal erakundeetan ere parte hartu zuten; beraz, esan daiteke herriarekiko ardura izan zutela. Gainera, Elorriagarekin batera, merkataritzan eta bale arrantzan oriotarrek izan zuten nagusitasunean zerikusi handia izan zuten.

Bestalde, jarraian aipatuko ditugu, XVII. mendean izandako krisialdian arrantzan nabarmendu edo gailendu ziren arrantzaleak, eta baita Orioko arazo larrietaz arduratu zirenak ere. Hain zuzen, Domingo de Aldape kapitaina, Gabriel de Hoa idazkaria, Miguel Gonzalez de Segurola, Agustin de Ojeda eta Antonio de Areizaga almiranteak.

⁶⁸⁰EAAH, Vargas Ponce Bilduma. Vol. 24. 9/4.197 (1591, 1594, 1597). "El tercer día de Pascua, el ministro del monasterio de Trinitarios se fue de Orio sin despedirse, y no sabemos la causa ni la razón (...) tenía poco sustento y no podía cobrar los censos que Francisco de Elorriaga, difunto, fundador del dicho monasterio les había dado" (1597) (OUA, C. IV. D. 2 [1591]).

⁶⁸¹GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.781 (1554-55); GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.786 (1563); GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.793 (1567); GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1801 (1575).

⁶⁸²HUXLEY, S.: Los vascos y las pesquerías. *Op. cit.* 149. orr. (1576).

⁶⁸³ONTZI MUSEOA: Disquisiciones Náuticas de Fernández Duro; PUA, Sec.B, Neg.2, Leg.1, Expte.2 (1599); GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.826 (1600); GAO, CO-U.CI., 173 (1606); OUA, C.III. D.4 (1607) Udaltzaren Ordenantza; OUA, C.III. D.5 (1609).

DOMINGO DE ALDAPE KAPITAINA

Madrilgo Ontzi Museon dagoen "Registro de Marinos Ilustres de Guipúzcoa" izeneko agirian aipatzen da. Orioko Aldape etxeko semea zen; Indietako ibilbidean parte hartu zuen eta Zacatecas-eko diruzaina izan zen⁶⁸⁴.

1585. urtean Maria de Beldarrain oriotarrarekin ezkondu zen. Bestalde, Orioko Kontzejuan zenbait kargu bete zituen, esaterako, 1590ean bertako juradoa izan zen; eta, 1599an erregidorea⁶⁸⁵. Sevilla eta Ameriketara bidaia ugari egin zituen, eta 1622an Sevillan bertan bizi izan zen. Azkenik, Zacatecas-eko diruzaina izan zen, eta 1639an Mexikon hil zen⁶⁸⁶.

GABRIEL DE HOA

Felipe III.aren erregealdian Indietako Kontseiluko idazkaria izan zen 1600-1610 urte bitartean⁶⁸⁷. Doña Maria de Oquendo y Lasarte donostiarrarekin ezkondu zen.

Orioko Kontzejuko alkatea izan zen 1607an, eta urte berean Udal Ordenantzak prestatzen parte hartu zuen⁶⁸⁸.

Gabriel de Hoaren ekintzarik nabarmenena Orioko barra konpontzeko egin zuen ahalegina izan zen. Izan ere, eta esana dagoen bezala, Orioko itsas sarreratik pasatzea oso arriskutsua zen; hori ikusita, Orioko Kontzejuak erregeari dirulaguntza eskatu zion; hain zuzen, MIGUEL GONZALEZ DE SEGUROLAK, Orio eta Aiako herritarrak, 1578. urtean Erret Kontseiluan egin zituen gestioak. Kontzejuak Seguralari agindu zion erregeak emandako diruaren laurdena emango ziola egindako lanaren truke. Hasiera batean kontuak bere horretan egon baziren ere, urte batzuetara, 1609an, Hoa idazkari zela, erregeari laguntza eskatu zion, berak ere ezagutzen baitzuen jaioterriko arazoa. Beraz, Seguroalak hasitako lanari Hoak eman zion bukaera, eta, 1609an, Felipe IIIak Orioko Kontzejuari 14.000 dukat eman zizkion barra konpontzeko⁶⁸⁹. Erregearen laguntzarekin portuko lanak asko aurreratu ziren, baina arazoa ez zen erabat konpondu.

Ordainetan, eta egindako lana eskertzeko, Kontzejuak Elizaren barruan hilobia egitea eskaini zion Hoari. Eskaintza berari eta bere familiaren oinordekoei zabaldu zion Kontzejuak. Hauxe zen leku zehatza: "en la capilla colateral del lado del Evangelio llamada La Madalena y San Miguel, en el lienzo contiguo"⁶⁹⁰. Gabriel de Hoa 1610. urtean hil zen⁶⁹¹.

Bestalde, Gonzalez de Seguroalak egindako lana ez zen behar bezain laster saritua izan, 1623. urterarte kontzejuak ez baitziren ordaindu Seguroalaren alabei aitari agindutakoa⁶⁹².

Gabriel de Hoa eta Miguel Gonzalez de Seguroalaren ekimenak oso garrantzitsuak izan ziren, batez ere, oriotar guztien onerako izan baitziren.

⁶⁸⁴ONTZI MUSEOA; GARMENDIA, J.: "Historia abreviada de los primeros veinte años de la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas", *BRSVAP*, 1984, 591-624. orr.

⁶⁸⁵GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.811 (1590); GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.817 (1599).

⁶⁸⁶GPAH, Gabriel de Arbe, 3/1.829 (1622); GPAH, Francisco de Hoa, 3/1.849 (1639).

⁶⁸⁷IAO, (AGI) *Consejo. Indiferente General* (1600-1609).

⁶⁸⁸OUA, C.II D.4 (1607) Ordenantzak.

⁶⁸⁹ZZ.AA.: *Orio, entre la ría y el mar*. CAM. Donostia, 1970, 19. orr.

⁶⁹⁰OUA, C.III D.5 (1609).

⁶⁹¹ZZ. AA.: *Orio entre la ría y el mar, Op. cit.*

⁶⁹²GPAH, Gabriel de Arbe, 3/1.830 (1623); Seguroala hil zenetik, alabek Kontzejuaren kontrako auzi luzeetan parte hartu zuten (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 [1619]).

AGUSTIN DE OJEDA

Orion jaiotako Agustin de Ojeda Infanteriako Kapitaina izan zen. Bidazabal Almirantearen agindupean Flandesen kontra borrokatu zuen. 1594. urteaz geroztik, Erregeak Bizkaian galeoiak egiteko zuen lantegiko arduraduna izan zen. 1615ean "Superintendente de Fábricas, Montes y Plantíos de Guipúzcoa" izendatu zuten, eta Erret armadarako lau galeoi eraikitzekeo ardura izan zuen⁶⁹³.

ANTONIO DE AREIZAGA ALMIRANTEA

Hasiera batean Armadako kapitaina izan zen. 1696an erregidorea izan zen⁶⁹⁴. 1705ean, almirante titulua zuela, Orioko alkatea izan zen⁶⁹⁵. 1704tik 1720ra bitartean Almirantea izan zen⁶⁹⁶. Orion ondasunak zituenez, hau da, etxea eta lurrak, bertan bizi izan zela suposatzen dugu⁶⁹⁷. Hurrengo urteetan Orioko Kontzejuko batzarretan, herritar gisa, parte hartu zuen. Bestalde, 1714an, Orioko Kofradiak bere konstituzioak edo ordenantzak bildu eta idatzi zituenean, Don Antonio de Areizaga Almirante Errealakofradiakideen lekuko eta aurkezlea izan zen⁶⁹⁸.

FRANCISCO HIDALGO DE CISNEROS

Erret armadako Teniente Nagusia izan zen. XVIII. mende hasieran Orion jaio zen, eta, 1794an Cartagena de Indiasen hil zen. Bere bizitza guztia itsas armadan eman zuen. 1738an itsas goardia izan zen, eta Espainia eta Ingalaterraren arteko borrokan parte hartu zuen. 1770ean Nabio Kapitaina izatea lortu zuen; eta, bost urtera, brigadier — koronelaren gaineko hurrengo gradua— izendatu zuten. Brigadier zela Melillan laguntzeko, Oran-era tropa batzuk eraman zituen. Gero, Maior Jenerala izendatu zuten eta Aljer-eko kanpainan parte hartu zuen. 1781ean San Juan izeneko nabioa bere agindupean izan zuen; eta, 1790ean Teniente Nagusia izan zen⁶⁹⁹.

MANUEL ANTONIO DE ANTXIOLA

XVIII. mendearen erdian "Oficial de la tesorería mayor de guerra y cajero principal" izan zen Manuel Antonio de Antxiola, eta baita, Carlos III.aren idazkaria ere⁷⁰⁰. 1755. urtean Orioko Kontzejua Batzar Nagusian bildu zenean, Eliza, Kontzejua eta Kofradia konkordia edo adostasunera heltzen laguntzeko boterea eman zion Antxiolari⁷⁰¹. Bi urtera, 1757an, oriotarrek alkate izendatu zuten, eta baita hurrengo urtean ere⁷⁰². 1770ean Antxiolak, Probintziak aginduta, Kofradiako marinela bildu zituen erregearen zerbitzurako aritzeko⁷⁰³.

Manuel Antonio Doña Juana Bautista de Hoarekin ezkondu zen. Aipagarria da, Kontzejua askotan lagundu izan zuela diruz⁷⁰⁴. Normalean iturriak konpontzeko eman ohi zuen laguntza, eta, 1798an oraindik Kontzejuak ez zion ordaindu. Hori jakin dugu, urte horretan, Antxiola hilda zegoela, bere izenean Don Santiago de Claessensek kobratu behar zuelako Kontzejuak Manueli zor ziona⁷⁰⁵, izan ere, 1780. urte inguruan hil zen Manuel Antonio de Antxiola⁷⁰⁶.

⁶⁹³ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAÍS VASCO. Auñamendi. *Op. cit.* Vol. XXXIII. 201. orr.

⁶⁹⁴OUA, *Libro de Cuentas*, C-226 (1696).

⁶⁹⁵OUA, *Libro de Cuentas*, C-226 (1705).

⁶⁹⁶URRUTIKOETXEA, J.: Análisis de los factores... *Op. cit.* 66. orr.

⁶⁹⁷OUA, *Libro de Despachos y Testimonios*, C-219 (1705).

⁶⁹⁸IEAH, Secr. Villanueva, C/1.731. Nº17 (1714-1716).

⁶⁹⁹Diccionario Enciclopédico... *Op. cit.* t. XVIII. 314. orr.

⁷⁰⁰URRUTIKOETXEA, J.: Análisis de los factores... *Op. cit.* 67. orr.

⁷⁰¹IEAH, Secr. Villaba, C/2.159. nº20 (1755).

⁷⁰²OUA, *Libro de Ayuntamiento*, C-221-2 (1757). Hurrengo urteko hauteskundeetan, nahiz eta Antxiola Madrilgo Kortean izan eta herritik kanpo bizi, berriro alkate izendatu zuten (OUA, *Libro de Ayuntamiento*, C-221-2 [1758]).

⁷⁰³GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.918 (1770).

⁷⁰⁴Berak eta bere emazteak 101 zilar ezkutu eman zioten Kontzejuari maileguan (GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.913 [1765]).

⁷⁰⁵GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.945 (1798).

⁷⁰⁶OUA, C.VI D.1 (1785).

JOSEPH DE MAITIN KAPITAINA

1746. urteaz geroztik Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarraren ontzi-kapitaina izan zen. Caracasen komertzioan aritzeko erregearen baimena zuen, hain zuzen, kortso patentea eman zion. Horrela dio dokumentua⁷⁰⁷:

*"(...) con registro desde Benezuela y conducir carga de cacao a estos reinos (...) a fin de que podáis embarcaros en qualquiera de los navíos que se hiciesen a la vela de Caracas; por lo tanto mando al Gobernador y Capitán General de la Provincia de Benezuela y a los demás de las de América donde tocareis, os tengan por tal capitán de mar y guerra en servicio de la mencionada Compañía Guipuzcoana, sin poner os enbarazo ni impedimento alguno en hacer el curso quando lo tubiereis por conveniente, guardándoos todas las preminencias, exempciones y prerrogativas que gozan los oficiales y gente de la tripulación de mi Real Armada"*⁷⁰⁸.

Bestalde, Orioko Kofradiakidea izan zen, eta, Eliza, Kontzejua eta Kofradiaren arteko auzia gertatu zenean, berak, Areizaga Almirantea bezala, artekaria izan zen.

Areizagak, Antxiolak eta Maitinek ospe handia izan zuten beren garaian, eta Orioko erakundeek arazo eta auziak konpontzeko artekari izateko laguntza eskatu ohi zieten.

Maitin kapitainaren ekintzarik gogoingarriena Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarrean parte hartu izana izan zen. Baina, bazen beste oriotar bat ere, JOSE SANTIAGO DE CLAESSENS, ospe handia izan zuena. Esaterako, 1770. hamarkadan Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarraren zuzendaria izan zen. Don Juan Antonio de Claessensek, bere aita zenak, kargu bera bete zuen 1734 eta 1744 urte bitartean. Bestalde, Jose Santiago 1785ean eta 1798an Orioko alkate izan zen. Antxiola idazkariaren oinordea zenez, bere maileguak kobratzeko boterea izan zuen. Izan ere, Antxiola izeneko etxean bizi izan zen, beharbada idazkariarena izan zena. Jose Santiago de Claessensek bere semeari, Jose Mariari Antxiola etxea utzi zion testamentuan. Era berean, Jose Santiagok Filipinaseko Konpainiako akzioduna zenez, 14.000 peso utzi zizkion semeari⁷⁰⁹. Bestalde, bere semeak, Jose Maria de Claessensek, Orioko udal politikan parte hartu zuen. Gaur egun, "Anciolaenea" Claessenstarrak bizi izan ziren etxeak Claessens du izena.

Azkenik, oriotar misiolari edo erlijiosoak aipatuko ditugu; izan ere, herritik kanpo lan izugarria egin zuten, baina hala ere, herriko arazoetaz ere kezkatu izan ziren.

FRAY FRANCISCO DE SEGUROLA Y GANBOA

Fraide austindarra zen eta, Don Juan de Austria Printzearen aitor-entzulea izan zen. Bestalde, Salamancako Unibertsitateko Teologia Katedraduna zen. 1625ean Zaragozako Artzapezpikua izan zen⁷¹⁰.

⁷⁰⁷GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.913 (1765). Don Joseph de Maitinen kaparetasuna agertzen da.

⁷⁰⁸IEAH, Secr. Villaba, C/2.159 N°20 (1755).

⁷⁰⁹GPAH, Ramon de Illunbe, 3/1.976 (1837).

⁷¹⁰LABAYEN, J.M.: "Orio", *Vida Vasca. Op. cit.* 125. orr.

FRAY RODRIGO AGANDURU MORIZ⁷¹¹

1589an Valladoliden jaio eta 1626. urtean Orion hil zen. "Marco Polo guipuzcoano" izenarekin aurkezten du J.M. DONOSTYk. Izan ere, Rodrigo fraide austindarra, jatorriz Orioko Aganduru baserriko semea zen. Gurasoak oriotarrak zituen, hain zuzen, Don Antonio de Aganduru eta Doña Catalina Moriz y Salazar.

Rodrigo Aganduruk Valladolid eta Salamancako Unibertsitateetan ikasketak egin zituen. Gero, Filipinasera joan zen, bertan misiolari eta ebanjelari gisa lan izugarria egin zuen. Bestalde, nabigazioarekin zerikusia duten lanetan ere aritu zen, eta, itsasbide batzuk egin zituen.

AITA JOSE DE LERTXUNDI⁷¹²

Orion 1836an jaio eta Marokon 1896an hil zen. Frantziskotarra zen eta misiolari joan zen Marokora; bertako hizkuntzari buruzko liburu bat idatzi zuen, hain zuzen, "Gramática del árabe dialectal marroquí" eta baita horri buruzko hiztegia ere. Lan izugarria egin zuenez Marokoko elizako Prefektu Apostoliko izendatu zuten. Aita Lertxundik Marokoko kostaldeko hirietan eliza eta eskola ugari eraiki zituen; bestalde, Tanger-en aurreneko eritegia eraiki zuen, eta medikuntza eskola bat ezarri zuen bertan. Horretaz gain, misiolari gisa oso gauza garrantzitsuak egin zituen.

JUAN ANTONIO DE MAKAZAGA

Orioko apaiza izan zen. 1877an, Don Manuel de Zaraguetak eta beste batzuk, helduentzako gau-eskola bat antolatu zuten⁷¹³. Baina, apaiza honen ekintzarik funtsezkoena zera izan zen, oriotar gazte batzuekin batera portua konpontzeari ekin zion. Hain zuzen, Makazagak 1889. urtean, Orioko Udalarik portuko barra konpontzeko baimena eskatu zion. Bertan, oriotar askok parte hartu zuen. "Arrigorcieta" izeneko tokian harriak pilatzen hasi ziren eta herriko plazatik itsasadarraraino harrizko aldapa bat egin zuten⁷¹⁴.

Bestalde, Juan Antonio de Makazaga apaizak I eta II. Karlistadan parte hartu zuen, Karlisten komandante gisa borrokatuz⁷¹⁵.

Pertsonaje ospetsuen zerrenda xume honi bukaera emateko, kulturaren arloan lan handia egin zuten bi gizon aipatuko ditugu:

DON JUAN DE ZARAGUETA

"Académico del número de la Real Academia de Ciencias Morales y Políticas" izendatu zuten. 1920an Oriok herriko kale bati bere izena jarri zioten egindako lana eskertu asmoz⁷¹⁶. Gaur egun hondartza inguruan dagoen eskolak bere izena du.

DON CELESTINO AGIRRESAROBÉ

Baritonoa izan zen, eta 1920an, bere omenez, Orioko Udaletxean bere argazki bat jarri zen⁷¹⁷.

Azkenik, kapituluari amaiera emateko eta era berean laburbilduz, esan daiteke Orioko biztanleria ikuspegi desberdinetatik azter daitekeela. Baina, guk egindakoarekin zera ikusi dugu, batetik, "comunitas"ean hiru erakunde edo "corpus" daudela: Kontzejua, Eliza eta Kofradia; eta, horietan biztanleria guztia elkartzen zen. Bestalde, "comunitas"

⁷¹¹DONOSTY, J.M.: "Fray Rodrigo de Aganduru Moriz. El Marco Polo Guipuzcoano". *Marinos Guipuzcoanos*. Publicaciones Españolas, Madrid, 1968.

⁷¹²LANA, B.: "Lerchundi de Arabia", *Diario Vasco*. (1996-I-7) 12 orr.

⁷¹³OUA, L-28 (1877).

⁷¹⁴OUA, C-108.5 (1889). Ikusi XIV. ERANSKINA.

⁷¹⁵*Diccionario Enciclopédico... Op. cit.*, t. XXVI, 63. orr.

⁷¹⁶OUA, L-32 (1920).

⁷¹⁷OUA, L-32 (1920).

ean baziren desberdintasunak, esaterako, gizon eta emakumezkoen artekoa, eta, zenbait pertsona eta biztanleria osoaren artekoa. Kapitulu honetan esandakoaren bidez Orioko gobernuak, erlijioa eta ekonomiaren inguruko antolaketa babestu eta bultzatzen zuten erakundeak ikusi ditugu, Orioko historia ezagutzen lagunduko digutenak.

II. POPULAZIOAREN BILAKAERA DEMOGRAFIKOA

Populazioaren bilakera demografikoa izeneko kapituluaren bidez Orioko biztanleen ibilbide historikoa azaldu nahi dugu. Horretarako, jaiotza-tasa, heriotza-tasa, ezkontzak eta migrazioa mugimenduak aztertuko ditugu.

1. ITURRIAK

Ikerketa demografikoa egin ahal izateko artxibo desberdinetara jo behar izan dugu. Esaterako, Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibo Historikora, bertan Orioko San Nicolas de Bari Elizako Liburu Parrokialak gordetzen baitira; hau da, bataiatu, ezkondu eta hildakoen izen-abizenak biltzen dituzten liburuak. Horietan, XVI. mende bukaeratik XIX. mende bukaera bitarteko datuak azaltzen dira⁷¹⁸.

Bestalde, Madrilen dagoen Historiako Erret Akademiako Artxibora ere jo genuen, eta Vargas Ponzeren "Estados de Vitalidad y Mortalidad" izeneko liburuan XVIII. mendean Orion jaiotza, hil eta ezkonduetakoen zerrenda aurkitu genuen. Aipatu artxiboan, XVIII. mendeko datu demografiko baliagarriak daude; esate baterako, 1768. urteko Arandak egindako errolda edo zentsua; eta 1787an Floridablancak egindakoa. Bi dokumentu horietan Orioko biztanleriaren datuak aipatzen dira, hain zuzen, adinaren arabera gizonetzkoak eta emakumezkoak sailkatuta azaltzen dira.

Bestalde, Orioko Udal Artxiboan ere zenbait datu aurkitzeaz gain, XIX. mendeko erroldak gordetzen dira. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan ere datu lagungarriak aurkitu ditugu.

2. ALDAGAI DEMOGRAFIKOEN EZAUGARRIAK

Bilakaera demografikoa ikuspuntu desberdinetatik aztertu daiteke, baina dena dela, aldagai adierazgarrienak honakoak dira: jaiotza-tasak, heriotza-tasak, ezkontzak eta migrazio mugimenduak. Hau da, Demografia kuantitatiboaren ikuspuntutik aztertuko dugu Orioko bilakaera demografikoa⁷¹⁹. Modu horretan aztertuz gero, posible izango baita emakumezko eta gizonetzkoen kopurua jakitea, edota ezkondu eta ezkongabeak zenbat ziren jakitea, eta horien arabera, oreka mantentzen zen aztertzea. Datu horiek guztiak oso baliagarriak izan daitezke eta, migrazioa mugimenduak aztertzeko.

Horretaz gain, demografia kualitatiboaren ikuspuntutik aztertuz gero, bilakaera demografikoaren gakoak ezagutzea posible izango da. Hain zuzen ere, jaiotza-tasa, heriotza-tasa eta ezkontza aldagaien ezaugarriak aztertuz, hala nola, sorkuntza eta jaiotzak hilabetearen arabera, seme ez legitimoak, helduen eta haurren heriotza-tasa, ezkontzak hilabetearen arabera, etab., azterketa demografikoa aberastuko da. Eta migrazio mugimenduen bidez bertako jarduera ekonomikoaren egoera jakin ahal izango dugu⁷²⁰.


⁷¹⁸ Josetxo Urrutikoetxea, Jose Angel Achón eta Victor Herrerori eskertzen diet Elizbarrutiko Artxibo Historikoko datuak eman izana.

⁷¹⁹ Azterketaren kontzeptuen analisirako ikusi URRUTIKOETXEA, J.: "Demografía histórica. Marco metodológico", *MUNDAIZ*, 19, 1981, 9-10. orr.

⁷²⁰ Hilabetearen araberekin azterketarekin zera ikusten dugu, jaiotza, heriotza eta ezkontzen maiztasuna zenbatekoa zen (URRUTIKOETXEA, J.: "Demografía histórica". *Op. cit.* 13. orr.).

I. GRAFIKOA: POPULAZIOAREN BILAKAERA OROKORR (1580-1890)

*Datuak 5 urteko aldien batez bestekoak dira



Esan beharra dago, historian zehar iturri dokumentaletan agertzen diren datuak, denboraren poderioz, ugaritu eta zehaztu egin direla. Horregatik, XVIII. mende arteko agirietan ez da jaio, hil edo ezkondu ziren pertsonen adina edo lanbidea zehazten, eta ondorioz, ez ditugu datu horiek. Hortaz, haurren hilkortasuna, gizon-emakumezkoen arteko banaketa, etabarren azterketa XVIII. mendearen bigarren erditik aurrera egin ahal izan dugu soilik.

Demografiaren inguruko azalpenak egiterakoan, ekonomiaren atalalean erabili ditugun ardatz kronologikoetat zabalagoa eta argiagoa lortuz.

XXII. TAULA. ORIOKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA OROKORRA

URTEA	BIZTANLEAK (kopurua)	URTEA	BIZTANLEAK (kopurua)
1575	750	1800	510
1587	713	1877	934
1632	500	1878	950
1733	660	1889	984
1768	692	1891	1.028
1787	642	1910	1.449

XXIII. TAULA. JAIOTZA, HERIOTZA ETA EZKONTZA-TASAK

(XVI-XVII. MENDE BITARTEKOAK)

URTEA	BIZTANLEAK	JAIOTZA-TASA ‰	HERIOTZA-TASA ‰	EZKONTZA-TASA ‰
1587	713	24,96	?	?
1632	500	18	?	3,2
1733	660	34,09	16,2	7,12
1768	692	34,5	17,19	8,9
1787	642	25,3	26,16	6,2

3. HAZKUNTZA DEMOGRAFIKOA (1379-1580)

Lehen garai honetako datu zehatzik ez dugu, lehen aipamenak XVI. mendekoak baitira, hain zuzen, eliz liburuetatik hartutakoak. Dena dela, datu oso baliogarriak aurkitu ditugu, eta jarraian, horiei ekingo diegu.

3.1. POPULAZIOAREN BILAKAERA

1379an Orioko eliztarrek San Nicolas Elizaren inguruan finkatu zuten herria. Badirudi XIV. mendean Orion ez zela jende asko bizi, baina denboraren poderioz, biztanleria handituz joan zen. Esan daiteke, orokorrean, Gipuzkoa osoan, XVI. mende bukaera bitartean eman zela hazkundera⁷²¹. Esaterako, hona hemen Oriori buruzko 1502ko agiri batean aurkitu duguna, "parroquianos, por la bendición de Dios tanto se habían multiplicado"⁷²². Bestalde, 1569. urtean izandako Batzar Nagusian aipatu zen herri askotan eman zela hazkundera, eta Orio aipatu zuten ere⁷²³.

Lope Martínez de ISASTIren esanetan, Oriok 1575. urtean 755 biztanle⁷²⁴ zituen eta horietatik 150 ziren herritarrek⁷²⁵.

Hortaz, orain artean aipatu datuen arabera, XVI. mende bukaera arte hazkunde demografikoa nabarmena izan zen, eta hori, ekonomiarekin erabat lotuta dago, hain zuzen, Ternuako bale harrapaketen garai onena izan baitzen. Era berean, ontzigintza, merkataritza eta burdin garraioari dagokionez, garai onak izan ziren. Beraz, hazkunde ekonomikoak eragina izan zuen hazkunde demografikoan.

3.2. HERIOTZA-TASA

Heriotza-tasek ere garaiko garapena isladatzen dute. Bestalde, hildakoen izen-abizenak aztertu ondoren, nabarmena da arrantza eta merkataritzarekin duten lotura⁷²⁶.

⁷²¹ BILBAO, L. M.: "La general expansión del XVI en Vascongadas", *Op. cit.* 112. orr.

⁷²² OJA, Bulda. C.III. D.21 (1502) Ikusi IV. ERANSKINA.

⁷²³ DÍEZ DE SALAZAR, L. M.; AYERBE IRIBAR, M. R.: *Juntas y Diputaciones. Op. cit.* T. V. (1569).

⁷²⁴ Erregimen zaharreen herritar eta bizilagunen artean desberdintasuna egiten zen. Herritarrek zergak ordaintzen zituzten eta zenbait pribilegio eta eskubide zituzten; adibidez, Kontzejuaren batzarretan parte har zezaketen. Bizilagunak, berriz, herrian bizi zirenak ziren, eta ez zituzten aipatu pribilegioak (HERNÁNDEZ MARCO, J.L.; PIQUERO ZARAUZ, S.: "Informe sobre la cuestión demográfica vasca (1500-1850)", PÉREZ MOREDA-REHER: *Demografía histórica en España.* 342. orr.).

⁷²⁵ MARTÍNEZ DE ISASTI, L.: *Op. cit.* 583. orr.

⁷²⁶ Gutxi dira garai honetan heriotzen bilakaera ezagutarazten duten agiriak. Gehienak itsasoan hildakoen aipamenak dira; beste batzuk, berriz, "Indias"-etan hil ziren. Horretaz gain, oriotarrek Erret armadan parte hartu zuten zero, posible da han ere jendea hiltzea (GPAH, Miguel González de Seguro, 2/1.214 (1508); 2/1.215 [1510], [1511]).

3.3. EMIGRAZIOA: TERNUARAKO BIDAIK

Aztertzen ari garen garai honetan kontuan izan behar da emigrazioa, oso garrantzitsua baita garaiko bizimodua hobeto ulertzeko: Ternuarako bidaiak bale arrantzara; Erret Armadan parte hartzea; Amerika, Ingalaterra, Flandes eta Frantziara bidai komertzialak; eta, Galiziara arrantzara. Arrantzagatik eta merkataritzagatik oriotarrek herritik kanpo hilabeteak ematen zituzten; izan ere, hori izan zen oriotar askoren bizibidea. Emigrazio mota hori, hau da, arrantza eta merkataritzagatik egindakoa, behin-behinekoa eta aldizkakoa zen, arrantza garaiak eta bidai komertzialek irauten zutenaren arabera.

Erret armadara eta Ameriketara joandako oriotarren datu zehatzak lortu ez ditugunez, ezinezkoa da jakitea behin-betiko emigrazioa izan zen edo ezbeharren bat izan zuten.

Emigrazioaren adierazgarri gisa 1563an Oriotik kanpo zeuden gizonen zerrenda ikusiko dugu⁷²⁷:

IZENA	LEKUA	IZENA	LEKUA
Juanes de Arbe	Ternuan	Francisco de Urdaire	Ternuan
Joan Martinez de Ondarra	Itsasoan	Domingo de Etxaniz	Ternuan
Francisco de Jauregieta	Ternuan	Domingo de Etxeberria	Ternuan
Juanes de Segura	Ternuan	Juan de Sasoeta	Ternuan
Domingo de Agirre	Itsasoan	Juan Martinez de Arranibar	Itsasoan
Juanes de Urdaire	Itsasoan	Domingo de Arratola	Itsasoan
Juanes de Urdaire	Ternuan	Nicolas de Arranibar	Itsasoan
Cristobal de Etxaniz	Ternuan	Santiago de Recabo	Galizian
Domingo de Ernialde	Ternuan	Juan de Segura	Ternuan
Andres de Semper	Galizian	Domingo de Pagino	Itsasoan
Domingo de Segura	Ternuan	Domingo de Etxabe	Itsasoan

Zerrendaren arabera garbi ikusten da kanpoan lan egiten zuten oriotar guztiak gizonetzkoak zirela eta, batez ere, Ternuan zutela lanbidea. Beraz, bertako arrantza sasoi onenean zegoen. Horretaz gain, Galziarako bidaiak ere garai beretsukoak dira, nahiz eta aipamenak hainbeste ez izan. Bestalde, zerrendan *Itsasoa* aipatzen denean, baliteke Erret armada edo merkataritzako bidaiak izatea.

Horrezaz gain, herrian beste apaiza izendatu zutela aipatzen da agirian, eta botua eman zuten gehienak emakumezkoak izan ziren; hortaz, baliteke agirian aipatzen diren baino gizon gehiago izatea kanpoan.

Garbi dago, orain arte aipatu bidaien helburua ekonomikoa zela, eta, jardueraren arabera, bidaiak kopurua desberdina izaten zela.

⁷²⁷ GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.786, F.125-141 (1563). Oriotarrek beste apaiza izendatu zutela ere aipatzen da.

Bestalde, XVI. mende bukaera arte, hazkunde demografikoaren garaia izan zen. Eta, heriotza-tasa eta emigrazioaren inguruko datuak aztertu ondoren, itsasoarekin zerikusia duten jardueren —arrantza eta merkataritza— gorakada ere baieztatu dezakegu. Beraz, demografia eta ekonomiaren ikuspegitik, 1580. hamarkada inguruan Orioko aldirik oparoenetakoa amaitu zen.

4. KRISIALDI DEMOGRAFIKOA (1580-1625)

Garai honen ezaugarri nagusia krisia da. Oriok krisialdi orokorra bizi izan zuen XVII. mendeko 30. hamarkada arte. Europa osoan izan zen krisi garaia, eta honako hauek izan ziren arrazoi nagusienak: gatazka politikoak, merkataritzaren garapenerako oztupoak, garia erosteko zailtasunak, Ternuan arrantzan aritzeko arazoak, burdinaren konpetitibitate ezak sortutako ondorioak... Hortaz, krisialdiaren eraginez, ordurarte garapen ekonomikoa izan zuten Europako herrialdeek, nagusitasuna galdu zuten, eta Ternuan ere krisiaren eragina nabarmena izan zen⁷²⁸.

Krisia zela eta, aurreko oriotarren oinarri ekonomikoa —arrantza, merkataritza eta burdin garraioa— ezin zen mantendu, eta, 1591. urtea oso latza izan zen oriotarrentzat. Hona hemen kontzejuaren idatzi bat, krisialdiaren islada ezinhobea:

*"Esta villa es de mui poca sustancia y vecindad, y la maior parte de la gente que hay en ella son pobres marineros y trabajadores que [viven] de la pesca que traen de la mar, pasan la vida con mucho trabajo y afán, y las pobres de sus mujeres y otras viudas van a vender pescado a las villas de San Sebastián, Tolosa y otras villas de V.S., y viven con tanta miseria que no alcanzan un pan, un día con otro"*⁷²⁹.

Ekonomia atalean ere, Lazaro de Segurak eta Josepo de Etxaniz arrantzale oriotarrek, 1599. urtean, egindako adierazpenak azaldu ditugu. Dena dela, gogora ekarriko ditugu oso ondo adierazten baitute arrantzaren inguruan zegoen arazoa eta krisia:

*"(...) la falta de pescado, de más de diez años a esta parte ha sido muy grande; y que antes solían pescar en la dicha villa diez e seis e más barcos e chalupas, y agora no salen sino seis o ocho chalupas, y en ellos poca gente porque no hay gente"*⁷³⁰.

Beraz, badirudi, hazkunde demografikoa eten egin zela, jakina, krisi ekonomikoak eraginda.


Krisialdiaren egoera behin azalduta, ikus dezagun demografiaren aldagai bakoitzean izan zuen eragina.

⁷²⁸ BILBAO, L. M.: "Transformaciones económicas en el País Vasco durante los siglos XVI-XVII" *Op. cit.* 134. orr.; ÍDEM: "Crisis y reconstrucción de la economía vascongada en el siglo XVII", *Saioak*, 1, 1977, 157-180. orr.

⁷²⁹ EHAA, Vargas Ponzeren Bilduma, Vol. 24. 9/4.197 (1591-XI-20).

⁷³⁰ IMAZ, J.M.: *La industria pesquera en Guipúzcoa a finales del siglo XVI. Op. cit.* 49. orr.

II. GRAFIKOA: POPULAZIOAREN BILAKAER
(1580-1625)



4.1. JAIOTZA-TASAREN JAITSIERA

Bataiatutakoen zerrenda ikusita, beherakada nabarmena izan zela agerian da. Garai hartan jaiotako guztiak edo ia gehienak bataitzen zirenez, hauxe esan dezakegu: XVI. mende bukaeran jaiotza-tasa %24,96koa izan zen, Gipuzkoako tasa baino txikiagoa⁷³¹. Krisialdiak iraun zuen bitartean eman zen jaitsiera, eta zenbaitetan, areagotu egin zen, esate baterako, 1632an, %18koa izan zen.

4.2.- HERIOTZA-TASAREN IGOERA

Bestalde, heriotza-tasa aldagaiari buruzko datuak ez dira asko. Hala eta guztiz ere, badakigu zenbait arrantzale Ternuan hil zela, eta beste batzuk, Ameriketara. Izan ere, datu horiek emigratio mugimenduz aritzeko baliogarriak dira⁷³².


Krisialdian hildako asko izan zen, gertaera larri ugari izan baitzen: izurriteak (1597-99), uzta txarrak (1605), gaixotasunaldiak (1580, 1612-1615, 1622-23)...⁷³³. Bestalde, krisialdietan gertatu ohi den bezala, elikadura kaskartu egiten da, eta ondorioz, hildako gehiago izaten da.

⁷³¹ Jaiotza, heriotza eta ezkontza-tasak lortzeko PIQUEROK erabili zuen teknikaren antzekoa da gurea. Alegia, hainbat garaietako zentsoen bidez Orioko biztanle kopurua jakin dugu. Tasa lortzeko, hamar urtetan izandako batezbestekoa atera dugu. Ondoren, kantitate hori biztanle kopuruarekin zatitu dugu eta, gero, emaitza bider 1.000 egin dugu; horrela, %ak atera ditugu (PIQUERO ZARAUZ, S.: *Demografía guipuzcoana en el Antiguo Régimen*. Op. cit. 178. orr.). Ikusi XXIII. Taula eta II. Grafikoa.

⁷³² Adibidez, Domingo de Arbe eta Francisco de Jauregieta Ternuan hil ziren; Matxin de Orio, Nicolas de Hoa eta Margarita de Villabeat "Indiaetan" edo Ameriketara (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.804 [1578]; 3/1.811 [1590]; IEAH, Secr. Garro, C/170 N° 17 [1601]; VEKA, Lapuerta. Fenecidos. C/1.872/3 Leg.374 [1618-1629]).

⁷³³ PIQUERO ZARAUZ, S.: Op. cit. 151-153. orr.

III. GRAFIKOA: HILKORTASUNA HILABETEAREN ARABER,
(XVII. MENDEAN)



Ildo beretik jarraituz, hilkortasuna hilabetearen arabera bidez (1601-1610), heriotzak eta horien arrazoiak azter ditzakegu. III. Grafikoak adierazten duenez, heriotza gehienak apirilean, irailean eta azaroan izan ziren; eta jende gutxien hildako hilabeteak, berriz, ekaina eta abuztua bitartean. Negu partean, hotzak eraginda, gaixotasunak ugariagoak izaten dira. Horretaz gain, litekeena da udazkenean izandako heriotz asko eta asko arrantzara egindako bidaiekin zerikusia izatea, arrantzarako garairik egokiena baita. URRUTIKOETXEaren arabera, orokorrean, heriotza gehienak negu bukaeran, Eguberritan eta udazkenean izan ziren⁷³⁴. Dena dela, kontuan izan behar da gerra garaia ere izan zela, eta, jakina, eragina izan zuen.

4.3. EZKONTZA: ARRANTZAREN ERAGINA

Garai honi dagozkion ezkontzari buruzko datuak oso gutxi dira, eta 1603. urtetik aurrerakoak dira gehienak. Bestalde, ezkontza datuak aztertu ondoren oriotarren ohiturak edo joerak ezagutu ditzakegu. Ezkontza-tasari dagokionez, 1632an Orion %3,2koa izan zen; Gipuzkoakoan, berriz, %7a⁷³⁵. Ezkontzen joera adierazteko, IV. Grafikoa ikus dezakegu, hain zuzen, ezkontza hilabetearen arabera. J. URRUTIKOETXEAK, 1585-1615 urte bitartean, hilabetez-hilabete, ezkontzen joera argitzen du. Ezkontza gehienak apirilean, abuztuan eta urrian izan ziren. Arrantzale herrietan ez dira ohiko hilabeteak, zer dela eta Orion? Azalpena hau litzateke, arrantzale oriotar asko, garai honetan, Galiziara eta Asturiasera joaten ziren arrantzara, Ternuarako joera galtzear baitzegoen. Gogora dezagun, bidaia horiek udazkenean hasi eta martxoa-apirila arte luzatzen zirela. Beraz, ez da arraroa ezkontza asko apirilean eta urrian izatea; hau da, arrantzaleak Galiziatik etorri ondoren (apirilean) eta joan baino lehen (urrian). Abuztuko ezkontza gehienak, oro har, kostaldeko arrantzaleen herriei dagozkie⁷³⁶. Azalpen honekin zera esan dezakegu, ezkontzaren aldizkotasunaren gora-beherek, garai honetan behintzat, lotura handia zutela jarduera ekonomikoarekin. Bestalde, kontuan hartu behar dugu herri katolikoaren usadioa: Garizuman eta Gabon egunetan ez zen ezkontzarik ospatzen. Dena dela, badirudi, ekonomiak lehentasuna zuela erlijioaren aldean. Gainera, oriotarren


⁷³⁴ URRUTIKOETXE, J.: *Demografía histórica*. Op. cit. 12. orr.

⁷³⁵ PIQUERO ZARAUZ. Op. cit. 179. orr. Ikusi XXIII. Taula.

⁷³⁶ URRUTIKOETXE, J.: *Demografía Histórica*. Op. cit. 14. orr.

ezkontzeko joera orokorra ikusita, garbi dago ez zuela zerikusirik Gipuzkoakoarekin⁷³⁷. Behar bada, krisialdiaren eragina gogorragoa izan zen Orion Gipuzkoako gainontzeko herrietan baino.

IV. GRAFIKOA: EZKONTZAK HILABETEAREN ARABER.
(XVI-XIX. MENDEEN ARTEAN)



4.4. EMIGRAZIOA

Emigrazio mugimenduei dagokienez, aldi honetako bakarrak Ternuara, Galiziarra, Amerikara eta Erret armadara izan ziren, eta, gehienetan, behin-behinekoak⁷³⁸. Merkataritzari eta arrantzari dagokionean, eta krisialdia kontuan hartuta, badirudi ez zegoela aukera gehiegirik.

Laburbilduz, jaiotza-tasa eta ezkontza kopurua nabarmen jaitsi zen, eta heriotza-tasa, berriz, igo. Ezkontzeko joera azertu ondoren, garbi dago oriotarrek arrantzari eutsi egin ziotela. Baina, azken finean, zeharkako datuek adierazten digute, Orioko biztanleek, 1580-1625 urte bitartean, benetako garai larria jasan zutela.

5. SUSPERRALDI DEMOGRAFIKOA: "ARTOAREN IRAULTZA" (1625-1760)

Ekonomiaren atalean esan bezala, XVII. mende hasiera arte luzatu zen krisi eta larrialdia nekazaritzari esker amaitu zen.

"Artoaren iraultza" izeneko garaian, demografia suspertzeko eta hazteko baldintzak eman ziren. XVII. mendeko 30. hamarkadatik aurrera, 1760-65 urte bitartean, demografiaren ezaugarri nagusia biztanleriaren hazkundea izan zen. Hain zuzen, Orion, 1632an 500 lagun bizi ziren; 1733an, berriz, 660. Beraz, biztanleria hazi egin zen⁷³⁹.

Susperraldi demografikoa eta ekonomikoa izan zen; hala eta guztiz ere, gunee larriak bizi izan ziren, eta gehienak, gatazka politikoek eraginda. Esate baterako, 1650. hamarkadan Frantziarekin izandako gerrak, Gipuzkoak jasan zituen erasoak,

⁷³⁷ "El calendario matrimonial muestra el gran absoluto de febrero, típico de los países católicos, y que se suele poner en relación con la menor actividad invernal como de la influencia de las prescripciones religiosas respecto del Adviento y Cuaresma, que tenderán a acumular en febrero y en parte de enero los matrimonios de esos meses" (PIQUERO ZARAUZ, S.: *Op. cit.* 193,196. orr.).

⁷³⁸ Zentzu honetan ikusi garai honetako Ekonomia atalean arrantzari dagokion azalpena. Horretaz gain, gerra kontuan hartu behar da, Erret armadan oriotar askok egin baitzuen lan.

⁷³⁹ PIQUERO ZARAUZ, S.: *Op. cit.* 102. orr.

(Hondarribiak gehienbat), Kataluniako gerrak, eta abar. Gerra horiek ondorio kaltegarriak izan zituzten: heriotzak, gari falta, gosea eta elikadura kaskarra... Bestalde, XVII eta XVIII. mendeak latzak izan ziren, Ondorengotza-gerraren ondorioz. Orokorrean, 1740-55 urte bitartean, Gipuzkoa osoan luzatu zen egoera hau⁷⁴⁰. Guzti hori kontuan hartuta, esan dezakegu, aipatu egoerek eragin zuzena izan zutela demografian: heriotza-tasa igo, eta ondorioz, ezkontza eta jaiotza-tasak desorekatu.

Garai honetako oriotarren joera demografikoa, orokorrean, Gipuzkoakoaren berdintsua izan zen, batez ere, nekazaritzan oinarritutako herrietan⁷⁴¹.

Jarraian, eta zehaztasun gehiago emateko, demografiaren funtsezko hiru aldagaiak aztertuko ditugu.

5.1. JAIOTZA-TASAREN IGOERA

Jaiotzei dagokionez, eta bataiatutako biztanleen grafikoak adierazten duenez (V-VII. Grafikoak), jaiotza-tasaren joera orokorra gorakada da. Garai honetako biztanleriari buruzko datuen arabera, Orión 1632. urtean 500 biztanle ziren; 1733. urtean, berriz, 660 ziren⁷⁴². Beraz, XVII. mendeko 30. hamarkadan jaiotza-tasa %18koa izan zen, batezbeste; eta, mende amaieran, %34,09koa. Portzentaiek batezbestekoa adierazten badute ere, jaiotzaren igoera handia izan zela garbi dago. Bestalde, lehen aipatu dugun %18ko tasa oso baxua zen, baina, krisialdiak eragindakoa baitzen. Baina, benetako hazkundearen islada garai honetako bigarren tasa da, %34,09koa izan baitzen. Orokorrean, jaiotza indizeen arabera, Orioko joera eta Gipuzkoakoa parekoak izan ziren⁷⁴³.


⁷⁴⁰ URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...* Op. cit. 19. orr.

⁷⁴¹ Orioko demografia, orokorrean, Azkoitia, Legazpia eta Arrasate herrien antzekoa izan zen; bestalde, kostaldeko herri batzuren joera ere antzekoa izan zen (URRUTIKOETXEA, J.: "Movilidad poblacional en la Gipuzkoa del siglo XVIII". *Homenaje a TELLECHEA IDÍGORAS. BEHSS.* 16-17 II, 1982-1983, 559-602. orr.).


⁷⁴² PIQUERO ZARAUZ, S.: *Demografía guipuzcoana...* Op. cit. 102. orr. 1733. urtean 660 bizilagun zituen (FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen...* Op. cit. 212-213. orr.). 1733. urtean Oriok 490 biztanle heldu zituen, hau da, 12 urte baino gehiagokoak. Tellecheak gauza bera esaten du (TELLECHEA IDÍGORAS, J.: "Datos demográficos sobre Guipúzcoa (1733)" *BRSVAP*, T. XXVII, 1971, 173-176. orr.).


⁷⁴³ 1733an, Gipuzkoako jaiotza-tasa %34,4koa izan zen, beraz, Oriokoaren antzekoa (PIQUERO ZARAUZ, S.: *Demografía...* Op. cit. 178. orr.). Ikusi XXIII. Taula.

V. GRAFIKOA: POPULAZIOAREN BILAKAER (1626-1670)



VI. GRAFIKOA: POPULAZIOAREN BILAKAER (1671-1715)




VII. GRAFIKOA: POPULAZIOAREN BILAKAER
(1716-1760)

Orain arte aipatutakoaz gain, jaiotzen inguruko zehaztapen gehiago egin daiteke, aldizkotasunak aztertuz. Denboraldi konkretu baten adibidea hartzen badugu, eta bertan bataiatu diren herritarren kopuru osoa hilabetez-hilabete ikusiz gero, sorkuntza eta jaiotzen maiztasuna ikusiko dugu. Adibidez, 1726tik 1750era bitarteko garaia hartuko dugu eredu gisa. VIII. Grafikoan agertzen denez, jaiotza gehienak, batetik, martxokoak eta maiatzekoak dira; eta bestetik, irailekoak. Jaiotza gutxien, berriz, ekainean eta uztailean. Jaiotza asko martxoan izatearen arrazoia (alegia, ekainean sortuak) biologikoa da, maiatza eta ekaina baitira gizakien sorkuntzarako hilabete aproposenak. Baina, datu orokorretatik kanpo, behar bada, salbuespenak aipatzea interesgarria litzateke: irailean jaiotza ugari (abenduan sortuak) eta ekaina eta uztailean gutxi (iraila eta urrian sortuak). Datu guzti horiek nekazaritzarekin zerikusi zuzena dute, abuztua eta iraila baitira hilabete gogorrenak, nekazariak lan gehien egiten dutena; eta, abenduan, berriz, lan gutxiago izaten dute. Hortaz, sorkuntza-jaiokuntza eta bataioak, eta, nekazaritza erabat lotuta daude⁷⁴⁴. Gauza bera gertatzen zen Gipuzkoako zenbait herritan, batez ere barnealdean daudenetan: Azkoitia, Arrasate eta Legazpia...⁷⁴⁵.

⁷⁴⁴ URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...*, *Op. cit.* 23-24. orr.

⁷⁴⁵ Herri horiek URRUTIKOETXEA aztertu ditu (ÍDEM: *Movilidad poblacional; En una mesa y compañía.* *Op. cit.*).

VIII. GRAFIKOA: JAIOTZAK HILABETEAREN ARABER
(XVIII-XIX. MENDEEN ARTEAN)

Guzti horiez gain, kontuan izan behar dira ezkontzaz kanpo sortutako haurrak. Gipuzkoa osoan haur horien tasa oso altua izan zen garai hartan, eta Orion, kostaldeko beste herri askotan bezala, eta, batez ere, garai larrienetan, ezkontzaz kanpo jaiotako haurrak asko ziren⁷⁴⁶. Beraz, nahiz eta nekazaritza ekonomiaren oinarri izan, itsasoarekiko lotura ez zen erabat eten.

5.2. HERIOTZA-TASA

Garai honetako ezaugarri nagusia hazkunde demografikoa izan zen, eta ikusi dugun bezala, oriotarrek momentu latzak ere pasa zituzten: krisialdiak, gaixotasunak, gosetea... Eta, guzti horiek eragina izan zuten heriotza-tasan.

Elizako liburuetan agertzen diren hildako gehienak, garai hartan, nekazariak ziren, jarduera nagusia nekazaritza baitzen. 1733. urteko heriotza-tasa %16,2koa izan zen, Gipuzkoako indizeen parekoa⁷⁴⁷.

Garrantzitsua da, baita ere, herritik kanpo hildakoez arduratzea, are gehiago, oriotar asko arrantzan eta ontzigintzan aritu zirela jakinda. XVII. mendeko datuak gutxi badira ere, Galizian, Asturiasen edo Ternuan bale arrantzan hildako batzuk izan zirela aipatzen da, eta baita, Ameriketako hildako gutxi batzuk ere⁷⁴⁸.

XVIII. mendean herritik kanpo hildakoen datuak gehiago dira; hain zuzen, mende hasieran, bale arrantzan ez ziren Ternuan hilko oriotarrak, garai hartan, Norvegian, Galizian eta Asturiasen aritzen baitziren. 1730. hamarkada inguruan, berriz, gehienak Venezuela eta Ferrolen hil ziren⁷⁴⁹.


⁷⁴⁶ ÍDEM: *Análisis...* Op. cit. 24. orr.

⁷⁴⁷ Gipuzkoako heriotza-tasa, garai horretan, %14,1a zen (PIQUERO ZARAUZ, S.: *Demografía guipuzcoana*. Op. cit. 138. orr.). Ikusi XXIII. Taula.

⁷⁴⁸ Domingo de Aldape kapitaina Zacatecas-en hil zen (GPAH, Francisco de Hoa, 3/1.849 f. 99 [1639-XII-12]).

⁷⁴⁹ XVIII. mendean 40. hamarkadan herritik kanpo 48 gizon hil ziren; 32 Venezuelako eta 5 Ingalaterrako espetxe batean (URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis de los factores...* Op. cit. 25. orr.).

IX. GRAFIKOA: HILKORTASUNA HILABETEAREN ARABER,
(XVIII. MENDEAN)



Adibidez, ikus dezagun 1737-1755 urte bitartean Caracasen hildakoen zerrenda:

URTEA	LEKUA	HILDAKOEN IZENA
1737	San Joseph Nabioan	Jose Antonio de Agote
1738	Santa Ana Nabioan	Joseph de Ribas
1738	Puerto Cabellon	Matias de Sagarna
1740	El Coro Nabioan	Joseph de Irastorza
1741	Caracasen	Martin de Zabaleta
1746	Kanpoan	Joseph Antonio de Elgorriaga,
		Joseph de Lasa
		Lorenzo de Fiellaga,
		Ignacio de Intxausti.
1754-55	San Fernandon	Joseph Joaquin de Urtesabel
		Francisco Ignacio de Segura
		Juan Felipe de Izarrola
		Jose Antonio de Elgorriaga

Hildako guzti horiek, Caracaseko Erret Konpainia Gipuzkoarra eta Erret ontziolen garapenarekin dute zerikusia, 1730. hamarkaditik aurrera oriotar asko aritu baitzen bertan lanean.

5.3. EMIGRAZIOA: JOERA BATEN FINKAPENA

Oriotik kanpo hildakoak eta emigrazioa lotzea komenigarria da. VARGAS PONZEK dioenez, XVIII. mendean zehar oriotar asko Ameriketara joan zen bizitzera⁷⁵⁰. Venezuelan eta Erret ontzioletan aritzen ziren hildakoen zerrenda ikusi berri dugu. Beraz, horrek esan nahi du, oriotar askok, marinelek eta zurginek gehien bat, kanpora joan behar izan zutela lanera⁷⁵¹. Beraz, eta aztertu ditugun datu gehienek nekazaritzaren garrantzia nabarmentzen bazuten ere, oriotarrek itsasoarekin zuten lotura ez zen eten. Kontuak kontu, emigrazioak jaioterriko ekonomia ahulezian du oinarria. Esate baterako, 1755. urtean Caracasen 18 oriotar ziren; hiru urtera, 20 ziren⁷⁵². Bestalde, emigrazio mugimendua, Caracaseko Konpainiak eta Erret ontziolak bultzatutakoa, XVIII. mende erdira arte luzatu zen.

Hortaz, heriotza eta emigrazio mugimenduen arabera, bi joera zituzten oriotarrek: batetik, nekazal inguruko lanak ziren nagusi; baina, bestetik, itsasoari lotutako jarduerak aurrera egin zuten.

5.4. EZKONTZAK: NEKAZARITZAKO JARDUEREN ETA ITSAS JARDUEREN ERAGINA

Horretaz gain, demografiaren azterketa osatzeko, ezkontzari dagozkion gora-beherak ikusiko ditugu. Ezkontza tasa 1632. urtean %3,2koa zen; 1733an, berriz, %7,12koa. Orokorrean, kopuruak Gipuzkoako joera nagusira inguratzen dira⁷⁵³. Ezkontzen aldizkotasunaren gorabeherak urtean zehar desorekatuak izan ziren. Esate baterako, XVI-XVII. mendeetako mugimenduak erabat lotuta zeuden merkataritzaren eta arrantzaren jarduerekin (ezkontzak eta egutegia). XVII. mendean, berriz, aldaketa hasi zen. IV. Grafikoaren arabera (1651-1680), Orioko joera eta Gipuzkoakoa parekoak dira, hau da, Garizuman eta Gabonetan ezkontza gutxiago izan zen eta, Garizuma aurreko hilabeteetan, berriz, gehiago⁷⁵⁴. Orion, udako hilabeteetan, ezkontza gehiago izaten zen, nahiz eta, nekazaritzari dagokionean hilabete lanpetuenak izan. Baina, oriotarrek itsasoarekiko lotura eten ez zuten, ez da harritzekoa, uda partean ezkontza gehiago izatea, lehen esan bezala. Beraz, oriotarrek herritik kanpora lan egiteak, posible egiten du uda partean ezkontza ugari izatea gurean⁷⁵⁵.

Beraz, XVII. mendeko 30. hamarkadaz geroztik, demografiaren ikuspuntutik, oriotarrak nekazaritza inguruko lanetan aritu ziren. Dena dela, salbuespenak ere izan ziren. Hain zuzen, itsasoarekin lotutako jardueretan aritzeko aukera zutenean, oriotarrek berehala ekiten zioten; esaterako, bale arrantzari, Caracaseko Konpainiari, Erret ontziolei... Hala ere, Orioko joera demografikoa Azkoitia, Arrasate eta Legazpiaren antzekoa izan zen, hau da, nekazal eredia izan zuen; eta, kostaldeko herriekin parekotasun gutxi izan zuen. Beraz, garai honetan, demografia eta ekonomia aztertuz eta lotuz, bi portaera ezberdinen adibideak ditugu; batetik, ekonomiaren oinarria nekazaritza izan zen; eta bestetik, itsasoaren inguruko ihaduerak eusteko ahalegina egin zuten oriotarrek.

6. KRISIALDIA: EMIGRAZIOAREN NAGUSITASUNA (1760-1815)

⁷⁵⁰ Hain zuzen ere, "es esta emigración ultramar tan notable que en Orio, pueblecito de 93 casas y 510 habitantes, pasan de 100 los naturales suyos que hoy día viven en América". Kontuan hartu behar dugu, Ponzek emandako datuak XVIII. mendeari dagozkiola (EHAA, Vargas Ponzeren Bilduma. *Estados de Vitalidad y Mortalidad*. 15. orr.).

⁷⁵¹ Ikusi Ontzigitzaren garaiko IV. Taula; horren arabera, Santander, Guarnizo eta Ferrolera joan ziren oriotarrak.

⁷⁵² GARATE OJANGUREN, M.: *La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Op. cit. 204. orr.

⁷⁵³ 1632. urtean, Gipuzkoako ezkontza-tasa %7 izan zen; 1733an, %7,7 (PIQUERO ZARAUZ, S.: *Demografía*. Op. cit. 179. orr.). Ikusi XXIII. Taula.


⁷⁵⁴ Gipuzkoako herri gehienetan, XVII. mende erditik aurrera, Garizuman ezkontzak gutxi izaten zen. Bestalde, urtarrila-otsaila artean izaten ziren ezkontza gehienak, lan gutxiago baitzuten (PIQUERO ZARAUZ, S.: *Demografía guipuzcoana*. Op. cit. 196. orr.).

⁷⁵⁵ URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis...* Op. cit. 27. orr.

Demografiari dagokionez, aldi honetako ezaugarri nagusia krisialdia da. XVIII. mendearen erdialdetik aurrera, Orioko biztanleria nabarmen gutxitu zen; hain zuen, 1800ean izan zuen Oriok biztanle gutxien. Emigrazio mugimenduak garai honetan indar handia izan zuen. Jarraian, zehaztapenak emango ditugu.

Emigrazio mugimenduak hobeto ulertzeko, arrazoi ekonomikoak eta egoera politikoa kontuan izan behar dugu. Arrazoi ekonomikoei dagokionean, gogoratu, XVII. mendeko krisialdia gainditzeko oso garrantzitsua izan zela nekazaritzaren garapena; baina, XVIII. mendearen erdialdetik aurrera, urte oparoak izan ondoren, nekazaritzak ezin izan zuen aurrera egin⁷⁵⁶. Horregatik, demografiak ere etenaldi bat izan zuen, eta Orioko biztanleriak ez zuen gora egin. Adibidez, 1785ean Orioko hirigunean 124 etxebizitza zeuden; 1800ean, berriz, 93 besterik ez. Baserriak, aldiz, 21etik 23ra gehitu ziren⁷⁵⁷. Etxebizitzak gutxitu egin ziren, oriotar asko joan baitzen herritik kanpora; baserriak, berriz, nahiz eta gutxi batzuk izan, gehitu egin ziren, nekazaritzaren garapenaren ondorioz. Baina, nekazaritzaren garapena eten zenean, emigrazioa hasi zen. Kanpoan lan egiteko aukera ugari zegoelako, eta nekazaritzaren jaitsieraren ondorioz, oriotar askok emigratu behar izan zuen, hain zuzen, Caracas eta Erret ontziolak zeuden tokietara.

X. GRAFIKOA: POPULAZIOAREN BILAKAER (1761-1815)



Egoera politikoa ere ez zen mesedegarria izan hazkunde demografikorako; dagokigun garai honetan bi gatazka garrantzitsu izan ziren: Konbentzio-gerra (1793-95) eta Independentzi gerra (1808-14). Gerra guztiak berez txarrak badira ere, oriotarrek bizi zuten garaiagatik, are txarragoa izan zen gurean. Guzti horren ondorioz, krisi demografikoa eman zen. Bestalde, oriotar askok Erret armadan jardun zuten. Beraz, emigrazioa eta heriotzak areagotu ziren.

Garai hau aztertu ahal izateko parroketako liburuez gain Aranda eta Floridablancaren erroldak ditugu, baita Vargas Ponzeren "Estados de Vitalidad y Mortalidad" lana ere. Aranda eta Floridablancaren erroldetan 1768an eta 1787an Oriok zuen biztanleria aipatzen da, adina, eta, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko banaketa eginez; eta

⁷⁵⁶ FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen*. Op. cit. 177-182. Guztiz adierazgarria da URRUTIKOETXEAK garai honi buruz egindako prozesuaren azalpena: "Las potencialidades sobre las que se sustentó la recuperación de la fase anterior tocan techo, han dado de sí sus mejores frutos y comienzan a ser incapaces de responder por más tiempo al reto de una población cuyas actividades económicas se ven cada vez más alejadas del ámbito mercantil y marítimo que permitiera su auge del siglo XVI. La larga reconversión agraria que vino a suplir aquellas deficiencias había llegado a su máximo" (URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis*. Op. cit. 20. orr.).

⁷⁵⁷ OUA, C-VI, D.1 (1785); HEAA, Vargas Ponzeren Bilduma (1805).

baita ezkondu-ezkongabeen zerrenda ere. Vargas Ponzeren "Estudios de Vitalidad y Mortalidad" izeneko lanak, berriz, XVIII. mendean zehar, urtez urte, jaiotze, hil eta ezkonduetakoen zerrenda azaltzen da. Horretaz gain, ezkondu eta ezkongabeko jendearen araberrako estatistika xume bat ere ematen du.

Garai honetako egoera ekonomiko-politikoak, eta, ditugun iturriak behin azalduta, demografia azterketari ekingo diogu. 1768. urtean, Oriok 692 biztanle zituen, eta 1787an 642 biztanle.

1800ean, berriz, jaitsiera areagotu egin zen, 510 zeuden Orion⁷⁵⁸.

Biztanleriaren joera honako hau izan zen: batetik, XVIII. mendearen 60. hamarkada arte gora egin zuen; bestetik, 1787. urtetik aurrera behera, eta, biztanle kopuru txikiena 1800ean izan zuen.

XXIV. TAULA. ORIOKO BIZTANLERIA (1768)

ADINA	EZKONGABEAK		EZKONDUAK		ALARGUNAK		GUZTIRA
	GIZ.	EMA.	GIZ.	EMA.	GIZ.	EMA.	
0-7 URTE	49	62	-	-	-	-	111
8-16 „	37	45	-	-	-	-	82
17-25 „	43	46	2	2	-	-	93
26-40 „	15	22	69	69	-	-	175
41-50 „	3	19	38	38	-	-	98
50...	14	57	31	31	-	-	133
GUZTIRA	161	251	140	140	-	-	692

⁷⁵⁸ Arandaren Zentsua: HEAA, T.III 9/6.160. F. 665 (1768); Floridablancaren Zentsua: HEAA, 9/6.227 (1787); "Estados de Vitalidad y Mortalidad trabaxados por el teniente de navío Don José de Vargas Ponce": HEAA, 5.886 (E.71) (1805).

XXV. TAULA. ORIOKO BIZTANLERIA (1787)

ADINA	EZKONGABEAK		EZKONDUAK		ALARGUNAK		GUZTIRA
	GIZ.	EMA.	GIZ.	EMA.	GIZ.	EMA.	
0-7 URTE	45	38	-	-	-	-	83
8-16 „	46	56	-	-	-	-	102
17-25 „	44	44	4	6	-	-	98
26-40 „	12	18	55	66	-	8	159
41-50 „	5	13	63	60	4	50	195
50...	2	1	1	1	-	-	5
GUZTIRA	154	170	123	133	4	58	642

6.1. JAIOTZA

1768an jaiotza-tasa %34koa izan zen; eta 1787an, berriz, %25ekoa. Datuok demografiaren jaitsialdia isladatzen dute, eta Probintziakoa baino baxuagoa izan zen⁷⁵⁹. Jaiotzen jaitsiera orokorraren lekukorik adierazgarriena, Vargas Ponzek esan zuena da: "infeliz Orio"⁷⁶⁰. Jaiotza-tasaren gora-beherak aztertzeko 1803tik 1823ra bitarteko urteak adibide gisa hartuko ditugu. Aldi honetako jaiotzak hilabetearen araberean grafikoan, VIII. Grafikoan, adierazten da jaiotza eta bataio gehienak maitzean eta abenduan izan zirela; eta gutxienak, berriz, ekainean. Hau da, Probintziako barnealdeko herrien antzekoa. Hala ere, sorkuntza handiena abuztuan izan zen, beraz, badirudi nekazal jarduera jaitsi egin zela eta itsasoarekin lotutako jarduerak, berriz, suspertu.

6.2. HERIOTZA

Bestalde, heriotza-tasa 1768an %17,19koa izan zen, eta 1787an %26,16koa. Grafikoan adierazten den bezala, heriotza gehienak Konbentzio-gerra eta Independentzi gerrak izandako urteetan eman ziren. Bestalde, Vargas Ponzek ematen dituen datuen arabera, XIX. mende hasierako heriotzen gorakada ontzien hondoraketan ondorioa izan daiteke, sarri gertatzen baitziren⁷⁶¹.

Horretaz gain, herritik kanpo, hain zuzen Caracas-en, jende gutxiago hiltzen zen. 1770-1790 urte bitartean Caracasen 5 oriotar besterik ez ziren hil. Konpainiaren egoitza Madrilen kokatu zenean, pixkanaka-pixkanaka, Gipuzkoako marinela etxera bueltatu ziren. Hala eta guztiz ere, "Indietan" edo Ameriketara hildakoen datuen arabera, badirudi zenbait oriotarrek emigrazioa bizimodutzat hartu zuela.

Jarraian, 1764-1805 urte bitartean, Caracas, Cadiz, Veracruz, Buenos Aires, eta Ameriketako beste lekuetan hil zirenen berri emango dugu⁷⁶²:

⁷⁵⁹ 1768. urteko Gipuzkoako tasa %33,9koa da; 1787an, ordea, %33,1. Beraz, probintzian jaitsialdia Orion baino orekatuagoa izan zen (PIQUERO ZARAUZ. *Op. cit.* 178. orr.).

⁷⁶⁰ HEAA, 9/5.886 (1805).

⁷⁶¹ "Respecto a la mortandad, resulta que mueren 13 al año, que es 1 por cada 39, y más varones, 15, que es 1/88. Lo que se debe atribuir a los frecuentes naufragios" (HEAA, Vargas Ponze Bilduma [1805]).

⁷⁶² Zerrenda egiteko kontsultatutako iturriak hauek dira: OUA, *Libro de Ayuntamiento* (1756-1766) C-221-2 (1764-VI-11); GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.913 (1765-I-4); GARATE OJANGUREN, M.: *La Real Compañía*. *Op. cit.* 207. orr. (1770. urtean hil zen Beraziertu, lanbidez zurgina; 1771ean, berriz, Iturralde, Konpainiako Kapitaina, Nuestra Señora del Rosario Nabioan hil zen; eta ontzi berean, bi urte geroago, Joseph de Maitin, beste Konpainiako Kapitaina) (OUA, Correspondencia, C-37 [1775-IX-17]; GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.933 [1785-VI-19]; GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/ 1.940 [1791-X-14]; GPAH,

URTEA	IZENA	LEKUA
1764	Isabel de Miranda	Cadizen
1765	Don Joseph de Urreizmendi	Buenos Airesen
1770	Joseph de Beraziertu	Venezuelan
1771	Francisco de Iturralde	Caracasen
1773	Joseph de Maitin	Caracasen
1775	Francisco de Miranda	Amerikan
1775	Juan Bautista de Alkorta	Amerikan
1775	Juan Antonio de Endara	Amerikan
1785	Nicolas de Lertxundi	Cadizen
1791	Ignacio de Rementaritegi	Caracasen
1796	Pedro Antonio de Egaña	Kanpoan
1796	Ignacio Facundo de Orendain	Kanpoan
1796	Francisco de Azpiroz	Kanpoan
1796	Diego de Makazaga	Kanpoan
1797	Luis de Rementeritegi	Kanpoan
1797	Ignacio Jacinto de Orendain	Kanpoan
1797	Joseph Antonio de Iribar	Kanpoan
1805	Jose de Argote	Kanpoan
1805	Ignacio de Makazaga	Kanpoan
1805	Xabier de Irigoien	Kanpoan
1805	Agustin de Arbiza	Kanpoan

Guzti horiek Ameriketara hil ziren. Hala ere, kontuan hartu behar da garai honetan Erret ontzioletan eta Erret armadan hil zirenak ere zerrenda horretan daudela⁷⁶³.

6.3. EMIGRAZIOA

XVIII. mendeko 60. hamarkadatik aurrera emigrazioaren inguruko gakoak aztertuko ditugu. Horretarako, batetik, Aranda eta Floridablancaren erroldak hartuko ditugu kontuan; eta bestetik, Vargas Ponzeren lana.

Juan Bautista de Gorostidi, 3/ 1.943 [1796-VI-21]; 3/1.944 [1797-IV-5]; 3/1.952 [1805-VI-30]). Kanpoan hildakoak Amerikan, Erret zerbitzuetan edo Erret ontzioletan lan egiten zutenak izan daitezke. Dokumentuetan ez da lekua zehazten.

⁷⁶³ 1801-1810 urte bitartean 22 lagun hil ziren Oriotik kanpo, gehienak Erret ontziola eta armadan. Datuak irakurtzerakoan Independentzia-gerra kontuan hartu behar da (URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis... Op. cit.* 26. orr.).

URRUTIKOETXEAk emigrazioari buruzko lan batean dio, aipatu erroldak eta Ponzeren lanak garbi azaltzen dutela garai honetan Gipuzkoan gizon urri edo gutxi zela⁷⁶⁴. Berak egin zituen estatistikak Orioko kasuari egokitu dizkiogu. Horrela, gizon-emakumeen arteko orekaren gorabeherak aztertu ditugu; eta baita ezkongabeen proportzioa ikusi ere.

Gizon-emakumezkoen banaketa egiteko, gizonaen tasa aztertu behar dugu, horrela, 100 emakumezkoetatik zenbat gizona zegoen jakin ahal izango dugu. Hauek dira 1768 eta 1787. urteetako datuak:

XXVI. TAULA. GIZONEZKO TASA OROKORRA

URTEA	GIZONAK	EMAKUMEAK	TASA (%)
1768	301	391	76,98
1787	281	361	77,83
1800	228	282	80,8

Beraz, batetik, 100 emakumezkoetatik, 1768an, 76,98 gizona zegoen; 1787an, berriz, 77,83 ziren. Bestalde, gizon-emakumezkoen artean desoreka zegoen; hau da, bi kasuetan 100 emakumezkoetatik ia 25 gizona gutxiago zegoen. Horiek kanpoan izango zirela argi dago.

Datuetan sakonduz, 16-50 urte bitarteko jendea hartzen badugu (normalean, kanpora ateratzen ziren gehienak adin hori baitzuten), zehaztapen gehiago lortu ahal izango dugu:

XXVII. TAULA. GIZONEZKO TASA (16-50 urte bitartekoak)

URTEA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOEN KOPURUA (%)
1768	170	196	86,73
1787	187	265	70,56

Hortaz, adinak zerikusi handia du emigratzeko joera aztertzerakoan; bestetik, 1787. urtean, emigratzeko joera handia izan zen. Hain zuzen, Irun herrian gertatu zenarekin parekotasun izugarria du⁷⁶⁵. Beraz, urte horretan gizonaen dezentzia zen herritik kanpo. Bestalde, aipatzekoa da 16 urte baino gehiago zuten emakume-gizonaen ezkongabeen arteko proportzioa. Jarraian duzuen taulan, ezkongabe zeuden 100 emakumezkoetatik, zenbat gizona zeuden ikusiko dugu:

⁷⁶⁴ URRUTIKOETXEA, J.: "Movilidad poblacional..." *Op. cit.* 591. orr.

⁷⁶⁵ Irunen gizonaen-tasa %75,6koa izan zen (URRUTIKOETXEA, J.: *Movilidad. Op. cit.* 592. orr.).

XXVIII. TAULA. EZKONGABEEN ARTEKO DESOREKA

(16 urte baino gehiago)

URTEA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKO TASA (%)
1768	75	144	52,08
1787	63	76	82,89
1800	125	141	88,6

Taula horren arabera, gizon eta emakumeen arteko desoreka nabaria da; izan ere, 1768. urtean gizonezko ezkongabe gehienak kanpoan zeuden; 1787. urtean, berriz, ezkongabe gutxiagok emigratu bazuen ere, ez zen orekarik izan.

Ezkondu ondoren emigratu zutenak, bestalde, 1787an %7,5a izan zen; hori ere normala zen, kostaldeko beste herrietan bezala⁷⁶⁶.

Aranda eta Floridablancaren errolden arabera eta emigrazioari dagokionez, kanpora joandakoak zenbat izan ziren jakiteko, gizon eta emakumezkoen arteko desoreka, eta, zenbat urterekin joan ziren kanpora aztertzea beharrezkoa da. Bestalde, ezkongabe zeuden oriotarrak gero eta gutxiago joaten ziren kanpora, baina, hala ere, emigratzeko joera ez zen eten.

Bestalde, Vargas Ponzeren ikerketak emigrazioaren joera zehazten du; horrela dio: "Es esta emigración ultramar tan notable que en Orio, pueblecito de 93 casas y de 510 almas, pasan de 100 los naturales suyos que hoy día viven en América"⁷⁶⁷. Izan ere, emigrazioa aztertzeko, oso datu baliogarria da zenbateraino gutxitu zen Orion etxe kopurua; 1785ean 124 etxe zeuden; eta, 1800ean, berriz, 93.

Iturri demografiko horiek aztertu ondoren, bestelako dokumentazioan aurkitutako datuekin, emigrazioari buruzko atalari bukaera emango diogu. Hain zuzen, Udal dokumentu eta Protokoloetan kontsultatutako arabera, hauek ziren, orokorrean, oriotarrek emigratzeko aukeratutako lekuak: Amerika, eta, Erret armada eta ontziolak.

MADOZek, 1785ean, Orioko historiari buruzko datuak biltzen ari zela, bertako marinel asko kanpoan zegoela aipatu zuen⁷⁶⁸. Horretaz gain, 1785-1791 urte bitartean Buenos Aires, Lima, Caracas, Cadiz, Puerto Rico, eta, Montesteiroko Erret ontziola eta Erret armadan zeuden gizonen zerrenda osatu dugu⁷⁶⁹. XVIII. mende bukaera geroztik, emigrazioa areagotu egin zen; jarraian, Erret armada edo Erret ontzian (Erret zerbitzua), Buenos Airesen, Cadizen edo Lima-ko Karreran, Habanan edo Caracasen izan ziren adibide batzuk ikusiko ditugu⁷⁷⁰:

⁷⁶⁶ Hain zuzen ere, kanpoan zeuden Getariako gizon ezkonduen portzentaia %10,3a; Mutrikukoa, berriz, % 5,3a; eta Pasai Donibanekoa, % 24,6a zen (URRUTIKOETXEA, J.: *En una mesa. Op. cit.* 99. orr.).

⁷⁶⁷ HEAA, "Estados de vitalidad...", 9/5.886, E. 71 (1805).

⁷⁶⁸ "Sólo hay seis marineros matriculados en la villa" (MADOZ, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madrid, 1945-1850).

⁷⁶⁹ Datuak, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historiko eta Orioko Udal Artxiboko hainbat dokumentuetan bildu ditugu, zerrenda oso luzea denez, batzuk bakarrik aipatuko ditugu: GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.913 (1765-II-5); GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.923 (1775-VIII-28); OUA, Libro de Ayuntamiento (1788-1808) C-223-2 (1789-I-1); GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.943 (1796-VI-21), etab.

⁷⁷⁰ GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.943 (1796-VI-21); 3/1.944 (1797-IV-5), (1797-VI-22); 3/1.945 (1798-VI-20); 3/1.946 (1799-IV-13); 3/1.947 (1800-VI-28); 3/1.952 (1805-VI-30); 3/1.955 (1808-VI-4).

URTEA	ERRET Z.	B.AIRES	CADIZ	LIMA	HABANA	CARACAS
1796	8	10	8	15	-	-
1797	7	9	8	16	-	-
1798	3	8	9	10	-	-
1799	3	10	9	9	-	4
1800	3	10	9	9	-	4
1805	4	10	5	5	4	4
1808	9	4	4	2	-	-

Emigrazioari dagokionean, garai honetan, nekazaritza prozesuak etenaldia izan zuen eta jende asko kanpora joan zen, bai Ameriketara bai Erret ontzioletara lan egitera. Egoera larrietan, emigrazioa areagotu egiten zen, batez ere, Erret armadak jende gehiago behar izan zuenean.

6.4. EZKONTZA

Azken aldagaiaren gora-beherei ekinez, oriotarren ezkontzeko joera nagusia, Gipuzkoakoaren parekoa izan zen. Hala ere, datu batzuk aipagarriak dira oso; esate baterako, 1768an Orioko ezkontza-tasa %8,9koa izan zen; Gipuzkoakoa, berriz, %7,9koa; 1787an, Oriokoa %6,2koa izan zen; eta Gipuzkoakoa %7,6koa⁷⁷¹. Hau da, Orion ezkontza kopurua nabarmen jaitsi zen. Horretaz gain, Ponzek ematen dituen datuen arabera, 1800ean, biztanleriaren %65a ezkongabea zen, eta ondorioz, biztanleriaren ugalketa ere ez zen oso handia izan⁷⁷².

Gai honetan sakonduz gero, esaterako, 1725-1805 urte bitarteko ezkontzak hilabetearen arabera ikusiz (IV. Grafikoa), ohartu gara ezkontza gehienak otsailean izaten zirela, eta, baita azaroa eta abenduan ere. Otsailean jende asko ezkontzen zen lehen Gipuzkoa osoan, ohitura zelako Garizuma aurretik ezkontzea; gainera, nekazaritzan lan gutxi izaten zen. Bestalde, azaroa eta abenduko ezkontzek bi irakurketa dute: batetik, azaroan ezkontzen zirenek, Eguberri aurretik, arrazoi erlijiosoak zituzten; eta bestetik, abenduan ezkontzen zirenek, erlijioaren agindu horri uko egiten zioten nolabait; edota agian, itsasoarekin zerikusia zuten, hau da, ez zen hilabete egokia arrantzarako eta ezkontzeko joera ugaritu zen; gainera, gainontzeko kostaldeko herrietan ere gauza bera gertatu zen⁷⁷³.

Hortaz, ezkontzaren joeraren arabera, Orion, nekazal prozesuaren indarra eten baldin bazen ere, eragina izan zuen oriotarren, ezkontza gehienak otsailean izan baitziren. Bestalde, itsasoarekin zerikusia zuten jarduerak gurean beti izan zirenez, oriotar batzuek beren ezkontz-egutegia egokitu behar izan zuten.

Laburbilduz, garai honetako ezaugarri nagusiak hauek dira: ugalketa eten egin zela, nekazal prozesuaren etenaldiarekin batera; gizonezko askok emigratu egin zuela, nekazaritzak gero eta aukera gutxiago eskaintzen zuelako, eta Erret armadan, Erret ontzioletan eta Ameriketara lan egiteko aukera bikaina eskaintzen zutelako.

⁷⁷¹ PIQUERO. *Op. cit.* 179.orr.


⁷⁷² HEAA, 9/5.886 (1805).

⁷⁷³ URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis. Op. cit.* 27. orr.

7. EREDU DEMOGRAFIKO BERRIA (1815-1900)

Demografiari dagokionean, azken garai honetako daturik nabarmenena eta, gainera, gure arreta gehien erakarri duena, hazkunde demografikoa izan da.

XI. GRAFIKOA: POPULAZIOAREN BILAKAER
(1816-1895)



Lehenik eta behin, Independentzi-gerraren ostean, Oriok eragozpenak gainditu ahal izan zituen eta hazkunde demografikoa aurrera egin zuen. Ekonomiari dagokionean, berriz, eta esan dugun bezala, kabotajeak, komertzioan eragina izan zuen, eta, ekonomiaren susperraldian asko lagundu zuen. Bestalde, ontzigitzak eta arrantzak ere garrantzi izugarria izan zuten hazkunde demografikoan. Beraz, egoera ekonomikoak eta politikoak onak izan ziren demografia indarberritzeko.

Hala ere, Lehenengo eta II. Karlistadekin, (1833-39) (1873-76), egoera erabat aldatu zen eta garai latzak hasi ziren; Orion ere eragina izan zuten, eta demografiaren aldagaietan ondorio txarrak ekarri.

GOROSABEL tolosarrak aipatzen du, 1850-60 hamarkadetan Oriok 1.119 biztanle zituela; 1863an, 1.127 biztanle (249 herritar); 1877an, 934 biztanle; aipatu azken urteaz geroztik, demografiak berriro gora egin zuen. Esaterako, 1889. urteko erroldan 948 biztanle azaltzen dira; 1891n, aldiz, 1.028; eta 1910. urteko azkeneko erroldan gorakada nabarmena izan zen, 1.494 biztanle baitzeuden Orion⁷⁷⁴.

⁷⁷⁴ GOROSABEL, P. de: *Diccionario...* Op. cit. 368. orr. INSAUSTI TREVIÑO: *Las parroquias*. Op. cit. 137. orr. Kontsultatu ditugun erroldetan biztanleak bi taldetan banatuta agertzen dira; alde batetik, Orioko biztanleak, une horretan zeudenak, izatezkoak edo "de hecho" deitutakoak; eta, bestalde, bertan eta kanpoan zeuden biztanleak, zuzenbidezkoak edo "de derecho". Beraz, hauxe zen Orioko banaketa aipatu urteetan:

URTEA	"DE HECHO"	"DE DERECHO"
187	934	984
1878	950	934
1889	984	-
1891	1.028	-
1910	1.449	1.494

Ikusi OUA, *Padrón de Habitantes* (1877) (1878) (1889) (1891); *Censo* (1910).

Beraz, oro har, 1900. urtera arte, Orioko demografia hasi egin zen eta horrela izan zen XX. mendean zehar⁷⁷⁵.

Biztanleriaren bilakaera orokorra ikusi ondoren, demografiari dagozkion azalpenak emango ditugu.


7.1. JAIOTZA: HAZKUNTZA

Jaiotzen grafikoan ikusten denez, Orioko historia demografikoaren mailarik altuena da. Lehenengo urratsa 1820. urtean hasi zen, eta urratsik gorena 1865ean izan zen. Hazkunde demografikorako oso mesedegarria izan zen hazkunde ekonomikoa. Hala eta guztiz ere, ibilbide luze horretan garai latzak ere izan ziren, esaterako, I eta II. Karlistadak, urte horietan jaiotza-tasa izugarri jaitsi baitzen.

7.2. HERIOTZA: GERRAK

Bestalde, heriotzen inguruko azalpenak bi ikuspuntutik aztertzea interesgarria iruditu zaigu; hau da, batetik helduena, eta bestetik, haurrena. Orokorrean, heriotza-tasa handiena, grafikoak adierazten duen bezala, bi Karlistaden garaian eman zen, eta batez ere, 1873-75 urte bitartean. Bestalde, 1826, 1848 eta 1867. urteetan, heriotz asko izan zen, baina jaiotzekin orekatua izan zen, ugalketak ere ugari izan ziren eta.

XII. GRAFIKOA: HILKORTASUNA HILABETEAREN ARABER (1824-1840)



Ikuspegi orokorra kontuan hartuta, hildako helduen eta haurren azterketari ekinez, XIX. mendearen bigarren laurdenaz geroztik, haurren heriotza-tasa izugarri jaitsi zen⁷⁷⁶. Eta, haurren hilkortasun jaitsierak, hazkunde demografikoan eragina izan zuen. Horrek esan nahi du, ekonomia eta osasun baldintzak hobekak izan zirela. Baina, joera hori 1867an eten egin zen, urte horretan haur asko hil baitzen. II. Karlistadan, batez ere 1874an, haur ugari hil zen eta heriotza-tasa asko handitu. Gune txar hori pasa ondoren, berriro haurren heriotza-tasa jaitsi egin zen.


⁷⁷⁵ XVIII. mendearen bigarren erdiaz geroztik Europa osoak joera demografikoan izugarritzko aldaketa jasan zuen. Hain zuzen, haurren heriotza-tasak behera egin zuen, eta baita jaiotzak-tasak ere. Orion "revolución demográfica" izeneko prozesua XIX. mendean, 1840. hamarkadan, nabaritu zen (URRUTIKOETXEA, J: *Demografía histórica*. 6. orr.).

⁷⁷⁶ URRUTIKOETXEAk azaltzen duenez, momentu horretako tasa %22,3 izan zen, oso baxua Mutriku eta Legazpiakoaren aldean, %32,5-35 bitartekoa baitzen (*Análisis de los factores.. Op. cit.* 21. orr.).

Bestalde, helduen hilkortasunari buruzko datuak berez adierazgarriak dira, esate baterako, Lehenengo Karlistadak Orion eragina izan bazuen ere, II. Karlistadarena handiagoa izan zen, oriotar askok parte hartu baitzuen. Oriotar ugari hil zen, hain zuzen, biztanleria % 10 jaitsi zen⁷⁷⁷.

Helduen eta haurren hilkortasunari buruzko grafikoan (XIII. grafikoa) ikusten denez, Gipuzkoakoaren oso berdintsua izan zen. Eta heriotza gehienak martxoan, apirilean eta udazkeneko hilabeteetan izan ziren⁷⁷⁸.

XIII. GRAFIKOA: HILKORTASUNA HILABETEAREN ARABER (1891-1899)




Beraz, haurren hilkortasun jaitsierak eragina izan zuen hazkunde demografikoan. Eta, baita gatazka politikoek ere, hilkortasuna handitu egin baitzen, batez ere helduena, eta ondorioz, hazkunde demografikoa jaitsi.

⁷⁷⁷ OUA, *Registro de Actas del Ilustre Ayuntamiento de Orío* (1876-1881) L-28 (1877-VIII-8). Ikusi XIV. Grafikoa.

⁷⁷⁸ PIQUERO ZARAUZ, S.: *Demografía*. Op. cit. 149, 173. orr.

XIV. GRAFIKOA: HILKORTASUNAREN BILAKAERA
(1800-1895)



Aztertzen ari garen garaiko emigrazio datu gehiegi ez dugu aurkitu. Hala eta guztiz ere, badakigu, batez ere Ameriketara joaten zirela. Hain zuzen, emigrazio toki garrantzitsuenak Habana eta Mexiko izan ziren, lan egin zitekeen hiri bakarrak baitziren⁷⁷⁹.

7.3. EMIGRAZIOA

Emigrazioa, ditugun datuen arabera, gutxitu egin zen urteak pasa ahala. 1877an biztanleriaren %10,16a kanpoan zen; 1910ean, %9a. Bestalde, 1921-1930 urte bitartean biztanleriaren %0,5etik %2ra artekoa zen kanpoan. Herri bertako jardueren garapena eta industrializazioaren lehenengo urratsak eman zirenez, oriotar askok hemen geratzea erabaki zuen. Era berean, gizon eta emakumezkoen arteko hasierako desoreka desagertu egin zen, eta gizonezkoak gutxiago zirenez, ez zuten kanpora joan beharrik izan bizimodua aurrera ateratzeko.

Ikus dezagun 100 emakumetik zenbat gizonezko zegoen:

URTEA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONEZKOEN TASA (%)
1877	502	482	104,1
1878	466	468	99,5
1889	466	482	96,6
1891	550	478	115,06
1910	766	728	105,2

⁷⁷⁹ Adibidez, 1830ean, Jose Ramon de Solaberrietak bere Kaparetasuna frogatu zuen Ameriketara joan ahal izateko (GPAH, Ramon de Illunbe, 3/1.969. f.99 [1830-V-3]); 1833an, berriz, Maria Jesus de Azkuek senarra Habanan hil zela jakin zuen (GPAH, Ramon de Illunbe, 3/1.972. F. 103 [1833-X-2]); eta azkenean, Juan Manuel de Zulaika, Pablo de Zulaika eta Mikaela de Lertxundiren semea, Mexikora burdingintzan lan egitera joan nahi izan zuenaren aipamena dugu (GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.989 f. 143 [1850-XII-3]).

Beraz, emigrazioa, aurreko aldian, XIX. mende hasiera arte, badirudi lan arrazoiengatik izan zela; XIX. mendearen bigarren erditik aurrera, aldiz, gutxitu egin zen, Orion lan egiteko aukera gehiago zegoelako.

7.4. EZKONTZA

Demografia kapituluarekin bukatzeko, ezkontzari buruzko azalpen xume batzuk eman behar ditugu. Aldagai honi dagozkion grafikoak, garaiko ezaugarri nagusiak isladatzen ditu. Orokorrean, ezkontza kopuruak gora egin zuen; batez ere, gatazka politikoak pasa ondoren. Lehen esan baitugu, 1840 eta 1877 urte bitartean jende asko hil egin zela. Beraz, ezkontzak ugartu egin ziren, aurreko aldietan baino gehiago izan ziren. Orain arte aipatu aldagaien gora-beherak azaltzerakoan, esan dugu, ekonomiak hazkuntza demografikoan eragina izan zuela, eta ezkontzei dagokionez, gauza bera gertatu zela suposatzen dugu.

Azken garai honetako ezaugarri demografikoak honela labur genitzake: batetik, jaiotzek eta ezkontzek, Orioko historia demografikoan, gaina jo zuten; bestetik, hilkortasunak gora egin zuen egoera larrietan, baina haurren heriotza-tasa dezente jaitsi zen. Eta, azkenik, gizon eta emakumezkoen arteko aldea gutxitu egin zen, eta baita emigrazio mugimenduak ere. Hori guztia kontuan hartuta, nabaria da Orion, ekonomikoki, industrializazioaren garapenak eragina izan zuela. Hitz batean esanda, XIX. mende bukaeran, industrializazioak eraginda, Orion bizimodu ezberdina hasi zen, eta horrek guztiak eragina izan zuen XX. mendeko hazkunde demografikoan.

Demografiari buruzko atalean, XIV. mendetik XX. mende hasiera arteko Orioko giza populazioaren azterketa koantitatiboa egin dugu, horren arabera, ezaugarri nagusiak hazkundera, krisialdia eta oreka izan dira. Bestalde, garai bakoitzeko bilakaera ekonomikoa joera demografikoarekin erabat lotuta dagoela ikusi dugu. Beraz, gizartearen antolaketaren inguruko atalarekin, Orioko ibilera orokorraren argibideak aurkeztu ditugula uste dugu.

VI. ATALA.

ERLIJIOA: BIZIMODU BATEN OINARRIA

I. BIZTANLERIAREN OINARRIZKO ELKARTASUNA

Orietarren lehen kokalekua San Nicolas parrokiaren ingurua izan zen. Beraz, Orion, eliza izan zen jendea elkartzeko eragilerik funtsezkoena. Historian zehar izaera erlijiosoa zabaldu eta nabarmendu egin zen. Hain zuzen, erlijio katolikoak oriotar guztien bizimodua betetzen zuen: liturgi-egutegiko ospakizunak, mezak, dotrina katolikoaren irakaskuntza, limosnak, laguntzak, opariak... XVI eta XVII. mendeaz geroztik elizetan egin ohi ziren apaingarriak, erretaulak eta eliza hobetzeko lanak, erlijiotasunaren lekukoak dira⁷⁸⁰.

Orion bizitza erlijiosoa San Nicolas de Bari Elizaren inguruan izaten zen. Dena dela, elizarekin batera San Martin eta San Juan Ermitak, Piedadia izeneko ospitala, Trinitarioen monesterioa eta Kofradiak, eliztarren barne beharrak asetzeko garrantzi handikoak izan ziren.

II. ORIOKO SAN NICOLAS DE BARI ELIZA

Orioko herria 1379an fundatu zen, San Nicolas de Bari elizaren inguruan biltzen ziren eliztarrek eskatuta. Beraz, erlijioa biztanleak elkartzeko oinarrizko ezaugarria izan zen. Hau da, erlijioak batu zituen lehendabizikoz herritarrak Orion.

1. PATROITZA ESKUBIDEA: BULDA

Orion, erlijioa eta herritarren arteko lotura oso handia izan zen. Orioko Elizaren antolakuntza, patroitza laikoa zen. Patroitza laikoak esan nahi du, elizarekin zerikusia zuten zenbait eskubide zegokiela herritarrei. Hain zuzen, Orion, bizilagunek eta herritarrek, eliztarrek izateagatik, elizako patroiak ziren, eta horrela, apaizak aurkeztu eta elizaren administrazioko karguak hautatzeko eskubidea zuten⁷⁸¹.

Patroitza eskubidea XVI. mendetik XIX. mende erdira arte luzatu zen. Historian zehar Orioko eliztarrek erretore edo bikario eta apaiz-benefiziatuak aurkeztu zituzten; eta, apaizak meza, prozesio eta bestelako liturgi ospakizunetaz arduratzen ziren. Patroitzaaren inguruan aurkitu dugun lehen aztarna 1502. urtekoa da, Alejandro VI.a Aita santuak Orioko eliztarrei eman zien Bulda hain zuzen⁷⁸². Bulda horretan Aita Santuak adierazi zuen, Orioko eliztarrek beren elizako patroiak zirela, eta horregatik, bikarioa eta apaiz-benefiziatuak aurkezteko eskubidea zutela. Hain zuzen, beste eliz benefizio bat (apaiz-benefiziatuak beteko zuena) sortzeko baimena eman zien, Orioko

⁷⁸⁰TELLECHEA IDÍRIGORAS, J.I.: "La iglesia en el País Vasco siglos XVI-XVIII", *II.Congreso Mundial Vasco*, T. III, 1988, 339-351. orr.

⁷⁸¹INSAUSTI TREVIÑO, S.: *Las parroquias de Guipúzcoa*. CAP, Donostia, 1964. 96. orr.

⁷⁸²OUA, Patroitzaaren Bulda (1502) C.III D.21. Ikusi IV. ERANSKINA.

biztanleria handitu egin zelako eta bere behar erlijiosoei aurre egiteko. Hauxe da lortu nahi izan zena: "aumentar el culto divino, mirar por la salud de las almas, servir a la iglesia y cuidar de las almas de los parroquianos". Bikarioa edo apaiz-benefiziatuarik ez zegoenean herrian, eliztarrek, patroitzak eskubidea zuten, beste apaiza aurkezten zuten aukeratua izateko.

Bikario edo apaiz-benefiziatuak aurkezterakoan, aurkezpen askatasuna zuten oriotarrek, batzuetan istiluak izaten ziren; hau da, eliztarrek bi lagun aurkezten zituzten kargu bakar baterako. Desadostasuna ematen zenean, Iruñeko Apezpiku Epaimahaiak aukeratu behar zuen bakarra⁷⁸³.

Beraz, eliztarrek, patroitzak eskubidea zuten, elizako apaizak aurkezteko eskubidea zuten⁷⁸⁴. Baina, eskubide hori XVII. mendean geroztik mugatu egin zen. Hain zuzen, XVI. mendean Patroitzak Bulda eman zenetik, Orioko eliztar guztiek zuten apaiza izendatzeko eskubidea. Denboraren joanarekin, nahiz eta eliztarrek elizako patroiz izan, aurkezteko gaitasuna mugatu egin zen; hau da, ondasunak eta etxeak zituztenak bakarrik ziren aurkezteko ahalmena zutenak. Beraz, ondasunak zituzten herritarrek bakarrik izan zuten apaiza aurkezteko eskubidea, horregatik, patroitzak eskubidea mugatu eta oligarkizatu egin zen.

Patroitzak eskubidea zutenek elizako administrari kargua izendatzeko eskubidea ere bazuten, maiordomoa, alegia. Berez, Orioko elizarako maiordomoa izendatzea Kontzejuari zegokion. Hain zuzen, ditugun datuen arabera, XVI. mende hasieratik aurrera gertatu zen. Kontzejuko karguekin batera, Elizako maiordomoa ere hautatzen zuten. Bestalde, ermita eta ospitaleko maiordomoak ere, Kontzejuak hautatzen zituen⁷⁸⁵. Orioko Kontzejuko Ordenantzetan legeztatu zen aipatu eskubidea:

*"con comunicaci3n del bicario de la yglesia parroquial d'esta dicha villa, sea elegido y nombrado por el dicho Regimiento, como patr3n que es de la dicha yglesia, el mayordomo d'ella, para que resciva y cobre el aver y rentas de la dicha yglesia, y ande en ella, como es de huso y costunbre, pidiendo limosnas para su f3brica y obras y luminaria del Santisimo Sacramento (...) e mayordomos de las ermitas"*⁷⁸⁶.

Baina, Kontzejuak Elizarekiko zuen ardura, XVIII. mendean, benetako kontrol eta menpekotasun bihurtu zen; Kontzejuko alkateak eta erregidoreak betetzen baitzuten maiordomo kargua. Horrela, Kontzejua, erakunde gisa, Eliza, Ermita eta Ospitalaren administrazioan sartu zen, eta, kargurik garrantzitsuenak bete eta jarduerak menperatu zituen⁷⁸⁷.

⁷⁸³Istilu hauetaz gain, 1510-11. urteetan hainbat oriotarrek, Juan de Etxabe apaizak bultzatuta, Patroitzaren aurka altxatu ziren. Momentu horretan Oriko ez zen bikariorik, Guruzeaga erretorea hil egin baitzen. Kontzeju eta eliztarrek Don Juan de Agirre, Don Domingo de Segurola eta Don Juan de Etxabe aurkeztu zituzten. Eta, Iruñeko Apezpiku Epaimahaiak Agirre aukeratu zuen. Hala eta guztiz ere, oriotar batzuek ez zeuden ados izendatze berriarekin eta Patroitzaren Eskubidea eztabaidan jarri zuten. Orioko Kontzejuak, Patroitzak babesteko, Etxabe eta berak bultzatutako oriotarren aurka auzia ezarri zuen Korregimentuan. Azkenean, Kontzejuak Patroitzak mantentzea lortu zuen (IEAH, Secr. Ollacarizqueta, C/75 n°11 [1510-1511]; GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.215 [1510]).

⁷⁸⁴Hasieran batean Patroitzaren eskubidea eliztar guztiei zegokien, baina laster murriztu zen eskubidea, XVII. mendean, elizaren patroia izateko jabetzak edukit behar ziren, hain zuzen, etxeak. Ikus dezagun patroitzaren eboluzioa:

"Patronos merelegos y parroquianos" (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.786 [1563-V-20]).

"Patronos merelegos" (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 [1615-I-29]).

"Patronos merelegos, dezmeros en la iglesia, usando el derecho de patronato que tienen por la bula de 1502" (GPAH, Agustín de Aranza, 3/1.878 [1700-II-12]).

"Los vecinos propietarios de las casa y caserías de su jurisdicción, como patronos merelegos de la dicha iglesia" (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.956 [1809-I-1]).

⁷⁸⁵1511-1516 urte bitartean Orioko Kontzejuko hauteskundeetan, Kontzejuko ofizialez gain, eliza, ermita eta ospitaleko administrariak izendatu ziren (GPAH, Miguel Gonzalez de Segurola, 2/1.215 [1511]; 2/1.216 [1512-1514]; 2/1.217 [1515-1516]).

⁷⁸⁶OUA, *Kontzejuko Ordenantzak*, 4. eta 10. Kapituluak (1607).

⁷⁸⁷1737an, Kontzejuko erregidorea ospitaleko diruzaina izan zen. Handik urte batera, Kontzejuaren biltzar batean ospitaleko administrazioa lehenengo erregidoreari zegokiola adierazi zen (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-222-2 [1737-IX-29]; [1738-V-11]). 1763. urtetik aurrera, Kontzejuko bigarren alkatea elizako diruzaina izan zen (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-221-2 [1763-I-1]).

Patroitza eskubidea zutenek, eliza, ermita eta ospitalaren eguneroko betebeharrak arduratzen ziren lagunak ere izendatzen zituzten; esate baterako, serorak, freilak eta ospital-zaina. Kontzejuak aurkeztutakoen artean zozketa egiten zuen, eta ondoren, lagun bana aukeratzen zuten. Ermitetako maiordomoak ere zozketa bidez aukeratzen ziren. Dena dela, guztien izendaketek, bikarioaren onspena behar zuten.

Beraz, patroitza eskubidea, denboraren poderioz, murriztu egin zen, eta ondasunak zituzten eliztarrei besterik ez zegokien. Elitismoa beste zenbait arlotan ere eman zen, esaterako, Kontzejuak, Elizaren administrazioa bere gain hartzeaz gain, kudeaketa ere bere menpe izan zuen.

2. ELIZ BATZARRAREN KIDEAK: APAIZAK

Elizako liturgi ospakizunetaz arduratzen zirenak osatzen zuten eliz batzarra, eta Orioko elizan, bikario bat eta lau apaiz-benefiziari ziren. Horretaz gain, Elizaren inguruan maiordomoa, sakristaua eta serorak aritzen ziren.

2.1. POSTUAK BETETZEKO BALDINTZAK

Eliz batzarrean parte hartzeko baldintzak hauek ziren: apaiz-gaia izatea eta bertako herritarra izatea (azken baldintza hau ez zen beti betetzen, batzuetan ez baitzegoen herrian bertan). Elizako patroiak, berriz, elizkizunetarako hamarrenak, primiziak edo hasikinak, eskaintzak eta limosnak ematen zituzten familiak eta eliztarrak ziren; hau da, erretore edo apaiz-benefiziariak aurkeztu eta hautatuko zituztenak. Eta, horiek nahiago zuten hautatutakoak senideak edo Orion jaiotakoak izatea, kanpotarrak baino. Izan ere, hizkuntza erabat garrantzitsua zen, eliztar gehienek euskera besterik ez baitzuten hitz egiten, eta apaizak bertakoak izanez gero, euskaldunak izango ziren eta berengana hurbiltzea errazagoa izango zen⁷⁸⁸.

2.2. PATROIEN AURKEZTEKO ETA HAUTATZEKO ESKUBIDEA

Bikario edo apaiz-benefiziariaren bat hiltzen zenean, kargua uzten zuenean, edota beste goi kargu baterako aukeratua zenean, posturen bat hutsik geratzen zen. Orduan, elizako patroiek, bana eta nahi zuten hautagaiaren alde, botua ematen zuen. Boto guztiak bildu ondoren, eta denak ados izanez gero, kargua izendatzen zen. Baina, desadostasuna ematen bazen, Iruñeko Apezpiku epaimahaiak, bakar bat aukeratzen zuen. Izendapena egin ondoren, bikarioaren onspena behar zuen eta benefizioaren jabetza ematen zion formula honen bidez: "en señal de la dicha posesión se le entregó un cáliz, misal y otros ornamentos"⁷⁸⁹.

2.3. BIKARIOA

Erretorea edo bikarioa, benefiziariarekin batera, elizako gidaria zen eta bertako apaiz nagusia. Orioko eliztarrek aurkeztu eta izendatzen zuten. Bere betebeharrak ziren: mezak ematea, limosna eskatzea, apaiz-benefiziariaren izendapenak onartzea... Bikarioa herrian ez zegoenean, benefiziari zaharrenak bere lekua hartzen zuen. Bestalde, bai bikarioak bai apaiz-benefiziariak, guztiek, mezak ematen zituzten eta aitor-entzuleak ziren⁷⁹⁰. Bikarioak, bestalde, Orioko biztanleren batek bere kaparetasuna aurkezten zuenean, jaiotza eta ezkontza aktak aurkezten zituen, horrela, kaparetasuna eskatzen zuenari baieztapena ematen zion⁷⁹¹. Serora eta freile aurkeztutakoei ere bere onspena eman behar zien. San Pedro eguneko sermoia bere esku zegoen. Auzi garrantzitsuren bat zenean, bera artekari eta prokuradore gisa aritzen zen, esaterako, Izaoko auzian aritu zen⁷⁹².

⁷⁸⁸GOROSABEL, P. de: *Cosas memorables. T.II. Op. cit.* 516. orr.

⁷⁸⁹OUA, Título de un beneficio de la parroquia de Orio, C-I D-4 (1647-VIII-22).

⁷⁹⁰Ikusi XIII. ERANSKINA (1755).

⁷⁹¹GAO, Kaparetasunak, 290.12 (1728) Ignacio de Sagarazuren kaparetasunaren aurkezpena.

⁷⁹²Izaoko auzia Orreagako Monasterioaren kontra izan zen.

XXIX. TAULA. ORIOKO BIKARIOAK (XV-XIX. MENDE BITARTEAN)

ALDIA	BIKARIOAK
...- 1502	NICOLAS DE GURUZEAGA
1502-1510	Hutsunea
1510-1550	JUAN DE AGIRRE
1555-1560	DOMINGO DE ARRATOLA
1560-1594	ANTONIO DE SEGUROLA
1594-1618	MARTIN DE ILLUNBE
1618-1641	JUAN LOPEZ DE REIZU
1641-1657	DOMINGO DE GAZTAÑAGA
1657-1684	NICOLAS DE ENDAIA
1684-1714	ANTONIO DE ALZEGA
1714-1721	NICOLAS DE ENDAIA
1721-1724	IGNACIO DE IRIGOIEN
1724-1745	IGNACIO DE ETXABE
1745-1758	JOSEPH ANTONIO DE ILLUNBE
1758	JOSEPH JOAQUIN DE LERTXUNDI
1758-1765	MARTIN JOSEPH DE URTESABEL
1765-1787	JOSEPH JOAQUIN DE LERTXUNDI
1787-1817	JUAN BERNARDO DE SEGURA
1817-1845	JUAN ANTONIO DE BONETA
1845-1889	JUAN ANTONIO DE MAKAZAGA

2.4. APAIZAK: ZEREGINAK ETA BIZIMODUA

XVI. mendeaz geroztik, Eliz-Batzarra bikarioak eta lau benefiziatuek osatzen zuten. Benefiziatu izena elizaren errentak banatzeko modutik dator. Elizako dirua ekonomia eta elizkizun betebeharren arabera banatzen zen. Elizaren errenten gorabeherak kontuan harturik, apaiz-benefiziatuei kopuru bat edo erdia zegokien; bikarioari, berriz, benefiziatuei baino gehiago zegokion beti. Beraz, benefiziaduna edo bikarioa izateak pizgarri ekonomikoa zuen. Horregatik, izaten ziren hainbeste istilu apaiz-benefiziatu edo bikarioa aurkeztu behar zenean. Baina, XVIII. mende bukaeran benefizio guztien errentak parekatu egin ziren, eta kargu gorenago batera heltzeko abantaila ekonomikoa desagertu egin zen⁷⁹³. Hain zuzen, 1790. urteaz geroztik, Elizaren errentak bost zatitan banatu ziren, zati bat eta erdi bikarioari zegokion, eta beste hirurak apaiz-benefiziatu bakoitzari eta, gainontzeko erdia apaiz-benefiziatu bati, kaperauari, alegia⁷⁹⁴.

Apaizen bizimodua XVII. mendean

Guzti honen inguruan sakondu asmoz, Iruñeko Elizbarrutiko Artxibo Historikora jo genuen, eta bertan, Orioko Elizaren inguruko auzi batzuren dokumentazioa aurkitu genuen. Horietako batean, XVII. mendean zenbait apaizen artean izandako istiluetaz hitz egiten da. Jose Luis Goñi Tirapu, bertako arduraduna, guztiz harrিতa agertu zen apaiz horien kontrako salaketa eta gehiegikeriak ikusita.

Jarraian, XVII. mendeko gertaera adierazgarrienak bakarrik aipatuko ditugu; bestalde, argitu nahi genuke, azalduko ditugun gertakizunak ez zirela apaiz guztiekin gertatu, eta momentu konkretuetan gertatutakoak direla azpimarratu nahi genuke.

Nahiz eta 1555ean Trentoko kontzilioak⁷⁹⁵ apaizen bizimodua arautzen saiatu, XVII. mendean, apaizen artean, arauz-kanpoko joerak izan ziren. Esate baterako, emakumeak bortxatu eta iraindu zituzten, gehiegikeriak egin, eta orokorrean legekontrako jokaera izan zuten. Hona hemen adibide batzuk:

1554an, Domingo de Agirre alkateak, Domingo de Etxaniz apaiza Batzar Nagusietan salatu zuen, honakoa leporatuz: "biolençias e fuerças hechas a mugeres casadas, biudas e bírgenes, e otros eçesos". Urte berean, alkateak Etxaniz apaiza berriro salatu zuen: "Nuevo delito contra Domingo de Agirre, alcalde de la villa de Orio, quebrándole la bara de justiçia que en sus manos traya [traía] e poniendo mano en él dándole puñaladas en su rostro". Azkenean, Batzar Nagusiak, apaiza sei urtez erbesteratzea erabaki zuen, eta 50 dukateko zigorra ezarri zion⁷⁹⁶.

1612an, Iruñeko Epaimahaiak, Juan Lopez de Reizu apaiz-benefiziatua epaitu zuen; antza denez, benefiziatua herriko kaleetan dantzan aritu zen, eta, tabernetara sartzen zen jolastera eta edatera. Apaiz-benefiziatua bere seme batekin bizi zen⁷⁹⁷.

1620an, Don Agustin de Endaia apaiz-benefiziatua, gau batean jazkera desegokia zuela, burrukan ibili zen, eta bati aitzokada batez, hiru behatz moztu zizkion, eta beste bati sastakadak eman zizkion. Iruñeko Epaimahaiak, zaurituen kalte-ordain gisa, 100 dukateko zigorra ezarri zion Endaiari. Horretaz gain, emakumeekin harreman lizunak izatea leporatu zioten, eta bere bizimodua ez zela apaiz jator batena esaten zen⁷⁹⁸.

Don Juan de Urreiziti apaiz benefiziatua (batxilerra zen, eta Inkisizio epaimahaiko mandataria izandakoa), Iruñeko fiskalak zigortu egin zuen. Urreizitik, bere etxea taberna bihurtu zuen, eta bertan, jan, edan eta jolastu besterik ez zuen egiten. Gainera,

⁷⁹³INSAUSTI TREVIÑO, S.: *Op. cit.*

⁷⁹⁴GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.979 (1790-X-7).

⁷⁹⁵TELLECHEA IDIGORAS, J.I.: "La iglesia.." *Op. cit.*

⁷⁹⁶DÍEZ DE SALAZAR, L. M.; AYERBE IRIBAR, M. R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1554-IV-7/17, Zestoa)*, (1554-XI-14/24, Segura), t. II, *Op. cit.*

⁷⁹⁷IEAH, Secr. Marichalar, C/444 n°26 (1612).

⁷⁹⁸IEAH, Secr. Ollo, C/643 N°19 (1620); C/644 n°6 (1620).

ez zituen zegozkion elizkizunak ospatzen, eta, elizara joaten zenean eliztarren ondoan esertzen zen. Bizimodu istilutsua eramán izana leporatu zioten⁷⁹⁹.

Don Martin de Gaztañaga benefiziaria, nekazarien jazkera erabiltzeagatik, egurra biltzera joateagatik eta eliza ondoan zenbait lan egiteagatik salatu zuten. Egun batean, idi mozorroa soinean zeramala ibili omen zen, itxuraz, egaztiak harrapatzeko primerako mozorroa zen⁸⁰⁰.

Beraz, apaiz batzuren jokaera desegokiek eta, orokorrean, istiluek, gizarte eta elizaren antolaketa ahula adierazten dute. Elizaren aginduak betetzea —pobrezia, garbitasuna, eta obeditze-botoak— oso zaila izaten zen Orió bezalako herri txiki batean. Denboraren poderioz, Apezpikua arduratu zen gehiegikeriak baztertzeaz eta elizak agindutako jarraibide egokiak ezartzeaz.

2.5. SAKRISTAUA EDO KAPERUA

Sakristaua elizkizunetan apaizari laguntzeaz, eliz jantziak zaintzeaz eta eliza eta sakristia garbi edukitzeaz arduratzen zen. Beraz, mezak ospatu baino lehen sakristia txukun eta prest izaten zuen, eta intsentsu ontziko argia eta olioá eramaten zituen. Bikario edo apaiz-benefiziatuari ogi sagaratuá banatzen laguntzen zion⁸⁰¹. Batzuetan organoa jotzen zuen, eta haurren eskolaz arduratzen zen⁸⁰². Azken bi lan hauengatik Kontzejuak eta Elizak soldata ordaintzen zioten urtero.

2.6. GAINONTZEKOAK: SERORAK ETA MAIORDOMOA

a) Serorak

Kanpaiak jotzen zituen, eta, eliza eta maindireak garbitzen zituen. Normalean bi serora edo gehiago izaten ziren. Serora izan nahi zuten emakumeek Kontzejura joaten ziren bere burua aurkeztera. Elizako patroiek, eta batzuetan haien izenean Kontzejuak, serorak hautatzen zituzten eta, hautagaiek, dote bat eman behar zuten elizarentzat. XVI. mendean dotea 50 dukat zen⁸⁰³. Dotea, denboraren joanean, gero eta handiagoa izan zen; XVII. mendean 60 dukat ziren, eta XVIII. mendean 80 dukat⁸⁰⁴. Serora izendatu ondoren, Kontzejuak bikarioa jakinaren gainean uzten zuen, azken finean, serorak bere ardurapean lan egingo baitzuen⁸⁰⁵. Serora izateko ez zen derrigorrezko baldintza Orión jaioa izatea, eta batzuetan beste herrietako emakumeak izendatzen ziren⁸⁰⁶. Serora asko alargunak ziren, esaterako, Magdalena de Illunbe⁸⁰⁷.

⁷⁹⁹IEAH, Secr. Treviño, C/281 n°30 (1620).

⁸⁰⁰IEAH, Secr. Olló, C/795 N°6 (1652).

⁸⁰¹1604. konstituzioak 26 eta 27. Ikusi VII. ERANSKINA.

⁸⁰²Mateo Genaro de Besga Orioko sakristaua izan zen, organoa jotzen zuen eta haurren maisua izan zen 1789-1791. urte bitartean (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-223-2 [1789-1791]).

⁸⁰³GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.817 (1599-VIII-15). Veronica de Portu izendatu zuten.

⁸⁰⁴1604. urtean serora bakoitzak dote gisa 60 dukat ematen zituen (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.826 [1604-VII-11]). Francisca Maria de Lertxundi elizako serora izendatu zuten, eta, 80 dukateko dotea eman zuen (GPAH, Antonio de Illunbe, 3/1.888 [1750-XI-30]).

⁸⁰⁵OUA, Libro de Ayuntamiento, C-222-2 (1750-XI-30).

⁸⁰⁶Maria de Arbe, Orioko elizako serora hil zenean, Aiako Magdalena de Beldarrain izendatu zuten (IEAH, Secr. Oteiza, C/1.086. n°18 [1669]).

⁸⁰⁷Magdalena de Illunbe, alarguna, elizaren zerbitzura lan egin nahi zuen serora (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-222-2 [1737-XII-29]).

XXX. TAULA. KONTZEJUAK IZENDATUTAKO SERORAK

URTEA	SERORA
1559	DOMIZUZA DE ARRANIBAR
1568	MARIA PEREZ DE ITURRIAGA
1569	VERONICA DE PORTU
1633	MARIANA DE AZPERRO
1653	CLARA DE SEGURA
1654	MARIA DE ARBE
1737	MAGDALENA DE ILLUNBE
1737	MARIA JOSEPHA DE ZELAIANDIA
1750	FRANCISCA MARIA DE LERTXUNDI

b) Maiordomoa: diruzaina

1502. urteko Buldan elizako maiordoaren betebeharra aipatzen zen: elizako kontuetaz arduratzea bikarioarekin batera. Izan ere, XVII. mendera arte, gutxienez, bi maiordomo izaten ziren elizan; bata Kontzejuak izendatutakoa, maiordomo legoa —laikoa—; esaterako, Pedro de Etxaniz⁸⁰⁸; eta bestea, Elizak izendatutakoa, "manobrero del cabildo" izena zuena. 1604. urteko Konstituzioetan, 28.enean, hautatutako kargua aipatzen zen: "Ytem por quanto tenemos de costumbre de elegir y nombrar en el dicho cabildo en cada un año un mayordomo". Hau da, Kontzejuak hautatzen zuen maiordomoa ez zen elizgizona; eta elizak izendatutakoa, berriz, batzarreko partaidea zen, apaiz-benefiziatua, alegia. 1755 eta 1790. urteko Konkordietan, berriz, ez zen aipatzen elizak maiordomoa izendatu behar zuenik. Izan ere, Kontzejuak maiordomoa izendatzeko eskubidea bereganatu zuen.

Hortaz, hasiera batean, XVII. mendera arte, Elizako diruzaina bi erakundek izendatzen zuten, elizak eta kontzejuak; XVIII. mendean, berriz, kontzejuak bakarrik izendatzen zuten, beraz, erabat bere menpe izan zuen.

Bere betebeharrak hauek ziren: benefiziaturen hamarrenak eta primizia errentak jasotzea, argizariak prest izatea, meza-diruak eta opariak biltzea; hau da, Elizari ematen zizkioten gauza eta diruen kontu garbiak eramatea eta, apaizen artean, zegokien arabera, banatzea. Maiordomo izateari utzi baino lehen kontuak aurkeztu behar zituen. Bestalde, Eliz-Batzarreko Konstituzioetan ezarritako isunak maiordomoak egikaritzen zituen⁸⁰⁹. 1755 eta 1790ean maiordomoaren betebeharrak ere zehazten ziren: meza-diruak bildu eta apaiz-benefiziatuei zegokiena eman; baina, apaizek bere lana egiten ez bazuten, meza-dirua bueltatu egiten zen⁸¹⁰. Batzuetan, apaiz-benefiziatuak ez zegoenean, berari zegokion meza-dirua eta opariak, beste apaizek eskuratzen zituzten. Kontzejuak, irtenbidea eman nahian, artekari lana egiten

⁸⁰⁸Don Juan de Agirre, elizako bikarioa, alkatearen aurrean, Don Juan Perez de Eleizondo benefiziatua "manobrero" hautatu zuen. Hori, kontzejuak izendatutako maiordomoarekin batera, elizaren administrazioaz arduratu zen (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.217 [1516-VI-29]; Pedro de Etxaniz, 'mayordomo lego de la parroquia' izan zen (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.826 [1604-VII-11]).

⁸⁰⁹1604. urteko Konstituzioak. 28 eta 35.kap.

⁸¹⁰1755. urteko Konkordia. 16. kap.; 1790. urteko Konkordia. 19. kap. Ikusi XIII. ERANSKINA.

zuen, eta beharbada, horregatik, aurrerantzean, Kontzejuak izendatu nahi izan zuen maiordomoa⁸¹¹.

3. APAIZEN DIRU-ITURRIA: HAMARRENA, PRIMIZIA ETA MEZA-DIRUAK

Bikario eta apaiz-benefiziatuen zeregina eliztarren behar erlijiosoak betetzea zen. Hain zuzen, eguneroko mezak ematea, goiz-otoitzak, meza nagusiak, hiletak, konfesioak, hildakoen oroimenez egindako mezak, Kofradiakideentzat mezak, otoi-elizkizunak, prozesioak, Ama Birjinaren egunean Salbea abestu, San Pedro eta San Nicolas egunetako mezak, "Corpus" eguneko meza...

Elizak, hori guztia egin ahal izateko, bi iturri ekonomiko zituen: zergak eta meza-diruak.

XXXI. TAULA. ELIZAKO MAIORDOMOAK: KONTZEJUAK IZENDATUTAKOAK (Laikoa), ELIZAK IZENDATUTAKOAK (Apaizak) (XVI-XIX MENDE BITARTEAN)

URTEA	IZAERA	MAIORDOMOA
1510	Laikoa	MIGUEL DE ARGIAIN
1511	Laikoa	JUAN DE GABIOLA
1512	Laikoa	CRISTOBAL DE AGANDURU
1513	Laikoa	JUAN DE ERNIALDE
1514	Laikoa	MIGUEL DE ARGIAIN
1515	Laikoa	JUAN DE URDAIRE
1516	Laikoa	CRISTOBAL DE ETXAIZ
1516	Laikoa	JUAN PEREZ DE ELEIZONDO
1520	Apaiza	JUAN DE ETXABE
1520	Laikoa	JOAN DE URDAIRE
1559	Laikoa	JUAN DE ZELAIANDIA
1562	Laikoa	DOMINGO DE HOA
1563	Laikoa	CRISTOBAL DE ITURRIAGA
1564	Laikoa	DOMINGO DE HOA
1569	Laikoa	DOMINGO DE ARRATOLA
1570	Laikoa	MIGUEL DE URREIZMENDI

⁸¹¹Don Juan Lopez de Reizu, apaiz benefiziatua bikario izendatu zuten. Bere postuaren opagaiak beste apaiz-benefiziatuek eskuratu zituzten. Hortaz, Orioko Kontzejuko Erregimentuak postu horri zegozkion betebeharrei aurre egin ahal izateko, apaiz-benefiziatuek postu horretatik lortutako kopuruak bueltatu behar izan zituzten (IEAH, Secr. Treviño, C/273 N°5 [1618]).

1590	Laikoa	LAZARO DE SEGURA
1599	Laikoa	JUAN DE URDAIRE
1604	Laikoa	PEDRO DE ETXANIZ
1605	Laikoa	JOANES DE URDAIRE
1607	Laikoa	BARTOLOME DE ARBE
1609	Laikoa	JOANES DE AIALDE
1611	Laikoa	PAULO DE YEROBI
1615	Laikoa	FELIPE DE SEGURA
1616	Apaiza	MANUEL DE ENDAIA
1645	Laikoa	SANTIAGO DE LARRUME
1650	Laikoa	JUAN BELTRAN DE MIRANDA
1781	Laikoa	JOSEPH JOAQUIN DE GAZTAÑAGA
1838	Apaiza	LORENZO ANTONIO DE AZKUE
1840	Laikoa	JOSE ANTONIO DE OLAIZOLA

3.1. ZERGAK: HAMARRENA ETA PRIMIZIA

Elizak hamarrenak eta primiziak edo hasikinak izeneko zergak jasotzen zituen. Hamarrena lurra lantzearen irabazietatik Elizari ematen zitzaiona zen, hain zuzen, 1/10a; hasikina, berriz, 1/40a zen⁸¹². Nekazari guztiek, elizarrak zirenez, zergak ordaindu behar zituzten.

Hamarrena apaizen artean banatzen zen; bikarioari guztiaren zati bat eta erdi zegokion; apaiz-benefiziatu bakoitzari zati bat; eta erdi apaiz-benefiziatuari, erdia.

Primizia edo hasikina, —lehen fruitua— berriz, elizkizunetan erabiltzen zen, baita elizaren hobetze lanetan, konponketetan, eta baita altzariak eta apaingarriak erosteko ere.

Hamarrenen banaketa, 1847-1851 urte bitartean, batz bestea, hauxe izan zen: bikarioari 281 dukat; hiru benefiziatuei 187 dukatna; benefiziatu erdiari edo kaperauari 94 dukat; primizia, 234 dukat.

1862an, berriz, hamarrenen banaketa honela izan zen: bikarioari 371 dukat; benefiziatuei: 247 dukatna; benefiziatu erdiari: 123; primizia 340⁸¹³.

⁸¹²BILBAO, L. M.; PINEDO, E.: "La evolución del producto agrícola bruto en Vascongadas". *Op. cit.* 12. orr.

⁸¹³INSAUSTI TREVINO, S.: *Op. cit.* 78-79.orr.

XXXII. TAULA. HAMARRAREN ZATIKETA (XIX. mendean)

	1847-1851	1862
BIKARIOA	281 dukat	371
APAIZ-BENEFIZIATUA	187	247
APAIZ-BENEFIZIATUA	187	247
APAIZ-BENEFIZIATUA	187	247
KAPERUA	94	123

Orion, primizia inguruko datu asko lortu ditugu. Errenta bidez biltzen zen Pilliku Enparantzan. Kontzejuak eta bikarioak elizari zegozkion primizia fruituak enkante publikoan jartzen zituzten. Oriotarrek beren eskaintzak egin ondoren, hoberena hautatzen zen. Eta pertsona hori primizia zergaren maizterra izango zen. Eliztarren artean jasotakoa elizako maiordomoari eman behar zion. Dakigunez, primizia eskubidea 1510. urtetik 1865. urtera arte izan zen⁸¹⁴. Primizia zergaren maizterrak baldintza hauek bete behar zituen:

- Primizia urtero bildu behar zuen, epea San Juan eguna izaten zen.
- Ordainketa epeak hauek izan ziren: XVIII. mendera arte, lehenengoa Ihauterietan ("Carnes Tolendas"), eta bigarrena, San Juan egunean. XIX. mendean, berriz, hiru epe ziren: enkantearen egunean, Eguberritan eta San Juan egunean⁸¹⁵.
- Enkantean parte hartzen zutenek edo primizia zergaren maizterrek, beti bermatzaile bat aurkeztu behar zuten, maizterrak ordaintzen ez bazuen erantzunkizuna bermatzaileak beregain har zezan.
- Zoritzarreko ezbeharren bat gertatuz gero, esate baterako, uzta guztia galduz gero, maizterrak ez zuen ordaindu beharrik⁸¹⁶.

3.2. MEZA-DIRUAK

Aipatu zergez gain, apaizek bazituzten bestelako diru sarrerak; esaterako, eliztarrek egindako opariak, meza-diruak, kaperautza (elizkizunak egitearen truke aurretiaz erabakitako ondasunak jasotzeko pribilegio irregularra), testamentuetan utzitako ondasunak, limosnak, etab.

⁸¹⁴BILBAOK eta PINEDOK diotenez, zerga hau 1837-45. urte bitartean desagertu zen. Lortutako datuen arabera, Orion, 1862. urte arte behintzat iraun zuen.

⁸¹⁵Don Antonio Bentura de Olidenez, enkantean 92 dukat eskeini zituen. Ihauteri egunerako zati bat ordainduko ziola maiordomoari esan zuen eta gainontzekoa ekainaren 24an (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-221-1 [1748-VII-21]). Francisco de Aizpuruk, primiziaren truke 232 dukat eskaini zituen, eta, bermatzailea Ignacio de Lertxundi izan zen. Elizako maiordomoari ordaindu behar zion egun horretan, Eguberritan eta San Juan egunean (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.955 [1808-VII-4]).

⁸¹⁶Adibidez, 1713. urtean ekaitza haundi baten ondorioz, uzta gehienak galdu egin ziren. Primiziaren maizterrak esan zuen ezinezkoa zela uzta biltzea. Elizak, berari zegokion kopurua, barkatu egin zion (IEAH, Secr. Echalecu, C/1.413 n°7 [1714]).

- Orioko patroiek, hau da, etxeak zituztenek, argizariak, ogia eta bestelako opariak eskaini behar zizkioten Elizari, "ochavo" izena zuen. Dena dela, beti betetzen ez zenez, 1755 eta 1790. urteko Konkordietan, Kontzejuak, Elizak eta San Pedro Kofradiak erabaki zuten betebeharreko agindua zela⁸¹⁷.

- Bestalde, meza-diruak mota askotakoak izaten ziren, besteak beste, hildakoen oroimenez egindako mezak, Kofradiarentzat egindako meza abestuak, hiletak eta kaperautza mezak⁸¹⁸.

- Horretaz gain, San Pedro Kofradiako arrantzaleek irabazien %1a elizari eman behar zioten.

- Bestalde, Elizak ondasunak ere bazituen, esaterako, Lizargarate etxaldea⁸¹⁹.

XXXIII. TAULA. PRIMIZIA ERRENTAK

(XVI-XIX mende bitartean)

URTEA	KOPURUA	URTEA	KOPURUA
1510	10 dukat	1790	120 dukat
1514	12 dukat	1791	146 dukat
1554	26 dukat	1792	158 dukat
1557	30 dukat	1793	203 dukat
1563	35 dukat	1796	180 dukat
1567	38 dukat	1797	260 dukat
1590	27 dukat	1805	232 dukat
1605	40 dukat	1808	232 dukat
1612	32 dukat	1809	281 dukat
1635	44 dukat	1817	242 dukat
1695	132 dukat	1825	246 dukat
1713	144 dukat	1830	206 dukat
1720	158 dukat	1831	161 dukat
1724	133 dukat	1832	240 dukat
1744	79 dukat	1833	201 dukat

⁸¹⁷1755. urteko Konkordia. 21. kap.1790. urteko Konkordia. 21. kap. Ikusi XIII. Eranskina.

⁸¹⁸Ikusi 1755 eta 1790. urteko kapituluak.

⁸¹⁹Doña Rosa Maria de Urtesabelek Lizargarate etxaldea eman zion Elizari meza-oroimen baten truke (GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.913 [1765-II-27]).

1745	140 dukat	1834	180 dukat
1746	83 dukat	1835	190 dukat
1748	92 dukat	1837	260 dukat
1749	106 dukat	1838	222 dukat
1752	104 dukat	1839	260 dukat
1764	150 dukat	1840	248 dukat
1765	150 dukat	1850	226 dukat
1770	166 dukat	1855	264 dukat
1780	120 dukat	1860	320 dukat
1785	163 dukat	1862	340 dukat
1789	206 dukat	1865	400 dukat

Eliz-Batzarreko bikarioak eta benefiziatuek zituzten errentak, hamarrandegi izeneko biltegian batzen ziren. Bildutako guztia bost zati egiten zen (primizia ere bai); bikarioari zati eta erdia zegokion; apaiz-benefiziatuei zati bana; sakristau, kaperau edo erdi benefiziatuari, zati erdia.

XVIII. mendean, nekazaritzaren sasoi onenean, Elizak diru asko jaso zuela pentsa dezakegu, nekazaritzak indar izugarria izan baitzuen Orion.

4. KONTZEJUAREKIKO HARREMANAK

4.1. ELIZ-FORUA: ELIZAREN ASKATASUNA

Elizak botere zibilarekin zituen harremanetan, zenbait askatasun zituen. Jarraian, Kontzejuarekiko harremana aztertuz, eskubide hauetaz arduratuko gara, eta era berean apaizek zituzten betebeharrak ikusiko ditugu.

Apaizek Foru berezia zuten, horregatik, elizako epaimahaiak bakarrik salatu eta epaitu zezaketen. Esaterako, apaizak gerra zerbitzuetatik aske zeuden, eta zituzten soldaduak ostatuan hartu beharrik ez zuten; horretaz gain, ez zituzten udal edo probintzi zergak ordaintzen⁸²⁰.

⁸²⁰GOROSABEL. *Cosas memorables*. t. II, *Op. cit.* 522. orr.

Baina, askatasun guzti horren ondorioz istiluak sortu ziren, hala nola, 1653an, Probintzia eliz batzarraren kontra jarri zen, probintzi mailako zergak, eliz-foruan babesturik, ordaintzen ez zituelako⁸²¹.

Orioko Kontzejuarekin ere arazoak izan zituen Eliz-Batzarrak. Orioko apaizek ez zituzten udal zergak ordaintzen, pasaiakoa adibidez. Baina, istilurik handiena XVIII. mendean izan zen: oriotarrek ez zuten sagardorik eta Kontzejuak Elizari eskatu zion apaizen sagardoa herrian saltzeko; apaizek ezetz esan zuten, baina, azkenean, nahiz eta eliz-foruaren kontrakoa izan, Kontzejuak agindu zuen apaizek sagardoa herrian saltzeko eta, gainera, Kontzejuak erabakitako prezioan, hau da, Eliz-Foruaren kontrako neurria izan zen⁸²². Horrelakoak ez ziren askotan gertatu, normalean eliz forua errespetatu egiten zen⁸²³.

Denboraren joanean, pribilegio ekonomikoak gutxitu egin ziren. Hain zuzen, 1771. urtean, Donostiako Batzar Nagusiek aginduta, apaizek urtero, ardoari zegokion "refracción" izeneko zerga ordaindu behar izan zuten⁸²⁴.

Beraz, Elizak gero eta askatasun gutxiago zuen, eta elizaren galera, Kontzejuaren mesedetan izan zen. Kontzejuak elizak zituen zenbait zeregin bereganatzeaz gain, esaterako, maiordomoa izendatzea, zenbait pribilegio baztertzea lortu zuen.

4.2. ELIZAREN BETEBEHARRAK: IRAKASKUNTZA ETA AGINDU ZIBILEN IRAKURKETA

Bestalde, Kontzejuarekin izandako harremanen ondorioetako bat irakaskuntza izan zen. Garai hartan ikasketak egiten zituzten bakarrak, eskribaua eta bestelako batzuek gain, apaizak ziren. Hain zuzen, XVII. mendetik XVIII. mendera arte, haurren hezkuntzaren arduraduna apaiz-benefiziatu bat izan zen. Kontzejuak urtero soldata ematen zion⁸²⁵.

Irakaskuntzaz gain, apaizek, betidanik, Kontzeju, Probintzia eta Erregeen aginduak elizan irakurtzen zituzten. Herritar gehienek ez zuten gaztelania ulertzen, eta norbaitek azaldu behar izaten ziren beren hizkuntzan, euskaraz, gobernariak agindutakoa⁸²⁶. Eizkizunetan jende ugari biltzen zenez, aginduak zabaltzeko lekuri proposenak izan ziren elizak⁸²⁷.

Orion, XVII. mendera arte, apaizek irakurri zituzten elizan gobernarien aginduak⁸²⁸. Baina, 1604ean, Iruñeko Apezpikuak Oriora bidali zuen ikertzaileak, bikarioari debekatu egin zion elizan justizia arruntaren erabakiak irakurtzea⁸²⁹; Orioko Eliz-Batzarraren 1604. urteko Konstituzioetan ez baitzen aipatzen gobernarien aginduak elizan zabaltzeko behar zirenik. Beraz, uste dugu, 1604. urtetik aurrera ez zela elizan agindurik irakurri. Hala ere, XVII. mende erdian, berriro hasi ziren elizan aginduak zabaltzen; hain zuzen, 1653an Kontzejuak apaizari eskatu zion sermoi aulkitik herritar guztiei jakin araztea, Erret armadarako gizonak behar zirela, eta, dakigunez, bikarioak baietz esan zuen⁸³⁰.

⁸²¹GAO, Sec.4, Neg. 2, leg. 7 (1653).

⁸²²OUA, Libro de Despachos y Testimonios, C-219 (1710-1711).

⁸²³Kontzejuak sagardoaren zozketa egitea agindu zuen eta bertan ez ziren sartu apaizen kupelak (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-222-2 [1736-VII-8]).

⁸²⁴GOROSABEL. *Op. cit.* T. II. 524. orr. Orion, apaizek zerga hau ordaintzen zuten, 1792. urteaz geroztik, behintzat (GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.941 [1792-XII-13]).

⁸²⁵Orioko Kontzejuak herrian eskolarik ez zegoela adierazi zuen, "andaban perdidos por la dicha falta de escuela y no aver quien les enseñase". Beraz, Bartolome de Agote benefiziatuari proposatu zion haurrei idazten, zenbatzen eta elizaren dotrina erakustea. Baietz esan zuen, eta Kontzejuak, urtero 200 erreale ordainduko zizkiola esan zion (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.826 [1605-V-9]). XVII. mendean zehar benefiziatuak eskola emateaz arduratu ziren. XVIII. mende hasieratik, berriz, eskribauak edo beste batzuk hartu zuten apaizen zeregina edo ardura.

⁸²⁶GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.928 (1780-IX-9).

⁸²⁷Ohitura hori Gipuzkoa osoan zabaldu zen (GOROSABEL: *Op. cit.* t. I, 515. orr.).

⁸²⁸Adibidez, 1580. urtean Nicolas de Endaia portu zaindaria izendatu zuela Korregidoreak irakurri zuen apaizak elizan (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 3/1-824 [1580-I-22]).

⁸²⁹GAO, Sec.4, Neg.1, Leg.10 (1604). Ikusi ere GOROSABEL: *Op. cit.* t. I, 516. orr.

⁸³⁰OUA, C.III. D.16 (1653-III-1).

Istiluak baretu zirela bazirudien ere, XVIII. mendean berriro hasi ziren. Iruñeko Apezpikuak Gipuzkoako bikarioek alkate eta korregidoreen aginduak zabaldu behar zituztela erabaki zuen arren, Orioko bikarioak, Don Antonio de Alzegak, ez zuen agindua onartu, are gehiago, irakurketengatik soldata jaso nahi izan zuen. Apaiz batzuren ustetan, pregoilarien lana zen, eta beraz, ez zen apaizen zeregina. Baina, horretarako ofizialik ez zegoenez, apaizen bitartez bete nahi izan zen hutsunea.

Antza denez, XVIII. mendean, salbuespenak salbuespen, apaizek gobernarien berriak zabaltzen jarraitu zuten⁸³¹. 1755ean Orioko Kontzejuak, Eliz-batzarrak eta San Pedro Kofradiak Konkordia bat sinatu zuten, eta bertan erabaki zen, Kontzejuak, Probintziak edo Erregeak emandako aginduak, herri guztiarentzat interesgarriak baziren meza-nagusian zabalduko zirela. Baina, aginduak herritar guztientzat ulergarriak zirenean, Elizak ez zuen erabaki hori bete beharko⁸³².

Elizak, bere zereginak mugatu nahi zituen eta, horregatik, elizan esandakoek garrantzi eta eragin handia zutela jakinda, Kontzejuarekiko harremanetan nagusitasuna izateko baliatu ziren.

4.3. ELIZA ETA KONTZEJUAREN ARTEKO AUZIAK

Elizak bestelako auziak ere izan zuen Kontzejuarekin, hain zuzen, prozesio eta meza-ospakizunen ordutegien gorabeheragatik.

Prozesioaren arazoa, Corpus egunean, prozesioak nondik atera behar zuen erabakitzean hasi zen. Kontzeju eta Erregimentukideak, Gurutzea eta zutoihalak zeramatzatela, elizako ate nagusitik atera ohi ziren. Baina, egun batean, bikarioa eta apaizak beste ate txiki batetik atera ziren, ipar atetik. Beraz, herriko agintariak eta apaizak ate desberdinetatik atera ziren eta jendea, zer egin ez zekiela geratu zen, egoera nahasia eta arraroa sortuz. Hurrengo igandean, bikarioak Kontzejuari eta Erregimentuari hitz irainkorrak esan zizkien, prozesioa berak agindutako lekutik aterako zela esanez; bere hitzetan, "ego sum dominus", zelako. Hau da, bikarioak bere elizaren jaun eta jabe zela argudiatu zuen, eta berari bakarrik zegokiola elizaren inguruko festak eta ospakizunak antolatzea. Bikarioak gaineratu zuen, Kontzejuak zeharkatzen zuen pasabidea oso estua eta desegokia zela. Antza denez, bertan arrantzaleek beren sareak eta tresnak uzten zituzten eta, behar bada, ez zen oso egokia prozesioa bertatik pasatzeko. Kontzejuaren ustetan, berriz, pasabide hori, Orioko arbasoek eraikitakoa, guztiz egokia zen. Kontuak kontu, Kontzejuak agindu zuen, arrantzaleek ez zituztela beren tresnak bertan utziko eta, horrela, prozesioa beti bezala, handik pasako zela; modu horretan bukatu zen istilua⁸³³.

Bestalde, meza-ordutegiei dagokionez, antza denez, Kontzejua, batzuetan, igandeetan edo jai-egunetan gobernuaren inguruko gaiak aztertzeke biltzen zen. Eta, egun horietan, ezin zuten meza-nagusian parte hartu. Azkenean, Eliz-Batzarrak erabaki zuen, Kontzejuko ofizialei ordu erdi bat itzarotea⁸³⁴.

Gertaera horiek guztiak, Kontzejua eta Elizaren arteko tira-biren islada dira; hau da, Elizak bere jurisdikzioa mugatu eta finkatu nahi zuen; Kontzejuak, berriz, berea zabaldu eta ezarri.

⁸³¹Salbuespenetako bat, 1709. urteko aipamen hau litzateke. Don Antonio de Alzega bikarioak ez zuen agindu bat elizan zabaldu nahi izan; eta, Kontzejuak, abokatu batekin kontsultatu zuen (OJA, *Libro de Despachos y Testimonios*, C-219 [1709-VII-28]). Baina, 1712. urtean, Probintziako Batzar Nagusiek meza, hileta eta ezkontzari buruz emandako agindua jakinarazi zuten apaizek (OJA, *Libro de Despachos y Testimonios*, C-219 [1712-VII-31]).

⁸³²1755. urteko 13. Konstituzioa (Ikusi XIII. ERANSKINA). Izan ere, 1790ean erabakia mantendu egin zen. kap. 18.

⁸³³IEAH, Secr. Olo, C/862 n°17 (1667).

⁸³⁴1755. urteko 10 kap.(Ikusi XIII. ERANSKINA).

5. ELIZ-BATZARRAREN ARAUTEGIA

5.1. 1502. URTEKO BULDA

Orioko Eliz-Batzarrak, Kontzejuak eta San Pedro Kofradiak egin zuen bezala, bere burua antolatu eta gobernatzeko arau batzuk ezarri zituen. 1502. urteko Patroitzaren Buldan, XIX. mende arte iraun zuenak, benefiziadunen eraketa (apaiz-benefiziatu batek beteko zuen postua, alegia) patroiei zegokiela aipatzen da⁸³⁵.

5.2. 1604. URTEKO KONSTITUZIOAK

1604. urteko Konstituzioetan honako gaiak arautu ziren: Eliz-Batzarra osatuko zuten kide kopurua, ospatu beharreko mezak, Kofradiakideentzako egindako mezak, urte guztiko mezak, hildakoen oroimenez egindakoak, prozesioak, eguneroko mezak, maiordomoaren betebeharrak, mezak ospatzeko modua eta ordutegia, sakristauaren zereginak, apaizek huts eginez gero zegokien zigorrak, eta abar⁸³⁶. Aipatu arautegia Iruñeko Ikuslari Nagusiak baieztatu zuen.

5.3. 1755. URTEKO KONKORDIA

Bestalde, 1755ean, Kontzejuak, Elizak eta San Pedro Kofradiak, kapituluetan banatuta, Konkordia bat sinatu zuten. Konkordia, 1604. urteko Konstituzioen gehigarria izan zen. Kontzeju eta Elizaren arteko 1790. urteko Konkordian ere, besteak beste, zenbat apaiz-benefiziatu izan behar zituen, meza ospakizunak, ofrendak eta eskaintzak, erabaki ziren⁸³⁷.

III. ERLIJOAREN INGURUKO BESTE ERAKUNDEAK

1. ERMITAK: SAN MARTIN ETA SAN JUAN

Orion, San Nicolas Elizak babesturik, bi ermita daude, San Martin eta San Juan.

SAN MARTIN ermita, antza denez, ermitarik zaharrena da. San Martin eta San Juanen ospatzen ziren elizkizunetaz apaiz-benefiziatu bat arduratzen zen. Jai-egun batzuetan, esaterako, San Sebastian, San Migel, Litanía, San Martin, Santa Ana eta San Juan egunetan, parrokiar guztiak, prozesioan, bertara joan ohi ziren⁸³⁸. Aipatu apaizak elizkizunetan bildutako limosnei esker bizi ziren.

Bi serora eta maiordomo bat arduratzen ziren ermitataz, eta, parrokiarrek zuten patroitzak eskubidea zela eta, Kontzejuak egiten zuen zozketa bidez hautatzen zituen. Bi serorek dote bana eman behar zuten, gero, ermitak izan zitzazkeen gastuetan erabiltzeko⁸³⁹. Serorek ermita garbitu eta apaindu behar zuten; hau da, elizako serorak zituen eginbehar berdinak zituzten. Bestalde, Kontzejuak serorei baratza bat ematen zien bizimodua atera ahal izateko⁸⁴⁰.

⁸³⁵1502.eko BULDA (IV. ERANSKINA).

⁸³⁶Gai guzti hauek 1604. urteko Orioko Eliz-batzarraren Konstituzioetan zehazten dira. Ikusi VII. ERANSKINA.

⁸³⁷XIII. ERANSKINA eta GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.979 (1790)

⁸³⁸1604. urteko 29 Konstituzioa.

⁸³⁹Adibidez, Maria de Lasak, San Martin de Garmendia ermitako serorak, bere dotearen zati bat serorak bizi ziren etxea konpontzeko erabili zuen (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-222-2 [1735-X-9]).

⁸⁴⁰GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.933 (1785-IV-10).

**XXXIV. TAULA. KONTZEJUAK IZENDATUTAKO SAN MARTIN
ERMITAKO SERORAK (XVII-XVIII. MENDEETAN)**

URTEA	SERORA
1629	ANA DE AZPERRO/MARIA DE ARBOLA
1630	MARIA DE ZUBIETXEA/CATALINA DE HOA
1631	FRANCISCA DE IRIGOIEN
1718	MARIA SAN JOAN
1729	MARIA ARANBURU
1730	MARIA DE LASA
1735	MANUELA DE AIALDE
1786	MICAELA DE ELGORRISTA
1798	MARIA MIGUEL DE ELGORRISTA

Maiordomoak ere Kontzejuak hautatzen zituen. San Martin ermitaren kasuan, behintzat, 1511. urteaz geroztik. Baina, XVIII. mendean, zozketa bidez aukeratu ohi ziren maiordomoak⁸⁴¹. Bere betebeharra limosnak biltzea eta diru kontuak zaintzea zen.

Ermita horietara, batez ere San Juan ermitara, herritik urrun zeudenez, baserritarrak joaten ziren.

2. OSPITALA

Piedadia izeneko ospitala herrian bertan zegoen, eta XVI. mendetik XVIII. mendera arte iraun zuen. Piedadia izena, bertan Piedadiaren Andra Mariren oroimenez kapera txiki bat zegoelako zuen⁸⁴². Ospitala pobreei laguntzeko eraiki zen eta herritarrek laguntzen zuten⁸⁴³.

Ermitak bezala, ospitala ere elizaren babesean jaio zen eta Kontzejua zen patroia nagusia.

Piedadia ospitala limosna, dote eta bestelako laguntzei esker bizi izan zen. Batzuetan, Kontzejuak baratzaren bat eskaintzen zuen, serorak eta ospitaleko administrariak bertatik bizi ahal izateko⁸⁴⁴.

⁸⁴¹OUA, Libro de Despachos y Testimonios, C-219 (1706-X-18).

⁸⁴²"Doña Isabel de Miranda, natural de Orio, murió en Cádiz. En su testamento deja un rosario de oro que será entregado a vos, los patronos de la villa, para Nuestra Señora de la Piedad que se halla en el hospital de esta dicha villa" (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-221-2 [1764-VI-11]).

⁸⁴³TELLECHEA IDÍGORAS, J. I.: *Op. cit.*

⁸⁴⁴Orioko Kontzejuak ospitalari gari lurra eman zion (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-222-2 [1730-VII-30]).

Ospitaleko diruzaina maiordomoa zen, eta, 1511. urteaz geroztik Kontzejuak hautatu zuen. XVIII. mendean, berriz, elizako maiordomoarekin gertatu zen bezala, Kontzejuko ofizial batek bete zuen maiordomoaren lana, hain zuzen, erregidoreak⁸⁴⁵.

Bestalde, ospitala garbi zaintzeaz ere serorak edo ospital-zainak arduratzen ziren. Hauen izendaketa, dotea, eta abar, eliza eta ermiten antzekoa zen.

Hortaz, Ermitak eta Piedadia, Elizak bultzatzen zuen erlijiotasunaren lagungarriak ziren.

XXXV. TAULA. KONTZEJUAK IZENDATUTAKO SAN JUAN ERMITA ETA OSPITALEKO MAIORDOMOAK (XVI. mendea)

URTEA	SAN JUAN ERMITA	OSPITALA
1511	Juango de Aganduru	Martin de Forseta
1512	Juan de Agirre	Matxin de Aia
1513	Juan de Urdaire	Juan de Aganduru
1514	Ambrosio de Zelaiandia	Juan de Etxaniz
1515	Cosme de Agirre	Miguel de Iturri
1516	Juan de Gabiola	-

XXXVI. TAULA. KONTZEJUAK IZENDATUTAKO OSPITAL-ARDURADUNAK (XVI-XVIII. MENDE BITARTEAN)

URTEA	ARDURADUNA
1550	JUANES DE AULESTIA ETA EMAZTEA
1563	SAISTIZA DE URDAIRE
1709	MARIA FRANCISCA EIZAGIRRE
1753	JOSEPH DE MURGIA
1754	JUAN BAUTISTA DE LARRUME
1761	GREGORIO DE AZPIAZU

⁸⁴⁵Kontzejuko hauteskondeetan, Bartolome de Madariagak, erregidoreak, herriko ospitaleko maiordomoa izango zela adierazi zen (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-222-2 [1737-IX-29]).

3. TRINITARIOEN MONASTERIOA (1591-1597)

XVI. mendean, urte batzuetan, Orion Trinitarioen Monasterioa egon zen. Gipuzkoako Probintzia eta Orioko alkatea (urte horretan Francisco de Elorriaga kapitain eta arrantzalea zen alkate), Trinitarioen Monasterioa fundatzeko akordiora ailegatu ziren. Horrela, alkateak eta Gipuzkoako probintziak eskatuta, 1591. urtean, Cristobal de Gaonak, Kantabriako Trinitarioen fraileak, monasterioa eraiki zuen. Elorriagak bere etxea eta lur batzuk eskaini zizkion bertan monasterioa eraikitzeko. Baina, Orioko Kontzejua ez zegoen ados eta desadostasuna garbi adierazi zuen:

"Esta villa es de mui poca substancia y vecindad (...) y así hau tenido y tienen una iglesia pobre hecha a manera de casa, y de la limosna que poco a poco han podido juntar no pueden acabar de hacer una capilla; que los veinte años pasados por no tener sino veinte ducados de premicias un año con otro, como es así la realidad de verdad, y quatro o cinco clérigos que hay viven de su patrimonio con mucho trabajo (...) y si se diese lugar a que el dicho monesterio se fundase adonde hay tanto trabajo y miseria, considere V.S. cómo podrían vivir los religiosos en esta tierra, y la casa y huerta que el dicho Francisco de Lorriaga [sic] señala son junto a la iglesia una casa pequeña en medio, y es lugar mui apretado y estrecho para fundar monesterio y no tiene sitio para edificar yglesia y casa para vivir los religiosos"⁸⁴⁶.

Beraz, hasiera batean Kontzejua monasterioa eraikitzen kontra zegoen, bere ustetan, Elizarentzat kaltegarria izango zelako. Gainera, kontuan hartu behar dugu, Kontzejua (elizaren patroia) bildur izango zela limosnak, ofrendak eta normalean eskaintzen ziren meza-diruak, monasterioarekin zatitu eta gutxitu egingo zirela.

Hala ere, Elorriagak bere etxe eta lurrak monasterioari eman zizkion, hain zuzen, Elizondo etxea eta inguruko lurrak, eta, Anbilodi eta Zalmaristiko lurrak⁸⁴⁷.

Urtebetera, Orion, Trinitarioen Monasterioa fundatzeko Kapitulazioak, bikarioak eta benefiziatuek eta fraile trinitarioek honakoa sinatu zuten⁸⁴⁸:

- Gipuzkoako Probintzia, eta bere izenean Korregidorea, Monasterioko patroia izango zen.
- Fraile kopurua mugatua izango zen, eta ezin zuten elizaren ospakizunetan parte hartu.
- Monasterioak bildu edo herritarrek eskeinitako ogia, argizari eta haragi laurdena elizari emango zion.
- Monasterioak zituen lur-ondasunak ezin izango ziren areagotu.

Bestalde, 1593an, Zumaiak Orioko Trinitarioen monasterioari bertara joateko eskaintza egin zion; hau da, Oriotik Zumaiara joateko eskaintza⁸⁴⁹.

Gipuzkoa monasterioko patroia izateak istiluak sortu zituen, beharbada, Probintziak eskuratu zitzaizkion limosnak. Bestalde, monasterioa Orion kokatzean, arriskua ez zen hainbesterako, ez baitzen limosna askorik jasoko. Horrela esan zuen Elgoibargo prokuradoreak: "y con haver mucha diversidad entre las villas de esta Provincia para

⁸⁴⁶HEAA, Vargas Ponzeren Bilduma, Vol.24, 9/4.197 (1591-XI-20).

⁸⁴⁷Kontzejuak, bere izenean, herritar batzuei Probintzia, Korregidore eta fraile trinitarioekin Kapitulazioak egiteko boterea eman zien (OUA, C.IV. D.2 [1591-XI-22]).

⁸⁴⁸Izan ere, bertan aipatzen da, Trinitarioen monasterioa katibuen askatasunerako oso garrantzitsua izango zela (OUA, C.IV D.7 [1592-IV-15]). Ikusi GOROSABEL: *Op. cit.* t. II, 424. orr.

⁸⁴⁹HEAA, Vargas Ponzeren bilduma, 9/4.197. vol. 24 (1593).

que ella no se hiciese dueña y patrona del negocio, todavía el dicho monesterio se fundó en la villa de Orio".

Azkenean, 1597an Orioko Trinitarioen ministrariak herritik alde egin zuen, eta agirietan aurkitu dugunaren arabera, inor agurtu gabe: "no sabemos la causa ni la razón (...) tenía poco sustento y no podía cobrar los censos que Francisco de Elorriaga, difunto, fundador de dicho monasterio, les avía dado"⁸⁵⁰. Beraz, Trinitarioen monasterioak ezin izan zuen Orion iraun, herri txikia zelako, eta, oriotarrek limosnak, eskariak eta ofrendak eliza eta ermitei eskaintzen zizkietelako.

4. ERROSARIOAREN ANDRA MARIREN KOFRADIA

XVII. mendean Gipuzkoako zenbait herritan Errosarioaren Kofradiak sortu ziren elizaren babesean.

Kofradiari buruz oso gutxi dakigu. Kontzejuak, patroï gisa, bertako abadea izendatzen zuen; abadea, elizako apaiz-benefiziatu bat izaten zen.

Ermita eta ospitalean bezala, Errosarioaren Kofradiaren funtsezko diru iturriak limosnak izan ziren⁸⁵¹.

Kofradian ere maiordoma izan zen limosna administraria. XVIII. mendean maiordomoa Kontzejuko ofizial bat izan zen, hain zuen, alkatea⁸⁵².

Aurkitutako datuen arabera, hauek izan ziren Errosarioaren Kofradiako abade eta maiordomo batzuk:

Urtea	Maiordomo	Abadea
1709	Sebastian de Segura	-
1730	Francisco de Maitin	Don Mateo Ignacio de Urtesabel
1745	Francisco de Agote (alk)	-
1747	-	Nicolas de Etxebeste.

1755. urtean, Kontzejuak, Elizak eta San Pedro Kofradiak sinatu zuten Konkordiaren arabera, Errosarioaren kofradiak meza batzuk abestuko zituen⁸⁵³.

Beraz, XVIII. mendean sortu zen Kofradiaren oinarrizko helburua erlijiosoa zen, hain zuzen, zenbait elizkoiaren elkartasunaren ondorioz sortu zen. Garai hartan, XVIII. mendean, beste zenbait kofradia ere sortu ziren, esaterako, Jesusen Kofradia, maiordomoa Francisco de Etxeberria izan zen; San Martin de Loinaz-en Kofradia, seguruenik San Martin ermitaren babesean sortua, maiordomoa Joseph de Eizagirre izan zen; eta azkenik, Gatibuen Askatasunerako Kofradia —Cofradía de Redención de Cautivos— izenekoa, maiordomoa Gabriel de Irigoien izan zen⁸⁵⁴. Bestalde, ez dugu ahaztu behar arrantzaleen San Pedro Kofradiak ere erlijioarekin zerikusi handia izan zuela.

⁸⁵⁰HEAA, Vargas, 9/4.197 vol 24 (1594) (1597).

⁸⁵¹1745ean, Kofradiako maiordomoak Kontzejuari eskatu zion sagarrak limosna gisa ematea (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-222-2 [1745-VIII-29]). 1763an, kofradiak limosna gisa sagardoa eman zuen (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-221-2 [1763-I-9]). Bestalde, 1788an Kontzejuak esan zuen, hilabetero, lehen igandean, Errosarioaren Kofradiarentzako limosna eskatzen ohi zela (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-223-2 [1788-IV-6]).

⁸⁵²Hala ere, zenbaitetan, Kontzejuak bestelako pertsonak ere izendatzen zituen. Esaterako, 1709. urtean, Kontzejuak Sebastian de Segura hautatu zuen maiordomo (OUA, Libro de despachos y testimonios, C-219). Francisco de Agote alkatea Kofradiako maiordomoa izan zen 1745ean (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-222-2 [1745-VIII-29]).

⁸⁵³1755. 15. kap.

⁸⁵⁴OUA, Libro de despachos y testimonios, (1703-21) C-219 (1711).

5. GATIBUEN ASKATASUNERAKO KOFRADIA

Elkartearen helburua eta sorreraren arrazoia, honakoa izan zen: "rescate de los fieles cristianos que están en tierra de moros"⁸⁵⁵. Oriotarrek, limosnak emanaz, zenbait bulda ordaintzen zituzten, eta gatibuen —askatasunik gabe besteren mende dagoena — salbazioa lortzen zuten.

Aipatu ohiturak, Orion behintzat, 1559. urtetik XIX. mendera arte iraun zuen. Bulda bakoitzeko zerbait ordaintzen zuten, 1559an, adibidez, 2 erreal⁸⁵⁶.

Gatibuen askatasunerako bulda gehiago lortzeko, Orion Trinitarioen Monasterioa fundatu zen, baina, ikusi dugun bezala, limosnak ez ziren trinitarioak bertan bizitzeko adinakoak izan.

XVIII. mendean, batzuetan, alkateak banatzen eta jasotzen zituen, beste batzuetan, bere ordezkariak edo eskribauak⁸⁵⁷.

Beraz, gatibuen askatasunerako buldak XVI. mendean geroztik biltzen zirenez, ez da arraroa horren inguruan Kofradia bat sortzea.

Eliz-batzarrak, kontzejuaren eraginetik kanpo, bere zereginak mugatu eta sakontzea lortu arren, XVIII. mendetik aurrera, Eliza Kontzejuaren menpe egon zen.

Bukatzeko, erlijioari eta deboziozko jardunei benetan atxiki izugarria zioten oriotarrek, eta, eliza, ermitak, ospitalea eta Kofradiaren sorrera dira horren adierazle.

⁸⁵⁵DIEZ-AYERBE. Juntas. t. IX. (1584-XI-14-24) 119. orr.

⁸⁵⁶"Bula de Santa Catalina del Monte Sinaí de Jerusalem" izeneko buldaren truke, 231 oriotarrek bina erreal ordaindu zuten (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.789 [1563-XII-7]).

⁸⁵⁷1763an, Kontzejuak, Francisco de Sagarzazu alkatea izendatu zuen bulda biltzaile OUA, Libro de Ayuntamiento, C-221-2 [1763-I-1]). 1781 eta 1783an, berriz, eskribaua izan zen. 1785ean, Jose Antonio de Lertxundi, orduko alkatearen ordezkaria, bulda biltzailea izan zen (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-223-1 [1781-I-1]; [1783-I-1]; [1785-I-1]). 1789an, Xabier Antonio de Lertxundi izan zen. Eta azkenik, XIX. mendean kontzejuko maiordomoari eman zitzaion lan horren ardura (OUA, Libro de Ayuntamiento, C-223-2 [1791-V-15]; [1801-XI-29]).

VII. ATALA.

ORIOKO HIRIGINTZARI BURUZKO EZAUGARRIAK

Hirigintza izena eman diogun gaian honako puntuak aztertuko ditugu: herria handitzearen ezaugarri nagusiak; Orioko eraikin adierazgarrienak, erlijiosoak eta zibilak aintzat hartuta; portua; eta azkenik, zenbait kale eta biden trazadura eta norabidea, horietan etxeak, jauregiak, ermitak, eliza, baserriak, erria eta portua mugarriztat hartuta.

I. HIRIGINTZA HAZKUNDEA

Orio sortu zenean, Juan I.ak eliztarrei baimena eman zien San Nicolas de Bari elizaren inguruan herria kokatzeko eta harresi batez inguratzeko:

*"Tengo por bien e es mi merced e mando que vos los dichos parroquianos que podades facer e fagades población de villa cercada en el dicho lugar de Orio, delante de la iglesia de San Nicolas"*⁸⁵⁸.

Sariako muinoa, hau da, alde zaharra edo Goiko kalea, klimari dagokionean, Orioko gunerik onena da.

Goiko kaleak duen tipologia herri harresidun batena da; hain zuzen, hasierako herriak bi kale zituen, "Y" tankerako forma irudikatzen zuten eta elizaren inguruan, kale bakar batean batzen ziren. Kale horien luzera, Erdi Aroan, 250 metrokoa zen⁸⁵⁹. Beraz, Orioko oinplanoa hiruki formakoa da. Forma hori duten beste herrietan kantoi zuzenak azaldu ohi dira; Orion, berriz, kantoiak aldizkakoak dira. ARÍZAGA BOLOMBURUren esanetan, modu horretako kantoiak herria ipar-haizetatik babesteko izaten da⁸⁶⁰. Bestalde, iparraldean, etxeen atzealdeko hormek harresia osatuz elkartzen dira, horrela, benetako harresi bihurtuz. Hau da, oso leiho gutxi dituzte (saeterak edo itsu-leihoak besterik ez) eta harria oso sendoa da, harlanduzkoa. Orioko hegoaldean ez zegoen harresirik, erria zegoelako eta babesik onena zelako. Ekialdetik ere ez zen babesik, San Martin ermitatik hasita erromesen bidea pasatzen zen; baina, badirudi, ekialdean babes ate bat egon zela. Gaur egun Claessens etxea dagoen lekuan ere, badirudi beste bat zegoela, "Torrea" etxeak, mendebaldeko bidea babestuz. Mendebaldean, berriz, elizatik errioraino hiru aldapa zeuden, hirurak moilara heltzen zirenak. Horiek, garraio, arrantza eta ontzigintzaren garapenerako garrantzi handikoak izan ziren⁸⁶¹.

Orio herria, hasiera batean elizaren inguruan hazi zen, eta moilan eta Igeldoko bidean zehar zabaltzen hasi zen. Harresi tankerako kale horietan, karkara batzuk besterik ez zeuden, kale nagusietarako pasabide zirenak. Etxeek neurri berdintsuak dituzte, eta elkarren artean lotzeko hormak daude, suak mozteko balio zutenak. Hori litzateke

⁸⁵⁸OUA, *Hiri-gutuna (1379-VII-12)*.

⁸⁵⁹Izan ere, Orioko hirigunearen zabalera 1,4 Ha.koa zen, bertan 70 orube zeuden (ARÍZAGA BOLOMBURU, B.: *Urbanística medieval. Op. cit.* 180-181. orr.).

⁸⁶⁰IDEM: *El nacimiento de las villas guipuzcoanas. Op. cit.* 46. orr.

⁸⁶¹OUA, *Hirigintza (1988)*.

Orioko hirigunearen aurreneko antolaketa, Kale Nagusia eta Goiko Kalea, Eliza eta San Martin ermita.

Herria hazteko hurrengo pausoa moila ingurua eta San Nicolas Kalea izan ziren. XVII. mendeaz geroztik, moila aurreko eraikuntzak eginak zeuden eta Goiko Kaleak garrantzia galdu zuen. Garai horretan, barrualdeko kaleen egitura honelakoa zen: bi puntutan ixten ziren bideak; alde batetik, Zakilaneko aldapa, Salatxo, Kolon-Txiki eta Xixarioneko aldapatetik; eta, bestetik, San Nicolas kaletik eliza ingururainoko bidea. Goiko-kaletik eta Urdaire kaletik ere elizaraino heltzen zen aldapa. Bestetik, Goiko Kalean beste bide batzuk elkartzen ziren, esaterako, Igeldorainoko bidea, moilara iristeko aldapa, Oa Kalea eta elizarako aldapa.



Zakilaneko aldapatik (Photomuseum Artxiboa).

Kale guzti horietan jendea eta gurdiak bakarrik ibiltzen ziren. XVIII. mendean, beste kale bat egin behar izan zen, ordeka eta zabalagoa, gaur egungo Areizaga Kalea. Bertan, portura jaisten diren kale guztiak bukatzen ziren, bat eginez. Alde batetik, bideak Erriberan elkartzen ziren, eta bestetik, Donostiako kostaldeko bidearekin lotzen ziren.

Orioko hirigintzari dagokion antolaketa zahar orokorra ikusi ondoren, jarraian, alde zaharrea dauden zenbait eraikin aztertuko ditugu. Horrela, hirigunearen ezaugarri funtsezkoenetan erreparatuz.

II. ORIOKO ERAIKINAK ETA KALEAK

1. SAN NICOLAS DE BARI ELIZA

1.1. ERAIKUNTZA LANAK

San Nicolas de Bari eliza Orioko eraikuntzarik zaharrenetakoa da, Hiri-gutunean agertzen denaren arabera, elizaren inguruan bizi ziren eliztarrek eskatu zioten Erregeari bertan herri bat antolatzea.

Dakigunaren arabera, jatorrizko eraikina XIII. mendekoa da, baina, gaur duen itxura XVII. mendekoa da.

Zehazki, 1569. urtean, eliza zaharra zabaltzeko asmotan, Orioko Kontzejuak elizaren ondoan zegoen etxe bat erosi zuen. Kontzejuak eliza berritzeko zituen arazoak hauek izan ziren:

*"En esta dicha villa ay más de mill personas, vecinos, moradores e parroquianos d'esta dicha villa, y ay una sola yglesia y muy pequeña y antigua, más fecha como una casa y no como una iglesia, y hen ella no pueden caber la meytad de la gente todos juntos"*⁸⁶².

Beraz, XVI. mendera arte Orion zegoen eliza oso txikia zen eta itxura aldetik, ez zuen inolako ezaugarri berezirik. Baina, hazkunde demografikoak eta baliabide ekonomikoei esker (bale arrantza, ontzigintza eta merkataritza, besteak beste) posible izan zen berritze lanak egitea.

Kontzejuak etxea erosi ondoren, elizan kruzeroa edo gurutzadura, kaperak eta sakristia egin nahi izan zituen. Lanak XVI. mende bukaeran hasi ziren, eta horretarako behar ziren harearriak Orioko harrobietatik atera zituzten eta, Domingo de Azperro, Santiago de Etxebeste, Domingo de Urreiziti, Joanes de Lertxundi eta Anton de Ostolazak eman zituzten harriak. Eraikuntza berrian Asteasuko Martin de Lizarraga eta Nicolas de Garagarza maisuek parte hartu zuten⁸⁶³.

Kaperak, kruzeroa eta sakristia eraikitzeko lan handienak XVII. mende hasieran bukatu ziren, eta 50. hamarkadan erabat bukatu ziren⁸⁶⁴.

XVIII. eta XIX. mendeetan ere, hobekuntzak egin ziren, esate baterako, 1857an teilatua konpondu zen⁸⁶⁵.

1.2. ELIZAREN EZAUGARRIAK: TRAZADURA

XVII. mende hasieran berreraiki zen San Nicolas de Bari elizaren ezaugarriak hauek dira: gurutze latinoko oinplanoa du. Elizak 33,23 metroko luzera, 18 metroko zabalera eta 16,6ko altuera du. Nabe bakarrekoa da, elizako absidea plano da, kanoi gangak eta bi hormek, aurrez-arre, arku eskarzakoak ditu. Arku horiek kasetoiak dituzte ganga borobiletan, eta absidea, erdi-kupula batek estaltzen du. Tronpek oinplanoko

⁸⁶²1569-IX-4an, Kontzejuak Usurbilgo Urdayagarrei erosi zien etxea eliza egin ahal izateko (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.795).

⁸⁶³1590. urtean Santiago de Etxebeste, Domingo de Azperro eta Domingo de Urreiziti oriotarrek Orioko harrobietatik ateratako 3.000 anega harearri Kontzejuari eman zizkioten, "que sean de buen metal y a contento y examen de maese Martin de Lizarraga, cantero que hace la fábrica de la yglesia d'esta villa". Hilabete batzuk geroago, Lizarraga Juanes de Lertxundi eta Anton de Ostolaza oriotarrek ere esan zuten harriak emango zituztela (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.811 [1590-I-3]); [1590-VI-6]. Bestalde, Orioko Arrantzaleen Kofradiak ere elizako eraikuntza lanen ordainketan parte hartu zuen, hain zuzen ere, 667 errealdin ordaindu zion Nicolas de Garagarzari (PUA, Sec. B; Neg. 2; Leg. 1. expte. 2, fols. 129-139. [1599]).

⁸⁶⁴1599. urteko dokumentu batean gurutzadura egiten ari zela aipatzen da, "en la parte del crucero nuevo de la iglesia que agora se está asiendo en la parte del evangelio" (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.817 [1599-XI-30]). Bestalde, 1609an, Kontzejuak Gabriel de Hoari, Felipe III. aren Idazkari Nagusia izandakoari, "La Madalena y San Miguel" izeneko kaperaren ondoan hilobiratzeko baimena eman zion (OUA, C.III, D.5 [1609-XII]). 1650. urtean, Miguel de Esnaola tolosarra arduratu zen hargintza lanaz; elizako maiordomoak 2.480 dukat ordaindu zizkion. Azkeneko ordainketa 1665ean egin zen. Ikusi: GPAH, Domingo de Gainza, 3/1.851 (1650-IX-8); Francisco de Gaztañaga. 3/1.863 (1665-IX-14).

⁸⁶⁵1857an Jose Antonio de Segura bikarioak eta Juan Antonio de Mutiozabal apaizak, Iruñeko Apezpikuari teilatua konpontzeko baimena eskatu zioten, 18.590 errealdin gastatuko zirela esanez (OUA, C-100-6 [1857]).

karratuko esfera laurdeneko kurba bihurtzen dute. Tronpak oso ondo nabarmentzen dira bi kontxen itxurarekin landuta daudelako.

Arku eskarzano batek korua jasotzen du elizaren atzealdean. Korura igotzeko eskailerak Antonio de Abaliak egin zituen XVII. mende erdialdean⁸⁶⁶. Koruan, bestalde, organo bat dago, XVIII. mendearen bukaeran egina, eta, XIX. mendean berritua⁸⁶⁷.

Hormak zuzen-zuzenak dira eta ez dute ia leihorik, dauden bakarrak hegoalderantz ematen dute. Hormetan pilastra sendoak ere agertzen dira goiko gangei hobeto eusteko. Eta goialdean, triglifo eta dekoratu gabeko metopa du, sinplea da, baina, era berean oso ederra.

XVII. mendean, elizako sakristian Kontzejuko artxiboko dokumentuak gordetzen ziren⁸⁶⁸.

Kanpoaldean, hormek kontrafuerteak edo horma-bularrak dituzte, harrizko eraikina eusteko. Elizak hiru sarrera ditu, hirurak alboetatik eta bi atari. Atariak elkarrekin lotuta daude, elizaren atzealdean dagoen pasabide baten bidez. Azpimarratzekoa da mendebaldeko fatxada, bere oinigitura harearrian finkatuta baitago⁸⁶⁹.

Elizak kanpandorra ere badu. Eta, XVIII. mendeko 20. hamarkadan, Andres de Quintana maeseak bi kanpai berritu zituen⁸⁷⁰. Izan ere, 1858an, elizan beste dorre bat eraikitzen ahalegindu ziren, kanpandorra izango zena⁸⁷¹.

Beraz, ezaugarriak ikusita, eliza Barroko arte-estilokoa dela esan dezakegu; handia eta neurri zabalak dituelako, eta baita, Barrokoan dauden elementu klasikoak ere dituelako, hain zuzen, triglifoak eta metopak, doriko estilotik jasoak; kasetoiak, berriz, erromatar eraikuntzetatik jasoak dira. Elementu klasiko horiek dotorezia ematen diote.

1.3. ELIZA BARNEKO DEKORAZIOA

Eliza barneko dekorazioari dagokionez, elementurik aipagarriena presbiterioan — antzina presbiteroak soilik sar zitezkeen aldare zatia— dagoen erretaula da. Erretaula Juan de Apaeztegi azpeitiarrak egin zuen⁸⁷², eta bere ezaugarri nagusienak apaingarriak dira, txikia da eta landutako guztia egurrezkoa da, izkinetakoa izan ezik, urreztatuak baititu⁸⁷³. Oso artistikoa da, barroko estilokoa.

⁸⁶⁶Hain zuzen ere, Abaliak egindako eskailerak ez ziren oriotarren gustokoak izan eta Iruñeko Epaimahaiak berriak egiteko agindu zuen. Hori zela eta, Kontzejuak Orioko Eliz-Batzarrarekin auziak izan zituen, eta ezinezkoa da jakitea gaur egun elizan dauden eskailerak Abaliarenak diren ala ez (IEAH, Secr. Ollo, C/859, n^o8 [1666]).

⁸⁶⁷Organoaren inguruan aurkitutako aipamen zaharrena 1787. urtekoa da; eta bertan esaten da, egilea Manuel de Olaskoaga izan zela. Organoa gaiztainondo egurrez egin zen (OUA, C-223-1 [1787-X-7]; C-223-2 [1795-X-10]).

⁸⁶⁸Hain zuzen ere, 1611. urteko aipamen baten arabera horrela izan zen: "iglesia de San Nicolas y sacristía d'ella, donde estava el dicho harchibo, y allí mande abriesen la puerta de la ventana de yherro que allí había y baxasen el arca donde se avían sacado las dichas escrituras" (OUA, *Libro Pleito Orio-Aia*).

⁸⁶⁹Hain zuzen ere, 1785. urtean elizaren arkitekturari buruz zera esan zen: "arquitectura curiosa, de piedra arenisca, labrada primorosamente" (OUA, C-VI, D.1 [1785]).

⁸⁷⁰1719an, Kontzejuak eta Elizak, Sebastian de Quintanari kanpandorrean zegoen kanpai bat berritzeko eskatu zion, eta 1724an, biak eginak zituen (GPAH, Agustin de Aranza. 3/1.882 [1719-X-21]; OUA, C-222-2 [1724-VI-4]). Bestalde, 1806an, Kontzejuak elizako kanpaia puskatuta zegoelako bikarioari Donostiako Santa Maria elizan zegoen batekin trukatzeko agindu zion (OUA, C-223-2 [1806-VI-22]).

⁸⁷¹OUA, C-36 (1883-VII-26).

⁸⁷²Erretaula egiteko baldintzak eta planoaren azterketarako, ikusi: GPAH, Jose de Donestebe, 2/494 (1691-V-8). Izan ere, M.I. ASTIAZARAINek Orioko erretaularen ikerketa sakona egin du (ASTIAZARAIN, M.I.:

"Transformaciones y alteraciones en la traza del retablo mayor de la Iglesia Parroquial de Orio (Guipúzcoa)," *Boletín del Seminario de Arte y Arqueología*, t.LVIII, 1992, 413-420. orr.

⁸⁷³Hain zuzen ere, erretaula XVIII. mendean urreztatu zen, 1725ean (OUA, C-222-2 [1725-VII-15]).

Egituren, berriz, zutabeak, arkuak eta goialdeko bukaera azpimarratzekoak dira. Zutabe salomoniarrek sei espora dituzte, eta Erdiko ardatzaren inguruan daudenak, besteak baino aurreratuagoak daude. Horrela, mugimendu efektua lortzen da. Erretaulako oinarriak eta erlaizak barroko efektua areagotzen dute. Aingeruen buruak eta perlez osatutako lerro okerrak, garia eta mahats mordoak, eskulturaren indarra argi azaltzen dute.

Erretaulak duen eukaristi-tenplu txikian Kristoren irudia dago; tenplua guztiz irekia da, salomoniar zutabeak eta baldakinoa daude. Erretaularen sendotasunak indarra arkitektonikoa adierazten du.

Erretaulak aldare mahaia izan zuen, beste berri batek ordezkatu zuen arte.

Goialdean, obalo formako nitxo edo horma-hilobian San Nicolasen irudia dago⁸⁷⁴, eta bere inguruan, tunikaz jantzitako aingeruak ditu: aingeruek, eskuetan, hostoak ateratzen diren ontziak dituzte. Apaingarri guzti horiek mugimendu efektu ederra egiten dute.

Erretaularen ezaugarri nagusia apaingarrien nahaspila da, eta irudiak nahiko tradizionalak badira ere, sorkuntza artistikoaren aldetik, bere osotasunean lan izugarria da.

Mezak ospatzeko baliogarria zen, Orioko San Nicolas patroien irudia baitago apezpiku jantziarekin.

Erretaula zoragarriaz gain, presbiterioaren aurreko paretaren erdian bi kontxa nabarmentzen dira, beren karakola eta guzti; bien artean ganga bat osatzen dute eta eliza eraiki zuen maisuaren asmoa marinel mundua isladatzea izan zen.

Presbiterio eta erretaula nagusiaren edertasuna apartekoa da. Aurreko paretan hasten da, erabateko uniformetasun eta simetrikotasunez dauden izpiek eguzkia dirudite eta elizaren ganga nagusira bideratzen dira. Kupulak, beste gangak bezalaxe, lau petalodun lorea irudikatzen duen marrazkia du erdian.

Bestalde, presbiterioaren alboan bi aldare daude, biak kruzeroko kaperatan kokatuak eta barroko estilokoak.

Ezker aldarean, edo ebangelioaren aldean, eserita, Aita Santuaren jantziarekin, tiara eta makuluaz San Pedro Apostoluaren irudia dago, Orioko patroia; bere eskuin aldean San Andres, eta ezkerrean San Agustin. Gainean, berriz, San Blasen irudia dago. Irudi horiek guztiak egurrezkoak dira. Aldarearen ondoan, marmol ilunezko nitxo baten barruan, Maria Magdalenaren irudia dago, egurrezkoa da, eta, bere handitasunak eta luzerak ikusgarri egiten dute; eskuineko eskuan pomo bat edo lurrin-kutxa bat du, eta ezkerrekoan garezur bat, penitentziaren seinale. Segurutzat jo daiteke irudi hori XVII. mendeko galiziar eskultore ospetsuak, Gregorio Hernandezek, egin zuela, jantziaren tolesdura lantzeko modua eskultorearen ezaugarriekin bat baitator. Nitxoaren gainean oleoz egindako margoa dago, San Frantzisko Xabierkoarena, misioen patroia, zenbait neofito bataiatzen irudikatua; 1700. urtekoa da eta egilea ez da ezaguna.

Eskuineko aldarean, edo epistolarenean, berriz, Errosarioko Ama Birjinaren irudia dago, Jesus haurtxoa besoetan duela. Irudia benetan liluragarria da. Aldare berean Sienako Santa Katalina, Santa Luzia eta San Antonio de Padua ere azaltzen dira, guztiak egurrez landuak.

Erdiko aldarearen estiloa ez dator bat orain arte aipatu ditugunekin. Antza denez, hasieran zegoen elizakoak baitziren. Azken aldare honetan, San Jose, San Joakin, San Inazio eta San Buenaventuraren irudiak daude.

⁸⁷⁴San Nicolas, itsasoz egiten ziren bidaia eta arrantzaleen babeslea zen.

Elizako sabaitik zintzilik, bestalde, Oriotarren ohiturarekin bat datorren ezaugarria dugu, hain zuzen, belaontzi bat.

Sarrerako ateetako baten aldamenean, etzanda, Kristoren irudia ikus daiteke, eta aurrerago, beste egurrezko Kristo bat. Biak Juan Jose Loidi oriotarraren lanak dira, 1949-1951 urte bitartean eginak.

Azkenik, aipatzekoak dira, baita ere, kuzeroaren alboetan dauden herritar batzuren hilobiak, gartzelaniaz "carnero" izena dutenak edo ehorts-lekua⁸⁷⁵.

XVIII. mendean, Sagrarioaren irudia Antonio de Alkiza Lete pintoreak egin zuen⁸⁷⁶. Bestalde, XVIII. mendean, baita ere, Kontzejuak, bere ondasun propioen errentetatik lortutako diruarekin, pinuzko aitor-lekuak egin zituen, eta garaiko agirietan azaltzen denez, "con la curiosidad y decencia conveniente"⁸⁷⁷.

1794. urtean, Frantziak erasotu ondoren, Orioko elizako apaingarri asko lapurtu eta Andoaingo elizara eramán zituzten. XIX. mendearen hasieran, oriotarrek, Iruñeko Epaimahaiari bere elizari zegozkion apaingarriak bueltatzeko eskatu zioten. Urte batzuk geroago, 1850ean, alkateak eta bikarioak elizako apaingarri eta ondasunen inbentarioa egin zuten⁸⁷⁸.

Eliza ondoko etxea, apaizarena da; bertara joateko zubi txiki bat pasa behar da, hau da, elizako ataritik etxeraino pasabide bakarra dago, zubia⁸⁷⁹.

Orioko San Nicolas de Bari eliza, 1994an, Monumentu Multzo gisa, zedarrizaturiko babes bereziko eremuan sartu zen⁸⁸⁰. Beraz, garrantzi historikoa eta artistikoa badu.

⁸⁷⁵Adibidez, Kontzejuak bere seme ospetsuenetarik bati eta bere emazteari "La Madalena y San Miguel" kaperan, —Gabriel de Hoak eta Doña Maria de Okendo y Lasarteri— hilobiak, harmarria eta epitafioa egiteko baimena eman zien (OUA, C.III, D.5 [1609]).


⁸⁷⁶1707. urteko dokumentu batean, Antonio de Alkiza Letek Sagrarioaren lana egin zuela aipatzen da (OUA, C.219 [1707-V-1]).

⁸⁷⁷OUA, C-219 (1710-V-19).

⁸⁷⁸IEAH, A/25 N°109 (1819). 1850. urteko inbentarioaren arabera, elizak honakoak zituen: ekisaindua, kopak, gurutzeak, erlikitegiak, intsentsu-ontziak, goilareak, koroak; brontzezko eta latoizko platerak, kanpai txikiak, etab. Bestalde, egurrezko gauzak ere bazituen: apaingarriak, San Pedroren banderak, prozesioetan ateratzen zituzten estandarteak, maindireak etab. Horretaz gain, bi kanpai handi, zinbaloa eta organoa (GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.989 [1850-I-31]).

⁸⁷⁹1929. urtean Don Miguel Mujika apaizak Udalarari etxea eraikitze baimena eskatu zion (OUA, C-108.38 [1929-V-15]).

⁸⁸⁰EHA, 1994ko irailak 26, astelehena. 183 zk., 11.266. orr.



Piedade ondoko bidea (Photomuseum Artxiboa).

Bestalde, Orion, elizatik 50 metrora, ospitalea egon zen, "Piedadia" izeneko ermita, gaur egun desagertua, eta, ez dugu eraikinaren berririk. Horretaz aparte, XVI. mende bukaeran Trinitarioen Monasterioa ere bazen Orion, sei urte besterik iraun ez zuena eta ez da kokalekuaren inolako aztarnarik geratu.

2. ALDE ZAHARREKO KALEAK, ETXEAK ETA ERMITAK⁸⁸¹

Interesgarria iruditu zaigu hainbat etxeren deskribapena egitea eta herrian dauden kaleen ibilbidea jarraitzea. Horrela, parte zaharrean dauden ertaroko eraikin adierazgarrienak aintzat hartuko ditugu:

- Eliza parean dagoen KALE NAGUSIA Orioko zaharrena da, eta, harrizko kale honen antzintasuna nabaria da. 1379. urtean Oriok hiribildua izateko eskubidea eskuratu zuen, eta, garai horretan zuen itxura eta gaur egun duena oso antzekoak direla pentsa dezakegu. Kalearen ezker aldean zenbait karkara daude. Eskuinekoan, berriz, etxe guztiak ageri dira, bata bestearen ondoan jarrita eta tarterik gabe. Bere garaian, defentsarako balio izan zuen, modu horretan herria itxita geratzen baitzen ibai aldetik,

⁸⁸¹Ikusi IV. Mapa.

iparraldetik, alegia. Jarraian, Kale Nagusian dauden eraikin edo etheen ezaugarriak aipatuko ditugu:

* Elizaren ondoan, Kale Nagusian, 4. zenbakia duen etxeak, laukizuzenezko oinplanoa du eta bi isuriko teilatua; atea dagoen aldean, teilatuaren gaina perpendikularra da aurreko aldearekin.

Lau pisuko etxea da eta, pisu bakoitzak, aurrealdean, bi lehio simetriko ditu.

Etxea, itxuraz, nahiko apala da, baina, hala ere, garrantzi handia du, elizatik oso hurbil dagoelako, eta, etxe-multzoaren lehenengo eraikina delako. Bestalde, Erdi Aroko tankera argi azaltzen du⁸⁸².

* Kale Nagusiko 6 zenbakia duen etxeak, ate ganean, erliebe edo irudi ederra du; bertan, oso garbi, XVI. mendeko nao bat irudikatzen da. Gaur egun etxeak duen irudia ez da jatorrizko harria (Donostiako San Telmo Museoan baitago), baina, oso garbi azaltzen ditu euskal naoaren ezaugarri nagusiak. Beraz, Kale Nagusia zaharrenetakoa dela erakusten du aipatu irudiak.



Kale Nagusiko 6. zenbakian, XVI. mendearen bukaeran eraikitako etxean agertzen den naoa.

* Buruandienea, Kale Nagusiko 8 zenbakia duen etxea da. Garbia eta dotorea, Errenazimentuko estiloa du. Laukizuzenezko oinplanoa du eta, teilatua, teila arabiarrekin egina dago. Teilatuaren gaina, aurrealdearekin, paraleloa da.

Aurrealdea Errenazimentukoa da, eta, hutsune eta apaingarri guztiak oso ondo mantendu dira.

Hiru pisu ditu eta, aurrealdea, guztiz simetrikoa da. Behealdean, hau da, beheko pisan, atea, erdi-puntuko arku baten forma du, dobelak erabiliz egina (XVI. mendera arte erabili zen arku mota hori). Atearen alboetan bi ateburu daude.

⁸⁸²1994. urtean Eusko Jurlaritzak babes oinarritzko monumentuen barruan sartu zuen (EHAA, 1994ko irailak 26, astelehena. 183 zbk.).

Lehenengo pisuan, altuera berean, hiru leiho daude, eta hirurek erlaitzak —euritik babesteko erabiltzen dena— dituzte. Bigarren pisuan hiru leiho daude, denak berdinak, eta horiek ere erlaitzak dituzte.

Aurrealde guztia harlanduzkoa da; pisu guztietan bina medailoi eta erlaitz molduratuak daude, teilategala edo teilatu-erlaitza eusten dutenak⁸⁸³.

* Kale Nagusiko 10 zenbakia duen etxeak ere laukizuzenezko oinplanoa du. Bi isuriko teilatua du, eta, teila arabiarrek ditu; gaina aurrealdearekin paraleloa da.

Hiru pisu ditu, eta, nahiz eta etxea errenazimentu gariakoa izan, ez du jatorrizko egitura mantentzen. Beheko pisuan bi ate daude, eta, batek arkuak du. Beste pisuek lau leiho dituzte eta horietako bi harrizko erlaitza dutenez, etxeak aldaketak izan dituela pentsa daiteke.

Aurrealdea harlanduzkoa da, eta goialdean, erlaitzek teilategala eusten dute⁸⁸⁴.

* Kale Nagusiko 12. zenbakia duena. Orain arte aipatu etxeek dituzten ezaugarri berdinak ditu: oinplano, erlaitz, altuera eta leihoen ezaugarri berdintsuak.

Etxearen egitura aldatua dago; beheko pisuan bi ate daude, eta horietako batek, dobelekin egindako erdi-puntuko arkuak du. Arkuak irudi bat du, hain zuzen, harrizko borobil batean "IHS" hizkiak azaltzen dira, hau da, *Ihesus* hitzaren laburdura.



1513. urteko etxeko giltzarria, erliebean txalupa eta IHS monograma ageri dira.

⁸⁸³ 1994. urtean erdi mailako babes monumentuen barruan sartu zen.

⁸⁸⁴ 1994. urtean, babes oinarrizko monumentuen barruan sartu zen.

Aurrealdea egiteko harlandua eta harlangaitza erabili zuten, bi harrien artean ezberdintasunik egin gabe. Horregatik, badirudi, etxeko aurrealdeko zatiren bat erori egin zela, eta gero, berritzaerakoan, harri apalagoa erabili zutela.

Bigarren pisua, berriz, etxe zaharrari erantsitakoa omen da⁸⁸⁵.

* Kale Nagusiko 14. zenbakia duena. Oinplanoa, erlaitza eta teilei dagokionean, aurrekoa bezalakoa da.

Altueran, berriz, badira desberdintasunak: bi pisu eta erdi ditu, egurrezko bilbadura —armazoa— dauka, eta, aurrealdeak ez du apaingarririk ezta berezitasunik ere. Ertaroko estiloko etxea da; XVI. mendean, oraindik, tankera horretako etxeak eraikitzen ziren.

Beheko pisuan, dobelak dituen arku batek atea inguratzen du eta, atea, leiho bat du.

Beste baoak —horman irekitako tarte huts edo zulogunea, ate edo leiho gisa erabiltzeko— geroagokoak dira eta inolako simetriarik gabe azaltzen dira⁸⁸⁶.

* Kale nagusiko 16 zenbakia duen etxea. Oriotarrek etxe honi “Maria Maistra”-enea deitzen diote, bertan, maistrak haurrak zaintzen zituelako, eta hurrei eskola ematen zielako.

Laukizuzenezko oinplanoa du, erlaintzari dagokionez, teilak arabiarrek dira eta, teilatua, bi isurikoa. Teilatuaren gaina aurrealdearekin paraleloa da.

Hiru pisuko altuera du; tarteko hormetan erlaintzak ditu; garai askotako eraikuntza mota nahasten dira; lehenengo eta bigarren pisuak ezberdinak dira, lehenengo biak harlanduzkoak baitira.

Beheko pisuko dobeleak osatzen duten arku oso aldatua dago; lehenengo pisuan bi leiho konopiala daude. Gainontzeko hutsuneak geroagokoak dira, horregatik ez dute XVI. mendeko itxurarik.

* Kale Nagusiko 9 eta 11 zenbakiak. Mitxelena izenarekin ezagutzen dira Orion. Urte askotan eliza zaindu zuten mojak hemen bizi izan ziren. Eliza aurrean dago. Bi isuriko teilatua du, eta gaina aurrealdearekin paraleloa da.

Aurrealdeak hiru pisuko altuera du, Errenazimentukoa da eta hutsuneak simetrikoki kokatuta daude.

Beheko pisuan hiru ateburu eta leiho bat daude, erdiko atean, arrosa baten tankerako irudi geometriko bat dago. Bigarren pisuan lau leiho daude eta erlaintzak dituzte; hirugarrenean ere beste lau leihatil daude.

Aurrealdeko harria harlanduzkoa da, eta, gainean, erlaintz molduratuak, teilategal tailatua eusten du⁸⁸⁷.

* Kale Nagusiko 25 zenbakia duen etxea. Laukizuzenezko oinplanoa du. Bi isuriko teilatua, teila arabiarrek, eta, gaina aurrealdearekin paraleloa da.

Hiru pisu ditu eta bilbadura egurrezkoa da.

Goialdeko bi pisuak beheko solairuaren gainetik aurreratuta daude, eta, harlanduzko erdiko hormek (aurreratuagoak ere) eusten dituzte.

⁸⁸⁵Etxe honen babes maila oinarrizkoa da (1994. urteko aginduaren arabera).

⁸⁸⁶1994. urtean babes oinarrizko monumentuen barruan sartutako etxea da.

⁸⁸⁷Eraikin honek 1994. urtean oinarrizko babes mailan sartu zen.

Herriko etxe tipikoa da, hutsuneak mota eta neurri ezberdinekoak dira, inolako apaingarririk gabe, eta beheko pisua harlanduzkoa da. Azken honek bi ate eta bi leiho ditu.

Lehenengo pisuan, berriz, lau leiho daude, guztiak berdinak eta simetrikoki kokatuta.

Bigarren pisuan ere lau leiho daude, eta, beheko pisukoekin batera simetria mantentzen dute. Balkoia ez da Erdi Arokoa, geroago erantsia baita.

Bestalde, etxea berritua izan bada ere, estiloa mantendu egin da⁸⁸⁸.

* Kale Nagusiko 27 zenbakia duen etxea, Iturriaga izenez ezagutzen da. Paulo de Iturriaga, XVI. mende bukaeratik XVII. mende hasiera arte, eskribaua izan zen eta bertan bizi izan zen; bere oinordekoak ere etxe honetan bizi izan ziren, besteak beste, Cristobal, Joseph eta Agustin de Iturriaga.

Oso dotorea da jauregia. Laukizuzenezko oinplanoa du; bi isuriko estalkia eta teila arabiarrek. Gaina aurrealdearekin paraleloa da.

Oso aurrealde ederra du, eta era berean, apala, Errenazimentukoa, alegia. Leiho hutsuneak ondo mantendu dira.

Hiru pisu ditu, eta aurrealdearen konposizioa guztiz simetrikoa da. Beheko pisuan, ate zabal bat dago, erdi-puntuko arku batek inguratzen duena. Arkuko giltzarrian irudi bat agertzen da, hain zuzen, bi hosto, eta ziuraski Iturriaga abizenarekin lotura izango du. Atearen alboan, leiho bat dago, eta ez dator bat etxe guztiaren konposizioarekin.

Goiko pisuan bi leiho daude, erdian; eta, ate gainean, harmarri ederra agertzen da.

Bigarren pisuan, erdian, leiho handi bat dago, eta izkinetan, bi txiki.

Aurrealde guztia harlanduzkoa da eta goian teilategala dago.

Bestalde, ondoko etxea, mendebaldekoa, oso aldatua dago, eta orain arte aipatu multzoari edertasuna gutxitzen dio⁸⁸⁹.

PILIKU plaza. Plazaren erdialdean, iturri baten gainean, Maria Maistra izandakoaren irudia dago. Iturria XVI. mendean Kontzejuak jarri zuen eta mendietako ura du. Iturria jarri zenez geroztik, askotan berritu eta konpondu izan zen kanalizazioa. Lanak oso garestiak izan ziren eta ordaindu ahal izateko, Kontzejuak, bere ondasunak kaudimenean —garantian— jarri behar izan zituen, maileguak edo prestamoak jaso ahal izateko. XVIII. mendean erdian egin zen kanalizazio lanik garrantzitsuenak, hain zuzen, Francisco de Ibero, Xabier Inazio de Etxeberria eta Miguel Antonio de Sarasola maisu ospetsuak arduratu ziren iturriaren egituraz⁸⁹⁰. XIX. mendean, GOROSABELen esanetan, Orioko iturria, uraren kalitatearen aldetik, Gipuzkoako onenetakoa zen⁸⁹¹.

⁸⁸⁸1994. urtean, oinarritzko babes mailaren eremuan sartu zen.

⁸⁸⁹Iturriaga jauregiak 1994. urtean erdi mailako babesaren monumentuen barruan sartu zen.

⁸⁹⁰1560. urtean iturriko lanak hasi ziren, eta, Martin de Gorostiaga getarriarrak eta Juanes de Iriarte tolosarrak Kontzejuari diru maileguak eman zizkioten (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.785 [1560]; Paulo de Iturriaga, 3/1.788 [1562]). XVII. eta XVIII. mende hasieran, Pedro de Alzuru eta Martin de Jauregi arduratu ziren iturriaz (GPAH, Domingo de Gainza, 3/1.851 [1645]; Agustin de Aranza, 3/1.880 [1710]). Bestalde, XVIII. mendean erdialdean, Iberok iturriko lanak aztertuko zituela aipatzen da, eta Xabier Inazio de Etxeberria maisuak (hain zuzen ere, "maestro de obras y de las del Real Colegio y Santa Casa de Loiola) lanari buruzko iritzia emango zuela. Mende bukaeran, Miguel Antonio de Sarasola mutrikuarra izan zen arduraduna. Kontzejuak bere soldata ordaintzeko, zergak ezarri zituen (OUA, C-221-2 [1764]; C-V, D.3/6 [1770; 1784]; C-223-1 [1783; 1787]; GAO, Lekuona Civiles, 4.333 [1794]; GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.945 [1798]). XIX. mendean, 1832an, lanek jarraitzen zuten "desde Pillirukua hasta la fuente madre"; 1879an, Jose Maria Mujika izan zen arduraduna; ikusi: OUA, L-28 (1879).

⁸⁹¹"El cuerpo de la villa se compone de cinco calles, una plaza, una casa de ayuntamientos y una buena fuente" (GOROSABEL, P. de.: *Diccionario. Op. cit.* 367. orr.). Izan ere, XVIII. mendeko 80. hamarkadan ere, iturriaren egokitasuna aipatzen zen; ikusi: OUA, C.VI, D.1 (1785).

Piliku plazaren ezker aldean KALE NAGUSIA dago; eta eskuin aldean, Urdaire kalea hasten da. Beraz, Piliku plazan Kale Nagusia bitan banatzen da; mendebaldean, elizak, "Y" tankerako egitura eginez, alde zaharra ixten du.

Piliku plazan oriotar asko biltzen zen, Kontzejuko ofizialek, ondasun propioak errentan jartzeko enkanteak edo subastak egiten baitzituzten.

* Kale Nagusiko 33 zenbakia duen etxea Pikota izenez ezagutzen da. Laukizuzenezko oinplanoa du. Bi isuriko teilatua du, teila arabiarrez egina; gaina eta aurrealdea paraleloak dira.

Aurrealdean hiru pisuko altuera du, egurrezko bilbadurak eta goiko pisuek, behekoaren gainean jarrita, hegal modukoa egiten dute, goiko pisuak aurreratuagoak baitaude. Beheko pisua harlanduzkoa da, baita tarteko hormak ere.

Beheko pisuak leiho konopiala du, eta puntu-erdiko arku batek inguratzen du atea. Arkuaren goialdean "IHS" hizkiak azaltzen dira. Bestalde, zenbait hutsune ere ikusten dira.

Lehenengo pisuak hiru leiho ditu eta simetrikoki jarrita daude.

Bigarrenean, aurrealdean, balkoi ederra du; erdian hutsune bat du eta izkinetan bi leiho, beheko pisuan dauden leihoen altura berean jarrita. Balkoia eta teilatuaren hegaleko mentsulak —hormatik kanpora dagoen elementua, zerbaiten pisuari eusteko balio duena— tailatuak daude.

XVI. mendean eraikia izan bazen ere, Erdi Aroko estiloaren aztarna da⁸⁹².

* Kale Nagusiko 22 zenbakia duen etxea. Besteek bezala, laukizuzenezko oinplanoa du, teilak arabiarrek eta bi isuriko teilatua. Gaina aurrealdearekin paraleloa da.

Lau pisu ditu, eta pisu bakoitzean, bi leiho, zuzen-zuzenak.

Beheko pisuan ateburua eta leiho bat daude. Lehenengo pisuak, harrizko bi leiho ditu, primeran landuak.

Bigarren pisuan bi leiho molduratu edo apainduta daude; bi hutsune horiek erlaitzak eta harrizko hegazpeak dituzte.

Goiko pisuak beste bi leiho molduratu ditu.

Aurrealdea harlanduzkoa da; Errenazimentu garaiko hiru medailoi daude pisu bakoitzean, eta goian, erlaitza batek teilategala eusten du.

Etxe barrua ere, eraikuntzari dagokionean, interesgarria da oso; esate baterako, etxearen oinarria egurrezko zutabe sendo bat da, eta apaindua dago; eskaileraren behealdea harrizkoa da.

Aurrealdeko alboa, bestalde, ez dator bat gainontzeko elementuekin, beraz, garbi dago geroago erantsi zela⁸⁹³.

Piliku plazan gaudela, eskuineko kalea hartzen badugu, URDAIRE KALEAN sartuko gara. Bertan, hiru etxe dira ikusgarrienak: 3, 5 eta 7 zenbakiak dituztenak⁸⁹⁴.

Aipatu kalea jarraituz gero, OA KALEKO eskailerak bukatzen diren tokira iristen gara, eta ezkerrean jotzen badugu, pare-parean:

⁸⁹²1994. urtean, erdiko mailako babes eremuan sartu zen.

⁸⁹³1994. urtean erdi mailako babes maila.


⁸⁹⁴Etxe hauek, oinarritzko babes mailako eremuan sartu ziren (1994. urtean).

* Makazaga etxea dago, Oa Kaleko 10. zenbakia. Alde zaharreko izkin batean dago. Makazaganeak bi isuriko teilatua du, teila arabiarrez egina, eta gaina, Hoa kalearen paraleloa da.

Altuerari dagokionean, bi pisu eta ganbara ditu. Bi alboetako hormak harlanduzkoak dira, lehenengo pisukoak aurreratuagoak daude, baita teilatuaren beheko aldea ere.

Aurrealdeak, materialari dagokionean, ez du berezitasunik; beheko pisua edo aldea harlanduzkoa da, eta beste pisua egiteko harlangaitza erabili zen.

Beheko pisuko atek, puntu-erdiko arku bat du eta dobelak ditu; erliebea ere badu, bertan, "IHS" irakur daiteke. Leiho konopial ederra ere badu, eta bertan, arrantzarekin zerikusia duen irudi bat agertzen da: txalupa bat, arpoiak eta arrain batzuk, hau da, XVI. mendetik aurrera Orion arrantzak izan zuen garrantziaren lekukoa dugu. Bestalde, gurdientzat ate bat ere badu, baina ez dator bat etxeak, gainontzean, duen estiloarekin, berritua izan baita.



Oa kaleko 10. zenbakian dagoen erliebea.

Lehenengo pisuan balkoia dago, geroago eraikia izan zena.

Apaingarri asko ez ditu, beraz, etxe apala da; baina, albo batean eraikia izateak ematen dio berezitasuna etxeari⁸⁹⁵.

* Oa kaleko zenbait etxetan, esaterako, 9 eta 18 zenbakia dutenek, ate gainetan erliebeak dituzte, eta "IHS" jartzen du. Eta, 9 zenbakia duen etxeak bi sarrera ditu; bata, Oa kalean dago; eta, bestea, Kale Nagusian. Teilatua bi isurikoa da eta, gailurra, bi aurrealdeekin perpendikularra da.

Iparralderantz ez du teilategalik, eta oso hutsune gutxi ditu Kale Nagusian dagoen hormak, gainera, daudenak berrituak izan dira.

Behean pisu bat du eta, gainean, beste bi pisu gehiago ditu. Etxeak trapezio itxura du, horregatik, hartzen dute teilategalak eta tarteko hormek itxura berezia. Hegoaldean, teilategala, euskarri batean finkatzen da.

⁸⁹⁵Etxe honek 1994. urtean oinarrizko babes maila merezi zuen.

Sarrerako atean puntu-erdiko arkuak du, dobelekin; eta, goialdean aipatu erliebea agertzen da. Leiho gotikoa ere badu, iparralderantz begira.

Etxeak dituen hutsuneak geroztik eginak dira, baina, orokorrean, erdi aroko itxura dute⁸⁹⁶.

KALE NAGUSIra bueltatuz, 51 zenbakia duen etxea aztertuko dugu. Garai batean albotan etxe gehiago zituen, baina, gaur egun, bera bakarrik dago.

Ertarokoa da, eta, tarteko hormak harlanduzkoak dira, suak mozteko formakoak, pisu bakoitzean gero eta gehiago aurreratzen direnak.

Etxearen ekialdean zegoen etxeak bi isuriko teilatua zuen, eta, gainaldea aurrealdearekin paraleloa zen. Bertan, gaur egun fontziorik ez duen xurrutarria —ura hormetan zehar eror ez zedin jartzen zena— baitu.

Bi pisuko etxea da, behekoak bi hutsune ditu, leihoa eta ateburua.

Goiko pisuan hiru hutsune daude, eta, gerora jarritako balkoia, beheko aldearekin ez baitu simetriarik.

Orion izan ziren hainbat suteek utzitako karkasak erabili ziren etxe hau berritzeko⁸⁹⁷.

* Kale nagusiko 53 zenbakia duen etxea Goiko kalean dago, eta honek ere, laukizuzenezko oinplanoa du. Teilatua bi isurikoa da eta gaina aurrealdearekin perpendikularra da; harrizko xurrutarria ere badu.

Aurrealde guztia harlanduzkoa da, goiko pisuan izan ezik, materialik erabiliena harlangaitza baita.

Behealdean, inolako antolaketarik gabe, hutsuneak daude, eta, ez datoz bat goiko leihoekin, parez-pare kokatuta baitaude. Erliebea ere badu, "IHS" hizkiak.

Atzeko fatxada da ikusgarriena, harlanduzkoa da eta puntu-erdiko arkuak du. Arkua bi zatitan egina dago, eta lehenengo solairuan ojiba formako leihoa dago⁸⁹⁸.

* Kale Nagusiko 55 zenbakia duen etxea Orioko alde zaharreko azken eraikuntza da.

Bi pisu ditu. Beheko pisuko atea harriekin itxita dago eta erliebea, "IHS" hizkiak, lehenengo pisuan dago, balkoiaren gainean.

Ikusgarrienak xurrutarriak dira, bi isuriko teilatutik ateratzen direnak; gainaldea aurrealdearekin paraleloa da.

Atzeko alde osoa harlanduzkoa da, oso ederra gainera⁸⁹⁹.

Aurrera jarraituz gero, Ermitarako bidea hartuko genuke, gurutzez josia dago eta bistak izugarriak dira. Esaterako, San Martinetik errioa eta hondartza primeran ikus daitezke. San Martin ermita Orioko eraikinik zaharrena da; eta leihotxoak dira elementu garrantzitsuenak, Ertaro garaikoak. Donostiarako bide zaharra bertatik pasatzen da, eta, garai batean, erromes ostatu ere izan zen.

SAN MARTIN ERMITA. Batzuren iritziz Orioko eraikuntzarik zaharrena da, XIII. mendeko eliza baino lehenagokoa. Badirudi, ermita parrokia zaharra izan zela garai batean⁹⁰⁰.

⁸⁹⁶1994. urtean, etxe hau oinarrizko babes eremuan sartu zen, baita Hoa kaleko etxe hauek ere: 1, 2 eta 7 zenbakia duten etxeak.

⁸⁹⁷1994. urtetik oinarrizko babes mailako etxea dugu.

⁸⁹⁸Oinarrizko babes mailako monumentua dugu.

⁸⁹⁹Etxe honetaz gain, honako etxe hauek oinarrizko babesa zuten: 1, 4, 17, 18, 20, 21, 37-39, 45 eta 47 zenbakidun etxeak.

⁹⁰⁰IRIGOYEN, F.: "Ermitas e iglesias de Guipúzcoa", *Anuario de Eusko Folklore*, 1934, 68. orr.

Ermitaren oinarritzko ezaugarria aurrealdea da, gotiko estilokoa eta apala. Dirudienez, XVI. mendean berregin zen eta oinplanoa zabaldu egin zitzaion. Nabe bakarreko eraikuntza da eta teilatua luzea du, aterpea egiteraino. Hauek dira neurriak: 19,15 metro luzera; 9,5 metro zabalera⁹⁰¹.

Barruan, aldare bat dago eta, aldarean bertan, San Martinen irudia, hau da, ibiltari eta erromesen patroia. Bestalde, XVI. mendeko Kristo eta San Rokeren irudiak daude.

Aste Santutan, Ostiral Santu egunean, elizatik San Martin ermitaraino kalbarioak egiten dira, Gurutze-Bidea⁹⁰².

Baina, dena dela, Santiago-bidean dagoelako du garrantzia San Martin ermitak, esan dugun bezala, garai batean, erromesentzat ostatu izan zen.

Orioko kaleetara itzuliz, ANTXIOLA KALEAn, 1 zenbakia duen etxean erreparatu behar dugu. Claessens da eta hainbat zati ditu: dorre bat, horma zaharrak, eta, eraikin bati itsatsita dagoen dorrea.

Laukizuzenezko oinplanoa du, bi isuriko teilatua eta gainaldea aurrekaldearekin paraleloa da.

Hiru pisu ditu eta pisu bakoitzeko hiru hutsune, parez-pare jarrita.

Beheko pisuko zati bat lurraren azpian dago, soto gisa erabiltzen da. Bost leiho ditu, lehenengo pisuak bezala. Bigarrenean, berriz, burdinezko bost balkoi daude.

Aurrealde guztia, gaur egun, pintatuta dago. Goialdean zutabe antzekoa du, eta teilatuaren hegalaren alderik aurreratuenen bukatzen da, erlaitzekin izkutatuta dago; hiruki formako hutsuneez, ganbaran argia sartzen uzten dute.

Dorre ederra ere badu, eta bere garaian, herria ekialdetik babesten zuen.

Etxea, lehen, Antxiola Almirantearena izan zen, gero, XIX. mendean, Claessenstarrena izan zen⁹⁰³.

Antxiola kaleko eraikuntzarik garrantzitsuena ikusi ondoren, SAN NIKOLAS KALEko etxeak aipatuko ditugu. Bertan, 21 zenbakia duenari erreparatuko diogu. Salatxo izenez ezagutzen da, eta, San Nikolas eta Arizaga kaleak elkartzen dituen pasabidea dago. Eskailera eta puntu-erdiko arkupeak ditu. Gaur egun, zaharberritua egon arren, Orioko etxe zaharrenetakoa da. Etxeak dituen balkoiak aipatu bi kaleetara ematen dute. Bestalde, Arizaga aldean, hirugarren pisua eraiki zen eta etxearen itxura aldatu egin zen.

Jatorritzko etxeak bi isuriko teilatua eta teila arabiarrek zituen, eta gainaldea, San Nikolas eta Areizaga kaleekin paraleloa zen. Lehenengo pisuan bi leiho gotiko ditu, eta beste bi ere izan zituen, gaur egun mendebal aldean dagoen balkoiaren lekuan⁹⁰⁴.

* San Nicolas Kaleko 9 zenbakidun etxea "Bikarioetxea" izenez ezagutzen da eta izkina batean egina dago.

Izkinean eraikitzeko arazoa honela konpondu zuten: erdian sua mozteko hormak aurreratu zituzten, eta izkinetan egurrezko zutabeak jarri, horiek, pisu bakoitzean

⁹⁰¹ZZ. AA.: *Orio, entre la ría y el mar. Op. cit.* 36. orr.

⁹⁰²Aurreko mendeetan, Ostegun Santuan eta Gurutze Santuaren egunean ere kalbarioak egin ohi ziren (PEÑA SANTIAGO, L.P.: *Las ermitas de Guipúzcoa*. Txertoa, Donostia, 1975, 220. orr.).

⁹⁰³Claessens etxea oinarritzko eremuan babestuta dago; izan ere, 2 zenbakia duen etxea ere babes mailan dago. XVI. mendetik aurrerako dokumentuetan etxea izendatzeko modua "Torrea", "Torreloitacoa", "Tolarchea" izenak erabili ziren. Lehenengo jabeak Domizua de la Torre eta bere senarra Joanes de Arbe izan ziren (1555an); XIX. mendean Santiago de Claessens Antxiolaena jauregian bizi zela aipatzen da. Gerora, Claessenstarrak bizi izan ziren, kaleak jauregiaren izena hartu zuen, eta etxeak, berriz, Claessenstarrena.

⁹⁰⁴1994. urtetik oinarritzko babes eremuan dago.

aurreratuagoak daude. San Nikolas kale aldean hiru pisu ditu beheko solairuaz gain, eta zeharkako kalean hiru besterik ez.

Beheko pisuan aldaketak egin dira, garajea dago; gainontzekoek itxura zaharra gordetzen dute. Bestalde, guztiz ikusgarria da teilatu gainean dagoen usotegia.

Aurrealdeko bilbadura egurrezkoa da, barruan harlangaitza, adreilua eta morteroa ditu. Etxearen lehenengo pisuan, orain dela gutxi, tenperaz egindako pinturak aurkitu ziren, Orioko ontziolek XVIII. mendean izan zuen garrantziaren adierazgarri dira⁹⁰⁵.

AREIZAGA KALEA. Herriko plaza zeharkatzen du, eta, Kolon-Txiki edo Mirandanea izeneko etxea da ikusgarriena. Bi etxe arteko hormek osatzen dute etxea, eta laukizuzenezko oinplanoa du. Teilatuak teila arabiarak ditu, eta, gainaldea aurrealdearekin paraleloa da.

Lau pisu ditu eta bi fatxadak berdinak dira: simetrikoak dira, baita pisu guztietako hutsuneen konposizioa ere.

Pisu bakoitzaren erdian balkoi bana dago, aurreratuagoak daude eta, baranda, burdinezkoa da; alboetan ere leiho bana daude.

Aurrealdea harrizkoa da eta izkinetan platabandak —paretatik irteten den moldura zabal eta leuna— ditu.

Fatxadaren goialdeak, harmarri handi eta ederra du⁹⁰⁶.

HERRIKO PLAZAn, esaterako, udaletxea dago. Aurrekoa, 1965. urtean izan zen sutearen eraginez, erabat kiskali egin zen⁹⁰⁷. 2002. urtera arte zegoena, Ramon Gabarain arkitektoak egina da. Eraikin horren egitura aprobetxatuz eta Juan Eizmendi arkitektoaren diseinu berria jarraituz, 2003. urteko maiatzerako udaletxe berri bat eraiki zen.

Udala edo Kontzejua, XVI. mende hasieran elizako gela batean biltzen zen; beraz, garai horretan ez zuen berezko etxerik⁹⁰⁸. XVII. mendean, berriz, Ordenantzetan aipatzen denaren arabera, Kontzejuak etxe bat zuen, "casa del concejo e aiuntamiento", "cassa concejil"⁹⁰⁹. Ezinezkoa da jakitea non zegoen etxe hori, hala eta guztiz ere, aipamen batzuren arabera, Kontzejuak Kaiko etxean, hau da, Arriaga etxean, bazuen gela berezia. Seguruenik hor egiten zituzten batzarrak. 1846. urtean, berriz, Kontzejuak udaletxea eraiki zuen, hain zuzen, zaharberritu egin zuen. Dokumentuetan garbi ikusten da plaza edo kaia aldean zegoen edifizioa zela. Udaletxeak egurrezko eta harlanduzko bilbadura zuen, eta, laukizuzenezko oinplanoa. Hiru pisu eta ganbara zituen. Teilatua lau isurikoa zen. Aurrealdean, lehenengo pisuan, hiru hutsuneko arkuak zuen, eta, albokoetan leiho bana. Fatxadaren konposizioa simetrikoa zen. Orokorrean, XIX. mendean Gipuzkoako hainbat udaletxek zuten estilo berekoa da. Udaletxeak kartzela, ikastetxe, maisuentzat gelak eta alondegia —janaria erosteko lokal publikoa— zituen⁹¹⁰.

⁹⁰⁵Etxe horretaz gain, San Nicolas kalean honako etxeak oinarritzko babesaren barruan daude: 2, 3, 17, 19. zenbakidunak.


⁹⁰⁶Etxe hau erdi mailako babesaren barruan dago, baita hauek, 1, 32-34 zenbakidun etxeak ere.

⁹⁰⁷Udaletxea oinarritzko babesaren barruan dago.

⁹⁰⁸"En el mirador e auditorio de la villa de Orío, que es junto con la yglesia parrochial de Sennor Sant Nicolas de la dicha villa" (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.215. f. 62 [1510-II-20]).

⁹⁰⁹Udal Ordenantzak (1607) C.III, D.3.

⁹¹⁰GPAH, Ramon de Illunbe, 3/1.985 (1846-I-3).



Herriko plaza zaharra (Photomuseum Artxiboa).

EUSKO GUDARI kaleko 4 zenbakia duen etxea Ardite etxea da. Jatorrizko traza Erdi Arokoa da, baina, gero aldaketa asko jasan zituen. Ardite izena etxe alboan dagoen karkararena da.

Laukizuzenezko oinplanoa du, eta lau pisu; aurrealdea zuriz pintatua dago, beheko pisua izan ezik, harlanduzkoa baita.

Lehenengo pisuan bi hutsune daude eta hutsune bakoitzeko arku konopial zabal bana.

Bestalde, orokorrean ez da oso interesgarria, aldaketa asko jasan dituelako, eta, gainera, nahiko itxura apala du.

Etxea hirigune zaharraren sarreran dago⁹¹¹.

Eusko Jaurlaritzak, 338/1994 araudiaren arabera, Orioko Hirigune Historikoa Monumentu Multzo izendatu zuen, Kultura Ondasun gisa sailkatu eta babesteko⁹¹².

KAIAN, berriz, Kofradia etxea dago. Arkupetan arrantzaleen tresnak gordetzen dira. Etxea 1924. urtekoa da, seguruenik, beste zahar baten gainean berritua izan zen. Kaian eraiki zen etxean ikastetxea ere bazen garai batean. Bestalde, arrantzaleek, besteak beste, arrantzaren inguruko museo bat egin nahi izan zuten⁹¹³.

Hondartzarako bideak, SAN JUAN ERMITARAINO jarraitzen du, hondartza alboan dagoen mendi kozkor baten gainean dago.

San Juan ermitaren aurrealdea da elementurik erakargarriena; irekia da eta egurrezko hesi batek babesten du.

Neurriak dira: 8,9 metro luzera; 6,9 metro zabalera.

⁹¹¹1994. urtetik erdi mailako babes eremuan dago. Oinarrizko babesa dute: herriko plazako 5. etxeak, Donibane Kaleko 23ak eta Endaia etxeak.

⁹¹²EHAA, 1994ko iraila, astelehena. 183 zbk. 11.266. orr.

⁹¹³OUA, L-34 (1924-VII-10).

Ermita barruan Ama Birjina bat dago, eta esaten dutenez, itsasoan aurkitua izan zen. Bestalde, PEÑA SANTIAGOk zioen, ermita barruan zulo bat zegoela, eta eliztarrek, buruko mina kentzeko, bertan burua sartu eta Kredua errezatzen omen zuten⁹¹⁴. San Juan Bautista, Santa Isabel, Kristo eta Socorroren Ama Birjinen irudiak daude.

Oso ermita polita da, aurrealde irekiak itxura berezia ematen dio.

3. BASERRIAK⁹¹⁵

Alde zaharra haztearekin batera, herria ere zabaldu egin zen. Hain zuzen, gutxienez XVI. mendean, herriaren ekialdean, baserriak eta errotak eraiki ziren. Lusarbe, Aganduru, Aizperro, Agerre, Aldape, Errezabal, Etxeberri, Kallaberro eta Lizargarate baserrien aipamenak dira lehendabizikoak; bi errota ere azaltzen dira, Txankakoak. Baserriak eta errotak Orioko hirigunetik gertu daude, beraz, herriko inguruetara zabaldu ziren baserriak (Lusarbe etxaldeak izan ezik, herritik nahiko urruti dago eta). XVII. mendean, berriz, nekazaritzaren bultzadaren ondorioz, Elizondo, Longa, Bunioeta, Benta, Itxaspe, Anibar, eta Ernialde baserriak eraiki ziren. Baserriak ekialderantz kokatuta daude, herritik nahiko urruti. XVIII. mendean eraikitako baserrien artean, Marea Errota, Zalmaristi, Itxaiz eta Lertxundi dira, besteak beste, azpimarratzekoak. Baserri eta errota horiek herritik gertu daude eta errio aldean eraiki zituzten.

Baserri, etxalde eta errota horiek, gaur egun, oso aldatuta daude. Batzuek, lehenengo itxura guztiz galdu dute; eta beste batzuk, desagertu edo hondatu egin dira.

III. BIDEAK

Herria haunditzearekin batera, Oriok, beste herriekin harremanak izateko, bideak zaindu zituen, baita herriko bertakoak ere. Batetik, San Martinetik Igeldorako bidea jarraituz Orio Donostiarekin elkartzen da. Bestetik, Sudugaraytik Zarautzeraino doan bidea, askotan eraiki eta konpondua izan zenaren aztarnak ditugu; izan ere, Bide Erreala pasatzen zen bertatik; Oriotik Aiaraino, eta handik Tolosaraino zihoazten bideak ere baziren. Usurbilera joateko ere, Saria zeharkatuz bazen bidea. Errepide guzti horiek Gipuzkoako Probintziaren ardurapean egin ziren, hau da, bideak eraiki, berritu edo konpontzea bere esku zegoen⁹¹⁶.

Orion, Marea Errotatik hasita, Sudugarayraino doan Kostaldeko bidea, 1850-1853. urte bitartean bukatu zen⁹¹⁷. Beraz, gaur egun ezagutzen ditugun errepideak, XIX. mendean antolatuta ziren.

Sudugaray eta Arratolako pasaiak ere kontuan hartu behar dira, oso garrantzitsua izan baitzen. Esaterako, pasai horien bidez Orio Gipuzkoa barnealdeko herriekin lotzen zen, gainera, merkatal mugimendurako ere ezinbestekoa izan zen.

Hala ere, Oriok bazuen errioa pasatzeko beste pasabidea, zubia. Gaur egun geltokira doan zubia dagoen lekuan beste bat zegoen. Baina, XIX. mendean, II. Karlistadan, lehergailu batek suntsitu egin zuen. 1879an, zubia berritzeko baimena eskatu zion Orioko Udalak Diputazioari, eta lortu egin zuen. Zubi berria egiten 1882an hasi ziren, burdinezko zati batzuk bazituen ere, egurrezkoa zen⁹¹⁸.

⁹¹⁴PEÑA SANTIAGO, L.P.: *Las ermitas de Guipuzcoa*. Op. cit. 220. orr.

⁹¹⁵Ikusi IV. Mapa.

⁹¹⁶Ikusi XVI. mendeko Batzar Nagusien Aktak (DÍEZ DE SALAZAR, L. M., AYERBE IRIBAR, M. R. Op. cit.; ACHÓN INSAUSTI, J. A.: *Gipuzkoako komunikabideen historia. 2. Aro Berria (1500-1833)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1998). XVIII. mendean, udal guztiek bere propioen errenten %5a bideak konpontzeko erabiltzen zuten.

⁹¹⁷Urte horietako dokumentuek lan horien berri ugari ematen dute (GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.994-2.004 [1855]).

⁹¹⁸OUA, L-28 (1879-I-26); (1879-IV-6); C-38.7 (1881-VII-23).

Komunikazioa sendotu zuen azken berrikuntza trenbidea izan zen; Orion, 1895ean trena martxan zegoen⁹¹⁹. Trenbidearekin batera, Oriok, industrializazioaren eskutik, garapen ekonomiko berria ezagutu zuen.

IV. PORTUKO AZPIEGITURA

Baina, dudarik gabe, komunikazio azpiegiturari dagokionez, portua izan zen lokarririk funtsezkoena oriotarrentzat.

Oriori buruz egin ziren lehendabiziko aipamenetan, portuak izan zuen garrantzia garbi azaltzen da. Esate baterako, inguruetan landutako burdinaren zergak kobratzeko tokia zen. Oriok, pasabide gisa, zuen garrantzia XIV. mende bukaeran finkatu zen, bertan herri bat antolatuz. Harrezkero, Orioko portuan ontzien karga eta deskarga egin zen, Gipuzkoa eta Ipar Europa arteko merkatal loturak, besteak beste, Oriotik ere egin ziren.

Burdinaren kontrol fiskala eta merkatal harremanez gain, ontzigintzak ere garrantzi izugarria izan zuen. Herriko ontzioetan Erret armadarako ontziak ere egiten ziren, eta, gainera, flota ontziratzeko leku ona zen.

Portuak azpiegitura egokia izatea oriotarrentzat komenigarria zen, baina, baita Erregearentzat ere; arrantza, ontzigintza eta merkataritzaren garapenak eragin handia baitzuen.

Jarraian, portuaren azpiegitura nolakoa zen ikusiko dugu, eta baita arazoak ere. Horretarako, esate baterako, herritarrek bultzatu zituzten ekimenak, egindako eskaerak, kexak eta laguntza ekonomikoak aztertuko ditugu.

XIII. mendearen bukaeran, Erregeak, burdinaren gaineko zergak kobratzeko ofiziala jarri zuen Orion. Inguruan landutako burdina Oriotik sartzen eta ateratzen zen, beraz, portuan mugimendu handia izan zela badakigu; eta, ondorioz, garai hartan portuaren egoera nahikoa ona zela pentsa dezakegu⁹²⁰. Are gehiago, XIV. mendean Oriok herria izateko eskubidea lortu zuen, eta herria sortu ahal izateko arrazoia portuarekin erabat lotuta zegoen, "carga y descarga de los navíos (...) y peso y rentería del fierro"⁹²¹. Herria fundatu zenetik portuaren azpiegiturak herriaren garapenaren gaitasunean eragina izan zuen.

XVI. mendeaz geroztik, lehenengo arazoak agertu ziren. Hain zuzen, Orioko portuko sarreran, barran, itsasoaren mugimenduaren eraginez hondarra pilatu egiten zen, eta, ondorioz, oso zaila zen barratik pasatzea. Oriotarrak barra konpontzen saiatu ziren, baina oso lan gogorra eta handia zenez, Kontzejuak, Cristobal de Aganduru prokuradorea, Gipuzkoako Batzar Nagusietara bidali zuen laguntza eskatzera. Aganduruk Arrasaten —Batzar Nagusia han bildu baitzen— azaldu zuen, barraren arazoa oso larria zela eta lehenbailehen konpontzeko laguntza ekonomikoa behar zela. Baina, Probintziak esan zuen, ezin zuela laguntzarik eskaini. Handik urte betera, 1533an, Miguel de Argiain, Orioko batzar-prokuradoreak, honela esan zien Hernanin bilduta zeuden Batzar Nagusiko kideei: "haciendo relación del edificio grande que hacía en la barra, y cuán útil y provechoso sería para la Provincia, pidieron que se les repartiese alguna buena suma para ayuda para acabar el dicho edificio y reparo". Probintziak Oriori 200 dukat ematea erabaki zuen⁹²².

⁹¹⁹ZZ. AA.: *Orio, entre la ría y el mar*. Op. cit. 42. orr.

⁹²⁰Ikusi II. Atalean 1294. urtean Hamarrenen erroldari buruz emandako azalpena.

⁹²¹Ikusi Hiri-gutuna (1379) (II ERANSKINA). XVI. mendearen hasieran burdinaren inguruko gaien mugimendu handia nabarmendu zen, salerosketak, zergak... (GPAH, Miguel Gonzalez de Seguro, 2/1.214, 2/1.215...).

⁹²²Cristobal de Aganduru prokuradoreak Oriorentzat laguntza eskatu zuen, "Piden socorro e ayuda para los molles e torre e puertos" (GAO, JD- AJF, 1, 4 [1532-XI- Arrasate]). 1533. urtean, Miguel de Argianek barraren arazoa azaldu ondoren, Hernaniko Batzarrak baldintza hauek ezarri zizkion: "que no se cobren en

Probintziak emandako diru laguntzari esker, oriotarrek barran espigoia edo barra-muturra egiten jarraitu zuten; horrela sarrera sakondu egin zen, eta hondoa jotzeko arriskua gutxitu⁹²³.

Baina, barraren arazoa zerbait hobetu bazen ere, ez zen nahikoa izan. Probintziak emandako dirulaguntza bukatu zenean, Oriok Erregearengana jo zuen diru eske. Oriotarrek bazekiten Erregeari ere komeni zitzaiola barra ondo egotea, Armadarako zenbait ontzi bertan egiten baitziren eta flota ontziratzeko leku aproposa zen. Hortaz, 1574. urtean, Felipe II.a Gaztelako Erregeak, Orioko Kontzejuari Erret Probisio baten bidez, *sisa* bat ezartzeko baimena eman zion. Hau da, barratik sartu edo ateratzen ziren ontziei, bajelei, txalupei eta merkatal gaiei *sisa* ezartzeko eskubidea; horrela, urtero 200 dukat lortu zituen, eta eskubideak sei urtez iraun zuen. Erret Probisioa eman zen urte berean, 1574an, Orioko Kontzejuak Arantzel bat argitaratu zuen produktuei zegokien *sisa* zenbatekoa zen azalduz⁹²⁴.

Nahiz eta dirulaguntza guzti horiekin barra konpontzeko aukerak asko izan, ez zen sekula arazoa erabat konpondu. Kontzejuak berriro ere Erregeari laguntza eskatu zion:

*"Como es público y notorio esta villa es puerto de mar y en la entrada tiene una barra adonde con dificultad entran las naos y pinaças y zabras, y entrando dentro de la canal pueden estar más de mill navíos en la canal adentro, y qualquiera armada de navíos e fustas que Su Magestad mandóse juntar en la mar de poniente (...) los vecinos del dicho pueblo, agora puede aver coarenta años poco más o menos que començaron a hechar piedra en la dicha barra (...) por tener pocos propios e rentas y aver de costar la dicha obra más de 12.000 ducados (...) emos determinado de suplicar a Su Magestad nos haga merçed de nos dar algund horo para faser esta dicha barra, pues será en muy gran serviçio suyo"*⁹²⁵.

Erregearen interesa pizteko, Kontzejuak portuaren garrantzi estrategikoa azpimarratu zuen eskaera egiteko orduan, diru kopuru handi samarra eskatu baitzion. Garai hartan Gaztelak, gatazka politiko ugari zenez, armadarako ontziak behar zituen. Eta, horretarako, portuak eta ontziolak erabat funtsezkoak ziren. Horregatik, Oriok Felipe II.ari egindako eskaerak, inbertsio politiko erakargarria izan behar zuen.

Orio derechos a naos, navíos y fustas de esta Provinvia de más de lo que hasta ahora han pagado". Oriok baldintzak onartu egin zituen, eta horrela erantzun zion Probintziari: "obligación diciendo que ellos eran contentos de no echar por respeto de la barra que hacían, algunas imposiciones nuevas a los naturales de esta Provincia, más de lo que aquí se acostumbra, e de otorgar cualquier obligación y escritura que mandasen acudir con libramiento e poder que mandaron dar para la cobranza de los docientos ducados para ayuda del reparo de la dicha canal mandaron dar" (GAO, JD. AJI, 1, 10 [1533-XI-14/24-Hernani]). Dokumentu honen aipamena CIRIQUIAIN, M.: *Los puertos...* *Op. cit.* 140. orr.).

⁹²³ CIRIQUIAIN-ek azaltzen duen bezala, 1533. urteaz geroztik egindako lanak guztiz mesedegarriak izan ziren, Korregidorearen esanetan: "con lo comenzado se mejoró mucho la dicha barra, porque donde va y está echada la piedra se ahondó la entrada y salida de la barra e que, como se acabe el dicho reparo y el ímpetu del mar quitara del todo la arena e quedara el agoa de la canal honda, de manera que todo género de navíos puedan entrar y salir por ella sin tocar el suelo de noche ni de día con mucha facilidad" (*IBIDEM*: 140-141. orr.).

⁹²⁴1574. urteko ekainaren 2an Felipe II.ak Erret Probisioa eman zion Oriori (*IBIDEM*: 140. orr.); bestalde, 1574-X-7an, Kontzejuak Arantzela argitaratu zuen (OUA, C-V, D- 3/1). Urte berean Probintziako Batzarrek Oriori eskubide horri ekiteko froga dokumentala eskatu zion, Saiaz-eko prokuradorearen arabera, zerga hori Probintziaren zerga askearen kontrakoa baitzen. Oriok, frogak aurkeztu ondoren zerga ezartzeko eskubidea izan zuen (DÍEZ DE SALAZAR, L. M., AYERBE IRIBAR, M. R.: *Juntas y Diputaciones. Op. cit.*, T.VI, 1574-XI-14/24 Azkoitia).

⁹²⁵Miguel Gonzalez de Segurola prokuradorea, kontzejuaren izenean, Gaztelako Kontseilura joan zen (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.804 [1578-VIII-15]; R. ENPARAN-ek dokumentu hori aipatzen du: ENPARAN, R.: *Oria ibaiako ontziak. Op. cit.* 13. orr.). Bestalde, 1592an Segurola, beste oriotar batzuekin, Azkoitian bilduta zeuden Batzar Nagusietara zuzendu zen, Erregeari aurkeztu behar zion eskaera onar zezaten (GPAH, Paulo de Iturriaga, 3/1.812 [1592-XI-11]).

Kontseiluaren aurrean gaia azaldu eta eztabaidatzeko arduraduna Miguel Gonzalez de Segurola izan zen. Kontzejuak, Kontseiluarekin egindako gestioen truke, Erregeak emango zuen diru kopuruaren laurdena agindu zion Seguroolari.

Baina, Segurolak egindako ahaleginek ez zuten, orduan behintzat, fruiturik eman. Bien bitartean, Kontzejuak bestelako ahaleginak egin zituen; esaterako, 1607. urteko Udal Ordenantzetan zenbait isun ezarri zituen, eta horiekin lortutako dirua, barra konpontzeko erabili zen. Isunekin lortutako dirua, normalean, justizia kontuek eragindako gastuak ordaintzeko erabili izan zen. Baina, zenbait ataletan zehazten ziren isunekin lortutako dirua honetarako erabili zen: “obras del concejo”, “reparos públicos” edo “obra de la barra de esta dicha villa”⁹²⁶.

Baina, barraren arazoa, politikan eragin handia izan zuen pertsona batek konpondu zuen, hain zuzen, Gabriel de Hoak. 1609an, Indietako Kontseiluko Idazkari Nagusia izan zen. Berak, Segurolak hasitako lanak amaitu zituen. Horrela, aipatu urtean, Felipe III.ak Oriori 14.000 dukat eman zion, eta, oriotarrek, barra-muturra luzatu eta handitu egin zuten⁹²⁷. Lanaren arduradunak, Tiburcio de Espanoqui, erret injinerua eta Fratin izeneko hondarribitarra izan ziren⁹²⁸.

Hoak egindako lana eskertzeko, Oriok, berari eta bere emaztea zen Doña Maria de Okendo y Lasarteri eta oinordekoei, elizan hilobiak jartzeko ohorea eskaini zion. Eta, zoritxarrez, nahi baino lehenago heldu zitzaion garaia, 1610. urtean Gabriel de Hoak hil egin baitzen⁹²⁹. Baina, Oriok Hoak idazkariak egindako lanak berehala eskertu bazituen ere, ez zen gauza bera gertatu Segurolarekin. Bere oinordekoek behin baino gehiagotan eskatu zitoten Kontzejuari zor zitzaiena. Azkenean, 1637an, Valladolidideko Kantzelaritzak Segurolatarrei zor zitzaiena ordaintzeko agindu zion Kontzejuari⁹³⁰.

Hoak idazkaria hil ondoren, barrako konponketak amaitzeko aukerak ere gutxitu egin ziren. Nahiz eta lana oso aurreratua egon, laguntza gehiago behar zen erabat bukatzeko. 1611. urtean, Kontzejuak, barra-muturretik pasatzen zen burdinari zergak ezartzeko baimena eskatu zion Erregeari. Baina, Korregidoreak, Erregearen izenean, eskaera ezeztatu egin zuen⁹³¹.

Hala ere, 1612an Felipe III.ak zenbait *arbitrio* ezartzeko baimena eman zion Kontzejuari: hamar urtez, portutik sartzen eta ateratzen ziren produktuei, arbitrioak edo zerga ezar ezakeen Kontzejuak. Zergaren bitartez lortutako diruari esker, eta bere propio eta errentei esker, urtero 200 dukat inbertitzen zituen barra-muturrean⁹³². Garbi dago, Felipe III.ari ere komeni zitzaiola oriotarrek zerga ezartzea portuko lanak hobetzeko. Izan ere, bere ontzientzat babesleku ona zen, eta, gainera, Orioko ontziolen jarduerak aurrera egiteko posibilitate gehiago izango zituzten.

Lanak aurrera egin zuten, maese Antonio de Ainziondok, erregearen “caporal de la fortaleza de Fuenterrabía”k zuzenduta⁹³³.

Baina hori guztia, 14.000 dukat eta urteroko 200 dukat, ez zen nahikoa izan, Kontzejuak mailegu bat behar izan baitzuen. Garai hartan, Oriok Aiarekin auzi luze bat izan zuen errio inguruko lurren jabetzagatik. Auziak gastu handia eragin zuen, hain zuzen, 800

⁹²⁶Udal Ordenantzak, 18, 21-22, 47-50. Atalak. OUA, C.III, D. 3 (1607).

⁹²⁷CIRIQUAIN, M.: *Los puertos...* Op. cit. 141-142. orr.

⁹²⁸VEKA, Alonso Rodriguez. C/1.907/3 leg. 352 (1613).

⁹²⁹Oriotarrek Hoari eskerrak emateko honakoa adierazi zitoten: “por ser la granjería principal de la dicha villa el trato de la mar (...) la villa ha sido socorrida y favorecida (...) por la diligencia del Secretario” (OUA, C-III, D-5 [1609]).

⁹³⁰VEKA, Alonso Rodriguez, C/1.907/3 Leg. 352 (1613); GPAH, Gabriel de Arbe, 3/1.830 (1623-VII-13); GAO, CO-L.EJ. 856 (1637).

⁹³¹Erregearen dekretua abuztuaren 6an aldarrikatu zen (URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis...* Op. cit. 14. orr.).

⁹³²Felipe III.ak 1612ko ekainaren 16an, San Lorenzo del Real-en arbitrioak ezartzeko baimena eman zion Orioko Kontzejuari, bokalean kaia eraiki ahal izateko (Ikusi IX ERANSKINA, 1612). Bestalde, 1613an Kontzejuak Arantzel bat argitaratu zuen, zergak azalduz. Hamar urtez ezarri zen zerga, eta, urtero, 200 dukat bildu zituzten barrako lanak egiteko (Ikusi X. ERANSKINA, 1613).

⁹³³GPAH, Bartolome de Arbe, 3/1.828 (1615-VI-5).

dukat gastatu zituen gestioetan. Horregatik, Vicente de Segura arrantzale-kapitainari 700 dukat eskatu behar izan zion maileguan. Ordurako, Segurak Kontzejuari 300 dukat emanak zituen maileguan⁹³⁴. Segurak, arrantzan, diru asko irabazi zuen eta posible izan zuen dirua aurreratzea Kontzejuari.

Hala ere, nahiz eta dirulaguntza ugari lortu, Orioko barra arriskutsua zen. Dena den, XVII. mendean, ontziak sartu eta atera egiten ziren Orioko barra-muturretik⁹³⁵.

XVII. mendeko 20. hamarkadatik XVIII. mendera arte, itsas sarrerako lanak eten egin ziren. Gero, XVIII. mende hasieran, barratik pasatzeko arazoak areagotu egin ziren Ondorengotza-gerraren eraginez, barra-muturra erasotua izan baitzen. Martin de Jauregik, 1716an, kaia konpontzeko proiektua aurkeztu zion Kontzejuari. Hasiera batean proiektua garestiegia iruditu zitzaion, eta aurrekontua gutxitu ondoren, lanak hasi egin ziren⁹³⁶.

1775ean Erregeak, nao handiak moilan lotuta egon ahal izateko, dikea eraikitzeke baimena eman zion Oriori. Proiektuaren babeslea Donostiako Kontsulatua izan zen; injinerua, Don Julian Sanchez Bort; harriak Bernardo de Goiatek ekarri zituen. 1787an lanak oraindik bukatzeko zeuden⁹³⁷.

XVIII. mendeko lanak ez ziren barra-muturra konpontzeko izan, moilako azpiegitura sendotzeko baizik. Beraz, dikea nahiko ondo bazegon ere, barratik pasatzea arriskutsua zen⁹³⁸.

Bestalde, XVIII. mende bukaeran, Orioko Udalak barra konpontzeko, ardoa, pattarra, haragia edota olioia ekartzen zutenei, bestelako betebeharra jarri zien: barra-muturrean harriak jarri behar zituzten, "echarán una gabarrada de piedra crecida en Arrigorcia". XVI. mendez geroztik, Arregorcia edo Arrigorcia deitzen zioten eraikitzen ari ziren harresiari. Beraz, horixe izan zen XVIII. mendean bokalea hobetzeko lanik funtsezkoenetakoa⁹³⁹.

XIX. mendearen 50. hamarkadatik aurrera moilako azpiegitura hobetzeko ahaleginak indartu egin ziren berriro ere. 1851. urtean, Mutrikun bilduta zeuden Batzar Nagusiko kideei eskaera bat aurkeztu zieten oriotarrek: udaletxetik zubiraino (Kostaldekoko errepedeak zeharkatzen zuen punturaino) moila eraiki nahi zuten. Batzarkideek proiektua aztertu bazuten ere, momentu horretan ez zuten ezer erabaki⁹⁴⁰. Baina, oriotarrek ez zuten etsi; handik urte batera, 1852an, barraren egoera aztertzeko norbait bidaltzeko eskatu zion Diputazioari. Orduan ere ez zuten erantzunik jaso. 1853-1855 urte bitartean ere laguntza eskatzen jarraitu zuten⁹⁴¹. 1855ean, Gipuzkoako

⁹³⁴GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 (1616).

⁹³⁵1621. urteko Kofradiako Konstituzioetan, oriotarrek Oria ibaiko ontzioletan egiten ziren ontziak, atoian eramaten zituztela aipatzen da (Ikusi XI. ERANSKINA, 1621).

⁹³⁶Aktetan agertzen denaren arabera, lanak moilan izan ziren (OUA, C-219 [1716]).

⁹³⁷URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis...* Op. cit. 15-16. orr.

⁹³⁸1785. urteko dokumentu batean, sakonera aipatzen da, eta, nahiz eta arriskutsua izan, badirudi, nao eta ontzi askorentzat egokia zela (OUA, C-VI, D-1 [1785]; HEAA, Vargas Ponzeren Bilduma. Vol. 24. 9/4.197 [1785]).

⁹³⁹Batez ere, 1790. urtetik aurrera nabarmendu zen. Ikusi GPAH, Manuel Antonio de Illumbe, 3/1.939, 1790. urtea; 3/1.940, 1791. urtea.

⁹⁴⁰CIRIQUAIN, M.: *Los puertos...* Op. cit. 143-144. orr.

⁹⁴¹1853. urtean Oriok Probintziari egin zion eskaeraren erantzuna honako hau izan zen: "la Comisión cree que ante todo debe establecerse el principio general de que ni la construcción de un muelle en el Puerto de Zarauz, ni las obras de mejora de la barra de Orio, ni ninguna otra de semejante naturaleza deben ejecutarse, como no se han ejecutado hasta ahora por cuenta de la Provincia.

El estado de escasez en que se encuentran los fondos de la misma, el considerable déficit que su presupuesto presenta y las graves, continuas y perentorias atenciones que pasan sobre sus cajas son en concepto de la Comisión más que suficientes para no acceder a las instancias de Zarauz y Orio por atendibles que en sí sean" (Batzar Nagusien Erregistroa, 1853. urtea: URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis...* Op. cit. 17. orr.). 1854. urtean, Oriok egin zuen eskaera ere Gipuzkoako Garraio Batzordeak ezeztatu egin zuen. Urte berean, Andatzabeako Batzarrak, Orio partaide zuen, Batzar Nagusietan honako hau azaldu zuen: "Aunque era parte de la Comisión de Caminos, había dejado de suscribir el preinserto descargo porque en su concepto, siendo el río Oria el único que en Guipúzcoa tenía un astillero de consideración, debía atenderse a la reclamación del Ayuntamiento de Orio por la importancia que las obras que se ejecutasen en su barra, pudiendo dar al puerto y al astillero de Aginaga" (Batzar Nagusien Erregistroa, 1854. urtea: *IBIDEM*: 18. orr.).

Haziendako Batzordeak txosten bat egin zuen Orioko barrako egoera azalduz. Txostenaren arabera, Orioko Udalak Arribiribilla izeneko harkaitza moztea proposatu zuen, ontziek barra-mutturra pasatzerakoan zailtasun gutxiago izateko. Horretarako, Probintziak dirulaguntza eman beharko zion, gainera, Udalak Probintziari gogorarazi zion ontzigintza eta itsasoa zirela oriotarren oinarrizko bizimodua⁹⁴².

Erantzunak beti ezezkoak izan arren, Udalak ez zuen etsi, eta behin eta berriro dirulaguntzak eskatu zituen⁹⁴³.

Baina, ezetzak jarraitzen zuen, eta oriotarrek beren kabuz zerbait egitea erabaki zuten. Eta, II. Karlistadaren azken urteetatik 1890. hamarkada arte, Juan Antonio de Makazaga apaiza, oriotar gazte batzurekin batera, barra-mutur zaharraren gainean, harriak botatzen hasi ziren. Herrian hutsik zeuden etxeetatik hartu zituzten harriak, eta, gero hondartzan pilatzen zituzten lekuari "Arrigorcieta" deitu zioten⁹⁴⁴.

Makazagak eta oriotarrek hasitako lanek, XX. mendean jarraipena izan zuten; 1903an, Orioko Udalak aurrekontu berezia egin zuen, eta, barrako lanetarako 22.140,78 pta. bideratu zituen. Dirua, 22.500 pezeta, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak eman zion maileguan herriari. Arrantzaleen San Pedro Kofradiak eta Udalak ere lagundu zuten lanetan; bi erakundeek diru kantitate berdina eman zuten. Bestalde, Gaytan de Ayalak, Probintziako Injineru Nagusiak, Diputazioak ere barrako lanetan parte har zezan ahalegindu zen⁹⁴⁵. Udalak, 1903ko apirilean, honako eskutitza idatzi zion Diputazioari barraren egoera azalduz:

*"En el transcurso de cerca de tres siglos, la fuerza del mar ha deshecho toda la parte superior de la antigua muralla tirando y desparramando las grandes piedras sillares que en una extensión de 400 metros de longitud por 10 ídem de latitud fueron colocadas formando la base o cimientos de la misma, y como consecuencia de ello, toman las corrientes distintas direcciones y se forman grandes bancos de arena, cierran éstas a menudo la entrada o barra, siendo por lo tanto muy difícil y peligrosa la salida y entrada de embarcaciones aun menores de porte, o lanchas, por allí"*⁹⁴⁶.

Jose Gaytan de Ayalak barra zuzentzeko lanen proiektua egin zuen, eta lanaren aurrekontua, 44.281,56 pezetakoa izan zen. Arribiribilletik harriak ateratzeko leherketak, proiektuaren arabera, 48.862,6 pezeta balio izango zuen. Udalak esan zuen gastuen %25a ordainduko zuela, eta, Kofradiak beste %25a. Beraz, gainontzeko %50a, Probintziari zegokion; baina, azkenean, Probintziak 22.000 pezeta ematea erabaki zuen.

⁹⁴²Udalak bidalitako eskutitza, ikusi: Batzar Nagusien Erregistroa, 1855. urtea: "El Ayuntamiento de Orio lamentándose, con sentido acento, de la infructuosidad de sus gestiones anteriores sobre la pretensión que hoy reproduce, vuelve a entablarla con todo el interés que escita un negocio de que depende el porvenir más o menos venturoso de aquel puerto y el de muchos habitantes. Tratose de dejar espedito a los buques el paso de su barra, amenazado muy de cerca de su impracticabilidad, por los bancos de arena de que algún tiempo a esta parte se van formando a gran escala, que inspire ya a dicho ayuntamiento serios temores de que quede completamente cegado, imposibilitándose así la construcción naval en que cifran su subsistencia muchísimas familias. Para evitar, pues, las tristes consecuencias de un acontecimiento de esta naturaleza, el Ayuntamiento de Orio pide que se le facilite el auxilio necesario al menos para cortar la peña llamada Arribiribilla, que es en concepto de aquella Corporación, la causa de la aglomeración de los bancos de arena" (URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis...* Op. cit. 18. orr.).

⁹⁴³"En 1863 los oriotarras suplicaron a la Provincia que ésta facilitase la cantidad de 20.000 reales para la recomposición de los muelles y la colocación de amarraderos. La Comisión de Obras Públicas de las Juntas Generales no se posicionó sobre el tema, pasando el asunto a la Diputación. Ésta nada hizo (...). En 1867 nuevamente volvió a pedir Orio, a través de la Unión de Andatzabea, ayuda económica para la reparación de sus muelles. Vista la poca fortuna de las gestiones anteriores, suplicó a la Diputación la concesión de 12.000 reales únicamente, asegurando que el pueblo de Orio aportaría los 8.000 restantes para lograr así la suma de 20.000 reales necesarios para la realización de los trabajos. No se tomó acuerdo positivo alguno y el asunto quedó olvidado" (*IBÍDEM*: 19. orr.).

⁹⁴⁴1877an, arrantzale batzuek Udalarri barran zegoen Arrizorroza izeneko harkaitza lehortarazteko baimena eskatu zioten. Baina, oriotarren ustetan, harkaitz horiek, barrako sarreran hondarra pilarazten zuten. Azkenean, proiektuak ez zuen aurrera egin (OUA, C-36 [1877-VI-24]). Makazagaren ekimenen aipamena, ikusi: XIV. ERANSKINA, 1889).

⁹⁴⁵Udalaren aurrekontua 1903ko otsailaren 13an aurkeztu zen; Kofradiaren partaidetza, eta hurrengo egunean jakinarazi zen (OUA, C-101.2).

⁹⁴⁶OUA, C-101.2 (1903-IV-21).

Dena dela, 1903. urte bukaeran, Diputazioak Arribiribilletik harriak lortzeko leherketak egitea ezeztatu egin zuen⁹⁴⁷.

Aurreneko tramiteak egin ondoren, 1904. urtean, Udalak lanak egiteko enkante publikoa antolatu zuen. Lau kontratista aurkeztu ziren eta, azkenean, Francisco de Sarasola y Gallastegui hondarribitarra izan zen aukeratua. Hondarribitarrak bi urteko epea zuen lana egiteko, eta, 39.475 pezeta. Honela ordainduko ziotela ageri da dokumentuetan: "En buenas monedas de oro o plata con exclusión de todo papel moneda". Eta, lehen esan bezala, proiektua Jose Gaytan de Ayalarena zen. Bestalde, Udala eta kontratistaren arteko akordioan, Arribiribilla, Txerribelarra eta Muskuluarritik ateratako hareharria erabiliko zela aipatzen da⁹⁴⁸.

Kontratua sinatu ondoren, 1903-1905 urte bitartean, barra-muturreko lanak martxan zeuden. Baina, 1906an, zenbait arazo sortu ziren, eta, Francisco de Sarasolak Diputazioari esan zion, ibaiaren inguruko lurak —erriberetakoak— babesteko hormak eraikitzea komenigarria zela, bere ustetan, lurak kaltetuta geratzeko arriskua zegoelako. Probintziak, eskaera aztertu ondoren, 6.000 pezetako laguntza ematea erabaki zuen⁹⁴⁹.

1907. urterako, erribera babesteko hormak eta barra-muturreko lehenengo lehen zatia egina zegoen. Eta, bigarren zatiri ekiteko, Udalak Gipuzkoako Aurrezki Kutxari, batetik, 4.000 pezeta eskatu zion maileguan, eta bestetik, moila hobetzeko beste 6.000 pezeta. Kutxak dirua eman zion Udalari, eta, Udalak, hamar urteko epean, diru kantitate hori gehi %4,5a bueltatzeko konpromezua hartu zuen. Kofradiak ere parte hartu zuen ordainketan⁹⁵⁰.

1904. urtean hasitako lanak 1910an bukatu baziren ere, Udala konturatu zen, egin berria zen barra-muturra luzatu eta zabaldu egin behar zela. Berriz ere, lanak egiteko aurrekontua prestatu zuten, 12.000 pezetakoa izan zen, eta, Diputazioak onartu egin zuen. Bestalde, Udalak aurreko lana erabat ordaindu gabe zuen, 3.000 pezeta zor zituen. Azkenean, 15.000 pezeta, Udalak eta Kofradiak ordaindu zuten erdibana.

1910. urteko uztailaren 3an, lanak nork egingo zituen erabakitzeke enkantea egin zen, eta sei kontratisten artean, irabazlea Jose Justo de Arruti y Artabe jauna izan zen. Kontratista donostiarrak esan zuen, lau hilabetetan eta 8.600 pezetaren truke egingo zituela lanak⁹⁵¹.

Baina, arazoa ez zen konpondu. 1913an Kofradiak eta Udalak erabaki zuten beharrezkoak ziren azterketak eta proiektuak bien artean finantziatzea. Hortaz, 1914an lehenengo planoak egin ziren eta Udalak Calbeton ministro eta senadore jaunari, Diputazioari eta Hondarribiari laguntza eskatu zien, Oriok "Babes portua" titulua lortzeko⁹⁵². Horrela, portuko lanek Probintziaren arreta mereziko zuten eta. Jarraian, Udalak Calbeton ministroari bidalitako eskutitza:

⁹⁴⁷"En la Diputación hubo sus más y sus menos, pues un señor diputado creía que publicado el Real Decreto de 13 de marzo de 1903, para favorecer a los pueblos ribereños que tuvieran necesidad de mejorar sus condiciones portuarias, debía el Ayuntamiento dirigir su súplica al poder central, propuesta que otro de sus compañeros consideró si no atentatoria al Fuero, que ya no existía, sí poco airosa para la Provincia. Salvado este pequeño incidente (...) la Diputación acordó contribuir a las obras del murallón con 22.000 pts. y que si hicieran aquéllas bajo su vigilancia" (CIRIQUIAIN, M.: *Los puertos...* Op. cit. 144. orr.). 1903ko abenduaren 1ean, Diputazioak Arribiribilleko harkaitza lortzeko leherketa gastuak ez zituela ordainduko esan zuen (OUA, C-101.2).

⁹⁴⁸OUA, C-101.2 (1904-VIII-13).

⁹⁴⁹"La Diputación acordó conceder una nueva subvención para prolongar el dique de encauzamiento, reconstruido a la sazón, hasta su encuentro con el dique de ribera antiguo, con objeto de defender de las grandes marejadas los terrenos de labrantío de la vega oriental" (CIRIQUIAIN, M.: *Los puertos...* Op. cit. 144. orr.; Diputazioaren erantzuna, ikusi: OUA, C-36 [1906-X-26]).

⁹⁵⁰URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis...* Op. cit. 23. orr.

⁹⁵¹ Jose Gaytan de Ayalak egindako proiektua indarrean zegoen (OUA, C-101.2 [1910-VII-30]).

⁹⁵²1913an Kofradiak Udalarari portuko hobekuntzari buruzko azterketa bien artean egitea proposatu zion, eta, Udalak baietz esan zuen. 1914ko otsailaren 26an, bestalde, Udalak Calbetoni, Diputazioari eta Hondarribiari laguntza eskatu zien (URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis...* Op. cit. 24. orr.).

"Excmo. Sr. Ministro de Fomento. El que suscribe, Alcalde Presidente del Ilustre Ayuntamiento de San Nicolás de Orio (Guipúzcoa), en nombre y representación del mismo Vd. con el mayor respecto y consideración expone:

Que la peligrosísima barra del río Oria, rémora constante para el desarrollo y florecimiento de esta villa, la que siempre tropieza para su desenvolvimiento con este escollo, salvado gracias al esfuerzo tenaz de sus hijos, reputados todos ellos desde tiempos antiguos, no sólo como marineros y pescadores más avezados en sus tareas, sino como especialistas en obras hidráulicas y en construcciones navales y de anclas, obligan a esta Corporación a llamar la atención a Vd. sobre la necesidad imprescindible que existe de que en este puerto se acometan las obras de mejoramiento de dicha barra estudiando la playa y embocadura del río, evitando de este modo la gravedad de lo que viene ocurriendo, la poca seguridad que tiene la vida de estos pescadores, como sucedió últimamente el día 23 de mayo anterior, en cuya fecha estuvo a punto de naufragar la lancha a vapor, de pesca, "Perlacho" de San Sebastián, no pereciendo toda la tripulación por el auxilio que con grandísimo peligro le prestaron los marinos de este puerto. Últimamente el Ayuntamiento de esta villa y la Cofradía de Mareantes de San Nicolás haciendo un verdadero sacrificio han colocado algunas luces en enfilación para aminorar el peligro constante que ofrece la barra; pero estas medidas no son suficientes.

Como dato importantísimo para comprender la necesidad de las obras que se pretenden, debo hacer presente, que consta esta dicha villa de 13 vapores de pesca y 100 embarcaciones a vela, dedicadas todas ellas a la pesca, y el desarrollo industrial lo prueba el que en los últimos cinco años ha sido de 1.055.280 pts y 37 céntimos el movimiento industrial producido por la pesca de red, realizada en los cuatro meses de verano, única época del año en que puede realizarse la pesca por las malísimas condiciones de la barra, y la del anzuelo en el mismo plazo y condiciones ha sido de 500.325 pts., en cuya proporción han contribuído a las cargas generales del Estado y Provincia.

Pues bien, Exmo. Sr., a pesar de este movimiento, Orio es el único puerto que no ha recibido todavía por parte del Estado favor ni ayuda alguna, pues las pequeñas obras realizadas, lo han sido con fondos de la Exma. Diputación, de esta Ayuntamiento, de la Cofradía de Mareantes, y de su inolvidable párroco D. Juan Antonio de Macazaga (q.e.p.d.) que costeó algunas de su peculio particular.

La barra es tan peligrosísima que no obstante, la habilidad y el valor de los hijos de Orio, pocos son los mareantes que puedan decir que no han naufragado varias veces y, en cuanto en el Cantábrico se inicia la menor perturbación, queda cerrada la barra, y cuando las embarcaciones son sorprendidas fuera de ella, ninguna se atreve a refugiarse en esta hermosa ría, sin exponerse a una catástrofe como viene ocurriendo tristemente repetidas veces; y si ésto es sensible, en el presente caso lo es mucho más, porque según cuenta la opinión de los inteligentes con los cimientos con que se cuenta, el Estado con un presupuesto relativamente reducido podría mejorar las condiciones de entrada de este puerto contribuyendo de este modo además del desarrollo industrial del mismo, a salvar la vida de muchos de sus hijos.

Por todas estas razones, de verdadera humanidad, porque el puerto de Orio contribuye a las cargas del Estado en mayor proporción que la mayoría de las de España, más favorecidas por la suerte, y avocando los recuerdos históricos de esta villa y su río, donde hace no más de medio siglo se construyeron embarcaciones para la Real Armada y la Marina Mercante, y las nombradas para las escuadras de España y Francia etc., es por lo que acuden a Vd. en

SUPLICA de que teniendo en cuenta estas consideraciones, sea favorablemente acogida la presente petición y en su consecuencia disponer que por este Ministerio del digno cargo de Vd. se ordene a

la Jefatura de Obras Públicas de la Provincia que por los ingenieros de la misma se proceda con toda rapidez a formular y redactar el oportuno presupuesto de las obras necesarias a realizar en este puerto, y una vez aprobado que sea el mismo, que se proceda a su ejecución consignado al efecto en los presupuestos de Estado la cantidad necesaria en una o varias anualidades, con lo que le quedarán eternamente agradecidos todos sus habitantes, y perdurará el nombre de Vd. en esta dicha villa.

Justicia que esperan obtener de la reconocida rectitud de Vd. cuya vida guarde Dios muchos años.

*Orio, 20 de junio de 1914*⁹⁵³.

Ahalegin handiak egin ondoren, azkenean, 1915ean, Probintziak Orioko portuko lanetan laguntzea erabaki zuen. Hain zuzen ere, Calbetonek eta Renfigo senadoreek, Orioko portua “Babes eta interes orokorrekoa” izendatzeko lege proposamena Senatuan aurkeztu zuten, titulua lortuz gero errazagoa baitzen hobetze lanak egitea. Baina prozesua eten egin zen, Datoren Alderdi Kontserbadorea erori eta Gorteak desegin baitziren. Calbeton jaunak, denbora irabaztearren, gaiaren ardura Gipuzkoako Herri-lanen injineruari eman zion, Alberto Matxinbarrena jaunari. Era berean, Matxinbarrenak, Orioko portuari buruzko hobekuntza lanak aztertu ondoren, Sustapen Ministeriora igorri zuen⁹⁵⁴.

1916an Gorteak berriz antolatu ziren eta, senadoreak Orioko portuak aipatu titulua lor zezan saiatu ziren. Baina, ez zuten ezer lortu, Gorteak, berriro ere, desegin zirelako. Gorteen bidez gauza gutxi egin zitekeela ikusita, Itsas Ministerioaren bidez egiten saiatu zen Udala. Honakoa azaldu zion:

"(...) no es necesario la declaración a favor de este puerto de Interés General y de Refugio, siempre que V.E. le preste su valioso y decidido apoyo en cuestión tan trascendental y grave.

Existe una ley de fecha de 30 de Diciembre de 1912, por la que se ordenó el inmediato estudio e implantación de uno o varios Observatorios Metereológicos que interesan a los pescadores en las costas N. y N.O. de España.

*Pues bien Exmo. Sr., el artículo 2º de la misma dice lo siguiente: 'el Ministro de Marina determinará con urgencia los puntos que reúnan mejores condiciones para servir de escala y abrigo a mayor número de embarcaciones de pesca en caso de mal tiempo, y por el de Fomento se dispondrá las obras y habilitaciones necesarias en ellos'*⁹⁵⁵.

Baina ahalegina alferrikakoa izan zen, Itsas Ministerioak 1916ko urrian eskutitza bidali baitzion eskaera hori ezeztatuz⁹⁵⁶.

Barrako arazoetaz arduratzeaz gain, Udalak eta Kofradiak portuaren inguruko eraikinak hobetzeko lanari ekin zioten.

⁹⁵³OUA, C-101-2 (1914-VI-20).

⁹⁵⁴Registro de Actas de la Diputación (1915-1916): URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis...* Op. cit. 27. orr.

⁹⁵⁵OUA, C-101-2 (1916-VII-21).

⁹⁵⁶URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis...* Op. cit. 28. orr.

1917an, Erregeak, Oria ibaia nabigagarria zen zonaldean, kaia zabaltzeko baimena eman zion Udalari, baimena bakarrik, laguntza ekonomikorik ez baitzuen eman Erregeak. Beraz, Udalak beste mailegua eskatu behar izan zuen. 1918. urteko otsailean lanak hasiak ziren, baina, arazo ekonomikoengatik, 1921 eta 1924. urteetan, Oriok luzapenak edo prorrogak eskatu behar izan zituen. Lanen ardura Udalak bakarrik zuenez, eta dirutza izugarria zenez, 1936. urtean, kaiaren mantenimentua Estatuak bere ardurapean har zezan eskatu zuen Oriok, eta, ordainetan, kaiaren jabetza Estatuari eman⁹⁵⁷.

Baina, ustekabeen, Calbeton jaunak 1918an hasitako gestioek, 1919an erantzuna izan zuten, Orioko kaia "babes eta interes orokorrekoa" izendatua izan baitzen; beraz, lanak berehala hasi ziren⁹⁵⁸. 1920ko azaroaren 4an, lanak egiteko enkante publikoa egin zen, baina, Kofradia eta Udala, kotratistarik aurkeztuko ez zenaren beldur zirenez, Diputazioari honako eskutitza bidali zioten:

"Hace ya unos 300 años que los oriotarras sienten verdaderas ansias de ver mejorada la entrada de su puerto, comprendiendo que las márgenes del río más caudaloso de Guipúzcoa, navegable al mismo tiempo en seis o siete kilómetros, pudieron servir a la intensificación y desarrollo de la industria y comercio, y cuando menos ser un excelente puerto de pesca; pues es de notar a este respecto, que la desembocadura del Oria, precisamente por su hermoso cauce es el punto donde siempre ha sido más abundante la pesca de la anchoa y especialmente de la sardina, de la que aún hoy en día, se recoge mayor cantidad que en todos los demás puertos de la Provincia juntos, y por su equidistancia de las tres capitales hermanas gracias a los ferrocarriles secundarios, es el llamado a ser el verdadero puerto de pesca de Guipúzcoa (...) SUPPLICAN, que al igual que lo ha hecho la Excma. Diputación de Vizcaya recientemente en las de varios de sus puertos, acuerde declararse parte en la referida subasta, presentando una proposición con el exclusivo objeto de evitar que quede la misma desierta".

Eskutitzak eragina izan zuen, egun batzuetara, Julian de Elorza jauna, Diputazioko Presidentea, aurkeztu baitzen kontratista izateko⁹⁵⁹.

1921. urteko otsailean, Udalak barrako lanen ardura "Obras y Construcciones Hormaetxe, S.A." enpresari ematea erabaki zuen. Hormaetxek esan zuen 10 hilabetetan bukatuko zituela lanak; martxoan hasi ziren, eta jai handi bat antolatu zuten herrian lanen hasiera ospatzeko⁹⁶⁰.

Lanek aurrera egin zuten, baina, 1922. urteko azaroan, nahiz eta Udalak Hormaetxeak egindako lanak ontzat hartu, nahikoa ez zela pentsatu zuen. 1923. urteko otsailean barra-muturra 200 metro luzatu zen, eta modu horretan amaitu ziren lanak⁹⁶¹.

Baina, esan dugun bezala, Udalaren ustetan lanak ez ziren nahikoak izan eta 1924an beste proiektu bat aurkeztea erabaki zuen. Oraingoan, barra-muturra beste 180 metro luzatzea erabaki zen. Ignacio de Arteagak hartu zuen lanaren ardura eta 1927an

⁹⁵⁷ *IBIDEM*. 31. orr.

⁹⁵⁸ CIRIQUIAIN, M.: *Los puertos...* Op. cit. 144. orr.

⁹⁵⁹ OUA, C-101-2 (1920-XI-4).

⁹⁶⁰ OUA, C-101-2 (1921-III-1).

⁹⁶¹ OUA, C-101-2 (1922-XI-14), (1923-II-3).

bukatu zuen. Hala ere, barra-muturra luzatzearekin ez zen hondar pilaketaren arazoa konpondu. Honela azaldu zuten gerora:

*"Al prolongar la escollera no se conseguía más que desplazar aquella hacia la terminación de ésta, puesto que la formaban las arenas que en su movimiento de retorno Este-Oeste, rebasaban la punta de la escollera y quedaban detenidas por falta de empuje hacia la variante"*⁹⁶².

Azkenean, barrak sakontasunean irabazi egin zuen, baina, hondarra oraindik ere pilatu egiten zen. 1932. urtean, barratik atera edo sartzea zaila zenez, arrantzontziek, gutxienez, urte erdia eman zuten lanik egin gabe, lehorrean. Horregatik, eskatu zion Kofradiak Udalarari barran behin-betiko eraikuntza sendoa egiteko. Udalak onartu egin zuen proposamena eta Gipuzkoako Portu arduradunarengana jo zuen, eta, dikea luzatzeko proiektua ikusi ondoren, gastuen %25a Udalarari zegokiola erantzun zuen. Bestalde, 1932. urtea baino lehen, Oriok "Babes eta interes orokorreko portua" izeneko titulua galdu egin zuen⁹⁶³. Udalak ez zuen hainbeste diru, eta berriro, Diputazioara jo zuen dirulaguntza eske. Diputazioak erantzun zuen gastuen erdia ordainduko zuela, 13.147 pezeta, alegia; eta, gainontzekoa, Udalarari eta Kofradiari zegokiela. Kantitateak adostu ondoren, barrako lanak —guztira 105.181,60 pezeta— Herri-Lan Ministerioak onartu egin zuen⁹⁶⁴. Lanak 1933-1934 urte bitartean bukatu ziren. Azken lan horiei esker, itsas-sarrera estutu egin zen, —200 metro zituen hasieran, eta gero, 160 metro— eta sakonera handiagoa lortu zen⁹⁶⁵.

Ordurarte egindako lanak hobetzeko, 1935ean, Gipuzkoako Portuetako Batzordeko Injineru Nagusiak, Ramon de Iribarren jaunak, proiektu bat aurkeztu zuen, hondarraren mugimendua gutxitzeko. Proiektuan azaltzen zuen, barra gehiago estutu behar zela —100 metrotan utziz— urak abiadura handiagoa izan zezan eta hondar gutxiago pilatzeko⁹⁶⁶. Proiektua aurrera eramateko Diputazioak laguntza eskaini zion Oriori, hain zuen, gastuen %12,5a ordainduko zuela esanez. 1936an lanak 255.080,90 pezetako kostua izango zuela erabaki zen. Baina, ezinezkoa izan zen lanak hastea, Gerra Zibila hasi baitzen; beraz, 1939. urtera arte ez ziren lanak hasi⁹⁶⁷.

Laburbilduz, XVI. mendeaz geroztik, oriotarrek, Orioko barra konpontzen ahalegin izugarriak egin dituzte. Bestalde, garrantzi handia zuen, bai oriotarrentzat, bai Probintziarentzat, eta baita Estatuarentzat ere; besteak beste, merkataritza, ontzigintza eta arrantzaren garapenerako ezinbestekoa zelako. Horrexegatik lortu zituen Oriok erakunde desberdinen laguntza. Dena dela, beste askotan, oriotarrak izan ziren bultzatzaile nagusiak.

Barraren arazoak eta irtenbideak aztertuz, argi ikusten da, batetik, oriotarrak oso kementsuak izan zirela, lau mendeetan zehar ahalegin izugarriak egin baitzituzten. Eta, bestetik, Orio garrantzi handiko herria izan zela, bai Probintzian eta baita Estatuan ere.

⁹⁶²CIRIQUIAIN, Los puertos... *Op. cit.* 145. orr.

⁹⁶³OUA, C-101.2 (1932-IX-20).

⁹⁶⁴OUA, C-101.2 (1932-XII-30).

⁹⁶⁵Lan kontratuak: O.U.A. C.101-2 (1933-VII-28); URRUTIKOETXEA, J.: *Análisis...* *Op. cit.* 34. orr.

⁹⁶⁶CIRIQUIAIN, M.: *Op. cit.* 145. orr.

⁹⁶⁷OUA, C-101-2 (1935-IV-2), (1936-III-27).

VIII. ATALA. ORIO ETA ORIOTARREN IZAERA. KULTUR AGERPIDEAK

Orio herriaren bilakaera historikoa aztertuz, oriotarren zenbait joera eta ohitura ikusi ditugu. Hain zuzen ere, garapen ekonomikoaren norabideak, biztanleriaren antolaketak, krisialdiak eta susperraldiak eta gobernuaren jarduerak, eta, horiek guztiek, besteak beste, Orioko ibilbide historikoaren eta oriotarren izaeraren bereizgarria izan dira. Beraz, garapen historikoak berak erakusten dizkigu oriotarren kultur joerak eta ohiturak.

Jarraian zenbait ezaugarri aztertuko ditugu, hain zuzen, herriak zituen osasunbideak, irakaskuntzarako azpiegitura, herrian ospatzen ziren festak eta horiek erlijioarekin zuten lotura, onegintza —on egitearen ekintza— eta hizkuntza.

I. OSASUNBIDEAK

Osasunbideek eta azpiegituraren antolaketak eragin nabarmena izaten dute biztanleen bizimoduan, bai Orion, eta bai edozein tokitan ere. Herri bateko oinarrizko osasun zerbitzuak dira: medikua, zirujaua, kale garbiketa, hondakin bilketa eta gaixotasunei aurre egiteko sistemak. Osasunbideari dagokionean, horiek dira edozein herriren oinarrizko elementuak.

1. MEDIKUA

Osasun zerbitzurik garrantzitsuenetakoa da medikua. Aurkitutako dokumentuen arabera, Oriok ez zuen medikurik izan XVII. mende hasiera arte⁹⁶⁸. Eta, horrek, eragin zuzena izan zuen biztanleriaren hazkunderan, gaixotasun eta gaixo asko tratamenturik gabe geratu baitzen. Guzti horren arduradunak Orioko gobernuko agintariak ziren, beraiek kontratatu eta ordaindu behar baitzuten medikua.

XVIII eta XIX. mendeetan, Zarauzko sendagileak ziren oriotarren osasun zaindaria. Zarauzko medikua etortzen zen bisitan Oriora hamabostean behin, eta, familiek ematen zuten diruarekin ordaintzen zitzaion soldata⁹⁶⁹.

Zarauzko sendagileak ez zituen Arratola eta Sudugaray pasaietako ontziekin egindako joan etorriak ordaindu behar eta, edozein larrialditan, ahalik eta azkarren etortzeko aukera zuen. Era berean, Kontzejuak eta medikuak sinatutako kontratuaren arabera, medikuak ere betebeharrak bazituen; esaterako, bere beharra zuen edozeinek, ordaintzerik ez bazuen, medikuak ezin zion ezer kobratu⁹⁷⁰. Beraz, badirudi Orioko agintariak aintzat hartu zutela medikuaren beharra.

⁹⁶⁸Adibidez, 1614. urtean, Seguroa lizentziatua zen Orioko medikua; Kontzejuak ordaintzen zion soldata (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.827 [1614-IV-29]).

⁹⁶⁹XVIII. mende hasieran familia bakoitzak sendagileari ezkutu erdia ordaintzen zion; 1716an, berriz, ezkutu bat; XVIII. mende bukaeraz geroztik, familia bakoitzak, lehenengo bisitaldiaren truke 4 erreal kuarto ordaindu behar zizkion, eta, bigarrenarengatik, 2 (OUA, C-219 [1708-X-21], [1716-XI-22]; C-223-1 [1784-XI-7]).

⁹⁷⁰Esaterako, Don Pedro Simon de Segura, mediku zarauztarrarekin egindako kontratuan argi ikusten dira abantaila eta baldintza horiek (GPAH, Juan Bautista de Gorostidi, 3/1.957 [1810-IV-2]).

2. ZIRUJAUUA ETA BIZARGILEA

XVII. mendetik aurrera, Oriok zirujaua izan zuen. Zirujauaren lana zain-ebakuntzak egitea zen, zenbait gaixotasun sendatzeko modua zainak ebakitzea baitzen, odol kutsatua ateratzen zen eta gaixotasuna sendatzen zen. Ofizio horretan aritu ahal izateko titulua behar zen, hain zuzen, Madrilen lortu ohi zena. Oriok izan zituen zirujauak ere tituludunak izan ziren⁹⁷¹.

Zirujauak barberu lanetan ere aritu ohi ziren. Batzuetan, denda modukoa izaten zuen, eta besteetan, etxez etxe joaten zen. Oriotarrek, zirujauak egindako lanaren truke, astero kopuru bat ordaintzen zioten⁹⁷².

Zirujauak, sendagileak bezala, betebeharrak batzuk zituen; gaixoren batek arazo ekonomikoak bazituen zirujauaren lana ordaintzeko, doan aritu behar zuen. Bestalde, lana ondo ez bazuten egiten zirujau titulua kentzen zitzaion eta ofizioa utzi behar izaten zuen⁹⁷³.

Sendagile eta zirujauen zerbitzuez gain, Kontzejuaren ardura zen oriotarren jan-edan beharrak asetzea. Eta, gaixoei, lehenetsia zuten ardoa eta haragia jasotzerakoan. Esaterako, Garizuma garaian izan ezik, Kontzejuak urte osoan izaten zuen haragia herritarrentzat. Baina, salbuespenak ere egiten zituzten, eta gaixoentzat beharrezkoa izanez gero, haragia eta ardoa ekartzen zuten⁹⁷⁴.

3. HERRIA OSASUNTSU MANTENTZEKO BESTELAKO NEURRIAK

Gaixotasunak edo izurriteak eragozteko ere Kontzejuak ahaleginak egin zituen. Oriora itsasontzi ugari sartzen zen eta Kontzejuak oso erne egon behar izaten zuen. Esaterako, XVI. mendean, Nafarroako zenbait herritan izurriteak izan ziren, eta izurritea kutsatzeko beldurrez, Kontzejuak Gipuzkoako herri batzuetan galdetu zuen ardoa nondik ekartzen zuten. Azkenean, Tolosak bezala, ardoa Garesetik ekartzeko baimena eman zuen Kontzejuak⁹⁷⁵.

Gipuzkoak, eta baita Erregeak ere, edozein tokitan izurritea edo gaixotasuna zela jakitean, portu guztietara helarazten zuen berria, eta, toki horietako produktuei edo pertsoneri sarrera debekatzeko agindua bidaltzen zuen⁹⁷⁶.

4. HERRIA GARBI MANTENTZEKO NEURRIAK

Bestalde, herria osasuntsu izateko garbitasuna ere kontuan hartu behar da. Esaterako, abereak, kaleak eta plazak garbi izatearen ardura zuen Kontzejuak. Adibidez, abereak kalean ibiltzen ziren, eta zikinkeria handia sortzeaz gain, gaixotasunak kutsatzeko arriskua handia zen. XVIII. mendean Kontzejuak askotan eman zituen abereak kalean libre ez uzteko aginduak, baina, hala ere, ez zuen askorik lortu. Orioko bikarioa ere, kexatu izan zen, txerriak kaleetan, plazan eta elizan ere ibiltzen zirelako⁹⁷⁷.

⁹⁷¹Dokumentazioaren arabera, Orioko aurreneko zirujau tituluduna Francisco de Olaskoaga izan zen, Madrilen lortu zuen bizargile eta zirujau agiria (GPAH, Francisco de Gaztañaga, 3/1.872 [1675-XII-21]).

⁹⁷²Halaber, XVIII. mendean zain-ebakuntza bakoitzagatik 2 erreal kuarto zegozkion; eguneroko bisitagatik, erreal bat; dandan astean behin bizarra mozteagatik, 6 erreal; etxean astean bitan bizarra mozteagatik 16 erreal (GPAH, Manuel Antonio de Illunbe, 3/1.941 [1792-XI-26]).

⁹⁷³Nicolas de Oliden Orion 1710-1713. urte bitartean "sangrador y cirujano" izan zen, eta, istripu baten ondorioz ikusmena galtzen ari zenez, Kontzejuak kalera bota zuen, bere lanean arduragabeko joera izan zuelako eta oriotarrentzat kaltegarria izan zitekeelako (OUA, C-219 [1713-X-22]).

⁹⁷⁴Orioko Kontzejuak, Garizuma garaian, gaixoei haragia behar bazuten eman egiten zien. Haragia erosterakoan, kontratuan, beti aipatzen zen salbuespenak egon zitezkeela (OUA, C-221-1 [1750-III-1]).

⁹⁷⁵Leku horietan ez zegoen ez izurrite ezta gaixotasun kutsakorrik ere, beraz, ardoa handik ekarri zuten (GPAH, Domingo de Hoa, 3/1.787 [1566-VIII-29]).

⁹⁷⁶1720an, gaitzen kutsadura uxatzeko, portuetan erne egoteko eskutitza jaso zuen Orioko Kontzejuak (OUA, C-219 [1720-IX-8]). Beste batean, Levanten izurritea zegoelako, Oriori hango gaiak ez ekartzeko agindua eman zioten (OUA, C-222-2 [1726-XII-21]).

⁹⁷⁷Abereak herrian zehar ibiltzea debekatuta zegoen arren, behin baino gehiagotan kexak jaso zituen Kontzejuak. XVIII. mendean zehar Kontzejuak abereen kontrako aginduak eman zituen isunak ezarri; baina, normalean ez ziren betetzen (OUA, C-219, C-222-2 [1711-1745]). Txerrien jabeek lehenengo aldiz dukat 1eko isuna ezarri ohi zien; bigarrenaldian, 2 dukat; eta, hirugarrenean, jabeek aberea galtzen zuten (GPAH, Juan Beltran de Illunbe, 3/1.928 [1780-IX-30]).

Bestalde, baratzetan ere kalte izugarriak eragiten zituzten abereek; artoa, garia eta bestelako aleak jaten zituzten, eta uztak bertan behera uzten zituzten. Kontzejuak, kalteak eragozteko, Ordenantzetan zenbait arau eman zituen; esaterako, txerriak eta behiak baratzetan eta mendietan ibiltzea debekatu zuen⁹⁷⁸.

Bestalde, herria garbi mantentzeko, Orioko Kontzejuak, Ordenantzen bidez, arauak ezarri zituen. Esate baterako, larunbatero, herritar guztiek etxe aurreko kaleak garbitu behar zituzten. Horrela zioen, “aya linpieça, porque de no azerlo así suelen causar enfermedades contagiosas”. Zaborrak kalera botatzea ere debekatu egin zuten; izan ere, zikinkeriak botatzeko toki aproposagoa bazuten oriotarrek, hain zuzen, Iturrazpuru izeneko zabortegia. Harakinek ere han bertan hil ohi zituzten behiak, ahuntzak, bildotsak eta bestelako abereak⁹⁷⁹.

Suteak gutxitzeko neurriak ere hartu zituen Kontzejuak. XIX. mendera arte, etxe gehienak egurrezkoak ziren, eta beraz, oso normala zen suak hartzea. Normalean tximiniak piztuta uzteagatik gertatzen ziren, eta horregatik, Kontzejuak agindu zuen, etxe bakoitzean urez betetako bi errada —ontzi— izatea⁹⁸⁰. Bestalde, kalean sua zuten makilekin ibiltzea debekatuta zegoen.

II. ONEGINTZA

Oriok, historian zehar, pobreei eta beharrak zituztenei laguntza eskaini izan die. Batzuetan, Udalaren ekimena izan zen; baina, bestetan, herritarrek bultzatu zuten laguntza.

Kontzejuak, ospitalea, Errosarioaren kofradia, gatibuen salbamenerako kofradia, limosnak banatzea... bultzatu zuen.

Lehen aipatu bezala, arazo ekonomikoak zituztenek ez zuten mediku eta zirujauaren zerbitzuak ordaindu behar izaten; Garizuman, nahiz eta haragia jatea debekatuta egon, gaixoei behar adina haragi banatzen zien Kontzejuak⁹⁸¹. XVIII. mendean, Kontzejuak, bere gain hartu zuen babesik ez zuen haur bat, herriaren izena abizentzat hartu zuen eta, gainontzeko behartsuek jasotzen zuten laguntzaz gain, haur honi lana eman zion Kontzejuak⁹⁸².

Bestalde, Orioko Kontzejuak, gainontzeko herriek bezala, XVIII. mende bukaeraz geroztik, Probintziako “Haurren Etxea” diruz lagundu behar izan zuen. Horretarako, ardoa eta pattarra saltzen zutenek diru kantitate jakin bat ordaindu behar zien udalei, eta biltzen zena, ezkontzaz kanpo sortutako haurrak laguntzeko erabiltzen zen. Hain zuzen, pitxar ardo bakoitzeko erreal bat ordaindu behar zuten eta pitxar pattarreko 2 erreal⁹⁸³.

XIX. mendean ere laguntzen ziren gaixoak, pobreak eta ezkontzaz kanpo sortutakoak. Bestalde, II. Karlistada garaian, Orion bazen pobreen etxea, hain zuzen, Portuenea zuen izena⁹⁸⁴.

⁹⁷⁸1607. urteko Udal Ordenantzeta 31 eta 32. atalak (OUA, C.III, D.3 [1607]).

⁹⁷⁹1607. urteko Udal Ordenantzeta 37-39. atalak (OUA, C-III, D.3).

⁹⁸⁰1607. urteko Udal Ordenantzeta 40, 46. atalak (OUA, C.III, D.3).

⁹⁸¹Batez ere XVIII. mendean. Ikusi garai horretako udal aktak: OUA, C-219, C-222-2, C-221-2, C-223-2...

⁹⁸²Manuela Balentin y Orio, herriko alaba sasikoa, Matias de Sagarzazuren zerbitzuan aritu zen neskame.

Matiasek bere ohorea "zikindu" zuen eta ezkontzeko hitza eman arren, ez zuen bete nahi izan. Orioko alkateak Sagarzazu kartzelaratzeko agindu zuen. Orioko Kontzejuak neskaren ardura zuenez, Sagarzazuren kontrako neurriak hartu zituen (OUA, C-222-2 [1730]).

⁹⁸³GOROSABEL, P. de: *Cosas memorables de Guipúzcoa. t. II, Op. cit.* 349 .orr. 1804an Orioko Kontzejuak limosnetatik ateratako dirua Probintziaren Haur Etxera bidali zuela aipatzen da. Handik bi urtera, Probintziak Oriori eskutitz batean idatzi zion, 39 erreal kuarto eta 14 marabedi eman behar zituela Haurren Etxerako (OUA, C-223-2 [1804-XI-18]; [1806-IX-18]).

⁹⁸⁴OUA, C-36 (1880-I-30).

Oriotarrek makina bat laguntza eskaini zuten gehien behar zutenei. Esaterako, meza-diruak, limosnak, gatibuen salbamenerako eskaintzak... Dirudunek ematen zuten dirutzak ere kontuan hartu behar dira. Adibidez, Domingo Alonso de Mendia, kapitaina eta arrantzalea, XVII. mendean Galizian hil zen, eta bere azken borondatea, zituen ondasun guztiak Orioko neska umezurtzen ezkontz doteetarako ematea izan zen. Kontzejua arduratu zen Domingoren dirua gobernatzeaz, eta XIX. mendea arte iraun zuen laguntzak⁹⁸⁵.

III. IRAKASKUNTZA

XVII. mendean hasi zen lantzen Orion irakaskuntza. 1605. urtean, herrian ikastetxe falta handia zegoela azaldu zuen Kontzejuak, "handaban todos los hijos de los dichos vezinos perdidos por la dicha falta de escuela y no aver quien les enseñase". Oriok izan zuen lehenengo maisua apaiza izan zen, herriko haur guztiei irakatsi zien idazten, irakurtzen, zenbatzen eta, baita kristau ikasbidea ere⁹⁸⁶. Harrezkero, apaizek maisu izateko ohitura hartu zuten. Baina, 1707an, Ignacio de Areizagak, apaiza eta maisuak, lana utzi egin zuen, eta aurrerantzean, Agustin de Aranza eskribaua izan zen haurren ikastetxearen arduraduna⁹⁸⁷. Gero, XVIII. mende bukaera arte, maisuak eskribauak izan ziren⁹⁸⁸.

Garai hartan idazten eta irakurtzen zekiten bakarrak apaizak eta eskribauak ziren, beraz, horiek ziren irakaslerik aproposenak.

Dokumentu bakar batean aipatzen da Orioko eskolaren ordutegia. Eskola egunak lan egunak ziren, eta neguko ordutegia, hau da, San Miguel egunetik martxo bukaera arte, hauxe zen: goizez, zortzietatik hamaiketara; eta, arratsalde, ordubatatik lauretara. Eta udako ordutegia, berriz, apiriletik San Miguel eguna arte, goizeko zazprietatik hamaikak arte; eta arratsalde, ordubietatik bostak arte⁹⁸⁹.

Maisuen soldatak Kontzejuak ordaintzen zituen, herriaren ondasunetatik eta Eliz Batzarraren laguntza ekonomikoetatik. XIX. mendeaz geroztik, irakasleen soldatak ordaintzeko, Kontzejuak zenbait zerga jarri zituen⁹⁹⁰. Orion oso normala izan zen maisuak beste lanbide batzuetan ere aritzea; adibidez, organu joleak ere baziren, horrela, soldata handiagoa jaso ahal izaten zuten⁹⁹¹. XIX. mendean, Kontzejuak, bere egoitzeko gelak egokitu zituen ikastetxe bihurtzeko⁹⁹².

Bestalde, XVIII. mende erdiaz geroztik, maisua izateko beharrezkoa zen titulua izatea. 1784an, Oriok aurreneko maisu tituluduna izan zuen, Mateo Genaro de Besga; titulua arabera, "puede poner pública escuela para enseñar a leer, escribir y contar en qualquiera villas y lugares de estos reynos"⁹⁹³.

⁹⁸⁵IEAH, Secr. Mazo, C/436, nº 17 (1663). 1886. urtean ere erabili zen berak emandako dirua (OUA, C-36 [1886-VI-13]).

⁹⁸⁶XVII. mende hasieran, Don Bartolome de Agote, "hombre de ciencia y conciencia" maisu izan zen eta bere lanaren truke soldata izan zuen (GPAH, Miguel de Urreizmendi, 3/1.826 [1605-V-9]).

⁹⁸⁷Agustin de Aranza haurren ikastetxeko maisua izan zen 1735. urtera arte (1707-1735. urteen arteko Aktak: OUA, C-219, C-222-2).

⁹⁸⁸Halaber, Antonio eta Juan Beltran de Illunbe, biak eskribauak, eskolako maisuak izan ziren (1736-1757. urte bitarteko aktak: OUA, C-222-2, C-221-2).

⁹⁸⁹OUA, C-221-2 (1758-XII-28).

⁹⁹⁰1805ean ardoaren gain *arbitrio* bat ezarri zen maisuaren soldata ordaindu ahal izateko (OUA, C-223-2, 1805-XI-25; BENITO PASCUAL, J. de: *La enseñanza de primeras letras*. 145.orr.).

⁹⁹¹BENITO DE PASCUAL, J. de: *La enseñanza de primeras letras en Gipuzkoa (1800-1825)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994, 148. orr.

⁹⁹²1846an, Orioko Kontzejuak udaletxea berreraiki zuen, eta bertako gela batean, eskola zegoen (GPAH, Ramon de Illunbe. 3/1.985 [1846-I-3]).

⁹⁹³Mateo Genaro de Besga, maisua izateaz gain, organu jolea izan zen eta erlojuak konpontzen zituen (OUA, C-223-2 [1791-1796]). Titulua 1784an lortu zuen. Juan Jose de Bonetak, Orioko maisuak. 1820. urteaz geroztik titulurik gabe lan egin zuen (BENITO PASCUAL, J. de: *La enseñanza de primeras letras*. *Op. cit.* 16, 123-124. orr.).

Hamahiru urte baino gutxiago zuen edozein haur joan zitekeen eskolara; irakaskuntza dohainik zen. Baina, XIX. mende hasieran, Orion industrializazioaren lehen urratsak eman zirenean, haur asko ez zen eskolara joaten, lanera joaten zirelako, normalean, eskabetxerietan aritzen ziren⁹⁹⁴. Dena dela, eta salbuespenak salbuespen, XX. mende hasieran, haur asko joaten zen ikastetxera, garai hartan, 72 mutil eta 80 neska⁹⁹⁵.

IV. FESTAK ETA OSPAKIZUNAK

Orioko patroia San Nikolas da, horregatik, egun horretan, betidanik, herriko festak ospatzen dira. Bestalde, San Pedro, Kofradiako patroia da, eta egun horretan ere festak ospatzen dira gurean.

Orion, garai batean, urtero, San Pedro, San Juan, San Nicolas, Bazko eta Corpus egunean festak ospatu ohi ziren⁹⁹⁶. San Pedro eta San Juan egunetan herriko plazan, moila ondoan, zezenak izaten ziren, batzuetan, antzarak ere bai; baina, XVIII. mendearen 30. hamarkadan antzara-jokoa egiteari utzi egin zioten, jendeak ez baitzuen parte hartzen⁹⁹⁷.

Herriko festak Kontzejuak antolatu ohi zituen, danbolinjolea eta txistularia ekartzen zituen. Hala ere, askotan, udal ondasun propioak maiztertzan zituztenek ekarri behar izaten zituzten zezenak, txistulariak eta danbolinjolea, eta gainera, azken horiei ostatu eta janaria eman behar zieten⁹⁹⁸. Modu horretan, Kontzejuak ez zuen festak antolatzen hainbeste diru gastatzen, eta gastuak maizterren artean banatzen ziren.

Erljio-festa guztietan oriotarrak elizara prozesioan joaten ziren. Meza ondoren, zezenak izaten ziren plazan; danbolinjoleek eta txistulariek beren tresnak jo bitartean, alkateak eta erregimentu ofizialekoek ezpata-dantza egiten zuten. Festa bakoitzak bere jai egunak zituen, batzuek gehiago, beste batzuek gutxiago. Esaterako, San Nicolas festak 2 egunez izaten ziren; Ihauteriak 4 egunez; Garizumako Bazko eta Corpus eguna, bina egun; San Juanak egun bakar batean ospatzen ziren; San Pedro festak ziren luzeenak, 5 egun izaten ziren; Errosarioko Andra Mariren festak egun bakarra irauten zuen; mugarrien bisita izaten zenean bi jai egun izaten zituzten⁹⁹⁹.

Jai egun horiezaz gain, oriotarrak San Martin eta San Juan ermitetara joaten ziren askotan. Esate baterako, 1715ean San Martin ermitan San Antonio de Paduaren irudia jarri zuten, eta meza nagusia ospatu zen. Ezpata-dantzan ere aritu ziren, agirietan aurkitu dugunaren arabera¹⁰⁰⁰.

Bestalde, urtero Gurutz-bidea egiten da San Nicolas elizatik San Martin ermitaraino. Bidean Jesukristoren Nekaldia irudikatzen duten hamalau gurutze daude eta, bakoitzean, geldialdia egiten da. Ostiral Santuan egiten da prozesioa. Oso aspaldiko ohitura bada ere Orion oraindik ere egiten da.

Kontzejuak, elizako patroitza eskubidea zuenez, San Pedro eguneko meza bikario edo oriotar ospetsu baten esku uzten zuen. Meza horietan, oriotarrek eskaerak egiten zituzten, esaterako, arrantzaleen lana babesteko, uzta onak izateko...¹⁰⁰¹.

⁹⁹⁴OUA, C-21.4 (1919). 1907. urteko aipamen baten arabera, 14 urte baino gutxiagoko bi ume "trenzas de yute" lantegian lan egin zuten. Ikusi: OUA, C-237.2 (1907).

⁹⁹⁵OUA, C-21.2 (1910).

⁹⁹⁶Beste ospakizun erlijioso asko zeuden, halaber, Andra Mariren 5 festak, San Pedro eta Rosario Kofradien mezak, hileta mezak etab.

⁹⁹⁷"Que haya corrida de toros en San Pedro, no de gansos por el poco concurso de gente" (OUA, C-222-2 [1727-V-30]).

⁹⁹⁸Adibidez, Arratola pasaiako maizterra danbolinjolea ekartzeaz arduratzen zen; kaiko etxeko maizterra, berriz, zezenketetarako hesiak jartzeaz eta kentzeaz. Ikusi: OUA, C-222-2 (1725-V-25); (1728-I-24).

⁹⁹⁹OUA, C-223-1 (1787-III-4).

¹⁰⁰⁰OUA, C-219 (1715-X-12).

¹⁰⁰¹San Pedro eguneko meza, XVIII. mendear geroztik bikario edo beste apaizen ardura zen. Izan ere, otoitzak egiten ziren lanerako eguraldi egokia eskatuz (GPAH, Manuel Antonio de Illunbe; Orioko Eliz Batzarraren eta Kontzejuaren arteko akordioa. 3/1.939 [1790-X-7]).

Bestalde, orain arte aipatu ospakizun erlijioso horieraz gain, XVIII. mendean, Erregeei zegozkien zenbait gertaera ere ospatzen hasi ziren, esate baterako, Erreginen haurdunaldiak eta erditzeak, Erregeek irabazitako gerrak edo akordioak, Erregeen heriotzen ohorezko mezak...¹⁰⁰².

Hainbat urtetan, Orioko Kontzejuak festak ospatzeko dirurik ez zuenez, San Pedro eguneko meza besterik ez zuen antolatu, eta gainera erabaki zuen, meza gastuak Arrantzaleen San Pedro Kofradiak ordaindu behar zituela¹⁰⁰³.

Orion, Gipuzkoako beste zenbait herritan bezala, XVII. mendetik aurrera, beste motako festak ere ospatu ziren; hala nola, gudarien armen erakusketak edo alardeak... Alardeetan alkateek, gobernuko gainontzeko ofizialek, herritarrek eta biztanle guztiek parte hartu behar izaten zuten. Gipuzkoako Probintziak aginduta egiten zen modu horretan, horrela, gerraren bat zenerako, herri guztietako gizonak eta armak prest egongo baitziren. Oriotar guztiek ezpata, sastagaia eta alkabuz bana zuten; alkateek armak zein egoeratan zeuden aztertzen zituzten, eta behar adina bolbora eta munizioa banatzen zuten¹⁰⁰⁴.

V. HIZKUNTZA: EUSKARA

Orion betidanik euskara hitz egin izan da. Euskarak ahozko tradizioa izan duenez, dokumentu zaharretan oso gutxitan ageri dira euskarazko hitzak.

XIX. mendera arte, dokumentu guztiak gaztelera idazten ziren eta, gure herrian ere, gauza berbera gertatu zen. Baina, nahiz eta idazterakoan gaztelera hizkuntza nagusia izan, zenbait dokumentutan gure hizkuntzaren eragina nabarmena da, euskarazko toponimoak eta hitzak (gaztelera idazkeran) agertzen baitira.

Esate baterako, ostiral bezperarako eliz-ospakizunetarako kanpaiak jotzeari "ostillarecoa" izendatu zitzaion, herri-hizkeran, hau da, euskaraz¹⁰⁰⁵. Marea Errota izena bera ere, hasiera batean "molino de marea" zen, baina laster hartu zuen euskarazko "errota" izena¹⁰⁰⁶. Bestalde, "necazari" hitza ere behin baino gehiagotan erabili izan zen agirietan¹⁰⁰⁷.

Etxeak eta toponimoak izendatzerakoan, aurretik guraso edo jabearen izena jartzen da, eta ondoren "ren" edo "enea" atzizkia jartzen zieten: Domingo de Mirandarena, Antxiolaenea edo Eskribaurena. Toponimo gehienek euskarazko jatorria dute, esaterako, Belarzelaieta, zelaiak izendatzeko; "Arrigorcia", barra-muturra egiteko harriak botatzen zituzten lekua, etab.

Kontzejuak eta beste agintariak emandako erabakiak, apaizak euskaraz irakurri ohi zituen meza Nagusian, oriotar guztiek ulertzeko modua baitzen. Beraz, guzti horren arabera, euskara Orioko hizkuntza nagusia izan zela argi dago.

¹⁰⁰²1707an, Erreginaren haurdunaldia ospatzeko alkateak ezpata-dantza egin zuen, prozesioa egin zen eta ardo pitxar bat edan; eta, erreginak erditu zuenean, zezek izan ziren (OUA, C-219 [1707-II-20]; [1707-VI-27]). Ondorengotza-gerra Gaztelako erregeak (Felipe V.ak) irabazi zuen, eta Orion ospatu egin zen (OUA, C-219 [1711-XII-20]). Gaztelako erregeak Enperadorearekin aliantza sinatu zuenean ere festa egin zen; ikusi OUA, C-222-2 (1725-VI-3).

¹⁰⁰³1765ean, San Pedro egunean ez zen zezek ezta ezpata dantzik ere izan; ikusi OUA, C-221-2 (1765-IV-14).

¹⁰⁰⁴GPAH, Francisco de Gaztañaga, 3/1.863 (1665-XII-8); (1665-XII-27); Agustín de Aranza, 3/1.880 (1710-X-12).

¹⁰⁰⁵OUA, C-221-2 (1756-X-24).

¹⁰⁰⁶OUA, C-223-2 (1788-VI-30).

¹⁰⁰⁷IEAH, Secr. Villanueva, C/1.731 N° 17 (1714-1716).

VI. ARRAUNA: LANBIDE IZATETIK KIROL IZATERA

Traineru estropaden jatorria azaltzeko traineru ontziaren nondik norakoa aztertzea komenigarria da. Garai batean, arrantzaleek sardina harrapatzeko “traina” izeneko sare mota erabiltzen zuten, oso maila estukoa zen. Denborarekin, sare mota hori erabiltzen zuten ontziei “traineru” izendatzen hasi ziren, eta hain zuen, hortik dator izena. Ontziak itsasora ateratzen ziren, eta sareak beteta zituztenean, itsas bazterrera etortzen ziren arraunean (edo belak jarrita). LABAYEN-ek adierazten duen bezala, oso gogorra zen horrela arrantzan egitea, eta, denboraren poderioz, arrantzarako beste ontzi motak erabiltzen hasi ziren —baporeak— eta traineruak ez ziren lanerako gehiago erabili. Beraz, lanbide izatetik kirola izatera pasa zen¹⁰⁰⁸. Bestalde, oriotarren bizimoduan arrantzak hainbesterainoko garrantzia izateak, eragin handia izan zuen lanbidea kirol bihurtzeko.

Hain zuzen, traineru estropadei esker da ezaguna Orio, arraunlari oriotarrek arrakasta eta sari ugari lortu baitituzte.

Azken mende honetan, traineru estropadetan parte hartu duten Euskal Herriko kostaldeko herrien artean, Orio da garrantzitsuena. Lehenengo traineru estropadak XIX. mende bukaeran izan ziren, hain zuzen, 1879. urtean. Donostiako Udalak kostaldeko herriak gonbidatu zituen, irailean Donostiako Kontxa estropadan parte hartzeko. Harrezkero, irailean, lehendabiziko bi igandetan, beti izaten dira Kontxako estropadak.

¹⁰⁰⁸Ikusi LABAYEN, F. de: "La pesca como medio de vida y su derivación deportiva en las regatas. Las regatas de traineras y trainerillas". *Vida Vasca*, 1955, XXXII, 121-127. orr.



Arraunean itsasadarrean (Photomuseum Artxiboa).

1901. urtean, Benito Lertxundik abesten duen kantzak dioen bezala, oriotarrek Kantauriko azken balea harrapatu zuten, eta urte berean, Oriok Kontxan, lehendabizikoz, irabazi egin zuen, Manuel Olaizola "San Antonio" traineruaren patroia zutela. Hurrengo Kontxako saria 1909an irabazi zuen, "Virgen del mar" izeneko traineruarekin. Hurrengo urtean, bi estropada irabazi zituzten oriotarrek, lehenengoa "Virgen del mar"ekin; eta, bigarrena, San Pedroko ontziarekin. 1916an laugarren bandera irabazi zuten; 1919an ere irabazi egin zuten. 1921ean, berriz, bigarrenak izan ziren; 1923an eta 1925ean, Antonio Maria de Uranga patroia zela, irabazi egin zuten. 1930ean laugarrenak iritsi ziren helmugara; 1931ean, bigarrenak. Eta, 1933an berriro irabazi zuten. 1935ean, Santa Clara irla parean, trainerua hondoratu egin zitzaizen. 1939an eta 1940an ere bandera lortu zuten. 1941ean, hirugarrenak izan ziren. 1942an lehenengoak. 1943an Kantauriko lehenengo Saria irabazi zuten. 1944an Kontxako bandera lortu zuten. 1946an Donostian hirugarrenak izan ziren, baina, Santanderren Espainiako Txapeldun geratu ziren. 1947an, Kontxan bigarrenak; 1951ean, Kontxan irabazi eta Portugaleteko lehiaketan Espainiako Txapeldun izan ziren. Hurrengo urtean, Kontxan irabazi egin zuten eta Espainiako txapeldun izan ziren¹⁰⁰⁹.

Garaipen guzti horiek adibide batzuk besterik ez dira, Oriok traineruetan lortutako garaipenen zerrenda oso luzea baita. Oriok, 1901-1992 urte bitartean, hogeita sei aldiz irabazi du Kontxan. Traineruetan aritu diren patroien artean, nabarmendu behar dira DOMINGO MITXELENA (1933-34, 1942 eta 1944an oriotarrak nagusi izan ziren) eta JUAN "Altxerri" LIZARRALDE (1970-1972, 1974-1975ean garaipen ugari)¹⁰¹⁰.

¹⁰⁰⁹Enciclopedia General Ilustrada... *Op. cit.*, t. XXXIV, 444-446. orr.

¹⁰¹⁰Ikusi IBIDEM, T. XXVIII. 273. orr.; T. XXV, 234. orr. Oriotarrek traineruetan lortutako garaipenei esker dute ospea, baina gaur egun, aulki mugikorrean ere aritzen dira Orioko arraunlariak. Arraun Elkartea 1965ean sortu zenez geroztik, aulki mugikorra ere praktikatzeko dute herriko arraunlariak eta, Munduko, Europako eta Estatu Espainiarreko txapeldunak izan dira.

VII. ORIOTARRAK KULTURAN

Oriok kultur arloan ospe handia izan duten seme ugari izan ditu. Ez dugu atal hau bukatu nahi Kirola, Arte, Musika eta Literaturan gailendu diren zenbait oriotar aipatu gabe. Hain zuzen ere, azpimarratzekoak dira, besteak beste, Victor Enbil, Jorge Oteiza, Benito Lertxundi eta Andu Lertxundi.

VICTOR ENBIL 1868. urtean jaio zen Orion eta erremontista ospetsua izan zen. Erremontea jokoan jarri zuenetako bat izan zen. Erremontean aritutako beste batzuk ere ezin utzi aipatu gabe, besteak beste, Ramon Salsamendi Errasti (Salsamendi II.a) eta Jose Maria Salsamendi Gonzalez de Chavarri (Salsamendi VI.a), aurrekoaren iloba, garrantzi handia izan baitzuten¹⁰¹¹.

JORGE OTEIZA ENBIL (1908-2003) Orion jaioa eskultorea, poeta eta gure garaiko artistarik garrantzitsuenetakoa izan da. XX. mendeko artista aitzindaria izan da eta, oraindik ere da. Mitoa eta sinbolismoa dira bere izaera artistikoaren egituraren funtsak, bere pentsaera mito, sinbolismoa, euskal antropologia, etnia eta ohituraren ezaugarrietan finkatzen baititu. Oteizak euskal funtsa guzti horiek gaurko pentsakera modernoan ulergarriak egin ditu, eta hori izan da bere lorpenik argiena. Guzti hori, "Quosque tandem! Ensayo de interpretación estética del alma vasca" liburuan azaltzen ditu Oteizak (1963an lehen aldiz argitaratua).

Oteizaren bestelako ekimen artistikoa eskultura izan da, izan ere, ospetsu egin duena. Bere lanen artean hauek aipatuko ditugu, besteak beste: "Adán eta Eva" (1931); "San Adán" (1933); "Mikelats eta Atarrabi" (1935); "Mujer con niño mirando con temor al cielo" (1949); "La tierra y la luna, cuerpos giratorios con módulos de luz" (1951-52); Orioko Kukuarri mendi gainean dagoen Ama Birjina (1953); eta Oñatin dagoen Arantzazuko Basilikaren Apostoluen Frisoa eta Piedadea (1954-69).

2003an hil zen arte, Oteizaren ekimen artistikoak aurrera joan ziren, euskal eskulturari eta poesiari izaera berezia erantsiz¹⁰¹².

Musika arloan, BENITO LERTXUNDI ESOAIN izan da, 1960. hamarkadaz geroztik, euskal kantagintza berriko kantarietako bat. "Ez dok amairu" taldeko partaide zenean, Francoren erregimenaren zentsura jasan zuen. 70. hamarkadan taldea utzi eta bakarrik jarraitu zuen. Benitoren kantuen ezaugarriak hauek dira: beti euskaraz abesten du; abesten dituen kantuen gaiak, garaiko egoera primeran isladatu izan du; folk-a eta lirika landu ditu¹⁰¹³.

Literaturari dagokionean, aipatzekoa da ANGEL (Andu) LERTXUNDI ESNAL idazlea. 1948an jaio zen Orion; bere lanen artean, honakoak dira aipagarrienak: "Gaurko Literatura" (1968); "Hunik Arratsartean" ipuinak (1970); "Ajea du Urturik" (1971); "Goiko Kale" (1973), eta "Hamaseigarrenean aidanez" (1983).

Bere hasierako lanetan Hegoamerikako errealismo magikoaren prosa berriaren eragina argi azaltzen da. Hala eta guztiz ere, Lertxundik estilo berezia eranstean die bere liburuei. Idazlearen azken lanak estereotipoen kanpoko narratiba ederra eta bizia da. Euskal Herriko egoera isladatzen du, eta betiko arketipoak baztertzen ditu¹⁰¹⁴.

¹⁰¹¹Diccionario Enciclopédico del País Vasco... *Op. cit.*, T.VI, 137-138 orr. T.VIII, 255. orr.

¹⁰¹²Enciclopedia General Ilustrada... *Op. cit.*, T.XXXV, 288-304. orr.

¹⁰¹³IBIDEM. T.XXIV. 387. orr.

¹⁰¹⁴IBIDEM. T.XXIV. 386. orr.

ONDORIOAK

Orioko historian zehar gertaerak, aldaketak, egoerak, garapenak eta jarduerak ezberdinak izan diren arren, horien inguruko azalpen argienak ematen eta beraien arteko loturak ezartzen saiatu gara.

Orioko oinarriko ezaugarria kokapen geografikoan datza; itsasotik hurbil, errioa, basoak eta landatzeko lurra; horiek guztiak funtsezkoak dira herritarren bizimodua hobeto ulertzeko.

Lekuaren garrantzia, batez ere, aurreneko garaietan somatzen da: XIII. mendean, Orion burdinaren gaineko zerga ezarri zenetik, biztanleria garatu eta hazi egin zen; eta hurrengo mendean, hain zuzen 1379. urtean, herria fundatu zen.

Oriok, XIV. mendean, gerora izango zuen garapenari ekiteko euskarriak finkatu zituen. Herrian, jarduera ekonomikoa, hau da, arrantza, merkataritza, ontzigintza eta burdinaren inguruan garrantzi handiko garapena bizi izan zen. XVI. mendeko ezaugarri ekonomikoak hauek izan ziren: Ternuan eta Galizian arrantza handiak egin zituzten, Europarekin merkatal loturak, eta, burdinaren inguruko kontrol fiskalen nagusitasuna. Baina, garai batean, garapen ekonomikorako funtsezkoa izan zena, hau da, itsasoa, oriotarren kalterako izan zen. XVII. mende hasieran, Gaztelako Koroak krisialdia izan zuen, eta itsas harremanak bertan behera geratu ziren. Oriotarrak, nahiz eta itsasoari uko egin nahi ez izan, norabide berriak bilatzen hasi ziren. Irtenbideak bi izan ziren; batetik, aurreko garaian izan zuten nagusitasuna berreskuratu nahi izan zuten, arrantzan, alegia; eta bestetik, nahiz eta ordura arte gutxi garatutako jarduera izan, nekazaritzari ekin zioten. Lehenengo interbidean, oriotarrak arrantzari eusten ahalegindu ziren, eta Galiziara joan ziren arrantzara. Gainera, gerren eraginez, Erret armadara oriotar asko joan zen ontziak egitera; bestalde, Orioko portua oso garrantzitsua zenez, baita Erregeentzat ere, hobetze lan garrantzitsuenak egin ziren. Bigarren irtenbideak, nekazaritzak, herrian bertan geratu eta aritzeko aukera ematen zuen, eta urte askotan oriotarren bizibiderik garrantzitsuena bihurtu zen. Beraz, nekazaritzari esker, ekonomia suspertu eta krisialdia gainditu ahal izan zen. Garai hartako gertaerarik garrantzitsuena izan zen, hau da, betidanik itsasoari lotuta bizi izan zen herriak, jarduera ezberdin batera moldatzeko gaitasuna azaldu zuen.

Baina, nahiz eta oriotarrak nekazaritzara moldatu, oriotarrek arazoak izan zituzten, XVIII. mende bukaeran, nekazaritzak gaina jo zuen eta. Guzti horren ondorioz, oriotarrak berriro ere itsasora bueltatu ziren. Hala ere, arrantza ez zen nahikoa izan krisialditik atera ahal izateko. Nekazaritzak behera egiten zuen neurrian, oriotar askok Erret ontziola, Erret armada eta Caracas-eko Erret Konpainia Gipuzkoarrean parte hartu zuten.

Orioko oinarri ekonomikoak finkatu eta garatu ahal izateko beste bultzada edo laguntza behar zen, eta, XIX. mende bukaeran sortu zen, hain zuzen, industrializazioaren eskutik. Industrializazioaren eragina nabarmena izan zen: lantegi berriak sortu ziren, ontzigintza eta arrantza indartu ziren... Hortaz, XX. mende hasieran, Orioko oinarri ekonomikoak sendotu egin ziren.

Bestalde, bere burua gobernatzeko eta antolatzeko aukera eta gaitasuna izan zuen Oriok sortu zenetik. XVI. mendeaz geroztik, Orion Kontzejua eratuta zegoen, "comunitas" osoaren ordezkari zena eta herriko arlo guztietaz arduratzen zena.

Gobernua biztanle guztien ordezkaria izan zen, baina, gobernukide izateko aukera ez zuen edozeinek. Gipuzkoako herri askotan gertatzen zen bezala, gobernukide izateko kontuan hartzen ziren, besteak beste, auzotasuna, kaparetasuna, aberastasuna...

Gainera, XVI. mendean geroztik, gobernuko hautagaiak zuzenean izendatu ohi ziren. Beraz, harrezkerostik, gobernukide izateko aukerak gutxitu egin ziren.

Nahiz eta Orion Kontzeju Nagusia gobernu buru izan, Batzarretara oso jende gutxi joaten zen. Baina, Gipuzkoako herri askotan gertatzen zenaren aldean, Orion Kontzeju Nagusiak nagusitasuna izan zuen, eta batez ere, Errregimentuaren aurrean. Horrela, teoriarik behintzat, gizartearen ongizatea zen helburua lortzen zen. Horregatik, Kontzejuak, Eliza eta Kofradia menpean izan nahi zituen, eta, jarduera ekonomikoaren garapenak, gobernu antolaketa horretan lagundu zuen.

Kontzejuak, Udal ondasun propioak administratu izan zituen, eta, herritarren mesederako izan zen; azken finean, lanpostuak sortu zituen eta. Baina, hala eta guztiz ere, udalak gastu asko eta handiak izan zituen, eta, ondorioz, zor izugarriak egin zituen. Zorrei aurre egin ahal izateko, Kontzejuak ondasun propio asko saldu zituen. Guzti horrekin batera Foruak Ezabatu ziren eta, garai berria hasi zen: zergak ezartzen hasi ziren, eta politika babeslea desagertu egin zen. Herria antolatzeke beste modua hasi zen, hau da, ekimen partikularrak nagusitu ziren.

Orion, lehendabiziko elkarbidea eliza izan zen. Denborarekin, herritarren artean gertatu bezala, eliztarren artean desberdintasunak eta mugak azaldu ziren. Baina, dena dela, herritarrak batzeko arrazoi nagusia erlijioa izan zen. Esaterako, kofradia erlijiosoak eta, batez ere, eliztarren ekimenak. Arrantzaleen San Pedro Kofradiaren sorrerak ere erlijioarekin zerikusia izan zuen. Baina, altura eta baxurako arrantza, ontzigintza eta atoi lanak oso preziatuak zirenez, bertan aritzen zirenak babesteko sortu zen Kofradia. Era berean, Kofradiak eztabaidak izan zituen Elizarekin eta Kontzejuarekin.

Kontzejua, Eliza eta Kofradiaren arteko tirabiren arrazoia botere nahia izan da. Norgehiagoka horretan, gehienetan, Kontzejuak irabazi izan zuen, eta zenbaitetan abantailak bereganatu, jakina, besteen kaltetan.

Jarduera ekonomikoak, gizarte antolaketa, gobernua eta elkarteak, Orioko errealitate historikoaren lekuko ditugu. Baina, badira beste batzuk ere, oriotarren izaera isladatzen dutenak. Eliza, ermitak, kaleak, baserriak, portua... historiaren lekukoak dira. Herrian dauden etxe, kale eta portuaren azpiegituran erreparatuz, Oriok itsasoarekin izan duen lotura, nekazaritzak izan duen garrantzia, erlijioaren eragina eta herritarrek izan dituzten erronkak ikus edo senti daitezke. Alde zaharreko etxe bakoitza, erliebeak, inskripzioak, baserrien kokapena, landalurrak, moila eta plaza Orioko historiaren seinale dira.

Onegintzaren inguruan ere gauza garrantzitsuak egin izan dira Orion, bai Kontzejuak bultzatuta, eta baita partikularrek bultzatuta ere. Osasunbideak Orion laster finkatu ziren, medikua, zirujauak eta bizargileak zituen; gaixotasunei, kutsadurei eta garbitasunari arreta handia jarri zion Kontzejuak. Eta, azkenik, euskarak gurean izan duen presentzia ere bereizgarria da —Gipuzkoako beste herri askotan bezala—.

Esku artean duzun ikerketa ez da gertaera eta datu zehatzen deskripzio hutsean geratu eta bilakaera historikoa aztertuz, prozesu eta arazo guztiak elkarrekin lotzen saiatu gara. Oriotarraren oinarri ekonomiko ezberdinak, gobernuaren antolaketa bereziak eta biztanleriaren elkartasun mota eta izaera ezberdinen nondik norakoak baloratzen eta interpretatzen saiatu gara, Orioko historiaren ezaugarri nagusiak ahal den ondoen azaltzeko.

Orioko historiaren hutsune bibliografikoa bete dugula uste dugu, baina, historia ez da hemen bukatu. Herriaren eraketa eta bilakaera besterik ez dugu aurkeztu, eta ikerketa honek gerora egin daitezkeen azterketei atea irekia uzten die, oroimen historikoa berreskuratu ahal izateko.

ITURRIAK

ORIOKO UDAL ARTXIBOA

* Behin behineko klasifikazioa duten dokumentuak:

- C.I: D.1-6 (1554-1647)
- C.II: D.1-4 (1379-1607)
- C.III: D.1-22 (1484-1817)
- C.IV: D.1-9 (1507-1680)
- C.V: D.1-4/13 (1508-1777)
- C.VI: D.1-6/12 (1473-1877)

* Liburuak

- *Libro de Elecciones de Diputado y Síndico Personero* (1768-1847). L-1
- *Ejecutoria del Pleito de la Villa de Orio contra Don Antonio de Idiaquez* (1627-1847). L-2
- *Ejecutoria del Pleito de la Villa de Orio contra la Universidad de Aia* (1473-1622). L-4

* Aktak

- *Libro de Despachos y Testimonios* (1703-1721) C-219
- *Libro de Despachos y Testimonios* (1715-1746) C-220
- *Actas Municipales* (1721-1770) C-222-1
- *Libro de Ayuntamiento* (1723-1754) C-222-2
- *Actas Municipales* (1721-1770) C-222-1
- *Libro de Ayuntamiento* (1743-1767) C-221-1
- *Libro de Ayuntamiento* (1756-1766) C-221-2
- *Libro de Ayuntamiento* (1781-1787) C-223-1
- *Libro de Ayuntamiento* (1788-1808) C-223-2
- *Registro de Actas* (1876-1881) L-28
- *Registro de Actas* (1877-1923) L-27
- *Libro de Acuerdos* (1882-1888) L-29
- *Libro de Acuerdos* (1888-1898) L-30

- *Libro de Acuerdos* (1898-1913) L-31
- *Libro de Actas* (1913-1921) L-32
- *Libro de Actas* (1921-1924) L-33
- *Libro de Actas* (1924-1928) L-34
- * *Libro de Plantaciones* (1738-1865) C-225

* **Kontuak**

- *Libro de Cuentas* (1556-1734) C-226
- *Libro de Cuentas* (1775-1818) C-227

* **Inbentarioak**

- *Indice de Escrituras Públicas* (1621-1843) C-224

* **Hirigintza eta Obrak**

- *Udalerriko Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioak* (1988)

- *Obrak*:

- . (1901-1930) C-237
- . (1851-1936) C-101
- . (1851-1901) C-100
- . (1881-1929) C-108
- . (1803-1808) C-30

* **Korrespondentzia**

- (1762-1785) C-37
- (1871-1940) C-36
- (1873-1884) C-39
- (1873-1884) C-38
- (1875-1933) C-235

* **Erroldak eta Zentsuak**

- (1877-1930) C-28

* **Soldadu biltzeak**

- (1873-1904) C-70

* **Osasuna eta Giza Zerbitzuak**

- (1879-1916) C-20

* **Irakaskuntza**

- (1904-1919) C-21

PASAIAKO UDAL ARTXIBOA

- Sec. B, Neg. 2, Leg. 1, Exp. 2 (1520-1599)
- Sec. B, Neg. 6, Ser. 1, Leg. 1, Exp. 1 (1739-1752)

GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA (Tolosa)

*** Batzar Nagusien Aktak (1518-1876) J.D. A.J.I, A.J.F.**

*** Korrejimentuko Auziak**

- *Elorza Civiles* (1560-1740) CO-E.CI
- *Elorza Ejecutivos* (1567-1645) CO-E.EJ
- *Lecuona Civiles* (1581-1794) CO-L.CI
- *Lecuona Ejecutivos* (1581-1786) CO-L.EJ
- *Uría Civiles* (1574-1763) CO-U.CI
- *Uría Ejecutivos* (1591-1595) CO-U.EJ
- *Mandiola Civiles* (1553-1777) CO-M.CI
- *Mandiola Ejecutivos* (1575-1801) CO-M.EJ
- *Criminales* (1638-1657) CO-CR.

*** Índice de Otorgantes**

*** Hidalguías**

- HI-290 (1578-1805)

*** Inventario Munita**

- Sec. 2, Neg. 12, Leg. 55 (1687)
- Sec. 2, Neg. 13, Leg. 11 (1601)
- Sec. 3, Neg. 9, Leg. 1 (1477)
- Sec. 2, Neg. 13, Leg. 25 (1688)
- Sec. 2, Neg. 2, Leg. 7 (1653)
- Sec. 4, Neg. 1, Leg. 10 (1604)
- Sec. 3, Neg. 8, Leg. 41 (1663)
- Sec. 2, Neg. 12, Leg. 10 (1542)
- Sec. 2, Neg. 1, Leg. 11 (1808)
- Sec. 4, Neg. 12, Leg. 102.1 (1822)
- Sec. 1, Neg. 17, Leg. 80 bis (1817)
- Sec. 1, Neg. 17, Leg. 147 (1841)
- Sec. 1, Neg. 17, Leg. 128 (1833)

- Sec. 1, Neg. 17, Leg. 129 (1834)

*** Inventario Topográfico**

- *Estadística de la Producción Industrial*. J.D., I.T. 1.964 (1924)

GIZPUZKOAKO PROTOKOLOEN ARTXIBO HISTORIKOA (Oñati)

*** Aiako Eskribautzak (Orion sinatutako agiriak)**

- *Miguel Gonzalez de Segurola*

. 2/1.213 (1506-1528)

. 2/1.214 (1506-1508)

. 2/1.215 (1509-1511)

. 2/1.216 (1512-1515)

. 2/1.217 (1515-1521)

- *Martin Gonzalez de Segurola*

. 2/1.218 (1525-1545)

. 2/1.219 (1524-1538)

- *Esteban de Eztiola*

. 2/1.619 (1537)

- *Domingo de Arranibar*

. 2/3.684 (1549)

- *Juan de Ostolaza*

. 2/1.423 (1795)

. 2/1.424 (1796)

*** Beste eskribautzak**

- *Jose de Donebeste*

. 2/494 (1691)

- *Nicolas de Ayerdi*

. 3/963 (1579)

- *Miguel de Arbide*

. 3/224 (1592)

*** Orioko eskribautzak**

- *Domingo de Hoa*

. 3/1.779 (1549-1551)

. 3/1.781 (1554-1555)

- . 3/1.784 (1559)
- . 3/1.785 (1561)
- . 3/1.786 (1563)
- *Paulo de Iturriaga*
- . 3/1.788 (1558-1562)
- . 3/1.789 (1563)
- . 3/1.790 (1564)
- . 3/1.791 (1565)
- . 3/1.792 (1566)
- . 3/1.793 (1567)
- . 3/1.794 (1568)
- . 3/1.795 (1569)
- . 3/1.796 (1570)
- . 3/1.801 (1575)
- . 3/1.804 (1578)
- . 3/1.808 (1585)
- . 3/1.811 (1590)
- . 3/1.812 (1592)
- . 3/1.817 (1599)
- *Miguel Gonzalez de Seguro*
- . 3/1.824 (1580-1587)
- *Miguel de Urreizmendi*
- . 3/1.826 (1600-1609)
- . 3/1.827 (1609-1621)
- *Bartolome de Arbe*
- . 3/1.828 (1615)
- *Gabriel de Arbe*
- . 3/1.829 (1622)
- . 3/1.830 (1623)
- . 3/1.831 (1624)
- . 3/1.832 (1625)
- . 3/1.833 (1626)

. 3/1.834 (1627)

. 3/1.835 (1628)

. 3/1.836 (1628)

. 3/1.837 (1629)

. 3/1.839 (1630)

. 3/1.840 (1631)

- *Juan de Etxaniz*

. 3/1.841 (1622)

. 3/1.842 (1623)

. 3/1.843 (1624)

. 3/1.844 (1625-1630)

. 3/1.846 (1633-1634)

. 3/1.847 (1635-1636)

- *Francisco de Hoa*

. 3/1.849 (1634-1641)

- *Domingo de Gainza*

. 3/1.851 (1644-1645)

. 3/1.856 (1650)

. 3/1.859 (1654-1655)

. 3/1.860 (1656-1660)

- *Francisco de Gaztañaga*

. 3/1.863 (1662-1665)

. 3/1.868 (1670)

. 3/1.872 (1675)

. 3/1.875 (1678)

- *Agustin de Aranza*

. 3/1.876 (1689-1693)

. 3/1.877 (1694-1699)

. 3/1.878 (1700-1704)

. 3/1.880 (1710-1714)

. 3/1.881 (1715-1718)

. 3/1.882 (1719-1723)

. 3/1.883 (1724-1727)

. 3/1.884 (1728-1732)

. 3/1.885 (1733-1742)

- *Antonio de Illunbe*

. 3/1.887 (1738-1745)

. 3/1.888 (1746-1750)

. 3/1.890 (1755-1758)

. 3/1.891 (1759-1764)

- *Juan Beltran de Illunbe*

. 3/1.913 (1765)

. 3/1.918 (1770)

. 3/1.919 (1771)

. 3/1.920 (1772)

. 3/1.921 (1773)

. 3/1.922 (1774)

. 3/1.923 (1775)

. 3/1.924 (1776)

. 3/1.925 (1777)

. 3/1.926 (1778)

. 3/1.927 (1779)

. 3/1.928 (1780)

. 3/1.933 (1785)

- *Pelayo de Iturricastillo*

. 3/1.938 (1789)

- *Manuel Antonio de Illunbe*

. 3/1.939 (1789-1790)

. 3/1.940 (1791)

. 3/1.941 (1792)

. 3/1.942 (1793)

- *Juan Bautista de Gorostidi*

. 3/1.943 (1796)

. 3/1.944 (1797)

. 3/1.945 (1798)

. 3/1.952 (1805)

. 3/1.955 (1808)

. 3/1.956 (1809)

. 3/1.957 (1810)

- *Ramon de Illunbe*

. 3/1.960 (1820)

. 3/1.961 (1821)

. 3/1.962 (1823)

. 3/1.963 (1824)

. 3/1.964 (1825)

. 3/1.965 (1826)

. 3/1.966 (1827)

. 3/1.967 (1828)

. 3/1.968 (1829)

. 3/1.969 (1830)

. 3/1.970 (1831)

. 3/1.971 (1832)

. 3/1.972 (1833)

. 3/1.973 (1834)

. 3/1.974 (1835)

. 3/1.975 (1836)

. 3/1.976 (1837)

. 3/1.977 (1838)

. 3/1.978 (1839)

. 3/1.979 (1840)

. 3/1.980 (1841)

. 3/1.981 (1842)

. 3/1.982 (1843)

. 3/1.983 (1844)

. 3/1.984 (1845)

. 3/1.985 (1846)

- . 3/1.986 (1847)
- . 3/1.987 (1848)
- . 3/1.988 (1849)
- . 3/1.989 (1850)
- . 3/1.990 (1851)
- . 3/1.991 (1852)
- . 3/1.992 (1853)
- . 3/1.993 (1854)
- . 3/1.994 (1855)
- . 3/1.999 (1860)
- . 3/2.004 (1865)

ELIZBARRUTIKO ARTXIBO HISTORIKOA (Donostia)

*** Parrokietako Liburuak: Bataiatuak**

- A.1-1 (1576-1675)
- A.1-2 (1676-1682)
- A.1-3 (1683-1726)
- A.1-4 (1726-1804)
- A.1-5 (1804-1849)
- A.1-6 (1849-1887)
- 482 (1887-1900)

*** Parrokietako Liburuak: Ezkondutakoak**

- A.1-8 (1576-1672)
- A.1-1 (1636-1641)
- A.1-3 (1682-1726)
- A.1-9 (1726-1877)
- A.1-10 (1746-1810)
- A.1-11 (1811-1863)
- 484 (1867-1967)

*** Parrokietako Liburuak: Hildakoak**

- A.1-8 (1597-1681)
- A.1-3 (1682-1726)
- A.1-12 (1726-1823)

- A.1-13 (1824-1874)

- A.1-14 (1874-1899)

IRUÑEKO ELIZABARRUTIKO ARTXIBO HISTORIKOA

* Secr. Ollacarizqueta (1509-1511)

* Secr. Garro (1507-1606)

* Secr. Villanueva (1714)

* Secr. Echalecu (1675-1715)

* Secr. Villava (1753-1755)

* Secr. Marichalar (1608-1612)

* Secr. Treviño (1616-1652)

* Secr. Mazo (1621-1663)

* Secr. Ollo (1618-1741)

* Secr. Villar (1783-1807)

* Secr. Errazu (1810)

* Secr. Aginaga (1564-1571)

* Secr. Ciordia (1585)

* Secr. Sojo (1602)

* Secr. Ibañez (1606)

* Secr. Oteiza (1669-1670)

* Secr. Lanz (1710)

* Secr. Moreno (1795-1797)

* A/21 (1862)

* A/25 (1819)

SIMANCAS-EKO ARTXIBO OROKORRA

*** Zigiluaren Erregistro Orokorra**

- *Kontseilua*

. (1484)

. (1484)

. (1496)

. (1498)

- *Aintzinako Gerra*

. Carlos V, Leg. VII (1533-1535)

- *Gaztelako Kamara*

. Memorialak eta Expedienteak. Leg. 30 (1518)

. Memorialak eta Expedienteak. Leg. 203 (1531)

- *Errenta, Mesede, Pribilegio, Salmenta eta Konfirmazioen*

Eskribautza Nagusia

. Leg. 313 (1560)

. Leg. 50 (1500)

VALLADOLID-EKO ERRET KANTZELARITZAREN ARTXIBOA

* Masas (1511-1833)

* Zarandona y Wals (1496-1763)

* Lapuerta (1528-1618)

* Moreno (1548-1634)

* Alonso Rodriguez (1580-1630)

* Fernando Alonso (1565-1605)

* Taboada (1554)

* Quevedo (1500-1561)

* Reales Ejecutorias (1491-1513)

ARTXIBO HISTORIKO NAZIONALA (Madril)

* **Kontseilu Ezabatuak eta Gaztelako Patronatoa**

- Leg. 16.066 Exp. 2-3º (1518-1748)

* **Kontseilu Ezabatuak. Onartutako prozesuak**

- Leg. 4.925 (1751-1752)

* **Kontseilu Ezabatuak. Escariche Eskribautza**

- Leg. 24.414. Exp. 6 (1800-1803)

HISTORIAREN ERRET AKADEMIAREN ARTXIBOA (Madril)

* **Vargas Ponze Bilduma**

- Vol. 24. 9/4.197

- Vol. 48. 9/4.218

- Vol. 49. 9/4.222

- Vol. 51. 9/4.224

*** Zentsuak**

- Aranda. T. III. 9/6.160 (1768)
- Floridablanca. 9/6.227 (1787)

*** Liburuak**

- 9/5.886. E.71 (1805)

ONTZI MUSEOA (Madril)

*** Vargas Ponze Bilduma**

- T.II (1566)
- T.IV (1626)
- T.XII (1650)

*** Arca de Noe**

- 11.010 (1530-1555)
- 11.009 (1600-1610)

*** Cantabria-ko Marina**

- I-III (1698-1750)
- *Patenteak* (1620)
- *Miscelanea* (1475-1575)

BIBLIOGRAFIA

GARAIKO OBRAK ETA LEGEZKO BILDUMAK

- ARAMBURU, L.: *Nueva Recopilación de los fueros, privilegios, buenos usos y costumbres, leyes y órdenes de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, (1696). Imprenta de la Provincia, Donostia, 1919.
- CASTILLO DE BOBADILLA, J.: *Política para corregidores y señores de vasallos en tiempos de paz y de guerra y para jueces eclesiásticos y seglares y de sacas y de residencia y sus oficiales. Y para regidores y abogados y del valor de los corregimientos y gobiernos, realengos y de las Ordenes*. 2 vol., Amberes, 1704.
- DÍEZ DE SALAZAR, L. M.; AYERBE IRIBAR, M. R.: *Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa*. 10 t. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1990.
- HUMBOLDT, W. F. von: *Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en la primavera del año 1801*. Ed. Auñamendi, nº 103, Donostia, 1975.
- MARTÍNEZ DE ISASTI, L.: *Compendio historial de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, (1625). La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1972.
- MARTÍNEZ DE ZALDIVIA, J.: *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas*, (1564). Diputación de Gipuzkoa, Donostia, 1945.
- *Recopilación de Leyes y Ordenanzas de la MN y ML Provincia de Guipúzcoa por Licenciado Cristóbal López de Zandategui y Luis Cruzat* (1583). Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 1983.

BIBLIOGRAFIA OROKORRA¹⁰¹⁵

- ACHÓN INSAUSTI, J.A.: "'Valer más' o 'valer igual': estrategias banderizas y corporativas en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa", *El Pueblo Vasco en el Renacimiento*; Actas Simposio V Centenario nacimiento de Ignacio de Loyola, Universidad de Deusto, Bilbo, 1990.
- . 'A voz de concejo'. *Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa*. Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 1995.
- . *Gipuzkoako komunikabideen historia. 2. Aro Berria (1500-1833)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1998.
- AGUIRRE, I.: *Eusko lurra*. Etor, Donostia.
- AGUIRRE SORONDO, A.: *Tratado de molinología (Los molinos de Guipúzcoa)*. EL-SEV, Donostia, 1988.

¹⁰¹⁵ Argitalpen hau egiteko zenbait erreferentzi bibliografiko berri erantsi dira, 1996. urtekoak baino geroakoak.

- ANES, G.: "Los pósitos y la España del siglo XVIII", *Moneda y Crédito*, 105, (1968), 36-69. orr.
- . "Antecedentes próximos del motín de Esquilache", *Moneda y Crédito*, 128, (1974), 219-224. orr.
- APARICIO PÉREZ, D.: *Poder municipal. Economía y sociedad en la ciudad de San Sebastián (1813-1855)*. Doctor Camino, Donostia, 1991.
- ARIZAGA BOLUMBURU, B.: *El nacimiento de las villas guipuzcoanas en los siglos XIII-XIV. Morfología y funciones urbanas*. Doctor Camino, Donostia, 1978.
- . "Las villas guipuzcoanas que reciben el Fuero de San Sebastián", *El Fuero de San Sebastián y su época*, EI-SEV, Donostia, 1982.
- . *Urbanística medieval (Guipúzcoa)*. Kriselu, Donostia, 1990.
- ARPAL, J.: *La sociedad tradicional en el País Vasco*. Haranburu, Donostia, 1979.
- ASTIAZARAIN, M.I.: "Transformaciones y alteraciones en la traza del retablo mayor de la iglesia parroquial de Orio (Guipúzcoa)", *Boletín del Seminario de Estudios de Arte y Arqueología*, t. LVIII, Universidad de Valladolid, CSIC, 19-92, 413-420. orr.
- *Atlas de Euskal Herria*. Erein, Donostia, 1992.
- BALZOLA, P.: *Tablas de correspondencia de todas los pesos y medidas de Guipúzcoa y las principales del extranjero con las del sistema métrico dispuestas por encargo de la Diputación de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, Donostia, (1853), Reed. 1917.
- BANÚS Y AGUIRRE, J.L.: "El movimiento municipalista de Guipúzcoa", *Las formas de poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*, Bilbo, 1975, 45-76. orr.
- BARANDIARAN, J.I.: *Guipúzcoa en la Edad Antigua. Protohistoria y romanización*. CAP, Donostia, 1973.
- BARKHAM, M.: "La construcción naval vasca en el siglo XVI: la nao de uso múltiple", *Cuadernos de Sección EI-SEV*, 3, 1984, 101-126. orr.
- . *Pasaia: iraganaren oroigarria, etorkizunari begira*. Ontzi Museoa, Donostia, 1999.
- BARRENA OSORO, E.: *La formación histórica de Guipúzcoa*. Mundaiz, Donostia, 1989.
- . *Gipuzkoako komunikabideen historia. Aintzinaroa eta Ertarora*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991.
- . "El litoral vasco peninsular en la época pre-urbana y el nacimiento de San Sebastián", *Lurralde*, 13, 1990, 277-312. orr.
- BENITO PASCUAL, J. de: *La enseñanza de primeras letras en Gipuzkoa (1800-1825)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1994.
- BILBAO, L.M.: "Crisis y reconstrucción de la economía vascongada en el siglo XVIII", *Saioak*, 1, 1977, 157-180. orr.
- . "Transformaciones económicas en el País Vasco durante los siglos XVI y XVII", *Historia del Pueblo Vasco*, II, Erein, Donostia, 1979, 11-145. orr.
- . "La general expansión del siglo XVI en Vascongadas", *Historia General del País Vasco*, t. 6. La Gran Enciclopedia Vasca, Haranburu, 1981, 109-120. orr.

- . "La introducción y expansión del maíz y su incidencia en la economía del País Vasco", *Historia General del País Vasco*, t. 6. La Gran Enciclopedia Vasca, Haranburu, 1981, 45-66. orr.
- . "La industria siderometalúrgica en el País Vasco (1450-1720)", *Hacienda Pública Española*, Homenaje a Ramón Carande, nº 108-109, 1987, 47-63. orr.
- . "Haciendas forales y Hacienda de la Monarquía. El caso vasco, siglos XIV-XVIII", *Hacienda Pública Española: Historia de la Hacienda en España (siglos XVI-XX)*, 1, 1991, 43-58. orr.
- BILBAO, L. M.; FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: "En torno al problema del poblamiento y la población vascongada en la Edad Media", *Las formas de poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*, Bilbo, 1978, 305-337. orr.
- . "La evolución del producto agrícola bruto en Vascongadas, 1530-1850", *Historia General del País Vasco*, t. 6. Gran Enciclopedia Vasca, 1981, 8-43. orr.
- . "La producción agrícola en el País Vasco (1537-1850)", *Cuadernos de Sección EI-SEV*, 2, 1984, 83-196 orr.
- BRUNNER, O.: "La 'casa come complesso' e l'antica 'economica' europea", *Per la storia costituzionale e sociale*, Milan, 1970, 133-164. orr.
- CARO BAROJA, J.: *Vasconiana*. Txertoa, Donostia, 1974.
- . *Los vascos y el mar*. Txertoa, Donostia, 1981.
- CIRIQUIAIN GAIZTARRO, M.: *Los vascos en la pesca de la ballena*. Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, Donostia, 1961.
- . *Los puertos marítimos del País Vasco*. Txertoa, Donostia, 1986.
- CLAVERO, B.: "Sobre la idea de revolución burguesa: algunas puntualizaciones a Martínez Shaw", *Zona abierta*, 26, 1980, 123-240. orr.
- "Concesión de arbitrios hecha por el gobierno para la construcción de un muelle a la entrada de Orio (1612-VI-12)", *Euskalerrria*, XXIV, 1891, 279-280. orr.
- CORRAL GARCIA, E.: *El escribano del concejo en la Corona de Castilla (siglos XI-XVII)*. Ayuntamiento de Burgos, Burgos, 1987.
- . *Ordenanzas de los concejos castellanos: formación, contenido y manifestaciones (siglos XIII-XVIII)*. Burgos, 1988.
- CRUZ MUNDET. J.R.: "La Hacienda Municipal de Rentería en el Antiguo Régimen", *Congreso de Historia de la Edad Media: Economía, Sociedad y Cultura durante el Antiguo Régimen*, t. III. Bilbao, 1988, 147-159. orr.
- . *Konbentzioko gerra Gipuzkoan (1793-1795), I.V. de Sarasatizaren eskuizkribua*. Donostia, 1993.
- *Diccionario Enciclopédico del País Vasco*. Haranburu, Donostia, 1986.
- DÍEZ DE SALAZAR, L.M.: "El comercio y la fiscalidad de Guipúzcoa a fines del siglo XIII (según cuentas de Sancho IV)", *BRSVAP*, 1981, 84-148. orr.
- . *Ferrerías en Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)*. Haranburu, Donostia, 1983.

- DOMÍNGUEZ ORTIZ, A.: *Las clases privilegiadas en el Antiguo Régimen*. Istmo, Madrid, 1973.
- . "El Antiguo Régimen. Los Reyes Católicos y los Austrias", *Historia de España Alfaguara*. Alianza, Madrid, 1980.
- . *Sociedad y Estado en el siglo XVIII. español*. Ariel historia, Barcelona, 1984.
- DONOSTY, J.M.: *Marinos guipuzcoanos*. Publicaciones Españolas, Madrid, 1968.
- *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. Auñamendi, Donostia, 1986.
- ERKOREKA, J.: *Análisis histórico-institucional de las Cofradías de Mareantes del País Vasco*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1991.
- ESTEBAN DELGADO, M.: *El País Vasco Atlántico en época romana*. Mundaiz, Donostia, 1990.
- FERNÁNDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia*. Akal, Madrid, 1975.
- . "La transición política y la instauración del Absolutismo", *Zona Abierta*, 30, 1984, 63-75. orr.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E.: "Haciendas forales y revolución burguesa: las haciendas vascas en la primera mitad del siglo XIX", *Hacienda Pública Española*, 108-109, 1987, 197-220. orr.
- . "Gasto público y reformas fiscales. Las haciendas forales vascas", *Hacienda Pública Española: Historia de la Hacienda en España (siglos XVI-XIX)*, 1, 1991, 93-100. orr.
- FERREIRA PRIEGUE, E.: "Las rutas marítimas y comerciales del flanco ibérico desde Galicia hasta Flandes", *El Fuero de San Sebastián y su época*, EI-SEV, Donostia, 1982, 217-234. orr.
- FRIGO, D.: *Il padre di famiglia. Governo della casa e governo civile nella tradizione dell'economicá tra cinque e seicento*. Bulzoni, Roma, 1985.
- GARATE, M.: *La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Doctor Camino, Donostia, 1990.
- GARCÍA DE CORTÁZAR, J.A.: "El fortalecimiento de la burguesía como grupo social dirigente de la sociedad vascongada a lo largo de los siglos XIV-XV", *La Sociedad Vasca rural y urbana en el marco de la crisis de los siglos XIV y XV. II Symposium sobre Historia del Señorío de Vizcaya*, 1974, 285-312. orr.
- . *Introducción a la historia medieval de Alava, Guipúzcoa y Vizcaya en sus textos*. Txertoa, Donostia, 1979.
- . "La sociedad guipuzcoana antes del Fuero de San Sebastián", *El Fuero de San Sebastián y su época*, EI-SEV, Donostia, 1982, 89-111. orr.
- GARCÍA DE VALDEAVELLANO, L.: *Curso de Historia de las Instituciones Españolas*. Alianza, Madrid, 1986.
- GAUTIER DALCHÉ, J.: "Les péages et les produits commercialisés dans les Pyrénées Occidentales pendant les XII^e et XIII^e siècles", *El Fuero de San Sebastián y su época*, EI-SEV, 1982, 235-252. orr.

- GARMENDIA, J.: "Historia abreviada de los primeros veinte años de la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas", *BRSVAP*, 1984, 561-624. orr.
- GELABERT, J.E.: "El Siglo de Oro. Economía y Sociedad", *Historia de España*, t. 5. Planeta, Madrid, 1988.
- GÓMEZ PIÑEIRO, F.J.: *Geografía de Euskal Herria*. Oikos-Tau, Barcelona, 1985.
- GOÑI LARRAÑAGA, J.: "La revolución francesa en el País Vasco: La Guerra de la Convención (1793-1795)", *Historia del Pueblo Vasco*, t. 3. Erein, Donostia, 1979.
- . "Guipúzcoa en la Paz de Basilea (1795)", *Homenaje a Tellechea Idígoras. BEHSS*, 16-17, 1982-1983, 761-803. orr.
- GOROSABEL, P. de: "Curiosísima relación de la costa y puertos de la provincia de Guipúzcoa", *Euskalerría*, LVI, 1907, 385-407. orr.
- . *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1967.
- . *Diccionario histórico, geográfico, descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías, uniones de Guipúzcoa, con un apéndice de las Cartas Pueblas y otros documentos importantes*. LGEV, Bilbo, 1980.
- . GUILLAMÓN ÁLVAREZ, F.J.: *Las reformas de la administración local durante el reinado de Carlos III*. Instituto de Administración Local, Madrid, 1980.
- . "La creación de los diputados y personeros del común", *Cuadernos de Investigación histórica*, 1.
- HERNÁNDEZ MARCO J. L.; PIQUERO ZARAUZ, S.: "Informe sobre el estado de la cuestión demográfica vasca (1500-1850)", PÉREZ MOREDA, V.; REHER, D. S.: *Demografía histórica en España*. Ed. Arquero, Madrid, 1988.
- HESPANHA, A.M.: *História das instituições. Epoca medieval e moderna*. Livraria Al-Medina, Coimbra, 1982.
- HINTZE, O.: "Formazione degli stati e sviluppo costituzionale. Studio storico politico", *Annali del ISIG*, Trento, IV, 1978, 217-234. orr.
- *Historia de las Juntas y la Diputación Foral de Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1992.
- HUXLEY, S.: "Los balleneros vascos en Canadá entre Cartier y Champlain", *BRSVAP*, XXV-XXXVI, 1979, 4-24. orr.
- . "Unos apuntes sobre el papel comercial de la mujer vasca en el siglo XVI", *Cuadernos de Sección Antropología-Etnografía, EI-SEV*, 1, 1982, 159-167. orr.
- . "Los vascos y las pesquerías trasatlánticas, 1517-1713", *ITSASOA*, vol. 3. Etor, Donostia, 1987.
- IMAZ, J.M.: *La industria pesquera en Guipúzcoa a final del siglo XVI*. Imprenta de la Diputación, Donostia, 1944.
- INSAUSTI TREVIÑO, S.: *Las parroquias de Guipúzcoa, 1862*. CAP, Donostia, 1964.
- IRIGOYEN, F.: "Ermitas e iglesias de Guipúzcoa", *Anuario de Eusko Folklore*, 1934, 9-92. orr.

- LABAYEN, F.M.: "La pesca como medio de vida y su derivación deportiva en las regatas", *Vida Vasca*, XXXII, 1955, 121-127. orr.
- . "Orio", *Vida Vasca*, XXXIV, 1957, 117-127. orr.
- LABAYRU, E.: "Relación de los navíos que hay en la provincia de Guipúzcoa, 1534", *Historia General del Señorío de Vizcaya*, IV, 719-733. orr.
- LABURU, M.: "Naves vascas del siglo XV", *ITSASOA*, II, 221-248. orr.
- LACARRA, J.M.: "Tres documentos del siglo XII referentes a Guipúzcoa", *BRSVAP*, 1949, 424-425. orr.
- LOUSSE, E.: *La Societé d'Ancien Régime. Organisation et représentation corporatives*. Ed. Universitas, Louvain, 1952.
- MACÍAS DELGADO, J.: *El motín de Esquilache a la luz de los documentos*. Centro de Estudios Constitucionales, Madrid, 1988.
- MADDOZ, P.: *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. Madrid, 1845-1850.
- MARÍN PAREDES, J. A.: "Semejante Pariente Mayor". *Parentesco, solar, comunidad y linaje en la institución de un Pariente Mayor en Gipuzkoa: los señores del solar de Oñaz y Loyola (siglos XIV-XVI)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1998.
- MEÑACA, Mme de: "Implicaciones comerciales del Camino de Santiago en la zona donostiarra y guipuzcoana", *El Fuero de San Sebastián y su época*, EI-SEV, 1982, 193-216. orr.
- MOZZARELLI, C.: *'Familia' del Principe e famiglia aristocratica*. Bulzoni, Roma, 1988.
- MUGARTEGUI, I.: *Estado, Provincia y Municipio. Estructura y coyuntura de las Haciendas Municipales Vascas. Una visión a largo plazo (1580-1900)*, IVAP, Oñati, 1993.
- NÁJERA, M.: "El comercio a través del puerto de Bilbao (1800-1825)", *Historia de la Economía Marítima del País Vasco*, Txertoa, Donostia, 1983.
- NAVAJAS LAPORTE, A.: "Aproximación a las instituciones jurídicas guipuzcoanas, siglos XVII-XVII", *BRSVAP*, 1982, 59-83. orr.
- ODRIOZOLA, L.: "Oria ibaiako ontzigintzaren bilakaera historikoa", *Oria ibaiako ontziak*, Ontzi Museoa, 1994.
- . *La construcción naval en Gipuzkoa: s. XVIII*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1997.
- ORELLA UNZUÉ, J.L.: *El régimen municipal en Guipúzcoa en el siglo XV*. CAP, Donostia, 1982.
- OTAEGI ARIZMENDI, A.: *Gerra eta hazienda lokalaren krisia. Udal ondasun eta propioen salmentak, 1764-1814*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991.
- PEÑA SANTIAGO, L.P.: *Las ermitas de Guipúzcoa*. Txertoa, Donostia, 1975.
- PIQUERO ZARAUZ, S.: *Demografía guipuzcoana en el Antiguo Régimen*. UPV-EHU, Bilbao, 1991.
- PORTILLO VALDÉS, J.M.: *Monarquía y gobierno provincial. Poder y constitución en las Provincias Vascas (1760-18-08)*. Centro de Estudios Constitucionales, Madrid, 1991.

- RODRÍGUEZ, L.: "El motín de Madrid de 1766", *Revista de Occidente*, 121, abril-mayo 1973, 24-49. orr.
- RUIZ DE LA PEÑA, J.I.: "Las solidaridades vecinales en la Corona de Castilla (siglos XII-XV)", *XIX Semana de Estudios Medievales (Estella): Cofradías, Gremios y Solidaridades en la Europa Medieval*, 1992, 51-73. orr.
- SEOANE, M. de: "Relación de constructores naturales de la provincia de Guipúzcoa". *Euskal Erria*, LVII, 1907, 368-371. orr.
- SOLLUBE, I.: *Descripción gráfica de la costa vasca*. Zarauz, Itxaropena, 1961.
- SORIA, L.: *Derecho municipal guipuzcoano. Categorías normativas y comportamientos sociales*. IVAP, Oñati, 1992.
- . "La función judicial en los municipios guipuzcoanos en la Edad Moderna", *Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense*, 77, 295-320. orr.
- TELLECHEA IDÍGORAS, J.I.: "Datos demográficos sobre Guipúzcoa (1733)", *BRSVAP*, 1971, 173-176. orr.
- . "El donativo voluntario de Guipúzcoa a la Corona (17-78)", *BRSVAP*, 1974, 125-151. orr.
- . "La iglesia en el País Vasco en los siglos XVI-XVIII", *II Congreso Mundial Vasco*, t. III, 1988, 339-351. orr.
- TRUCHUELO GARCÍA, S.: *El Gobierno urbano en la villa de Tolosa. Organización política interna y ámbitos de actuación del poder concejil*. Santander, 1994 (inéd.).
- . "Análisis de los principales rasgos políticos de la villa de Andoain en el Seiscientos", *Leyçaur*, 4, 1996, 9-97. orr.
- . *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1997.
- TRUCHUELO GARCÍA, S.; TRUTXUELO GARCÍA, M.: "Reglamentación política de las villas guipuzcoanas en la alta edad moderna: las Ordenanzas concejiles de Rentería, Tolosa, Hondarribia y Orio", *Vasconia*, 25, EI-SEV, 1998, 357-383. orr.
- TUCK, J.A., GRENIER, R.: "Establecimiento ballenero vasco del siglo XVI en el Labrador", *Investigación y Ciencia*, 64, enero 1982, 82-91. orr.
- ONTZI MUSEOA: *Euskal Herriko ontzigintza*. Ontzi Museoa, Donostia, 1998.
- URIARTE AYO, R.: "El tráfico marítimo de mineral de hierro vizcaíno (1700-1859)", *Historia de la economía Marítima del País Vasco*, Txertoa, Donostia, 1983.
- URIARTE, G. de: "Estructura económica", *Historia del País Vasco. Siglo XVIII*. Universidad de Deusto, Bilbo, 1985.
- URRUTIKOETXEA, J.: "Demografía histórica. Marco metodológico: referencias puntuales a la Guipúzcoa del siglo XVIII", *MUNDAIZ*, 19, 1981, 3-17. orr.
- . "Movilidad poblacional en la Gipúzcoa del siglo XVIII", *BEHSS*, 16-17 II, 1982, 569-602. orr.
- . *Análisis de los factores históricos y socio-económicos que hacen congruente la construcción de un puerto en la ría del Oria*. Donostia, 1984 (inéd.)

. 'En una mesa y compañía'. *Caserío y familia campesina en la crisis de la 'sociedad tradicional'. Irun, 1766-1845.* Mundaiz, Donostia, 1992.

- VICENS-VIVES, J.: *Historia General Moderna (siglos XV-XVII)*. Ed. Vicens-Vives, Barcelona, 1981.

- VILÁ VALENTÍ, J.: *La Península Ibérica*. Ariel Geografía, Barcelona, 1983.

- VILAR, P.: "El motín de Esquilache", *Revista de Occidente*, 107, febr. 1971, 199-249. orr.

- ZZ. AA.: *Orio: entre la ría y el mar*. CAM, Donostia, 1970.